

L. AKESOLO

IDAZLAN GUZTIAK

KARMEL SORTA
Zuzendari: Julen Urkiza

© *Ediciones El Carmen* (KARMEL)
I.S.B.N.: 84-7305-069-X
Legezko Gordailua: BI-2007-92


Fotocomposición Didot, S.A., Nervión, 3-6.º - BILBAO

LINO AKESOLO

IDAZLAN GUZTIAK

Edizioaren prestatzaile:
JULEN URKIZA

Larrea - Zornotza
1992



KARMEL SORTA 1 ***

Argitalpen au Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren
laguntzarekin egin da

AURKIBIDEA

3. Liburua

AURKIBIDEA	7
SARRERA	11
I. Aita Lino Akesoloren ainbat eskuskribu	13
1. Eskuskribu ugari	13
2. Liburuki onetan argitaratzen diren eskuskribu barriak	14
3. Olerki eta bertsoen eskuskribuak	15
4. Liburuki onetan argitaratzen ez diran beste idazki batzu	15
II. L. Akesoloren bibliografia osoa	18
III. 3. Liburuki onen argitalpenaz	46

I

EUSKERA - LITERATURA - KRITIKA

Euskera eta gramatikaren inguruan

Senar-emazte ala esposoak?	51
Azkueren Iztegiari Eraskiña	55
Sintaxi-kasu bakantxo bat noren-zeren sailekoa. <i>Ghiristinho perfekzio- niaren pratika</i> liburua aztertuz	58
Baldintzazko adizkiak	62
Ailizko adizkiak	62

Gramatika ataltxoak	85
-ko atzizkiaren erabillera bi	102
Baldintzazko esaldi batzuen berezitasuna	106
Etimologi billa: Zeanuriko Undurraga eta Olibares.	113

Euskal idazleak

<i>XVI. mendea</i>	
Zer da Axularren <i>ekidinl.</i>	121
<i>XVII. mendea</i>	
Etxeberrí Ziburukoaren bertso bi argitzen.	126
<i>XVIII. mendea</i>	
Zer da Barrutiaren «aleizako»?	131
Neska Donibandar bat euskal-olerkari.	135
<i>XX. mendea</i>	
<i>Latsibi</i> argitara barriaz zeozertxo.	141
Belaustegigoitia euskeraren etorkizunaz kezkatua, euskal-ikasbide erra- zen egilea	146
Lauaxetaren ames eta asmo batzuk	153
Orixeren pentsamenduaren sintesia	155
Sabin Muniategi olerkaria (1912-1990).	168

Euskal literaturaren inguruan

Joan Kurutzekoa euskal literaturan	179
--	-----

II

EUSKERA ETA BIBLIA

Jaime Kerexeta, Bibliaren euskeratzalle	187
Liturji-itzulpenak dirala-ta	191

IV

KONDAIRA ETA BIOGRAFI-ARTIKULU ETA OARRAK

Pedro Madariaga, XVIgarren mendeko euskaldun euskalzalea Erdalerrian	197
Pio Baroja	212
Akesolo-tar Lino, edeslaria (alkarrizketa).	220

Lino Akesolo: batuaz erdara indartzen da (alkarrizketa)	225
Lino Akesolo Derioko Udako Euskal Ikastaroan omendua (alkarrizketa)	228
Lino Akesolo, cinco décadas de trabajo en torno al euskera (alkarrizketa)	234
Dimako eguna	237
«Eskerrik asko» bikotxa	240
Karmeldarrak Iruñan orain lareun urte	242
Karmeldarrak Euskalerrian gizaldiz gizaldi	248
Orain eun urte: Toledoko Illgarren Kontzilioa (589) euzkeraz	262
Bilboko iru agurlekuak	267
Loiolako santua bidez bide eta euskaldun bat	271
Iñazio deuna eta euskal kultura	275
Santu eta euskaldun: M. Garikoits donea	291
Santiago bideko euskal-kantak	298
Kristo'ren jaiotza eta «jaiotzak»	304
Fededunen arbasoa, euskal antzerki eta opera	311
Siberian zigor-lekuetatik santutasunera: Errapel Kalinoxvski deuna, poloniarra	327

V

LIBURUEN BARRI-EMOTEAK

Diccionario de Autoridades del Euskera	335
Nola sortua eta burutua den gure Iztegia	339
Presentación	345
Hitzaurrea. Irakurleari zertxobait	347
Aurkezpen gisa	348

VI

BERTSO ETA OLERKIAK

A. Bertso jatorrak	353
B. Itzulpenak	375

VII

KRONIKARI

A. Begoñako Karmelo-komentuko kronika (bi adibide)	415
B. Begoñako Karmeloko nekrologiak edo bizitza laburrak (bi adibide)	427

IZENEN AURKIBIDEA	435
-----------------------------	-----

SARRERA

1991.eko irailaren 17ko goizaldean izandako Aita Lino Akesoloren eriotzeak, azkena emon eutson beraren literatura eta kultura iarduera oparoari. Beraren idazkiak jasoten dituen bi liburuki 1989.ean argitaratu ostean, eldu da, irugarren ale onetan, idatzi zituen gainerako idazkiak argitaratzeko unea.

Azken liburuki onek, beraren azken iru urteetako iarduera eta beraren gelako paper eta eskuskribu ugarien artean aurkitutako leenagoko idazlan batzu batzen ditu. Liburuki onen bidez omenaldia eskaini gura deutsogu euskal letretan ain gizon andia eta jakintsua izan zanari.

I. AITA LINO AKESOLOREN AINBAT ESKUSKRIBU

1. Eskuskribu ugari

KARMEL aldizkarian (1991-4) Aita Linoren eriotz osteko barriak jasoteko idatzi neban idazlanean beraren gelan aurkitutako artxibategien egoera aztertu neban. II-terakoan eskuskribu ugari itzi deuskuz L. Akesolok, pakete, kutxa, kartazal, liburu eta abarretan. Idazlan eta liburu geiago argitaratzeko adina gai eukan batuta..., baina bera ez zan orretara emona...; zirikatu bearra izaten eban, berarekin egitasmoa eginda gero, beti gertu izaten zala lanerako.

Ainbat agiri eta paper itzi deuskuz naastuta, baina ondo gordeta.

Bere dokumentu pertsonalak eta beste batzurenak

Toki ezbardinak arakatuz, Aita Linoren dokumentu pertsonalen karpeta bat batzea lortu dogu: aren jaiotzari buruzkoak, gerratekoak (gudarien kaperautza, gartzela-epaia, gartzelako bizitza, irteteko baimenak, Lauzurika apezpikuari egindako esku-titza, etab.). Probintzialaren naiz apezpikuaren agiri batzu, telegramak, medikuen diagnostikoak, etab.

Aren paperen artean dagoz A. Rafaelen (Sotero Urionaguenaren) agiriak, batez bere gerrate zibilaren kontaketa dakarren koadernuak.

Berari bidaldutako eskutitz ugari bere gorde izan deuskuz, baina ez guztiak.

A. Hipolitoren (Larraikoetxearen) lanak bere gorderik zituen... baita beste idazle batzuren literaturazko lanak bere.

Eskuz idatzitako koadernu eta paper solteak

L. Akesolo irakurle porrokatua zan eta, beraz, jakintzaren gordailu agortezina... Onetaz jabetzeko naikoa da eskuz idatzirik dituen koadernu piloari begiradaxo bat egitea. Bere bizitza zear irakurten eban edozeren ideiarik nagusienak, oarrak etab. idazten joan zan, euskal literatura klasikoari dagozkiozanak batez bere. Onela 178 koadernu normal eta 173 txikitxo bete zituen; eurotan euskal idazle klasikoei buruzko oarrak eta interesgarritzat jotzen eban edozeineri buruzkoak idazten zituen.

Gainera, milaka paper eta papertxo gorde izan zituan, ia guztiak zikin-paperak.

Eskuskribudun liburu eta egunkari-zatiak

Aren gelan eskuskribu, oar eta idazkiak dituen ainbat liburu aurkitu dira; esaterako, aitagarriak dira, beste batzuren artean bederatzi liburukitako bere *Hiztegi* andian ia 900 orrialdetan agertzen direnak. Baina ez eban ori egiten, bere gelan zituen liburuetan bakarrik; Karmeloko euskal liburutegiko liburu askotan sakabanaturik geratu dira berak, geienetan lapitzez, zerbait geitzeko, zuzentzeko, osatzeko etab. idazten zituen oartxoak. Berak erosi eta erabili ostean liburutegira eroandako liburuak dira.

Beste gauza bitxietariko bat, bere bizitzan zear batu eta gorde zituen egunkari-zatitxoei dagokiena da: orrela 23 koadernu lodi eta karpeta osotu zituan egunkari-zatiak erabiliz. Zatiotan danetarik dago, geien bat kultura-gai eta euskal literaturari dagokiozanak badira bere...

Idazlan eta antzinako euskal liburuen fotokopia mordo andia bere batu eban.

Koadernu, paper, egunkari-zati eta fotokopien artean euskal bertso eta olerkiak txitean pitean aurkitzen dira.

2. Liburuki onetan argitaratzen diren eskuskribu berriak

Ilterakoan A. Lino Akesolok itzitako paper ugarien artean, argitara emon bako idazlan batzu egozan; azken urteetan idatzitako idazlanak edota emondako berbaldiak dira, baina, badira leenagoko garaietakoak bere:

- Senar-emazte ala esposoak?
- Azkueren Iztegiari eranskina.
- Baldintzazko adizkiak.
- Gramatika-ataltxoak.
- Baldintzazko esaldi batzuen berezitasuna.
- Zer da Axularren Ekidin?
- Lauaxetaren ames eta asmo batzuk.
- Orixeren pentsamenduaren sintesiaz (Karmel 1992-1, 3-26).
- Jaime Kerexeta, Bibliaren euskaratzaile.
- Liturji-itzulpenak dirala-ta.
- Pedro Madariaga, XVI. mendeko euskaldun euskalzalea erdalerrian.
- Pio Baroja (Karmel 1992-2, 91-103).
- Nola sortua eta burutua den gure Iztegia.
- Diccionario de Autoridades del euskera.
- Presentación [del Diccionario (Amaya)].
- Aurkezpen gisa.

Ezin ditugu aaztu, era berean, berak egindako olerki eta bertso ugariak zein itzulitakoak, eta komentuko kronista modura egindako lanak.

3. Olerki eta bertsoen eskuskribuak

Aita Linok euskal olerkigintzaganako zaletasun andia izan eban: beraren ainbat koadernu, idazle klasiko zein modernoek euskal bertsoz beterik dagoz. Koadernu bat Carmonan espetxeratuta egon zen garaikoa da, bertan ainbat olerki (Zaldubi, Elizanburu, J. Barbier, Larralde eta abarrenak) kopiaitu zituela; koadernoaren azalean «Carmona III-1940» jarri eban Aita Linok.

Baina, badauka eskuskribu oso bitxi bat bere. Aita Linok, bere bizitzako azken urteetan, bere bertsoak zein olerki itzulpenak batu zituen argazki album zaar batetan: album-ak 33 orrialde lodi (266 X 202 mm.) ditu, leen biak izan ezik beste guztiak idatzita dituela. Badirudi eskuskribu bakarrean batu gura izan zituela ainbeste paper txikitik sakabanatuta eukazan erdigaldutako bertsoak. Eskuskribu honek ainbatetan erraztu egin deusku beraren bertso lanak batzea. Eskuskribu au ia oso-osorik argitaratzen dogu, bertan dakarren ordenari jarraituz, berak sortutako bertsoen eta beste izkuntzetatik itzulitakoen artean sailkaketa eginez.

Aita Akesolo bertsozalea izan bazan bere, ez zituen bere kabuz idazten alako bertso edo olerkiak, jaiak, ibilaldiak, urtebetetzeak etab. zirela, beste norbaitzuk, eskatuta baino; ortik datorkie itxura oso errazean eta jolas-giroan eginak izatea.

4. Liburuki onetan argitaratzen ez diran beste idazki batzu

Aita Linoren eskuskribuen egoerari buruz emondako argitasunak kontutan artuz, garbi ikusten da ezinezkoa jazoten dala beraren paper-eskuskribu guztiak argitaratzea emotea.

a) *Jakintzale baten paperak*

Aita Linok, andiak eta txikiak pilatuz, eundaka koademu itzi euskuzan. Geienak literatura arloko oarrak, zirrimarrak, euskal idazle klasikoen milaka aitaketa dira, egin eginean bere, berak liburuak irakurri eta idatziz jasoten zituen zirrimarra eta oarrak. Koadernuokaz aparte berak idatzitako hainbat mila orrialde eta papertxo; sarritan ia irakurtezinak.

Argitaratzen ez ditudan idazlan-eskuskribu batzu gogora ekarri gura ditut; ge-roago aitatuko ditudan gramatika eta istoriari buruzko gaiez gainera, onakook azpi-marratu bear dira:

— *M. Lekuona, euskaltzain.*

Makinaz sei orrialdetan eginiko idazlana. Lan au, izenburu berbera eukala (ik. *Idazlan guztiak*, 684-693. orr.) 1977-1978.ean argitaratutakoaren antzerakoa (laburragoa) da.

— Baditu beste lau orrialde idatzi bere, izenbutu bakoak, eurei buruz bere «M. Lekuona, euskaltzain» idazlanari buruz esanbarri doguna errepikatu daitekeela.

— «Ilarío Soloeta Amorrortu Abade agurgarri zanari Omenaldia». Iru orrialde dira. Euron antzerako idazlana argitaratu genduen (ik. *Idazlan guztiak*, 1071-1073, 1073-1076).

— 14 orrialde, euron artean 9 alde bietatik idatziak. Eskuz idatzitako idazlan-zirriborroa da, sarritan ulertezina dana. Izenburu-bakoa, gazteleraz idatzitako idazlan edo berbaldi au, Pedro Ignacio Barrutia-ren *Acto para la Noche Buena* lanaren aurkezpen bat da. Lino Akesolok leenago bere argitaratua dauka laburrago eta euskaraz idazlan onen edukina (ik. *Idazlan guztiak*, 260-267).

b) *Euskal gramatikari buruzko gaiak*

Badauka, Euskaltzaindiko gramatika batzordeko bilera ugarietarako idatzi zituen euskal gramatikari buruzko gaien orri-zirriborro piloa bere. Idazlan labur edo oarron arteko batzu osorik gorde dira; beste batzu, ostera, erdi-osorik. Liburuki onetan batzu argitaratzen ditut bakarrik.

c) *Istoriako irakaslea*

Begoñako Karmeloko teologiako ikastetxean istoriako irakasle izan zan garaian ikasleentzat erabilten zituen ainbat orri ditu gordeta (gazteleraz): Karmengo Ordena, Eliza, Patrologia, espiritualitate eta abarren istoriari buruzko oarrak dira.

d) *Begoñako Karmelo kronika*

Aita Linoren beste zereginetako bat Karmeloko etxeko kronikak egiteko lana izan zan: orrela, kronista lanean jardunez eginiko 39 urteei (1942-1966, 1975-1990) buruz, eskuz oso ondo idatzitako 90 orrialde inguru ditugu. Kronista eginkizun orri

dagokio, baita bere, ilten ziran erlijiosoen biografia laburrak idaztea. Orrela, Be-goñako Karmeloko erlijiosoen nekrografia ugarien artean aukeratutako bi argitaratzen ditut literatur iarduera onen lagin modura. Gogoan artu bear da kronista iarduera au gazteleraz egin ebala.

e) *Eskutitzak-agiriak*

Liburuki onetan ez dira argitaratzen, batzutan priore zala idatzi zituen eskutitz eta agiriak; ainbatetan euskal letretako idazle modura ain agerikoa eukan nortasunetik kanpokoak direlako.

II. L. AKESOLOREN BIBLIOGRAFIA OSOA

Bigarren kapitulu onetan, leen liburukian (ik. *Idazlan guztiak*, XXXVII-LIV) argitaratutakoei dagokiezan zuzenketak eta geiketak jasoten ditut. Orain, bibliografia askozaz osotuago geratzen da, argitalpen aretatik eriotzerarte, ainbat idazlan idatzi zituen eta; orretaz gainera, naiko ugariak izan dira beraren paperen artean aurkitutako bestelako leenagoko idazlanak bere. Orduan 328 izenburu emoten banituen, oraingo bibliografia onetan 448 jasoten ditut.

Sarrera onen sail onetan urtez urte aurkeztuko dogu A. Lino Akesolok non zer idatzi izan dauan bere bizian. Bibliografia onetan 448 titulu ditugu, berak sortutako lanenak, euskerara itzuli dituenak, etab.

Bibliografia onetan zertxo bi dagoz nabarmengarri eta eurok azpimarratu nai neukez: idazle onek erabilli izan dauan ez-izen kopurua, eta berak idatzi izan dauen aldizkarien zerrenda.

Ez-izenak

Erabilli dituen ez-izenak badauke zer ikusia artikuluen luzeerarekin eta idaztan-kerarekin. Ez darabil idazkera bardiña artikuluko guztietan. Egunkarietan labur idazten dau, eta askotan ez-izenpean, aldizkarietan, barriz, askotan idazten dau luze eta artikuluko serioagoak: azter-lan, kritikak eta abar, ia beti bere izenpean.

Ez-izenek izenpetutako artikulukoak 57eraño jotzen dabe, ia guztiak laburrak. Artikulu laburrik naikoa dau bere izenaren lenengo letrakaz izenpetuta (L.A.), eta iñoz L.A.A. ere bai.

Ona, bada, Akesolok erabilitako ez-izenen zerrenda eta zenbat bidar erabilli dauan: *Nonzeberri* edo *-berri* (10 bidar), *Basabil* (11), *Berriketari*, *Berrikari* edo *Berrilari* (7), *Axmutil*(6), *Amuxalde* (A), *Andoni Zubero* (3), *Asnuma*(3), *Nitanor* (3),

Non zer (2), *Eli* (2), *Ile* (\), *Nor tani*(\), *Goierrialde* (1), *Oba* (1), *Ugariosko txoria* (\), *Geu* (1).

Gerra aurrean lau bidar erabili eban ez-izena. Ez-izenik geien erabili izan eban aldia 1962tik 1976ra inoia dau. Eta ez-izenik geienez idatzi izan dauan aldizkariak: *Zeruko Argia* (15 bidar: *Nonzeberri*, 9, *Basabil* 6, *Berrilari* 1, *Amuxalde* 1), *Goiz-Argi* (10 bidar: *Berrikari* 2, *Eli* 2, *Non zer* 2, *Nonzeberri* \, *Ile* 1, *Berrilari* 1, *Basabil* 1), *Agur* (6 bidar: *Nitanor* 3, *Goierrialde* 1, *Ugariosko txoria* 1, *Andoni Zubero* 1), *El Diario Vasco* (5 bidar: *Asnuma* 3, *Berrikari* 2), eta abar.

Ez-izen oneen argibiderik ez dogu emen emoten, artikuluan bakoitzean ipiñiko ditugu-ta.

Gogoratu bearra dogu au ere: ez genduela guk ainbat ez-izendun artikulurik aurkitu eta jasotzerik izango, Akasolok berak, bere oroimenari esker, bakoitzaren barri emon izan ez baleusku. Bestela, ez genduan ezer egiterik.

Aldizkariak

Guztitarra 305 artikulutaraino aurkitu deusguz, 31 aldizkari edo egunkaritan argitaratuta. Ona aldizkari eta egunkari orreen zerrenda, eta bakoitzean zenbat artitulu argitaratu dauan:

Karmel 80, EDV 41, Z-Argia 23, BRSVAP 21, S-Naski 19, Zer 16, G-Argi 15, RE 13, JD 9, Agur 7, Euskera 6, Olerti 6, Egan 5, K-Argia 5, Kandaberaz 4, RIEV 4, Euskerazaintza 5, JBD 3, KAEgutegia 3, Anaitasuna 2, BISS 2, Jakin 2, E-Esnalea 1, El Carmen 1, E-Gogoa 1, Gerediaga 1, Aranzazu 1, Mundaiz 1, PVV 1, Vínculo 2, VN 1, BOSJN 1.

Bere bizitzako gorabera batzuk esango deuskue zegaitik idatzi dauan leku batzuetan besteetan baino geiago. Esaterako, 1969tik 1972ra Donostian bizi izanak argitzen deusku zergaitik idazten dauan orduan beste inon baino geiago *Zeruko Argia-n*, *El Diario Vasco-n*, *Egan-en*, etab.

Bilbon dala, naiko idatzi dau 1962tik 1969ra BRSVAP-en eta RE-n; 1973tik 1976ra, Markiñan dala, *Goiz-Argi-n*... Azkenengo 14 urteotan, aldizkarien zuzendariak eskatzen izan deusoen neurrian, *Karmel*, *Zer* eta *Saski-naski-n*, etab.

Bibliografia onetan ikusi daiteke bizi guztian zearreko lana, lan jarraitua izan duala Akasolok idaztea, gerrate osteko 15 urteko etena kendu ezkeru.

LABURDURAK

<i>Agur</i>	<i>Agur.</i> (Illerokoa, amabosterakoa, asterokoa). Bilbao.
<i>Anaitasuna</i>	<i>Anaitasuna.</i> (Amabosterokoa). Bilbao.
<i>Aranzazu</i>	<i>Aranzazu.</i> «Publicación mariana del Santuario de Aranzazu, Oñate». (Illerokoa).
ASFV	<i>Anuario del Seminario de Filología Vasca</i> «Julio de Urquijo». Donostia.
BISS	<i>Boletín de la Institución «Sancho el Sabio».</i> (Urterokoa). Gasteiz-Vitoria.
BOSJN	<i>Boletín Oficial de la Provincia de S. Joaauín de Navarra de Carmelitas Descalzos.</i> (Gasteiz).
BRSVAP	<i>Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País.</i> (Iru-illerokoa). Donostia.
EDV	<i>El Diario Vasco.</i> Donostia.
<i>Egan</i>	<i>Egan.</i> «Suplemento de Literatura dei Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País». (Bi-illerokoa). Donostia.
<i>El Carmen</i>	<i>El Carmen.</i> (Illerokoa). Jxuña.
<i>E-Esnalea</i>	<i>Euskal-Esnalea.</i> «Revista de la sección de Lingüística y Literatura Vascas de 'Euskalerrriaren Alde'». (Illerokoa). Donostia.
<i>Euskera</i>	<i>Euskera.</i> Euskaltzaindia'ren lan eta agiriak. (Iru-illerokoa, sei-illerokoa). Bilbao.
<i>Euskerazaintza</i>	<i>Euskerazaintza.</i> Euskeraren Erri Akademia. (Iru-illerokoa). Donostia-Bilbao.
<i>E-Gogoa</i>	<i>Euzko-Gogoa.</i> (Bi-illerokoa). Guatemala-Baiona.
<i>G-Argi</i>	<i>Goiz-Argi.</i> (Asterokoa). Donostia.
<i>Gerediaga</i>	<i>Gerediaga.</i> Durango.

<i>Jakin</i>	<i>Jakin.</i> (Iru-illerokoa). Aranzazu-Donostia.
JBD	<i>Jesus'en Biotzaren Deya.</i> (Illerokoa). Bilbao.
JD	<i>Jaunaren Deia.</i> (Iru-illerokoa). Lazkao.
KA <i>Egutegia</i>	<i>Karmen'go Amaren Egutegia.</i> Larrea-Amorebieta.
K- <i>Argia</i>	<i>Karmen'go Argia.</i> «Karmeldar Abak argitalduten daben ille- roko aldizkaria». (Illerokoa). Larrea-Amorebieta.
<i>Karbaderaz</i>	<i>Kardaberaz.</i> Tolosa.
K- <i>Bilduma</i>	<i>Kardaberaz-Bilduma.</i> Tolosa.
<i>Karmel</i>	<i>Karmel.</i> (Bi-illerokoa, Iru-illerokoa). Larrea-Amorebieta.
<i>Mundaiz</i>	<i>Mundaiz.</i> «Revista crítica del libro universitario». (Lau-ille- rokoa). Donostia.
<i>Olerti</i>	<i>Olerti.</i> Iru-illerokoa. (Karmel'en olerti geigarria). Larrea- Amorebieta.
PVV	« <i>Príncipe de Viana</i> ». «Suplemento mensual de la revista, destinado al fomento del vascuence». Iruña.
RE	<i>Revista de Espiritualidad.</i> (Iru-illerokoa). Madrid.
RIEV	<i>Revista Internacional de los Estudios Vascos.</i> Paris-Donos- tia.
S- <i>Naski</i>	<i>Saski-naski.</i> (Illerokoa, Iru-illerokoa). Donostia.
VN	<i>Vida Nueva.</i> (Asterokoa). Madrid.
<i>Zer</i>	<i>Zer.</i> Bizkaitarrai-bizkaieraz. (Illerokoa). Bilbao.
Z- <i>Argia</i>	<i>Zeruko Argia.</i> (Asterokoa). Donostia.
<i>Vínculo</i>	<i>Vínculo.</i> Hojas informativas de San Joaquín de Navarra. (Ile- rokoa). Gasteiz.

1927-1936

Euskeraren edertasunak, E-Esnalea 17 (1927) 161-166.

M. CERVANTES, *Egure kezkatia*. [1930] esk. (Euskeratzaile: Lino Akesolo).

Gurutzeko Jon deunaren esakun mamintsuak, K-Argia 3 (1933), 209, 234, 313, 329.
(Euskeratzaile: L. Akesolo).

Donekuntza-bidea, K-Argia 3 (1933), 345-347, 370-372; 4 (1934) 12-14, 59-61, 118-120, 148-150, 169-171, 348-249; 5 (1935) 31-32, 213-215, 302-304; 6 (1936) 42-44. (Euskeratzaile: L. Akesolo).

Kristiñua-ikasbide-eguna Zornotza'n, K-Argia 5 (1935) 184-186.

Teresa Deunaren eriotza, K-Argia 5 (1935), 241-244.

Duruelo, K-Argia 5 (1935) 272-274.

1938

Salve, Mater [Agur, Ama!]. Salutationes B. Mariae tribus vocibus concinendae, in: JOSÉ DOMINGO DE STA. TERESA, *Cánticos a Nuestra Madre Santísima la Virgen del Carmen*, Bilbao 1941, 17-20. (Euskeratzaile: L. Akesolo); JOSÉ DOMINGO DE STA. TERESA, *Florilegio Musical Carmelitano*, Vitoria 1947, 13-15; KAE-gutegia 1 (1951) 88 bis. In: Aita ONAINDIA, *Milla euskal-olerki eder*, Larrea-Amorebieta 1954, 775.

1939-1940

Ortzean zear, in: *Idazlan guztiak*, I, XXV, orr. (1939-1940).

1944

Misas propias de la Orden Carmelitana, Pamplona 1944. 90 orr. (Latinetik erderara itzulia: L. Akesolo).

1951

Kantu batzuk. (Bertsoak), Esk. A, 61-62. (c. 1950-1960).

Ongi etorri. (Bertsoak), Esk. A, orri soltea. (c. 1950-1965).

En torno a unafecha centenaria, El Carmen 21 (1951) 182-184.

Aserre-egun (Lisboako egunkari baten II-XI-1951n agertua); in: Aita ONAINDIA, *Milla euskal-olerkieder*, Larrea-Amorebieta 1954, 774-775. (Euskeratzaile: Lino Akesolo).

Enau ni, Jauna, In: Aita ONAINDIA, *Milla Euskal-olerki eder*, Larrea-Amorebieta 1954, 773-774. (Euskeratzaile: L. Akesolo).

NICANOR DE JESÚS - Luis URTEAGA, *Himno oficial a la Virgen del Carmen [Agur, aintzazuri]*, [Bilbao 1951]. (Euskeratzaile: L. Akesolo). (KAEGutegia 1 (1951) 88 bis; Esk. A. 33.

1952

Resurrección María de AZKUE, «*Aspiraciones de Vida Eterna*», de N. M. Sta. Teresa de Jesús, a tres voces iguales, Vitoria [1952], 1-13 (*Vivo sin vivir en mí - Zeruan det nik bizia*). Euskeratzaile: L. Akesolo).

1953

Pastores, venid (Arin, artzaiak!), a cuatro voces, in: JOSÉ DOMINGODE STA. TERESA, *Villancicosfestivos a cuatro voces blancas*, Bilbao [c. 1953], 5-12 (Euskeratzaile: L. Akesolo).

Erdu Jesus ona. Jaun artzeko. (Bertsoak), Esk. A. 41. (1951).

1954

«*Euskalerraren adiskideak*» eta euskal-historia, E-Gogoia 5 (1954) 152-153.

Makillakizki, KAEGutegia 4 (1954) 72-73. (L. Akesolok konponduta).

Joxepa-ren larriak, KAEGutegia 4 (1954) 37-38. In: A. ONAINDIA, *Jolasketa*, Bilbao 1965, 222-223.

La Iglesia y el pecador. San Sebastián 1954. 278 orr. (Prantzesetik itzulia: Lino Akesolo).

1956

Fritz TILLMANN, *El Maestro llama*. San Sebastián 1956. 486 orr. (Alemanetik itzulia: Lino Akesolo).

Walter NIGG, *El secreto de los monjes*. San Sebastián 1956. 490 orr. (Alemanetik itzulia: Lino Akesolo).

1957

Arrese Beitiaren gomutaz, Karmel 1957-2, 13-16.

Juan SCHUCK-GUILLERMO NEUSS, *Historia de la Iglesia de Cristo*. San Sebastián 1957. 734 orr. (Alemanetik itzulia: Lino Akesolo).

MonicaBALDWiN, *Yosaltélatapia*. [1.ªed.] SanSebastian 1957. (Itzulpenakonpondu dabena: Lino Akesolo).

1958

Ipiña ta Ipiñitarren barri. Bilbao 1958. 35 orr. (Itzuli, konpondu eta geitu ebana: L. Alesolo).

Prólogo, in: Rosemary HOWARD-BENNET, *YO escogí el claustro*, San Sebastián 1958 9-15. orr.

1959

Edith STEIN, *La ciencia de la cruz. Estudio sobre San Juan de la Cruz*. San Sebastián 1958. 413 orr. (Alemanetik itzulia: Lino Akesolo) (¹1989, 26*-339 orr.).

Fritz TILLMANN. *Elementos de la moral católica*. San Sebastián 1959. 225 orr. (Alemanetik itzulia: Lino Akesolo).

Aita Konstantziori. (Bertsoak), Esk. A, 47. (1959).

1961

Antonia de Olaeta, mujer del Licenciado Andrés de Poza, BRSVAP 17 (1961) 432-434.

«Archimandrit SOPHRONIUS, *Starez Siluan, Mónch vom Berg Athos. Leben, Lehre, Schriften*. Dusseldorf, Patmos, 1959, 21 cm. 352 p.», RE 20 (1961) 556-557.

«VARJOS, *Aufsätze zur portugiesischen Kulturgeschichte*. I. Hgb. von Hans Flasche. Münster in Westfalen, Aschendorffsche Verlagsbuchhandlung, 1960, 24,5 cm., 449 p.», RE 20 (1961) 579.

1962

Euskal-egutegirik zarrena, JBD (1962, 17. zenb.) 23-24.

Euskerea antxiñako Yesuiten eskoletan, JBD (1962, 23. zenb.) 26-28.

Euskal-Esnale ta euskal-idazle. Yose Paulo Ulibarri, Okendo'ko semea. Olerti 4 (1962, 1-2. zenb.) 121-142.

JoséPablo de Ulibarri Galíndez (1775-1847), BRSVAP 18 (1962) 25-35.

Algo más sobre el escritor Ulibarri, BRSVAP 18 (1962) 415-421.

Testimonio de Aizauibel sobre el autor de «Gavon-sariac». Otra obra teatral más del Conde de Peñafloída, BRSVAP 18 (1962) 430-432.

A propósito de Barrendinda, BRSVAP 18 (1962) 433-435.

Erich PRZYWARA, *Criterios católicos*. San Sebastián 1962. 189 orr. (Alemanetik itzulia: Lino Akesolo).

«W. VOELKER, *Kontemplation und Ekstase bei Pseudo-Dyonisius Areopagita*. Wiesbaden, Franz Steiner, 1958, 25 cm., 262 p.», RE 21 (1962) 138-139.

«H.R. SCHLETTE, *Die Lehre von der geistlichen Kommunion bei Bonaventura, Albert dem Grossen und Thomas von Aquin*. München, Max Hueber, 1959, 24 cm. 226 p.», RE 21 (1962) 139-140.

«W. NIGG, *Heimliche Weisheit*. Zurich-Stuttgart, Artemis, 1959, 23 cm. 500 p.», RE 21 (1962) 151-152.

«G. BÚRKE, *Vom Mythos zur Mystik. Joseph Görres mystische Lehre und die romantische Naturphilosophie*. Einsiedeln, Johannes, 1958, 22,5 cm., 256 p.», RE 21 (1962) 156-157.

«M. VIANNEY WOLFER, O.C.S.O., *The Prayer of Christ according to the Teaching of St. Thomas Aquinas*. Washington, The Catholic University of America Press, 1958, 23 cm., X - 64 p.», RE 21 (1962) 637.

«VARIOS, *Angst und Schuld in theologischer und psychotherapeutischer Sicht*. Stuttgart, Ernst Klett, 1959, 22 cm., 186 p.», RE 21 (1962) 645.

«Lama ANAGARIKA GOVINDA, *Grundlagen tibetischer Mystik nach den esoterischen Lehren des Grossen Mantra*. Zurich und Stuttgart, Rascher, 1957, 21 cm., XVII - 357 p.», - *Foundations of TibetaoMysticisme*. London, Irdet & Co., 1959, 23,5 cm., 311 p.», RE 21 (1962) 645-647.

Au poza. (Bertsoak), Esk. A, 44. (1962).

1963

- Dos cartas del P. Uriarte, fundidas y mutiladas*, BRSVAP 19 (1963) 87-90.
«Elorri», Olerti 1963-3/4, 142-144.
- SANTA TERESA DE JESÚS, *On-bidea (Camino de perfección)*. Bilbao 1963. 279 orr.
(Euskeratzaileak: J. Onaindia - L. Akesolo).
- Ama Teresa otoizlarien irakasle*, in: SANTA TERESA DE JESÚS, *On-bidea (Camino de perfección)*, Bilbao 1963, 27-38.
- Jaime KEREXETA - Aita ONAINDIA, *Eguneroko meza*, Bilbao 1963, 859 orr.
(L. Akesolok ere parte artu eban).

1964

- ia zan Adabeal*, JBD (1964) 205-210.
[*Ez daiguzan gauzak nastu. (A. Villasanteri)*, 2 orr. esk., Z-Argiak ez eban argitaratu].
- Orain 68 urte. Egun gogoangarria Markiñan Azkue jaunaren itzaldia*, Z-Argia 27 (1964, 73. zenb.) 6.
- Orain 103 urte. Bertsozko estropadak. Santander alde Batetik, Bizkaia Bestetik*, Z-Argia 27 (1964, 74. zenb.) 8.
- Azken nobela bi: Latsibi ta Ortzuri. Noz argitaratzeko dira?*, Z-Argia 17 (1964, 75. zenb.) 4.
- Shakespeare Euskeraz. Bizkai'ko seme baten lana*, Z-Argia 27 (1964, 76. zenb.) 8.
- lurre, Ilario Soloeta'ren omenez*, Z-Argia 27 (1964, 88. zenb.) 4.
- Itzaldi luzeegiekin kontu*, Z-Argia 27 (1964, 91. zenb.) 3.
- Dos escritores vascos bilbaínos: Luis Iza y Juan de Izurategui*, BRSVAP (1964) 461-464.
- Una obra vasca ignorada: «Erle gobernatzalleen guidariya»*, BRSVAP 20 (1964) 367-374.
- «P.T. ROHRBACH, O.C.D., *Bold Encouter*. Milwaukee, Bruce, 1960, 21,5 cm. 224 p.», RE 23 (1964) 327.
- «V. TEPE, O.F.M., *O sentido da vida. Ascenso Cristá e Psicologia dinámica*. Salvador (Bahia), Mensageiro da Fé, 1960, 3.ª edic. 23,5 cm., 262 p.», RE 23 (1964) 331.
- «M. LACKMANN, *Credo Ecclesiam Catholicam. Evangelisches Bekenntnis gegen den Protestantismus*. Graz-Wien-Kóln, Styria, 1861, 21 cm., XX - 616 p.», RE 23 (1964) 334.

«H. ZIMMER, *Abenteuer und Fahrten der Seele. Der König mit dem Leichnem und andere Mythen, Märchen und Sagen aus keltischen und östlichen Kulturbereichen. Darstellung und Deutung.* Ziirich und Stuttgart, Rascher, 1961, 23 cm., 330 p.», RE 23 (1964) 341.

IRATZEDER - LERCHUNDI, *Salmoak*. Bilbao 1964. 262 orr. (Bizkaieratzaile: Lino Akesolo).

1965

Denok apez. Aldapeko'ri -taz atzizkia dela-ta, Jakin (1965, 19. zenb.) 93-96.

Pernando Amezketarra ta Garibai, Z-Argia 28 (1965, 124. zenb.) 6.

Migel Unamuno ta Migel deuna, Z-Argia 28 (1965, 135. zenb.) 3.

Dos notas autobiográficas de Resurrección María de Azkue, comentadas, BRSVAP 21 (1965) 35-63.

De bibliografía mogueliana, BRSVAP 21 (1965) 90-91.

Astarloa, poeta, BRSVAP 21 (1965) 95-100.

1966

Aldapeko jaunari nere azken-itza, Jakin (1966, 22. zenb.) 93-96.

Zirilo Arzubiaga «Jaungoiko-Zale» ta «kin»-ren biotz izan zana, Z-Argia [29] (1966, 179. zenb.) 1.

Primera versión castellana del primer libro impreso que se conoce en euskera, in: *La Gran Enciclopedia Vasca I* (Bilbao 1966) 355-370; *El primer libro impreso en euskera (año 1545). Reproducción facsímil...* Bilbao 1978, 73-88.

Mikel ARRUZA - Aita LINO - Andoni ARRAMBIDE, *Jo! Cómo aprender vasco*. Bilbao 1966. 80 orr.

Pedro de Madariaga, calígrafo y vascófilo, BRSVAP 22 (1966) 37-50.

Un cambio de apellido por traducción. Inchausti - Nocedad, BRSVAP 22 (1966) 122-123.

Azkue y Barrutia, BRSVAP 22 (1986) 361-367.

Pedro Madariaga. XVIg. mendeko euskaldun euskalzalea Erdalerrian. (Esk.) (c. 1966).

1967

- Sagarako itzak gure idazleetan*, JD 3 (1967) 143-144.
- Bergili-ren idazlanak osorik*, Oleriti 1967-1/2, 97-99.
- AitaBatiz, karmeldarren buru*, Z-Argia [30] (1967, 223. zenb.) 1.
- Atx-osterik Atx-ostera*, in: BITAÑO, *Atalak*, San Sebastián 1967, 15-25.
- Romanista y vascófilo ilustre: Carlos Augusto Federico Mahn*, in: *La Gran Enciclopedia Vasca 2* (Bilbao [1967]) 392-393.
- Un Diccionario vasco inserto en «Mémoires de laLangue Celtique», deBullet, 1775-1760*, BRSVAP 23 (1967) 141-147.
- Escritor vasco muerto en la batalla de Verdun: Clemente de Andurain*, BRSVAP 23 (1967) 440-443.
- Más escritores euskéricos del Duranguesado*, Gerediaga (1967, 11-12. zenb.) 4.
- «Jesús María de SASIA, *Toponimia euskérica de las Encartaciones de Vizcaya*. Bilbao 1966», Egan 26 (1967) 122-125.
- «*El libro de la Virgen*. Madrid 1964», BRSVAP 23 (1967) 471-472.
- Alfredo GOMEZ JAIME, *Illunsentian*, Oleriti 9 (1967, 3-4 zenb.) 92. (Euskeratzaile: Lino Akesolo).
- Jorge ISAAC, *Colombia*, Oleriti 9 (1967, 3-4. zenb.) 92-93 (Euskeratzaile: Lino Akesolo).
- L.C. LOPEZ, *Etokizuneko bertsoak*, Oleriti 9 (1967, 3-4. zenb.) 93 (Euskeratzaile: Lino Akesolo).

1968

- Arabako euskal abestiak direala ta*, Anaitasuna (1968, 169. zenb.) 6.
- Euskerazko leenengo liburua iru izkuntzatan*, Anaitasuna (1968, 171. zenb.) 9.
- R.M. Azkue zanaren frantzesezko itzaldi bat*, Karmel 1968-1, 67-68.
- Con Unamuno, fueron cinco los concursantes a la cátedra de vascuence que se adjudicó a Azkue*, BRSVAP 24 (1968)) 105-107.
- Aclarando: La H aspirada en Ohienart*, BRSVAP 24 (1968) 185-189.
- Fr. Bartolomé de Santa Teresa y su Plauto Bascongado*, BRSVAP 24 (1968) 357-376.
- Bernat DECHEPARE, *Olerkiak*. San Sebastián 1968, 200 orr. (Gaztelaniara itzuli, eta testua oraingo ortografiara aldatu dabera: L. Akesolo).

- Alfredo GÓMEZ JAIME, *Crepúsculo (Illusentian)*, in: *Parnaso colombiano en euskera. Kolonbiar olerti-txorta euskeraz*, Buenos Aires [1968], 106-107; Olerti 9 (1967, 3-4. zenb.) 92.
- Leon de GREIFF, *Canción de Sergio Stepanyk (Sergio Stepanyk'ren leloa)*, in: *Parnaso colombiano...*, 120-123.
- Cornelio HISPANO, *Gavillas de oro (Urrezko Azaok)*, in: *Parnaso colombiano...*, 130-137; Karmel 1991-2, 104-106.
- Jorge ISAACS, *Colombia*, in: *Parnaso colombiano...*, 140-141; Olerti 9 (1967, 3-4. zenb.) 92-93.
- Luis Carlos LÓPEZ ESCAURIAZA, *Versos futuristas (Etorkizuneko bertsoak)*, in: *Parnaso colombiano...*, 142-145; Olerti 9 (1967, 3-4. zenb.) 93.
- Obi baten.* (Bertsoak), Esk. A, 53. (c. 1968-1970).
- Mundurik mundu.* (Bertsoak), Esk. A, 53. (1968).

1969

- Azkue, euskaltzale*, Egan 28 (1969) 3-19.
- Bertsolaritza Fernando Amezetarraren garaian*, Egan 29 (1969), 3-24.
- Gure liburu zaarren saillean. Bozas-Urrutia'ri bi oartxo*, Egan 29 (1969) 157.
- Iratzederrek eta Lertxundik Salmoak berri*, Z-Argia [32] (1969, 315. zenb.) 4.
- Kataluña'tik. Sergio Vilar eta gure literatura, Enbeita zarraren bertso batzukkantuz*, Z-Argia [32] (1969, 317. zenb.) 3.
- Beloke'ko Amak eliza berria*, Z-Argia [32] (1969, 344. zenb.) 12.
- ¿La versión musical del Gernikako Arbola es laprimitiva?*, BRSVAP 25 (1969) 551-556.
- Escritor vasco y gran campeón de la lucha por su lengua vernácula: El alavés José Pablo de Ulibarri y Galíndez (1775-1847)*, BISS 13 (1966) 81-95.
- Suplemento al diccionarioprecedente*, in: Resurrección María de AZKUE, *Diccionario vasco-español-francés. Reproducción facsímil...* 2.t. Bilbao 1969, 491-493.
- Gabon zoriona.* (Bertsoak), Esk. A, 48 (c. 1969).
- Saldañako Ama nausi Grazianari.* (Bertsoak), Esk. A, 48 (c. 1969).
- Markinako Karmeldarren Jenaro nagusiari.* (Bertsoak), Esk. A, 49 (c. 1969).
- Aita Ipolitori.* (Bertsoak), Esk. A, 49 (c. 1969).
- Ongi etorri (Konstantzio etortean).* (Bertsoak), Esk. A, 49 (c. 1969).

1970

- Senar-emazte ala esposoak?* (Esk.) (c. 1970-1975).
- Azkueren Iztegiari eraskiña.* (Esk.) (c. 1970).
- Lauaxetaren ames eta asmo batzuk.* (Esk.) (c. 1970).
- Miguel de UNAMUNO, *En mi cuadragésimo aniversario (29-IX-1910)*, Egan (1970), 1-3. zenb.) 52; Karmel 1991-2, 101. (Euskeratzaile: Lino Akesolo).
- , *Agranda lapuerta, Padre*, Egan (1970, 1-3. zenb.) 52-53. Karmel 1991-2, 102. (Euskeratzaile: L. Akesolo).
- , *Al cumplir mis setenta y dos años (29-IX-1936)*, Egan (1970, 1-3. zenb.) 53. (Euskeratzaile: L. Akesolo).
- , *Golondrina peregrina (18-XII-1936)*, Egan (1970, 1-3. zenb.) 53-54; Karmel 1991-2, 103. (Euskeratzaile: L. Akesolo).
- Joannes Leizarraga. Testamentu berriaren leenengo euskeratzailea*, JD (1970, 33. zenb.) 271-285.
- Zabalegi, nekazari-eskola*, Z-Argia [33] (1970, 370. zenb.) 7.
- Euskera batuaren gorabeerak. Esa dezaket zerbait argiagorik?*, Z-Argia [33] (1970, 373. zenb.) 7, 11.
- Euskal-aditza. Bizkaiera. Egillea: Pedro Pujana*, Z-Argia [33] (1970, 404. zenb.) 7.
- Itsuen errian...! Ikusi nau ez duena errege!*, Z-Argia [33] (1970, 407. zenb.) 7.
- M. UGALDE, *Akesolo'tar Lino, edeslaria*, [Alkarrizketa], Z-Argia [33] (1970, 370. zenb.) 12.
- Sarrera gisa*, in: Joannes ETCHEBERRI, *Noelak eta kanta espiritual berriak*, San Sebastián 1980, 5-16. (Edizio Kritikoa, gaurkoortografian L. Akesolokparatua).
- Aita Konstanziari.* (Bertsoak), Esk. A, 50. (c. 1970).
- Andresa moja sukaldariari bere egunean.* (Bertsoak), Esk. A, 50. (c. 1970).
- Aita Konstanziari.* (Bertsoak), Esk. A, 51. (c. 1970-1971).
- Konstanziari bere berrogeigarren urte-egunean.* (Bertsoak), Esk. A, 52. (c. 1970-1972).
- Ongi etorri.* (Bertsoak), Esk. A, 52. (c. 1970-1972).
- Baltzolan, San Lontzo egunez, elizan.* (Bertsoak), Esk. A, 12. (c. 1970-1980).

1971

- Liturgi-itzulpenak dirala-ta.* (Esk.) (1971).
- Leizarragai omenaldia Beskoitzen*, EDV [38] (1971, 10.302. zenb.) 9.
- Gure Patroi Aundia*, EDV [38] (1971, 10.314. zenb.) 9.

- Yugoeslabia Andre Mariaren oiñetan*, EDV [38] (1971, 10.332 zenb.) 9.
- Testamentu Berriaren 400garren urteurrena*, EDV [38] (1971, 10.362. zenb.) 10.
- Julio Urkijo: Euskaldun berri ta karlista berri*, EDV [38] (1971, 10.444. zenb.) 9.
- Protestanteen euskerazko Bibli-itzulpenak, II*, JD (1971, 34. zenb.) 18-29.
- Katolikoan euskerazko Bibli-itzulpenak*, JD (1971, 35. zenb.) 85-102.
- Kardaberaz eta Bizkaia*, K-Bilduma - 1 (1971) 57-72.
- Atheka Gaitzeko ohiartzunak*, Z-Argia [34] (1971, 411. zenb.) 7.
- Baipekatari naiz. Orainsu atera diran bi liburu dirala-ta*, Z-Argia [34] (1971, 411. zenb.) 7.
- Noelak, ezNoela*, Z-Argia [34] (1971, 423. zenb.) 7.
- Oihenarten Atsotitzak eta Neurtitzak (Edizio berria)*, Z-Argia [34] (1971, 426. zenb.) 15.
- Aita Santuaren karta, Maurizio Roy kardenal Jaunari «Rerum Novarum» Enziklikaren larogeigarren urtean*, Z-Argia [34] (1971, 431. zenb.) 10-11; [34] (1971, 432. zenb.) 17-18; [34] (1971, 433. zenb.) 24; [34] (1971, 434. zenb.) 18; (Euskeratzaile: Lino Akesolo).
- Disertación del P. Aquesolo sobre la figura de Ulibarri*, Euskera 16 (1971) 35-48. (In: Jose Paulo Ulibarri Galindez-en «Gutun-liburua» izeneko eskuzkribuaren facsimil gisako argitalpena, Gasteiz 1975, V-XII).
- Gabonetan*. (Bertsoak), Esk. A, 46. (1971).
- Mañarian, Agustin abadearen eta Anastasio Barroeta medikuaren omenaldi egunean*, 71-X-3. (Bertsoak), Esk. A, 53. (1971).
- Etxe txiki bat*. (Bertsoak), Esk. A, 54. (c. 1971-1975).
- Seaska-abestia*. (Bertsoak), Esk. A, 54. (c. 1971-1975).
- Gora Azkoitia*. (Bertsoak), Esk. A, 55. (1971).
- Erromara bidekoak*. (Bertsoak), Esk. A, 56-59. (1971).

1972

- Irakurleari*, in: J. DUVOISIN, *Bible saildua*, 1. t. Bilbao 1972, IX-XIX.
- Ermutik Petralanda'ra*, Agur 3 (1972, 57. zenb.) 8.
- Euskalzaleen Batzar Gogoangarria*, Agur 3 (1972, 67. zenb.) 2; 3 (1972, 68. zenb.) 2.
- Mattin bertsolaria negarrez*, EDV 3 (1972, 10.467. zenb.) 9.

- Aita Mokoroaren liburu berria. Gaurko ta biarko euskera*, EDV [39] (1972, 10.491. zenb.) 9.
- Ezpata-legea, ala maitasun legea?*, EDV [39] (1972, 10.566. zenb.) 9.
- Urteurren ospetsua: Ama Kandida Mariarena*, EDV [39] (1972, 10.566. zenb.) 9.
- Euskaldunak eta gaskoiñak, bat?*, EDV [39] (1972, 10.601. zenb.) 9.
- Txapelgilleen zoroa*, EDV [39] (1972, 10.622. zenb.) 9.
- Gure bertsolariak erdal-idazle baten luman*, EDV [39] (1972, 10.734. zenb.) 8.
- Liburu berria: Neurritzia. Egille: Luis Egia apaiza*, EDV [39] (1972, 10.800. zenb.) 10.
- Joanes Leizarragaren garaia*, Euskera 17 (1972) 132-143.
- Mende ontako gure Bibli-itzulpenak*, JD (1972, 42. zenb.) 305-337.
- El Padre Cardaberaz en Alava*, BISS 16 (1972, 42. zenb.) 233-239.
- Non dan maitasuna? [Ubi charitas]*, Esk. A, 45; JD (1972, 392. zenb.) 128. (Euskeratzaile: L. Akesolo); *Erromako meza-liburua... Altarako liburua...*, Bilbo... 1984, 174-175.
- Pazko-kanta [Victimae Pascali]*, in: *Irakurgai-liburua, I, A urtea. Igandeak eta jaiegunak*, Bilbao 1972, 120. (Euskeratzaile: L. Akesolo). (Karmel 1978-2, 34).
- Espiritu Santua [Veni, Sancte Spiritus]*, in: *Irakurgai-liburua, I, A urtea. Igandeak eta jaiegunak*, Bilbao 1972, 151. (Euskeratzaile: L. Akesolo). (Karmel 1978-2, 34).
- Belenera*. (Bertsoak), Esk. A, 43. (c. 1972).
- Jaiki azkar*. (Bertsoak), Esk. A, 43. (c. 1972).
- Gabon jaietan*. (Bertsoak), Esk. A, 44. (1972).
- Urte barri zorionak*. (Bertsoak), Esk. A, 46. (1972).
- Belokera*. (Bertsoak), Esk. A, 59. (1972).
- Monte Carlora bidean*. (Bertsoak), Esk. A, 60. (1972).

1973

- Osotu gabeak. Arenaza jaunari*, Agur 4 (1973, 70. zenb.) 8.
- Batzar Gogoangarria*, III, Agur 4 (1973, 74. zenb.) 2.
- Aita Agustin Atutxa il da*, Agur 4 (1973, 103. zenb.) 6.

- Bakoitzari, eta Iraizoz aitari berea*, EDV 40 (1973, 11.850. zenb.). Suplemento dominical, 7. [JD (1973, 42. zenb.) 90-91].
- Bakoitzari berea*, EDV 40 (1973, 11.866. zenb.). Suplemento dominical, 11.
- Gizona gizonentzat, zer?'*, EDV 40 (1973, 11.898. zenb.). Suplemento dominical, 11.
- Andre Mariaren illari agur*, EDV 40 (1973, 11.939. zenb.). Suplemento dominical, 9.
- Jesusen Biotza, Kardaberaz eta Euskalerrria*, EDV 40 (1973, 11.962. zenb.). Suplemento dominical, 11.
- Gure Patroi Aundia eta Markuse*, EDV 40 (1973, 11.998. zenb.). Suplemento dominical, 7.
- Leizarragak ez zuen «libertorik» aipatu*, EDV 40 (1973, 12.040. zenb.). Suplemento dominical, 12
- Norentzat da arrikada ori?*, EDV 40 (1973, 12.055. zenb.). Suplemento dominical, 11.
- Aezkoa-ko Eguberriak jarraitzen ote dute?*, G-Argi, 14 (1973, 158. zenb.) 3-4. [PVV 8 (1973, 93-94. zenb.) 6].
- Eltzegor olerkaria (1908-1973)*, G-Argi, 14 (1973, 172. zenb.) 6.
- Andre Maria euskal-literaturan*, JD (1973, 44-45. zenb.) 261-92.
- Noiz erabili -tzaz atzizkia?*, Kardaberaz - 2 (1973) 55-58.
- No hay ningún carmelita detenido*, VN (1973, 905. zenb.) 3.
- Estibaliz*. (Bertsoak), Esk. A, 60 (1973).

1974

- Zuk zer dezu, Arantzazu?*, Agur 5 (1974, 139. zenb.) 2.
- Lau misio-kanta zaar (1838)*, Aranzazu 54 (1974) 120-122.
- Baroja eta Lisieux-ko Teresa donea (Bi urteurrenen ondoren)*, EDV 41(1974,12.101. zenb.). Suplemento dominical, 9.
- Naparroako «Mezetak» dirala-ta*, EDV 41 (1974, 12.131. zenb.). Suplemento dominical, 9.
- Villasante Aitaren «Axular-en hiztegia»*, EDV41 (1974, 12.149. zenb.). Suplemento dominical, 9. [Agur 5 (1974, 133, zenb.) 2].
- Gure Xabier doneari Parisen txalo*, EDV 41 (1974, 12.155. zenb.). Suplemento dominical, 9.

- Berri ere, gure Xabier doneari buruz*, EDV 41 (1974, 12.173. zenb.). Suplemento dominical, 9.
- Bizkaiko lege zarraz, liburu berri bat*, EDV 41 (1974, 12.238. zenb.). Suplemento dominical, 9.
- Kardaberaz Aitaren aztarnakMarkiñan*, EDV41 (1974, 12.310. zenb.). Suplemento dominical, 11.
- Bi buru eta bi aburu (zakur, otso eta azeri)*, EDV 41 (1974, 12.322 zenb.). Suplemento dominical, 9.
- San Martinen ospea*, EDV 41 (1974, 12.337. zenb.). Suplemento dominical, 11.
- Gipuzkoa ekaizpean (1520-1521)*, EDV 41 (1974, 12.352. zenb.). Suplemento dominical, 14.
- Euskal-idazle zarren bilduma (Kardaberaz aitarena)*, EDV41 (1974, 12.372. zenb.). Suplemento dominical, 11.
- Noren astakeriak, «Amatiño»?* , G-Argi 15 (1974, 203. zenb.) 5.
- Larresoro and company. Ez gauzak nastul*, G-Argi 15 (1974, 188. zenb.) 5.
- Aita Narziso, Lisieux Teresa donearen euskeratzaille. Goian Bego*, G-Argi 15 (1975, 189. zenb.) 6.
- Kontu adar-jotzailleekin eta Borbonkeriekin*, G-Argi 15 (1974, 207. zenb.) 5.
- Txotxolokeriak salatu eta txotxolokeriak egin*, G-Argi 15 (1974, 214. zenb.) 6.
- Artu Zuk, Jauna*, in: *Illeta kantak*, Bilbao-Donostia-Iruña 1974, 26-27. (Bertsoak).
- Erri-otoitzak. Barzelonako euskaldunen euskal-mezarako.* (Bertsoak), Esk. A, 36-37 (1974).
- Markinako moja karmeldarren Amari.* (Bertsoak), Esk. A, 46 (1974).

1975

- Zaragueta zanaren oroitzapenez*, EDV 42 (1975, 12.377 zenb.). Suplemento dominical, 7.
- Ulibarri (eta beronen gutunliburua)*, EDV 42 (1975, 12.585. zenb.). Suplemento dominical, 7
- Zaragueta Carmonan Besteiro ikusten (1940)*, G-Argi 16 (1975, 227. zenb.) 6.
- Lizardi eta Lauaxeta aztartzeko*, G-Argi 16 (1975, 231. zenb.) 5.
- Egia, berez da iraultzaille. «Lizardi» eta «Lauaxeta» ez dira sasikume-izenak*, G-Argi 16 (1975, 237. zenb.) 5.

- Eunurte-jaiak Beloke'n*, G-Argi 16 (1975, 261 zenb.) 3.
- Otoitza euskal-literaturan*, JD (1975, 50. zenb.) 36-57.
- Batasunera bidea eta Kardaberaztarrak*, Kardaberaz - 4 (1975) 39-41.
- Luis Mitxelena jaunari Errenderiara*, Kardaberaz - 4 (1975) 71-75.
- Pio Baroja*, Karmel 1992-2, 91-103 (c. 1975).
- Carmelita*, in: Diccionario Enciclopédico Vasco, 6.t. (San Sebastián 1975) 341-343.
- Kosmos I* (eta) //, Salamanca 1975. (L. Akesolok parte artu eban).
- Erri-otoitzak. Loiolako apaiz eta lekaiden mezan.* (Bertsoak), Esk. A, 37-38 (1975).

1976

- MendeakKristo'ri begira*, EDV43 (1976, 12.691. zenb.). Suplemento dominical, 7.
- Aita Ipolito Larrakoetxea. Goian bego*, EDV 43 (1976, 12.721. zenb.). Suplemento dominical, 7.
- Gernika'ko Andra Mari (Liburu berña)*, EDV 43 (1976, 12.882. zenb.). Suplemento dominical, 9.
- JoséPablo Ulibarri Galíndez (1775-1847). Actualidadde su obra*, Euskera 21 (1976) 170-176.
- Euskal Ikasgu nagusia*, G-Argi 17 (1976, 300. zenb.) 10.
- Gazetalaritzarako gordintxo gaude*, EDV 43 (1976, 12.727. zenb.). Suplemento dominical, 9.
- Gazetolari gordintxoa berriz ere*, EDV 43 (1976, 12.775. zenb.). Suplemento dominical, 9.
- Aita Ipolito Larrakoetxea*, Karmel 1976-3/4, 95-96.
- Lekuan lekuko egia*, EDV 43 (1976, 12.796. zenb.). Suplemento dominical, 9.
- [Lino de AKESOLO - Manuel de la SOTA (t)], *Diccionario de Retana de Autoridades de la lengua vasca [...] realizadopor Manuel de la Sota, Pierre Lafitte y Lino de Akesolo [...]* 9 t. Bilbao 1976-1989.
- Eusko lurra* (Iñigo AGIRRE), Donostia 1976. (L. Akesolok parte artu eban).
- Begoñatik Markinaraino.* (Bertsoak), Esk. A, 46 (1976).

1977

- Euskera batuaren billa*, Kardaberaz - 6 (1977) 47-70.
- Lekuona, Euskaltzain*, K-Bilduma 19 (1977) 15-23. [S-Naski (1987, 36. zenb.) 2-10].

Xalbador, odolaren mintzoa, Karmel 1977-1, 61-67.

Idazle baten zoritxarrak (Juan Tartas), Karmel 1977-2, 55-56.

Bakotxari berea (Aita Kardaberaz dala-ta), Karmel 1977-3, 54-60.

Aita Joan Mateo Zabala, euskal-zale (1977-1840), Karmel 1977-4, 47-59.

Joxe Migel Barandiaran nor dogun (Liburu barria), Zer (1977, 2. zenb.) 5.

Aita Zabala, bilbotarra, Zer (1977, 5. zenb.) 8-9.

*Maria, gure oiua*k [Maria, *auae mortalium*], in: *Orduen Liturgia*, Iruña-Baiona-Gasteiz-Bilbo-Donostia 1977, 621-622. (Euskeratzaile: L. Akesolo). (Ik. Esk. A, orri soltea).

Agur, Jainkoaren Ama [Ave Maris Stella], in: *Orduen Liturgia*, Iruña-Baiona-Gasteiz-Bilbo-Donostia 1977, 622. (Euskeratzaile: L. Akesolo). (Ik. Esk. A, orri soltea).

1978

Koldo Mitxelena eta euskal-liturgia, EDV 45 (1978, 13.376. zenb.). Suplemento dominical, 11.

«*Aurrera beti!*», Donostia 1978. Egilea: M.M. Zubiaga, Jesusen Lagundikoa», Karmel 1978-2, 73.

«*Jaunaren Deia*, Euskal teologoan aldizkaria (59-60-61 gn. zenbakiak)», Karmel 1978-3, 51-62.

Iparragirre eta Gernikako arbola (Illun batzuk argitzen), Karmel 1978-3, 73-74.

Enbeita, «*Urretxindorra*», *gure erri-kulturaren agertzaille eta aurrera eragile*, Karmel 1978-4. 33-43.

Kanta-kantari il zan olerkaria: (Lauaxeta), Zer (1978, 7. zenb.) 8-9.

Ibiltari, eta Naparroaren eta Aralar zarraren kantari (Latxaga abade jauna), Zer (1978, 8. zenb.) 12.

La Quadra Villalón Montaña, Zer (1978, 11. zenb.) 16.

Bertsolarien lenengo barriak (Zamakola Arratiarrak), Zer (1978, 13. zenb.) 11-12. G-Argi 19 (1978, 408 zenb.) 19-20.

[*Larrakoetxea Agirrezabala Aita*], in: A. Ipolito LARRAKOETXEA, *Erroma'ko Eleizearen araudia*. Tolosa 1978, 4. orr. (K-Bilduma, 32).

Illen otoizerako. (Bertsoak), Karmel 1978-2, 35.

Illen alde. (Bertsoak), Esk. A, 62. (c. 1978).

1979

- Galdegaiaerekiko aztergai bat edo beste*, Euskera 24 (1979) 371-380.
- Jon Oñatibia zanaren doaia: Euskera maitaraztea*, G-Argi 20 (1979, 440. zenb.) 17.
- Blasco Ibañez-keriak*, Karmel 1979-1, 37-46.
- Azkue aita-semeak (Jorratzaile batzuk jorraitzen)*, Karmel 1979-2, 26-37.
- Euzkadia. Eusebio Maria Azkue zanaren Poema (amaitu bakoa)*, Karmel 1979-3, 25-42.
- Oritxek Oiarzabali*, Karmel 1979-4, 47-67.
- Albistarien sorrerea (Euskalzale, 1987-1899)*, Zer (1979), 17. zenb.) 8-9.
- Un tratadista de apicultura: Fr. Joaauín de Santa Bárbara*, Vínculo (1979, 56. zenb.) 68-69.

1980

- Aita Lon Arteaga zanaren oroigarri*, G-Argi 21 (1980, 469. zenb.) 16-17.
- Orixeren eskutitzak*, Karmel 1980-1, 33-39; 1980-2, 51-61; 1980-3, 53-62; 1980-4, 59-72.
- Aita Jose Domingo Ugartetxea Urkieta (1888-1980). Goian bego*, Karmel 1980-4, 47-58.
- «Altuna BENGOTXEA, Francisco M., *Versificación de Dechepare; métrica y pronunciación*, 351 pág., Mensajero, Bilbao 1979», Mundaiz (1980, 16. zenb.) 105-106.
- Jose Domingo Ugartetxea musikalaria (goian bego)*, Zer (1980, 36. zenb.) 4-5.
- Naparroa eta Trebiño (Anziñako eretxi bi)*, Zer (1980, 33. zenb.) 5-6.
- «Bilintx» *Indalezio Bizkarrondo (1831-1836)*, Zer (1980, 34. zenb.) 8-9.
- Arana-Goiti, euskalari*, in: Sabino ARANA-GOIRI, *Obras completas*, I.t. San Sebastián 1980, IX-XIX.
- Euskal idazle*, in: *LopezMendizaballxaka"ren omenez. Eungarren urteburuan, 1879-1979*, Tolosa 1980, 63-66.

1981

- Sintaxi-kasu bakantxo bat. Noren-zeren sailekoa. 'Ghiristinho perfektzionarioaren praktika' liburua aztertuz*, in: EUSKALTZAINDIA, *Gramatika Batzordearen lanak*, (1. zenb.) 1981, 30-35.

- Etxepare lareun urte geroago*, Euskera 21 (1981) 449-451.
- Juan Jose Mogel-en euskal-lanak*, Euskera 26 (1981) 671-681.
- D.L. Urkizu, Errosarioko bertsoen egillea, durangarra, alkatea*, Karmel 1981-1, 61-71.
- Amerika azkatzaillearen opazBolibarren 1927'ko dagonillaren 14'an izan ziren jaietan Larrakoetxea'tar Ipolito A'k izan eban itzaldia*, Karmel 1981-2, 41-52.
- Teresa Deuna euskal-literaturan*, Karmel 1981-4, 7-22.
- Mogel euskal idazleak nongoak dira?*, Zer (1981, 48. zenb.) 8-9.
- Fue alavés el autor de 'Erle gobernatzaillen guidariya'*, in: *Homenaje a Odón de Apraiz - Odon Apraizi omenaldia*, Vitoria 1981, 27-32.
- A.S. DÍEZ CASEN, *Igesliarriakgaur*, S-Naski (1981, 13. zenb.) 47-52 (Euskeratzaile: Lino Akesolo).
- A.S. SANTISTEBAN, *Etxeko andrearen lan-saria*, S-Naski (1981, 15. zenb.) 1-8. (Euskeratzaile: Lino Akesolo).
- J. SÁEZ-ANGULO, *Zubiri, gure filosofo nagusia*, S-Naski (1981, 17. zenb.) 1-4. (Euskeratzaile: Lino Akesolo).
- SheilaNASH**, *Igeriketa, baldarturik daudenentzat*, S-Naski (1981, 21. zenb.) 83-86. (Euskeratzaile: Lino Akesolo).
- S.W. MORRIS, *Makinakpolizi*, S-Naski (1981, 22. zenb.) 52-53. (Euskeratzaile: Lino Akesolo).
- F. LAMBE, *Lurrikararik geienak, non?*, S-Naski (1981, 23. zenb.) 83-85. (Euskeratzaile: Lino Akesolo).

1982

- Aditz - izena Lopez Idazlearen liburuan*, Euskera 27 (1982) 443-446.
- Vivo sin vivir en mí (Zuberoko euskeraz)*, Karmel 1982-1, 85-89.
- Iru liburu eder SENDOA-k ber-argitaratuak*, Karmel 1982-1, 95-101.
- Amaseigarren Mendeko euskerazko «Miserere» bat*, Karmel 1982-2/3/4, 37-47.
- Ama Teresa ta euskaldunak*, Karmel 1982-2/3/4, 85-109.
- Santa Teresaren laudorioa (Lapurdiko euskaraz)*, Karmel 1982-2/3/4, 121-133.
- Ibaizabal (Asteroko orri albistaria: 1902-1903)*, Zer (1982, 57. zenb.) 12-13.
- Bizkaian, bizkaiko*, Zer (1982, 59. zenb.) 14.

1983

Dimako eguna, (orri soltea) (1983).

Batzarrak, Bizkaiko foruak, Gernikako Batzarrak eta euskerea, Iker 2, Bilbao 1983, 733-739.

Bizkaiko seme bat altaretara bidean. Domingo Iturrate Zubero, Irukoiztarra. Gure egunetakoa da (1901-1927), Karmel 1983-1, 17-23.

Domingo Iturrate zoriiodun barria, Karmel 1983-3/4, 19-27.

Bernard Gasteluzar (1619-1701), in: Bernard GASTELLUZAR, *Eguia Catholicac salbamendu eternalaren eguïteco necesario direnac. (Edizio kritikoa, Lino Akesolok paratua)*. Bilbao 1983, 13-21.

Manul Lekuona eta aozko euskal-literatura, in: *Manuel Lekuonari omenaldia*, Donostia 1983, 19-27.

Manuel FUENTES, *Jaungoikoak Beretzat Gura Nau. Domingo Iturrate Zorionduna Irukoiztarra*. Bilbao 1983. 84 orr. (Euskeratzaile: Lino Akesolo).

Domingo FERNÁNDEZ MENDIOLA, *Aita Aureliano karmeldarra (1887-1963). Indian 51 urtez apaiz berrien moldatzaile*. Gasteiz [1983], 59 orr. (Euskeratzaile: Lino Akesolo).

1984

Zoriondun barria: Maria Baouardy karmeldarra: Jesus Kurutzekoaren Maria (1846-1878), Karmel 1984-1/2, 85-101.

Rafaela Ibarra zoriondun barria (1843-1900), Karmel 1984-3/4, 69-84.

Pedro Ignacio de Barrutia. «Acto para la Noche Buena», Lopez Mendizabal Argitaldaria. Latxaga jaunak argitara berria, 1983, RIEV 28 (1984) 327-331.

Irakurleari (Barrensoरो aurkeztuz), in: T. AGIRRE, *Gazigozoak*, Bilbao 1984, III-X. *Sarrera. Bizkaiko idazle andi baten opari barria*, in: Eusebio ERKIAGA, *Jaioko dira*, Bilbao 1984, 7-14.

R. CAZARLA, *Toulouse-Lautrec*, S-Naski (1984, 24. zenb.) 3-7. (Euskeratzaile: Lino Akesolo).

Nuevos datos sobre Fr. Bartolomé de Santa Teresa (1768-1835), BRSVAP 40 (1984) 425-429.

Baga, bage eta gabe. (Esk.) (1984-1988).

Nehor, ehor (inor, ñhor). Norgabeko esaldietan (Lopez'en liburua). (Esk.) (1984-1988).

Bat, batzu, artikulutzat erabilliak. (Esk.) 1984-1988).

Mugatua eta mugagabea zenbakiekin. (Esk.) (1984-1988).

1985

- Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*, I. Iruñea 1985. (L. Akesolok ere parte artu eban).
- PierLafitte il zaigu (1901-1985)*, Karmel 1985-1, 30-32.
- Irutasun Deunaren Isabel Zorionduna (1880-1906)*, Karmel 1985-1, 58-70.
- Illeta andiak Donibane Lohitzunen. Txomin Onaindia il da*, Karmel 1985-2, 56-66.
- Karmel Aldizkariaren istoria. A) Karmen'go Argia (1931tik 1936ra arteko aldizkaria)*, Karmel 1985-3, 6-14.
- Tito Brandsma, Dachau'ko martiri (1881-1942)*, Karmel 1985-4, 67-77.
- Garate anaia, Jesusen Lagundikoa (1857-1929) altaretara*, Karmel 1985-3, 79-91.
- Zahar hitz, zuhur hitz: zuhur itz bilduma berria, Iparraldeko bertularien lagunek eskaiña*, RIEV 30 (1985) 23-35.
- L'Abbe Pierre*, S-Naski (1985, 26. senb.) 8-16.
- Europa seaskaz ustuten*, S-Naski (1985, 27. senb.) 8-17.
- Victor Hugo. Bere urteurrenean*, S-Naski (1985, 28. senb.) 16-25.
- Eretxi okerrak [Bizkaiko elebarrigintzea]*, Zer (1985, 82. senb.) 8 orr.
- Aingeru Bizkaitar baten oroimenean: in: Aingeru Irigarayri omenaldia*, San Sebastián 1985, 43-39.
- TitoBrandsma, Kristo kurutzekoaren aurrean*. (Bertsoak), Karmel 1985-4, 73. (Euskeratzaille: Lino Akesolo).
- Baldintzazko adizkiak*. (Esk.) (1985-1986).

1986

- Xabier G. ARGUELLO, *Lino Akesolo: Batuaz erdara indartzen da*. (Alkarrizketa), Hemen 1 (1986, 13. zenb.) 23.
- Lauaxeta ez da ain erdal-bertsogille txarra*, Karmel 1986-1, 78-86.
- Gezur zitala, irain ikaragarria*, Karmel 1986-1, 87-89.
- Aita Donosti-ren omenez*, Karmel 1986-2, 23-35.
- Harizmendi, Vinson eta abar*, Karmel 1986-2, 51-55.
- Agustin deunaren ta gure Orixeren gomutaz*, Karmel 1986-3, 6-18.
- Martin Azpilkueta, «Doctor Navarrus» eritxona (1486-1585)*, Karmel 1986-4, 6-16.

- Aita Damaso Intza (1886-1986)*, Karmel 1986-4, 27-36.
- Orixe-ren pentsamenduaren sintesia*, Karmel, 1992-1, 3-26. (c. 1986).
- Pedro de Madariaga kaligrafoa gramatikalaria ere bai: Modi loauendi latino et hispano sermone idatzi zuen 1581-1582n*, RIEV 31 (1986) 487-851.
- François Mauriac...* S-Naski (1986, 29, zenb.) 12-19.
- Gustave Doré'ren marrazki-lana*, S-Naski (1986, 31, zenb.) 51-57.
- Katalina Erauso, monja alferez Donostiarra*, S-Naski (1986, 32, zenb.) 43-57.
- Zipitria, Andre-Marizalea*, in: *Zipitria'tar Elbire «Andereñoa»*. *Omenaldia*, Tolosa 1986, 115-128.
- Etapas de un largo camino hacia un bilingüismo oficial*, in: *Plurilinguismo y evolución cultural* (III Jornadas Vizcaya ante el siglo XXI - Bizkaia XXI mende aurrez, III jardunaldiak), 2.t. Bilbao 1986, 137-148.
- Hno. Gregorio de la Sagrada Familia (Martín Ochotorena Estanga) (9.5.1899 - 8.5.1986)*, Vínculo (1986, 105. zenb.) 40-41.
- Ailizko adizkiak*. (Esk.) (1986).

1987

- Eraskina*, Bilbao 1987. (L. Akcsolok ere parte artu eban).
- Euskal Gramatika. Lehen Urratsak*, II, Bilbao 1987. (L. Akcsolok ere parte artu eban).
- Pedro Ignacio Barrutia'ren «Actopara laNocheBuena», Latxaga jaunakargitaratua aurkezten*, Euzkerazaintza (1987, 1. zenb.) 19-25.
- Lizardi gaztearen olerki-mordoa*, Karmel, 1987-1, 6-15.
- Aita Bartolome Santa Teresa: Euskal-errijetako olgeeta ta dantzeen neurrizko gatz-ozpinduba (Azkenengo edizioa)*, Karmel 1987-1, 77-82.
- Husserl-en filofiatik santutasunera: Edith Stein*, Karmel 1987-2, 6-24.
- Lizardi zanaren beste lau olerki*, Karmel 1987-2, 25-32.
- Orain 50 urteko gerrate-nekeak Karmel-darron gogoan*, Karmel 1987-3, 38-63.
- Julen URKIZA, Lino Akesolo Derioko Udako Euskal Ikastaroan omendua. Alkarrizketa*, Karmel 1987-3, 73-82.
- Manuel Lekuonaren gomutagarri (1894-1987)*, Karmel 1987-4, 6-20.
- Lizardi-ren gaztetako olerkiak (Azkena)*, Karmel 1987-4, 57-64.

- Olerki-zale, musikari eta ero: Robert Schumann (1810-1856)*, S-Naski (1987, 33. zenb.) 40-47.
- Nostradamus. (Gizon ospetsuen artean ospetsu: osalari, uringin eta geroaren igarle)*, S-Naski (1987, 35. zenb.) 35-43.
- Euzko-Deya (1916-1923)*, Zer (1987, 106. zenb.) 8-9.
- Gregorio Arrue idazlearen Santa Jenobebaz zerbait*, in: Gregorio ARRUE, *Santa Jenobebaren bizitza...* Donostia 1987, 21-29.
- Santuario y convento carmelitano de Larrea*, in: *Diccionario Enciclopédico Vasco*, 23. t. San Sebastián 1987, 302-305.
- Euskal idazleen sorta berria*, in: *Klasikoak. Euskal Editoren Elkarte*, 9-201. Donosti 1987-1988, 9-20. orr.

1988

- Juan de Beriayn: nola ençun bear den Meza. 1621.* (Esk.) (1988).
- Irizpidea. (Jaime Balmes'en «El Criterio» Jose Zinkunegik euskeratuta)*, Euskerazaintza (1988, 3. zenb.) 1-5.
- Jakakortajarena'ren olerkigintza*, Euskerazaintza (1988, 4. zenb.) 33-37.
- Orixe abertzale*, Euskerazaintza (1988, 5. zenb.) 26-29.
- Agustin donea euskal literaturan*, JD (1988, 88-89. zenb.) 31-39.
- Beltran de Etxauz-en 1845ko gutuna*, Karmel 1988-2, 5-17.
- Andra Maria Balentin Berriotxoaren bizitzan*, Karmel 1988-2, 43-56.
- Euskaldunak Andra Mariari kantatzen*, Karmel 1988-2, 80-89.
- Begoñako karmeldarren eunurtegarrenean lau gizon ospetsu musikazaleen gomuta*, Karmel 1988-3, 3-13.
- Diasporako euskal-idazleak*, Karmel 1988-3, 48-54.
- Jose Joakin Arteaga mixiolari andia (1878-1926)*, Karmel 1988-3, 74-75.
- Azkue aitasemeak aurrez aur barriro: Parnasorako Bidea eta Poesia Bascongada*, Karmel 1988-4, 6-18.
- Frantzisko Palau karmeldarra padar eta mixiolari (1811-1872)*, Karmel 1988-4, 50-63.
- Rafael. Rafael Sanzio, margolari bardingabekoa (1483-1520)*, S-Naski (1988, 27. zenb.) 6-14.
- Burdiñezko Zomorrodun Gizona*, S-Naski (1988, 38. zenb.) 13-39.

Inkatarren Aginte-erria. Mundu bi alkarren ezaupidean, S-Naski (1988, 39. zenb.) 11-19.

Gitxi ezagutua dan euskal-idazlea: Enbeita'tar Imanol (1884-1946), Zer (1988, 118. zenb.) 2-4.

Latiegi'tar Bixente. Elizaren edesti osoa, RIEV 33 (1988) 303-307.

1989

Belaustegigoitia euskeraren etorkizunaz kezkatua, euskal-ikasbide errazen egilea, in: [BATZUK], *Federico Belaustegigoitia, 1876-1947*, Gasteiz-Vitoria 1989, 119-127.

Padre Jacinto de SanJuan Bautista (Juan Bautista Arraibi Ortuondo), BOSJN (1989, 98. zenb.) 240-243.

Felix IBARGUTXI, *Lino Akesolo, cinco décadas de trabajo en torno al euskera*, EDV (1989, 16.940. zenb.) 83.

Karmeldarrak Iruñan. Orain Lareun Urte, Karmel 1989-1, 56-63.

'Eskerrik asko' bikoitza, Karmel 1989-2, 17-19.

Orain eun urte Toledoko IHgarren Kotzilioa (589) euskeraz, Karmel 1989-2, 30-36.

Bilboko iru agurlekuak, Karmel 1989-2, 37-41.

Loiolako santua bidez bide eta euskaldun bat, Karmel 1989-3, 87-91.

Latsibi argitara barriaz zeozertxo, Karmel 1989-3, 92-99.

Santu eta euskaldun: M. Garikoits donea, Karmel 1989-4, 71-81.

-ko atzizkiaren arabillera bi, Euskerazaintza (1989, 9. zenb.) 1-3.

Diccionario de Autoridades del Euskera. (Esk.) (1989).

Nola sortua eta burutua den gure Iztegia. (Esk.) (1989).

Erri-otoitzak. (Bertsoak), Esk. A, 38-39 (1989).

1990

Euskal Gramatika. Lehen urratsak - III (Lokailuak). Bilbo 1990, XV - 211 orr. (L. Akesolok ere parte artu eban).

Baldintzazko esaldi batzuen berezitasuna, (Esk.) (1990). [In: *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum* (Joseba A. LAKARRA, argit.) ASFV, Gehigarriak, XIV, Donostia 1991, 1053-1058].

Presentación, in: Jaime KEREXETA, *Diccionario Amaia de la lengua vasca*, Madrid 1990, 5-6.

Hitzaurrea. Irakurleari zertxobait, in: Benja AURREKOETXEA - Jose ARMAOLEA, *EUSkararen ikaskuntzarako. Perpausen erabilera*, Bilbo 1990, 7.

Santiago bideko euskal-kantak, Karmel 1990-1, 52-65.

Etxeberri Ziburukoaren bertso bi argitzen, Karmel 1990-1, 70-76.

Neska Donibandar bat euskal-olerkari, Karmel 1990-2, 5-11.

Zer da Barriariaren «aleizako»?», Karmel 1990-2, 91-95.

Hugo Makibi ENOMIYA-LASSALLE, *Sortaldeko gogoeta-eskolak eta Loiolako Iñaziorrena eta Joan Kurutzekoarena*, Karmel 1990-3/4, 265-274. (Alemanetik itzulia: Lino Akesolo).

Karmeldarrak Euskalerrian gizaldiz gizaldi, Karmel 1990-3/4, 313-332.

Iñazio deuna eta euskal kultura, Karmel 1990-3/4, 333-350.

Joan Kurutzekoa euskal literaturan, Karmel 1990-3/4, 431-437.

JOAN GURUTZEKOA, *Kantu espiritualak*, (Olerkia), Esk. A, 13-20; Karmel 1990-3/4, 461-473; *Idazlan autatuak* (Zuz.: L. Arostegi), 49-56. (Euskeratzaile: L. Akesolo).

—, *Aberik ez ta aberik bai*, (Olerkia), Esk. A, orri soltea; Karmel 1990-3/4, 508; *Idazlan autatuak*, 66-61. (Euskeratzaile: L. Akesolo).

—, *Edozein ederren billa*, (Olerkia), Esk. A, orri soltea; Karmel 1990-3/4, 509-511; *Idazlan autatuak*, 67-69. (Euskeratzaile: L. Akesolo).

—, *Gabonetakoa*, (Olerkia), Karmel 1990-3/4, 511; *Idazlan autatuak*, 69. (Euskeratzaile: L. Akesolo).

—, *Onbidea labur*, (Olerkia), Karmel 1990-3/4, 511; *Idazlan autatuak*, 70. (Euskeratzaile: L. Akesolo).

Kristoren jaiotza eta 'jaiotzak', Saski-naski (1990, 48. zenb.) 1-10.

Lotsa lotsa naz (Bertsoak), Esk. A, 5. (1990).

Gau ta egun (Jesus Sakramentuari), (Bertsoak), Esk. A, 42. (1970-1990).

1991

Zer da Axularren ekidin? (Esk.) (1991).

Jaime Kerexeta, Bibliaren euskeratzaile. (Esk.) (1991).

Aurkezpen gisa. In: Markos OLABARRI, *Euskaldun batzuen abenturak Madagaskarren*. Liburu au inprimategian aurkitzen da (1992).

Sabin Muniategi olerkaria (1912-1990), Karmel 1991-1, 23-25.

JOAN GURUTZEKOA, *Beti darion iturria*. (Olerkia), *Esk. A*, 25-26; *Idazlan autatuak*, 56-57. (Euskeratzaile: L. Akesolo).

—, *Gau illuean*. (Olerkia), *Esk. A*, 21-22; Karmel 1991-2, 107; *Idazlan autatuak*, 57-59. (Euskeratzaile: L. Akesolo).

—, *Artzaitxo maitemindua*. (Olerkia), *Esk. A*, 24; Karmel 1991, 112; *Idazlan autatuak*, 59. (Euskeratzaile: L. Akesolo).

—, *Maitasungarbizia*. (Olerkia), *Esk. A*, 23; Karmel 1991-1, 1; *Idazlan autatuak*, 60. (Euskeratzaile: L. Akesolo).

—, *Bizi naz baiña ez neugan*. (Olerkia), *Esk. A*, 32; *Idazlan autatuak*, 61-62. (Euskeratzaile: L. Akesolo).

—, *Jainkoazko murgillaldi baten*. (Olerkia), *Esk. A*, orri soltea; *Idazlan autatuak*, 63-64. (Euskeratzaile: L. Akesolo).

—, *Maitearen eizan*. (Olerkia), *Esk. A*, orri soltea; Karmel 1991-3, 112; *Idazlan autatuak*, 65-66. (Euskeratzaile: L. Akesolo).

Fededunen arbasoa, euskal antzerki eta opera, Karmel 1991-2, 3-26.

Etimologi billa: Zeanuriko Undurraga eta Olibares, Karmel 1991-3, 5-11.

Siberian zigor-lekuetatik santutasunera: Errapel Kalinowski deuna, poloniarra, Karmel 1991-3, 43-54.

1992

JOAN GURUTZEKOA, *Idazlan autatuak*, Gasteiz 1992. (Edizioaren prestatzaile: L. Arostegi) (L. Akesolok itzulpen lan asko egin ditu).

III. 3. LIBURUKI ONEN ARGITALPENAZ

— Liburuki au «Idazlan guztiak» deitzen arteko irugarrena da, leenengo biak 1989.ean argitaratu zirela. Orain, egilea il ostean, beraren idazkien argitalpena osotu bearra egon da.

Egiteko erabilitako era edo bidea bardina izan da, au da, leenengo liburukian jakinerazo zan berbera (ik. *Idazlan guztiak*, LX-LXI. orr.). Bakarrik VI kapitulua (Lino Akesoloren bertsoak) eta VII.a (kronista modura egindako lana) gaineratuko ditugu.

— Liburuki onetako edukinari dagokionean, beste bein leenago jakitera emondakoa gogora ekartea komeni da: onako geiketok dituela: a) beraren azken iru urteetan idatzi eta argitaratutako lanak; b) leenago idatziak izan eta argitaratu ez zirenak, au da, beraren paper ugarien artean, eriotze ostean aurkitutakoak; eurotariko bi (*Orixeren pentsamenduren sintesia*, 1992-1, 3-26. orr.; *PioBaroja*, 1992-2, 91-103. orr.) aurten KARMEL aldizkarian argitaratuak izan dira.

— Modu berean, ainbat edo kazetarik egindako alkarrizketa batzu bere jaso ditut. Badakigu onelako alkarrizketen balioa eta fideltasuna beste modu batetakoa izaten dala; ori horrela bada bere, KARMEL-en argitaratu neban alkarrizketan jasotako L. Akesoloren erantzunak, berbaz berba, oso-osorik bereak direla baieztatu neike.

— Eskerrak Patxi Uribarren eta Luis Baraiazarra Aita Karmeldarrei emon bearrean nago, inprimategiko probak zuzentzen emon deusten laguntzagaitik.

Gaur, Lino Akesoloren eriotzaren urteburua dogun egun onetan, berari geure esker ona erakutsiz, amaitzen dot lan au.

Larrea, 1992-IX-17an
Julen Urkiza

I

EUSKERA - LITERATURA - KRITIKA

EUSKERA ETA GRAMATIKA INGURUAN

SENAR-EMAZTE ALA ESPOSOAK?*

Emen naiz, zentsu onaren alde, gure klasikoen eta apaiz zaar eta berrien alde buru-erakuste bat egitera etorrira, «Euskera» gure Euskaltzaindiaren aldizkarian irakurri ditudan txatxukeri batzuk eragiñik. Nor? Euskaldun bat. Lotsaturik nator. Ez nuen uste Akademiaren itzal ta izenpean alako txaldankeririk ikusiko nuenik. Irakurri al dezute an Pedro I. Barrutia'z egindako lana eta ari darraikion eztabaida zorigaiztokoa? Lan ori «Euskera» aldizkariak, ezer zuzendu gabe, ezertako argitasunik ez azalpenik eman gabe, argitaratzea, lotsagarria! Urte osoan ez ote dute izan astirik Barrutiazale orren illunetan (ez dut errukiz bere izenik emen ezarriko) argi piskatxo bat egiteko? Ala, «Euskera»k, bialtzen zaizkion lan guztiak onartu ta dauden daudenean argitaratu bear ditu?

Ni ez nator lan orretan irakurri ditudan oker esan guztiak yasotzera. Ez dut gaurkoz salatuko, esaterako, Azkue zanari or egiten zaion itsuskeria. Azkeneko eztabaidari bidea eman zion gaia aztertuko dut soil-soillik. Laburtzearren eta arira etortearren, ona an eralki zan guztiaren mamia:

1) Oraiko apaizak ez omen dakite ezkontza zer dan; apaizaren aurrean egiten dana esposadu, esposatzea omen da, ez ezkontzea; ezkontzea «abadearen bendiziñoa akabaduteagaz» omen dator. Au guztiak omen dakite, ezkonduak ongienik: oraiko apaiz euskaldunek ez.

2) Gure klasikoak ala mintzo omen dira; orregatik ayetan *esposadu* da bat, ezkondu beste bat (?).

* Lino Akesoloren paper artean aurkitutako idazlana; *Basabil* ezinez izenpetutako lana; ziur asko aldizkari edo egunkariren baterake (*El Diario Vasco?*) eginiko idazlana; baina, antza danez, ez zan argitaratu. 1970.eko amarkadan egina...

3) Maria ta Jose ez ziran ezkonduak, esposoak edo esposaduak baizik; ez ziran *senar-emazte*, *esposoak* baizik. Besterik esaten duten apaizek birao egiten omen dute. Au aldizkarian ez dator orren argi; baña itzaldian argi esan bide zan; Zugazti apaizaren erantzunetik ala ateraten da.

4) Gure klasikoek ez dute inoiz ere esan Maria ta Jose *senar-emazte* ziranik, ta bai *esposo* ta *esposa*. Gure Barrutia'k «erlijioezko terminuak» ederto omen darabilzki, oraiko apaizek ez bezalako egokitasuna omen du ortako.

Nor, eta «istoriak bost piper siku inporta deustaz» diyon bat etorri bear lau sustraigabekeri oyek entzunaraztera? Zer ikusteko ote gaude? Lenbiziko puntu biyeri ez diet erantzunik emango. Ezta nire egitekoa, ta ez Euskaltzaindiarena ez onen ingurukoena ere ezkontza zer dan edo zer eztan erabakitzea. Jaunak, Plauto'ren irrizko gordinkeriak berritu gogo al dezute? Plauto orrek esan omen zuen irriz andre batez onako auxe: «*Quotidie viro nubit, nupsitque hodie, nubet mox noctu*». Beterrin norbaitez zenbat aldiz ezkondua dan galdetzen duenak olako zerbait galdetzen ote du? Edo ta, «los esposos Curie» entzuten dugunean, *senar-emazte* oyek ezkontzeko ta birjiñik daudela esan nai ote digute? Korapilloa alakoa eleiz-legeetako «*matrimonium ratum et consummatum*» diralako oyek gure Barrutiazaleari nonbait buruan egin diotena! Olako korapillo oyek askatzeko bide bakar bat dago: ikastea. Eta ikasi gabe, ez maixu egin burua. Gure idazle batzuen eta beste nonbaiteko *esposo* ta *esposatzeri* antz emateko ezta zuen ametsetakorik egin bearrik. Itz oyen yatorria non dan ba-al dakizute. Latinoetarik dator itz oyen erabilketa. *Forcellini*'k, esaterako, esango dizue nola latinez *maritus* edo *uxor* zanari *sponsus* ta *sponsa* esateko oitura sartu zan «*honestiore vocabulo*» mintza naye. Irakur zazute *Corominas'en* erdaliztegia; an ikasiko dezute, esaterako, zer dan erdaldunen *esposo*, nola ta noiztik asita dan *marido'ren* kideko. Ikasi ta ez etorri adarra yoten, beste amets gordin oyeekin.

Ezkontza zer dan eta zer eztan, nola *esposo* ta *senar-emazte* ta *esposatze* ta ezkontze berdintsu diran gure klasikoekin erakutsi nai banu, luzeegi yoko nuke. Lenbiziko bi puntu ayek utzirik, beraz, beste biyeri erantzutea aski izango dut, gure Barrutia'tarraren okerra erakusteko, beronen asmotan ere lau puntu ayek eikarri dagozkionak baitira.

Zein klasikorik irakurri ote du adar-yotzaille onek ola mintzatzeko? Egia esan, nik ez dut klasiko diralako oyetan, maite baditut ere, ala-alako siñesterik. Ez ote zuen esan Vinson'ek ayen liburuak, edo erderatik artuak, edo erderaz pentsatuak zirala; «*et n'ont, á proprement parler, rien de spontané ou de national*»? (Au esan duena ezta, gero, oraiko gure arteko euskaldun berrizale buru berorik, atzerritarrek zer esango begira ta kezka omen dabilzenetarik; «*estranjeru*» uts garbia da). Edola ere, ez dugu, gogoak ematen digunik, gezurra dalarik ere, ayeri ezarteko eskubiderik, gure Barrutiazaleak egiten duen bezala.

Mintza bekiguz, beraz, klasiko oyek. Eta mintza bekigu guzien aurretik Leizarraga, XVI'garren mendeko idazle ezaguna: «*Jacobec engendra ceçan Ioseph, Mariaren senharra*» (Testamentu Berria, Mat.,1,16). «*Orduan bere senhar Ioseph-hec...secretuqui utzi nahi ukan çuen...Ioseph, David-en semea, ezaicela beldur eure emazte Mariaren hartzera*» (Mat.,1,19-20). Au aundia! Ain zuzen ere, euskal-lite-

raturan leenago ageri dira Maria ta Jose senar-emazte egiñik, esposo ta esposa baiño. Eta gure klasikozale amorratua izarretan lo!

Era berean mintzo da Haraneder Ebangelioetako leku oyetan eta are beste batzuetan: «Ioan cen beraz Ioseph ere Nazareth Galileaco hiritik Iudeara, Dabiten hirira, ...bere icena emaitcotçat Maria bere emazte içorra cenarequin batean» (Luk,II,4-5). Ona, berriz, Yaundone Matheoren lendabiziko kapituluan, azpian, yartzen duen oarra: «Nola Iudutarrec emazteac hartcen baitzituzten bere ahaidetarik, Dabiten etchetic ilkitcen cenazgeroz, asqui aditcerat ematen darocu I. Matheok, handic beretic atheratcen cela Iosephen emazte Maria».

Jose ta Maria senar-emazte dira orobat 1828'garreneko *Testament Berrian*, eta Duvoisinin Biblian. Baiña bizkaitar bat ere aipa dezadan, Uriarte Frantziskotarra. Bere S. Mateo'ren Ebangelioan ona nola mintzo dan: «Eta Jacob andik izan zan sortuba Jose, Mariaren senarra...Jose, Dabid'en semia, ez zaite bildur izan artuten Marija ceure emaztia, cerren beragan jayo dana Espiritu Santubarena da» (Mat.,I,16 eta 20).

Betor beste lekuko bat Erronkari'tik: Hualde Mayo. Onentzat Jose esposua da bein, arik geroxeago senar izateko eta Maria bere «emaztia».(Mat.,I,16 eta 19-20).

Eta nola diote, nola euskeraratzen dute gure idazle klasiko ta zaar oyeke latiñezko «cum esset desponsata»? *Esposadu* edo *esposatu* ori sartzeko bere biziko unea zalarik ere, ona nola dioten: Leizarraga'k, «*fedatu*»; 1828'koak,«ezkontzaz hitzeman»; Duvoisin'ek, «hitzemana izan»; Uriarte'k, «ezkontzako berbia emonda egon»; Haraneder'ek, ezkondu, eta Hualde Mayo'k *bordatu*; batek ere ez *esposatu* edo olakorik.

Orain Ebangelioak, gure «erlijioezko terminuak» egokienik erabilten irakasteko maixurik autatuen oyeke utzirik, goazen beste idazle batzuetara. Larregi, Royaumont'en Bibliaren euskaratzailea ekar dezagun erdira (1777). Onela mintzo zaigu: «Maria ezcondu cen Iosephequin; Iaincoac eman cion senhar prestu hura haren garbitasunaren beguiraille beçala» (11,98). Mintza bekigu Etcheberry apheza ere bere Testament zaharreko eta berriko istorioan: «Birjin hura deitcen cen Maria; senharra zuen Jose guizon iainkotiarra» (184). Eta geyegi ez luzatzearren, eta norbaitek oraisukotzat yo eztezan, Intxauspe kalonjea utzita, etorri gaitezen mugaz onuntza; emen degu ontan argienik eta garbienik ari zaiguna. Euskaltzaindiak berak ez ote du oraindik orain argitaratu Lardizabal'en Testamentu Berriko Kondaira? Baña, irakurri al dezute? Eta, ikusi al dezute an esposo ta esposatzerik? Ezkondu, senar, emazte, senar-emazte bein ta berriz darabilzki garbi-garbian, bai Testamentu berri ortan eta bai Testamentu zarrean, azken-alderutz, Jose ta Maria'z ari danean.

Idazle oyeke eztira nolanaikoak gure literaturan, noski; Leizarraga, Haraneder, Larregi, Uriarte, Lardizabal eta Duvoisin eztira nornai gure idazleetan, eta «erlijioezko terminuak» egoki erabilteko bazuten Barrutia'k aña argi. Baña, «ugaritasunaren ederrez» ez nuke ixillean utzi nai beste bat. Ezta, bear bada, klasikoetakoa (oraindik ez digu iñork klasiko oyeke zeintsuk eta noizdanik asita noiz arteñoakoak diran mugatu). Dana dala, «leenagoko apaiz» oyen lerroan sartu (edo, atsegiñago badezute, ayen lumeroan edo incluidu) genezakela uste dut. Urtez, 1881'koan agertarazia da liburua Villafranca'ko kondearen izen ta itzalpean agertarazia. Bere aita,

apaiz bat; eztakar bere izenik; S. Jose'ren omenez euskeraz egindako liburuetan nik dazagutanik zaarrena bera. Yakiña, ez dugu bertan arkituko gero gure izkuntz zatartu ta galdu omen duen norbaiten kutsurik edo aztarnarik; Larramendi'ren aztarnatxoren bat, arkitzekotan ere (gure euskeraren zatartze orrek askok uste duten baiño erro zarrago ta antxiñagokoak ditu). Izena: *S. Josereren atsekabe ta atsegiñak*; 110 orrialde. Liburutxo orren 100 orrialde oyetan ez duzute arkituko ez esposo ez esposatzerik; S. Jose senar da beti; senar leial, senar txit garbi, senar aingerutar, beti senar; Andre Maria emazte, emazte orbangabe, egiazko emazte, emazte aingerutar, emazte argi-dotar, emazte dontzellatar, beti emazte.

Azki da adibiderik, aski da testo zaarrik. Non da, ene jaunak, gure klasikoen eta apaiz zaarren *esposo* ta *esposatze* orren alderako delako batasun ori? Non gelditzen da gure Barrutia'tar orrek Euskaltzaindiaren aldizkarian zorigaitzean maixu-putz andiyekin esana: «Gure literatura klasikoan euskeraz ezta iñoiz esan Birjiña ta Jose senar-emazte ziranik, beti ziran esposoak»? Yaunak, aurrerontzean klasikoak gora ta klasikoak bera ta leenagoko apaizen izenean iñor datorkizuenean, begira ongi, adar-yotzailleren bat ez ote dan, gero. Barrutia gutxi ezaguna dalata negarrez ta erostaka datorkigun onek, non utzi ditu Leizarraga, Haraneder, Larregi, Uriarte, Duvoisin eta Lardizabal?

Euskaltzain jaunak, lotan zeundetela noski, etsaia sartu zaitzue zuen alorrean. «Euskera»n olako lanak, ezertako argitasun gabe, argitaratzen utzitzeak Euskaltzaindiaren buruzaritzta ta izen ona gora yasotzeko ezta bide egokiena izango. Ez dut esango zeinek duen oraiko ontan errurik geyen: Barrutia'tar onek, ala bere aitabitxiren batek. Euskaltzaindia, guztioi egin diguten itsuskeria (itsuskeria zentsu onari ta euskerari dagokionez) garbitu bearrean dago, nere ustez. Itsuskeri ori, ta Azkue zanari or bertan egin zayon oben beltza garbitu bearretan. Ai, Urkijo ta Azkue bera bizi balira...!

AZKUEREN IZTEGIARI ERASKIÑA*

Donostia-tik, 1970-V-21

J. L. Lizundia Jaunari
Agur

Azkue zanaren Iztegiak oraintsuko argitaldian daraman Eraskiña dala-ta, nere burua garbitzeko eskatzen didazun ezker, emen duzu ortaz nik esan dezakedan zerbait:

Eraskin ori, Euskaltzaindiak Retana-ri buruz ezer erabaki baino lenago jaun orri bialia da, eta Iztegiaren lenengo tomoa atera ta gerokoa. Delako erabakia azaldu zanean, zuen sekretarioari idatzi nion neri gertatuaren berri emanez. An esaten nion, besteak beste, eraskin ori ateratzeak, nire ustez, Euskaltzaindiaren auzia lengo oinean uzten zuela: Euskaltzaindiak irabazten balin bazuen, bere alde; eta ezpalin bazuen, bere kaltetan. Nik egindako kartaren kopiarik ez dut gorde, baina emen dut artu nuen erantzuna, eta berean sekretarioaren itzok: «Zure problema apartekoa da. Honegatik aditzera ematen dizut ez duzula izanen erresponsabiladarkeri gure aurrean».

Nik ezdakit, au esanda, ez ote nukean ixiltzea obe. Baina geiago jakin nai lukenarentzat zerbait geiago gaineratuko dut, Iztegi-puska ori nire eskuetara nola iritxi zan ez Mitxelena jaunak ez beste iñork pekatari-bila bururik ez dezan ausi. Jabeak berak, egilleak berak emana dut nik, edo kopiatzeko utzia. Azkue-ren lan orren jabe orain nor dan, ez naiz auzi ortan sartuko. Baina Azkue bizi zala, bera zan jabe bakarra. Ez beste inor. Naiz eta Iztegi-ale artan besteren batzuk eskua sartuak izan, Azkue zan aren jabe, bai Euskaltzaindia sortu orduko, eta bai sortuta gero. Eta Azkuek eskubide osoa zuen arekin nai zuena egiteko, nai zuenari emateko; nola nai

* Eskutitz onen fotokopia Aita Linoren paperen artean aurkitu dogu. Titulua geuk jarria da.

ere, beste geroagoko euskaltzain batzuek, Mitxelena jaunak aitortzen duenez, artu duten baino eskubide geiago, askozaz ere.

Puska ori argitaratzeko asmoak ere ordukoak dira, Azkue-ren denborakoak. Eta Azkue il-berritan, besterik ezinean, neronek eman nuen, Guatemala-ko «Eusko-Gogoa» aldizkarian eraskin orren berri, Donostia-ko «Los Amigos del País» ura argitaratzeko zirikatu naiez. Geroago, Oleaga zana eta biok, *Euskera-n* argitaratzeko asmotan ere asi giñan, Alfonso Irigoien tartean zala. Baina nire kopia ez zela guztiz zeatza, ez zituela xeetasun guztiak jasotzen, eta Irigoien jaunak naiago izan zuen beste kopia bat zegoen zegoenean atera, Euskaltzaindiaren aldizkarian emateko. Edozeinek jakin dezake zer gertatu zan gero: argitaratzen asi besterik ez zan egin, ez zan jarraipenik agertu.

Olaxe gaur arte. Egia esan, iztegi ori batek baino geiagok erabili du eta bertatik itz asko artu ere bai beren iztegiatarako. Baina nik uste dut (eta ala diot azken-orduan Retana jaunak eskaturik egin nuen itzaurretxoan, Mitxelena jaunak gogorazi duen bezela), nik uste dut, inon agertzekotan, Azkue-ren lan ori Azkue-ren izenarekin batean agertarazi bearrekoa zala, aren iztegiaren geigarri bezela: Azkue-rena Azkue-ri itzuli bear zitzaiola. Eta ori besterik ez dut egin nik. Nere uts eta akatsekin, baina nori berea eman nai izan diot. Utsak badira noski, nik nai baino geiago. Esaterako, Mitxelenak aipatzen duen bat nik era bitara neukan: *gabillan*, *gabillari* neukan, eta liburuak *gabillau* eman du azkenengoa.

Xeetasun guztiak ere ez daude. Jakiñen gainean kendu ditut bat baino geiago. Batez ere, argiegi ez zeudenean. Gogoan izan bear da eraskin ori Azkuek ez zuela idatzi dagoen dagoenean argitaratzeko. Iztegi-gaiak naasian daude bertan, eta saillean jartzeak berak lanak ematen ditu. Gai oiek bereizi ta aukera egin bearra dago.

Zergatik izan naizen iñoren ondasunetatik ain esku-zabal? Zergatik ez dudan nererik ezer eman? Orrexegatik, Azkue-ren iztegia dalako, ta ez nerea. Orrexegatik ez dut sartu nai izan aren eraskiñez beste itzik. Esaterako, Euskaltzaindian ainbeste papeleta zeuden, an or emengo laguntzaileek bialitako itzekin, eta oietatik ez dut artu. Orain ere, an izango diralakoa nago, Euskaltzaindiaren Bilbo-ko etxean, noiz argia ikusiko zai.

Mitxelena jaunak iluntxo ikusten du nire itzaurretxoko esaeren bat. Baliteke ala izatea. Gripealdi baten arrapaladan egiña da, eta ez da arritzeko. Baina badakit kontu andia izan nuela beste zerbait ilunpe osoan, isilpean uzteko: alegia, nondik nora ibiliak diran, eta non dauden Euskaltzaindiak eta Azkuek berak egindako ainbat iztegi-lan. Bazuen or Euskaltzaindiak zer zaindu ta gorde. Olako zerbait ere argitu nezakean, baina ez nuen egin. Ez al dit au iñork obentzat ezarriko.

Eta orain, guzia labor esateko, delako eraskin orrekin nik ez dut Euskaltzaindiaren legerik edo erabakirik ausi; ez dut Euskaltzaindiaren ondasunik ebatsi, ez dut iñorenik neretzat artu, ez nerea bezala argitaratu. Euskaltzaindiarena izan baino lenago, jabeak emana nuen iztegi-gai pila ori. Eta Azkue-rena zana Azkue-ri itzuli diot. Azkue-ri, Euskalerriari, eta kritikoei ere bai.

Eta Euskalerriari itzuli diodala esatean, ez dut legetzat artzen urtebete ez dala Euskaltzaindiaren etxean entzun nuena: alegia, Azkue zanaren lan guztiak Erriarenak

dirala ta erriari eman bear zaizkiola. Ez. Nik esan nai dut, orain gure erriak aukera duela lan ori ezagutu ta artaz baliatzeko. Besterik ez.

Gainerontzean, zuk, Lizundia jauna, badakizu nik ere alegintxoak egin nituela Euskaltzaindiarentzat Azkue zanaren lanen jabetasuna argitzeko.

Bete dut asieran agindua. Zeuk ikusi karta onekin zer egin. Besterik gabe, ar ezazu biotzez nere agurrik onginaiezkoea.

Lino Akesolo

**SINTAXI-KASU BAKANTXO BAT,
NOREN-ZEREN SAILEKOA
«GHIRISTINHO PERFEKZIONIAREN PRATIKA»
liburua aztertuz***

Alphonza Rodriguez Jesusen Konpañako Aitaren liburua da, Lopez zelako apez batez euskarara itzulia. Baiña ez Gaztelako erderatik, Frantziakotik baizik. Avignonon 1782n argitaratua. 466 orrialde.

Itzultzailearen metodoa: «Hitzez hitz itzultzen hasi ninduzun; bena orhiturik hala eginez heuzkararen ara edo ethorza anitz pundutan bortxatzen zela, ... deliberatu dizit frantzez terminhuer sobera xehe jarraiki gabe, zenziaren ahalik klarkiena itzultzera: zunbait aldiz ere, bena gutitan, liburu hortako franzez terminhuek ekarten zuten beno aitzinoo joan nuzu, gauzaren hobeki endelgarazitzeke, bena, behin ere ez, ene ustez, ... substanzian kontre». Itzultzaliak irakurzaliari.

Euskara aski jatorraren jabe da, bai itzetan eta bai sintaxian, geien batez.

Liburu onetatik kasutxo bat autatzen dut, eta gero beste idazle batzuen textuak ekarriko ditut, gaia argitzeko. Kasua NOREN-ZEREN saillekoa da, nominatibogenitiboena.

Noren-zerenkia, gauza jakiña da, euskaraz izenaren ondoren etorten dela: *Jainkoaren Ama, zeru-lurren Erregiña, gizonen beldur...*

Ala ere, idazle askorengan aurkituko ditugu lege ori austen duten esaldiak. Lopez-ek olakorik badu. Ikus ditzagun beste idazle askorenekin batean.

* In: EUSKALTZAINDIA, *Gramatika Batzordearen lanak*, (1.zenb.) 1981 (Ziklostilean edo multikopistan argitaratutako liburua), 30-35.orr. Baina, Linoren paperen artean beste orrialde batzu agertu dira: idazlan ori egiteko erabilitako oarrak eta testu aukeratuak...

Lopez-ek: «Satan beldur da Jinkothiaren othoitzen, beldur heen baruren, eta heen beren nahizko praubeziaren». (301). *Othoitzan, baruren, paubreziaren beldur* esan zezakean lekuan, *beldur othoitzean, baruren, praubeziaren* esan du.

Beste kasu bat, arau berekoa eztana: «Graziak galde itzazu ziharen, zure proximuaren eta Eliza guziaren» (131). Au ezta *Noren-Zeren* kasurik, *norendako* baizik: ziharendako, proximuarendako, Eliza guziarendako baizik. Onelako esaldietan eza-guna eta argia da Leizarragaren au: «Egin ditzagun hemen hirur tabernakle, bat hire, eta Moisesen, eta bat Eliasen». (Mat. XVII, 4).

Beste idazle batzuengan

Onelako joskera bertsotan da erabillienik. Baiña bai prosaz ere.

ETXEPARE:

«Zu, Anderia, Ama zira birjinarik Jeinkoaren,
eta geroz Erregina zero eta lurraren». (Amorosen gaztiguia)
Bere buruia egin dizi juje justiziaren (Id.).
Bertze emaztiak ama dira zenbait haurto xipiren (Id.).
Ni gathibu nadukana kaptiba da bertzeren.
Ene ditzak hala egin du ni gathibu bigaren.
Gogo onez izanen niz, bizi baniz, bataren,
bana bortxaz baiezila ez jagoitik bertziaren. (Ezkonduien koplak).

Etxepareren joskera hauek jator iruditzen zaizkigu. Ez ain jator urrengo au:
Lehen inprimatzailea heuskararen hura de (Sautrela).

Inprimatzailea heuskararen orrek norendako galderari eranzuna ezpalinbada, ez du jator ematen.

LEIZARRAGA: «Zareten sujet gurekin langiten eta traillaizen den guziaren» (I Cor. 16,16).

AXULAR:

Gaizki heltzearen zen beldur, eta ez gaizki bizitzearen, Axular, 216. *Heltzearen* ori aurretik doa, baina aditza bitarte duela, eta bigarren genitiboa dilindan gelditzen, *beldur* ixildurik.

OIHENARTE:

Etziren ber zu batere / larde, gaur goitik oinaren / puntan bihotza duenaren. Oihenart, Poes. XV.

HARANEDER:

Noiz eta ere baitut zerura behatzen, segur, ez naiz beldur lur huntu-tako gaitzen. Philotea (1853) 437.
Nausia da ezen Gizonaren Semea larunbataren ere. Tes. Berria, Mat. 12,8. Texto au berau Leizarragak: «Sabathoaren ere jauna de Gizonaren Semea».

Barriz ere LEIZARRAGA: «Etzaretela beldur gorputza hiltzen dutenen, eta arima ezin hil dezaketenen; baina aitzitik, zareten beldur arima eta gorputze jehenan gal ahal ditzakenaren. Mat. 10,28. Etzaretela haien beldur. Id. 26. (Emen kasu biak ditugu).

Etzaretela beldur gorputza hiltzen dutenen... Baina erakutsiren drauzuet noren beldur behar zareten: zareten beldur, hil dukenean, jehenara egoizteko autoritatea duenaren. Are diotsuet, haren beldur zareten. Id. Luk., 12, 4-5. (Kasu biak emen ere).

Kasu biak dauzka (Noren eta Norendako kasuak) Haranederrek: «Eztuzuela beldurrik hiltzen dutenen eta arima hil ez eztezakenentzat; baina zareten beldur bai arima eta bai goputza infernuan gal-araz detzakenaren. Mat. 10, 28.

ASTARLOA (Pedro):

Naiago izan dozu menpeko zital izan, ez edonoren, ezpada zeure arerio gogorrenen. *Berbaldiak*, I, 42.

Bartolome OLAETXEA:

Digno izan gitezan kristoen promesen. *Dotrina*, Salbea.

ARTXU:

Beldur izan zite bero handien eta euri hotzen. *GRAMATIKA* (122).
Idazle onek beste onelako testo asko du, baiña frantsezari antz emateko egiten du askotan, euskal-joskera frantsez-joskerari ur-biltzeko.

BILINTX:

Oso nago mendean / jangoiko itxuaren, /ama Venusegandik /
jaiotakoaren. / Nerori ez naiz jabe / nere biotzaren, /gaxua
preso daukat / amoriyuaren. *Loriak*.

DAVANT:

Eúskaldun gaztea engoitik ez da lotsa franximanten. *Makila Gorria*,
81.

Erri-kantuetan:

Ai, au gabaren preziosoa!
Jesus jaio da Belenen.
Etxe onetan sartu ote dan
billa gabiltza Beronen. *AZKUE*, Canc. 1072.
Dan, dan, dan, eske gabiltz
gau ostatuaren. Maria ta Joxepe Belenen. M. Lekuona.
Baniia xerkatzera iinhiide baten,
haur hunen ezarteko harekila azten. *Pastoral R-Normandie*.
Birjina gazetto bat zagoen
kreatzaile Jaonaren othoizten,
nuiz eta aingúru bat lehiatuki

beitzen zeriitik jaitxi
mintzatzera *haren*.

Bekaizti naun, lur, erorren,
senar-jabe aizen orren.

AZKUE, Canc. 501.

Noiz edo bein Norenki ori beste era batetara aldatzen da, geigarri edo aposizio bezala. Geienetan joskera motela da.

Urriki zaite pekatariatz,
zeru-lurraren Jabea,
Erredentore gizonarena,
Jaungoikoaren Semea. (Cantos Vascos en forma de Corales, SAN-
TESTEBAN)
Liburu, Birjina Santisimien Errosario Santuena, Durangoko Deboto
batek. (1737).

Aintza zera / gizadiarena. L. A. (1938).

Sebero Altube zenak Bizkaian bildua da urrengo esaldi au ere:

«Samaraiño etzara zu aren». Au da, zu etzara aren samaraiño eltzen (Ikus EUSKERA, 1926, IV).

Ugariagoak dira beste kasu batzu, itzen bat ixiltzen denetakoak.

«Ez naiz ethorri bakearen ekartera, baina ezpataren». LEIZARRAGA, Mat., 10,34.

«E' naiz etorri yustuen deitzera, baizik bekatarien» ETXENIKE, Mat. IX, 13.

«Zeren ikustera atra zate? Profete baten?». Esaldi auetan, ageri denez, *ekartera*, *deitzera* eta *billa* ixildurik daude.

Zer esan Norenki auetaz, genitibo auetaz? Atzera bialtzeaz? Euskera jatorrean daudela esan bearko, noski. Beren sollian, ez legozke jator Ama Jeinkoaren, erregina zeru-lurraren, ola, soil-soillean esaterik ez dago. Beldur othoitzten eta olakorik ere ez. Baiña emen, *Ama*, *beldur*, eta abar ez datoz bakarrik. *Ama izan*, *beldur izan*, *larde izan*, *xerkatzera joan*, *billa ibilli*, *mendean egon*, *gathiba izan*, eta ola datoz. Eta auri ematen zaie indarra eta aurreko lekua artzen dute, eta genitiboak atzeko aldea. «Etzaretela beldur gorputza hiltzen dutenen eta arima ezin hil dezaketenen», biziago eta jatorrago ez ote dago, beste onelajarriko balitz baino: «Etzaretela gorputza hiltzen dutenen, eta arima ezin hil dezaketenen beldur?».

Eta *ez izan beldur* ori *ez izan beldurrik*, *ez ukan beldurrik* egingo bagenu, are argiago izango genuke «Ez izan beldurrik gorputza il bai baiña arima il ezin deza-keteenenik». Orrela gaur ere, artikulu mugagabea daramaten esaldietan.

BALDINTZAZKO ADIZKIAK*

Baldintza adierazten duten atzizkiek bi partikula eramaten dituzte aurrean: BALDIN eta BA. BA partikula hau beti eramaten dute; beharrezkoa dute baldintza adierazteko. BALDIN gabe, ordean, askotan aurkituko ditugu. Izena ematen dielarik ere, ez dute hain beharrezko. Etxeparek oso gutxitan erabili zuen (balin, balinetan; Leizarragak, berriz, oso gutxitan utziko du; Axularrek, esaldi laburretan batez ere, askotan. Bizkaiko idazleetan oso gutxitan aurkitzen da.

BA partikulak aditz trinkoaren edo aditz laguntzailearen aurrean du bere lekua: *bada, bazen, balator*, etor badadi, ekarri balu, jakin baleki, eta abar. BALDIN esaldi osoarren aurretik joan daiteke, sarrera emateko bezala, edo bai barrurago ere, aditz-izenaren aurrean nahiz atzean, beti ere aditz laguntzailea azken gelditzen dela: *Baldin* etorri bada, etorri baldin bada, ekarten baldin badu, baldin ekarten badu, baldin joan badadi, joan baldin badadi, eta hola.

Euskarak baldintzazko adizkiez ditu halaerezko edo erderaz *concesivas* deritzeten esaldiak ere, azkenenak ERE daramatela. Honelakoetan BALDIN gabe erabilten dira (Erdera batzuk bide berdintsutik dabilzala dirudi. Ikus erderazko edo latinezko *etsi, tametsi*, frantsesen *Méme si*, alemanen *Wenn auch*).

Euskarak badu baldintzazko adizkion beste erabilera jakin bat ere, nahi izan, on edo hobe izan eta holakoekin: hobe zuen jaio izan ez balitz; nahiago nuke joango ez baziña.

Baldintzazko esaldiek batzuetan Baldin galtzen badute ere, inoiz birritan ere onartzen dute. Kanta batek honela dio: «Baldin egarri baldin bazere, / badet ardo gozo franko» (Azkue, Cancionero, Asto zarra Tudelatik). Esaldi luze batzuetan BALDIN bikoitz hori erabiltea, noski, errezago eta jatorrago gerta daiteke.

* Euskaltzaindiko gramatika batzordean aurkezten zituen ainbat lanen berridazketa da. (1985-1986).

Baldintzako adizkien formak

Indikatiboko formak

BALDIN eta BA partikulak indikatiboko adizkiei ezarritz, indikatiboko baldintza-adizkiak, besterik gabe sortuta dauzkagu: baldin bada, baldin badu; baldin etorri bada, baldin ekarri badu; baldin etorten bada, baldin ekarten badu; baldin etorri bazen, baldin ekarri bazuen; baldin etorten bazen, baldin ekarten bazuen; baldin etorriko bada, baldin ekarriko (ekarriren) badu.

Indikatiboko baldintza-adizkiak oso jatorrak eta literaturan erabiliak izan dira. Indikatiboko akizkiokin adierazitako baldintzak zerbait oraiñaldian, iraganaldian edo gerokoan hala gertatuzat, edo gertatu ustekotzat edo gerta daitekelakotzat ematen du.

- Nahi baduzu, egin dezakezu.
- Hi baldin bahaiz, ni ere banauk.
- Zu ezkerrera baldin bazoaz, ni eskuiera joango naiz.
- Asko ikasten baduzu, geroko balioko dizu.
- Hori hala bazan, sartu dedila kalabazan.
- Egin bazuen, egin zuen.
- Txistularia etorri bazen, dantzarik ez zen faltako. (Egia baldin bada txistularia etorri zela, ulertzekoa da dantzarik izango zela).
- Aurrepiderik izango bada, lanik gabe ez da etorriko.

Gure literaturak adibiderik eskintzen digu, gero ikusiko dugunez.

Etorri eta *ekarri* aditzak eredu harturik, hona nolako formak sortzen zaizkigun indikatiboko baldintza-adizkiekin:

Badator
 etorten bada,
 etorri bada,
 etorten izan bada,
 etorri izan bada,
 bazetorren,
 etorri bazen
 etorten bazen
 etorri izan bazen
 etorten izan bazen
 etorriko, etorriren bazen
 etorriko bada.

Badakar
 ekarten badu
 ekarri badu
 ekarri izan badu (ukan badu)
 ekarten izan badu

bazekarren
 ekarri bazuen
 ekarten bazuen
 ekarten izan (ukan) bazuen
 ekarriko (ekarriren) badu
 ekarriko (ekarriren) bazuen.

Indikatiboko forma edo baldintzapean adierazten dena orain edo lehenago edo geroago gertatutzat edo gertatu ustekotzat ematen da.

Alegiazko baldintza adizkiak

Baldintzazko adizkirik berezienak alegiazkoak dira, baldintza bera gertatu gabekotzat, agian bai eta agian ezkotzat, gertatu den edo gertatuko den jakingabekotzat edo jakin eziñekotzat ematen dutenak. *Aita etor badadi*, edo *baledi*, esaten dugunean, ez dakigu aita etorriko den ala ez. *Aita etorri* balitz esanez, badakigu baldintza ez zela gertatu, aita ez zela etorri. Etorten balitz diogunean, zera diogu: ez dela etorri eta geroak esango duela etorriko den ala ez, baiña guk ez dakigula. *Nahiago genuke ez baletor*, esatean, badakigu ez dela etorri, ez dakigu etorriko denez, baiña beldur gara eta ez dugu nahi etor dadin.

Irunakako bi sorta egin daitezke alegiazko baldintza adizkiokin, Izan ta Ukan adizkien ildotik. Izan edo Edin aditzari dagozkionek alde batetik *badadi* eta *baledi* eta *balitz* formak emango dizkigute eta *Balitz* eta *Balu* formak bestetik. Ukan aditzari dagozkionek, berriz, *Badeza* eta *Baleza* eta *Balu*. *Balitz* eta *Balu* sortek, bestalde, aditz izena zein kasutan daukaten begiraturik, baldintza berez berdinak sortzen dituzte.

Adizkiok sailka

Badadi saillekoak

Banadi (etor)
 Bahadi
 Badadi
 Bagaitez
 Bazaitetz
 Bazaitetzte
 Badaitez

Baledi

Banendi
 Bahendi
 Baledi
 Bagintez
 Bazintez
 Bazintezte
 Balitez

Badeza saillekoak

Badezat
 Badezak
 Badeza
 Badezagu
 Badezazu
 Badezazue
 Badezate

Baleza

Baneza
 Baheza
 Baleza
 Bageneza
 Bazeneza
 Bazenezate
 Balezate

Balitz saillekoa

Banintz
 Bahintz
 Balitz
 Bagina
 Bazina
 Bazinete
 Balira

Balu saillekoa

Banu
 Bahu
 Balu
 Bagenu
 Bazenu
 Bazenute
 Balute

Hauek dira alegiazko baldintzadun adizki soilak, idazle guztietan berdin agertzen ezpadira ere. Leizarragak, esaterako, Balirade erabilten du, *dirade* erabilten duen bezala. Axularrek, Bagindezi, bazindezi, eta hola.

Bizkaiko euskalkiak bere bidea hartzen du *Badeza*, *baleza* sailletan *eza* erroa utzi eta *egin* aditzaren erroa jotzen du: *badagit*, *badagik*, *badagizu*, *barrengi* eta abar.

Balitz saillekoek, laguntzaile bezala, lau forma onartzen dituzte: *etorten*, *etorri*, *etorri izan*, *etorriko* (*etorriren*) *balitz*. *Balu* saillekoek ere berdintsu: *ekarten banu*, *ekarri banu*, *ekarri*, *ukan* (izan) *banu*, *ekarriko banu* (ekarriren banu).

Badadi sailleko NOR-NORI adizkiak

NI-HI

Banakik/banakin
 Banakio
 Banakizu
 Banakizue
 Banakie

GU

Bagakizkik/Bagakizkin
 Bagakizkio
 Bagakizkigu
 Bagakizkizue
 Bagakizkie

HI

Bahakit
 Bahakio
 Bahakigu
 Bahakie

ZU

Bazakizkit
 Bazakizkigu
 Bazakizkio
 Bazakizkie

HURA

Badakit
 Badakik/badakin
 Badakio
 Badakigu
 Badakizu
 Badakizue
 Badakite

ZUEK

Bazakizkide
 Bazakizkiote
 Bazakizkigute
 Bazakizkiete

HAIEK

Badakizkit
 Badakizkik/Badakizkin
 Badakizkio

Badakizkigu
Badakizkizu
Badakizkizue
Badakizkie

BALITZ sailleko NOR-NORI adizkiek

NI	GU
Banintzaik/Banintzain	Bagintzaizkit/Bagintzaizkin
Banintzaio	Bagintzaizkio
Banintzaizu	Bagintzaizkizu
Banintzaizue	Bagintzaizkizue
Banintzaie	Bagintzaizkie
HI	ZU
Bahintzait	Bazintzaizkit
Bahintzaio	Bazintzaizkio
Bahintzaigu	Bazintzaizkigu
Bahintzaie	Bazintzaizkie
HURA	ZUEK
Balitzait	Bazintzaizkidate
Balitzaik/Balitzain	Bazintzaizkiote
Balitzαιο	Bazintzaizkigute
Balitzaignu	Bazintzaizkiote
Balitzazue	
Balitzazie	

HAIEK
Balitzaizkit
Balitzaizkik/Balitzaizkin
Balitzaizkio
Balitzaizkizu
Balitzaizkizue
Balitziakie

BALEDI sailleko adizkiak

NI	HI
Banenkik/Banenkin	Bahenkit
Banenkio	Bahenkio
Banenkizu	Bahenkigu
Banenkizue	Bahenkie
Banenkia	

HURA

Balekit
 Balekik/Balekin
 Balekio
 Balekigu
 Balekizu
 Balekizue
 Balekie

GU

Bagenkizkik/Begenkizkin
 Begenkizkio
 Begenkizkizu
 Begenkizkizue
 Begenkizkie

HAIEK

Balekizkit
 Balekizkik/Balekizkin
 Balekizkio
 Balekizkigu
 Balekizkizu
 Balekizkizue
 Balekizkie

Z U

Bazenkizkit
 Bazenkizkio
 Bazenkizkigu
 Bazenkizkie

ZUEK

Bazenkizkidate
 Bezenkizkiote
 Bazenkizkigute
 Bazenkizkiote

BALU saileko baldintza adizkiak

Adizki soilak

Nork NI

Baninduk/Banindun
 Banindu
 Baninduzu
 Baninduzue
 Baninduzue
 Banindute

Nork HI

Bahindut
 Bahindu
 Bahindugu
 Bahindute

Nork HURA

Banu
 Bahu
 Balu
 Bagenu
 Bazenu
 Bazenute
 Balute

Nork GU

Bagintuk/Bagintun
 Bagintu
 Bagintuzu
 Bagintuzue
 Bagintuzte

Nork ZU

Bazintut

Bazintu

Bazintugu

Bazintuzte

Nork ZUEK

Bazintuztet

Bazintuzte

Bazintuztegu

Bazintuzte (te)

Nork HAIEK

Banitu

Bahitu

Balitu

Bagenitu

Bazenitu

Bazenituzte

Balituzte

BADEZA sailleko adizkiak

NORK-NORI-ZER

NIK sagarra ekar

Badiezaat/Badiezanat

Badiezaiot

Badiezazut

Badiezazu

Badiezaiet

NIK sagarrak ekar

Badiezazkiat/Badieazazkinat

Badiezazkio

Badiezazkizut

Badiezazkizuet

Badiezazkiet

HIK...

Badiezadak/Badieazadan

Badiezaiok/Badiezaion

Badiezaguk/Badiezagun

Badieziaiek/Badieziaien

HIK...

Badiezazkidak/Badieazazkidan

Badiezazkiok/Badieazazkion

Badiezazkiguk/Badieazazkigun

Badiezazkiek/Badieazazkien

HARK...

Badiezat

Badiezak/Badieazan

Badiezagu

Badieazazu

Badieazazue

Badieziaie

HARK sagarrak...

Badieazazkit

B adieazazkik/B adieazazkin

Badieazazkio

Badieazazkigu

Badieazazkizu

Badieazazkizue

Badieazazkie

GUK...
Badiezaagu/Badiezanagu
Badiezaioгу
Badiezazugu
Badiezazuegu
Badiezaiegu

ZUK sagarra...
Badiezadazu
Badiezaiozu
Badiezaguzu
Badiezaiezu

ZUEK...
Badiezadazue
Badiezaiozue
Badiezaguzue
Badiezaiezue

HAIEK...
Badiezadate
Badiezaate/Badiezanate
Badiezaioて
Badiezagute
Badiezazute
Badiezazuete
Badiezaiete

GUK sagarrak...
Badiezazkiagu/Baidiezazkinagu
Badiezazkiogu
Badiezazkizugu
Badiezazkizuegu
Badiezazkiegu

ZUK sagarrak...
Badiezazkidazu
Badiezazkiozu
Badiezazkiguzu
Badiezazkiezu

ZUEK sagarrak...
Badiezazkidazue
Badiezazkiozue
Badiezazkiguzue
Badiezazkiezue

HAIEK sagarrak...
Badiezazkide
Badiezazkiate/B adiezazkinate
Badiezazkiote
Badiezazkigute
Badiezakizuete
Badiezazkiete

BALU saileko NOR-NORI-NORK adizkiak

NIK sagarra ekar...
Banik/Banin
Banio
Banizu
Banizue
Banie

HIK...
Bahit
Bahio
Baigu
Bahie

NIK sagarrak ekar...
Banizkik/Banizkin
Banizkio
Banizkizu
Banizkizue
Banizkie

HIK...
Bahizkit
Bahizkio
Bahizkigu
Bahizkie

HARK sagarra...

Balit
Balik/Balin
Balio
Baligu
Balizu
Balizue
Balie

GUK sagarra..

Bagenik/Bagenin
Bagenio
Bagenizu
Bagenizue
Bagenie

ZUK

Bazenit
Bazenio
Bazenigu
Bazenie

HAIEK...

Balidate
Baliate/Balinate
Baliote
Baligute
Balizute
Balizuete
Baliete

HARK sagarrak...

Balizkit
Balizkik/Balizkin
Balizkio
Balizkigu
Balizkizu
Balizkizue
Balizkie

GUK sagarrak...

Bagenizkik/Bagenizkin
Bagenizkio
Bagenizkizu
Bagenizkizue
Bagenizkie

ZUK sagarrak...

Bazenizkit
Bazenizkio
Bazenizkigu
Bazenizkie

HAIEK sagarrak...

Balizkide
Balizkiate/Balizkinate
Balizkiote
Balizkigute
Balizkizute
Balizkizuete
Balizkiete

BALEZA saileko NORK NORI adizkiak

NIK...

Baniezak/Baniezan
Baniezaio
Baniezazu
Baniezazue
Baniezaie

NIK sagarrak...

Baniezakit/Baniezarki
Baniezaskio
Baniezaskizu
Baniezaskizue
Baniezaskie

HIK...

Bahiezat
Bahiezaio
Bahiezagu
Bahiezaie

HIK sagarrak...

Bahiezakit
Bahiezaskio
Bahiezaskigu
Bahiezaskie

HARK...

Baliezat

Baliezak/Baliezán

Baliezaio

Baliezagu

Baliezazu

Baliezazue

Baliezaie

GUK...

Bageniezak/Bageniezan

Bageniezaio

Bageniezazu

Bageniezazue

Bageniezaie

ZUK...

Bazeniezat

Bazeniezaio

Bazeniezagu

Bazeniezaie

ZUEK...

Bazeniezadate

Bazeniezaiote

Bazeniezagute

Bazeniezaiete

HAIEK...

Baliezadate

Baliezaate/Baliezánate

Baliezaiote

Baliezagute

Baliezazute

Baliezazuete

Baliezaiete

HARK sagarrak...

Baliezazkit

Baliezazkik/Baliezazkin

Baliezazkio

Baliezazkigu

Baliezazkizu

Baliezazkizue

Baliezazkie

GUK sagarrak...

Bageniezazkik/Bageniezazkin

Bageniezazkio

Bageniezazkizu

Bageniezazkizue

Bageniezazkie

ZUK sagarrak...

Bazeniezazkit

Bazeniezazkio

Bazeniezazkigu

Bazeniezazkie

ZUEK sagarrak...

Bazeniezazkidate

Bazeniezazkiote

Bazeniezazkigute

Bazeniezazkiote

HAIEK sagarrak...

Baliezazkidate

Baliezazkiate/Baliezazkinate

Baliezazkiote

Baliezazkigute

Baliezazkizute

Baliezazkizuete

Baliezazkiote

Alegiazko baldintza adizkiak literaturan

Adibideak

Dakusagun orain nola erabili dituzten Adizkiok gure idazleek, antzinenekoetarik hasita.

LEIZARRAGA

1) Baldin hire anaiek hire kontra faltatu badu, oha eta erreprehendi ezak hire eta haren beraren artean. Baldin behatzen bazaik, irabazi duk eure anaiea (Mat. 18,15).

2) Baldin hei behatzen ezpazaie, errok Elizari, eta baldin Elizari bahatzen ezpazaio, albeihedukak pagano eta publikano bezala (Id.Id. 17).

3) Baldin nehork deus baderrozue, errozue ezen Iaunak behar dituela (Id. 21,3).

4) Baldin fede baduzue eta duda ezpadezazue, ez solament fiktotzeari egin izan zaiona eginen duzue, baina are mendi huni badarrozue: Khen adi eta iraitz adi itsasora, eginen da (Id. 21,21).

5) Baldin norbeit hil bada haurrik ukan gabe, haren anaieak harturen du haren emaztea, eta leinu eginen drauka bere anaieri (Id. 2224).

6) Baldin gizon batek ehun ardi baditu, eta hetarik bat errebela badadi, ez ditu laurogei eta hemeretziak utziten? (Id. 12,13).

7) Baldin nahi baduk, xahu ahal nirok (Mat. 8,2).

8) Baldin eure oblationea eramaiten baduk aldarera, eta han orhoit bahadi ezen hire anaieak baduela zerbait hire kontra, utzi ezak han eure oblationea aldare aitzinean (Id. 5,23-24).

9) Baldin eure esku eskuinek trebauka eraziten bahau, trenka ezak hura eta iraitzak euganik (Mat. 5,29).

10) Erraiten drauzuet, baldin abundosago ezpada zuen iustitia Skribena eta Pharisauena baino, zuek etzaretela sarthuren zeruetako erresuman (Id. 5,20).

11) Baldin landako egun belhar dena eta bihar labean ezarten dena, Iainkoak hala inguru beztitzzen badu, eza zuek anhitzez areago, fede txipitakoak? (Mat. 6,30).

Refranes y sentencias (1596)

1) Onek galdu badagi bai, bestela ez (348).

2) Txoria, gaztetegian ezpadagik abia, zaarza gatxen eldu dok ire bizia (396).

3) Badagik egipidea, ona dokek eriotzea (215).

AXULAR (Flors-VILLASANTERen ediziotik)

1) Baldin barurtu bagara, orazinotan egon bagara,...hautzaz guztioz eskatuko zaiku kontu (229).

2) Baldin oraino... memorioan eta akorduan badago, nahasten ezpada, baduke bere bekhatez behar den urrikimendua (269).

3) Baldin doiez bazare, guti baduzu, emozu guti; baldin aberats bazara, gainez egina bazaude, emozu anhitz (309).

4) Baldin ordainaren bihurtzera enseiatzen ezpanaiz, neror agur egitera aitzintzen banaiz, erranen dute eztheus bat naizela (309).

5) Obligatu gara, baldin barrenean giristino bagara, kanpoan ere giristino gabela erakustera (428).

6) Baldin orai gerok nor bagara, eztira gureztat fainkoaren mehatxuak mehatxu baizen izanen (781).

7) Deusik gelditzen bazaika ere, bilhondoak, hondarrak, zehartzekoak gelditzen zaitza (124[?]).

8) Bekhatorerik handiena izan bazara ere, salbatzeko bidean zarela... iakizu (284).

9) Baldin baduzu emaitekorik, emazu berehala (124).

10) Nahi badugu baietz eta nahi ezpadugu ezetz erraiteko libre baikara (155).

11) Fin gaitz eginen duk, xoria, baldin gaztedanik ezpadagik kafia (248).

12) Baldin ezpaduzu zertaz paga ezinak eztu legerik (326).

13) Nahi baduzu, badaidikezu, eta baldin egiten ezpaduzu, seiñale eztuzula nahi (356).

14) Nahi baduzu geldi dadin etsaia, geldi zaitezi; nahi baduzu ixil dadin, ixil zaitezi; Nahi baduzu sua iraungi dadin, egurrak edeki iatzotzu (386).

15) Gizonak.. .baldin bere barren hartan zauririk ezpadu, bere konzientzia sendo badu, hara laster egiten du (566).

16) Nahiago badu ere, eztiteke marra hartarik aitzinago iragan (170).

17) Iainkoagatik egin nahi ezpaduzu ere, zergatik zeuen probetxuagatik etzarete bekhatu egitetik begiraten? (182).

18) Hasi ziren erraiten hura zela ausartzia handia, eta baldin gaztigatzen ezpazen, hurrenekoan gehiago eginen zutela (411).

19) Lurra gelditu bazen ere, ordea, .. uholde hartaz gero lurra ere mehatua eta flakaturia gelditu zen (176).

20) Hori guztia egiten zuen, baldin bat ere astirik bazuten, edo alfer bazeuden, handik zerbait ethor zekion gogan beharrez eta beldurrez (64).

21) Baldin desegiten bazuten (hiria), gerla bat iraungi ustean bertze handiago bat pitztuko zutela (68).

22) Baldin latz, lodi eta gogor edireiten bazioten (larrua), ahalik eta arintkienik utzten zuela. Baina mehe, leun eta bera Bazuen, alfertzat kondenaturik, falta gutigatik ere bortitzki gaztigatzen zuela (71).

23) Iainkoak berak erran bazuen ere,... anhitz direla deithuak, baina guti hau-tuak, hargatik eztugu guk, giristinok, zer iziturik (194).

24) Baldin iraganean meza bat enzun behar bazenuen, eta enzun, kofesa hartako bekhatua, eta gero ethorkizunean, ...enzun biza (235).

25) Baldin Iainkoako benturaz galduko ezpaditu gaixtoak, segur da eta duda gabe da eztituela galduko onak (122).

26) Sekulan hala izanen ezpadira ere eta eztirela izanen badakizu ere, guzie-tarekin ere, hala pensatzeaz beraz ere, gogoeta erho hetan egoiteaz atsegin hartzen duzu (226).

27) Baldin izanen bada firmetasunik gero, behar da perseberatzera eta firme egoitera enseiatu orai (503).

28) Baldin gezurtiak bere gezurra egiazat iragan eta salduko badu, penatu behar du (654).

Refranes y sentencias (1596)

Emongo badeustazu, luzatu ze egidazu (490).

Eske-kantak:

Bizkaian: Emongo bozu emoizu,

Baldin emongo badozu.

Gipuzkoan: Emongo bauzu emaisu.

Zuberoan, aldatuxeago: Emaitekotz emazu, geben aiduru gituzu.

GASTELUZAR

Baldin hor ondoratzen bahaiz
eta sartzen ifernuan,
alferrik othoiztuko dukek
Maria lekhu galduan. (139 orr.).
Pontu hau baldin galtzen baduk,
on gustiak dituk galtzen (152).

Horra zenbait adibide gure literatura zaharrean indikatiboko baldintza nola erabili den antz emateko. Indikatiboko adizkiok baldintza hala gertatutakotzat ematen dutenez alegiazkotzat edo agintzazkotzat, eta hortik ateraten dute esaldiaren bigarren zatiko ondorioa.

Alegiazko baldintza-adizkien adibideak

(Baldintza lehen, orain edo gero, egiaztatu gabe, edo gertatu gabe gelditzen denekoak)

BADADI Sailekoa (Axular)

1) Baldin urthe heken buruan iar bagaitezi hetzaz zer egin diren gogoetan, eztugu deus edirenen (Axular, 107).

2) Baldin usantza hura itzul badadi bertze aldera, gaixtatasunetik ontasunera, edirenen du birtutearen bide hura bera errex, atsegin eta plazent (141).

3) Zer izanen da anhitzi gerthatzen zaikana, zahartu ustea zahartu gabe bere adinik hoberenean hil badadi? (244).

4) Baldin orduan (zahartzean) eror edo etzan badadi, ezin iaiki baititeke (250).

5) Baldin emazte hari..., etsaitu gabe eta liskartu gabe, aparta ahal bazakitza, hala egin zakitza (483).

6) Bekhatorea sar badadi bere konzientzian barrena, berehala hango kheak athe-ratzen du kanporat (547).

BALEDI sailekoa (Axular)

1) Zeren baldin (odol ustelik) geldi baledi, hark medizinari eta ezartzen den erremedioari indarra flaka liazaio (440).

2) Uste dut gutik falta lezakeiela, baldin alde batetik edo bertzetik, hunelako biderik molde onez ideki baledi (484).

3) Gertha baledi ere munduan zenbait presuna hain saindurik,...non ez ledin nehor ausart haren baithan mihirik ibentzera,...egia izanen da orduan ere Iondone Paulok dione, tentatuak eta persegituak izanen direla iustuak (610).

4) Baldin orduan hl bazindezi, ifernura zindoazke (689).

BALITZ sailekoak (Axular)

1) Baldin egin balitz euskaraz hanbat liburu nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erderaraz eta hitzkuntzaz, hek bezin aberats izanen zen euskara ere (55).

2) Baldin infernuan dagoen bati eman balekio hautatzera ez zein lukeien nahiago bere eskuko, ala mundu haur guztior bere on guztiekin, ala oren baten denbora eta bitartea, segur da oren baten denbora...lehen hauta lezakeiela (221).

3) Baldin baziña esperantzetan erdiesteko iaun batenganik zenbait kargu edo errenta, ez lizateke erhokeria handia bitartean, anarterainoko denboran, iaun haren kontra ibiltzea? (242).

4) Eritu ezpazina, lehen bezala, zeure bekhatuen xixteran, etzauntzan eta tokian egonen zinen (284).

5) Etzenduen ene gainean eskurik,..baldin eman ezpalitzaitzu han goitik (402).

4) Bertzerik ezpalitz ere, bere amoranteak berak ekhartzen dio berri franko (465).

5) Lainkoak daki nola, nahia baizen ezpalitz, nahi nukeien..., aitzina ere zurekin egon, ibili, bizi eta segitu (483).

6) Bekhatu bat egiten duzunean, albalitz, oren berean behar zenduke kofesatu. Zeren balin luzatzen baduzu, ahanzteko periletan iartzen zara (691).

7) Aingiruak, alegera edo triste albalitezi, guk egiten ditugun obrek alegera eta trista litzaketela (706).

8) Are albaliz, erremusina errezibitzen duenak ere, ez luke iakin behar nondik heldu zaikan duen ontasan hura (311).

BADEZA sailekoak (Axular)

1) Eztu behin ere Iainkoaz utzten gizona, baldin gizonak lehenik utz ezpadeza Iainkoa (157).

2) Baldin har badezagu barrena, mamia, ...edirenen dugu, maliziaz, premia gabe (...) egiten diren bekhatuak direla gaixtoenak (261).

3) Dudan guztia probei eman badiazet ere, eta neure burua erratzera utz badezat ere, etzaizkit hek guztiak deus baliatuko, baldin karitaterik ezpadut (299).

4) Baldin ahal badezazu, zerorrek bizi zarela eta ahalik fitetzena pagatu behar duzu zeure zorra (327).

5) Bertzerena ebatsirik dadukana, ezin absolba baititeke, ..bertzenena, ahal badeza, bihur arteino (354).

6) Baten bia bihur badiatzot, egin zaitan baiño gogorkiago mintza banakio, erranen dute gizona naizela (390).

7) Baldin orduan nehork halako gauzarik aipha badiazo, aiphatzeaz beraz ere errabiatzen da (398).

8) Baldin begiek argitzen ezpaderaueza oiñei, oiñak behaztopatuko dira eta begiak iraziko (414).

9) Baldin konsidera baditzagu Iainkoaren laguntza, ethorkizuneko esperantza, pagamenduaren segurantza, ...edirenen dugu... ez pisu baina arin eta plazent dela Iainkoaren zerbitzatzea (617-618).

10) Baldin erran badiazozu badela anhitz, emaztekin segitzen eztuenik, eztu sinhesten (642).

BALEZA sailekoak (Axular)

1) Pintatzaile batek egin baleza imajina eder bat,...imajina hark baldin ezagutzarik balu, nori lehenik bahatu behar othe leraukio (239).

2) Gaixto hura zahar, itsu, maingu, hebain, eri hura har baleza ere Iainko miserikordiosak, ez lizateke ez guztiarekin ere, halakoa egiteko gabe (253).

3) Segurkiago ioka zindezke, baldin gero bertzeren eskuz egin gogo duzuna, orai zurez...egin bazeneza (318).

4) Ikus albaleza bere burua, ez luke ez berriz haserretzeko bertze abisuren beharrik (372).

5) Erran bazeneza: Egaztina haur grabatzen eta gargatzen dute bere hegalek, eta urrikaldurik edeki beziniatzo, kalte gehiago egin ziniazo probetxu baiño (32[?]).

6) Baldin (deabruak) bertzela eragin albaleza bekhatua ezlemake munduan den plazerik ttipiena ere (651).

7) Baldin berhutearen eta bizioaren ioan-ethorriak, on eta gaitzak iben baginitza bi balantzatan, ez tute ediren litekeiela munduan bekhatu leidikeienik (661).

8) Galdegin baziniazo denbora luzea duela eri den presuna bati ea nolatan ezten sendatzen, eta ihardets baliezazu, midikuagana ioan nahi gabez eztela sedatzen, mirets zenezake eta arrazoinekin erran ziniazaio, erhoa dela (692).

9) Baldin galdegin baliazote, Judasi...mihardets lezake... (761).

BALU sailekoak (Axular)

1) Anhitz gauza egin behar dugu, geure ohoreagatik ere, baldin iakin ezpagendu, ezpaikinen halako egitekotan izanen (410).

2) Spiritu Sainduak berak usatu espalu konparazione hunez, ezpainintzen ni aipahtzera ere ausartuko (610).

3) Baldin orai.. .hain nagi eta alfer bagara, zer geneidike nahi dugun guztia nahi bezala eskuen artean bagendu? (62).

4) Baldin Iainkoak manatu bazinitu egun guziaz barur zindezila,...edo finean, hunelako bertze manamendugaitz bat eman baleratzu, badirudi etzatekeiela miretsteko ez konplitzea (101).

5) Sar balitza iustiziak hamar gizon garzelean barrena urkhabera kondenaturik, eta handik athera balitza galtzera egun bat eta bihar edo bertze egun batez bertze bat, edo bia. Othe lizateke nehor ere heken artean bizitze luzearen esperantza luenik? (103).

6) Goberna gaitezin (Iainkoak) igurikiko ezpaileraku bezala (122).

7) Baldin utzbageneza harri handi bat eskuetarik, norat othe lihoake, goiti ala beheiti? (165).

8) Orduan (itsasoak) halako moldez irakiten du non, baldin bridarik ezpalu, manatua ezpalego, lur guztia estal bailezake (169).

9) Badirudi (denborak) trabatzen gaituela anhitzetan ere, ezpagendu nahi gendukeiela (225).

10) Badirudi ezen gero ere, hil uste ezpazendu, etzenezakeiela delibera edo ez hetarik (zeure onetarik) eman (320).

11) Bazeundeke (iuramenturik egin gabe), baldin iuramentu egiten eztuzun egunean hamar ezkuturen irabazteko segurantza bazendu (357).

12) Badirudi ezen baldin Iainkoak deusez ere albalu damurik, hunetzaz lukeiela (705).

13) Ni sinetsi banendu, ezkinen egiteko hunetan izanen (712).

14) Nahi nuke iben bazinitza begiak. huni beha baziniazo, haur konsidera bazenezaze..., zuk gauza hunetzaz zenbait aldiz hausnar eta gogoeta egin bazenezaze (756-757).

15) Ez lezake ez gizon horrek horrelako ausartziatik har, baldin Iainkoak permititzen eta eskua emaiten ezpalio (400).

Beste testo batzuk gehiago

ETXEPARE. Idazle honek, bere liburuaren laburrean, baldintzazko esaldi asko ditu.

- 1) Al badagik, ioan adi elizara goizian (Edizio kritikoa, 14 orriak).
- 2) Hirur gauza albaditu ehork ere egiaz... (40).
- 3) Amorosak nahi nuke, honat beha balite (84).
- 4) Amore bat hautatzeko konseilu bat nekeie, balinetan sekulakoz gogoan sar balekie (84).
- 5) Amorosek badagite behin bere nahia, handiago jiten zaie berze nahikaria (92).
- 6) Zure miseriakordiaz remedia litezen, balinetan egiazki zugana jin balite (102).
- 7) Parabizuian nahi enuke emazterik ezpaliz (120).
- 8) Sorthu eta hil ginate, hark haz ezpaginitza (118).
- 9) Harekila bat banadi, bihotza zait harritzen... Ni errege balin banintz, erregina lizate... Ene gogoia baliaki, maite bide ninduke (144).
- 10) Minzatzeko zurekila gau bat nahi nikezi, hilabete konpliturik hura luza baledi (154).
- 11) Elas, itzul albaneza iragan den denbora, segur orain enikezi dudan go-goan beharra (154).
- 12) Parti albanengidio, hark ezluke parerik (150).
- 13) Nik hura nola, nahi nuke hark banenza onhetsi (142).
- 14) Emaztiak ez gaitz erran ene amorekatik, gizonek utzi balitzate, elaidite faltarik (114).
- 15) Anhitz gizon ari bada andrez gaizki erraiten arhizki eta desoneski baitituzte aipatzen, ixilika egoitia ederrago lizate (114-116).
- 14) Egiara baziniaki, urrikari nangidizu (188).
- 15) Balinetan nik banerro hari nere bihotza, eta gero balin balit respuesta bortitza, duda gabe eror nainde han berian hilhotza (146).
- 16) Bekatu honetan hilen bagina, damnatu lukezu ene arima (200).
- 17) Geldi bazinite nahi nikezu (202)
- 18) Zu gaztie bazirere, adimendu on duzu (216).
- 19) Ni zugatik hil banadi, kargu handi dukezu (216).
- 20) Zurekila gaizki baniz, nola bizi ninzande? (220).
- 21) Balinetan ioan ezpanintz, ogenduru ninzaten (230).
- 22) Bekhatore gira eta mira eztakigula, balinetan bide gabe akusatu bagira (234).
- 23) Agian hula ezpanengo, hil ninzanden engoitik (238).

24) Bere nahi ezpanindu, eninduken punitu (240).

25) Oraidano egon bahaiz inprimitu bagerik, hi engoitik ebiliren mundu guzie-tarik (254).

26) Prinze ta iaun handiek orok haren galdia, skribatuz hal balute ikhasteko desira (258).

LEIZARRAGA

1) Baldin guk zuei gauza spiritualak erein badrauzkizuegu, gauza handia da zuen karnalak biltzen baditugu? (I Cor. 9,11).

2) Baldin gizonen eta aingeruen lengoajez mintza banadi, eta karitaterik eztudan, egin naiz... zinzala dindatzen duenaren pare (I Cor. 13,1).

3) Baldin banu prophetiazko dohaina, eta nakizkien misterio guziak, eta szientia guzia, eta nuen fede guzia... eta karitaterik eztudan, deus ez naiz (Id. 13,2).

4) Baldin lengoaje arrotzez othoitz egiten badut, ene spirituak othoitz egiten du, baina ene adimendua fruktu gabe da (I Cor. 14,14).

5) Baldin Eliza guzia bil badadi batetara, eta guziak lengoaje arrotzez mintza ditezen, ez ignorantak eta infidelak sar ditezen, eztute erramen ezen erhotzen zaretela? (ICor. 14,23).

6) Baldin nehork erran badeza: maite dut Iainkoa, eta bere anaieari gaitz baderitza, gezurti da (I Joan. 4,20).

7) Baldin Tiren eta Sidonen egin izan balirade zuek baithan egin izan diraden berthuteak aspaldi zakurekin eta hautsekin emendatu ziratekeen (Mat. 11,21).

8) Ezen baldin Sodomak egin izan balirade hi baithan egin izan diraden berthuteak, egungo egunerano egon zatean (Mat. 11,23).

9) Erraiten drauzuet, baldin abundosago ezpada zuen iustitia Skribena eta Pharisieua baino, zuek etzaretela sarthuren zeruetako resuman (Mat. 5,20).

DUVOISIN

1) Zeren baldin Tirren eta Sidonen gerthatu izan balire zuen erdian egin direan sendagailak, aspaldi huntan zurdatzekin eta hauspean egin baitzituzketen urrikizko eginkariak (Mat. 11,21).

2) Gizonen eta aingeruen mintzaia oroz mintza banintz ere, bainan karitaterik ez badut, soinu egiten duen zinzala burrunbari bat iduri dut.

3) Eta balinbanu ere profeziako dohaina eta ezagutzen banitu ere misterio guziak eta jakitate guziak, eta balinbanu ere fede osoa..., ez badut ordean karitatea, deusik ez naiz (Id. 2).

HARANEDER-HARRIET

Zeren baldin Tirren eta Sidonen egin izan balite zuetan egin izan diren ikhugarriak, aspaldian urrikitan sarthurik, zakuz eta hautsez bere buruak estaliko baitzituzten (Mat. 11,21).

GASTELUZAR

1) Nahi izan bazintu sakrifizioak eta uste izan banu hostiak apazegatuko zintuztela, ofrituko naroskitzun, eta betheko nituen zure aldare guztiak (47).

2) Ah, eman baziño huni/sekulako biktoria! (155).

Refranes y Sentencias

1) Neurez ez dot, balinde banikezuz (de mío no tengo, si me diesen daros eia) (91).

2) Beizut, naí baozu (haréoslo, si queréis) Gaur, biar, ezi, eziluma, ezikaramu (410).

3) Bazint, banikezu (si me dieseis, daros eia) (409).

4) Aspertu banekioa, asper lekiket (si me le yo vengase, vengárseme eia) (10).

5) Uzkur bakio ekatxari (ba akio ekaxari), senda akike eguzkiari (si te agachas a la tempestad, al sol te robustecerás) (251).

Folkloretik

1) Bakio: Bakioko lakioari aparta akio, al ba akio.

2) Gero yango banauk ere, badiat gaurko bizia (Azkue. Cancion.824).

3) Baldin egarri baldin bazera, badet ardo gozo franko (Id. Id).

4) Akio makio, lepezurra auts balekio, ni barber egin artio, sendatzen ezpaleio (Cancion. 515).

5) Oilo bat ere il diot bainan/ ez dauka mejoriarik,/ Beste bat ere ilen nioke/ jeiki ezpaledi oietik (Id. 396).

7) Xori erresinula,/ udan da kantari./ Negian ezta ageri,/ balimba ezta eri./ Udan jin baledi,/ consola nainte ni (Sallaberri).

8) Txeru kartzelan dago,/ damia kanpuan,/ Txeruk gura leukena/ baleuko al-buan.

9) Zeruko izarren bidia/ nik baneki,/ han nio ene maite gaztia, xuxen kausi (Zeruko izarren bidia).

10) Urte bakar bat geldi baledi/laboraria lanetik,/ Asunez kanpo, laparrez kanpo,/ zer bil litake lurretik, (Piarres laboraria).

11) Xori banintz, bele baníntz,/ joan nindaite airean. Urzoño hura nik arrapa niro/ airean edo lurean, bertzela sar nindaite haren urzotegian (Azkue, Cancion. 36).

Oharrak. Baldintzazko adizkiak erabilkeran, zailena askotan, baldintzaren ondorioa, bigarren zatian daraman erantzuna zuzen ematea.

Badadi saileko formak izan ezik, beste guztiak gaur ere bizirik daudela dirudi euskaldunen artean. Apodosian daraman erantzuna aurkitzea egiten da askotan zail samar. Erabiltze ori ez da beti berdiña. Aipatu diren testoetan argi ikusten dugu hori. Testo zaharretan noizik behin bitxi samar egiten da belarrietako aien soiñua, batez ere aditz sintetikoa, trinkoa darabiltelako. Nola nahi ere, ez da egia beti 'ke eraman bear dutela.

AILIZKO ADIZKIAK*

Gaur galduxe omen dauzkagu, edo omen dauzkate, diotenez, baina antzina beteko idazle batzuetan adizki berezi batzuk aurkitzen ditugu : *Ai* aurretik duten adizkiak dira. Zuberotarren euskaran gure egunok arte iraun dute. Krutvvig jauna saiatu da gaur ere adizkiok berpizten. Intxauspe kalonjea eta Lafittek frantsesez *Vorif* izena jarri diete, aihoa edo opa adieraztekoak, alegia.

Idazle batzuen textoak aipa ditzagun:

LEIZARRAGA

- 1) Aitzineçate regna, guc ere çuequin batean regna dezaguntzat (I Cor. 4,8).
- 2) Ainençaçue supporta appur bat neure erhogoan (II Cor. 11,1).
- 3) Ailitez trenca çuec trublatzen çaituztenac (Gal. 5,12).
- 4) Aihintz hotz edo eraquin (Apoc. 3,15).

DUVOISIN-ek, joan den mendean, bere Bible Sainduan eztu Ai-dun adizkion aztarnarik. Gauza bera esateko, beste bide batera jo du, *ochala* edo *balinba* erabiliz. Esaterako Leizarragaren azkenengoa: *Babimba bazine edo hotz edo bero* (Apoc. 3,15).

INTXAUSPE Zuberotarrak XIXgarren mendean.

- 1) Aikiinii egiin berbera untsa iragan miindii huntan (Imit. I,XXIII,2).

* Ik. aurreko oarra (1986).

2) Ai-cina bethi Jincoaren laidatzen, eta cure arimaren espiritualki errekeitatzen... Aikina beharrehune horik gabe eta ezkiinu beste arrancurarik arimaren errekeitatzia baicik! (Imit. I,XXV,9).

3) Oh, ezpaciinu beharric ez jan, ez edan, ez loik egin! Bena ai-zina bethi Jincoaren laidatzen (Imit. I,XXV,9)

(Textu berberok, XVIIIgarren mendean XURIO-k bestela itzuli zituen *ochala* eta abar erabiliz: Ochala gure bici gucian egun bat bederen ungi iragan baguindu!)

4) Badakitizat zure egitaiak: etzirela ez hotz, ez bero: aizina hotz edo bero (Apoc. 3,15).

Joannes Etcheberry-k Eskuarazco Hatsapenac liburuan adizkiotako bat edo beste ere jaso ditu ai-nintz ni, aininde içan ni, ainitz içatu ni çure adiskide, ait-nintcen içatu: utinam fuissem tuus amicus (Obras completas, 152 orriald.).

Lhande-k ere, bere Dictionnaire delakoan gutxi batzu sartu ditu: ainu, ainendi, Jainkoak ailetsa!

Baiña adizkion forma guztiak eman dituen, luze eta zabal eman ere, Itxauspe Zuberotarra izan da bere *Le Verbe Basque* liburuan.

Geroaldia

Aizena, aineza eskent
 Aheza, aheza eskent.
 aitzeneza, aitzeneza eskent
 aileza, aileza eskent
 aikeneza, aikeneza eskent
 aitzeneze, aitzeneze eskent
 aileze, aileze eskent

Iraganaldia

Ainu, ainu eskentu
 aihu, aihu eskentu
 aitzunu, aitzunu eskentu
 aikunu aikunu eskentu
 aitzunie eskentu
 ailie eskentu
 ailu eskentu

Ainendi, ainendi hel, ainintz heltzen, ainintz heltu
 aihendi, aihendi hel, aihintz heltzen, ahintz heltu
 aizinte edo aitzinte hel, aitzina heltzen, aitzina heltu
 ailedi hel, ailitz heltzen, ailitz heltu
 aiginte hel, aikina heltzen, aikina heltu
 aitziteye hel, aitzinie heltzen, aitzinie heltu
 ailira hel, ailira heltzen, ailira heltu.

Intxauspek *Nor-nori* eta *nork Nori zer* forma guztiak eman ditu. Gure egunotan Lafitte zenak, Inutxauspek bezain luze eta zabal ezpada ere, adizkionaldi eta zabalera argi samar aurkeztu ditu bere Gramatikan:

Ailedi gal,
 ailitz gal
 ailitz galtzen
 ailitz galdu
 ailitz galdua
 ailitz galdu izan
 ailitz galdua izan
 ailitz galduko

Aileza gal
 ailu galtzen
 ailu galdu
 ailu galdua
 ailu galdu izan
 ailu galdua izan
 ailu galduko.

Ailizko adizkion egitura

Ailizko adizkion egitura eta baldintzazko batzuen berdintsuak dira. Balitz, Baledi eta balu, Baleza formei Ba kendu eta AI sartzea aski da adizkiok sortzeko. Zuberoko euskaran, adizkiaren bigarren atala, Ai-ren ondokoa, T eta K batek gogortzen du, baiña ezta baitezpadakoa. Intxauspek forma biak, T edo K-dunak eta besteak onartzen ditu.

¹ Aintzinateko formen gaurkotzaile diren batzuk maite dituzten formak edo adizkiak dira. Arestian aipatu dugu Krutvrig jauna. Joera hau olerkietan eta literaturmaillako beste lanetan sartzen balitz, okerrrik edo makurrik sortuko lukenik ez dugu uste.

Dena den, eukal-idazleek beste modurik ere izan dute aspaldidanik izan ere, gauza bera indar berdiñaz esateko, Ai, edo Oi, oh edo balinba aurretik eta berex sartu eta baldintzazko forma ezagunei gaineraturik: Ai, neretzako bazina, dio euskal kanta ezagun batek. Goian aipatutako testu guztiek beste itzulpenik ere onar dezakete: Ai, regna bazinezate: ai, suporta banenzazue, ai trenka balitez. Edota, Duvoisinekin egin zuen bezala: *Balinba bazine edo hotz edo bero*.

Bietan Ai asperena bat bera dela dirudi, lekuz aldaturik.

Beste adibide batzuk

- 1) Ailira poroanza suerte horiek bekanagoj (Lopez, 97).
- 2) Zergatik jaio ta zergatik bizi/bilhatzen dut eta ezin atzeman. Aihenki nork erran ahal derautan... (Krutwig, Zer naiz).
- 3) Aineza gal bizia goiz batez... (Mirande, Eresi).
- 4) Aininderor gaztaroan (Id).
- 5) Ainitza gal hats, arima, odol... (Id. Eresi).
- 6) Ai, goragotik ethorri haizeek / Ai lezate jo ene landetan (Mirande).

GRAMATIKA ATALTXOAK*

BAGA, BAGE eta GABE

1. Zein da edo zein izan da erabiliena eta zabalduena?

Baga edo *bage* izan dira erabilienak, noski.

Baga edo *bage* agertu izan da Bizkaitik Erronkariraino euskalkietan, Gipuzkoa eta Nafarroa barne. Baina mugaz bestaldeko euskalkietan ere utzi du aztarrenik. Esaterako Etxeparegan. Bere aintzin-solasean eta azkenengo kopletan *bage* eta *bagerik* erabili du, gero liburu osoan *gabe* erabili badu ere.

Gipuzkoan *Dotrinarik* ospetsuenek *Bage* erabili dute: Irazusta (1739), Arin (1713), Alde bereko J. Antonio, Oikiako erretorak (1759), berdin. Irazusta izan da argitaratuena, eta ez dakit noiztik aurrera, *Gabe* jarri zioten. Azkenengoan, gure mendekoan *Gabe* dakar. Baina berak ez zuen *Bage* baizik erabili.

Mendiburuk, Elkanoko Lizarragak eta Beriainek, Utergako *Dotrinaren egileak* *bage* idatzi dute. *Bage-ük* antzinakoena, nonbait, Garibaik bildutako XVgarren mendekoa da: *Txibuluen ospe bagerik*. *Bagarik* edo *bagerik* gaur Bizkaian laburturik gelditu da eta berau da erabiliena. Eta Bizkaitik kanpoko batek edo bestek ere onartu du bere euskalkian sartzeko. Agian, gauza polita eta egokia iritzi diote, noizik noizean erabilteko. *Bordari* zenak eta gaurko *Davantek* ere erabili izan dute. Ez-jakinez, nondik zetorren ez zekitelako egin dutela? Agian, bai; baina nik ez nuke gaizki egin dutenik esango.

* Ainbat eta ainbat lan egin zituen Aita Linok euskal gramatikari buruz: asko dira eldu jakuzan borradorak ere (batzutan, geroago, lanak egiteko oarrak); emen, esaterako, osorik ez dagozan bi lan aurkezten ditut (1984-1988).

2. Zein da formarik jatorrena, *bage* ala *gabel* Ene iritziz, eta beste askoren iritziz, gauza argia da. *Bage* da jatorrena. *Ba* beste noizbaiten ere aurkitzen dugun *zera* da (*bada*, *bana*, *baina*, *baino*, *baizen*), eta *-ge* edo *ke* bagetasuna edo gabetasuna adierazten duen atzizki ezaguna da: *artega*, *indarga* edo *indarga kolorga*, *ukuzka* eta abar. Aditz-izenekin beti *-ka* edo *ke* forma du: *ikusteke*, *garbitzeke*, *ixiltzeka*, eta abar.

Gipuzkoako alde batzuetan, gaur, *ba* eta *be* laburdurarekin entzuten dela uste dut.

-TAKO, TARAKO

Tako XVIgarren mendeko RS liburuan (esaera liburuan), izentzat erabilia ikusten dugu: *Takok* deroat dodana etxerean zeiaira, *para* me lleva lo que tengo de la casa al mercado (RS, 82). Orok dogu ardua bat eta guztia *takoentzat*, todos tenemos un cuidado y todo para el *para*, -Tako atzizkiak, beraz, antziñatik du bere nortasuna.

Gaur ere, atzizki bezala, ez da gutxi entzuten: *Azitako* (ereiteko uzten den garia), *eznetako*, *aragitako*, *arakeitako* (eznea ateratzeko edo arakindegira saltzeko azten den aberea), *aparitako*, *bazkaritako* (zer degu gaur *bazkaritako* edo *aparitako*), *ardotako*, *tabakorritako* (urliak ez du *ardotako*, *tabakorritako* aña irabazten), *azpigarritako* (kortako abereen *azpigarritako* ona da orbela).

Gaur, nik uste, gramatika batzuen eraginez edo, *-tako-ok -tarako-ren* laburduratzat dauzkatela dirudi. Aipatutako asaeretan, *-tako* ez da *-tarako-ren* laburduna. *-Tako*, bera bakarrik da aski balio duena zertakotasuna adierazteko. *-Takok*, gainera, mugagabetasuntxoan ematen diete aipatutako esaerei, eta erderaz artikulu gabe itzultzen dira egokien: para semilla, para leche, para carne, para comer, para cenar, para vino, para tabaco, para cama de ganado. Gainera, aipatutako esaeretan, *-Takok* daraman izenak berak adiarazten du zertakotasuna: azia izateko, ezne, aragi, bazkari, ardo, azpigarri izateko, alegia. *Oparitako ekarri ditugun ogi eta ardoa* entzuten genuen oraintsurarte Mezako Liturgian; orain ez dakit zergatik norbaitzuk *oparitarako* egin digute; baina mezako ogi eta ardoa ez dira oparira ekarteko zerbait, Kristoren gorputz eta odol eginik opari egin ditezten baizik, ez opariaren lagungarri edo aldameneko zerbait, soroetarako euriz edo zimaurrea izan daiteken bezala. *-Tarako*, ezer izatekotan, *-rako* baten plurala da. Mendirako, mendietarako (mendirako joera edo mendietarako joera gogorra galdua dute gaurko gazteek), sororako, soroetarako (gure soroerako ongi etorri da barteko euria; euren belarretarako ur eske daude nekazariak, eta agian ez legoke gaizkiago esana soroentzat edo belarrentzat. *Jostarako* gogoia, *jostetarako* gogoia. Aditz-izenak *-ko* besterik gabe adiarazten duena, izenak *-ako* edo *-tarako-rekin* adiarazten du.

Gogoan izateko da *-ko* besterik gabe adiarazten duela sarritan euskarak zertakotasuna edo noiz artekotasuna: biarko, etziko, bizi guztiko, urtegarreneko, itzartu orduko. Kezkagarria iruditzen zait Iruñeko Batzarrean norbaitek galdetu zuena eta Euskaltzaindiak erabaki zezan ekarri zuena: ea *biharko* ala *biharrerako*, *etziko* ala

etzirako, zein zen formarik jatorrena. Eta galdetu zuena Eusko-Jaurilaritza omen dago idazle batek derabilan euskararen jatortasuna ala ez-jatortasunaz erabaki eta berari derizkion zuzenketak ezartzeko euskaldunen diru-eske datorren idazleari. Gauzak loturik eta ongi loturik gura lituzke. Argiak gaude besteen argitzaile izan gurarik dabilten argigabeekin!

-KO, beste eraskinik gabe, eurrez erabili du euskaldunak: Gibelego on dana, areko gaxo (Rs, 141): Iñoren beldurrik gabe idatzi zuen amaseigarren mendeko esaera biltzailleak idatzi zuena. Gaur ere bizi bizirik dago *-ko* esangura berdiñean «ameneko, daburduko, dagoen orduko» eta antzeko esaldietan: datorreneko (gaitz bat doaneko, beste bat dator). Laburdurarik gabe eta iñoren beldurrik gabe sortuak eta erabiliak dira *euritako ekhitako, belarritako* eta abar.

ZERTAKO izan da antzinako Kateximetan erabilitako galderarik erabiliena, eta -takozko galderak joan den menderate iraun du. Eta gogoangarria erantzun batekin gertatua: Zertarako (Bizkakoek *zetako* galdetzen dute) da Sakramentu Santu Exremaunziokoa? Erantzuna: Iru *gauzatarako*. Baina Bizkaiko Olaetxeak: *Iru gauzatak*. *Zertarako* galdetzen dutenak geroago etorri dira.

-GANIK, -GANDIK

-Ganik besterik ez dute Iparretarrek ezagutzen. Eta mugaz onako euskalkietan bera izan da zabalduea, Bizkaitik eta Errokariraino. Gaur, idazleen artean, gramatikalarien eraginez edo, *-gandik* zabaldu da. Nabarmengarria Bizkaiko *Dotrinetan* gertatua: Kardaberaz-ek sartu zuen Kredoan Maria *Birjiniagandik*, baina gero dotrina barruan *Birjinaganik* beti. Gero Mogelen *Dotrinak* berdin egin zuen. Laudioko *Dotrinia* gure menderate argitaratua eta erabilia izan da, eta *-ganik* darabil.

Nafarroan Beriain-ek eta Elkanoko Lizarragak: *-ganik*, Jainkoaganik, arenganik, bereganik...

-Ganik formak *-gandik* formak aña eskubide du bizirik jarraitzeko; ez du inork berau baztertzeko eskubiderik.

-Gana, -ganik, -gandik, gaitik ala
-enganik, engandik, -engatik, -engana.

Formarik erabilienak *-en* gabeko formak izan dirala argi dago. Gaur ez dakite euskalki batzuetan idazten. *Zergatik*, edo *zerengatik* ote da? Buruan sartu zaiote nunbait bera dela forma jatorra.

Baina euskara guztian oraintsurarte nagusi *-en* gabeko formak izan dira. Leizarraga, Axular, Haraneder, Sylvain Pouvreau -ri nekez jalkiko zaie *-en-dunik*, pluralean eta izen ordaiñekin edo, noiz : *Jainkoa gana, Jaingoaganik, guzia gatik, guziak gatik, Jainkoaganik, gizonak gatik*. Berdin ikusten dugu Gipuzkoako idazleetan, Kardaberaz, Mendiburu, Asteasuko Agirre. Agirrek ere *gizonak gatik guziak gatik*

erabiltzen du maizenetan. Bizkaiak ez du ezagutu -en-dunik gaurko egunetan ezpada giroaren indarrez edo formarik jatorrena edo jator bakarra delakoan.

Zergati eta zerengatik aipatu ditut arestian. *Zerengatik* iñoz irakurri dut, baina ez dut uste beste formaren kide-kidekoa denik. Bigarrenak arrazoi bereziagoen bat eskatzen duela dirudi.

Ezin uka -en atzizkia askok oso maite dutela, maiteegi zinez. Joan den igandean «igandeko Deia»-n idazle oso ezagun batek batere zalantzarik gabe idatzi du: «Bolada batean zinearengandik bizi izan dira». Zinea ere norbait ote dugu? Noizbaiteko *Do-trinetan* irakurtzen genuen: «Aragiaganik, munduaganik, deabruaganik»; baina ez dut uste «Zineagandik bizi» esaten ausartuko zirenik, ez «zinearengandik».

Azken buruan, -en atzizkia, aipatzen ditugun kasuetan ez da norekia edo genitiboarena baizik. Eta gauza bat dago argi aski: *gana, ganik, gandik, gatik* (Bizkaian *gaitik*) genitiboari eratxikirik ere erabilten direla; baina erabilien, nominatiboarekin: *Jainkoagana, Jainkoaganik, Jainkoagatik*. Agian, erakusleek bide berezitxoan darabilte: *nigana, enegana, hargana, haregana, harengana, zugana, zuregana, agaitik, onegaitik, orregaitik*. Leizarragak berak ere «hunegatik» dio, ez «hunengatik». Antziñako idazleen joerea ez da izan -en erabiltzearen adiskideegia. Ez dakit orain zergatik izanerazi gura gaituen adiskideago. Aditz izenekin ez du iñoz iñork aldatetarik egin; beti -gatik (*egiteagatik, esateagatik*) eta galderekin, *zergatik* dugu ia betikoa. Bizkaian badira aldaketa gutxi batzuk: gaiña, gaifiik (Barrutiak eta Durangoko Urkizuk). *Etagaitik* barik, *gaiti*. -Ti egitea, baiña, Bizkaitik Zuberoraino erabilia izan da.

Beste puntu bat, deklinabideko legeetarik kentzeko eskubiderik ez duguna zera da: -etarik baztertzea. Euskalerrri guztiko legea izan da. Ez du ifiork eskubiderik -*etatik* forma jator bakartzat besteei ezarteko. Bizkaian oraindik leku askotan singularrean ere erabilten da: -*rik*, eta ez -*tik*. *Abandorik* idazten zituen bere kartak Abandoko perratzaile ospetsuak. Eta gramatika batek zergatik utziko ditu ikasleak ez-jakinean ia Bizkaiko euskalki osoan *zegati(k), zetan, zetara, zelan* erabilten dela (beste euskalkiek ere *nola*, ez *norla*, erabilten duten bezala, edo ta *hain ongi, horren ongi*, eta ez haren edo *haen ongi*?)

Puntu txikiak dira, baina puntu txikiz beterik daude gure inguruko erderak ere. Madrilgo Akademiak ere haba eta faba, yerba eta hierba, la pijama eta el pijama, conclawe eta cónclave esan eta idaztea eta beste asko libre utzi ditu.

NEHOR, EHOR (inor, iñor) NORGABEKO ESALDIETAN (Lopez'en liburuan)

Nehor edo *Iñor* izenordearen esan-naia onelatsu adiarazten digute gure Iztegiak: ezetzik gabeko *Norbait* itzaren ordaiña omen da, eta ezezko esaldietan *Norbait* orren ukapena, iñor ez (latiñezko *quis, aliquis*, bata, eta *nullus* edo *nemo* bestea).

Adierazpen au ez det uste oso zeatza denik. Lopez-en liburuan *Nehor* edo *Ehor* orri aberastasunik geiago aurkitzen diogu. Askotan edo geienetan norgabeko esaldiak

sortzen ditu, batik bat, baldintzazkoak eta eginbidezkoak, baita galderazkoak ere. Erderaz askotan frantsesen *On* edo españarren *Uno* edo *Se* itzuli bearko litzake.

Lopez idazleak orrelako esaldiz iñaurria du bere liburua.

Adibideak ugari ekarri daitezke

1) «*Nehork* ezthiela egiasko estimurik uken behar Jinkoasko gauzez bezik». Frantsesak onela: «q'on ne faut faire cas que des choses esperituelles». Emengo erdaran *Nehor* hori nadie itzuliko genuen, baiña Lopez'en gogoan ez da ola (12).

2) «Zer prootxu du *nehork*, bestaiñez, mereximendu eta thalentu handirik ukheithia obedientzia gabe, eta gehienen borondatera egoiten ezpada?» (13).

3) Hortik ageri duzu ezthiele *nehork* bere arimaren eta Jinkoaganako einbideak utzi behar» (15). Ezetza duen esaldia dalarik ere, *nehor* ez da emen baitezpada *nadie* ez *nemo*. Jatorrago itzuliko genuke: *uno*, edo *Se* norgabekoa.

4) «Bere beitarik *nehork* egiten thien gauzetan eta bestek eraiten derazkotenetan, liferentzia haur duzu...» (18).

5) «*Ehor* beraz egarri bada, jin bedi enegana eta edan beza» (25): si quelqu'un est donc altéré, dio frantsesak.

6) Zunbatenez ere *ehor* aboro gauza ispiritualer edo Jinkoazkuer emanen baita, hanbatenez gartsukiago desiratuko tizi (30. kapituluaren titulua).

7) «Huntarzun eta plazer ispiritualek *ehork* gozatzen thienian, maitatzen eta desideratzenago tizi» (31).

8) Zeren ordian, heen mereximendia *ehork* hobeki ezagutzen baitu (31).

9) «Nola *ehork* maite diro ezagutzen ezthien gauza bat?» (32).

10) «Nork ere Jinkoazko gauzak aberuenik gustatuko baititu, hura beitan heen uken nahisko gosia eta egarria emendaturenago dela» (36).

11) «*Nehork* uken ahal dezaken señhale handiena duzu bere bihotzian senditzia...bethi eta aboro aitzinatzeko dien desir berua» (36).

12) «Nola gauza handiek bereki baitute bere gomendia, *nehor* aboro ernetasun hetan ukeitera ekarria duzu; bena gauza thipietan *nehor* gutis aboruetan laxatzen duzu, ustez gauza guti bat den hetan falta egithia» (38).

13) «*Nehor* bet betan eztela sordeitzenera joaiten» (39).

14) «*Nehor* eztela betan huntarzunik edo bertutherik handienera heltzen, ez gaizkirik sordeitzera erorten» (39).

15) Ezpadu *nehork* (hegatz xilatua) xuxentzen, gero etxian alde orotarik euria sartuko dela (40).

16) Zeren *nehork* gaitza, oraino thipe zenian, laxo, utzi dien, ...hantik jin duzu... tentazionari bere buria garaitzera utzi baitu (40).

17) *Nehork* goguan hartzen dienaian, zunbaiten bekaturik handienetara erorthiak hain hatsarre thipietarik eta flakuetarik jin direla (egiaz estonatzeko duzu (410).

18) Sein Gregoriok ziozu, zerbait gizaz, falta thipiak handiak beno lanjerosago direla, handiak hobekiago *nehork* ezagutzen thielakotz, eta ezagutze hark *nehor* ekartzten diela... heer arrangurosoki ihez egitera...: bena thipiak, *nehork* guthiago ezagutzen thielakotz, heer guthiago ihez eiten dizi, eta nola *nehork* hetzaz kasu guti eiten baitu, hain ardura erorten duzu (410).

19) Bekatu thipier handier beno arrangurosokiago *nehork* ihez egin behar diela (42).

20) Behin *nehor* laxatzera eta debozinezko einbideen uztera jiten bada... (47).

21) Gaizki eiteko tentazionia *nehori* jiten zakonian... (51).

22) Norbait nahi duzunian zerbait eitetik gibeldu, erraiten derakozu: Gogua emazu zer egitera zuazan (51).

23) *Nehork* ukenik ere bere bekathien egiasko dolia... (51).

24) *Nehork* bere goizeko edo atzeko eksamenian hartzen dien dolia (52).

25) Oro eginez, ez kostumaz, ez *nehoren* erraithiagatik (52).

26) Zer gortarzuneki eliro *nehork* komunia, uste balu haren biziko azken obra izan behar diela? (55).

27) Zer atenzione eta gar *nehork* eluke bere othoitzan, seurtathia balitz haren azken othoitza dela? (55).

28) Goguan hartzia, *nehor* fida denez...eztukeela Jinkoaren aitzinian berheziki pena egin lezakoonik (57).

29) Gogua emaithia *nehor* edireiten den estathian, tenorian eta egiten dien obran hil nehi lukeenez (57).

30) Bekatuen *nehor* uken behar baitu beldur, eta ez heriuaren (58).

31) Ohoin bat ixilik jiten duzu, *nehork* gutien uste dianian (60).

32) *Nehork* balaki tenore hura (heriuaren orena), segurantxa hark aboro laxarazi lirozu (61).

33) Saint Jeromak erraiten dizi, giristhinuetan *nehork* ezthiela sogin behar hatsarrer, bena akabantzari (63). Dans les chrétiens on ne considère point les commencements.

34) Nola behar dien *nehork* bertuthian jarria edo segurtathia izan (66).

Adibideok aski bitez. Onelako esaldiak erabiltzen Lopez idazlerik ugeriena dala esango nuke, Iparraldekoak barne. Egoaldeko idazleen artean, gaur beintzat, *Nehor* edo *ñnor* ori utzita, *norbait*, edo *bakoitza* edo *norbera* erabiltera jotzen dute. Askotan, geiegi, erriaren kontra. Neri aspaldi gertatua azalduko dut. Azkue zanarekin izketan nintzela, iñoiz olako iñor edo iñoiz bat esaten nuenean, bertan zuzendu nai izaten zidan; *norbait* edo *noizbait* esan bear nuen. Liturgiako itzulpen-lanetan bedintsu gertatzen zen.

Nehor ori ez da, inñolaz ere, ukatzaille berez. Eta askotan, norgabeko esaldietan oso egoki dator. Adibidetzat ekarritako leen-textoa gaur askok onelatsu emango zuten: «Ez dela estimurik egin behar Jinkoazko gauzez baizik». Lopez dugulako idazleak ez ote zuen jatorrago itzuli? Beste adibide geienez berdin esan daiteke.

IOgarren adibidea ez dator emen arira: baiña Lopez onek, bere inguruko idazle guziak bezala, forma ori maiz erabilten duela adiarazteko ekarri dut. Nola nai ere, esaldi ori beste onela ere sortu zitekeen: Nehork Jainkoaren gauzak aboruenik gus-tatzen thienian...

22garrenean ez dugu *Nehor-ik*. Eta zera erakusteko ekarri dut, *Nehor* eta *Norbait*, gure idazle onentzat, eta beste gehiententzat, noski, gauza bera direla. *Norbait* orrek Nor jakiñagoa, konkretuagoa aipatzen du, besteak baiña.

BAT, BATZU, artikulutzat erabiliak

Alphonsa Rodriguez-en itzultzaille onek maizegi darabilhela dirudi *bat*, *batzu*, artikulatu utsa aski luketen esaldietan: singularrean *bat*, eta pluralean *batzu*, frantses textoari lotuegi jarraikiz, batzuetan erderazko *uno*, *unos-tn* ordaiña da; beste batzuetan *un*, *cierto*, *quidam-en* ordaiña. Askotan mugagabeko artikulatuaren lekua betetzen du.

Adibidez:

- 1) Huni daukolako gauza *bat* (huni buruzko gauza) (13).
- 2) Ikusi ziela emazten *bat* haur minetan, eta haren aldiari dragon edo suge handi bat zoola haurraren sor beha (haurra noiz sortuko) (28).
- 3) Ustez gauza guthi *bat* den hetan falta egithia (38).
- 4) Gizon sendo eta azkar batek karreatuko edo jasanen diela eri edo haur *batek* altxa estiroen karga (22).
- 5) Nola ehork maithe diro ezagutzen ezthien gauza bat? (32). Gauzarik?
- 6) Ithaxur hetarik sartzen den hurak emeki emeki edo doia doia, zurtathia us-teltzen diela..., murria xilatzen eta urratzen, gero gau *batez* etxia oro erorten (40).
- 7) *Bat bathian* (berehala) etxia erortera jin duzu (40).
- 8) Giristinho bat, kofesatu ondoan, labor pasione, bekatu beretara erorten de-nian... (51-52).
- 9) Nork bere faltez egiazko doliaren ukeithia erremedio azkar bat dela, hetara berriz erortetik beiratzeko (51).
- 10) Akabantza maluros *bat* eginen baduzu, untsa has eta gaizki akabatzia... (65). Cfr. Fin gaitz eginen duk, xoria...
- 11) Nor gutarik Jinko ezin aboro boteretsu, nausi ezinago handi eta juje ezin aboro justo den *baten* aitzinian dela orhit delarik, mentura laite hain gaitzi zakonik egitera? (70). *Ezinago justo denaren* aitzinean ez ote zen jatorrago?
- 12) Gobernairirik ezthien *batek* galdu behar dizi (71).

13) Bi seindimendu, bata espirithian, besthia borondathian. *Bat* eta *beste*, *batzu* eta *besthiak* askotan datoz elkarrekin.

14) Itsas bazter *batetik* beste bazterrera (hegaldatzen baniz) (76).

15) Nola itxasuko hura gorpitz *bat* baita, eta espoinxa beste bat, hurek etzirozu espoinxa bere parthe guzietan igaran (76).

16) Seint Augustin lekhu bathian beno aborotan konparantxa horiez zerbitzatzen duzu (76).

17) Behar dizi, beraz, nehork ispirithian begi *batez* Jinkoa present ikusi onduan, besthiaz sogin haren amorekatik gauza guzien sailduki egitera (89-90).

17-bis) Nehork sinhesten duzu badela infernu bat, bekatoren eternalki gazti-gatzeko (119).

18) Ezagutzetik ezagutzera liferentzia net handi bat baduzu, ezi gizon zuhurrak giaz batera ezagutzen dizi, jakitaterik ezthienek *beste* batetara (123).

19) Gizon endelgatzen ezten batek idireiten badu harri balio handitako bat, estimatuko dizi bere politarazunaren araura (123).

20) Zango *batek* bidia erakasten diraguzun, *besthiak* hura helarazitzen gidatzen (11).

21) Pundu hunetan nehork egin diroen duda edo galde bati aitzinetik ihardesteko, hun duzu jakithia... (128-129).

22) Beratze *batetarik* nehork hartzen baitu aboruenik plazer egiten derakoan lili bat (135).

23) Bat urguluz, banitatez hanthia duzu: *beste bati* inpazientzak eta kolerak bihotza herakitzen darakozu (127).

24) Bertzen doloz edo penez hartzen dien seindimendu bizi *bat* (duzu pietatezkua) (157).

25) Behar dela orano intseatu hartara preparatzera manera berheziago *batez* (d'une manière plus particulière)... (196).

26) Hurrandu behar girela komunione saildura... umilitate eta errespetu handireki... zeluko ogiaren desira (?), gose eta gutizia handireki: avec beaucoup humilité et de respect..., avec beaucoup d'ardeur et d'envie de manger le pain céleste) (196).

27) Jeiki behar dugula lehoin *batzu* bezala hegietarik sua aurtikiten edo egozten dugularik eta demoiuaren beeraren ikaragarri (219).

28) Ogi sakratu hartarik baratzen ziren undarrak haur gazte barur ziren batzuri emaiten zititziaren jatara (222).

29) Aldi *batez*, *beste* anitz aldiz bezala (222-223).

30) Gizon urgulutsu *batek* oro gaitz hartzen tizi (270).

31) Eskarlatezko arropa eder *batez* beztiturik zen andere *batek* sokorritu eta erratzetik beiratu nizi (224).

32) Hun duzu hareki (apezareki) *bathian* hilendako oitotzia (232).

33) Jakin ezazie azken egunetan denbora gaitz *batzu* izanen direla, eta gizon bere buriak maite tusten batzu... (267).

34) Nehork bere buriaren ezagutzeko... ezinago bide hun eta segur segur bat dela bere bekathiez orhitzia (283).

35) Nehor zer nahi mana zirozu persona umil bati (273).

36) Umilitathia bide edo dispozizione handi bat duzu... (270).

37) Goguaren *batetik bestetara* erabilthiak deskantsatzen dizi (132).

38) Espirirthiaren *bateti bestera* jauztekatzen utziz (128).

39) Amorio eta fidantza handireki: avec beacoup d'amour et... (200).

40) Ogi saindu horrek jana izan nahi diela gizonaren bihotzeko gose handi *bateki*: avec une grande faim (200).

41) Zori balitzaut authu baten egithia, hiltzia hauta nirozu (344).

42) Haren borondathia bethi egon zizun obediencia oso bathian bere aitaren borondatera (301).

43) Ardi batek, bihurtu gabe, zintzurren egitera uzten dizi (335).

44) Bekatu egiteko lanker segidazko *bathian* bailizate (346).

45) Nola ahal zukeen hain botz xarmagarri *bat* (348)

46) Gizonaren gorpitz lohi batetan garbi izaithia (343).

47) Egiazki nehork mate dienian norbait, plazer oso bat badizi bere adiskidia ikusten dienian plaza edo grado horezko eta prootxos *bathian* (350).

48) Jinkoak grazia berhezi *batez* bere zerbitzarioetarik zunbait arras hetarik (bekatu lohietarik) begiratzen tizi (356).

49) Urdekundhia animale satsu *bat* baita (355).

50) *Bathian* (gauza) *batzu*, *beste* aldian *besthiak* goguan erabili (behar ditugu), hobenik iduriko zauzkigun bezala (207).

51) Horeik oto marka batzu tuzu, guran igaraiten direnak ez tirela gutarik jiten (389).

52) Batziak lehenko bekathiek ikaratu behar tizie: *besthiak*, bekatura erorteko beldurrak (410).

53) Emazte lohiak egoiten ziren etxe *bathian* (393).

54) Ene anaia, zer egin zindiro hor *batek* ausiki nahi bazintu? Harri har nirozu eta makila bat, eta horari ihes igor artekan kolpu eman nirozu (392).

55) Horiek orok eztezakiotela ez ogenik egin, ez bilo *bat* idok (211).

56) Eitate *bat bi* aldetara har daiteenian, hunerat hartzen dizi (Jinkoasko gizon batek) (427).

57) Egun hura egun hautatu *bat* duzu...

58) Oro egin girade jende satsu *batzu* bezala eta gure obra hunak oro oihal odol andeatu *batez* satsithiak bezala dira (291).

59) Eskerren emaiteko hain handi den hungi *batez*: pur rendre graces d'un si gran nienfait (229).

60) Zaku batez bestithia, huinthuts: Revestu d'un sac, les pieds nus (166).

61) Bethi bizitzeko gure burien mesperetxu eta gihauren ahalge handirekin: pour vivre toujours dans un gran mespris et dans une grande confusions de nous memes (167).

62) Penitentzia handirik eginez bizi ziren batzueri: á des hommes consommés dans le pénitence (272).

63) Nezesario duzu Jaunaren graziaz bihotzaren azkartzia eta han zimendu hunik ezarthia: jeter de bonne heure de solides (65).

64) Jinkoa gogotikago daguela halako desie bat dien bihotz bathian, erran nahi baita, zeluko desire handiski uken nahi lukeen batetan (150).

65) Umilitathia garbitarzunaren eta xahutarzunaren hain edergailhu handia duzu, nun... (273. Frantsesak: L'humilité est d'un si grand ornement...).

Adibide auetako *Bat* gehienek frantsesaren Un dute azpian. Gutxitsu utzi dute erdararen bidea. Kasu bereziak dira *bat* eta *beste*, batzu eta beste dakartenak. Frantsesaren moldetik aldendu denean, idazle onek partitibora ere jo du, 62garrenean esaterako. Azkenez, *bat* onek, kasu batzuetan, askotariko formak erakusten ditu: bathien, bateti, batetarik, batetan eta abar. Batetik bestea, edo batzuetarik besteetara zer alde dagoen ez da argiegi ikusten.

MUGATUA ETA MUGAGABEA ZENBAKIEKIN

1. Leizarraga

Leizarragak ez du bereizketarik egiten, Bitik gora, zenbakiek, naiz artikuluekin nai gabe, plural egiten dute.

— Textorik argigarriena, Mateo 18garrenekoa: Zer iduri zaizue? Baldin gizon batek *ehun ardi baditu*, *eztitu* laurogei eta *hemeretziak utziten*, eta errebelatu zena bilhatzen? Mat. 18,12.

— Batari eman *zietzon bortz* talent, berzeari biga, eta berzeari bat. Id. 25,17.

— Hartzedun batek *zitian bi zordun*. Batak *zian zor* bortz ehun dinero, eta berzeak berrogei eta hamar (Batean plurala; baina bestean, singularra, *bortz ehun dineroak zor bat* egiten dutelako, noski, *bortz ehun dineroko zorra*, alegia). Luk. 7,41.

— Egin *ditzagun bada hirur tabernakle*, bat hire, eta bat Moisesen, eta bat Eliasen. Luk. 9,33.

— Goiti *zezaten* zathietarik *hamabi saskitara*. Mark. 6,43. Altxa *zitzaten* zathi soberatuatarik *zazpi saskitara*. Mark. 8,8. Bi textuotan joko ezberdina darabillala

dirudi, agian, batean, *hamabi saskitara*, multzo bat, kopuru bat bezala dago, eta bestean ez).

— Orduan *biga izanen dira* landan; bata rezebituren da eta berzea utziren. Mat. 24,40.

— Ezen non *baitirade biga* edo *hirur* ene izenean, han naiz haien artean. Mat. 18,20.

— *Zituan* gure artean *zazpi anaie*. Mat. 22,25.

2. Etxepare

— *Hirur gauza albaditu* ehork ere egiaz. *Harmak herioaren kontra*.

— *Mila gizon gaixtorik* da emazte batendako.

Gizon baten *mila andre* bere fedean *dago*. *Emaztenfabore*. Mila mugatu gabeko kopuru bat aipatzeko erabilia, euskalki guztietan bezala. Gainera, bata mugagabezko atzizkiarekin.

3. Refranes y sentencias. 1596

— Tilista aroan *amabost urte det* (Adinaren kopuru osotzat, urteek adin oso bat egin dutela).

4. Belapeyre (Zuberokoa)

— Zonbat persona *dira* Jinkoatan? *Hirur*. *Badira* beraz *hirur Jinko*? Ez, zeren hirur persona hoiek ezpeitie ber izatia, indarra eta Jinkotarzuna baizik. 1,30.

— Zonbat naturaleza *dira* Jesus-Kristen? Biga, Jinkoarena eta gizonarena. 1,32.

— *Hamabi urthe zutukiano*. 11,33 (Adinaz ari den arren, plural).

— Barurtzera zoin *dira* bortxatit? Hogeit eta bat urthiek igaran diitianak. 11,43 (Urteak artikularekin mugatuak).

5. Tartas (Zubero). Onsa hilzeko bidia

— *Bi soldado* pobre *heldu dira* Aruetik Bardkoitzera (Intransitiboekin Txillardegik Etxahunen bertsoetan aurkitu dituen «exception apparente» direnetakoa), Gomendiozko letra.

— Ene soldado debotak *badu* berekin *laur kompañia* edo laur regimendu. Gomendiosko letra.

— Istoriano batek dio... Erromen bertze gauza ederren artian *bi tenpla edo bi eliza zirela*. Onsa, 1.

— *Milla* mesprechu *egin zian* gizon saindu hari (Milla kopuru handi mugatu gabea).

— Edirenen *duzu laur kapitulu* ene liburian (Irakurtzaliari).

— Kolpu batez *bi bekhatu* handi eta grabe *baitzutian* kometitu, heriotzia eta adulteriu. Id,39.

— Krimenelak galdo egin zian hamabost egun ephe edo spazio, Id,107 (Epe gutzia, kopuru bat bezala hartuta, edo hamabost eguneko epearen galdoa egin zian).

(Ikusten denez, Tartasek ere bitara jokutzen du).

6. Lopez. Ghiristhino perfekzionaren pratika

— Mezan *badirela hirur parthe* prinzipal, 229.

— Beste anitzek... hamabi *grado ezartzen tiitzi*, 277.

— Bi fundament edo prinzipio behar *tiitzi*, oinhek gidatzen baikituste. Id,301.

— Nausi batek *bi mutil* ondoz ondo elgarren berri jakin gabe zerbait eitekoz leku berera *igorten thienian...* Id,304.

7.

— Salomon Israelitikoen erregerik zuhurrenak *zazpi urthe ezarri* zizun..., tenplo eder bano ederrago baten eragiteko. Imit, 334.

— *Bi lekzione* egun oroz irakurten *diriet* (ene haitatier). Imit, 143.

8. Inchauspe. Egiatzko erreljionia (Imitazionia liburuarekin batera). Zuberocera

— *Hogei eta hirur mila* hil erazi *zutian*. Egiatzko erreljionia, 359.

— *Hiruetan hogei* urthezko *aste izan dira* kuntatiak, 367.

— *Hogei eta amahirur urthe zutian* mundian igaraiteko, 372.

— Behin bost ogieki *bost milla* gizon *aserazi zian*, 374.

— Badela Jinkoatan hirur persona berhezi... Hirurak ber Jinkoa direla, 375.

— Algarren ondozka *sei* (emazte) *espusatu zutian* (Henri VIIIk).

— Kuntatzen *dutu* bere liburu batetan *hogei eta bi mirakulu* (bere denboran eginak eta haboroak berak ikhusiak), 414.

— *Mente hartan ikhusi zutian* mudiak *berrogei khiristi*, batak aphez, bestiak aphezkupu, bestiak diakre, 416.

— *Hirur urthe bazian* ehortzirik zela, 419.

9. Anne Urruty. Ebanjelio Saintia Jondane Johanaren arabera

— *Bazen han sei* harrizko untzi. Johan, 2,6 (Leizarragak: Zidaren han sei kuba harrizkorik ezarriak...)

— Bakhotxak *biga* edo *hirur* pegar etxekitzen *beitzian*. Id.Id.

— Untsa erran duzu: eztut senharrik. Zeren izan *duzu zazpi senhar*. 4,18.

— Jerusalem bada lekhu bat, hebruez deithia Beth-esda, nun *beitzen bost portale*. 5,2.

— Bada hemen mothiko bat, diana bost garagar ogi eta bi arrain. 6,9.

— *Ikhusi zutian* (Mariak) *bi singuru* xuriz bestitutik (Leizarragak testu guztirik plurala). Ondorioz: euskalki guztietan egiten du zenbakiak singularra, edo singularraren jokabidea du, adina, epea, irautea, bidea, multzoan hartuta, adierazteko. Zuberioan ez dute guztiek lege jarraiki eta zehatzik erakusen. «Exception apparente» delakoa, intransitiboekin eta transitiboekin agertzen da.

IZENA artikulua gabe erabiltzen deneko kasu bat

Ekitaldiren bat adierazteko esaldietan. Oso erabilia da, aditz-izenekin batera. Eta ia aditzarekin bat egiten du izenak. Ez da *egin* aditzarekin sortzen diran txorten antzekoa: negar egin, ots egin, oiuhu egin eta olakoen antzekoa. Aditz batzuk dira erabillienak: erein, batu, bildu, moztu, ebaki. Gari ereiten, gari ereitea; arto ereiten, arto ereitea; sokil edo mokil austen edo sokil auste; belar ebakitzen, ira ebaten; ile mozten, ille mozte; iriñ eralten edo irin eralkitea. Eta holako ainbat esalditan entzuten da.

Ez det iriñ asko eralki, baiña hartan ari izan naiz, irin eralkiten. Gaur sokil austen garratz ekin diogu. Sagar biltzen lan egin degu.

Zenbakiak ere nozik bein erabiltzen dira, aditzari eragiñik egin gabe.

Zortzi egun iraiten zien Bazko bestek. Marie Burgi bizi izan da hiruetan hogeia eta hirur urthe.

Irain zian berrogei eta hamar urthe.

Beste inoiz multzo adierazten duten zenbakiekin ere plurala agertzen da: «Baziren Judean, Nazaretheko hiri ttipian, senhar emazte saintu eli bat».

Singularra: «Familia saintiak igaran zian Egiptan zazpi urtheren ungunia. In-txauspe, Maiatza, 127, Mariaren Ilh bethia.

JUAN DE BERIAYN

Nola ençun bear den Meza. 1621

Alas eta

1) Alas eta onla yçanic eta egun oroz erorcen garadenean becatutan eta çorraren azpian, cer da gauça oberic joatea baño Mezara, eta an ayetaric libracea? 108v (Pues siendo esto assi, y que cada día caemos...).

2) Otoitz eguin bieço (?) Iesuchristori, alas eta han ençuten duen dotrina denean aren majestadearena, mintca daquion biotcera (pues es doctrina suya la que oye, le hable al corazón) Id.55v.

3) Alas eta guciac dutenean obligacio gauça ohec jaquiteco eta obratan eçarceco (pues no de aver nadie que ignore la obligación que de esto tiene, para que mejor lo cumpla) Id.56.

4) Ceren ecin ynor ere engaña deçaqueçu, alas eta ceradenean Maystrua eguias-coa (porque vos, Señor, solo soys el Maestro...) Id.57v.

5) Alas eta ascotan joaten garadenean desseorequi ençutera fama duen predi-catçalle bat eta, ez ičanagatik ayn famosoa, ençuten dugu borondates (pues vamos muchas vezes y aunque tal no sea lo oymos) Id.45v.

6) Alas eta fedec eracusten digunean ayen (apostoluen eta profeten) dotrina dela laungoicoarena (pues nos enseña la fe que su doctrina es de Dios) Id.Id.

7) Sinestatcen dut diradela eguiac, alas eta çuc eta çure Elizac eraskusten eta erraten didaçunean ala diradela. Id.57v.

8) Ala bayta eguia ece Mezan ofrecicen den sacrificioa dela Meza ençuten duenarena, alas eta Iaungoycoac ematen dionean bere merecitu cituen tesoro eta ondasun guciequi (pues el Padre Eterno se lo ha dado y también el Hijo con el tesoro de sus merecimientos). Id.72v.

9) Alas eta Mezan eguiten diraden oracioac... guciendako aprovechatcen diradenean (pues las oraciones que en ella se hazen y el sacrificio que se ofrece para todos aprovecha). Id.28v.

10) Alas eta denean gauza ciertoa ecen Christo gure Iaunac etcuela becatuic bat ere...nola nai içandu çuen ill guruce batean...? (Dotrina Christiana).

11) Alas eta Christo gure Iaunac ill içandu cenean guri gueren becatuak barcatceagatik..., nondic dator condenatcen baytirade ambat gende? (Beriain, Dotrina).

12) Cerengatik erraten da Eliça dela bat solamente, alas eta munduan denean ainbat gende mota christioak diradenac, eta ainbat lecutan? Dotrina.

13) Cer gloria içanen du ceruan den gorpuçac, alas eta denean gauça ciertoa ece gorputçac ecin icussi deçaquela Iaungoycoa, baicik arima soillac? Dotrina.

14) Alas eta erran ducunean iffernuco suac erreco eta abrasatuco dituela gais-toac, nola eztitu arc acabatuko? Dotrina.

15) Erran denetic atracen da, alas eta confessacen duenean Meza ençuten due-nac, dela becataria laugoycoren aurrean... eztuela erran bear kumplimentuz eta ytzes solamente (Beriain, Meza, 40).

16) Alas eta erran denean ece Meza dela...aditzera emate bat cer Christo gure Iaunac eguin çuen guregatik bere vician eta heriotzean, eguin contu doayela Calvarioko oyanera (Meza, 26). (Pues se ha dicho que la Missa es una representación de la vida, pasión y muerte de Christo nuestro Señor, haga cuenta...).

Alas eta beste idazle batzuetan

17) Halas eta leguearen arauaz, halaco hutsic eguiten çuenari bi begiac ierazi eta athera behar ceitcanaz geroztik, athera ciaçotela aitari berari bere begietaric bata, eta semeari bercea. Axular, 347-340.

18) Halaco desirac ez othe dira alfer, halaz eta dembora hartan halacoric ecin daididanz geroztic? Pouvreau, Philothea. 387.

19) Cergatic enaiz artha handiagorequin preparatcen çure sacramendu sainduaren hartcera, halaz eta Patriarca, Erregue are eta leheneco Prince saindu hec... halaco devocionezco seinaleric çure... cerbitçuan eracutsi duteneaz geroztic? Pouvreau, Imitacione. IV. 1,6.

Testu guziok mende berekoak dira. Ugarienak Beriain naparrarenak. Gauza bera esateko erabiliak dira, arrazoi bat edo zergatiko bat emateko. Baiña Beriainek era batera erabili du, eta beste biok bestera. Irurak erabili dute zergatizko esaldiari aurretik jartzeko, bukaera dute ezberdiña. Beriainek inesiboko formarekin edo noizaldia adieraztekoekin, eta Axularrek eta Pouvreaux -geroz edo -z geroztiko formekin.

EZPA

Ezpa juntagailua, gaurko egunotan esaera gutxi batzutan gel-ditua: Bizpairu, hiruzpalau, lauzpabortz, bospasei, edo-ren kidea; bi edo hiru, iru edo lau, lau edo bost, bost edo sei...

1) Ahal datequea ene condicionezko bachotasunik *ezpa* hunelako berce gauçaric batre ni hain obra saindu baten...Regina bati dedicatzetik guibelerat zeco nuenik? (y peut-il avoir petitesse de condition ou autre telle chose, qui m'ait deu empescher de dedier une oeuvre si sainte a une reine...? (Nafarroaco Reguina.-denari).

2) Bilo bat churi *ezpa* belz ecin daidic (Tu ne peux faire un cheveu blanc ou noir) Leizarraga. Mat. V,36.

3) Bortcha içan çaicu anhitz gauça gaizqui iarriren *ezpa* usaje gaichtotara itzuliren cambiatzera eta muthatzera (changer beaucoup de choses...mal introduictes ou pour le moins destoneureés en mauvais usage)

4) Hereticoa da secta bereciric aparte eguiten duena *ezpa* daducana. Hitz eta minçatzeco manera batzu bere declaracionequin. Heresia.

5) Mundu oro iarriren da bi lecutan hertsiric: /glorian *ezpa* ifernuian; ezta escapaceric. Etxepare, Juicio generala.

6) Amoretan othe date leyal denic batere, /hitz ederrez *ezpa* joiiaz mutha eztadin hura ere? Etxepare, Amorosen gaztiguia.

7) Secretuqui behar dicit harequila minçatu, ordu hartan iagoiticoz etsai *ezpa* baquetu. Amoros.

8) Joan duçuna ekardaçu, *ezpa* eman ordaina. Amorez errequeritcia.

EZPERE

1) Beguirauçue çuen elemosyna eztaguiçuen guiçonen aitzinean heçaz ikus zaitzentzat; *ezpere* sariric eztuçue ukanen çuen Aita ceruetan dena baithan (Leizarraga, Math., VI, l'Autrement vous n'aurez point de salaire vers vostre Pere quiest es cieux).

2) Baldin çure borondatea *ezpada*? Iauna, hambat gratia eguin daquigum, ...*ezpere* permiti bequigu oyhoi, ia gure artean iarria den ordenança, empatchuric gabe continua ahal deçagun (au moins qu'il nous soit permis de pousuyvre... (Regueri).

EZPEREN

Ezpere bezalakoa.

1) Joseph, hire Semearen/ urrikal behik pena/ edo *ezperen* Birjina/ erdi beharrena (Etxeberry, Noelak, Betleenen ostaturik ezin aurkituz...) (Edo behintzat).

2) Manual debotioenezkoa, edo *ezperen*, oren oro, eskuetan erabiltzeko liburutxoa. (J. Etxeberri).

3) Errazu *ezperen*: munduan noiz agertun cifian zu, edo noiz izandu cen lurreco zure asiera? (Errezu, bestela) (Mendiburu, Otoitzgaiac, 1.7).

4) *Ezperen* arnoac leher eraguinen daroe zahaguiei (autrement le vin nouveau roples barils). Haraneder. Mark. 11,22.

5) Raguei, *ezperen* Jethro Çaritzin aphezaren zapi alabec yo zuen lekhu bererat bere artaldei edaraterat. (LARREGUY. Testamen Çaharrek. 1.117).

EZPABERE (EZPABE)

Ezpere eta *Ezperen* juntagailuen antzekoa da Bizkaiko euskeran *Ezpabere* edo *Ezpabe*. Aspaldian baztertuta dagoela dirudi, baiña bizirik dirau.

1) Onek berbok emon biar dira oso osuan? Bai, jauna, gustiyak bat itxi baga; *ezpabere*, eztago bautismorik (Bestela, eztago bautismorik). (Nicolas de la Quadra, Dotrina Cristinauba, 1784, manuskrito).

2) Ordu gaiztoan ken zaitez orrik:

ezpabere ta fedea,
xakin bai xakin nolakoa dan
ene ukabil pareta. (Barrutia, Gaboneko Ikuskizuna).

3) Necessidade da errezibietea disposiziño onagaz sakramentuak? Bai, zerren *ezpabere* ezta errezibietan.

4) Zer egin bear da iñor murmuretan dagoanean? Eragotzi albadagi, *ezpabere* beste konbersaziño bat atera edo joan arik. (Olaetxea, 1763, 115).

5) Emen eskatuten dogu librau eta apartau gaizala Jangoiko geure Jaunak demoniñoen tentazinoetarik, edo *ezpabere*, aetan ez jausteko emon deigula bere grazia. (Id. 94).

6) Pekatu mortalian komulguetan danak artzaiten dau Jesu Kristo? Bai, Jauna, baia ez bere onerako, *ezpabere* bere kaltian. Laudioko Doctrinia. 1828, 74. (Geroagoko edizio batzuetan, *Ezpada* bere kaltian).

7) Zelan ondo batiatuten da? Ezarten jakala seiñari ura, albaledi burura, ta *ezpabere* gorputzeko zatirik andienara. Id. 58.

8) Zer egin biar dau deungaro ezkondata daganak? Billatu konfesore jakituriz andiko bat, ta egin onek esango deusana. *Ezpabere* beti biziko da pekatuan. (J.A. Moguel, *Kristaubaren ikasbidea*. 259).

9) Pagau eidazuz isil isilik eskudo biak, *ezpabere* jakingo dot zer egin. (Moguel, Peru Abarka, 75 Durango).

10) Zembat sentiduko eban Jesukristok Judasen dollorkeria au? Esan begie *ezpabere* bere berba bigunak: Judas neure adiskidia, esan eutsan... Durangoko euskaraz lau sermoi (XIX. mendea, 34).

-KO ATZIZKIAREN ERABILLERA BI*

Urte asko ez dala, itauntxo bat eldu zan euskera jatorraren maixu eta zaintzaletzat dagozan batzuen lan-maira: ia eguneko lana *biarko* edo *etziko* itxi esatea ondo eta jator esanda egoan ala ez. Ez ete zan *biarrerako*, *etzirako* esatea jatorrago.

Itaun egilleak goitxoan egozanak ziran. Ain zuzen, argitaratzeko aurkezten ziran euskal lan barriak, euskera jatorrez, diru-laguntzarik edo merezi eben ala ez erabagiteko kargudunak. Egiteko au zuzenago beteteko argia eskatzen eben, okerreko urratsik ez emoteko.

Ortxe sortu jaken euren kezkatxoa: *biarrerako* eta *etzirako* ez ete egoan euskeraz jatorrago esanda, kasu batzuetan. Esaterako, *gaurko* lana, *biarko* ogia, *etziko* batzarra aitatzea ondo eta jator aurkitzen eben; baiña *biarko* itxi edo *etziko* atzeratu eta olakoei ez eutsen antz onik artzen. Antza, -KO atzizki utsa ez euken norenkitzat, genitibotzat erabilteko baifio, edo izenondotzat, *etxeko jauna* edo *arpegi ederreko gaztea* esaten dogun lez, *biarko eguna*, *etziko jaiak*, eta olakoak adierazteko, izenen bat ondoan dauala, eta ez *biarko*, *etziko*, *betiko* ta olakoetan gero gertatzeko dan zerbait aitatzeke.

Olan gu ez gara *betikoak*, ondo legoke; baiña agur *betiko*, txarto; gure laguna etorriko ete jaku *etziko* entzuten dauanak, bear bada, bekokia tximurtuko dau, euskalgaitzozko esaldien bat entzun daualakoan, «etziko» ori aditz-ondotzat erabiltea txarto dagoalakoan.

Onetan gaur badirudi oker usteen bat sotzen asi dala askotxoren buruetan. Ez edo dakie *gaurko*, *biarko*, *etziko*, *betiko*, *geroko* aditz-ondotzat erabilia ondo eta jator dagozala, eta ez dabela beste geigarririk bear, or nai dana adierazteko, eta olantxe erabili izan dala euskaldun diranen agoetan eta gure literaturan. Ez dogu gure

* Euskerazaintza (1989, 9. zenb.) 1-3.

idazle jatorretan *ez biarrerako, ez etzirako, ez betirakorik*, irakurriko. Geroko gaiak askotan aitatu arren eta bere luman erabilli arren, Axular andiak beti *geroko* erabilten dau, iñoz be *gerorako*.

Eta aitatu doguzan itzetatik kanpo, idazle zarrak jokaera bardiña izan eben beste izen eta itz askotan, -Ko eta -Tako atzizkiekin, *-rako* era *-tarako* egin barik. Eta ez daigun aitzu -Ko atzizkiak aditzean bertan be geien batez geroaldia, etorteko dan egiñen bat edo jazoeraren bat gogoratzen deuskula, zergaitziko esaldien baten ezpada: Biar etorriko da, biar etorteko da, biarko egunak ekarriko al deusku barri onen bat, eta olan. -Ko atzizki onek geroaldia adieraztea lenengo eginkizuna dauala esan geinke. Noiz bein badau relatibo antzeko esaldi batzuk sortzeko egikizunik be, izen baten aurrean jarrita. Esaterako onako esaldietan: Biar etorriko dalako ustean gara; atzo jakin gendun gure laguna Ameriketatik etorri *dalako* barria. Emen, bai; emen jazoe-raren bat urrengo izenarekin (uste, barri) lotzen dau; baiña -Ko atzizki au aditzean batez be geroko zeren bat edo elburuen bat adieraztekoa da.

Baiña ez aditzean bakarrik, edozein izenekin be bai. Antziñako idazleak asko jotzen eben atzizki onetara etorteko dan zeren bat edo zerbaiten elburua, zertakotasuna edo zertarakotasuna adierazteko.

Adibide batzuk ipiñi daiguzan. Amaseigarren mendekoa da euskerazko esaera zarren lenengoko bilduma. Eun da berrogeta bakarren esaerea onelan da: *Gibeleko on dana, bareko gaxto*. Gaur Bidasoaz onuntz beintzat edozeiñek esango leuke, Gibelerako ondana, barerako gaxto, au da, gibelarentzat on dana, barearentzat txarra izan daitekela.

Bilduma orretako beste esaera bat geiago gure arira ekarri geinkela uste dot: *Txitak, grisolak eta urdaia, maiatzeko maira*. Azkenengo itz biok onela itzuli ditu esaeren batzailleak «Para la mesa de mayo»; baiña, nik uste, beste onetara itzulita obeto eta zeatzago legokela: «Para mayo a la mesa». (39gn esaera).

Amaseigarren mende orretatik asita zarra deritxogun gure literatura osoan aurkitu genikela uste dogu -Ko atzizki au era orretan erabillita.

Beioaz emen joan dan gizaldiko batzuk:

1) Okerreko jokabide batzuk aitatu eta jorratu naiez, onela idatzi eban J.M. Hiribarren lapurditarrak: «Igandea laneko, aztelehena alferkeriako; ilhar, lursagar, ahi et gaztanbera, ortzegunetako; oilo, gaphoin eta azpikia ostiraletako». (*Eskaraz egia*, 141).

2) Ez dire barridak *mahaineko*, ez mendiak gizonen *sorbaldetako*. (Id. 30-31).

3) Gure biziek eztauke seguiradederik *egun bateko* ere. (Euskal textu zaharrak. Lakuntzako sermoia, 233).

4) Irugarren *aldiko*, negarrez saltatu zekio apostolu sandueri. (Muruzabalko sermoia, 71).

5) Jaungoikoak autatzen badu edo berezten badu bat ofizio *bateko* (van) estadu *bateko* ero *besteko* ematen tio ofizio *artako* ero estado *artako* beartuen kalidade guziak. (Id. Erroko sermoia. 263).

6) Beti penitenzia *geroko* luzatzen dute. (Id. Lakuntzako sermoia. 323).

7) Neskatzak eta txakurrak Anjeluseko barnerat (Esaera, Larzabalek bildua).

8) Agur, Balentina, betiko, ez egun bat eta *biko* (Zapirain, Auspoa, 123, 39'garren orrialdea) sekula geiago ez naiz etorriko. Ikusten danez, singularrean -KO, eta pluralean -Tako erabilten dabe.

9) Urte guztian berezi dute denbora piska bat bere *deboziotako*, *negoziotako* eta *maldadetako*. (Textu zaharrak, Errokoa, 262).

10) Errian be entzuten dira onelako esaerak: zazpiko, amabosteko, ogeiko dator etxera gure mutilla.

11) Gabonetako etxera joaten dira barruan morroi egonak.

12) Aztertu daigun esaera au: Doneaneko euria, garien galtzagarria (Amasei-garren mendeko 254gn esaera). Esaera onetan argi dago zer dan Doneaneko euria, bagillaren 24aren inguruko euria. Baiña, «*Donianeko*, euria» esango leukenak egun ori etorri orduko euria, izangodala esango leuke. Bide batez, ez daigun aitzu emen jarri dogun «orduko» ori, ari berean dagoala. Ez dogu esaten: «etorri ordurako».

-Tako, len esan eta ikusi dogunez, pluraletan asko erabillia da. Baiña bai, plural ez diran beste izen eta esaerekin be. Esaterako: aparitako, gosaritako, azitako, ongarritako, barausgarritako. *Azitako* ori ereiteko gordetan dan garaua da, edota, etxean azteko edo etxeko okullurako isten dan txala. Olan izan dala uste dogu gaur arte. Gaur, barriz, asi dira batzuk azitarako esaten eta idazten, naiko luzea dan itz bat luzeágo egiteko. Ez egoan ori egin bearrrik.

Aparitako edo afaritako, edo afaiteko zer daukak? Olan itauntzen dau euskal kantatxo batek:

Aiko, Joanik, Olabarriko,
Zer daukak aparitako?

Itaun onek jakin gura dauana zera da, ia zer dan etxean aparian jateko? Emen be batek baiño geiagok *aparitarako* egokiagotzat joko leukie; baiña, ez da jakin gura or zer ekarri bear dan aparitarako. Apari-lekua apaintzeko gauza asko datoz ondo: maia, ontziak, koillara ta abar; baiña aparitako bear dana jana ta edana dira, orreik egiten dabe aparí, ez ontzi, koillara ta abarrek.

Bardin antzekoa da Mezan jazoten dana. Mezan oparitako ekarten dana ogia ta ardaoa dira; orrexek dira opari; orreixek dira gero sagarako misterioan Kristoren Gorputz eta Odol biurtuta opari barri biurtzen dana eta Jainko Aitari eskintzen jakona, eta kristiñauak jan ta edaten dauana. Eukaristi-otoitzak euskerara itzultzerakoan, eztabaitxo izan zan itzultzaille-batzordekoen artean «oparitarako» ala «oparitako» bear zan: Oparitako ekarri ditugun ogi ta ardoa bear zala erabagi eben. Alan izan dogu oraintsurarte. Olantxe dauke Baionakoak: «oparitako ekarri ditugun ogi eta arnoa», eta olantxe geunkan Bidasoaz onuzkoak. Baiña norbaitek or bere eskua ezarri dau, eta azkenengo argitaraldian, «oparitarako» ipiñi deuskue. Okerragora zuzendu dabe, bai Bizkaikoan eta bai Donosti-Iruñekoan, eta ez da bape obeto gelditu. Mezan

ogi ta ardoa ez ditugu oparira ekarri egiten, opariko parte bat izateko, opari izan eta egiteko baiño. Ori egingo dau, egitekotan, «zer daukak aparitako» barik, «zer dogu aparitarako» esan bear dala diñoanak.

Nastetxea sortzen da egiaz -Ko eta -Tako atzizkion goraberan. Lapurdi aldekoen artean, ez baiña, emengoen artean bai.

Azpalditxotik dator emendikoen joera au. Antziñako dotriñak, Irazustak, Olae-txeak, Oikiakoak *zertako* eta *zetako* esaten eben lekuan, edo olan asita itauntzen eben lekuan geroko askok *zertarako* ipiñi eben, eta askoren buruan antziñakoa gaurkoaren laburpena dalako eritxia gelditua edo dala dirudi. Baiña ez da olan. Lapurdi aldeko batek ez dau iñoz *zertarako* galderarik egingo. Antziñako sustraietan tinkoago jarraitzen dabelako.

Argi billa gora jo eben gazteak, oker uste onen lekuko. Biarko ala *biarrerako* esan bear zan itauntzen eben. Ez gaurrerako, ez biarrerako, ez etzirako, ez noizerako; *noizko*, *etziko*, *biarko*, *gaurko* baiño. Ori da euskera jator eta garbia.

BALDINTZAZKO ESALDI BATZUEN BEREZITASUNA*

Baldintzazko esaldi batzuek euskeran duten erabillera berezi samartxo bat aurkeztu nai nuke Mitxelena zenaren omenez lan-bilduma onetara. Gure egunotako euskera bizian eta gure literatura osoan bizi bizirik ikusten dugun erabilera da.

Gaia mugatuz, esan dezadan *Ba-* aurrizkia, baldintzazkoa, aurretik daramaten adizkiz osatutako esaldiak aztertu nai direla emen: *banintz*, *baziña*, *balitz*, *banu*, *bazenu*, *balu*, eta berauen saillekoak, alegia. Eta auen artean zerbait *nai izatea*, *naigo izatea*, *obe izatea* eta adierazteko asaldiak, ain zuzen.

Gure gramatika liburuetan, nik dakidala, edo aipamenik ez edo argitasunik gutxi emaiten zaielakoen nago, Lafitte zenaren gramatikan izan ezik. Euskal idazle eta gramatikalari onek, iraizean bezala, bere ikututxoak egin zizkion gai oni bere Gramatikan, onelako adibideak emanez: «Nahi nuke jin baledi; bekatu litake ez balitz apheztu; dohatsu nintake, berak aifhor balezat; nahiago nuke ez banu behin ere ikhusi; nahi nuke, egin baleza» (Ikus aren *Grammaire Basque*, n. 721, 724, 866). Naia, naigabea, urrikia eta olakoen inguruko sentierak adieraztekoak direla dio Lafitte gramatikalariak. Are geiago esan du: Baldintzakotzat ezik, delako sentiera adierazteko duen aditzaren osagarrizko esalditzat (Konpletibotzat) ar daitezkela. Eta au argitzeo bezala berak, goian aipatu ditugun esaldiak prantzezera aldatu dituenean, aurreko aditzaren konpletibotzat itzuli ditu.

Gramatika gai onek azterketa argigarriagoa merezi duelakoa, ene lantxo onek saiotoxo bat egin nai luke, ea gai oni ematen zaion baiño arreta eta jaramon andiagoa

* AitaLinorenpaperenartean aurkitutakolana. [Ik. *MemoriaeL. MitxelenaMagistriSacrum* (Joseba A. LAKARRA, argit.), ASFV, Gehigarriak, XIV, Donostia 1991, 1053-1058].

eman bear zaiola ikusten dugun. Gai onen muiña, au da, baldintzako esaldion erabillera ez da bakarrik euskerarena. Laster ikusiko dugu beste izkuntza askok ere berena dutela; baiña euskeran beste inguruko izkuntzetan baiño errotuago eta indartsuago aurkitzen dela esan daiteke.

Adibide argigarri bat

Esan dugunaren argigarri adibide bat eman dezagun aurre aurretik, Europako izkuntza andien eremuan oso ezaguna dena, Mateoren Ebangelioan Judasen saldukeriari dagozkion itzak. Liturgirako itzulpenetik jaso ditzagun: «Gizon orrek obe zukeen jaio ez balitz» (Mat. 26,24). Itz auek, beren jatorrizko izkuntzetako testuan, bai grekoz eta bai latinez, baldintzako esaldia egiten dutela daude, euskeraz dauden bezala. Baiña, gure auzoko erderetan, konpletibo egiñik aurkitzen ditugu ia beti: «Más le valdría a ese hombre no haber nacido» gazteleraz; eta frantzezez: «Mieux eût valu pour cet homme-lá de ne pas naitre». Olaxe Jerusalemgo Biblia delakoan, gure inguruko bi izkuntzetan. Esaldi ori konpletibo egin dute, ez baldintzako. Gure auzoko bi erderak bide ori artu dute, XVIgarren mendetik asita. Calvinok, asiera batean testu ori baldintzako egitera jo bazuen ere, azkenengo itzulpenetan, konpletibo egin zuen; baiña Leizarragak, Testamentu Berria euskeratzean, ez zuen or zalantzarik izan: itzez itz eutsi zion baldintzako bideari: «On çuqueen guiçon hark baldin sorthu ičan ez balitz». Eta geroko euskal-itultzaille guztiek bide beretik jo dute, bai protestanteek eta bai katolikoek, gure egunotara arte. Eta ez dira gutxi. Ala ere gure egunotararte esan dugu. Izan ere, gure mende onetan bi itultzaille izan ditugu osoan inguruko erdalduen bidea artu dutenak: Olabide eta L. León. L-Leónek onetara: «Hobe zuken harek sekulan ez sortzea». Eta Olabidek beste onetara: «Obe litzayoke alakoari yayo ez izana». Bata eta bestea lotuegi azaltzen zaikigu erdal-itzulpenei eta indarra kendu diete Jesusen itzei. Askoz jatorrago iduritzen zaigu baldintzako egin dituztenen bidea, liturgiako itultzailleen bidea bera.

Argigarrizat ipiñi dugu gure lanaren asieran Ebangelioko testu ain ezagutua. Lafittek bere gramatikan eman zituen esaldiek euskera bititik artuak dirudite eta egokiak dira.

Eta gure literaturan, euskeraren lekukotzat dauden idazleen artean ez ote da olako esaldien aztarnarik, lorratzik? Bai, aurkitzen dira eta ez gutxi ere. Eta au egiaztatzeko, gainbegiratu bat egin nai diogu gure literatura idatziari, amaseigarren mendetik asita, azkenez, erri-literaturatik zenbait adibide jasotzeko.

XVIgarren mendean: Etxepare, Leizarraga

Mende ontakoa da euskera idatzia leenengoz plazara dantzari atera nai izan zuen idazlea, Etxepare, betsozko liburu batean euskaldunei beren izkuntzaren asikiñak (*Linguae Vasconum primitiae*) opatu nai izan zizkiena. Liburu ortan esaldi argiak irakurten ditugu, gure gramatika lege onen jatortasuna eta zabalera ikusteko. Oraingo

ortografian joango dira Etxepareren itzak, Patxi Altunaren argitaralditik artuta, ba-koitzaren orrialdearen zenbakia emanez:

- 1) Ixil bazinite nahi nikezu (207).
- 2) Amorosak nahi nuke honat beha balite (84).
- 3) Nik hura nola nahi nuke hark banenza onhetsi (142).
- 4) Minzatzeko zurekila gau bat nahi nikezi,/ hilabete konpliturik hura luza baledi (154).
- 5) Geldi bazinite nahi nikezu (203).

Ain liburu txikian agertzeko, ez dute kopuru txikia egiten. Eta erderetara itzultzen saiatu direnek baldintzako esaldiok konpletibo, osagarrizko egin bear izan dituzte. Beste bein edo bestetan konpletibo egitera ere jo du Etxepare onek: «Ixil ladin nahi nuke halako den guzia. Ixil endin nahi nitek, ala ene fedia», bata *Emazten fabore* izenekoan emana, eta bigarrena *Amore gogorraren despita* izenekoan. Baiña bertso neurriak ala eskatu diolako egin du, noski. Geienetan, berenez, baldintzako naia errazago sortzen zaiola dirudi.

Urrengo idazle ain ezaguna Leizarraga da amaseigarren mende ortan. Ona emen orain bere Testamentu Berriko testu auk:

- 6) On zukeen gizon hark baldin sorthu izan ezpaliz (Mat. 26,24).
- 7) On zukeen gizon hark baldin iayo ezpaliz (Mark. 14,21).
- 8) Ezta beraz gauza handia, baldin haren ministreak ere iustitiatako ministretara transformatzen badira (II Cor. XI, 15). Erdal itzulpenetan gaur erraz joten dute testu ontan ere konpletibo egitera: no es mucho que también...
- 9) Hark hobe luke baldin errota harri bat leppoaren inguruan ezar baledi eta egotz ledin itsarora. Emen, noski, *ezar baledi* orrek *ezar balekio* izan bear zuen, eta *ledin* ori ere *baledi* egin; baiña onelako akatzetan askotan erorten da Leizarraga; bi esaldi ari berikoak, elkarren kideak izan arren, ala ez balira bezala itzultzen ditu ia beti.

Lukasen Ebangelioan baldintzako egin duen testu bardintsua, Mateo eta Markosenean konpletibo egin ditu.

Beste adibide bat, mende berekoa, aipa dezakegula uste dut, mende orren azken urteetako esaera zaarretakoa:

- 10) Gaixtoa bainzate oba (RS, 293gna).

Euskerak eurrez erabilten ditu onelako esaldiak: Obe, ixiltzen baziña, eta antzerakoak. Erdaldunak beste onetara esango luke: Más te valdría que te callaras. Euskaldunak baldintzapean adieraziko du ori berori. Erdal gaiztoz ari den euskaldunak maiz botako ditu erdaldunei barre eragiten dieten onelako esaldiak: Mejor si te callarías! Euskalduna ortara egiña dago, amaseigarren mendeko esaerak argi dioenez.

Amazazpigarren mendean

Mende au Iparraldeko euskal-literaturaren loraldikoa da. Axular, Sylvain Pouvreau, Oihenart, Harizmendi, eta Argaiñaratz ekarriko ditugu baldintzako esaldi berezior lekuko.

11) Badirudi [denborak] trabatzen gaituela anhitzetan, ezpagendu nahi gendukeiela (Villasanteren arg. 225, Flors, Barcelona).

12) On lizate orai ere halakoekin hala egin baledi (Id. 70).

13) Ethortzen zaitzu erhokeria heken urrikia, eta egin ezapazinitu nahia (Id. 396).

14) Urthean behin bedere [kofesa]. *Bedere* erraiten du aditzera emateagatik nahi lukeiela gehiagotan ere egin bagindezi (Id. 679).

15) Deabruak...eragiten derauskitzun bekhatuak ixil, eta sekeretu eduki bazinitza nahi bailluke (id. 683).

16) On zukeien sorthu ezpaliz, edo sorthu eta berehala...ez deus bihurtu baliz (Id. 750).

17) Nahi nuke iben bazinitza begiak, huni beha baziniazo, haur konsidera bazenezaz... zuk ere gauza hunetzaz, zenbait aldiz bedere, hausnaur eta gogoeta egin bazeneza (Id. 756-57).

18) Nahi luke damnatuak / balitz zuen lekuan;
gau egunak penatuak / laramazke munduan.
(Argaiñaratz, Ama Birjinaren hirur Officio, Vinson-en Edizioan, 13 orr.).

19) Munduak saindu estima edo fama bazinitza nahiz (sakramenduen) errezi-bitzea da hipokrisia (Deboten Brebiarioa, Vinson-en edizioan, 103 orr.).

20) Desira nuke hartara bere antzea ekar balezate berokiago nihork hunerainokoan egin duen baino (Sylvain Pouvreau, *Philothea*, «Aitzosolasa»).

21) Nahi nuke hainitz aldiz ixil egon baninz, eta konpainietan sartu ezpaninz. (K. Imitazioa, I. 20,2).

Gogotan artzekoa da testu onetan itzultzaileak ez duela Kenpis-en liburuan oiñarririk aurkitu baldintzazko tankera orretara joteko. Kenpisek bere latinean onela dio: *Vellem me pluries tacuisse et inter homines non fuisse*. Ala ere Sylvain Pouvreauk eta gure itzultzailek geieneak baldintzazko gurpilla eman diote Imitazioko puskatxo oni. Ala Haraneder, Etxeberria, Olabide, Pi Abak eta abarrek. Subererako itzultzaileek eta gure egunotako L-León-ek itzi dute baldintzazko bide ori. Zubererako leen itzulpenak onela dio: «Untsa nahi nikezu hanitxetan ixilik egon nintzan, eta gizonen artean enintzan izan» (1757). L. León zenak lapurdieraz berdintsu egin zuen, eta, egia esan, auen bion itzulpena beste baldintzako tankerara jo dutenen aldean, motel samar gelditzen zaigu.

22) Zer da mira ardiak otsoari ihesari badia (Oihenart, Atsotitzak, 706gna.).

Emezortzigarren mendean

23) Nahi nuke presuna gehiago entseiatzen balitz...munduko yendei hortarako bidea errexago eta zelhaiago presentatzera... Haranader, *Philothea*, Aitzineko so-lhasa).

24) Nork ere gaitzbiderik emanen baitio nitan sinhesten duten ttipitto hautarik bati, on lizate harentzat, lephotik ihara harri bat estekaturik, itsasorat aurthikia balitz (Haraneder, Testamentu Berria, Mark. 9,4).

25) Hobe luke hark lotzen baliote lephotik ihara harri bat dilindan, eta aurthikitzen balute itsas ondarrerraino (Id. Mat. 18,6). Lukasen Ebangelioan berdintsu. Testamentu Berri au Haranader-Harrietena da.

26) Ala nahi bainuke hañitz orduz egotu baninz ixillik, eta jende artean ez baninz kausitu (Id. Imit. I. 10,1).

27) Hobe zukeen baldin egundaino sorthu ezpalitz (Testamentu Berria, Math. 26,24).

Emeretzigarren mendean

Orañartean ia adibide guztiak Iparraldeko idazleenak izan dira. Ordu da Bidasoaz emendiko batzuk ere ekartzeko.

28) Ze kontu txarra emongo dozun zeure semeaz... Obe zan etxean sarturik gorde bazendu! (Añibarro, Nekea arindurik) (B. Urgellen arg. ASSU XXI-1, 1987).

29) Nahiago leuke modu onetako pekatariak Jaungoikorik ezpaleuko. (J. Cruz Renteria (1804-1874) Platikak, argitaragabeak, 69 orr.).

30) O zorigaiztoko gizona eta jaio ezpaziña obe zendukeana.

31) Nahi nuke anaia bakhotxak bere zakhukoak sartzen baliotza Elizari, nihor ezagutu gabe. (Hiribarren, Eskaraz egia, 19).

32) Hari [atso zaharrari] aditu diot ixtorio bat, ene iduriz ederra: nahi nuke guzien gogarako izan baladi. (Duvoisin, Zazpi Liliak, 61).

33) Nola deseatuko duten orduan lurak iretsi balitu, ez ekusteagatik lantze lotsagarri arretan (J.M. Satrustegi, *Euskal testu zaharrak*, 213 orr.).

34) Egin zazu orai orduko nai duzuna egin izan bazinu (Id. 213).

35) «San Juan Krisostomo gloriosoac erran cituen itz batzuec, ceñec nai nuque arguicen balituque zuen entendamentuec» (Id.141).

36) Hobe zuketen ez balute zuzenbidea ezagutu, ezen-ez ezagutu ondoan gibelerat egitea. (Duvoisin, Bible Saindua, IIPetri, 2,21). (Leizarragak kompletibo egin testua).

37) Obe luke lepotik lotzen baliote errotarri bat eta botatzen balute itsasoko zolara, (B. Echenique, Mat. 18,6).

Aski bitez emen jaso ditugun adibideok, gure literatura idatziaren bidea ikusteko. Baiña esandako guztiaren osagarri, jo dezagun gure Folklorera eta bertsolarien artera, adibide gutxi batzuen billa. Bertsolarien itzak noiztik onakoak diren jakin dezakegu; erriak gorde dituen kantenak ez.

38) Txeru kartzelan dago / damia kanpuan,
Txeruk gure leukela baleuko albuana. («Txeru», erri-kanta).

- 39) Obe zukean ikusi ezpalu / Berdabioko atea. (Azkue, Cancionero, 407gna.).
- 40) Sudurra ere luzatu zaigu / kokotza baiño berago,
nere etxean biar baiño gaur / illa banengo naiago. (Azkue, *Ibd.* 372gna.).
- 41) Iru ta iru sei dira eta, beste seirekin amabi.
Neska zar bat baiño oba genduke ardoa merke balebil. (Markiña aldeko kanta).
- 42) Lengo oiturak maite dituzu, / ez dituzu utzi galtzera;
naiago nuke ni ere igual / izango banintz zartzera. (Txirrita, *Bertsolariya*, 249).
- 43) Urreratu ezpaninz askoz obe nuan;
ostikoaz jo nayok / belaunen buruan. (Enbeita anaiak Bei zarra, *Bertsolariya*, 30).

Emen eman nai diogu azkena adibideen saillari. Naikoa diralakoan gaude eta naiko argigarritzat dauzkagu. Euskeran olako esaldiek sustrai sendoak dituztela erakusten digute.

Lafitte zenak begia argi eta zorrotza erakutsi zuen olako esamoldeei bere gramatikan leku eman zienean. Zerbaiten naia, zerbait gertatuko balizko edo ez gertatua balizko naia, gertatu delako edo ez delako miña eta urrikia adieraztekoak dira. *Nai izan, naiago izan, on izan, obe izan* aditzekin loturik azaltzan dira geien batez. Baiña beste sentiera batzuekin batean ere erabili izan eta izaten dira: *Miretsi, miraz egon, arritu, min artu, poz artu* eta olako aditzekin ere entzuten eta erabiltzen dira. Eta batzuetan baldintza *naia* izen utsarekin ere bai. Axularren esaldi batean eta Hariz-mendiren beste batean argi ikusi dezakegu: *Bekatuak egin ezpazinitu nahia, munduak saildu estima bazinitza nahia*. Beste gure inguruko izkuntzetan ikusten ote da olakorik?. Eta ez dezagun uste baldintzazko nai ori, euskeran ola adierazten den ori, nai aula, Axularrek esango luken bezala, desirkunde utsa denik. Etxeparek bere emakumeen agotan jarri dituen arako: *ixil bazinite* edo *geldi bazinite nahi nikezu*, borondate oso sendoaren adierazgarri dira, noski. Baiña, Lafittek ongi ikusi zuenez, yendetasunez, begirunez, agertutako borondate ziña datza or. Orixe, yendetasuna ikusi du Lafittek onelako esaldietan. Berbalagunari zerbait opatzen, eskatzen edo agintzen dio; baiña lagunaren borondatea beartu nai izan gabe. *Nai nuke, eskertuko nizuke biar gurekin bazkaltzera etorriko baziña*, edo olakoren bat esaten diogunean, benetako naia da lagunari adierazten dioguna, ez dugu beartu nai, baiña benetako naia da, eta onartu ezik min emango ligukena da adierazten dioguna. Ez da ala olako nai ustela, itxura egitekoa, yendetasun osozko eta miñezkoa da.

Gure literatura guztian, idatzian eta agozkoan bizirik dirauen baldintzazko esan molde onek, euskal gramatiketan zor zaion arretarik eta lekurik izan ez duelakoan gaude. Gure egunotan ez dira liburu gutxi plazaratzen edo ikastoletaratzen, edotariko esaldiz orniturik, bear denean edotariko esaldiak asmatzen ikasteko. Emen aipatu eta azaldu nai izan ditugun esamolderik dakarrenik ez dugu ikusten. Gramatiketan Lafitte zenak asitako bidearen jarraitzaille eta osotzaille izan nai duenik ere ez. Utsune au bete bearra dagoela uste dugu. Lan onetan jaso ditugun adibideak, geienak beintzat,

lan izango genuke aipatu ditugun idazleek egin duten baiño jatorrago eta biziago eta indartsuago idazten. Baldintzazko esaldiok euskeraz konpletibo edo osagarrizko egiñaz ez genuke esan nai dutena ain garbi eta zeatz eta indartsu adieraziko.

Eta euskal gramatikalari eta irakasleek on egingo lukete eta guztion esker ona irabaziko luketelakoan gaude, noski, baldin gai au aztertzen eta argi uzten saiatuko balira. Eta, jakina, argi jartzea lortuko balute.

ETIMOLOGI BILLA

Zeanuriko Undurraga eta Olibares*

Aspaldian buraan erabili ditudan toki-izen biren etimologia, zer adierazoten daben argitu nai neuke emen. Nik dakidala, gure aldizkari onetan iñoz ez dau iñok etimologi-gairik erabili. Gure txikitan euskal-idazle askoren gogoko joerea izan zan gure toki-izenen esan-naia aztertu gurea edo aztertu bearra. Larramendiren egunak ezkerro asko zabaldu zan zaletasun edo gatxau. Larramendik benetan baño olgetan geiago, antza, erdaldun askori adarra jotearren edo, gauza jakiña da geiegitan eta errezege jo ebala erderazko itz askori euskal-itxura emoten eta euskeratiko etimologiak asmatzen.

Geroago, etimologi-asmatzaille barriak ugari agertu izan dira gure artean, asmatzaille zorrotzege eta badaezpadakoak batzuetan, zentzunezko eta aintzat artze-koagoak beste batzuetan. Voltaire maltzurak bere aldian etimologi-zaleok ez zituen izan bapere maite; alan bere, ez dogu uste izan bear Larramendi eta gure etimologi-zaleak gogoan izan zituenik etimologistai bere zirto mingarria bota eutsenean.

Gaur, ez Voltaire orri ez beste iñoren zirto zorrotzai jaramonik egin barik nator ni arlo onetara, Euskalerriko toki-izen eta abizen biren inguraan argitasuntxo egin naiez, ia zer esan nai daben azaltzeko asmotan. Biak Zeanurin sortu eta andik bazter askotara zabalduak dira: *Undurraga* eta *Olibares* edo *Olivares*.

Undurraga

Toki-izen eta abizen au naikoa ezaguna da Bizkaian. Nik, neure txikitatik, Zeanurikoa, neure amaren errikoa ezagutu dot. Geroago jakin dot Bizkaian badirala beste Undurraga-ren bat edo beste geiago; bat, Zeanuritik urrin barik, Zeberio errian.

* Karmel 1991-3, 5-11.

Toki-izen onek, beste toki-izenetan jazoten dan lez, Undurraga abizenari emon deutso izatea, eta gaur, bearbada, Euskalerritik kanpo zabalduago daukagu bertan baiño.

Berrogeita amabost bat urte bada, Chile-tik neure adiskide eta senide baten karta artu nebala. Undurraga abizendunik bada, urrean, Amerika Barreneko errialde aretan, eta askok badakie euskerazko izena dala. Olako batek, izen orrek zer esan gura dauan jakin guraz, nire adiskide orregana jo eban argitasun eske, eta nire adiskideak nigana, ia Undurragak zer esan nai eban euskeraz argitzen neutsan. Esan dodanez, orain berogetamar urte inguruko itauna da egin jatana, 1936koa.

Nik ez neukan orduan emoteko erantzunik; baiña ez neukan gauza ori aitzuta. Andik amabost urte geroago joan zan nire erantzuna, gerrateko urteak, espetxetakoak eta Euskalerritik kanpo egon bearreko urteak igaro eta gero. Chileko karte artu nebanean, egia esan, ez neutsan Undurraga izen orri antzik emoten. Argitasuntxo a purka apurka, urrerogorik urreroga, maillaz mailla etorri jatan begien aurrera.

Undurraga Urandurraga da

Lenengo argitasuna ortik etorri jatan, Zeanuriko toki-izen ori, jatorriz, Undurraga barik Urandurraga, Uandurraga edo Huandurraga izan zala ikastetik. Laburdura edo aldakuntza au askotan jazoten da gure toki-izenetan. Zeanurin bertan, Undurraga ganean dagoan Ipiña auzoan, *Iruatxeta* esaten jako ango etxe bati, eta izen osoa Iruaretxeta da. *Angune* esaten jako beste bati eta Aranguren da. Arratiako Dima errian. Arteun izenez ezagutzen dogu gaur ango auzo bat, eta berreun bat urte lenago Arrati-goen agertzen da idatzita. Izen-aldatze au ez da leku gitxitan bere jazo, eta jatorrizko izen osoa jakitea bearrezkoa dala esan bearrik ez, zer adierazo leiken aterateko.

Jatorrizko izena Urandurraga zala jakiteak, zer esan nai eban aterateko edo igarteko errezago eta lauago ipiñi eustan bidea. Or neukazan izen orren atal jakingarri eta jakinbearrekoenak: *Ura*, *andur* eta *-aga*: lenengoa eta azkenengoa ez dira ulergatxak. *Andur* ori neban ulergatxena. Or neukan untzea, or neukan koska, giputz batek esango leukenez.

Eta itz ori ulertzeko argitasuntxo urrengo mailla baten etorri jatan. Bein Euskalerriratzeko baimena izan nebanean eta Begoñako Karmelora bizitzaz aldatu, sarritan joan oi nintzan Bilboko Erribera kalean Azkue euskaltzainburuaren lan-gelara, Euskaltzaindiaren bein-beiñeko etxera. An ziran, erri askotatik bialduta, euskal-itx ez ezagunezko ainbat zerrenda, eta besteak beste, an ikusi neban Zeanuritik bialduriko itzen artean *Andur* zorionekoa, eta beronen esan-naietako batek norbaiti edo zerbaiti darion sunda edo usain txarra adierazoten daualakoa. Zikiñaren zikiñaz ume bati darion usain txarra adierazteko, «ume oni andurra dario» esaerea an etorren. Or neukan argia, baiña ez nintzakion beingo-beingoan jabetu.

Andik gerotxoago, neure osaba bat lagun, Gorbeatik bera Undurragako sako-neraiño jatsi nintzan, gaur Zadorrako urak estaltzen daben lekuraiño. Eta, zer ikusten dot bertan? Uratsa esaten jakon urezko iturritxo bat sartzen ango errekan: Undurraga

auzoaren erdi-erdian, urats-dun iturritxo. Urrengo Aste Santuan an bertan nintzala, geiago ikusi neban oindio: gaur bere Zadorrako urak estaldu bako goragoko lekuetatik, beste urats-iturritxo batzuk joiazala beko sakonera.

Baneban zer erantzun, okerrik egiteko bildur barik, Chileko neure adiskide eta auzokideari, *Karmel-en* irakurle zan izaniko batzuk bearbada gogoan daben Agustin Atutxa, *Mugarra Begiraria* euskal-poemaren egilleari. Berandu joan jakon nire erantzuna. Baiña berandu bazan bere, iñoiz ez baiño obe, berak Chiletik esan eustanez. Andik luzaro barik, Chileko Undurragatar bat agertu zan Zeanurira, bere abizena daroan auzoa ikustera.

Len esan dot beste Undurraga bat edo beste badala Bizkaian; Zeberio erritxoan bat, Zeanuritik urrin barik eta Undurraga au bere, Zeanurikoa lez, uratsezko iturriduna ei da. Orra, bada, Undurraga edo Urandurraga toki-izenak esan nai dauana: ur-ats iturria emoten dauan lekua.

Olibares edo Olivares

Zeanuriko toki-izen eta abizen onen etimologia jakin gurea Undurragarena baiño lenago biztu jatan: 1928n. Urte orretan Markiñako gure etxean fraide izateko asmoz sartutako gizon bi izan nituen etxeko lagun. Semez Bilbo ingurukoak zirala uste dot; biak garerdiko gizonak, eta Colombian etxegintzako lanetan ibilliak, Bizkaitik ara joanda. Ez geuntsen euskerarik entzun. Baiña, orraitio, bein arriturik entzun neuntsen Olivares euskal-izena zala esaten. Eurak ez euken ezbairik orretan. Bai, Olibares ori beste euskerazko izen baten aldakuntza zala, eta *Oillo-berezi* esan nai ebala. Eskribau erdaldun baten egitez eta erruz aldatua izan ei zan Olivares izatera. Arrezkerokoa ei da Zeanuriko toki-izen eta abizen orrek daroan erdal-itxurea.

Nire orduko etxe-lagun areik nondik ete ekien ori? Non ikasi eben ainbesteko zeaztasunez agertzen eben eretxi ori? Eurak asmatua ez zana argi erakusten eben, alan nai olan bere.

Andik urtetara ikasi neban eretxi orren iturria. Aita Onaindiagaz batera, baneragoian Kepa Enbeitaren bertso-lanak batzen *EUSKADI* egunkari zarrean. Eta 1918ko zenbaki baten orra non aurkitzen dodan 1928n nire etxeko lagun izanai entzuna, zeatz eta meatz aurkitu bere. Zeanuriko Olivares ori ez ei zan erderazkoa, euskerazkoa baiño, Oillo berezi edo izana eta eskribau erdaldunen batek oker idatzi eta Olivares izatera aldatuta.

Abizen ori oso zabal dabil Bizkaian eta ez bakarrik Zeanurin eta inguruko errietan: Orozko, Zeberio eta Diman. Bilbon bere askok eroan dabe eta gaur bere badaroe berori. *Tellagorñ* ez-izenez oso ezaguna izan da gazetalari eta erdal-idazle bat, Jose Olivares Larrondo. Eta Olivarestarron artean sortua zan, antza, Euzkadi egunkariko lantxo orrek salatzen eban eztabaida-giroa. Non da egia?

Euskalerrian erderazko toki-izen jatorrik, bertan sortutakorik badala ez dogu ukatuko. Bi aitatzearren, orra Robles eta Castañares, Euskalerriko jatorrizkoak. Baiña

jatorrizkoak dira gure artean, aretxak eta gaztañak bere. Baiña Zeanurin nok usteko dau ñoz olivorik eta gitxiago olivo-landarik izan danik? Noz ezagutu da Bizkaian olango landarerik? Ez ebiltzen oker Zeanuriko auzo orren izen jatorra ezin zeitekeala Olivares izan inoenak.

Gaur arte, ez dot uste ñok Olivares au, dagoan dagoanean beintzat, euskeraz-kotzat emon dauanik-eta euskeratik erderarako aldakuntza garbirik bere ez deutso autortu. Garcia Garraffa-tarrak argi eta garbi esan eben euren «El Solar Vasco Navarro» dakoaren Vgarren tomoan: «Este apellido no es vasco»; baiña jarraian, Zeanuriko jaun batek 1979n Valladolid-en Bizkaiko semetzako agiria lortu ebala diñoskue. Antonio de Olivares Añibarro zan Zeanuriko seme ori, eta an datoz gizon orren aitaren eta aititaren izen-abizenak bere: Juan Antonio Olivares Ocerin, aita, eta Damian Olivares Gortazar, aitita irurak zeanuritarrak.

Gure egunotan Jaime Kerexeta jaunak bere «Diccionario Onomástico y Heráldico Vasco» azter-lan andian Olivares-i ez eutsen euskal-abizenen artean lekurik emon; baiña oraintsuago emon deuskun «Casas Solariegas de Vizcaya» dalakoan 1896-ko erroldatik jasota alkarren ondoan iru etxeraño agertu deuskuz Zeanurin izen ori daroela: Olivares, Olivares bekoa eta Olivares goikoa.

Bai García Garraffak eta bai Kerexetak XVII-garren gizaldiko azken urteetako agirietatik egin dabe euren azterketa-lana. Berandutxokoak dira agiri orreik eta ez da bapere arritzekoa orreitan Olivares aurkitzea. Antziñagoko paper zarretara jo bearko argitasuna egiteko, ia izenaren aldakuntza salatu dabenak oker ala zuzen dabiltzan ikusteko.

Euskal abizenetan, gizaldiak zear, aldakuntzatxo bat edo beste izan dirana egia dala dirudi. Esaterako, Belendiz izan dana ñoz *Melendez* biurtu ei da. Agirregomezkorta edo Gomezkortaren *Gomez* ori Gamiz izan ei da lenago.

Zeanurin Olivo landarerik ez olivo-landarik ezagutu izan ez bada, ezin izan Olivares ango oin-etxe baten izen jatorra. Izen ori lenagoko beste baten aldakuntza dala uste izan dabenak zuzenean dagoz. Zeanuriko eleiz-agiriak lekuko.

Zorionez, Zeanuriko erriak, Ipiña edo Ipiñaburu auzoan, gure inguru guztiko eta urriñagoko eleizen artean, eleiz-agiririk zarrenak daukaz, 1501n asita. Urrengo zarrena Orduñako liburua dala esango neuke, 1502n asia. Eta Ipiñako eleiz-agiri baten, amaseigarren gizaldian, an dator andra bat Bateo baten amabitxi egiten dauala, abizentzat Zeanuriko etxe izen onen antxiñako erea daukana, eta ez da Olivares, *Ollibares* baiño, bere LL eta B ta guzti eta Zeanuriko Andra Marikoa zan eleizaz. Eta ez da bakarra.

Zeanuriko Andra Mari eleizeak ez dau eleizako agiririk urrengo XVIIgarren gizaldian sartu arte. Baiña Andra Mariko agiriak gizaldi orretan zear, izen berbera dakarre: *Ollibares*. Gure egunotan bere, erriak gaurko agirietan Olivares ikusten dauan arren, *Ollibes* esaten deutso Zeanuriko auzo orri, aintziñako izenaren antza emonez. Badirudi urrengo gizaldietan, batez bere Olivaresko Konde Duke ospetsu egin zanetik aurrera, erdaldun eskribauai jatorrago egin jakela Olivares idaztea, eta apurka apurka aldakuntza ori egin jakon lengo izenari.

Eta orain azkenengo itaunari erantzutea dagokigu. Zer izan leiteke *Olli ori*? Euskal-toponimian itaun orri emoteko erantzunik badogula uste dot. Gure toki-izen askotan *Ulli* eta *Olli* Uri itzaren kidekoak doguz. Iñoz agertzen da beste leku batzuetako Uribarri bai Ullibarri eta bai Ollibarri biurtuta. Urrengo zatia, *Bares* ori *Baras* edo *baratz* egin daiteke. Bada edo izan da toki-izenik *Baras* edo *baratz* ori Bares biurtuta daukanik; esaterako, Olazabares. Olan Ollibares ori aurten Bilboko egunkari batek il-txartel baten ekarri dauan *Uribaras* abizenaren ur-aurrekoa izan daiteke. Edozelan bere, Zeanuriko toki-izen eta abizen orrek iñondik iñora ez dau erderazko Olivo itzagaz zerikusirik. Eta gitxiago gaurko egunotan be eurak emoten deutsan izena kontuan artu ezkeru.

EUSKAL IDAZLEAK

ZER DA AXULARREN EKIDIN?*

Gure egunotan arrera zabala egin diote euskal gazetalari batzuk itz gutxi ezagutu bati. Itz zaarra da, itz jatorra da euskeran. Gure egunkaria sortu berrietan bein baiño geiagotan irakurri izan dugu. Oraintzuen aldiz nik gaur plazara atera den euskal egunkari bakarrean irakurri dut, leenengo orrialdean ain zuzen: «Paktua ekiditeko azken aukera du gaur» dio, Nafarroako ez dakit zein politikarik, bere alderdiak beste alderdi batekin elkar artzerik nai ez duen batek. Barruko orrialdeetan berriz dator itz bera. *Ekidin*, ona itz zaar jatorra delako ori. Beste askotan beste aditz-joko batzuetan irakurri izan dugu: *ekiditen*, *ekidingo* ere.

Itz zaarrak berri edo berreskuratzea inork ez luke gaizkitzat jo bear, itz jatorrak direnean, beintzat. Olako itzak berreskuratzea beti izango dugu obe Lécluse zenak *miseras divitias* esan zien itz arrotz asko geuretzea baiño.

Euskal idazle zaarren lanak berrargitaratzeak galduak edo oso eskuragaitzak zeuden altxor asko jarri du gaurko irakurleen eskuetan. Gaurko euskaldunek inoiz baiño aukera ohea dute beren izkuntza sakonkiago ezagutu, jatorkiago idatzi eta aberatsago egiteko eta itz zaar asko plazara aterateko. Ez du ori, noski euskerak gaur bearren-bearren duena. Oraindio euskaldun askoren ezpainenetan, an edo emen, bizi bizirik dirauten itz jator asko ezagutu eta erabiltea ez ote du bearrago? Tamalez, norberak ezagunak ez dituen olako itz askotxo, nonbaiteko txokokeriak direlakoan edo, urrundu eta baztertzeraz errazegi jotzen dute askok geiagoko gabe.

Ez zen ezagutu gabea *Gero* liburuan irakurten den *ekidin* itz ori, gutxik ezagutzen bazuten ere. Gaur edozeinekin irakurri dezake ainbat edizio berritan, Lekuona zenak, Aita Villasantek, eta Euskaltzaindiak paratu edo eragindako edizioetan. Batez ere

* 1991-IV-26an eginiko lana: Aita Villasanteren omenaldirako egin eban. Baina ez zan argitaratu ortografia arazo batzuk zirala-eta.

Aita Villasantek 1964n egindako erdal itzulpendun edizioak txit adierrazago eta onuratsua egin du liburu orren irakurketa, eta emen aztertu nai genuen itz zaarra gaur euskal iztegiatar sartua dela dakusgu eta idazle bat baiño geiago asi da gazetari-lanetan beintzat erabilten. Baiña ongi ulertu dute eta ongi ote darabilte?

Orra or nere kezkatxoa, orra nere zalantza, Aita Villasanteren omenezko liburu onetarako eskatu didaten lantxoan aztertu eta argitzen saiatu nai nukena.

Ekidin gaurko euskal-iztegi batzuetan

Itz au or zegoen amazapigarren mendeko iru idazleen liburu banatan sartuta. Ala ere iñork ez zuen jaso, ez iztegiatar aldatu zer den ez zer esan nai zuen argitzeko. Joan deneko mendean Harriet kalonjeak jaso zuen bere iztegi andian; baiña iztegi ori argitara gabe gelditu zen eta argitara gabe daukagu oraindio, eta iztegitille askoren eskuetan ibilli izan den arren, *ekidin* ez du batek ere ezaguerazi. Joan den mendean, Aizkibekek ez zuen ezagutu. Gure mendean, Azkuek ere ez. Iparraldekoen artean, Lhande baliatu izan da iztegi orretaz, baiña ez dio *ekidin* itzari lekurik eman. Nabarmengarria Intxauspe kalonjeak egin zuena: 1864n *Geroko gero-ven* edizio berria egin zuenean, gero ikusiko dugunez, *ekidin-i* lotutako esaldiaren orde beste bat asmatu zuen. Bear bada itz ori ez zuen ulertu ere egin.

Azken urteotan Egoaldeko iztegitilleek atera dituzten iztegiatan eman zaio itz orri lenbiziko aldiz sarrera eta lekua: leenik, *Diccionario Retana de autorides del Euskera* delakoan, 1977n laugarren tomoan, Aita Plazido Mujikak erderatik euskerarako iztegian ez 1965ko ez 1973ko edizioetan ez zuen jaso; baiña bai euskeratik erderako iztegian 1981ko edizioan. An eman zitzaion gure gazetararien lumetan artu duen esan-naia, *evitar*. Gero beste iztegi batzuk aurrerago joan dira. *HIZTEGIA BI MILA*, talde batek Xabier Kintanaren ardurapean aterakoak bi alaba eman zizkion: *ekidin* ezz'na=inevitable, eta ekidingarri=evitable 1984koan, eta *Euskararako Iztegiak*, au ere taldean egiña eta euskera utsezkoak, bi esaldi asmatu ditu adibidetzat eta argiagorri: «ekidin iezaguzu, Jauna, zoritxar hau» bata, eta bestea: «pilotuaren trebetasunak eragotzi zuen bidelarien heriotzeaz». Iztegi biotan Aita Plazido Mujikak emandako esan naia bera eman zaio itz oni.

Egoaldeko iztegitilleek ez dute iñolazko zalantzarik izan *ekidin* orri buruz. Iparraldekoek egin ez dutena egitera ausartu dira, itza jaso ez eze, zer adierazten duen emateko. Iztegi auen ondoren erraz ulertzekoa da idazle batzuk begi ona eta abegi ona egin badiote. Baiña begi ona benetan izan duten ala ez beste kontu bat da. Ni ezezkoan nago. Retanarena delako *Diccionario* artan guk ez genion eman aipatu diren iztegiek emandako adierarik. Eta nere ustez besteok badaezpadako bidera jo badute, *Gero* liburuan bakarrik oiñarritu direlako da. Ain zuzen, Aita Villasantek erderara itzulitako *Gero-n* aurkitu dute *ekidin evitar* itzulita eta or du itzulpen orrek iturria eta itz orrek ortik artu du aipatu diren iztegiatarako bidea. Egia da Aita Villasantek ola itzuli zuela erderara; baiña egia da baita ere Aita Villasantek bazituela eta badituela ortaz bere zalantzak baiño geiago. Bere *Axularren Hiztegia* lekuko. Ez dugu itz ori

aurkitzen an; 1976n Arantzazun argitara eman zuen edizioan Axularren iztegia aberastu egin zuen beste itz mordoa sartuta, eta an ere ez da *ekidin* ori ageri. Zer esan nai du orrek? Ez ziola itzultzaileak itz orri azalpen argirik ikusten; beraz zur jokatu zuen bere iztegian sartu ezaz. Naiago izan zuen *ekidin* ixildu badaezpadako azalpenik eman baiño. Axularren liburuan bertan, bein itzultzeko arazoa bere gain artu zuenean, nola edo ala itzuli bearra zeukan eta testo ingurua gogoan artuz eta ari begira, ez zuen gaizki asmatu. Baiña itzulpen zeatza ote da, gero? Aintzakotzat artu dute iztegilile eta idazle batzuk eta bertatik onartu izan dute.

Ekidin beste idazle batzuetan

Orra, nik uste, itz onek Axularren Gero-tik gaurko iztegiatara egin duen bidea. Testo batean eta itzulpen batean oiñarrituta egin dute ori egin dutenek. Zorionez badugu beste testorik eta beste iturririk itz ori zeatzago aztertzeko. Latíñezko esaera batek dionez, begiak baiño begiek geiago ikusten omen dute. Guk begi geiagoren laguntza badugu emen. Axularren mendean bertan ditugu bi idazle argi geiago emango digutenak, eta biak Sara ingurukoak dira, Axular bera bezala: Joannes Haramboure edo Haranburu, eta Kristobal Harizmendi. Haranburu «Devocino escuarra, miraila eta oracinotegua» liburua egilea da; 1635n atara zuen eta beste edizio bat izango zuen mende berean 1690ko urtean. Kristobal Harizmendik *Andre Mariaren hirur officio* liburua eman zuen argitara 1660n, eta gure mende onen asieran bi aldiz atara da plazara 1901n Vinsonek berrargitaraturik eta au berau *Hordago-k* eman digu 1978n. Berrargitaraldi auei dagokanez jakingarri eta gogoan artzekoa dela uste dut xeetasuntxo bat, alegia, edizio auek naasi samar egiñak direla; Vinson-ek ez zuela liburuaren ale osorik aurkitu eta liburua inprentan zeukala, Dogson-ek biali ziola Inglateratik an aurkitutako ale oso baten berri Vinson-ek bear zituen orrialdeen kopiarekin; baiña Vinson-ek ez zuen alperrik galdu nai izan inprentan egiñik zeukan lana eta orrialde berriak azkenean erantsi zizkion guztiak batera.

Idazle bion testoak jarriko ditugu emen, ea argi geixeago ematen diguten; baiña bijoa leenik Axularrena berarena.

Axularren testoa (1642)

Bi andre gizonen pekaturik ez egiteko elkarreganik ez aldentzeko izan dezaketen zailtasuna azpimarratu nai du idazleak eta onela dio: «Lehen trebatuak izan, eroriak izan; lehen bezala elkarrekin egoiten, ibiltzen, minzaten; okhasinoak ere lehen bezala edo maizago presentatzen eta gerthatzen; gogo urri, aldatzen errax; *eta bestea ere behin gerthatuz gero, ezfalta ekidin*. Bada egiteko, bada zer pensa». (Azpimarraturik jarri dugu Intxauspe kalonjeak 1864ko edizion kendu, kanpoan utzi eta onela aldatu zuena: «bihotza flako, haragia sento». Ulertzen ez zuelako egin ote zuen? Ez dezagun aaztu Xuberotarra zela).

Joannes Haranbururena (1635)

Idazle onek noiz pekatu mortala egin den aztertzen jakiteko argibideak eman nai dizkio pekatariari. Baldintza bat, besteak beste, pekatuari konsentimendua ematea da, eta konsentimendua iru motatakoa izan daiteke: *formala*, *virtuala* eta *interpretativa*. Noiz da azkenego au? Interpretativa da zure nahira bekatua oroitean plazer hartzea eta plazer hura ez gibelatzea; gibela *ekidin* eta ez egin nahi, konsentitu duzu» (137, 1690).

Kristobal Harizmendirena (1607)

Testo hau ere, Haranbururena bezala, pekatuak aztertzeko ikasbide gaiezkoa da. Vinson-ek (eta Hordagok) eraskiñean sortu dute. Oso laburra da, eta onako galdera oni erantzuteko sailtxoan dator: «Zer huts egin duzun Jainkoaren kontra? Ez enzun meza, eta bai ekidin errazki» (*Hirur Officio*, 192 orrialdean).

Haranbururen adibidea da ulertterazena, noski. Haranburuk esan nahi izan duena argi dagoela dirudi: pekatua oroitzeaz atsegin artea eragotzi, gibelatu eta atzera botatzea da kristauari dagokana, eta ori egin nai ez badu, konsentitu duzu, atsegiñ ori berea egin du, baietza eman dio, onartu egin du. Harizmendiren kristauak meza entzun duen ala ori egin gabe erraz gelditu den, ez entzun egin duen aztertu bear du. Testo biotan *ekidin* ori erderara *evitar* itzultzeak ez du itxurarik: atsegiña gibelatu ekidin atsegiña artu gabe uztea edo utzi bearra da. Harizmendiren *meza ekidin* ori entzun gabe uztea da, egitekoa edo eginbearra zuena ez egitea, meza uts egitea da.

Axularren testoan falta ez da *ekidin gelditzen*, egiteko edo egin gabe gelditzen; egin bear zena faltarik ez egitea zen, baiña ez du *egikidin* egin gabe uzten, egin bear utsean uzten du, egin egiten du. *Ekidin* orrek egitekoa edo eginbearrekoa dan zerbait esan nai du.

Iru adibideok sartu genituen Retanarena dalako iztegian itz onen adiera azaltzeko eta *egin* eta *-kidin* atzizkiaz osatutako itza delakoa esaten genuen, eta ez ain zuzen aditza.

Ekidin ez da aditza

Emen dugu gai onen kakoa. Ekidin ez da aditza, aditz bat erroan duen aditzondoa edo izenondoa baizik. -Kidin orrekin osatutako itzak ez dute ez deklinabiderik ez aditz-jokorik, beti soil-soillik agertu izan dira. Ez dezakegu aditza dalakotzat ez *ekiditen*, ez *ekidingo* ez *ekiditeko* asmatu, ez eta *ekidin du* edo *ekidin zuen*, eta olako aditz-jokorik.

Lafittek eman zigun gai au argitzeko bidea bere *Grammaire Basque-ko* 443 zenbakian. An eman zigun -kizun eta -kidin atzizkiaz eta aditzen baten erroaz osatzen diren izen-ondoan berri. Beti soillik erabiltekoak omen dira. Ez omen dira asko; gutxi

batzuk baizik ez. *-Kidin* orrek gerotasuna edo gerokotasuna, zertakotasuna, eginbearrekoa edo egitekoa adiera omen du eta *egikidin* aipatu du olakoan artean bat, nere ustez *Ekidin* onen kidea. Beste bat Lafittek berak dakarrena, *ahatzkidin*, ahanztekkoa. Aita Plazido Mujikak bere *Afijos vascos* lantxoan badakar beste bat: *salkidin*, saltzeko dagoena.

Lafittek esana, onelako itzak oso bakanak direla egia da. Literaturan beintzat oso gutxi ageri dira. Mende onetan 1901n il zen idazle batek, Diharassarrik, 1985koan bata bestearen ondoan olako iru itz sartu zituen *Mariaren haurren eskuliburuan*, 312garren orrialdean. Retanarena delako Iztegian sartuak daude; baiña bere testo inguruan obeto ulertuko delakoan emen osoago eman nai dut: «Zeruan, dohatsuen begiak, belharriak, bihotza, gogoa, hitz batez arima eta gorphutza asean bezala egonen dire. Asean, bainan beti *harkidin*, beti kasik *jankidin* eta *edankidin!* Alegia, asean dauden arren, jatekorik, artzekorik eta edatekorik badutela noiz nahi artzeko, jateko eta edateko». Texto onetan ere ikusten denez, itzok ez dute beren itxura aldatzen; ez dute aditz-laguntzaillerik ez beste aditz-jokorik ez deklinabiderik; eta Lafittek esan zuen arabera, geroko dena edo gero egitekoa edo eginbearrekoa dena, zer edo zertako dena eta eginbearreko zerbait adierazten dute. Ala, esan dezagun *berúz, falta ekidin*, falta egiteke, egiteko edo egin gabe izango litzateke *etafalta ez ekidin* falta egitea da; meza *ekidin* meza ez entzutea edo entzun gabe uztea da, eta pekatuzko atsegiña *ekidin nai eza*, ari norbere nahira leku ematea, artan konsentitzea da. Eta esaldi guztiotan izenondo edo aditzondo gelditzen da, ikuturik gabe, bere soillean.

Eta orretan uzten dugu asieran egindako galderari erantzuna. Aita Villasantek ez zuen gaizki ere askatu or aurkitu zuen korapilloa. Axularrek esan nai zuenari antz ematen jakin du. Beste itzen batera jo zezakean bear bada eta ez *evitar* erdal itzera. Baiña Axularren Hiztegian ekidin sartu ez duenean, bere salantzak salatu ditu. Ez dute jokabide bardiñera jo aipatu ditugun iztegiak eta gazetariek. Eta or jarri dute plazara bidean oso badaezpadako aditza delako ori. Euskaldunok ez dugu olako itzik gaurkotu bearrik. *Ekidin* euskerazko itz zaarra eta jatorra da baiña, ez dugu eskubiderik literaturak, gramatikalariek eta erriak eman dioten adieratik eta lekutik aterateko. Errian bizirik diraute beste itz askok eta tamalez ez ditugu oraingo idazleen lanetan ikusten.

ETXEBERRI ZIBURUKOAREN BERTSO BI ARGITZEN*

Oraintsurarte ez da idazle oso ezaguna izan gure artean Joannes Etxeberri Ziburukoa, Jesusen Lagundiko euskal-idazlea. Berau dogu XVLTgarren mendean Axularren aurretik, euskera lantzen lanik andiena egin ebana. Ohienarteren eretziz, itz-lauz, prosaz, idazteko oso gai izan zan arren, euskaldunen bertsozaletasunari atsegin emotearren, bertsozko iru liburu itxi euskuzan, irurak naiko lodiak: *Manual debozionala*, *Noelak*, eta *Elizara erabilteko liburuak*. Bertsoz egin bako orrialde gitxi baiño ez daukaz iru liburuotan.

Manual debozionala dau leenengoa eta luzeena; tomo bitan 1627n argitaratua leenengoz, baiña argitaldi onen alerik ez dogu ezagutzen. Idazlea il eta geroko da, 1669koa, bigarrena, ezagutzen dogun bakarra. *Gero* argitaletxeari esker, irugarren edizioa daukagu, eta Aita Patxi Altunak *Manual Debozionala* onen lenengo tomoaren edizio kritiko ederra emon deusku.

Liburu onek bigarren tomoan, azken aldera, mariñelak itxasoan edo itxasoko ibillaldietan egiteko otoitzak dakaz. Oraintsura artean, Etxeberriri izenik andiena emon deutenak mariñelentzako bertsook izan dirala esango neuke. Eta emen egin dagidan neure autorkuntzatxoa. Orain ogei bat urte, J. Aranburu jauna, Donostiako Aurrezki-Kutxaren argitalpenen arduradunak, neuri egotzi eustan mariñelentzako bertsook inprentarako gertatzeko ardurea. Lan oni ekin neutsanean, *Manual debozionala* liburuaren xerokopia be atera neban, neure etxean erosoago lan egitearren. Ezer egiteko astirik emon barik, Aranburu jaunak Etxeberriren beste liburu bat, *Noelak*, prestatzen jarri ninduan, lengo asmoa alde batera itxita.

* Karmel 1990-1, 70-76.

Asmo aldaketa oni ez neutsan gaizki eretxi. Izan be, Mariñelen otoitzen zatia ain txikia ez dan arren, obe zan zati bat baiño liburu oso bat gaurko euskaldunei eskintzea, Etxeberriren euskal-lana obeto ezagutu egien. *Noelak* liburu ori argitaratzeaz, Donostiako Aurrezki-kutxak Gabon-opari ederra eskifii eutsen bere bezeruei eta euskaltzale guztiei. Eta oraintsuago bardin egin deusku *Gero* Argialetxeak, *Manuala* argitaratuz. Ain zuzen, Etxeberriren Manual orretan, marinelen otoitzetan datoz bertso bi, ulergatxak dirala-ta Altunak argitu nai izan deuskuzanak.

Irakurleak nondik nora gabiltzan ikusi dagian, emen dau bertso-bikote illun ori, baiña oraingo ortografian, ulerterrazago egitearren, aurreko eta ondoko bertsoekin batera. *Balea bill ondoko eskerrak* daroe izen burutzat:

Iauna, ditutzula ezker eta laudorioa,
 million eta, million baiño gehiagoak,
 zeren egin darokuzun liberalki grazia,
 edekitzeko handien arraiñari bizia.
 Gure indarrak etziren deus hunenen aldean,
 zure faborea dugu sentitu konbatean.
Ezen zure baitan tturron batek etsaiak
urrutik izi dezan, nahiz dela hangaia.
 Hala guri ere egin darokuzu dohaña,
 bentzuteko itsoan den sendoen arrafia.

Bertsoak, Etxeberriren liburuko beste guztiak lez, neurri bardiñekoak dira: amabost silabadunak, zortzi eta zazpi silabako hemistikio bitan bananduta. Or dogu, azpimarratuta, illun eta ulergatx egiten jakun bertso-bikotea. Leenengoak, leenengo hemistikoan silaba bi falta ditu, eta bigarrenak bat. Utsune biok zelan bete, or dago untzea, or dago koska. Aita Patxi Altunak ez dau jakin ori egiten. Eta beronen aurrekoak be ez.

Bertso orreitan ikusten dogun beste uts bat, inprentako utsa, goiko *laudoioa*, eta beko *etsaiak* itzetan daukagu. Goian falta den *K* letra bean agiri da, bear ez zan lekuan. Ori inprentako utsa baiño ez da. Esan oi danez, inprentetako zomorroak edo iratxoak orrenbesteko sorginkeririk egiten badakiela edonok daki, orixe be emen baten batzuk ikusi ez daben arren. Dana dala, bertso bikote ori onela itxi geinke oraingoz:

Ezen zure baithan tturroñ batek etsaia
 urrutik izi dezan, nahiz dela hangaia.

Liburuan dagozan lez olan irakurrita, esan bearririk ez illun gelditzen dirala, ulertzen gatx egiten jakuzala.

Ulertzeko bidearen billa

Joannes Etxeberriren bertso bi orrein ulergatxaz konturatzen Aita Altuna ez da izan leenengoa. Argi egoteko egin izan diran saio bat edo beste Aita Altunak berak aitatu ditu: Mitxelenarena, Lekuona zaarra genduanarena eta Justo Garate jaunarena.

Baiña beste bat, leenagokoa aitatu bearra dago: Piarres Lafitte zanarena. Dakuskuzan bat banaka.

Lafitte jaunak bere *Euskaldunen Loretegian* sartu zituen bale arrantzaleen bertsook, 1933n atera eban liburuan. Gauza bat egin eban ondo: oker etorren letra berari egokion lekuan sartu, *Laudorioak* alde baten, *eta.Etsaia* bestean idatzita. Baiña bertso-bikote ulergatx orretara eldu zanean, azpian oar bat jarri bearrean aurkitu zan, *urrutik* orrek *urrundik* esan nai ebala (eta ez ebillan oso oker) baiña *izi dezan* ori gaurko euskeran ez egoala jator esanda, gaur *izitzen baitu* legokela obeto. Lafitte jauna ez zan, antza, konturatu bertso erreitan silabarik edo beste itzik bear zanik. Oker andiegitxoa Lafitte jaunarena, bertsoen esan nahia argiago ipinten ez ebana, benetan. Aitzu egin eban, gañera, *Ezen* orren ondoren Etxeberrik ez ekiela *baitu* ez beste *bait-ik* erabiltzen.

Bertso-bikote onen neurri-utsunea Manuel Lekuonak salatu ebala uste dot leengoz. Begi zorrotza erabilten ekian Lekuonak bertsoen neurriak kontuan artzeko. Emen utsunea ikusi ez eze, bere alegintxoa egingo dau utsune biak betetan. Bere ikututxoaz, ona zelan itxi gura izan euskun bikote ori:

Ezen nola zure baithan tturroñ batek etsaia
urrutik izi al dezan, nahiz dela hangaia.

Leengo bertsoan *nola* sartu dau, bertsoaren hemistikoa osotzeko, eta bigarreanean *a*. Baiña ikututxo oneikaz ez dau testoa argiago itxi.

Lekuonak asmau eban, bai, bertso bi orreik esan nai ebana. *Hangaia* itzaren esangurea ondoren berak ulertu ebala uste dot, *andi-mandia*, *erraldoia*. Baiña ez eban jakin testoa bera esan nai ebanera egokitzen.

Justo Garate ez zan ibilli argiago. Bertso okerrok dagozan dagozanean isten zituen, ez eutsen ezelango ikuturik egin nai. Bertsoen neurriari ez eutsen jaramonik egin. *Etsaiak*, Lafittek eta Lekuonak singularrean itxi eben itza be ez eban aldatu. Urrutik be dagoan dagoanean itxi bear zan. Eta *hangaia* ez zan besterik jangaia (comestible) baiño.

Auzi au ez eben ez Lekuonak ez Justo Garatek sortu. Mitxelena Jaunak atera eban plazara, Zirikian Gaiztarrok *Los Vascos en la pesca de la ballena* liburua argitaratu ebanean. Liburuaren berri emonez, 1961n, Mitxelenak autortzen ebanez, Zirikian Gaiztarrok beragana jo eban argi billa Etxeberriren bertsook ulertzeko eta erderara itzultzeko. Mitxelenak garbi erantzun eutson ez zituela ulertzen. Eta Zirikian Gaiztarrok bere liburuan zorioneko bertsook sartu zituan, bai, baiña bertso ulergatx bien erdal-itzulpenik emon barik.

Orduan agertu ziran erdira Lekuonaren eta Garateren alegiñak auzia argituteko. Baifia euron argibideak irakurri ondoren, Mitxelenak lengo ez jakiñean jarraitzen ebala autortuko dau. Eta ulertu eziñik jarraitzen ebala esango dau 1980-n Bilbon euskal-literaturaz emondako itzaldi baten. «Badakit, iñoan berak, Don Manuel Lekuona eta Justo Garate saiatu direla, nor bere aldetik, okerrak zuzentzen, baiña saio horiek ez naute asebetetzen».

Eta ona non jatorkun gaur aita Patxi Altuna bere saioa egiten. «Iñork garbituko ote lituzke? itandu eban antxiñatxo Mitxelena eta Aita Altuna itaun orri erantzun nai izan deutso...Aita Altuna be ez dabe orain arte emondako argibideak asebate. Eta bere alegina egiten dator. Eta ona, labur esateko, beronen eretxia. Leenengo hemistikoan ageri dan silaba-utsunearen betegarri, *Iauna* sartu dau: *Ezen, Jauna, zure baithan*, eta bigarren hemistikioko *Etsaiak* pluralean itxirik, onela osotu eta zuzendu dau urrengo hemistikoan: «Urrurik izi detzake» (zortzi silaba). Beraz, Aita Altunaren eretxian, ona zelan urten eben bertso biok Etxeberriren lumatik:

Ezen, Iauna, zure baithan tturofi batek etsaiak
urrutik izi detzake, nahiz dela hangaia.

Zer esan? Mitxelena jaunak Aita Altunaren irakurketa eta eritxia ikusi balitu, ez dot uste asebetarik geldituko zanik; len baizen ulergatx egingo jakozan bertsook, nire eretxiz. Ikutu larregitxo egin deutsoz Altunak Etxeberriren testoari. Zergaitik plural egin *etsaiak*, inpretako utsa dala argi dagoan ezkerro, eta gero, hangaia singularrean itxi? Eta zer da *urrurik izitze ori*? Nik ez deusat antzik emoten.

Beste eretxi eta irakurkera bat

Bertso-bikote orri, ondo ulertzeko, ez dago ikutu andirik egin bearrik. Zer esan nai daben naiko ondo ikusi eban Lekuonak. Bale arrantzaleak esker onez eta laudorioka dagoz Jaungoikori, itxasoko arraiñik andiena menderatzeko mesadea egin deuselako. Euren indarrak ez ziran ori lortzeko gauza. Baiña Jaungoikoaren laguntzaz sagutxo batek be etsairik andiena urrifietik, urrundik izutu eta ikaratu dagike. Olantxe emon deutse arrantzaleai, arraiñik sendoenari bizia kendu eta leorrera ekarteko indarra.

Etxeberriren testoak silaba biko itz bat, aditza ain zuzen, falta dau lenengo hemistikioan. *Ezen* orrek bere aditza eskatzen dau, urrengo bertso *izi dezan* menpeko dauana. Urrungo lerroan, *izi dezan*, nahiz dela *hangaia* jator dago eta erre ulertzekoa da. *Urrutik* falta dau silaba bat.

Aita Altuna Mitxelena, Lekuonaren eta Justo (edo berak esango leukenez, Zuzen Garateren) eritxiak eta irakurkerak baiño ez ditu aitatu eta aztertu. Baiña bazan beste irakurkera bat, niretzat jatorrena dana. Ain zuzen, orain dala amabi bat urte sartu zan Etxeberriren testo ori Iztegi anditxo baten, *Diccionario de Autoridades del Euskera* dalakoan. Iztegi orretan birritan dator, eta bietan irakurkerarik jatorrena emon nebalakoan nago. Lenengo bertsoan falta dan aditza *dago* da: *Ezen zure baithan dago tturroñ batek etsaia izi dezan*, andiena bada be. Eta urrutitik edo urrutirik izitu be.

Tturroñ eta *hangaia* itzaren azpian testo ori sartu bear eta, leenengo, iru silaben utsunea ikusi neban, leenengo bertsoan silaba birena, eta bestean batena. Ez neban buruauste andirik izan utsune ori betetako. Eta ona zelan osotu neban bertso bikote ori :

Ezen zure baithan *dago* tturroñ batek *etsaia*
urrutitik izi dezan, nahiz dela hangaia.

Behar bada, Etxeberrik *bertarik* erabilten dauan lez, urrutirik idatzi eban; eta *zure baithan dago* barik, *zure baithan duke tturroin batek* ez litzake irakurkera okerra izango. Baiña *dagoren* alde beste Etxeberri Sarakoaren esaldi bat daukagu. Bere *Eskuararen Hatsapenak* liburuan gaizki esaleen eta gibeljaleen esanai jaramonik ez egiteko onela diñotse gazteari:

«Zeure eginbidea egiten duzuino, etzaitzula jeusik hekin hitzez; *eztago gure baithan*, ez gure eskuan, *bat bederak zer erran dezan*» (J. Urquijo, Obras del Dr. Labortano Joannes de Etxeberri, 117).

Orra euskal-esaldi bat, Saratarrarena, Etxeberri Ziburutarraren bertso-bikotearen ari beretik doana. «Zure *baithan dago tturoñ batek etsaia izi dezan*, diño batak, eta besteak: *Eztago gure baithan bat-bederak zer erran dezan*».

Gaurkoz ez dot nik ikusten erantzun oberik aurkitzen arako Mitxelenaren «*iñork argituko ote lituzke*» itaunari erantzuteko. Eta erantzun ori Aita Altunaren artikulua agertu baiño urteak leenago emonda egoan.

ZER DA BARRUTIAREN «ALEIZAKO»?*

Orain sei bat urte atera nuen RIEV-n lantxo bat Barrutia aramaioarraren «Acto para la Noche Buena» euskerazko antzerkiaren edizio kritikoa aipatuz. Latxaga (J.M. San Sebastián) apaiz jauna zan edizio orren prestatzaille. Apaiz jaun oni beste askok billatu eta aurkitu ez zuten zoriona gertatu zitzaion. Atzerrian zebillala, otozotoan, berak billatu ere gabe, antzerki orren manuskritoa begien aurrean gertatu eta erosi egin zuen.

Urtebete lenxeago plazaratu zen Barrutiaren euskal-lan orren edizio bat, «edizio kritikoa» zalakotzat. Edizio au egin zutenek nik ez dakit nola artu zuten, «ausartzia» ori, manuskritoa aurkitua izan zelako berri zekitela, aurkitzailleak argitara emateko asmoa zutela jakin ondoren. Nolabait zabal zebillan berri ori, beintzat. Edizio kritikorik nola egin zezaketen, Barrutiaren manuskritoa ikusi eta ezagutu gabe? Leia geiegitxoz ibilli zirela argi dago. Benetako edizio kritikoa, izatekoan, Latxagak eman ziguna da.

Edizio onekin, nere lantxo artan usterik onenaz aitortu nuen Barrutiazaleek beren atsegiña eta zoriona erakutsiko zutela. Orain aitortu bearke det ez naizela igarle ona gertatu, ezpaitut aien gogoia berotzen ikusi. Ain irazekoa, udaldiko euri-zaparradatxo utsa, gezurrezkoa ote zen, bada, askoren lentxoagoko gogo beroa?

Gaur, Latxagari esker, or daukagu Barrutiaren benetako antzerkia, idazlearen eskutik atera zen bezalakoa, aren *Gaboneko Ikuskizun* jatorra. Or ageri zaizkigu leengo kopiek zeuzkaten utsak argi samar, bai Gerra jaunaren kopiarenak eta, jakiña, bai Azkuek Gerrarenetik *Euskalzale* astekarian emandako edizioarenak. Eta or ikusten ditugu kritiko eta masiatzaille batzuk, Azkueri ez dakit nolako «ausartziak» egozten

* Karmel 1990-2, 91-95.

zizkietenak, eurok izan dira ausartagoak Barrutiaren testoari gogoak eman dizkien ikutu eta orrazketak egiten. Barrutiaren lana, Azkuek eman zuen bezala, osoago eta jatorrago daukagu askotan aren masiatzailleak atera dituzten edizioetakoak baiño. Baiña kritikalarri zorrotzak gero mutu gelditu dira eta ez dute beren ausartziarik aitortu. Askorentzat, oraindio, Barrutiaren benetako edizio kritikoa kritikatzaille eta masiatzaillearena izango da, ez Latxagak manuskritoaren fak-simil eta guzti atera duena.

Kritiko oiek aldatu baiña manuskritoan argi gelditzen den itz baten adiera argitu edo, beintzat, aztertu nai nuke emen: *aleizako* arako «Beltranikotxo, aleizako esaminadorea» bertsokoa. Gure kritikoa ez dute or zalantzarik izan. Beren ustez, *aleizako* gaizki dago eta zuzendu egin dute eta «eleizako» biurtu.

Gerra jaunak eta Azkuek ez zuten, bear bada, ulertu zer zetzan *aleizako* itz orren azpian, baiña aldatu bear zutenik ez zieten buruak eman. Aurkitu zuten bezala utzi zuten, ez zuten ezer zuzendu bearrik ikusi. Batak eta besteak geroko kritikoa baiño itzal andiagoa zioten aurrean ikusten zuten itz idatziari.

Zer da, bada «aleizako»?

Baiña galdetu dezaiegun *eleizako* irakurri nai izan dutenei: badakizue zer izan daiteken «eleizako esaminadorea»? Iñork ez digu azaldu. Iñork antzik emango al dio zer den? Elizan ez da ezagutzen «esaminadore» eginkizunik zegokion olako izenik Beltranikotxori elkarren artean zerabilten autuan edo elkar-izketa artan. Nondik nora izan bear Beltraniko artzaia an «eleizako esaminadore»?

Galdera egoki dator: «Aleizako» itz orrek nora garamatza? Zer esan nai digu? Nik nere RIEV-eko artikulu artan, manuskrito aurrean nuela ona zer idatzi nuen: «Argi dago *aleizako* dela» baiña au ere gañeratuz: «bear bada, «aleizako» irakurri bear genduela, «Barrutiak Z eta TZ ezpaititu berezten».

Izan ere, *bioza*, *izuli*, *ukazen*, *argizen* eta ola idazten du eta ez biotza, itzuli, ukatzen, argitzen. Beraz Barrutiaren itz ori *aleizako* irakurri dezakegu, edo bearko degu. Ortik jo bear dalakoan nago itz ori ulertzeko.

Eta zer da itz orrek esan nai duena? Itz orren kakoa lenengo bi edo iru silabetan daukagu: *aleiz* edo *aleitza*, azkenengo -ko ori izenondoak eta sortzeko -ko atzizkia baizik ez denez. Eta zer da *aleitz!* Bi edo iru iturri baditugu zer esan nai duen jakiteko. Azkuek bere Iztegiaren geigarrian edo eraskiñean jasoa dauka, Oiñati aldean jasoa nonbait. Eta zer dio? *Al cálculo* zerbait saltzea eta olako zerbait esan nai duela.

Beste iturri bat Kandido Izagirrek emana degu. Esan bearrik ez, au ere Oiñati aldekoa degula, Oiñati inguruko euskal-iztegi eder aberatsaren biltzaille argia. Izagirrek *aleitzi* eman digu onelako esaera baten barruan sartuta: «Aleitzi esan dot: lo he dicho a ojo de buen cubero». Bi itz eta esaerok *Diccionario de Autoridades* delakoan sartuta daukagu. Nik irugarren iturri bat erantsi dezaket. Bein Goierriar batekin bidez ninjoala, eta ez zen berau edozein, Unibertsitate ezagun bateko buru nagusi baizik, auxe entzun nion: Gure errian askotan erabilten ditugu onako esaerok:

aleitzian esan, *aleitzian* neurtu, *aleitzian* jo , *a ojo de buen cubero* esateko. Au ere beste bi iturriak sendatzera dator. Beraz *aleitzako esaminadoreak* gutxi-bera gorako aztertzaile edo kontu-artzaillea esan nai du.

Antzerkiaren barruan testo inguruari begiratu ezker, bete-betean orixe esan nai duela dirudi. Beltranikotxo artzaia arri ta zur egiñik dago misterio andi bat, aingeru bat ikusten duela-ta, beste artzaiek arrimen eta zoramen berdiña erakusten dutela.

Ene lagunak, onela asi da Lorentzo artzaia:
 «Ene lagunak, zer ete dogu arako misterioa?
 Txoriak legez, egoak dakar, dulzea bere aoa.
 Zorionian juntadu gara guztiok leku batera,
 Angeruzko exerzituak xasi dira lurrera».

Ola dio artzai batek. Beltranikotxo beste artzaiak baño ia arrituago eta zoramenak artuago agertzen da ikusten duenaren aurrean:

«Angerua dok, eztok gizona.
 Aren abegi ederrak
 duda бага benzizen ditu
 kanpoetako eperrak».
 Kantore asko arkuzen dira
 Jerusalengo tenploan;
 Musika duzeagoa dago
 angeru onen aoan.

Graziosok artzaion arrimen eta zoramen ori irriz eta ixekaz artzen ditu, eta Bertranikotxorentzat ondoko zirto laburra baiña gogor au dauka:

«Beltranikotxo, aleitzako esaminadorea:
 no se hizo para los asnos estimakatz dulzea».

Esango balio bezala: I, txotxoloa aiz, ala ola, aldez alde eta gutxi gora bera baizik gauzak astertzen eta ikusten ez dakiana. Iretzat ez zegok olako gauzarik ikustea!

Graziosok eta Txatok era berean irri eta ixeka egiten diote artzaiek ikusten dutelakoari, eta auxe da Graziosok Beltranikotxori esan nai diona: *aleitzian* ari dela, zer esaten duen ongi ez dakiela. *A ojo de buen cubero* itz egiteko baizik ez dela.

Nik ez diot *aleitzako* orri beste adierarik aurkitzen. *Aleitz* edo *aleitzi* ortatik sortua eta izen ondo egiña da, gauzak aztertze eta epaitze argi gutxiko esaminadorea dela esateko.

RIEV-eko artikulua idatzi nuenean orixe izan nuen gogoan, baifia esan gabe utzi nuen. Gogoan daukat, artikulua idatzi berritan, Mitxelenaganik, beste norbaiten

bitartez, Urkijo Mintegiaren Urtekarira lantxoren bat bialtzeko deia etorri zitzaidala; bear bada an *aleitzako* oni datxikon argibideren bat ematea nai zuela etorri zitzaidan neri gogora. Baiña ortarako ez nuen astirik artu al izan.

Orduan egin ez nuena, RIEV aldizkarikoa idatzi nuenean gogoan izan eta esan gabe utzi nuena, emen dauka KARMEL-en irakurleak gaur. Barrutiak *aleizako* idatzi zuen itz orri ez diot nik beste argibiderik aurkitzen. Ez da, beintzat, iñolaz ere *eleizako*.

NESKA DONIBANDAR BAT EUSKAL-OLERKARI*

Gure egunotan indarrean datoz emakume euskaldun batzuk, bai bertsoz eta bai itz-lauz, euskal-literaturatxoa landu eta aberastu naiez, edo euren barrua ustu bearrez, eta emakumerik garerdiko naiz neskatorik ikusten dogu ipuin naiz olerki-sariketara azaldu eta irabazle urteten. Olako emakumeen lan-bildumarik edo antologiarik bere agertu da oraintsu, asko ez tala, baiña oraingoan lanak baiña ezteuskuez emon, eta, orrela, eurok etorri arte, emakumezko euskal-idazlerik izan ez dalako ustea sortzen dabe irakurleen artean, bear bada. Bada orain gaurko emakumeen arteko idazle elebidunik bere.

Onelako bat, euskal-literaturan sakontxo sartua, orain Madrilgo egunkari baten asi jaku erderaz idazten, jakiña. Mundu onetan, andrazkoentzat bere danerako dago lekua. Geroak galbaetetuko dau eta esango zer balio dauan bakotxaren lanak eta zelango fruturik dakarren euskerarentzat. Alan nai olan, antziñako emakumeak, eukal-literaturara zelanbaiteko lorarik ekarri daben emakumeak, aizturik isteko eskubiderik eztaukagu.

Donibaneke neskatxa ez-ezagun bati sarreratxoa egiñez, lengo gizaldietan gure literatura urritxoan euren lekua dauken emakume bat edo besteren aitamena egin nai neuke aurretik, izen bako eta izendunena, aitxinakoenetatik asita. Nork eztau entzun edo irakurri antziña bateko andra *erostarien* izenik? Euron egitekoa zer zan badakigu: norbait ilten zanean, aren illetetan, aren eriotzeak ostean ekarriko atsekabe eta negarra kantuz edo ostaintxean adierazotea. Askotan bertsoz bere bai. Oso gitxik itxi deuskue izenik. Zorionez, Garibai andiari, gure antxiñatearen arakatzaille zoliari sor deusagu olako emakume bat edo bi ezagutzea. XVgarren gizaldian, orain seireun bat urte, Milia Lasturko andrearen eriotzea zalata, euren eresiak abestu ebezan andra bi dira.

Milia Lasturkori, lenengoz ekarren semea il jako eta seingintza orretatik il da bera bere. Arri eta abe andi bi, zorigaizto andiegi bi, jausi dira Lasturtarren ganera. Baiña zorigaizto andiagotzat artu dabe senar alargunak, Peru Arrasatetarrak, lendik erabagita eukan ezkontza barria egin nai dauala beste andra batekin, il jakon andregaitik negar andirik egin barik. Lasturtarrak ezin dabe ori onez eroan, eta Miliaren aizteak asi eta alargunaren arrebak erantzun, bien artean diardue bertsoetan.

Miliaren aizteak bere aiztea galdu daualako atsekabeaz batera Peru alargunak ari ezkontza barriaz egiten deutson irain lotsagarrizkoa, biak batera ustu ditu bere bertsoetan. Alperrik ekingo deutso Santxak, alargun gelditu dan Peru orren arrebeak, neba alargunaren jokabidea zuritzen. An da oindio, Arrasaten, illaren gorpua «azpian lur otza, gañean arria» dituala. Lasturkoak Arrasate itxi eta Lasturrera eroan gura dau gorpu ori:

«Lasturrera bear dozu, Milia;
Aita jaunak eresten dau elia,
Ama andreak apainketan obia;
Ara bear dozu, andra Milia».

An, Lasturren, egingo jako Miliari, bere gurasoen aurrean, dedu ta kotsa obeko illetea. Andiegia izan da Lasturtarren ganera jausi dan zorigogorra, ama-semeak, biak galtzeaz zerutik jausi jaken abea:

«Zerunean jausi da abea,
jo dau Lasturko torre gorea,
eroan ditu ango jauna ta andrea,
bata leen, gero bestea».

Lasturko illeta barri orregaz, ama-semeen gorpuak an bertan eukiaz, arinduko jake apur bat Miliaren ta semearen eriotza eta Arrasaten egin jaken irain baltzaz artu daben samiña.

Beste eresi bat, illeta-abesti bat, andra batek ondua, Milia Lasturkoarena baiño entzunagoa, aurki, *Alostorekoa* dogu, Lasturkoaren aldizkoa itxuraz, baiña 1866n J.B. Arakistainek bere *Gauilla* ipuiñean lenengoz argitara emona. Geroago Azkuek 1901n Bilbon emondako itzaldi baten erriaren agotik jasota eresi beronen zati bat musika ta guztikoa ezaguerazo eban. *Alostorrea* daroa titulutzat. Milia Lasturkoarena baiño luzeagoa eta zeetasun geiago emoten dauana, eta andrazko baten agotik urtena. Antziñako jazoera lazgarri bat gogoratzen deusku. Gogoan dot Larrean, Zornotzan, eskola-ume nintzala ango ikasleak kanta au irakatsi euskuela. Ulleak ia laztu egiten jatazan arako «Alostorrea, bai Alostorrea!» Kantetan genduanean:

«Alostorrea, bai Alostorrea!
Alostorreko eskaillera luzea!
Alostorrean
nengoanean

goruetan, bela beltzak kua! kua! kua! kua!
leioetan».

Jazoera lazgarriok itxita goazen beste giro gozoago bateko kantuetara, umeai lo eragiteko gure amak erabili dituezan uauatxoetara. Emakumeak asmatu-rikook diranik ezin ukatu. Bertso ta soiñu gure amak asmatuak. Aita Donostiari bein erdal-olerkari andi batek esan eutsanez, asko ederraren ederrez entzulea txunditurik istekoak dira.

Baiña euskal-literaturan berariaz sartu gura izan eban emakumea, Mogeltar bat izan da, Vizenta Antonia Mogel, guraso markiñarren alaba, Azkoitin jaioa (1882-1954). Osaba eban J. Antonio abadearen, *Peru Abarka-ren* egillearen eragitez edo, bere *Ipui Onak*, gipuzkeraz atera zituen, osabeak bere lenengo liburua gipuzkeraz «arrotz eta atze» egiten jakon euskalkian idatzi eban lez. Ganora andi barik idatzi dau norbaitek Bizenta Antoniak bere ipuiñak bere jaioterriko, Azkoitiko euskeran argitaratu zituela. Geroagoko idazlanak, bertso ta abar, bere gurasoen Markiñako euskeran idatziak ditu. Jaio ta urtebetegarreneko, aita il jakolako, Markiñara aldatu zan bere ama alargunagaz. Markiñakoa eban bere euskera.

XIXgarren gizaldian, bada beste emakume euskaldun bat euskal-idazlea, Iparaldekoa: Anne Urruthi: 1873n liburu bi atera zituen: Joannen Ebanjelioa eta Pedro apostoluaren «epitriak», epistolak, Zuberoko euskerara itzulita. Eta gure gizaldian, ogeigarrenekoan, 1936ko illunaldi ta ixillaldia baiño lenagotik, gogatsu agertu ziran emakume batzuk (Tene, Zipitria, Mañariko) gure literaturako baratzera euskeraren alde egin eta euskera lantzen.

Donibaneko neskaren «kantika berria»

Luzeegi joan jat aurkeztu nai izan dodan Donibaneko neskatxa onen bertsoai egin nai izan deusedan sarrera au. Baiña ez jaku askotan ondo etorten lengo aldietera begiradatxo bat zuzentzea? Irakurleak parkatu deustalakoan, banoa aurrera. Nor da Donibaneko neskatxa ori? Ez jako izenik ezagutzen. Donibaneko neskatxa dala bes-terik ez dogu irakurten, bere bertsoak argitaratu zituen *Exercicio Izpirituala* liburuan. Vinsonek bere *Bibliographie Basquen* diñoanez, liburu ori euskerazko liburuetan argitaldirik geien izan dauana de 1716tik aurrera. Eztau beti titulu bardiña; antziña-koenetan *Exercicio Izpirituala*, gerokoetan *Exercicio Spirituala* eta *Exercicio Ispi-rituala* bere bai. Zein argitaldirakoak dira Donibaneko *Kantika Berriak* izenekook? *Exercicio Izpirituala* izeneko baten datoz, 133-135garren orrialdeetan. Nik daukadan xerokopia atera nebanean, noizko ediziotik atera neban ez neban azpimarratu. *Exer-cicio Izpirituala* dalako liburuak ez ditu beti gai bardiñak eta otoitz bardiñak artzen. Edizio batetik bestera gai batzuk aldatu egiten zituen eta barriak sartu. Edozelan bere, Donibaneko neskatxarenak diralako bertsook ez ziran askotan liburu orretan agertu. Titulu osoa onela daroe: *KANTIKA BERRIAK Bazkoko Komunionearen gainean Do-nibaneko neskatxa batek moldatuak*.

Bertsoen gaia

Gaia *Kantika hpiritualak* deritxon eta ainbat bidar argitaratuak izan zan liburuan sartzeko modukoa dabe, baiña areitan sartuak izan ez diran ezkerok, areitatik bereizteko edo, Donibaneko neskatxa onenai *Kantika Berriak* ipiñi deutse titulua. Urrengo *Bazkoko komunionearen gainean* ori ez daroela guztiz ondo eta egoki esango neuke. Komuniño orren gaifiean baiño komuniño orren inguruan, parkameneko sakramentuan eta Kristoren Gorputz Odolaren sakramentuan artutako graziak eta erabagiak Jainkoaren aurrean autortzeko eta barruko sentierak ustuteko egokiagoak dirudie.

Donibaneko neskatxa kristiñau pazkokari bat izan dala esan geinke, urtean bein parkameneko sakramentura eldu eta gero pazkoazkoa egin oi dabenetakoa, beste askok egiten eben eta egin oi dabenean lez. Oraingoan beintzat badirudi eztauala oitura utsari jarraitzearren egin. Benetanago artu dau egiteko ori. Bere bizia ondo aztertu dau eta gauza askotan obendun aurkitu dau bere burua, bide zuzenetik askotan aldendu dala, bere grifiai geiegitan oben egin deutsela, Jainkoaren legea askotan ostikopetu eta ausi dauala, eta olan itsututa eta barruko bakea eta poza galdu besterik ezta egin, bere etsaien serbitzari eta menpeko egiñik gelditu dala. Orain damaturik dago eta bide onera biurtzeko bertuteari deika diardu bere bertsoen lenengo zatian. Lau bider entzuten deusagu dei ori. Baiña zer da «bertutea» donibandar onentzat? Bide onean bizi eta irauteko indarra, Jainkoaren borondatea egiteko sendotasuna, Jainkoagazko, lagun urkogazko eta bere buruagazko dituen eginbear guztien osotasuna eta bilduma.

Au da neska onen «kantika» barri orren lenengo zatiko gaia. Eta bigarreanean aurrerago jo dau. Zorion billa bere grifiei lasapidea emonik ibili danean ez da bakarrik bere etsaien mendeko gelditu izan; bere buruaren jabetasuna eta barruko bakea galdu dau. Orain argitasun barri bat egin jako bere gogoan. Olan ibilli danean, Jainkoak bere Seme Kristoren bitartez izan eta erakutsi deusan maitasunari ez erantzun eta uko egin deutso. Bere eskertzar guztiak gora bera, Jainkoabeti maitasun opaka dauko, eta parkamena eskintzen. Are geiago, altareko sakramentuan bere janari egin jako. Benetan au bai «mirakuilu handi eta espantagarria, Jainkoa nere janhari zerutikan jautsia!» Or dau Jainkoa bere janari eta indar eginda, onean sendo irauteko laguntzaille datorkiola.

Orduan ulertu dau Pazko eguneko «komunione» orren esan naia bete betean. Eta Jesusen maitasunean eta oneritxian beti irauteko eske daukagu. Berba gitxitan esateko, pekatu guztietara illik eta bizi barria artuz, Jainkoaren maitasunean bizirik, Pazko misterioan sartu eta parte osoa artzea eskatzen dau. Pazko-bide egoki ederra Donibaneko neska onen «kantika» orrek erakusten deuskuna. Gaurko eta biarko balioko dau eta kristiñauontzat zartxoa bada bere, beti «berri» gelditu daiteke.

Bada gure artean neskarik edo emakume gazterik bere bertsoetan joera oso besterakoa agertu dauanik. Baiña nork bere burua legetzat arturik, ba ete dogu etorkizunik? Geure buruen jabeago egingo ete gara? Gure gizartea baketsuago eta alkartuago egin ete geinke? Olako kantariak zelango zartzarora elduko ete dira? Donibaneko neska onen bidea eta mezua ez ete ditugu egokiago eta bearrago?

Dana dala, emen dau irakurleak donibandar onen olerkia. Guk liburuan daukan utsune bat bete deusagu; taket artean datorren «aitzinean» guk ezarria da. Bertsoak bere alan eskatzen dau.

Pazkoko komunionean

(Donibaneko neskatxa batek moldatu bertsoak)

Berthutea, ez othoi zu, ez urrun nereganik,
Gerla Satani egiteko behar baitzinduzket nik;
Zure eskasez, ni balentzan eman nau iziturik.
Ah! zu nerekin bazaitut, ez duket ez beldurrik.

Orai artean ibili naiz munduan itsuturik,
Jaunaren manamenduak arras ostrikaturik;
Heldu naiz aldaretarat, urrikiz hunkiturik,
Berthutea, zutaz, ordean, osoki harmaturik.

Aldaretara ethorri nahi nuke, ez urrundu.
Zuk, ordean, berthutea, behar nauzu tiratu.
Nahi nuke bethikotzat aldare hetan pausatu,
Zuk bainauzu, Jesus maitea, nohala konbidatu.

Nork behar zintuzke beraz, zu, Jauna, errefusatu,
Kriminel baten bilhatzen zarenean nekhatu?
Tronpa ez nadin berthute, othoi lagun nazazu;
Zu behar baitzaitut, Jesus ene jabia, maithatu.

Zure galdeak, oi, Jesus, Bihotza hunkiturik,
Heldu naiz ni zure ganat, urrikitan sarthurik.
Nere faltez suspiretan orai nago zaurthurik,
Aldarearen «aitzinean» nigarretan urthurik.

Enetzat zeren baitzaitut nik hemen janharia,
Berant balinbada ere, naiz hunat ethorria.
Ez dut nik bertze jaberik baizen Jainko bizia;
Ostia saildu huntan da gerizean jarria!

Oi, hau mirakuilu handi eta espantagarria!
Jainko bat nere janhari zerutikan jautsia!
Zu othoizten zaitut, Jesus, eman dazu grazia.
Ah, zure errezibitzeko izan nadin garbia.

Zuretzat behar dut zure banketa nik dastatu,
Zeren enetzat baituzu zeronek antolatu;
Amodiozko khar batian behar dut beraz sarthu,
Edo ez dut behar jaterat ausartatu.

Zinuelarik ikhusten ene gaixtotasuna,
Niganat ethorri zare guzia zu zarena;
Egon zaiten ene baithan garbi nazazu, Jauna;
Enetako, orhoit zaite, odola eman duzula.

Idazkera gaurkotu egin dautsagu. Ez ete dabe gaurko antologietako bertso askok
aña balio?

LATSIBI

argitara barriaz zeozertxo*

Neure eskubidea artzen dot esatekotxo bat edo beste esateko liburu onen pres-tatzaille eta aurkezleak esan deuskuezan uskeri batzuen inguruan. Aurkezleetako bat nire eritxiaren eske lez dodan ezkeror, eskubidea ez ezik orretarako egin bidea bere badodalakoan nago.

Orain ogeta sei urte, 1964n, Lekeitio izan nintzan an bere jaioterrian erriko seme argiari egiten jakon omenaldian itzaldi bat egiten. Arik gerotxoago artikulutxo bat atera neban *Zeruko Argia* astekarian, itauntxo au egiñez: «Azkueren nobela bi *Latsibi* ta *Ortzuri* noz argitaratzeko dira?». Urrengo urte baten, Joan San Martiñek eroanda, Euskaltzaindiaren maiganean egoan itaun ori, eta liburu biak argitaratzeko asmoa.

Gerotxoago jakin gendun Mikel Zarate zanaren eskuetan zala beintzat *Latsibi*, albait ariñen argitara emoteko asmoaz, antza. Larrabetzuko seme argiak, Zaratek, gogatsu ekin ei eutsan lanari; baiña bera eriotzeak eroan euskunez, utsean gelditu zan dana. Azkenez, eta zorionez, Labairu Ikastegiko euskalzaleen gogo beroari esker (eta Euskaltzaindiaren baimenez), gaur kalean dogu ainbeste urtez luzeritxita euki gaituan *Latsibi*, Azkue andiaren euskerazko lanik mardulena.

Noz idatzia dau berau? Nik ez daukat aldatu bearrik onetzaz orain 26 urte *Zeruko Argian* esan nebana: *Latsibi*: «*Ardi galdua* aterata laster egin eban irakurgai au». Orixe lenengo. *Ardia Galdua* baiño lenago ez, gerotxoago baiño. Besterik uste da-benak oker dabilz. Aita Villasanteren errazoia zuster bakoa da. Azkuek, aldi atan, bere Gipuzkera Osoatuaren bidea artua eukala? Baiña Azkuek, edozelan be, ez eban

* Karmel 1989-3, 92-99.

iñor beartu nai izan gipuzkera osotu orretan idaztera. Ezta bere burua bere. Alan, 1925n, *Oroigarriak*, R. Ortuzar abadearen antzerki-liburuarentzat idatziriko Itzaurrea ez eban gipuzkera osotuan idatzi, Bizkaieraz baiño. Ez eutsan beste euskerarik Bermeoko euskeran egiñiko liburuari ezarri nai izan, orain askok euren euskara batuan edo euren saio-euskeran egin oi dabean lez.

Are geiago: Azkuek azken urteetan abadeentzako eta abadeegunetan erabilteko liburutxo batzuk atera zituen, giputzentzat gipuzkeraz, eta bizkaikoentzat bizkaieraz. Eta zergaitik ez eban bizkaieraz idatzi bear Mungiako seme eta Bizkaiko aldun (diputatu) baten omenez idatzi eban *Latsibi* au bizkaieraz, Mungia aldeko euskeraren usaintxoaz idatzi bere?

Nobela au nozkoa dan aztertzen ez dira, egia esan, zuurregi ibilli beronen prestatzailleak. Aita Villasante itsuen ibilli dala esan bear. Nekerik naikoa artu dabe eurentariko batzuk gauzea argitzen eta ez deutsegu uts andirik aurkitu. Gaiñerako lana zeatz egin dabela esan bear. Eurenaz ez zan zeatzasunik geiago emotea, eta parkagarri dira. Villasantek egin dauan utsa nik ezin neike ain parkarritzat emon. Euskaltzain danari, euskaltzainburu zanari geiago eskatzen jakon. Euskaltzaindiaren batzar-agirietan eukan argi egiteko bear eban eta bear dan dana, eta areetara argi eske joaten bere ez dau jakin. Euskaltzaindiaren bibliotekako arduradun eta orain euskaltzain danagana jo dau, eta onen txostentxo baiño ez dau kontuan artu. Dana bere, 1943ko batzarretatik gerokoa, azkenengo urteetakoa, Azkue ilda gerokoa. Baiña argia antxiñagoko batzar-agirietan eukan. Antxe, *Morfologia Vasca* ateraten asi zanetik, 1923garren urtean asita, antxe 1927garren urtea arteko agirietan eukazan ainbat argibide, eta naiko zeatzak, emengo auzia, aita Villasantek lorrin samar itxi gura izan deuskuna, argitzeko. Antxe dator *Morfologia Vasca-ren* 265garren orrialdean noz zan asibari Gerhard Baehr *Latsibi* Gipuzkoako euskerara aldatzen. Gero bi edo iru bider dator nobela orren aitamena bertako adibideren bat edo bestegaz. Lenago Barriaren barri jakiteko lez, *Morfologia* orren aurkibidera joten be ez dau jakin, eta or be ba eukan, Azkuek erabili zituen manuskritozko iturrien artean.

Irakurlea jakituntzat daukagu edo euki nai geunke *Morfologia Vasca* ori *Euskera* aldizkarian Euskaltzaindiaren batzar-agirietan agertu zala gero liburu berezi bat egin baiño leenago. Baiña *Morfologia* argitaratzea amaitu zanean, urrengo batzar-agirietan datoz, 1926 eta 1927koetan onako zeatzasun geiago:

1) «Donostian, Aldundiaren jauregian 1926ko otsaillaren 19an Azkue jaunak irakurri du oraintsu berak idatzi duen irakurgaia, *Latsibi* izenekoa».

2) 1927n Bilbon ospatu dan ilbeltzaren 28ko batzarrean barriro dator Azkuek egiñiko nobelaren beste irakurraldi bat, beste zeatzasun jakingarri batzuekin:

«Azkuek, berriz, oraintxe idatzi duen bere irakurgai Latxibi (irakurri du). Berak ez daukala elestari izateko gogorik-eta, edozeini eskiñiko liyoke argitaratzeko».

Barriro esango ete dot? Ni ez nebillen oker 1964n *Zeruko Argian* onako au idatzi nebanean: «Bizkaiko euskeraz egin, eta gerotxoago Gerhard Baehr zanak giputz euskeraz jarri eutson. Mezenas bat noz agertuko, argitaratzeko dirurik nok emongo begira egon zan gero bere bizi gutzian, eta ez zan Mezenasik agertu».

Batu daiguzan orain argibide guztiak, emen aitatuak eta oraingo argitaraldian prestatzailleak emonak. Eta lenengo, Azkuek Aureliano Galarzari egiñiko eskeintzan idatzia:

«Orain urte askotxo dala Mungiak izentauriko aldun (diputadu) zintzazan, eta zeure asmo eder bat aintzat artuta euskerazko irakasgua (Katedra) sortu eban Bizkaiko Aldundiak (Diputazioak). Yazoera aren gomutagarri ta neure esker-erakutsizat aspaldi luzean nerabilen nik liburutxoren bat zuri eskinteko gogoia. Ona emen *Latsibi*. Gertirudi edo nobelatxo au, bestegaitik ezarren, begi argiz ikusiko dozula uste dot».

(Emen esan dagidan Galarza jaun ori Eusko-Ikaskuntzaren urte birik beingo *Memorian* bazkun orren kide agertzen dala 1924-26ko sebazkide-zerrendaraño, eta urrengoan iltzat).

Bigarren, gogoan artu daigun Azkuek or esana: «aspaldi luzean» erabilli ebal liburutxo ori Galarzari eskinteko gogoia.

Irugarren Morfologian: 1923ko urtearen erdi aldean, Baehr jauna *Latsibi* gipuzkeraraten asibarria zala, eta gero 1934n *Euskalerraren Yakintza-ren* itzaurrean esana: Baehr au Azkuek berak *Latsibi* idatzi ta ostetxoan itzuli ebal gipuzkerara.

Ondorioa argi dago: Azkuek 1922gn urte inguruan idatzi ebal Galarza jaunari eskintzen eutsan liburu au. Iñondik iñora ere ez, *Ardi Galdua* baiño lenagoko urteetan.

Euskaltzaindiaren batzar-agirietako 1926ko «oraintsu», eta 1927ko «oraintxe idatzi duen *Latsibi*», alkarren aurka, alkar ukatzen dagozala dirudian arren, ez dagoz eman diñogunaren aurka, bai gure eritxiaren sendogogarri. Esan nai dabena, bear bada zera da: 1922tik 1926ra bitartean azken-ikutu eta orrazkeren bat egin eutsala nobela orri, eta 1927rako azkenengo eskua emon eutsola.

Auzi onetan liburuaren prestatzailleen artean Mirari Alberdi oso ur ibilli da egi osoa aurkitzeko. Erdi erdian joteko, Euskaltzaindiaren batzar-agiriak irakurtea eukan; baiña ori egiten Euskaltzaindiaren buru zanak bere ez dau jakin eta ez deutsagu pekatutzat ezarriko beste iñori.

Esku-erakutsi ederra eskuetan dakarkiguela datoz Labairuko andereñoak: Kar-mele Olano eta Mirari Alberdi. Nobelaren gaia aztertzen, Azkueren idaztankera azaltzen, testorik jatorrena billatzen zoli jokatu dabe. Arako eskoladunak edo eskolea artuak dirudie. Noz edo bein ez gaituez osoan aseko. Testo aztertze lan-teknika batzuen jabe dira, naiz eta noz edo bein arira ez etorri euren epaia. Baiña emen dogu euron bitartez aspaldian noz agertu zain euki gaituan euskerazko, Bizkaiko nobela-saillaren geigarri bikaiña izango den lan ederra. Aita Villasantek diñoan lez, «zinez euskal-elaberrien kondairan toki bat zor zaio, eta ez nolana hioa, Latsibiri... Hizkerari bagagozkio, *Latsibi* bizkaieraz dago eta hizkera guztiz artatua eta jasoa du. Alde batetik, herrian oinarritutako hizkera nahi du, baina bestetik, guztiz garbia ere bai».

Tamalez, nobelaren goragarri diran olako berba labur batzuk idatzi ondorik, beti oi dauan lez, Azkueren akats-batzaille agertzen jaku ia bere itzaurre guztian Aita Villasante. Gaitzerdi litzake, errazoi guztia bere alde baleu; eta gainera, nik esango neuke, ain luzaro noz agertuko zain euki gaituan, ain luze-eritxirik geunkazan liburua aurkezteko uskeri batzuk ez datozela ain arira ta ain eder. Beingoz, Azkueren jorra-tzaile ez agertzearren bere!

Lenengo ta bein, pekatutxotzat edo ezarri gura deutsola dirudi bizkaieraz *baratz* eta *itz* erabiltea. Ez bata ez bestea bizkaikoaz ez ei dira, bai *ortu* ta *berba*. Gagozan egunotan, edozein euskalkitako berbakaz lapikoko bat egin nai danean, *euskara batua* agoetatik kendu eziñik gabiltzanean, ez ete dauko iñok itz bi orreik bizkaieran erabilteko eskubiderik? *Itz* eta *baratz* Villasante jaio zanik ona bizkaieran erabiliak izan dira. Eta Baratzta bizkaierazkoa ez dala? Bizkaikotzat dagozan 1596ko esaera zaarretan gitxienez birritan dator berba ori eta *ortu* bein bere ez.

Azkueren beste pekatutzakotzat, Villasantek salatua, *ekion* erabilteajakon aditz-jokoaren orde. Pekatutzako au aitatzea ezin dot ulertu. Villasantek esan dauanez, *ekion* ezda errikoa. Erri-euskera kontuan Azkue asko ekiana zan. Villasantek baiño geiago. Agirian dago emen kritikatzailleak kritikatuaren *Morfologiari* ez deutsala iñoiz begitu andirik egin. Liburu au irakurri dauanak jakin bear leuke *ekion* eta olako aditz-jokoak an eukazala, Mungialdetik eta Bakio aldeetaraiño batuta. Eta bada, ain zuzen, Azkue baiño leenagoko idazle bat, Kruz Renteria, Mungiako semea, Plentzian abade egona. Bere sermoietan aditz-joko bera darabil beti, baiña azkenengo *-n* kenduta. Azkuek argi ikusi zituen or Lapurdiera zaarreko (etor zedin, *zekion*, etorri zen, *zitzaion* esateko) eta olakoen kideak eta aztarrenak, Bizkaiko euskeran egunotara arte bizirik iraun dabenak. Oraintsu agertu da Bizkaiko manuskritotxo zar bat olango formak indikatiboan dituenak: salba *gengizan* (genduzan esateko); eta antzerakoak aurkitu zituen Azkuek Mungialdean: *ekarri gengie* (-n barik oraingoan), *ekarri genduzan* esateko. *Morfologia Vasca* irakurri barik, edo aurkibidea bakarrik irakurrita, ez joan agana erri-euskera kontuan konturik eskatzen. Bizkaiko euskereak antziñeneko euskera zaararren forma bat baiño geiago gorde dau gure egunotara arte. Mungialdeko forma biziak dira Azkuerenak.

Gai au eta beste *hiperbizkaiera* izenaz Mitxelenak bataiatu ebalakoa (au bere atera dau Villasantek) Mitxelenak berak itxi ebanan lekuan itxi daiguzan: Bizkaian joera barria edo oraintsukoa dalako orren «historia eta zer-nolakoak ongi aztertu gabe daudela oraindik» (Villasantek aitatutako itzak).

Baiña aztertu barik egon arren, or daragoioe oro-jakile edo mari-jakitun batzuk, zuster andi barik, alako edo olako aditz-forma batzuk norbaitek oraintsu asmatuak eta sartuak doguzala esaten eta zabaltzen. Gure literatura urritxoak, eta bera ondo aztertu bakoak, ez dau eskubiderik emoten olan era bateko gauzarik esateko.

Villasantek bere itz-aurrean aurrera jarraitzen dau erruki barik Azkueren ganera arri-pilloak botaten. Bere gagnetako *baztanga*, naparrerria edo zakutea gogoratzen deuto: arako Dogsonek edo arpegiratu eutsana. Baiña Azkuek gatx ori osatutzat, joandakotzat eukan aspaldian, eta betiko joandakotzat. Azkue beraren berbakaz esateko, «baztanga bein izan duenak, bigarrenez oratzen ez omen du». Villasante aitormen orregaz ez dator bat. Gatx orrek jota jarraitu ei eban beiñolako baztangadunak: garbizalekeriak eta «katharinitis» dalakoak jota.

Sebero Altubek gogor jo ei eban Gernikako 1922ko Eusko-Ikaskuntzaren batzarrean garbizaleki ori. Eta Villasanterentzat Altubek an esaniko guztia Azkueren garbizalekeria salatu eta jorratzeko izan ei zan. Gizabide onekoak ei zirean biak bere, eta ez ei zirean alkarri erasotera eldu, baiña gauza ziurtzat dauko iztegi kontuan alkarren aurkakoak zireala oso.

Bein baiño geiagotan azaldu eban, Euskaltzaindian Azkuek gai orretan bere eretxia, eta ez dakit inoz, ez dot ikusi inoiz eztabaida gogorrik erabili ebenerik.

Altubek Gernikan talde bitan sartzen ei zituen garbizaleak: garbizale amorratuak, «zustraitijak», Altuberen berbaz esateko, eta «biguntxoagotijak», ez ain amorratuak. Baiña, azken baten biak batera jotzen ei dabe. Beraz, Villasantek Azkue garbizale egiten dauanean, garbizale amorratua dala ez ete deusku esan gura? Baiña nik zer au jakin gura neuke Villasantegandik: ia zeñien euskera daukan garbizaleagotzat edo garbikeri geiagotzat jotakotzat, Altuberen ala Azkuerena. Irakurri begi Altubek bai Gernikan eta bai Euskaltzaindian irakurritako itzaldiak eta *Laztantxu* eta *Betargi*, esaterako eta esan begi gero Azkue garbizaleagoa dan ala ez, bestea baiño.

Onan bere barrua ustuta gero, azken aldera asierako biguntasuntxora jo gura izan dau kritikoak. Euskaltzaindiak bere taldea ei dauko «lexikologi irizpideak finkatzeko»: itz barriak sotzeko. Bai «maileguz, bai itz-elkarketaz eta etorpenez». Itz-elkarketaz sorturiko itz-mordoa ei *dauko Latsibi* nobelak. Euron zerrenda on bategitea ondo ei letorke. Ez ei dira olako zerrendak «hizkuntzalarientzat alperrekoak izaten».

Ganera, Azkue hizkuntza aiiotan asko dakien jauna da, autortzen dau orain, eta dakien guztia edo asko ekarten ei dau bere idazlanetara. «Eta behar bada horrexegatik edo astuntxoa gertatzen da Azkueren idaztankera».

Kritikalari onen eritxiari bere laztazuntsoa kentzeko, ekarri daigun ona Koldo Mitxelenarena, Karmele Olanok bere itzaurrean aitatu dauana: «Azkue escribía en un vascuence diáfano, rico y fácil... tenía un humor amable y juguetón... no... conseguía siempre refrenar el deseo incontenible de volcar a cada momento las riquezas del léxico vasco que tan bien conocía».

Mitxelena aitaturiko «riquezas del léxico vasco» ori ez dago Azkueren *Latsibi* onetako euskal-itzen ugaritasun utsean, aurki; itzai emoten dakien indar, bizitasun eta bitsean dago geiago. Eta orretan maixu da Azkue. Bitsa ateraten daki itzik ezagunenari. «Zarraparrea atera genduan gero guk an!». «Zarraparrea atera» ez da esaera ez-ezaguna, baiña zelango indarra darion or. Olango esalditxoz beterik da *Latsibi*.

Itzen ugaritasuna bearrezkoa dau euskal-idazleak, baiña itzai bits ori ateratea bearrezkoago, erderazko *fenomenala* edo olangotara jo barik. Asko ikasiko leukie gure idazleak *Latsibi*, nai *Txirristadak* eta Azkue gaztearen beste lanetan.

Amaitu dagidan artikulu luzeegitxo au. Esker on andiz artzekoa da Labairukoak *Latsibi* kaleratuaz eskiñi deuskuen eskuerakutsia. Eta Aita Villasanteri esango neuskio urrengo Azkueren euskal-lanez idazterakoan egin dagiala alegintxoa biguntxoago eta «biguntxoagotija» izaten. Eta oiñari ziurrago sendoagoetan zustraitu daitela.

BELAUSTEGIGOITIA EUSKERAREN ETORKISUNAZ KEZKATUA, EUSKAL-IKASBIDE ERRAZEN EGILEA*

Laudio'n, 1877'n jaioa zan Belaustegigoitia'tar Perderika. Onelaxe emoten eban bere izena, berak euskeraz edo euskera irakasteko atera zituen liburutxoetan: Belaustegigoitia'tar Perderika, edo laburtuta, B'tar P.

Andik urte bigarreanean, Ladislao Velasco idazleak liburu loditxo bat argitaratu dau: «*LosEuskaros enAlava, Guipúzcoa y Vizcaya*», euskalerri bakotx orreinjatorria, leena, izkuntza, lege, ekandu ta oituren barri emoteko liburua; eta Ladislao Velascok diñoanez, erderea Laudion indar artzen asita ei dago. Euskereak gogor eusten ei eutsan erdereari; baiña, jatorrizko izkuntza, kanpotik etorrenaren azpian, illik gel-dituko ei zan, goizago edo beranduago.

Laudio'k XIX'garren gizaldian, euskaldun iraun ebalas esan giñai, eta euskaldun zalako ospea eukan Bizkaian. Bizkaian zabal ebillen Laudio'ko abadeen izenean ataratako dotriña bat, kristiñau ikasbide bat, 1928-garren urtean lenengoz argitaratua, eta geroago gure XX gizaldian sartu arte argitaraldi asko izan zituena. Liburutxo onetan ikasi eban Bizkaiko seme askok lenengoz euskera apur bat irakurten. Liburu honek zabaldu eban Laudiotarrak euskaldun irauten ebelako eretxia, Laudiotarren euskalduntasuna.

Tamalez, euskalduntasuna eta euskalzaletasuna ez doaz beti batera. Euskaldun izatea bat da, eta beste bat euskalzale izatea, edo euskaldun iraun gura izatea; eta Laudiotarren artean, nozbaiten, biztu zan euskalzaletasuna, euskaldun jarraitu naia be. Ain zuzen, euren euskalduntasuna arriskuan ikusita, beste leku askotan jazo dan lez.

* In: [BATZUK], *Federico Belaustegigoitia, 1876-1947, Gasteiz-Vitoria 1989, 119-127.*

Belaustegigoitia euskerearen bizitzaz eta batasunaz kezkat

Orixe jazo jakon Belaustegigoitia, Laudioko seme argiari, Euskaldun jaio zan; baiña jaiotzako euskalduntasuna ez eban naikoa. Euskaldun bizi nai eban eta euskaldun iraun, eta euskaldun izan eta irautea ez eutsan bere buruari bakarrik opa: bai bere erriari eta Euskalerrri osoari. Euskera bako Euskalerririk ez eban nai. Eta Euskalerrriari euskaldun jarraitzeko bideak erakustera joko dau bere bizi guztian. Orretan nekez aurkituko dogu Euskalerrrian gizon kezkatuagorik. Beti euskerearen bideak zelan errazgotu asmatzen ikusiko dogu.

Lenengo eta bein, euskeraz eta erderaz, bietara egingo dau lan, euskaldunen artean euskalzaletasuna, euskaldun-gogoa biztuten, euskaldunak euren izkuntzan eskolatzen, eta euskaldun osoai zein euskaldun motzai, erdaldunduai, euskera ikastea errazteko liburutxo egokiak eskintzen.

Ezkundu eta Durangon biziten asi zaneko, astiro baiña eten barik jardungo dau bere eritxi, argitasun eta asmo barriak zabaltzen.

Gure izkuntzaren aldeko ekintza, 1909-n asi eban. Urte orretakoa dau Bilboko Euzko-Gaztediaren batzar baten eginiko itzaldia: «*Por la lengua nacional vasca*». Euskaldunek geure izkuntza bizirik aurrera atera bear dogula, geure indarrak orretara zuzendu bear ditugula eta zelan zuzendu geinkezan, geure euskerari bizirik iraun izatea euskaldunen eskuetako eginkizuna dala, argi eta kementsu esan eutsen Bilboko entzule gazte eta zarrai. Baiña bera ez da itz utsen zale, ez berba utsez asetzekoa.

Eta andik iru urtera, euskera ikasteko era erraz bategaz dator plazara: Urrengo urte baten, Euskera batuaren auzia, auzi gogorra dakar kalera, eta gai orren goraberan euskaldun jakitunagoen eritxiak eskatuko ditu. «*La unificación del Euskera*» dau Belaustegigoitia'ren lan onek izena. J. Etxenagusiaren irarkolan atera dau. Nozkoa danik ez dakar, eta 1919'kotzat daukenak oker dagozala esan giñai. Urquijo Jaunak RIEV-en 1920n, 1919'kotzat emon ebalako norbaitzuk urte ori emoten deuskue Belaustegigoitiaren lan onen urtetzat. Baiña ez da olan.

Urte batzuk lenagokoa da, eta ona zergaitik diñogun au. Belaustegigoitiak bere lanaren azkenerantza, esan dogun lez, besteen eritxiak eskatzen eban batasun-auzia argitzeko. «*Euzkeltzale-Bazkuna'k*» emon eutsan berea, eta Euzkeltzale-Bazkunakoen erantzuna 1916-koa da, 64 orrialdekkoa. Beraz, 1916koa edo leentxoagokoa izan bear Belaustegigoitiarena.

Batasuna, Belaustegigoitiarentzat, oso bearrezkoa dau euskerak, eta euskalkiak ito barik, euskaldunak batasun ori lortzera jo bear dabe. Zelan? Erdiko euskalki bat, Gipuzkera egokientzat artuta. Euskaldunak, zein bere euskalkitik asita, beste euskera edo euskalki baten eskolatu bearra dauke, Belaustegigoitia'ren eretxian. Batez be, ortografiatzako ezbardintasunak alperrekotzat kendu bearra ei dago. Zer irabazten dogu batek *andia*, beste batek andiya, edo andija edo ta andixa idatzita? Orregatik edo, Belaustegigoitiak ez dau idatzi ezer euren ortografia estua ezartzen eben aldizkarietan.

Batasun-auzi argitu nai izan eban urte berean, gitxi gora bera, Gramatika errezeko bigarren liburutxoa argitaratu eban: *^Quiere U. hablar en euzkera? El vascuence al*

alcance de todos. Guía de conversaciones usuales (para comer, dormir, excursiones, compras, etc.) y *método gramatical sencillísimo sin reglas*. Baiña len aitaturtako *Ikasbide-errezaren* eta beste onen barri gero emongo dogu zeatzago.

Euskaltzaindia sortu zanean, Euskera Batuaren arazoa barriro dago mai ganean, eta Belaustegigoitia ez da gelditu bere eritxia eta argibideak emon barik. Bere barruko erroten ondo eiotako gaia eban ori. *Euskera* aldizkariak gai orretaz gure Laudiotar onen lantxo bi argitaratu zituen: *Arau nagusiak: Zeintzuk izan bear duten gaurkoz Euskaltzaindiaren eginkizun nagusiak* (Euskera, 1920), eta Euskerazko batasunatzaz (Euskera 1922), gitxi gora bera lenagoko folletoan lez.

Euskerazko eskolaz

Euskera ikasteko atera zituen liburuak, naiz eskolan erabilteko, naiz norberak bakarrean erabilteko egin zituen. Baiña eskolako giroak, eskoletara liburu barri eta euskerazkoak argitaratu berrak ondo kezkatuta, oso arduratuta euken Belaustegigoitia. Bizkaiko Aldundiak auzo-ikastolak sortu eta eskoletan euskerazko liburuak jarteko egiten asi zanean, Luis Eleizalde'ren inguruan, Belaustegigoitiaren eskua be ba-ebillen aurki. Orixe ikusten dogu, 1921, Euskaltzaindiaren babespean Durangon irailaren 4-tik 8-ra izan ziran euskal-egunetan. Ainbat gai jorratu zan euskal-egun areitan, eta bat: Euskal-eskola egokiena. Bizkaiko eskolen arduradun Aldundiak jarrita eukana zan itz egitekoa: Luis Eleizalde, euskaltzaina gaiñera. Baiña onek, geixo gogorak oiari lotuta eukalata, ez eukan Durangon agertzerik. Eta nori leporatu deutoe zeregiña? Eskola-gaietan ain kezkatu ebillena eta aitua zana: Belaustegigoitia'tar Perderika.

Durangon egun areitan egin zan itzaldirik sutuena onena izan zala esanaz ez dogu guzurririk esango. Eta ez eban berba politik esateko itz egin. Ez zan onetarako garaia, lenengo itzetan diñoanez. «Nai batzuk nai besteak asmau ta egin dabena geuretzakotu eta egikerara eroan bearra dago». Gogor salatu dau gure erri zarrari eskoletan jazoten jakonaren lotsaria, gure izkuntzaren arerioen eskuetan egotea. Arro dagoz Donostia eta Bilbo eskol-etxe eder ikusgarriak egin dabezalako: baina, gaur arte, euskeraren itogarri eta ilgarriak dira. Eta onetan «ez dira atzean gelditzen (nork esango leuke?) munduko arroputzkeri ta modai iges egin eutsen konbentuetako emakume bedeinkatu asko». Nor da errudun? Euskaldunak, olango eskoletara euren seme-alabak bialtzen dabezalako: olango eskolai laguntzarik ez emon, eskola barriak sortu; euskera irakasi eta ikasi berrak euskeraz ikasteko liburuak atera, eta beste egitekorik bada aurrean.

Guztietariko ikastolen bearren gagoz: lenengo maillakoak, bigarren maillakoak, lanbide-ikastolak, irakasle ikastolak eta abar. Baiña Belaustegigoitiak ez dau amesetan ibilli gura. Ume ikastolak daukaz bear-bearrezkoentzat. *Gure arteko eskola askoren on andiena* gatzik ez egitea ei da. Baiña gure asmoetan ezin geintekoz orren apal gelditu. Geitxoago bear dogu: umeentzat «euskerari ta batera siniste ta ekandu onai kalterik egingo ez deutsen eskolak» eta gero dotrinaz gainera, irakurten, idazten,

zenbatzen eta gaiñerako jakingarriak euskeraz emoteko eskolak. Euskalerrietan euskera ez dakienai be euskera irakasteko eskolak. «Senideakin alkar ulertu ta maitatzeko... *sasi-kume* eta *umezurtz* antzekoak ez izateko euskeraz jakin bear dabe ume orreek: Jaungoikoaren bigarren aginduaren alde ez ezer ez dau egiten euskeraz erakusten ez dautzen ikastoleak».

Asmo orretan eta lan onetan, gero, gurasoak, Diputaziñoa eta Udalak sartu gura ditu izlariak, eta azkenez: Ikastoletako euskal-libururen arazoa. Ume-eskola bateko apalak betetako, ez dira liburu asko bear. Eta orrexek be ez daukaguz ondiño. Bizkaiko Diputaziñoak ez dau diru gitxi eraldi: baiña ez dira ondiño bi edo iru (liburu) baiño argitaratu. «Uts andi ori Euskaltzaindiak beteko al dau», diñotse entzule dituen euskaltzainai.

Eta, azkenez emen be agertuko dau Belaustegigoitiak bere batasunagazko kezkatxoa: Liburu orreitan lekuan lekuko euskalkiak erabilliz arren, kontuz, bear ez diran ezbardintasunakaz: ch, tx, ts, tch, eta abar; gorria, gorrija, gorriya, ata, aita: gaur Urtarrilla, biyar Ilbeltza eta olangoakoaz. Ikastola bateko liburuak iztegi eta izkelkiz antz-antzekoak izan bear dabe... Bardintasuna osoa ezpada, bardintasun andi-andia deadarrez eskatzen deusue euskerazko ikastolak. Eta iztegia be ez garbiegia: ume-liburuak ez dabe bear izen jakintsu asko... Itz batzuk, batez be erri indartsu ta aurrerako geyenak ontzat artu dabezanak geuk be artu bear geunkez. Ilten gagozanok eurek baño geyago izateko arrokeriaz beti!... Euskera garbiegi bat euskaldunak eragozpen aundizat artuko leukee eta gaur baño geyago ezetsi eta baztertu. Ona Belaustegigoitiak, Durangon, bera bizi zan urian, ango 1921-ko Euskal-egunetan azaldu eta zeaztu zituen eretxi eta asmo batzuk. Euskeraren goraberako gaiok auznartu eta auznartu eragoyon Laudiotar argi onek, eta alan, 1936-n, gure arteko gerrate zital galgarriaren aurretxoan beste liburu mardulago eta mamitsuagoa emon euskun: *Hacia una lucha verdadera pro-euskera*. Euskera etxean, lagun arteetan, literaturan, gazteen irakaskintzan, politikan zelan sartu ta indartu erakusteko liburuak. *Yakintza* aldizkariak arrera ona egin eutsan. Euskal-idazleentzat zuzenbide egokiak emon ditu or. Euskera ulerterreza egitera jo bear ei dau beti. Euskera illun lorriñean idatziaz ez dogu euskaldunik euskalzaletuko. Euskera ilteko arriskutik aterako badogu, or daukagu zentzun onaren mamia, olantxe iñoan kritikalari batek liburu onen barri emotean.

Belaustegigoitia, euskal-idazle eta irakasle

Belaustegigoitia ez da izan euskeraz idazle ugaria; baiña bere jatorrizko izkunza landu barik ez zan egon. Len aitatu dira euskeraz egin zituen lantxo batzuk. Geiago be egin zituen; eta beti umeentzako maillan: ipuin labur eta olangoak, *Euskal-Esnalea* aldizkarian 1918.tik 1919.ra umeentzat ipuin eta ikaskizun mordoak argitaratu eban. Eta *Euzkadi* egunkarian be bai ipuin bat edo beste: *Edurnetxo* esaterako, Berriotxoa anaiak argitu euskunez. Liburutan aterata, *Andoni Deunaren bizitza*, edo San Antonio Gaztea, dauka 1919n *Jaungoiko-Zalen* ateratakoa. Urkiola'n da Antonio bien eleiza, S. Anton zarrarena eta Paduako Antonio gaztearena. Antonio gazte onen eguna

Durango-n ospe anditan egiten zan; eta ortik etorri jakon, nonbait, Antonio onen bidez ateratea Belaustegigoitiari.

Liburuotan Laudiotarra berak irakasten eban euskeraren jarraitzaile egin jakun; bizkaieraz eta euskera erraza egiten alegintzen da. Eta euskera bardiña, ulerterraza erabiliko dau bere gramatikazko edo euskera irakasteko liburutxoetan. Onelako liburu mordoia atera eban bere bizi guztian zear. Eta banan banan aitatzea merezi dabe.

Euskera biztu, zuzpertz eta indartzeko gogoia erakutsi eban Belaustegigoitiak bere bizi guztian. Eta ori lortzeko kezak eroan eban euskera ikasteko biderik errazenak billatu eta asmatzera. Umeen eskuetan eta euskaldun barrien eskuetan ez eban liburu astun eta lodirik ipiñi nai. Liburu txikiak eta arau larregirik bakoak, ikaslea ia igarri barik euskerearen giltzen eta maratillen jabe egitekoak bear ei dira. Olan, Bilbon euskerearen alde jaurti eban oiuaeren ondoren andik iru urtegarrenean orjatorku bere lenengo liburutxoagaz. *Euskerazko Ikasbide erraza*, bigarren titulutzat erderaz onako au ebana: *Método fácil para aprender el Euzkera*. Eskolako ikastorduetara joan ezina edo joan guraeza daukenentzat asmau dau. Egillearen ustez, ikasbide au gazte eta ume askok gitxi gora bera illabetean ikasi daikena da, eta ikasbide au ikasi dagianak zazpi zortzi urteko ume euskaldun batek aña euskera jakingo dau; edo beste ainbeste gramatika-legeen jabe egingo da, edo jabeago.

Izkuntza bat ez ei dago gramatika edo filologia utzez jabetzerik. Ibillian ikasten da ibiltzen: itz egiñez ikasten da, itz egiten Euskera erabilliaz ikasi bear da euskeraz egiten. Belaustegigoitiak orixe eskeintzen deutso euskera ikasi gura dauanari; eta orrialde batean euskeraz jarduteko gaiak eskintzen ditu, eta urrengo orrialdean, aurrez aur, euskerazko gaiak erderaz jarrita. Euskerazko itz bakotxa zenbaki bataz markauta doala, euskerazko itza erderazko testoa zeñ itzi dagokion ikusi eta jakiteko. Orretan Belaustegigoitiak badirudi 1956-ko euskerazko esaera zarrak argitaratzerakoan erabilli zan metodoari jarraitu eutsala, Bilboko Astuy imprentan Belaustegigoitiaren gazte-zaroan barriro argitaratuak izan ziran-eta.

Gaiak egunero etxean, kalean edo ibillaldietan jazoten diranetarikoak dira. Euskera lan ta errazean egiñak. Eurak bein eta barriro bakotxak bere bakarrean irakurriz, edozein egingo da euskerazko itz eta esaera mordoaren jabe, eta edozeiñek artu leike euskal-joskeraren gurrilla. Eta guztiaren lagungarri azkenean, gramatikazko argibide batzuk dakaz: deklinabideaz, izen-ordeez, aditzaz, eta abarrez. Eta dana, berrogei orrialderen barruan. Liburutxo au 1912.n argitaratua da Grijelmoren alargunarenean. Bigarren liburua andik iru urtegarrenean ateratakoa dau: «*Quiere Ud. hablar en Euskera?*» *El vascuence al alcance de todos. Guía de conversaciones usuales (frases para comer, dormir, excursiones, compras, etc.) y método gramatical sencillísimo sin reglas*. Imprenta berean aterata. Ez dakar urterik: baiña 1916-koa da itxuraz. Urte orren azkenaldera emon eban *Euskal Esnalea* aldizkariak liburutxo onen barri.

Lengoaren azatz beretik dabil. Ikaslearen burua ez dau egilleak gramatikazko arau eta legez nekatu gura. Albait ariñen euskeraz parra parra diarduela ipiñi nai leuke. Zelan asten da euskaldunen etxean sartzen dan morroia edo edozein erdaldun euskeraz egiten? Gramatika legerik ez jake emongo: baiña etxeokoi entzunez, erantzunez edo itanduz, apurka apurka laster egingo da izkuntza barrira. Orixe bera jazoko

jako emengo ikasbidea darabillan ikasleari. Lenengo, ori bai, irakurten ikasteko arau batzuk emongo jakez; gero dana alkar izketea, tartean tartean itz mordo bat emoten jakela. Eta alkar-izketa orretan ikaslea kalean, lagunartean, ibillaldietan egunerokoak diran egoeretan murgilduta dabil, euskeraz egiten oituten.

Siniste osoan dago Belaustegigoitia orrelako ikasbidea dala euskaldun barriak egiteko biderik atsegingarriena ikaslearentzat, eta era batera egokiena be bai. Eskolatik naiz etxetik urteterakoan, aurretiaz ikasia lagunartean erabili aal izateak poza ta atsegiña emon bear deutso ikasleari. Gramatika on eta luzeak egin ei dira euskeraren barruak aztertu eta ikasteko; baiña askotan astunegiak ei dira ikasten asi barrientzat. Gramatika-legez buruak bete daitezke; baiña itz egiteko gauza izan barik. Belaustegigoitiak ez deutso euskaldun barriari olango zoritxarrik opa, orregaitik dabil ikasbide errezagoak ateraten.

Irugarren ikasbidea kantuzkoa da: *Cantos vascos con traducción literal y notas gramaticales al alcance de todos. Para aprender el euzkera cantando.* 1932. Zornotza (Bizkaia).

Nork ez daki gure artean eta euskaltzale askoren artean musikarako dagoan zaletasuna? Askoren agotan euskal-kantak entzuten dira, baiña soinuaren azpiko bertsoak zer esan nai daben ulertu barik. Euskal-abesti-sortak abegi ona izaten eben euskerarik ez ekien artean be. Buruz ikasi eta gogoz abestuko ebezan; soiñuari eder erizten eutsoen; baiña barruko esanaren edo, orain esan oi danez, mezuaren barririk ez jaken gogoan sartzen. Olango kantariari zergaitik ez lagundu mezu ori ulertzen, eta, olantxe, bide batez, euskera ikasten?

Eta orra Belaustegigoitiak egin gura dauana. Ez dau asmau euskera kantuz ikasteko biderik edo metodorik, J. Oinatibiak geroago asmauko eban lez. Belaustegigoitia ez doa olango irakasleen bidetik. Kantuak or dagoz. Ezagunak dira. Euskaldun ez diran askok abesten dabez. Zergaitik ez eurak artu euskera ikasteko oinarritzat? Eta orixe egingo dau: kantuen itzak argitaratu, alboan erdal itzulpena ezarri, eta gramatikazko argibide batzukaz ornidu. Orra, 1932-n argitaratu dauan lenengo kanta-sortatxoa. Batzuk aberkoiak dira; beste batzuk, euskaldunak bere bizitzaren ispillu eta oiartzuntzat aspalditik ona asmau eta belaunez belaun gure egunetaraño etorriak, zarrak. Lenengo sorta onek beste geiagoren aurrelari izan nai dauala emoten dau: baiña asmo utsean gelditu zala dirudi.

Laugarren ikasbidea: Euskal-loteria (Lotería Vasca)

Euskera ikasten diarduan erdaldunari nekea arintzeko, Euskal-loteria ikaskera be asmauko dau Laudioko seme argiak. Norberak bakarrean naiz lagunartean jokatzeke loteria da, *Quina* deritxon loteriaren antzerakoa. Baiña *Quina* loterian zenbakidun (1. 2. 3. eta abar zenbakidun) kartoiak erabiltzen diran lez, Laudioarrak asmauriko loterian euskerazko berbak doaz (*gizona, emakumea, txakurra, etxea*, eta olan). Eta itzak euskera utsean, ez erderara itzulita. Olan, euskera irudi bidez irakatsi nai da, erderazko itzen bitartekotasunik barik. Gauzen iruditik euskerazko itzetara zuzen eroan nai da ikaslea.

Amabost kartoidun sortatan zabaldu eban loteria au. Kartoi bakotxak amabi itz edo berba erioizan. Irudi batzuk bikotxak eta irukotxak ziran. Esaterako, ATXUR itzaren azpian irudi bi: atxurraren imdia, eta baserritar bat lurra atxurtuten. JAUSI itzaren azpian iru irudi: gizon bat zaldi gaiñean, zalditik jausten, eta zaldia gizonari ostikadea jaurtiten. Orrela joko onetan sartzen danak, irudi bakotxaren azpian or ditu euskerazko itza (itzik beiñenak sartu ditu Belaustegigoitiak), eta itz orretan egiteko esaera bat edo beste, ikasleari alik eta itzik geien ikasten laguntzeko. Eta guzti ori, kartoiekin jolasean, olgetan dabillala, eta beste maisu barik. Maisuagaz nai besteren batzuk lagun artuta egin leiteken jokoa da, nai eskolan, nai norbere etxean, nai lagunartean.

Erdaldunak euskalduntzeko asmaua dan arren, euskaldunentzat ez da balio bakoia, euren begiak euskal-ortografiara egin daitezkan era euskera irakurteko erraztasuna lortu dagien.

Bizkaiko Aldundiak (edo orduko Aldundi-ordeak) ainbat olango loteria edo kartoi-sorta erosi ei zituen eskoletarako.

Euskal-loteria au Bizkaiko euskera ikasteko agertu zan lenengotan; baiña gero, lenengo sortak amaitu orduan, Bizkaiko eta Gipuzkoako euskalkietan argitaratu ziran. Belaustegigoitiaren asmoak abegi ona izan eben euskal-irakasleen artean. Olantxe etenbako ekiñean jarraitu eban Laudioko seme argi onen euskeraren alderako lanak.

Andik laster, 1936-1937tik aurrera urte baltzak izango dira Belaustegigoitia'tar Perderika onentzat. Frantziara iges eginda, atzerrian egon bearko dau urte batzuetan. Baiña atzerrian be lengo lanetan diardu. An egingo ditu, lengo saillari jarraituz, azkenko lanak: *Euskeraz ikasi nai det* (jakinbide laburra) eta *Nire laguntzea* Euskera ezagutzeko orriak. Ezizenaz «Euskeralde» izenaz argitaratua au, eta bestea, makinaz jota bakarrik zabaldua.

Ikusten denez, Belaustegigoitia bere azkenko urteetararte bizi izan zan euskereari ume eta gazteetan indarra emoteko kezka, ardura eta lan bizitan.

Gure euskal-ezitzailen artean, batez be ume eta gasteakaz lan egin dabenen artean bere zentzun oneko nekatu bako lanagatik eta orretan erakutsi izan zituen asmoa baniakaitik, aparteko izena eta lekua zor jakola esanaz, ez dogu egia ez danik esango.

LAUAXETA-REN AMES ETA ASMO BATZUK*

Olerki bati. Eskeintz-itz oneikaz zuzendu eutson Lauaxeta zanari Jautarkol olerkariak gorespenezko gutun bat bertso neurritsu, txukun, bigun, argietan egiña, *Arratsberan* liburua irakurri ta gero. *Idazki-antzo* izeneko idaz-lantxoagaz emon eutson Lauaxeta'k erantzuna. Lauaxeta'ren asmo ta bide batzuk jakiteko, idazki orrek argitasunik naiko emon leike. Bardin, bere bigarren bertso-liburu orrek zelango abegia izan eban ikusteko bere.

Agirian dago goratzalle andiak izan zituala olerkari gazteak une atan. Or doguz ainbat izen. Eta ez edozelangoak. Eta ez euskal-idazleen sailletakoak bakanik. Orra bat: Mourlane Mitxelena. Etzan au beingoan asetzekoa. Arrese Beitiak, esaterako, irri eragiten eutson. Lauaxetak, ostera, bete betean asetu ebala dirudi. Beste iñondik aginkadarik edo ixillik bazan bere, olango alabantzak gozaten eutsen gure olerkari oni barrua; olango gorespenak nasaitzen eutsen biotza, eta geroagoko aginkada batzuk asmau balitu bere, bardin gozatu ta nasaituko ebela uste dogu.

Nik eztakit aginkadak ala zer diran, esaterako, Aita Villasantek esanda itxi dituan destaiñezko edo gitxi-eritxizko itz batzuk. Mugaz andiko olerkari batzuk irakurri ta arein itzulpenak, arein mamiari euskal-azala ipiñitako olerkitxoak dirala Lauaxeta'-renak? Ori da gauzak lorrin jarri ta esan bearra! Egia da olerkari au prantses olerkarien irakurle zana, ta itzultzalle bere bai. Or dagoz, iñok batu nai balitu, aldizkari ta egunerokoetan sakabanaturik, ainbat olango itzulpen. Baña ez ete dau besterik egin? Ori geyegi esatea litzake.

Eta zer da beste zer ori: Ai, Manterola'ren *Cancionero Basco* irakurri baleu ta an gure olerkari zarren bertsoak ezagutu, an aurkituko zituala ainbeste maixu ta eredu

* Argitaratu bako lantxo. *Basabil* ezizenaz izenpetuta dago; seguruen egunkari edo aldizkariaren baterako egina... 1970. urte inguruan idatzia.

bikain, eta ez ebara lenagokoen literatura gitxi eritxita baztertuko? Lauaxeta'rentzat olango ziririk botatea, norbere buruari arrika astea dala uste dot. Nok esan bear dau etzituala berak Manterola'ren liburuko bertsoak irakurri? Etzan bera gure literatura-sailletan orren ez-jakiña. Manterola'rena ez eze, beste liburu zarragorik be irakurrita eukan. Eta ba'ekian euren guna ta euskera bere aintzat artzen. Naiko argi agiri da au bere idaz-lanetan, urte batzuetan zear egunero idatzi zituan ainbat lanetan, bai euskeraz ta bai erderaz. Sarritako irakurlea ei-zan Bizkai'ko Aldundiaren liburutegian.

Beste orrenbeste esan geinke erri-bertsoai ta gure bertsolarien agotik arako bertsoai eutsen lotsa ta eder-eritxiagaitik. Bere egunetan, *Euzkadi'ko* idazkaritzan buru ibilli zan egunetan atera zituan eguneroko orrek erri-bertsorik geyen, zar eta barri. Ortik eta berak bere olerkietarako eredutzat artzera, aldea dago. Jakiña. Nik uste dot, Lauaxeta'ren aurka olako ziririk entzun baleu, Murlane Mitxelenak irribarre egingo ebara. Aldi bakotzak bere legeak ditu. Ori batetik. Eta bestetik, beste mailla bateko olerkietarako jayoa etorren. Eta bere idazki onek orixe erakusten dauku.

Baña nik, izkuntza larrekoa,
nai aunat ere noranaikoa...

Lizardiren miñ onek jota ebillen Bizkaiko olerkari au bere. Ortik datoz bere asmoak, bere amesak, euskeraren sailletan bide barriak urratzeko gogo bizia. Eta amesok egi biurtzeko kemenak ez eutson utsik egiten. Eta noraño elduko zanik ezin orain igarri. Ai, eriotze ain zitalak kendu ezpaleu, eta ain gazterik kendu bere, bere gaztetasunak loraldi ederrik eskintzen eutson gure literaturaren baratzari! Baña ori berak esango dauku ondoen. Entzun dayogun berari.

ORIXE-REN PENTSAMENDUAREN SINTEZIA*

Ene leen itzak entzuleei barka eskatzekoak bearco dute. Barka eske nauzute aurrera agertzeko ausardia izan dudalako. Bein egin izan zitzaidan eskeari ezetza emateko ausardirik izan ez nuen ezkeror, gaur zuen aurrean aurkitu bearrean aurkitu naiz. Ta emen nauzue bear bada itzaldiotako gairik mugatu eta zeaztu gabeenaz mintzatzeko: «Orixeren pentsamenduaren sintesiaz».

Nondik eldu programan aurkitu dudan gai oni? Orixek sail eta gai askotan erein eta erakutsi zuen bere pentsamendua. Orixek beti zuen zerbait esateko eta bere iritzia emateko edozein gaietaz. Eztabaidari eta borrokari izena irabazi zuen bere bizian. Ilberrian borrokari alderdi au aitortu zioten batek baiño geiagok, alkar arturik bezala, aren ilberria eman zutenean. Ala Mitxelena eta Labaien jaunek. Borrokalari euskal-gramatikazko gaietaz eta beste gai askotaz. Eztabaidak sortuko ditu eta bere ikuspegiak azalduko ditu mistika gaietaz; eztabaidak, literatura zuzendu bear duten estetika eta etika-legeen inguruan; eztabaidak, filosofia-gaietan sartuta, euskerak ba ote duen filosofoen iztegia bere sustraietatik sortzeko gaitasunik, eta olako gaietaz. Olako eztabaidetan jakiña, bere pentsamendua agertzeko egokiera izan du, eta bein baiño geiagotan bere irudimenak eta berak ikusi eta biziak adibide argigarriak eskiñi dizkio bere iritziak jazteko.

Gai au neronek asmatu eta aukeratua ez den ezkeror, ni nere alegintxoia egiten saiatuko natzaizue, eta berriz diot, barkatu, baldin orrela ura nere errotara ekarten badut eta gaia nere almen eta jakite urrira mugatzen.

Nere jardun onek iru atal izango ditu: lenengoak Orixeren infernura eramango gaitu; bigarrenak Orixeren garbitegira; eta irugarrenak Orixeren etika-estetika eta filosofi-mundura.

* Karmel 1992-1, 3-26. Titulu nagusia eta gañerakoak geuk jarriak dira (1987).

I. Orixeren eta Euskalerrriaren infernua

Ez bedi iñor ikaratu sailketa onekin. Orixeren infernua berak eta Euskalerrriak orain berrogeitamar urte, ikusi zuten infernua da. Ain zuzen, garai artako gertakari zorigaiztokoan mende-erdia dugu aurten. Askok ari dira gaur egun negargarri aiek oroitzen eta orduko gertakariez gogoeta egiten. Euskerarentzat orduan izan zen za-palketa, askok eta askok erru gabe artu zuten errukigabeko eriotza, askoren atzerrietara babes billa irten bearra, eta ondorengo zori gogorra aldizkari eta liburuetara ibai-ka datorkigu. Oni edo ari gertatutakorik ere bai. Baiña Orixek orduan jasan zituen bidegabekerien berririk edo orduko gertakariez eman zuen iritziarenik ia ez zaigu aipamenik egiten. Eta ain zuzen, or dugu gure idazleak agertu zuen pentsamentuaren alderdi bat, naiko gogoan izatekoa. Nik, Orixeren pentsamendua aztertzerakoan, ortik asi nai dut. Ez dezagun uste gizon au mistikaren mundu utsean edo Olinpoko giroan poesi-munduan bizi izan zenik, bere erriaren auzi ta kezketan iñolaz sartu gabe. Auzi ta kezka auek giar-giarrean jo zuten, bere gorputzean eta bere gogoan. Egun aietako eta geroko egoera itogarria adierazteko, iduri ezin gogorragoa asmatu zuen: infernua. Infernua eldu omen zen Euskalerrira, erria ta euskaldunak betiko ondatzeko asmotan.

Quiton Arrebarekin izan zituen itz-aspertuetan luze ta zabal eman zigun ortaz bere iritzia. Orain berrogeitamar urte sortu zen gerrate ura gaitzetzeko ez dut nik gauza gogorragorik irakurri. Dante-ren *Divina Commediaren* antzeko poema bat idazteko asmoa agertu dio bere arreba zerorari. *Argi-erri* izango du izena. Dante bezela, infernutik asiko da. Baiña Orixeren infernua ez da beste mundukoa. Emen mundu ontan ikus daiteke, eta Orixek emen ikusi du. Arrebak, ikaraturik, galde egiten dio: Infernua, ikusi al duk, bada? Eta Orixek erantzun: Bai, eta bizi-bizia orain berrogeitamar urteko matxinada artan. Infernu ori ipiñi du alik eta bizien arrebaren begietan. Bai, Nafarroatik agerturik, infernua erori zen Euskalerrriaren gaiñera, berarekin ekarri dituen indar galgarri guziekin. Ekaitz andi zakar baten iduripean aurkeztu digu infernu orren etorrera. Nafarroa aldetik zetozten sei odeitzar ikaragarrien iduritan bildurik. Odeitzar bakoitzaren izena: Gezur zuri, gezur beltz, gorroto, izendatu eziña, biraoa, eta odei guztien atzetik zetorren Satan berbera, deabru guziekin eta griñaburu guziekin.

Lenengo biak, *Gezur zuri* eta *Gezur beltz*, bateratsu agertu omen ziren. Matxinadaren lenengo amabost egunetan gezur zurizko odeiak, egun aietako agunkarietan, oi u ta oi u egiten omen zuten, batzuen eta besteen artean muga zeatzak jarri naiez: «Alde batetik gu, españar eta katoliko jatorrak; eta beste aldetik, Marxkume ta euskaditarrak. Kanpora bota ditzagun. Garbi dezagun olako pizti ta gizatzarrez gure erria». Berek jarri omen zituzten batzuen eta besteen arteko mugak argi ta garbi. Ez giñen gu gorriekin joan; heurek jarri giñuzten beren izkilluen aurrean garbitu bearreko etsaien artean. Madrid eskuratu eta zortzi eguneko lana izango zutela uste zuten guztiok garbitzea. Zortzi egun eta beste ainbeste igaro ondoren, lana bukatzeko itxurarik agertzen ez eta, orduan sartu zitzairen beldurra. Orduan asmatu zuten bigarren odeitzarra, *Gezur beltza*, latinez *Calumnia* esaten zaiona: Zergaitik, zertarako joan zerate gorriekin? Eta gezur beltz orri ekingo diote andik aurrera. Burua zerate gorriekin? Eta gezur beltz orri ekingo diote andik aurrera. Burua galdu zuten eta besteen

buruak naasi nai. Burua galdu zuten eleizgizonak ere, Pio amikagarrenak gogoratutako arauak aazturik: alegia, politika-bidez, auteskundeetako botoz saia zitezela politikagiroa aldatzen. Matxinada sortu zenean, dana aitzu zuten, eta or dijoaz matxin baiño matxino andiagorekin (Orixek Franco-ren izenik ez du aipatu nai izan). Bien bitartean erri xeea eta ikasiago zirenak, marmarrean galdezka: Zer da au? Leen ala, eta orain onela? Zergatik aldakuntza au? Orixeri orrek ematen dio miñik andiena: orrela fededunen gogoetan sortzen den naaste eta illundurak. Apezpiku bat edo besten jokatubidea aipatzen du Orixek. Faulhaber kardenalak Alemanian bezaña Matxionen buruxkilaren aurrean, burua makurtu ez zutenena. Sevillan Segura kardenala, eta Erroman, Barzelonatik iges egitea lortu zuen Vidal y Barraquer-ena. Kardenal katalan onen itzok aipatu ditu: «Españako gorriek Elizak erre dituztela? Zuriok Españako Eliza bera galdu bear dute». Orra gezur zuriaren eta gezur beltzaren lan negargarria Orixerentzat.

Irugarren odeitzarrak, gorrotoarenak Gizonari eta Elizari barrenagotik eraso dio. Infernu gorriena jarri zen errietan eta arimetan. «Maitasunik ez den lekua» baldin bada infernua, orra gorrotoak infernua biotzen erdi-erdira ekarri eta bazter guzietan lur-azalean ipiñi, agintari eta nagusi. Aurreko auteskundeetan erein omen zen gorroto orren azia. Orduan, Gasteizko Elizbarrutiko katolikoentzat goitik bialitako oar eta esanari men ez egitearren, katoliko batzuk gorriei eman omen zieten botoa. «Jainkoarentzat balio ezpadu, balio beza deabruarentzat» esan zuenik izan omen zen, bere botoa ematean.

Gorrotoaren ondorioak azkeneraño joan ziren: gizailketaraifio. Eta gorrotoa euskaldun garbientzat andiagoa erakutsi zuten gorri ziralakoentzat baiño. Orrela makiña bat gazte il omen zituzten, aingeruak bezalakoak. Ta nolako gorrotoz gero? Iltzeko zeukaten batek apaiza eskatu eta txapelgorri ao-zikin batek erantzun: «Apaiza nai duk ik? Eta erdal-biraorik andienetakoa jaurtiz, «ea infernura bereala», eta besterik gabe tiroz bertan illik utzi. Eta «ori eztek siñestekoa» guztiz iguindurik esan dion arrebari, Orixek erantzun: Ez, ez dun sinestagarri, baiña egia».

Gorrotoa eta biraoa bat egiñik omen zebiltzan Gurutzegudari zirelako aien biotz eta agoetan. Nori ematen dio buruak alako ago-zikiñai gurutze-gudari esatea? Bel-larriak itxi bear izaten omen zituzten Tolosako emakumeak, alako gudarien alako biraoak entzunik. Eta Elgoibarko moja geixozain batek esana: «Gorriak emen zeudeiño, ez dugu birao bat entzun». Eta Jainkoaren legeko beste aginduetan ez zebiltzan garbiago. Gudalekueatik etxera aldi bat izan zuen bati Orixe beraren lengusuari entzun omen zion: «Gerra ontan bostgarren agindua, seigarrena ta zazpigarrena libre atera ditugu. Eta beste aginduak fiñegiak dira soldado batentzat».

Zer konta asko zeukan Orixek Quitoko arrebari esateko. Praille ta moja-etxeetaraiño sartu omen zen infernua eta alkarrekin onez bizi eziña. Eta ez dio ixildu eleizgizon askoren aurka zeramaten gorrotoa. Zergaitik? Euskaldunak ziralako, eta euskera maite zutelako. Eleizgizon eta prailleak iltzeraiño joan zen gurutze-gudari aien amorru itsua. Eta auzirik garbitu gabe, eta otz-otzean. Adiskide izan zuen baten aipamen berezia egin du: Tolosako Aita Otano Klaretarrarena. Bere etxekoen erruz illerazi omen zuten.

Frantziara iges egitea lortu zuenean, gure errian gertatutako eriotze eta izugarrikerien berri ematean, bere onetik ateraten zuten Orixek entzuleen batzuen ateraldiak: «C'est la guerre». Orixek bizi bizirik erantzuten zien: «Ez al dakizue Naparroan ez dela izan gerrarik minutu batekorik ere? Ez al dakizue gorriek ez dutela Naparroan inñortxo ere il? Zer ari zerate gure aurka, gertatu dana jakin gabe».

Odeitzar bat utzi dugu izendatu gabe, odeitzar izen gabea. Irugarren odeitzar ori zein da? Itxuraz, Mikel aingeruarena ez den ezpata edo ikurrifia, eta Kristorena ez den Gurutzea. Zergaitik ez dio izenik eman? Izugarrikeriarik izugarrienetakotzat eta biraorik andienetakotzat daukalako, nonbait, infernu guzti ori gezurrezko Gurutzearen izenean ekartea. Orregatik bere arrebari onela mintzo zaio: «Gogoan al daukazu Ebanjelioak esana? Jainkoak egin lanak deabruari egozte, Ispiritu Santuaren kontra dala bekatu, eta ez ditekela barkatu mundu ontan, ez bestean? Eta deabruak egin lana Jainkoari egozte zer bekatu ote da? Orobatsu, bekatu itxusiago ezpada, Satanas Gurutzearekin».

Quiton arrebarekin izandako alkar-izketak 1950ko inguruan idatziak ditu Orixek eta idatzi zituenean, naiko gorri eta gori zirauan infernuak Euskalerrian, leenbiziko goritasunean ezpazan ere eta ez zion laster amaitzeko itxurarik ikusten.

Infernu orren aurrean, berak gorputzean jasandako infernuari gauza utsa iritzi dio, balio gutxikotzat dauka. Orixek bere gaitzen berri ematen ez dakiela, edo artako gogorik ez duela dirudi; itz gutxitan garbitu du esateko guztia. Bere etxera etorri omen zitzaizkion lotuta eramatera, ori bai, birao utsean atera omen zuten etxetik. Orixek guzia lekuko, dio berak. Eta Iruñeko San Kristobal gazteluan sartu zuten. Zortzi egun iraun omen ango benetako infernuak, aldamentean zeuzkan Erriberako lagun bati birao utsean zeudenengatik. Euskaldunen artera pasatzea lortu zuen. Oiartzuarrak omen zituen lagun, eta berak dioenez, ura bai zerua, infernua ere, sei illabeteko egonaldia egingo du an.

Orixek 1936n sortu eta urteetan iraungo zuen infernu artaz, Frankopeko egoera artaz izan zuen iritzia eta pentsamendua ezin gogorrago agertzen zaigu labor aipatu ditugun lerroetan. Euskerari eta Euskalerraren eskubideai egiten zitzaion eraso Orixerentzat giza-eskubide guztien aurkakoa eta kristautasunaren guztizko lotsagarri izan zen.

II. Garbitegia

Infernuaz gaiñera, garbitegia ikusiko zuen gure idazleak. Eta ez ain zuzen, lagun gaiztoen artean, ez inñongo espetxean sartu zutelako. Badakigu eta ala aitortu du berak Alemanek itxituen batean, eipeen batean sartu zutela, eta iru bat illabete egin zituela bertan. Atzerrietatik babesbilla Frantziara joandakoen artean egin zuen egonaldi ori. Baiña ez du ango oroitze txarrik. An ez du infernurik ez Purgatoriorik izan. Euskalerritik kanpo gertatu zaio olan egon bearra Geurs deritzan erritxoan, Biernoko lurretan. Sei kilo galdu omen zituen baiña neke andirik gabe joan zitzaizkion ango egunak. Ez digu esan nongotarrak zituen lagun. Baiña bai bat, dantza-zale eta dantza-

maisua. Arekin ematen omen zituen orduak, aren dantzak ikasten eta bereak besteari irakasten, dantza eta soñu beti, eten gabe, barruko lagunen arrigarri egiñik. «Auentzat ez da gure nekerik eta kezkarik, esaten omen zuten lagunek. Barruan daudenik ere ez dakite».

Olako egun atsegingarria ezin eman Orixek Garbitegi edo Burgatorio izenik. Ez, ez zen Gurseko erritxoan Orixeren garbitegia gertatu. Donibanen baizik. Eta ez zetorkion gorputzeko nekeetatik. Bere buruak ezin onar zezazkeen iritzi eta pentsamendu batzuetatik baizik. Ala Garbitegi onek ere Orixeren pentsamenduen munduan sartzen gaitu. Euskaldun fededun den aldetik etorri zaio oraingo nekebidea. Euskaldun fededun batzuen fedea koloka jartzen, kordokatzen apaiz batzuk ikusi dituelako, bere ustez.

Euskaldun fededun? Ez al da au azken-aldiotan zer esanik eta kritikarik artu duen esaera? Baiña, ene iritiz gaizki ulertua izan delako izan da. Esaera onek ez ditu euskaldun izatea eta fededun izatea bat egiten. Ez du esan nai euskaldunak berenez fededun direnik, ez eta fededun izan behar dutenik. Euskalduna fededuna dela esateko, esaerak orrelaxe izan bearko luke: Euskalduna fededun. Euskaldunok jaiotzetik, etortzekotan ere, ICristok ekarritako bigarren jaiotzetik baizik. Fededun izatea euskalduntasunari gaiñetik ezarria da, ukatu egin daitekena, eta bai sendotu, argiagotu eta piztuagotu ere.

Euskalduna berez fededun denik edo izan bear duenik ez zaio inoiz ere inori gogoratu, nere ustez. Norbaitzuk ala uste dutela dirudi. Are geiago, Trentoko Kontzilioaz onako uste eta esaeratzat daukate. Gure literatura guztian ez da aurkitzen siñeste orren aztarrenik. Joan den mendeko gure sermolari andienek lelo orren berririk ez dakite. Gure eliz-kanten asmatzaille ta ontzailleek ere ez. Bi itzok, euskaldun eta fededun elkarrekin bertso egiteko ain egokiak dituzten arren ez dute biekin bat egin inoiz ere. Ez dituzte, besterik gabe, euskaldunak fededuntzat artu. Fededun aurkitu dituztenei irautea opa izaten diete. Adema Zaldubi izan da, bear bada, olako kantak ondu dituztenen aurrelari:

Bai, euskaldunek hemen hitz eman dezugun
bethi izanen gabela fededun,
iduk dezan bethi azkar fedea,
aspaldiko bere ohorea.

Eta beste batek:

Ama, eskualdunek egun
zure oinetan daude;
egon ditezen fededun,
othoi, egizu galde.

Euskaldun izatea euskaldunak berezkoa du; baiña ez fededun izatea. Fededunak ortan egon eta irauten nekatu eta zaildu bear du. Gure literaturatik ezta besterik aterako.

Orixek bein erabilli zuen itz-bikote au Arrese Beitia Otxandioarraren goratarrez ondu zuen poema batean.

Bai olerkari baiña
baita bere euskaldun,
baiña guztiz ganetik
«Euskaldun fededun».

Arrese Beitiari ez dio iñork ukatuko ez euskalduntasuna ez fededuntasuna. Eta ez Orixeri berari ere.

Orixeren fedea gizon ikasiarena eta argituarena zenik ere ez du iñork ukatuko. Orregatik Donibanen jasan zuen Garbitegia. Bere fede argituaren alde egitearren gertatu zitzaion. Fedeko siñiskai batzuk kordokan ipinten zituztela ikusi zuen Donibaneko itzaldi batzuetan eta gai aietan argia egitera bearturik ikusi zuen bere burua, entzuleen onerako.

Itzaldi aiek entzuleen gogoetan nastea sortzeko egokiagoak iruditu zitzaizkion inon argirik emateko baiño. Zer eta nolakoak ziren itzaldi aietako gaiak? Ona gai aietako bat: «Gizonaren jatorria; zer dio jakintzak eta zer dio Bibliak? Parrokiaren areto batean, «Gure Etxea» zeritzanean ematen zituzten. Paper batzuk ere zabaldu omen ziren, iñork argibiderik eskatu nai bazuen edo esatekorik izan izlariak zioenaren aurka, eskubide osoa zuela itz egiteko. Zer zion izlariak? Transformisten iritzi eta esanak bete betean artuz, bizidunen motak aldakorrek direla, Jainkoak egiña zela noski Adan, baiña ez bertatik bertara; beste bizidun batzuek aldearez egiñak zituela eta aietatik, mota batetik bestera ezarian aldatuz sortua izan zitekela Adan. Nondik atera duzu ipui ori? Orra Orixek izlariari egin zion lenengo galdera. Izlarien erantzuna: Beste edozein iritzi baiño bidezkoagotzat eta arrazoizkoagotzat zeukala berak itzaldian emandako iritzia. Eta Orixek, bide ortatik Kristo gurutzean ez iltzea bidezkoago irudituko zaitzu, beraz ez zen gurutzean il; gizon egitea aski zuen Saltzatzaille izateko. Zu ala ditenetik ala dalakora zabilta, eta ori ez da iñongo logikak ontzat ematen duen arrazoibidea. Ipuiek zer dioten esan diguzu, baiña ez egiatzko jakintzak zer dion. Ordu erdi bat eztabaida ortan egin ondoren, urrengo itzaldi egunerako utzi zuten eztabaida artako agiak argitzea.

Urrengo itzaldia andik amabost egunera. Izlariak Liburu Santuek gizonaren jatorriaz zer dioten azaldu bear du. Onako oiñarria jarri du leenbizi: «Liburu Santuek gizonaren jatorriaz esana idurikizuntzat ar daitekela, eta ez ala gertatutakotzat». Eta izlariaren beste esan bat: poligenismoarekin lotua dagoena: alegia, gaurko gizonak buru edo sorburu bat baiño geiago izan dituela. Adan bat baiño geiago izanik zitezkeela. Orixek, bere «nolabaiteko frantsesean» beste entzule batzuk alde zituela, gogor eraso zion izlariari. Lenengo eguneko baiño luzeagoa izan omen zen eztabaida. Irugarren itzaldirako, Orixek idatzirik eramango du bere erantzuna. Esan dezagun gai auek, alde eta aurka, mundu-erri askotan izan zirela egun aietan. Orixeri bere Burgatorioa miñago egin ziona ortan Eliz-gizonak olako gai zaillak ariñegi erabiltea zen. Izlariak ez omen zuten ondorio argirik ateraten, eta ez jakintzak ez liburu santuek iñolako argitasunik eramaten eta bai illuna ta nasbidea.

Eleizak andik geroxeago Erromatik bi urrats eman zituen gauza auek argibidean jartzeko: 1948n *Pontificia Commissio Biblica* zelakoak Parisko Kardenalari bialitako karta baten bidez, lenengo. An argitzen ziren Orixeri ainbat kezka sortzen zizkioten puntu batzuk: Bibliako leen kapituluak nolako iturriak dituzten, an esanak nolako istoriotasuna duten ez gaur ulertzen dugun istoriotasunik, istoriotasuna nolabait ere.

Bi urte geroago Pio XIIgarrenak *Humani Generis* enziklika aterako du, eta bertan, bestea beste, bi Adanen auzia erabakiko: alegia, katolikoentzat ez dagoela gizadiaren jatorriari bi sorburu, bi Adan ematerik. Itxuraz, orduan amaitu zan Orixeren Burgatorioa, Donibanen ango izlariekin izan zuen auzia. Batez ere Pio XH'garrenaren enziklika irakurri zuenean. Ura poza Orixerentzat. Gauza askotan berari entzunik ari zela iruditu zitzaion.

Bera ziur dago fedearen bidetik eta errazoiaren bidetik askoz urbillago ibilli zela eztabaida artan Baionako seminarioko izlari aiek baiño. Ipotesi utsean omen zebiltzen arrazoizkotik egiazkora, ditekeenetik ala delakora, logika legez bestera ondorioak ateraten. Eta euskaldun fededun siñistea kordokan jartzen.

«Nere burgatorioa au izan zen, —dio berak—: erri xumeari kalte izugarria egin ziola sasi-jakintsu arek, buru-biotzak naasaraziz eta asaldariz». San Kristobalگو infernuan 27 kilo galdu omen zituenak, Donibaneko Burgatorioan sei galdu omen zituen, beintzat. Monzon jaunak igarri omen zion, eta onela esan: «Orixex, egun auetan asko metu zera». «Nola ez? —dio berak—, ainbeste astakeri entzunik eta erri xeean egiten zuten kaltea ikusirik?».

Orixex Burgatoriotik kanpo utzi dugun ezkeru, atera gaitezen gu ere giro itogarri ortatik. Eta goazen itzaldi onen irugarren saillean, arnagarriagoetan, Orixeren pentsamenduaren beste alderdi bat erakutsiko digun literaturazko eta filosofiazko mundura.

III. Etika eta filosofi mundua

Esan dut asieran. Orixek gai asko jorratu zituen bere idazlanetan. Askotan jaso zuen bere luma salatari oker usteko joerak salatzeu, edo ontaz edo artaz bere iritzia emateko. Eta ori ainbat aldizkari eta egunkaritan egin zuen euskeraz eta erderaz. Asieran aipatutako gaietara mugatuko dut nere itzaldia.

1. Literaturan etikak eta estetikak duten auzia

Eta lenengo gaia: Literaturan etikak eta estetikak duten auzia. Auzi au Orixeren luman antxiñatik zebillen auzia da. Orain Lizardi zenaren gazetari-lanak, bai erderazko eta bai euskerazkoak argitara berri dauzkagu. Orixek ez du olako zorionik izan oraindio. Euskadi aldizkarian eta besteren batean badu gai oni zegokion idaz-lanik bai euskeraz eta bai erderaz. Eta bere azken urteetan bein eta berriz ekin zion gai berari. Amerikan bizi zela, *Eusko-Gogoa* aldizkarian irakur ditzazkegu, Orixeren

izenpea daramaten lanak: *Eder eta Antze, Egi eta Eder, Antze ta Eder*, aldizkari artan eman zuena. Ez dugu emen lan guzti oien mamia emango; Menéndez Pelayo Españarraren eta Croce Italiarraren iritzi eta usteak aztertzen ari da, bein ontzat emanaz, bein ez-egokitizat baztertuz.

Gizonak, ala esango du beti, egia eta ona denarekin joan bear du. Bide ortatik irten ezkerro, egiazko gizabidearen eta gizatasunaren kaltetan izango da. Gizonak egiten dituen gauza guztietan, bere gizon izatearen lorratza eta erraiñua uzten du eta utzi bearko du... Antze-lanetan adimenaz egia aurkitzera jotzen du, bere irudimenaz egia jantzitzera eta sentimenaz bero, eder eta maitagarri aurkeztera. Eta gizonak on dena baizik ez dezake maitagarri egin eta aurkeztu. Bestela bere burua, bere gizatasuna ukatzea, gizona gizatxar egitea litzake.

Antzea antzearentzat: *el arte por el arte* esaten dute eskola batzuek. Ori dute antzearen jo-muga eta arautzat. Ezin du Orixek arau ori on artu. Ala egin zuen 1931n *Euzkadi* egunkarian. Eta berdin egingo du Guatemalako urteetan *Euzko-Gogoan* idatziko artikuluetan. Arau ori, esaera ori ontzat eman zuen Menendez Pelayok bere *Ideas Estéticas* lanaren tomo batean. Arau okertzat dauka Orixek, adiera zuzena izan badezake ere. Arau ori gaizki ulertu daiteke; txarrerako ere ulertu izan da, gordinezaleen lizunkeriak estaltzeko. Menéndez Pelayok ez omen zuen ontara ulertu; baiña esaera zeatzagoa billa zezakean auzia garbitzeko. Antzearen zertarakoa, Menéndez Pelayoren iritzian, edergintza bera, eder-lana egitea omen da. Baiña ori esatea ezta antzearen zertakoa zer dan esatea, antzea zer dan soillik esatea baizik. Ori antzeari bi jomuga ematea da: bertatik bertakoa bat, eta bestea, aruntzagokoa, edo arekin baterakoa. Antze-lana gizonak beretzat asmatu eta beretzat egiten du, noski; baiña ez dezake or azkenmuga den bezala. «Antzea ezin da izan antzearentzat». Gizonak beste zerbaitegatik eta beste zerbaitetako egiten du egiten duen guztia. Esaterako, lana lanarentzat egiten duela esateak ez du zentzurik. Gizonak bere onerako, alako edo olako onen baterako egiten du edozer lan: jateko, erosoago bizitzeko, bere buruaren atsegingarri, ez lan beragatik. Ez lanaren morroi eta mendeko izateko.

Orixe-rentzat, ez da mundu ontan ezer bere burua jomuga edo begira-muga duenik. Guztiak dabilta beste zerbaitek eraginda. Gauza bat bere buruaren jomuga dela esatea sasi-filosofia omen da. Aurpegiz, begiz, guztiek besterengana begira gaude, ez geron-gana. Orrela gaitzesten du Menéndez Pelayoren esana.

Eta orrelatsu gaitzesten du Benedetto Croce-ren iritzia ere, antzea iñoren ez ezeren mendeko eztalakoa. Eta emen ere lengo arrazoiketara jotzen du. Antzea bere jabe dela? Bai, nolabait, baiña ez Crocek eman dituen errazoiak gatik. Gizonaren lana denez, gizalegen mendeko egon bear du eta gizona gizonago, gero ta bikaiñago egiten lagundu, eta ez ontasuna areago ta bikaiñago agertzeko edo izan ezik. Egiak eta egiantzat iñoizkoren batez gaiztakeririk ere ager dezake, baiña ez gaiztakeriara eragiteko.

Orixek gogor tinkaturik dauka gai ontan bere pentsamendua. Eta kezkatu bizi zen gaitzesgarriztat zeukan euskal-literatura kaleratzen ikusita. Eta ez zen sermoe utsetan gelditu. Ukatu egin zizkien bere idaz-lanak lasapideari atea iriki zizkioten euskal-aldizkariei. *Eusko-Gogo*a aldizkaria berari ere bai. Ez zuen azken urteetan

aldizkari artara bere lanik bialiko. Minduta dago bera ango lan batzuk irakurrita. Argi ta garbi eman du bere iritzi gogorra: «Ederzale oriek burua galdu dute edozer ausarkeri ta gordinkerri ontzat emanez. Satsa, gainzuriturik ere, barnean ustel». «Zaitegiri esana daukat ez dudala aurrera *Eusko-Gogoa* irakurriko». Ez omen du beti gizagaixago agertu bear. Literatura onek asko buruarintzen du.

Ordurako bera mendu garbiago eta goragoko batean dabilkigu. Euskera gai sakonagoetara erabiltzeko asmotan diardu. Arako Lizardiren amesa mamitu naiez:

Baiña nik, izkuntza larrekoa,
nai aunat ere noranaikoa:
jakite-egoek igoa.

Orixek eta Lizardik, biak elkarrekin, egindako amesa zuten noski ames ori. Asmo orrekin saiatuko da mistika-gaiak arrotzen. Asmo bera darama S. Agustiñen itzultze lanetan. *Euzko-Gogoa* ta *Jakin* aldizkarien orrietara jo du filosofi-gai batzuk aztertzeko. Filosofo berri batzuen muga-barruetara ere jo du. Aipagarriak dira *Eusko-Gogo-n* argitaratu zituen bi azter-lan: *Izatena eta gertatzena*, bata, Sartre, Heidegger eta Zubiriren filosofiak aztertzeko eta *Egon, Izan, Gertatu*. *Euzko-Gogoa* lankide izatea utzi duenean, *Jakin* aldizkarira bialiko du beste lanen bat: *Izatea aztertzen* (1959). Eta ez dugu aaztu bearko bere azkenengo poematan filosofiazko gaitetara askotan joko duela.

Lan oiekin zer adierazi nai zuen? Euskerak bazuela gai sakonak erabiltzeko askok ukatzen zioten gaitasunik. Ortarako bere saioak egin eta besteentzat bidea erakutsi nai zuen.

2. *Filosofi mundua*

Orixek ontan ongi tinko zeukan bere iritzia: euskerak baduela filosofi-gaiak adierazteko gaitasunik beste izkuntzei denetan eske jo gabe; bazuela beintzat beste izkuntza askok aiña gaitasunik filosofi-itzak bere baitarik sortzeko. Beste izkuntzetara jo baiño lenago, geure izkuntzaren sustraietara jo bear omen dugu leenbizi, geure izkuntza errotik eta zeatz aztertu, ikasi eta jakin, eta zer nai adierazteko dituen aberastasun eta maratill guztien jabe egin eta aietaz baliatu. Ori erakusten saiatuko da, S. Agustiñen *Confessiones* euskerara itzultzerakoan, eta liburu orren ainbat puntutan elburu ori ongi samar lortu zuelako ustea izan zuen. Filosofi-gaiak arrotzeko, arimaren barruko ainbat egiteko eta eragiñen barri emateko ez omen zion euskerak zailtasun andirik aurkeztu. Noizkoari, aldiari dagozkion ainbat alderdi euskeraz egoki eta zeatz eman zitezkelakoan eta berak ala eman zituelakoan zegoen. Eta guztia erdal jatorrizko itzik erabilli gabe euskara jatorrean adierazten saiatu zitzaigun. Bere asmo au noraifio lortu zuen neurtzen ez naiz ni nekatuko. Nola nai ere, ez daukat nik Orixek ortan artu zuen nekea alperrikakoa izan zenik. Bide ori artzeko naiko eskolatua zegoela esango nuke, eta ez zuela bide okerregia artu.

Lenengo ta bein, filosofoen irakatsiak ongi ulertu bear ziren, eta gero euskeraz nola esan zitezkean bere buruan iraultzen nekatu, euskera tresnatzat arturik. Guzti ortan ez zion gutxi lagunduko grekoen izkuntza eta Laziokoa errotik jakiteak. Bazuen antziñako filosofoen ezagutzarik, eta bere mendeko bat baiño geiagoren ezagutza gabe ere ez genuen. Sartre, Heidegger, gure Zubiri eta beste batzuek ez zitzaizkion guztiz arrotz eta atze gertatzen. Eta berea egiñik zeukan urrezko arau: zein nai eskolako filosofia ulertzea zela beiñena, eta gero bakoitzak bere izkuntzan ulergarri ematea. Eta berak orretara jotzen zuela, argigarri ona da bein Lapurdin gertatu zitzaiona. Sartre-ren azkenengo liburu bat eskuratu zioten, Sartreren esistentzialismoa argienik ematen zuen liburua, ain zuzen. Liburua irakurri ondoren, Orixek aren pentsamendua eman zuen, orri-mordo batean euskeraz. Apaiz bati irakurtzeko eskatu dio, eta apaiz orrek zer egin du? Urrengo Gure Patroi andi Iñazioaren itzaldian pulpilotik eman Sartreren esistentzialismoaren berri eta euskeraz. Eta itzaldia entzun zuen apaiz lapurditar batek aitortua: ez zuela iñoiz ere entzun ain argi eta garbi azalduta Sartreren pentsamenduaren muiña. Gauzak ongi ulertu eta ongi azaldu, or dago koska. Ori edozein izkuntzatan egin eziñik ez omen dago. Orixerentzat, gai askotan, euskerak orretarako gaitasun eta erreztasun berezia du.

S. Agustiñen Aitorkizunak euskerara itzuliaz gaiñera, beste idazlan batzuk, al-dizkaritako artikulu batzuk idatzi zituen filosofigai bat edo beste arrotuz. Baiña, emen ere ez naiz sartuko xeetasunetan, filosofi itzak egoki ala ez ain egoki asmatu dituen eta ola. Orixek erakutsi duen filosofiaren muiñari elduko diot.

Filosofiari, batez ere, gure biziaren elburua argitzea eskatzen omen zaio. Elburu ori argitzea edo aurkitzea, ortan omen datza filosofiaren egitekoa. Filosofo batzuek ez diote giza-bizitzari iñongo elbururik ikusten. Filosofo batzuek ez dute aurkitzen bakoitzaren burutik gauzetarako biderik ere. Ez dakite gure aurrean ditugun gauzak berak benetako gauzak ala guk geure buruan iruditua direnik ere. Itzal utsak omen dira or agertzen zaizkigun gauzak oro eta itzal utsak, geure burua inguruko mundubarrutik arago ez gorago joatea. Noizik bein, kirikioak patariak bezala, illunpean dabilta beren barruetako itzal edo idurikizunekin borrokan. Noizik bein, beren oskolbarruetatik aterata, ingurura irtenaldiak egingo dituzte. Batez ere, bizi bearrak eragiñik, onetan edozein gizon sentzundunek egiten duena egiñik. Olako filosofoak ez dira oso gizagin eta lagungin izaten. Besteekiko latz eta garratz samar agiriko zaizkigu munduan, geien batez. Asko dira zurian beltza ikusi naikoak edo ikusi bearrekoak. Eta beltzean zuria ikusteko joera dutenek ere, gauzen alde zuri ori iraute laburrekotzat izango dute, bakoitzaren bizia baizen epe laburrekotzat.

Orixek orra zer oker salatu dioan, esaterako, Bergson filosofoari: bere jaiotzaz asi eta bere eriotzaz amaitzen zela bere filosofia, berak bizi zuen gizona besterik ez zuela aztertzen.

Gizonari bere inguruekin begiratu bear zaiola? galdetzen du Orixek. Bai, baiña oraingo eta norbere inguruekin eta orain dauden bezala? Ni, nere inguru utsekin? Ez, dio Orixek. Guztiok mundu ontan iraitzean gaude, bide goaz; ez dugu emen erabateko egoitzarik. Gizonaren filosofia eta elburu osoa aztertu bear du. Olako filosofoentzat gizona gertakari utsa, bere barruko izanik gabekoa da. Ikuspegi zabalagoa izan zuten

Sokratek eta munduko filosofo andienek, berenezko argiari eta ezagueratik abiatuta. Sartrek eta, beren burua egiten dute jainkotxo, bere burua diren guztien lege.

Filosofo auen ondoan onargarri aurkitzen du gure Zubiriren filosofia. Ez du osoan onartzen, baifia ez dio eraso andirik ere egingo, filosofia irekia duelako Zubirik. Beste fenomenologo batzuek bezala. Irekia, gure bizia beste Norbaitegandik dugula ikusten dutelako, ikuspegi zabal orretatik datorren argia itzaltzen ez dutelako. Filosofo ireki auek ez dira bere oskolean sarturik gelditzen. Badakite izadira begiratzen, eta izadian beste Norbait Andi baten aztarnak ikusten dituzte. Gauzak ez dira gizonarekin, gizon bakoitzarekin sortzen; gizonik gabe ere, or daude eta or iraun dezakete, baiña ez gauzarik ez gizonik, Jaungoikoa gabe.

Ortik dijoa Orixeren pentsamendua: norberagandik inguruko gauzetara, norberagandik besteetara eta besteengana, beste Norbaiten errainua danean aurkitzea, zer guztien eta nor guztien iozgarri dena Jaungoikoa adimenaz nolabait ezagutu eta fedez ezagutuago egitera. Ura maitatu eta Arekin elkaturik guztiok elkarrekin maitasunean bizitzera.

Gauzak ez dira itzal uts, ez irudikizun uts. Badute beren izatea edo zer izana, fedez argiago ezautzen dugun Norbait orrek emana. Eman dute, ez berenez artua, ez itzalpeko erreñuen batetik etorria.

Filosofiak eta teologiak bat egin dute Orixe-ren buruan. Teologiak argiagotu egin dio «filosofiak erdi-laiñotan, erdi lausotan somatua. Eta telogiaz naasteko filosofi ori askotan ixuri du bere bertsoetara. Askotan eman du bertsoetan joanaren, oraiñaren eta geroaren arteko joan-etorriari eta izate utsari, ez joanaren ez gerokoaren kutsurik ez duen izate utsari oda bat ontzeko asmoa ere erakutsi duela bein.

Gure olerkari filosofoak bi argi ditu gidari, fedearena eta adimenarena. Adimenarenak uts eman dezake, oker ikustea gerta daiteke. Askotan motela, bada ez-padakoa da gizonaren argia:

Uste diotenez, aburuz, iduriz...zenbat uste ergel!
Oetaz burua bete bizi dira bost eta bost txepel
Agur guzietan! Ez dut oien mende bizi nai otzepel.

Fedea argia bera bezalakotzat kantatu du Orixe. Argiak ematen dio gauza bakoitzari bere margoa. Argirik gabe ez dago kolorerik. Ala da gogoarentzat seiñistearen argia:

Margodunen ama argia dan eran, Egien Erregin
Fedea. Margoa, bai baiñan argia iñork ikusi ezin.
Begiñan argia ikusi ezin arren, emen dut nerekin.
Siñestargia da, izkutuen dala, Argirik argien,
Gure baitan illun, bere baitan argi, margorik zurien.
Oitatik irten da zazpireun izpitan jakiterik geien.

Orixe askotan aurkituko dugu gogoetan? Zertaz? Jainkoaz, Jainkoa mundua egin aurretik, gizonak, gu Jainkoaren gogoan, zer izango den gure betiko zoriona. Jainkoa

aspertzen ote zen mundua egin aurretik, ezer ez egiñez? Ez, gu ere ez gera Jainkoarekin aspertuko. Olako gogoetak datoz Orixeren bertsoetara sarri. Beti gogoetaka ari da. Norbaitek esana da gure olerkarien artean olerkari filosofoa dugula berau. Baiña egiaren argi-zizta batek gogoa jo dionean, alako gaiñezkaldi bat izan duenean, ez da gora goraka asiko, ez du itz-jarioka ustuko bere barrua. Olako aldietan arri egiñik, txunditurik bezala, ixil asperenka eta mutu gelditzen zaigu, argi artatik datorkon gozoa ixillik ausnartzen. Biotz-ondo gutxikoa dugula esango nuke, egiari eta pentsamenduari lotuta, ari tinko begira gelditzen zaigulako. Filosofian eta teologian oiñarritutako pentsamenduak, geiago gabe, sorgor eta itzik atera eziñik usten duela dirudi. Zeruan betiko egiari eta maitasunari begira, badaki ez duela aspertzetik izango. «Bizi eta bizi, maitatu eta maitatu». Ori da zeruko egitekoa, eta egiteko orrek ez dio iñori aspertzeko unerik utziko. Jainkoaganik Jainkoagana, maitasunetik maitasunera joateko eta ibiltzekoak gerala diotenen arteko dugu Orixe. Filosofo ta pentsatzaille andi batzuen jarraitzaille. Aipa dezadan bat: Edmund Husserl. Joan den asteen gizaldi onetan filosoforik andienetakotzat dagoen filosofoaren jarraitzaille ta eskolan laguntzaille izan zen andre bat Erromako Elizak aldaretara eramane du: Edith Stein. Andre au judu izan eta kristau egiñik, mojatak bizimodua artu eta gero, Auschvvitzeke sulabetan bere bizia amaitu zuenetakoa da. Eta bere irakasle izan zuen Husserl orrek, ilgo zen baiño bi urte leenago, onako aitormena egin zion karta batean bere laguntzaille izan zuen mojari: «Gizonaren bizia ez da Jainkoaganako bidea besterik. Ni teologiarik gabe, teologiaren azterketa biderik gabe saiatu naiz nere elburura joaten; bestela esateko, ni Jainko gabe Jainkoagana iristen saiatu naiz. Nere azterketa bideetatik Jainko gabe Jainkoagana iristen saiatu naiz. Nere azterketa bideetatik Jainkoa kendu egin bear izan dut, Jainkoa zuk bezala ezagutzen ez dutenei Arganako bidea irikitzeke, Jainkoaren berri ematea teologoene eta Elizaren egitekoa baita... Nere bide onek badakit bere arriskua duela eta neronek ere arrisku ori izango nuen, Jainkoarekin barne barnetik lotua ikusi ezpanu nere burua eta biotz-biotzez kristau ezan ezpanintz».

Husserl fenomenologoak ixillean beretzat artu eta bizi guztian eramane zuen bidea, Orixek agirian eramane zuen eta agirian aitortu eta bizi izan du. Teologiaren eta filosofiaren bideak bat egin eta batera ekarri ditu bere bizian eta bere idazlanetan. Bide orretatik joane Orixeren pentsamenduaren bidea, iñolako aspertzetik izango ez duen betiko bizitzan, izate osozko eta maitasun osozko betiko bizitzan amaitzea uste zuena.

Nire itzaldiak ere emene amaitu bear du. Orixek esane digunez, zeruane ez omen gara elkarrekin iñoiz aspertuko; baiña emene bai. Nik beintzat naiko aspertzetik utzi zaituztedalakoane nago nere jardun onekin.

Nere gaia iru sailletara biltzen saiatu naiz. Orixeren begiz ikusi dugu nolabait Euskalerririk jasan izan zuen inpernua, orain berrogetamar urte. Emene ikusi dugu Orixeren orduko pentsamendua, gure erriaganako leialtasuna.

Elizaren seme zen aldetik, Orixek bere Burgatorioa jasan zuen, eleiz-gizon batzuen jokabidea ikusirik, bere Donibane-Loitzuneko egunetan. An erakutsi zigun bere pentsamenduaren beste alderdi bat. Aurrez-aurre salatu zituen ango eliz-gizon batzuen itzaldietako uste-muste okertzat zeuzkanak. Oiñarri gabeko iritziak omen ziren izlari aienak; izan ditekenetik ala dalakora errezezi ateraten omen ondorioa logika zuzenaren arauetz oso bestera, entzuleen gogoetan naastea eta illunpea sortuz. Erromako bi erabakik arindu zioten Burgatorio ori.

Idazle eta pentsalari zen aldetik, bere pentsamendua argi azaltzen saiatu zen Orixe, leenik, etikaren eta estetikaren arteko eztabaidan. Etikak eta estetikak elkarrekin joan bear omen dute. Literaturan, esaterako, lizunkeriak, gaiztakeriak, pekatuak izan dezakete beren lekurik; baiña ez pekatu eta gaiztakerira eragin, iñolaz ere. Antzez ez da bere jabe oso; gizonaren lana denez, gizonaren elburua eta eginbideak gogoan izan bear ditu, ez oien aurka jokatu.

Filosofiak ez du egia bere burutik sortzen ez asmatzen. Gauzak or aurkitzen ditu eta ez bere burutik ateraten eta ez iruditzen. Gauzetan zeiniek bere izatea du. Gizonak eta gauzak ez dira berez sortu; Sortzaillea dute; gizonak adimenaren begiak zabalik bear ditu eraman, gauzen egia alde guztietatik begiratu eta aitortzeko. Batez ere, gizonen jatorria eta elburua ditu aztergairik beiñenak. Zuzen ibiltzeko, egia guzizkoa aurkitzeko. Adimenaren argiari ez ezik, fedearen argiari, Jainkoaren aldetik dator-kigun argiari ere begiratu bear dio. Orixerentzat ez dago etsipen beltzera erortzeko arrazoirik, askok beren aukeraz eta borondatez ala egiten badute ere. Gizona Jainkoagandik etorri eta Jainkoagana bidean doan bidastia da.

Jainkoa du bere elburu. Jainkoa, bere betiko zorion-iturri, baldin gizona aren ukoan gogortzen eta setatzen ezpada. Eta Orixeren Jainkoa Kristoren Jainkoa dela esan bearrik ez. Orixek pentsalari kristau eta kristau pentsalari izan nai izan du alde guztietatik.

SABIN MUNIATEGI OLERKARIA(1912-1990)*

Lizardi eta Lauaxeta olerkarien ostetxoan, eta era bateratsuan, beste olerkari gazte bi agertu ziran euskal-olerkariaren zerrenda betetara, euskal-poesiaren arlora aize eta ots barriak ekarten: bata *Lotsati* izenaz agertu zana, giputza, orduko aldizkari eta Egutegietan idazten ebana; bestea Bizkaiko semea, Sabin Muniategi, *Euzkadi* egunkariaren orrietan lenengo agertzen asi eta laster GOIZ-AIZE liburua eskiñi euskuana, 1936n gerrate zori-gaiztokoa sortu aurretxoan. *Lotsati* ez-izenekoa lentxoago zorigaiztoko eriotzeak mundutik eroanda galdu genduan, bere olerki labor ariñezko sortatxoa itxita. Muniategi zanak bizirik iraungo eban, bizirik eta lanean beti, bein asiriko olerki-gintzan. Joan barri dogun urtean, 1990koan il zan bere olerki-lan guztiak argitara urtetako bidean zirala, ain zuzen, KARMEK aldizkariaren zuzendari dogun Yulen Urkizaren zuzendaritzapean. Aldizkari onen irakurleentzat jazoera onen, liburu onen eta Muniategiren barri emen emotea atsegingarri eta gogoko izango dalakoan nago, eta aldizkari onentzat zor bat garbitzea, Karmel-en orrialdeak ainbat bertso-lanez bete ta aberastu zituen idazlearen alderako.

Beioa Muniategi-ren olerki-lanaz zerbait, lenengo, Lauaxeta etzan igarle usna gitxiko agertu ondo etorri betea egin eutsanean Muniategi gazteari, bai *Euskadi* egunkariaren orrietan aren lenengo asikiñak argitaratu zituenean eta bai GOIZ-AIZE liburua argitara etorri zanean bere, liburu onen itzaurrean. Ona Lauaxetaren itz batzuk: «Olerkari on bat Filipinasen agertu jaku...Muniategi gazteak zer egin daiken igarri geinke. Abizen buru au artu begie gure elerti-zaleak. Olerkari barri onek eztakigu zer daukan, baiña euzkerek eztauz entzun gaur arte olako gauzak... Gitxigan aurkitu geinke gazte onengan aurkitzen dogun ederti-miña. Gauza guztietan idoro darua edertasunaren zantsuba... Euzko-elertijak asko itxaron daike mutil onengandik...

* Karmel 1991-1, 23-35.

Rabindranat Tagore-xen antza emoten dautsagu bere idazlanetan... Biotzeko oriorik gozoenagaz igurtziten dauz ikuskixunak... Arek legetxe maite dau ixadia... Muniategik dardara barri, ikara barria dakarkigu».

Ona Lauaxetaren berbak arrapaladan artuta. Ondo etorri beroa egiten eutsan *Lotsati* zanari bere. Lotsati orren egunak, baiña, oso laster joan ziran, eta ez eban lorratz andirik itxi. Muniategik eten barik jarritu dau bere bizi guztian gaztetan asitako bidean, olerkigintzan, izadiaren eta gizadiaren kantari egiñik. Olerkari izan eta olerkari bizi izan da. Olerkari izan bear orretarako.

Olerkari izateko gauza bi bear ei dira: olerki-gaia ikusten eta sentitzen jakin, eta ikusi dan eta sentitu dan eder ori itzez, batez ere, bertsotan adierazten jakitea. Ikustea ezta naikoa, adierazten jakin bear. Bestela ezta izango olerkari. Eta Muniategik biak izan dituela ezin ukatu. Izadia eta Gizadia etorri jakoz begipera. Izadiak eta gizakiak erakutsi deutsoe zeezer eta beti izan ditu begiak zur eta belarriak erne dana ikusteko eta dana entzuteko.

Lauaxetak Muniategiri igarri eutsana: «Berebegiak daukaz»... Edozertan ikusten dau beste askok ikustea lortzen eztabena. *Rabindranat Tagorek* lez, edozertan aurkitzen, idoroten dau edertasunaren zantzua bere bertsoetara ikuspegi barri bat edo sentiera barri bat ekarteko. Azkenengo urteetan gure munduaren egoera ta etorkizunaz kezkatuago bizi izan dala dirudi eta olako kezka ditu bere bertso askotan kantagai nagusi... Baiña munduerrietan eta giza-biotzean laño baltz antzekorik ikusi izan badau, bere bertsoetara ekarri bear izan badau, bertsoetan agertuko dau bere barruko miña, baiña ezta illeta utsean geldituko, gero obe baten igarle eta kantari agertzen jaku. Itxaropena sortu eta sartu nai dau gogo-biotzetan, eta etorkizun obe bati atek zabaltzeko eta askatasunerako zantzoa botako dau. Muniategiren bertsoetan eztago etsi-eziñ baltzera bultzatzeko garrasirik, ez burruka itsuetarako deirik, ez darabil iñoz maisu jorratzaillena edo sermolari orroetsu edo asarreana egiteko uzirik eta aizerik bere. Egia da bein eta berriro gai bardintsuetara joten dauala, munduan ikusten dituen gauza negargarri asko ikusita, eta obe bearrez eta okerrak zuzendu naiz egiten dau. Eta, gaiñera, Luis Arostegik diñoanez, gauza bardintsuak askotan botatea ez da berez pekatu, ez da izaten gogaikarri bere, egoki esaten jakin ezkeru.

Beste kezka erabili izan duela esan geinke bere barrukoak bertsoetara ustu eta aldatzerakoan; garaitu egin nai leuke euskereak gai batzuetarako, eta batez bere, esaldi luzeak egiteko, daukan urritasuna edo laburtasuna. Muniategi bere bizian atzerrietako olerki asko irakurria izan da eta arein antzeko esaldiak erabiltera doa berez. Eztaigun aitzu erdal-errietako olerkarien bertso-lanik asko bere, zazpireundik gora euskerara itzuli dituela. Orregaitik askotan burruka gogorra darabil euskal-itzekin bere barruko galdari urtenbidea emoteko eta orduan itz ezagun eta oizkoekin joko barriak asmatzera bere joko dau, eta txarto bere ez askotan. Norbaitek, olerkariaren aide edo senide eta euskal-gaietan maisu dan batek, akats dalako bat aurkitu deutso bere euskeran: geiegi erabilten duela *-Ez* edo *-Tzez* edo *-tzenez* atzizkia puntua egiteko. Ori Muniategiren olerkiak guztiak saillean irakurten dituenari geiegizkoa irudituko jako, bear bada, baiña banaka irakurten dituenari ez jako aspergarri bere egingo berez, nik uste.

Muniategiren balioa olerkaritzan eta erabillien eta maiteen dituen gaien azterketa Luis Arostegi olerkari eta pentsalariak egin dauan itzaurrean. Nik eztoz besterik esango emen Muniategi eztabillela beti lirika utsezko gaietatik; beeragotik ibilten, errimailako gai arinago eta atsegingarrietara jasten bere badakiela. Olerki-mordoa dau, esaterako, euskal-ipuñetatik eta euskal-esakunetatik gaia aterata.

Muniategiren olerki-lana liburu baten

Orain Muniategi onen olerki guztiak liburu baten batuta daukaguz... KARMEL adizkari onen zuzendariak omenaldi au egin gura izan deutso aldizkari au bere olerkiz askotan jantzi izan dauan idazleari. Ez zituen ogei urtetik gora egin Vienan ango lan oiturak ikasten eta gero Europako ainbat Agiritegi arakutzen. Agirian dago maisu trebe baten eskua ibilli dala liburu au prestetan. Olerki bakotxa noz eta non argitatu izan dan, zelango ezbardintasunak agertu izan diran argitaldi bakotxean edo eskuizkribuetan, liburu osoaren aurkibidea aurrean eta olerki bakotxaren alfabetozko zerrenda azkenean eta abar, ezin zeaztasunik geiago eskatu liburu bati. Eta 1.180 olerki dira Muniategik bere-bereak dituenak, eta eurok baiño eztaoz bilduma onetan. Atzerrietako olerkarien lanetik euskerara itzulitakoak kanpoan gelditu dira, guztiz 732, batzuk an or emen argitaratuak eta asko argitara bakoak. Muniategiren lan guztien Bibliografian, alan bere, guztiak datoz zeatz eta banan banan izentaturik.

Olerkiak al izan dan bestean, beintzat, urtez urte datoz, antziñakoenetatik asita oraintsukoetaraño, eta ziur jakiñ eztanean, gitxi goraberaka.

Luis Arostegi izan da Olerkien aztertzaile: Mungi aldekoa izan eban Muniategik lenengoz euskal-olerkarien artean arrera beroa egin eutsana, eta Mungialdekoa da Luis Arostegi bere, orain Olerkariak bere biziko lan betea emon dauanean, olerkion balioa aztertu eta erakustera datorkiguna.

Muniategi olerki-erakusketa txiki bat

Muniategiren olerkiak eurak obetoen emongo deuskue beronen olerkigintzaren neurria, zelango gaiak eta zelango otsak darabiltzan bere olerki-lanetan. Eta oraingo bilduma onetan, gaur arte iñoz argitara urten bako mordo andiak daukazan ezkerro, eurotatik eskintzen deusagu emen sortatxo txiki bat irakurleari. Eta olerkariaren bizi guztiko kezak esaten deuskuzan olerkia izan bedi lenengoa. Etorkizuna argitzen asi jako. Poza jatorro biotza zauritzen eutsan arantza bat kendu jakonean.

Gudari baten arantza

Zerua zurizka urdin
odei gorritz tartetua,
ta itsasoan must dagin
eguzkiaz bat-batera,
arratsaldea ba-doa
illargiak ordeztua;
ba-doa illunduz, arin,
lasterka gaberatua.

Betiko alegiñakaz
ta ain biotzeko euskeraz,
bidazti nabil, kantari,
abestuz neure erriari;
bidez, bai, aurrera noa
neure bizkaitar berbetaz
eutsiz neure ametsari
zabalduz euskal arloa.

Ezinduta, nekatuta,
etsaipeko gogortadaz
ikustean makal, lotsaz
erri maitea lotuta,
biotzean neukan sartuta
sakon, barru-barruraño,
gurari baten arantza
zorrotz dirauna gaurdaño.

Bein batean orratiño
atara al izan neban,
ta, eztot orain nabaitzen
aren zauri gogor latza
Gaur EUSKEREA ikustean
indartsu loraburutzen.

Lauaxetak GOIZ-AIZE liburuari jarririko itzaurrean umeentzat oso egokia dalako olerki bat aitatzen dau eta gorai patzen: *Ume itxastarrarena*. Semetxoari zuzenduriko olerkia dau urrengo au, 1988 inguruan egiña au bere:

olatu

Ai, paperezko itxasontzi
eder polit bezin ariña,
oial zuriakaz egaztari
nire ilusiñoz eskuetan
ta itxasoaz bat egiña
olatuz olatu dantzari!

Ai ene seme, egizu lo,
lo, itxasoekaz amesetan
egizu, laztanki, gizoro,
orain zure biotz onean
ekaitz gaiztoen ezelango
ikaturik eztagonean!

Ez al dozu ikusten bide
argitsu maitagarri ori,
illargiak egindakoa
legun-legun ta zoragarri,
maitez eskuratutakoa
ain egoki dana ta zuri?

Negar oñazetatik urrundu,
alboratu zure ontzia,
ta, etsipenetik baztertu
zure biotzaren egitura,
ongarri, apañez jantzia.
urrundu ainbat pozoidura.

Kukulutxu baten zeruan
bizi da nire tantatxoa,
maitasunezko kukuluan
nire ur tantaxo gozoa.
Ai eguzki, ez, ez eroan
edozein odeira, beroan,
nire ur tanta maitetxoa!

Nire oñetakoak lokatzez
beterik dagoz, lotsagarri
bideetan jasotako autsez,
ta nire biotzak billakari
diardu oraindik, ametsez,
ta eztakit zeren egarri!

Ai nire ontziño txikia!
 ainbeste amesgaiz betea
 doana zabalduz ortzia,
 itxasozko olatubera
 edatuz bertsoaren bidea
 oldozkunaren barrenera.

Ez iñoz etsi, izan siñiste! Onelako oiua askotan datoz Muniategiren lumara. Munduan bere ezta beti negu ez eguraldia zakar: udabarriak beti datoz bizi obe baten zantzoa eta zantzua ekarten:

Izan siniste

Bizitza, burrukatze etengabea izanik,
 ez utzi etzaten soin nekaldu, ahulari;
 ez utzi bide erdian geratzen gogoari
 bildurrez ta kokil, ai! «nik ezin dut» esanik.

Izan siniste, izan kemen, izan adore,
 ta IOSU uraren gainez zutik ta artezik
 ibili baldin bazan tinkoki ta dotore,
 ez izan, ez, aurrera iarraitzeko bildurrik.

Ez izan harako orri utsezko pikondoa
 bezala ezertako gatzik ta berakatzik
 ez duan gogo antzuzko giza-lapikoa.

Izan argi brintza, ta bizi-ale ongarri.
 Zerbait onura ta zerbait eder aurkezturik,
 izan munduaren, gizartearen aberasgarri!

Izan siniste

Ez egon ba, beti, makur lurrera
 galdurik zeure kemen ta lotsa...
 ez dakizula-ta zer egin, nora...
 Bizi izatea ez da erreza
 oñarridun elburu baten bidez
 iarraitzen zintzo, sendotasunez
 izerdiz ekintzaturiko biotza,
 zeure gogo argi ta izakera
 gizatiz loraturiko abotsa.

Zu zabiltzan gizarte alorrean
 esiak, nekeak ugarituarren,

ez zaitez amil or ezingoaren
barruti, atzaparpe gogorrean,
galdurik zeure ametsen izantza
ta zeure gogo, etorkizunaren
norbidezko zeure itxarokuntza.
Zeugan izan siniste, zaran orren
Iaungoizko laguntzapenean.

Udaberria

Neguak aldegiñaz batera,
osto berriak eta lora berriak,
bizi-ikutu emez biotzera
datozten itxaropen pozgarriak.

Zelaiak, mendiak, bazter oro
iantzi berriz, odol berriturik,
orlegitzen dakusguz, goikiro,
ameskizun berriak sorturik.

Edertasunezko agerpenez...
au bizitzazko gorakadea!
Egun berrien argitasunez,
txori-txintada alaiz betea.

Udaberria da, udaberri...!
Ta, udaberriak, etorriturik,
ama gazte eder bat dirudi
bere aurra besoetan daualarik.

Biak bat. Alkartze amesgarri!
Irripar gozodun mintzo eztiz
keiñu-keiñuka, maitez, alkarri
begira, biotzetako goi-argiz.

Bizi izatearen poztasunean
udaberria udaberritzen
ari zaigu, egunak indartzen
etorri obeagoaren ustean.

Siñismenik eza, maitasunik eza adiskidetasunaren eta alkartasunaren ilgarri dira,
alkarren arteko bake txarraren iturri eta sortzaille. Mundua zoritxar orretarantza doa
askotan. Beraz...

Sinismenik eztagonean (1988)

Maitasunik ez gizatasunik
sinismenik be eztagonean,
ez biotz gozotasun aztarnik

au ta ori ta bestea bere
 dana zalantzan jartzen danean,
 ta ezelako zuzentasunik
 uste onik ez daukagunean,
 ez adiskide ez anaiengan
 susmo txarreko begiramenean
 barrua ikoltzen zaigunean.
 Geienok geurekeri betean
 ta guzur mintziz gabiltzanean,
 mundu zaletasunez beterik,
 ta gogo makalez ta itunik
 itxaropena galtzen dogunean,
 gaurkoan ta etorkizunean
 etsipen lainoz baltziturik
 lur-jota aurkitzen geranean,
 geure gizarte, lagun artean
 egunen poz-alaiia galdurik...
 Orduan erri bat ondatuta;
 dago, eroritzeko zorian
 ilda geratzeko, endekatuta
 munduko griña olatupean
 zentzunik barik jokaturtean,
 ondatuta dago, bai galduta.

Baketsua eta bakezalea da Muniategi. Bakearen alde jokatu eta bakea norbere barruan eta giza artean bakea sortzeko baiño beste burrukarik ez dau nai, ez dau onartzen. Ona emen gudak inguingarri egiteko Muniategiren zantzo ta olerki labur bat.

Guda aurkako zantzoa

Ainbeste odol-iturri, ainbeste eriotza,
 ainbeste gudaketa! Ekaitz izu, gogorrez,
 odolezturiko irakintasan minkorrez
 mundua, itzalduriko negarpean datza.

Sugarrez, izkilupean, bizia deuseztuz,
 indarkeriaren eskubidez burutzen dira,
 gizonaren nortasun ta usteak zapalduz,
 gutxi batzuen aundikeriaren irabazira.

Ez gehiago gudarik, eriotzazko goraberaz.
 Ez, ez! Ez gehiago odolik, erailketarik,
 ezinbizizko alkar-iltze ta eztenkadaz.

Ez ibili, ez izan gorrotoaren meneko
erriaren kaltetan gizona lokarriturik,
oro min-ospindun ta zakarki ondatzeko.

Len esan dogu Muniategik badituela lirikaz ostantxerako txintasoiñua dakarren beste olerkirik, eusko-folkloretik eta euskal esakunetatik artuta, politikak eurak. Emen dau irakurleak orretariko bat buruari dagokiozan esaerak pillatzu egiña.

Buruari buruz

«Ez buru ta ez zango». «Buru gazte, anak zar».
Ta, «burugabea beti lenengo lerroan»;
«burunduna ordea beti azkenengoan»,
ta «burutik ez dauanak anak neka bear».

Beste batzuk: «bururik ez eta txapela nai»,
eta «burutik ez dauanak txapel bearrik ez»;
gero or dabiltz ero, iji-ji aja-jai,
buru utsaren astunari eutsi ezíñez.

«Ez dau txapel aundienak buru utsik betetzen».
«Txapel baten barruan bi buru ezin sartu».
«Buru dauanak badaki neurritz aukeratzin».

«Txapela buruan eta ibilli munduan»
eta, orra ba. «Zenbat buru ainbat buru».
Bakoitza bebil bai bere buru soka-dantzan.

Olerkiok eta beste asko daukaz irakurleak liburuan orain arte argirik ikusi eztabenak. Emen dogu olerkari onek 1934n asita euskal literaturaren arloan lan eta lan egin izan dauan bide luzea. Tamalez ukatu egin izan jako liburua amaiturik ikusteko zoriona.

Uste barik joan jakun bapateko eriotzeak eroanda. Goian bego gure izkuntzaren lantzaille sutsu, ixil eta iñoz nekatu etzana. Bere olerki guztien bilduma liburua izan bekio zor jakon oroitarrik onena.

EUSKAL LITERATURAREN INGURUAN

JOAN KURUTZEKOA EUSKAL LITERATURAN*

Kardaberaz aita izan zan euskaldunen artean Iñazio deunaren liburu ospetsua eta aren mamia euskeraz lenengoz liburutan azaldu zituena. Lotsa-garrizat eukan lenago beste inork bere egunetara arte ori ez egiña. Lotsagarri, batez bere, Iñazioren seme jesuitentzat.

Karmeldarrok ez ete dogu pekatu bardiña egin Joan Kurutze deunaren liburuetak? Bai eta ez, erantzungo neuke nik. Batetik Joan Kurutzekoa ez zan euskalduna; bestetik, ez eban edozeinentzat idatzi. Aren liburuetakoa gaia ezta edozeifientzat idatzi, otoitz-bidean aurrera joan nai ebenentzat eta Jainkoagazko artu-emon miñago eta estuagotan sartu nai ebenentzat baiño. Erdaldunen artean bere, orregaitik, erriak ezta aren ezagutza esatekorik. Erdaldunak aren olerki bat edo beste ezagutuko ditu eta buruz ikasi bere bai. Ortik aurrera ezer gitxi; poeta mistiko andia dala, eta asko geiago ez. Ori erdaldunei jazoten baiake, santu ori euskaldunen gogoan barrurago sartzekoa ezta izango errez ulertzekoa da. Alan bere, zeozer egin izan da euskaldunen artean bere, erderaz geiago euskeraz baiño. Karmeldarren artean, euskeraz nai erderaz egin izan dana azpimarratu nai geunke emen lenengo, eta urrengo, karmeldarrak Joan Kuruzekoaren euskal-itzulpenekin eta batzuk eta besteak santuaren omenetan egin-dakoa.

Erdal-idazleen lana

' Joan Kuruzekoaren bizitzari eta mistikako eskolari dagokionez, bere errialdekoak, Gaztelakoak agertzen dira gailen eta nausi, eta alan izan bear dauala errez ulertzekoa da. Eurena dabe beste inorena baiño lenago. Baiña euskaldunak ez dira gelditu arlo orretan sartu barik, orain eun urte asita ta arrezkero.

* Karmel 1990-3/4, 431-437.

KARMEL aldizkaria irakurten oitua danak, badaki, Euskaldunak izan zirala lenengo langilleak Karmeldarren Ordenari, ainbestek etenaldiaren ondoren, bizi barria emoten. Joan dan mendearen azken aldera jazo zan ori. Eta ain zuzen, lan orretan asi barritan eldu zan Joan Kurutzekoa il zanetik irugarren mendeurrena. Aldizkari bat sortu eben orduan urteurren ori ospatzeko: *San Juan de la Cruz* izenekoa (1891). Aldizkari orretan agertu ziran luma gazte bi, Aita Bonifazio (1864-1941), eta aita Benanzio Berazaluze (1864-1936), biak euskaldunak, bata Zornotzako semea eta bestea Berrizkoa, biak geroago Gaztelako eta Andaluziako karmeldarren buru izanak. Joan Kurutzekoaren mistika teologiaren aldetik eta kristiñauen mistikan izan dauan garrantziaren aldetik aztertuz idatzi eben. Joan Kurutzekoren mistikaz asko eta sakon idatzi eban Aita Krisogono gaztelarrak euskaldun bion orduko lanak, batez bere, Berazaluze aitarenak, euren balioz aitagarri aurkitu zituen.

Adin beretsukoa izan zan gero karmeldar guztien Buru izatera eldu eta Euskalerrikoen Buru bost bider izan zan aita Ezekiel Bilbao, Zornotzako semea (1862-1938). Onek bere birriteko aldiz argitaratu eban Joan Kurutzekoaren otoitz-bidea aztertzeke eta argitzeke liburu bat: *Método de oración y contemplación* (1931-1935).

Oraintsuago, karmeldar bi agertu izan dira, oparago eta alde geiagotatik, Joan Kurutzekoaren bizitza eta idazlanak erderaz aztertzen: aita Joan Jose Santamaría, gazteiztarra, 191 ln jaio eta aurten il dana, eta oraindiño bizien artean dogun aita Anselmo edo Augusto Ardanaz, 1922 jaioa, Villabako semea. Aita Joan Jose Santamariak bere idazle-asikiñak gorengo gaia artuta emon zituen: *El último grado de amor* (1941). Ikusten danez, mistikoaren gorengo maillatik asi zan idazten. Beste liburu batzuk: *Psicología de San Juan de la Cruz* (1944), *Lafe que necesitamos hoy* (1968), *Maestro para el año 2000* (1973), *Hace tal obra el amor edo la virtud de la caridad en San Juan de la Cruz* (1974), *El Mensaje de la resurrección* (1967), dana Joan Kurutzekoaren mistikan oiñarrituta.

Aita Anselmo Donazarrek bein eta barriro ekin deutso Santu mistikoaren bizitza eta mistika-bidea aztertzen bere olerkari eta sikologo aldetik begiratuta. Azkenengo liburua aitatuکو dogu: *El Hombre de las ínsulas extrañas*. Eta aitalsmael Bengotxeak (1917), Bizkaiko semea izan arren ia bere bizi guztia Andaluzian daroanak, eta Sevillan *Myriam* aldizkariaren sortzaille eta urteetan zear zuzendari izanak, joan dan urtean gure mistiko andiaren bizitzan eta liburuetan oiñarrituta, azterketa aparteko bat egin eta argitaratu dau: *La felicidad en San Juan de la Cruz* (Sevilla, 1989).

Erdal-idazle guztiok gaur egoaldekoa esaten deusagun Euskalerrikoak dira, eta Gaztelako erderan idatzi izan dabe. Euskeraz barik, gurea eztan izkuntzan idatzi dabenen artera, ekarri daigun beste bat. Iparra aldekoa: Aita Gabriel Hondet (1888-1968), Hedayako semea. Azkenengo aitatu dot, baiña inglesak esan oi dabena esan neinke: Last but not the least. Azken aitatu dogun arren, ezta ez, azken gelditzekoa. Ez urrik emon bere. Beneditarra da, baiña Joan Kurutzearen maitatzaille andia, eta beronen mistka-eskolan asko ikasia. Bera bere ez mistiko txikia, eta erdizperdziko apaiz edo kristiñauak astintzen eta berotzen ekiana. Gaixoa, baiña bai bere itzari sua eriona. Belokeko beneditarran abadeetan laugarrena izan zan. Eta, Europako edo mundu guztiko azkenengo gerratean kapellau, eta alemanen eskupean Dachauk eta

Auschvitzek badakie zerbait arek an Jainkoarren eta lagun urkoaren alde erakutsi eban sendotasunaren barri. Joan kurutzekoaren liburuetan ikasiak asko lagundu eutsan orduko nekeak pozik artu eta otoitz-gizon gartsuago irauten bere kurutzeen artean. Azkenego urteetan bere, leku askotatik, seroretxe askotatik, kartusiar, beneditar eta karmeldarren seroretxeetatik deitzen eutzoen bere itz bero eta gartsua entzutearren. Eta azken baten, pozik joan zan zeruko Aitaren etxera bere liburu bat, *Poèmes Mystique* liburua argitaraturik ikusi ebanean.

Liburu augaitik, aitamen berezia merezi dau Joan Kurutzekoaren mistika-lanak aztertzen alegindu diranen artean. Joan Kurutzekoaren olerkien azterketa-lana da egin ebana eta beste inork erabili eztauan ikuspegitik egin bere. Askok idatzi izan eta gaur bere idazten dabe, santu mistikoaren olerkien edertasuna, sua eta garra eta literatura aldetiko balioa agirian ipinteko eta goratzeko. Eta geienetan, olerki autatu batzuk aztergarri artuta. Hondet-ek eztau bat bere aztertu barik itxi, baiña mistikoaren ikuspegitik, olerkari santuaren beraren gogo-barruari begira. Mistikoaren molde guztietako olerkiai, eta bertso bakotxari aurkitu deutso, eta euretan ikusten jakin dau, eurak idatzi dituenaren bizi eta arimearen barruko oiartzuna, eta dana Joan Kurutzekoaren itzetatik aterata. Beste inork egiten jakin eztauan lana aita Hondet beneditarrak *Poemes Mystiques* orretan itxi deuskuna. Ondo merezia dauka emen Joan Kurutzekoaren ezagutzaille eta aztertzailleen artean egiten deusagun aitamen berezi au.

Joan Kurutzekoa euskal-idazleetan

Sarrera luzegitxoa egin ez ete dodan nago Santu eta mistika-maisu oni euskeraz eragiteko egin dabenen lanari eldu aurretik. Aren liburuen eta olerkien itzultzailleak eta aren bizitzaren barri euskeraz emoten zerbait egin dabena dodaz orain gogoan. Oneik egin dabena, artez egia esan, ezta asko, baiñ ez gauza utsa bere. Zergaitik gitxi? Eztakit zergaitik izan dan: ala karmeldarren arteko zabarkeriaz, ala santuaren liburuetakoa gaiak, len esan dodanez, edozein agoren gozagarri ez edozeinen gogoarentzat auznargarri etziralako.

1. Itzultzailleak

Zerbait egin izan da, danak agirira urten ezpadau bere. Eta agirira urten eztauan lana, itzulzailleana emen agirira atera daigun. Eta lenengo itzultzaillea, Aita Ipolito Larrakoetxea dogu, Zeanuriko seme naiko ezaguna. Gaztetarik emon eutsan itzulpen-lanari, Begoñako Karmelon irakasle egon zan urteetan asita. Grimm anaien Ipuñiak eta, Eleiz legeen irakasle zanez, orduan argitaratu barri zan «Codex» euskerara itzulita itxi eban, eta bai Joan Kurutzekoaren liburu nausi bi bere. Gero Erromara bialdu eben eta Eleiz-legeak irakasten, Aita Santuaren ondoko Kongraziñoen auzi-etan txostenak eta egiten eta Sortaldeko Legeak barriztetako Batzordeko lanak egiteak ez eutsan itxi Begoñan asitako lanari jarraitzeko asti modurik. Nozik bein, alan bere,

Larrakoetxearen izena edo ezizena (Legoaldi), agertzen zan euskerazko aldizkarietan (*Euskal-Esnalea*, *Zeruko Argia*, eta geiago *Karmengo Argia* aldizkarian), Begoñako urteetan *Euzko-Deian* agertzen zan lez. *Eleizearen Araudia* Kardaberaztarak agitaratu eutzenean, egillea ilda gero, auxe esaten zan liburuari ezarri jakon sarreratxoan:

«Gaztetako lana dau, izan, 1924 inguruan amaitua, orduko euskalgiro eta biz-tualdi baten argigarri ederra. Eleizaldetar Koldobika zanaren asmoai jarraituz ibilli zala dirudi. Jaun onek Bizkaiko Aldunditik ainbat lan egin eta eragin izan eban euskerea edozertarako gai egin naiez, edozein gaitarako liburuak atera gurez. Eli-zalderen eriotzeak eta 1923ko zapalketa-aizeak ondatu eben dana. Orduan egindako lan askoren aztarrenik ezta gelditu. Zorionez, Aita Larrakoetxeak egiña, Eleizearen Lege barriak euskal-soiñekoz jaztea, ez zan galdu».

Eta, gaur esan bearrean gagoz, ez dirala galdu aldi berean idatzi zituan Joan Kurutzekoaren liburu nausi bi, euskerara itzulita itxi zituenak. Berak Erromara eroan eta andik Euskalerriratu zanean, bere liburu eta paperen artean ekarri zituen. Eskuz idatzita dagoz, tinta zar eta letra ze-zeaz idatzita. Joan Kurutzekoaren liburu bi dira: *Karmelmendira Igoerea* eta *Gau Illuna*. Leenengoaren azalean auxe irakurten dogu: «Asi nintzan euskeraztuten / 1921'ko Lotazillaren 17'an / Begoñako Karmel-lekaide-txean».

Karmel-mendira Igoereak 110 orrialdie egiten ditu Larrakoetxea aitaren eskuzko kopian; *Gau illunak*, 60 orrialde. Gauza jakiña da santuak liburu bion aurrean bere «En una noche oscura» olerkia jarten dauala. Euskerara izuli dituanak, liburu bako-txaren asieran, dagozan dagozanean erderaz sartu ditu. Liburuaren barruan sartzen dituanean, orduan bakarraik ipinten ditu euskeraz, baiña bertso-legerik barik, punturik barik.

Bejoakio Aita Larrakoetxeari (1892-1975) Joan Kurutzekoaren euskeratzailleen artean zor jakon lenengoko aitamena.

Urrengo itzultzailea Aita Emiliano Barandiaran dogu (1904-1968). Eskoriatzako semea. Villafrancan (Naparroan) Iruñen eta Markiñan, bere bizi guztian gazte ikasleen arduradun eta irakasle izana da eta ba-ekian asti-orduak aurkitzen euskera lantzen eta euskeraz idazten ekiteko. Musikalari eta musika-maixu bere bazanez, musika joteko eta musika ikasteko libururik bere atera euskun. Euskeraz iru liburu emon zituen argitara, bi Andre Mariarenak, eta *Euskal-musikalari bikaiñak*, irugarrena, eta argitara barik ainbat itzulpen. Bi, Joan Kurutzekoaren *Cántico Espiritual* eta *Llama de amor viva* (euskeraz Gogo-abestia eta Maitasunugar bizia). Liburu biotako bertsoak bertso-legean itzulita daukaz, erderazkoak baiña luzetxoagoak egitera jota. Eta guztia ma-kiñaz jota, garbi eta txukun, karpetatun polito sartuta.

Argitara emoteko asmoz egin zituen arren, tamalez eztabe argirik ikusi. II zan urte berean Markiñako karmeldarrak ain langille ekintsuari egokion il ondoko omenalditzat *Cántico Espiritual* dan liburu argitaratzeko gogoa artu eben. Gora jota, goiko Nagusiak ondo eritxi eta atarako bear zan dirua eskiñi eben eta baietza emon. Eztakit zek eragotzi eban asmo ori egitera eroatea. Aita Emilianoren Joan Kurutzeko deunaren liburu biak lotan gelditu dira, giltzapean ondo gordeta, baiña argitara urten barik. Batzuen eretxiz, Joanen mistika-liburuak saillean euskeraz argitaratzea baiña

bere irakatsiak zeatz emongo leuzkiguzan autaketa bat ateratea izango litzake onenai; bere liburuetan gauza bera, edo mami bera, berba barritan emoten badau bere, bein eta barriri esaten daki eta zati batzuk kendu eta autaketa egitea obe ei legoke.

Joan Kurutzekoa KARMENGO ARGIA aldizkarian (1931-1936)

Euskalerriko karmeldarrak 1930ko batzarrean aldizkari barri bi ateratea erabagi eben: bat erderazkoa Iruñen eta beste bat euskeraz, Zornotzan. Eta urrengo urtean erabagi ori egitera eroanez, Karmengo Argia izendun aldizkaria asi ziran ateraten. Sei urte eta erdiz iraungo dau bizirik, 1936ko gerrateak ixildu eban arte. Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako fraide karmeldar talde batek euren euskal-Ianez emon eutsoen bizia. Joan Kurutzekoak bere lekutxoan izan eban bertan, egia esateko, oso gitxi: lanen bat edo beste, aren bizitzako goraberatxoan bat, aren omenezko olerkitxo bat, eta aren mistikako maisutasuna gogoratzekoren bat.

Santuaren lan txikiak zati batzuk bere emon zituen *Karmengo Argia* aldizkari orrek: aren esakun mamitsuetatik mordotxoak, amar bat zenbakitan, bein *Oar eta esakunak*, beste bein *Esakun mamintsuak* titulupean. Itzultzaileen izenik barik agertu ziran 1933ko urtean zear.

«Musika ixilla» liburuan

Joan Kurutzekoaren eta frai Luis de Leon-en euskerara itzulitako olerkiz osaturiko liburu au 1962n argitaratua da. Egillea, oraintsu il izan dan olerkaria. *Gaztelu* (Goikotxeatar Iñaki) Gazteluko semea. Egunotan omenaldi andia egin deutsoe eta bere izena zabal ibilli da. Berak prestaua eta Onaindia aitak argitaratua da *Musika Ixilla* Liburua. Azkenengo urteetan olerkigintzan gaurko giroratuago ibilli izan bada bere, gaztetan erdal-olerkari klasikoan zale ezagutu gendun. Zaletasun orretatik sortuta euskal-itzulpenak sartu zituen liburu onetan. Or bildu zituen Joan Kurutzekoarenak bere. Eta ez tira gero itzul-errezak euretariko asko. Esaterako *Vivo sin vivir en mi*. Alan bere, trebetasuna andia autortu deutsoe kritikoak lan orretan Gazteluri.

Baiña liburu onek eztau dana Gaztelurena. Aita Onaindiak eta Orixek bere esku artu dabe or. Aita Onaindia, Joan Kurutzekoaren bizitzako berri emonez eta aren olerkien balioak azpimarratuz, eta *Cántico Espiritual* olerkiaren euskal-itzulpenaz, eta bardin Orixek berearenaz. Olan liburuak *Cántico* orren iru itzulpen emon zituen. Irurak egin dabe or, bakotzak bere saioa, Joan Kurutzekoaren erdal-olerkiari euskal-doiña emoten.

Joan Kurutzekoa Orixeren lanetan

Joan Kurutzeko deunaren mistikari gagokiozala, Orixek besteko lanik eztau euskeraz iñok egin. Aitamen berezia zor jako, aren mistika bidea azaltzen eta aren olerki eta zati batzuk tartean euskerara aldatzen egin dauan lanagaitik. Gaztetatik

izan eban Orixek begiko Joan Kurutzekoa. Jesusen Lagundian izan zituen ordu zorrigorrekoeetan santu orrek egin eutsan argi eta poz eta bakea ekarri. Aren liburuetan ikasi eban «fede soilean» Jainkoa billatzen eta aren gogora egoten. Berak bein autortua da. Burgosko Kartusian egun batzutarako egoala, antxe etorri jakon ARGIA:

Ni bai; etzindudan
garbi billatzen Zu.
Artan Donibane
Kurutzek ziraustan
siñismen legorra
nezala billatu.
Angoxe basoan
nuen irakurri
siñismen soilaren
urren zeundela ZU.

Argi ori izango dau gero beti bere bizi guztian lagun eta gidari. Aita Iñazio eta Joan Kurutzekoaren eskolako jarraituko dau. Lagundia istera beartuko dabe, baiña berak jesuita jarraituko dau bere barruan. INAZIO-ren eta Joan Kurutzekoaren irakatsiak ondo ezagutzen ditu. Ondo irakurrita daukaz eta bion esaldi asko euskerara aldatuta jaso zituen bere *Jainkoaren billa* eta *Kiton arrebarekin* liburuetan. Batez bere, Jainkoari maitez adi egoteko otoitzerako Joan Kurutzekoaren argitan dabil. Euskal-idazleetan Orixe dogu Joan Kurutzekoaren izena goren ipiñi dauana, karmeldar euskaldunon lotsaritan esango neuke nik.

Eta gaur, zertan gara?

Badirudi Joan Kurutzekoaren urteurren au dala-ta, orain arteko lotatik urtetako ordua dogula. Karmel aldizkariaren zenbaki onek zeozer badiñosku eta ez al gara onetan geldituko. Joan Kurutzekoak badau zer esanik gure egunotako kristiñau eta gizonai. Euskaldunari bere bai. Len esan dogun lez, ez da egokiena izango aren lan nagusiak osoan euskeraz argitaratzea, mistikako maisu onek gauza batzuk bein eta barriz esaten deuskuzalako. Erderaz bere ba da bere testu autatuez, bere irakatsien muin guztia emoten dabenez osaturiko libururik. Autaketa ona egitea izango da kontua. Gure Nagusiak bere, orretan dagozala uste dot eta ez alda mende-urren au olako zerbait egin barik igaroko.

Ori izango da omenaldirik ederrena bai Joan Kurutzekoari karmeldar euskaldunok egiteko, bai lenagoko urteetan santuaren liburu andienak euskerara itzultzen ixil-ixillik gure artean lan egin eben gure euskal-idazleai eskintzeko.

II
EUSKERA ETA BIBLIA

JAIME KEREXETA, BIBLIAREN EUSKERATZAILLE*

Omenaldi onetan itz egiteko ardurea eskiñi deuste. Beingoan emon dot neure baietza baiña berbaz asterakoan, neure bildurtxoa autortu bearrean nago gaurko omenaldiko adiskide au asarretuko eta jatan bildurtxoa. Beste beingo gomutea jatort gogora. Durangon izan zan: Kerexeta jaunak Euskalerriko Adiskideen Alkartean sarrera-itzaldia egin bear egunean. Ni egin ninduen aurkezle eta an esan nituenak gaitik, aurkeztuak ez ninduen, bada, lotsatu asarre agertuz kolore gorriak arpegira aterazo neutsazala-ta?

Ia gaur iñoren asarre barik amaitzen dodan neure jarduntxoa. Gaia bere Durangokoa baiña laburragoa, gai batera mugatua, emon deuste itzaldirako: Jaime Kerexeta Bibliaren, Biblia osoaren euskeratzaille.

Orain dala ogeta amasei-amazazpi urte inguru, EUZKO-GOGOIA aldizkarian *Arantzibia* ez-izenaz bere lantxoak ateraten asi zana, aldizkari orretan olerkiak eta mamarroen edo euskal eskudoen gaiak idazten zituen idazle au eta laster olerki-liburu bi: *OrbelaketaBitargi* zituen au (1959tik 1960tara), urrengoan Biblia euskal-soiñekoz jazten jo ta ke murgilduta ezagutu dogu, oraingoan bere izen argiaz, ez-izen barik. Kerexetaren euskal-lana geroak gogoratuko badau, Biblia osoa euskerara itzuli dabenen artean gogoratuko dauala igarlearena egiteko asmo barik esan geinkela uste dot: Aita Uriarte frantziskotarra, Duvoisin kapitaina eta Aita Olabideren izenen artean edo arein genetik.

Ez da izan edozelangoa, izan bere, gizaldi onen irurogeta seigarrenetik asita egin eta ekin atsedetik artu barik orretan egin dauan lana. Zatika zatika, baiña utsik

egin barik. Olantxe, zatika zatika, urterik urte atera izan ditu bere itzulpen-lanak, lenengo, amar bat urtez azkenean, 1976garren urtean Euskal-Biblia osoa gure erriari eskintzeko.

Goazen, bada, Kerexetak zatika egin dauan lan oni, banan banan gain-gainetikoko begitu bat emoten.

Lenengoa, Jesukristo gure Jaunaren Barri ona dau, lau ebanjelioak alkartuta, bata bestearen ondotik 1960n eta 1961n argitaldi bi izango zituen liburua, eta geroago beste bat bere bai. Zer da liburu au? Latiñez *Concordia Evangeliorum* deritxenetakoa. Bazan orretariko liburu eder bat euskeraz, Aita Iraizoz kaputxinoak ZERUKO ARGIA aldizkarian zatika eta gero (1934) liburu bat egiñez argitara emona. Orretarikorik asko da latiñez naiz beste izkuntza askotan. Lau ebanjeliotatik artuta, Ebanjelio osorik emon barik Jesukristoren bizia eta irakatsien mamia emoteko dira. Olakoxea da Kerexetak eskiñi euskun lenengo oparia. Paulo Gurrupide gotzaiñaren oneretxi ederra aurrean ebala etorren, eta itzultzaillak esker on gartsuena erakusten eutsen liburua argitaratzeko lagundu eutsoenen alderako. Eta batez bere, Itun Barria osorik euskeratu eta argitaratuko ebalako itza emoten eban.

Eta Kerexetak ez dau emoniko berbea jango. Eta arik gerotxoago urte berean (1960), or datoz *Apostoluen egiñak*, urrengo bitartean meza-liburuak eta emon deustoen zeregiñak atzeratuta, 1965n, *Apostoluen Egiñak eta Idazkiak*, eta 1966n, Jesukristoren Barri Ona, lau ebanjelioak, len zatika bakarrik emon zituenak, oraingoak Ebanjelista baktxaren lana bere osoan. Orduan emango dau Testamentu Barriaren itzulpen lana bere osoan: Alan bere *Alkartasun Barria* osorik ez dau emongo liburu baten 1972garrenera arte.

Lan oneitan eragoiola, 1967n, asiko da Testamentu zarrean sartzen, Salmutegia, salmoak euskeratzeko. Egia esan, ordurako bazan salmoen bertsozko euskal-itzulpen bat Aita Iratzeder Belokeko fraide beneditirren eraginpean lapurdieraz, gipuzkeraz eta bizkaieraz argitaratua, Liturgian erabilteko Erromako baimen ta guztikoa; baiña salmo guztiak erreskadan sartuta lenengotik eunda berrogeta amargarreraiño; baifia Kerexetaren itzulpenak beste bide bat daroa; salmoak aste-barru baten sartuta ekazen, orduko Eleizaren otoitz-liburuan (Brebriarioan) etozen, astero egunik egun ordu bakoitzerako egokituta, euren antifona ta guzti, latifiz egiten ziran otoitzak euskeraz egiteko erreztasuna emotearren.

Ola oneikaz zabal ebillen Kerexetaren izena, eta gogoan izatekoa da Kerexetaren Bibli-itzulpen lana giputzen arteraifio sartu zala. Gipuzkeraturik, Zugazti apaizarekin batean Gipuzkoaraiño eta arago sartu ziran *Jesukristo Gure Jaunaren Berri ona* (Kerexetaren lenengo liburua, lau ebanjelioak alkartuta), *Itun Berria osoa* (Orixe-Kerexeta-Zugaztiren izenpean agertu zana), eta *Salmudia*, edo salmoak. Aldi atako Kerexetaren Bibli-lanen barri osoagoa emoteko, umentzako bere egin ebala lan, *Umeen Biblia* argitara emonaz. Umeen Biblia au Zugazti apaizak gipuzkeratuta eskiñi jaken giputzai. Bizkaieraz iru argitaldi izango ditu.

Sail au amaitzeko, euskaldun barriai edo laguntzeko, ez daigun aitzu Jesukristoren *Barri Ona*, lau ebanjelioak osorik euskeraz eta erderaz bere argitaratu zituela,

erderazkoa *Biblia de Jerusalem* dalakotik artuta, eta euskerazkoa, lendik eukan lez eta gero Biblia osoa itzultzerakoan lez, Biblia bere itzulita.

Eta orain bagatoz Kerexetaren lan nausira, Biblia osoa euskeratuaz burutu daua-nera.

Testamentu Barriko zatikako itzulpenetan izan dituen nekeak joan jakozanean. Testamentu Zarreko liburu mordo andiagoari gogoz ekingo deuto. Bere gogoak eskatzen eutsan lana dau, batetik; bestetik, Bizkaiko eleizgizonak eta bertan sortu dan Euskal-Biblia batzordea bultzaka daukaz, laguntza eskinteko prest. Jerusalemgo Biblia darabil aurrean emen bere. Au beti autortu dau Kerexetak: ez dituela Liburu Santuak jatorrizko izkuntzetatik zuzenean itzuli, orduan ospe andia artu eban Jerusalemgo Biblia dalakoak itzul-lanetik baiño. Eta ez itzulpena bakarrik atondu dau andik; Jerusalemgo Biblia orretako sarrerak eta orrialde azprietako oarrak bere bai, batzuetan laburrago eginik bada bere. Sarrerak eta oarrak euskeratzeko laguntzailleak billatu ditu; baiña Jainkoaren itza bera itzultzea beretzat artu dau Kerexetak. Berea da nekerik andiena, baiña Bizkaia euskaldun osoaren egintza lez agertu izan dala. Bizkaiko kristiñau erriak Jainkoaren berbeari zor jakon itzal eta begirunea eta maitasun-gorde gura izan deutsez. Alderdi au gogoan artzekoa dala uste dot. «Guk, Euskal-Biblia batzordekoen itzak dira - guk bizkaierazko Biblia osoaren bearrizana somatzen genduan. Gaurko gure erriarentzat. Eta gainera gaurko bizkaieraz egiten dauan erri onek erraz ulertuko leuken eraz».

Egia esan, Eleizea ez egoan lo. Ordu berean Euskal-erri osoko Batzorde batek eragoion Liturgian irakurteko itzulpena egiten iru euskalkitako. Bizkaian arrapaladan argitaratuta genduzan iru urteko domeka eta jai egunetako irakurgaiak; baiña egunerokoak or jarraitzen eben orain dala iru urte guztiak argitaratu ziran arte argirik ikusi barik. Gaiñera Liturgian ez daukagu Biblia osoa, eta Liturgiako argitaratu dana altarako da, baiña altarako bere ia astunegia. Liturgiako barriz beste egin leikezan itzulpenak ez (ditu) baztertu ez alperreko egiten.

Bizkaiko Biblia Batzordeak edozeiñen eskuetan ipinteko Euskal-biblia opatu gura eutsan gure erriari. Alan Biblia eder eta bikaiña emon deusku Abade zintzo eta gartsu baten, Jaime Kerexeta abadearen eskutik, Bizkaiko Eleizea Bilboko Gotzaitegia argitaratzaile dala.

Onetan gaur Euskal-errian aberatsenak eta zorionsuenak gara. Beste euskalkiak ez dauke ainbesteko zorionik. Bizkaian lango alegiñik ez da beste euskalerritan egin.

Begitu deiegun iñoz egin diran euskerazko Biblia osoai.

Joan daneko gizaldian Bibliaren euskerazko itzulpen oso bi ziran: bata Jose Antonio Uriarte frantziskoatarrarena, baiña Bonaparteren aginduz gipuzkerara egiña, baiña Uriarterena kezkek ziralata, oar barik gelditzen zalako, argitarabage gelditua; bestea, Duvoisin kapitanaarena, 251 aletan bakarrik argitaratua: Biak bere ez ziran gure erriarentzat egin, izkuntzalarientzat baiño.

Gure gizaldi onetan or daukagu aita Olabide jesuitarena, euskera standar baten euskeraratua, eta badirudi ez dauala errian arreta ta erantzun andirik izan.

Benetan erriarentzat, euskalki bateko erriarentzat, erriak eskatuta egiña ez dogu aurkitzen besterik Kerexetaren *Euskal-Biblia* baiño, erri orren euskerara itzulia, eta

erri orren zelako euskerara. Entzun deiogun itzultzaillari berari: «Alegin biziak egin dodaz euskeraz jartean, al bait ulertterazena izan dadin... Orraitiño, obeto ulertzearen, naiz-ta azaleko lanaren itxura ta dotoretasuna galdu —sarritan mako-barruetan itz errezagoa— edo jarten dot, batzui eta besteai eder egin naiez, erri xeari onurakorra izan dakion, batez bere». Itzok aitatuaz, Mitxelenak bere egunetan zorionak emoten eutsozan itzultzaillari, Bizkaian erruz saldu izan dala eta andik kanpora zabaltzea merezi leukela autortuz.

Autor au egiten Mitxelenak Kerexetaren lau ebangeliak Egan-aldizkarian aurkeztu zituenean. Azatz beretik eroan eban bere itzulpen-lana Biblia osoan, alan bere, gaur nekez entzungo edo irakurriko dogu, Bizkaitik kanpoko idazleetan, Mitxelena-renak lango zorionik. Gaur euskal alorreko giroa zantartuta daukagu. Bizkaiko euskerarentzat kabea ez dago zorionezko ta gorasarezko opillik erretako.

Hiperbizkaiera edo saio-ueskera dalakoa ezarriko deutsoe lenago gorasarrerik egin baiño. Orain saio-euskerarik saio-euskerarena darabilenak, gaiñera euskera traketsa, benetako euskal-gaiztoa askotan darabilenak nongo euskera jatorra saio-euskeratzat salatu eta bazertu bear dabe?

Peru Abarka liburuko euskera hiperbizkaieratzat emon dabenak ez dabe euskeraren izenean itz egiteko eskubiderik.

Jainkoaren itzari muzin egiten deusanak, bear bada, ez dabe Kerexetaren *Euskal-Biblia* aintzat artuko. Guztiak ez dira Toribio Etxebarria sozialista andi eta zintzoaren urrengo autorkuntza au bere eurena egingo:

«Dozena bat liburu badituraz berriz urtero
geroagoak ta maitiagoak ostera irakurri ezker:
Baiñabat - Biblia Sacra - nere bizi guztirakua,
milla urtetan baneu be ezin agortutakua.

Eurak urtengo dabe galtzaille. Kerexetak munduan dan libururik irakurriena, zabalduena, Eibarko Etxebarriak esan ebanez, egunero irakurrita bere maiteago dana, ezin agortuzko atsegiña emoten dauana ipiñi dau Bizkaiko euskaldunen eskuetan, euskal literaturak geroan azterrenik eta oiartzunik itxiko badau, euskeraz egin dan lenengo itzulpen errikoientzat gogoratuko da. Opari eder au zor deutso Bizkaiak Kerexeta euskal-elizgizon eta euskal-zale gartsu eta jatorrari.

LITURJI-ITZULPENAK DIRALA-TA*

Donostian, 1971-aprillean

Karmelo Etxenagusia abade jaunari
Bilbora

Agur eta ondo izan.

Joan dan illaren azken-aldean Bilbotik onakoan, emen aurkitu neban zuk bialduriko karteak, eta bertan liturji-itzulpenen gora-bere ta auzia. Emen izan ziñanean ez genduan ezer aitatu, eta orain kartaz edo idatziz emoten deutzut neure erantzuna ta eretxia.

Gure itzulpenen arazo au oindiño lorrinxo dago, egon be. Ez dira, ez, askotan alkarregaz antz andikoak. Badakizu nondik datorren batzuetan bardintasun ori. Itzulpen guztiak ez dira alkar-lanean egiñak; Baionakoak lendik eginda daukez asko; giputzek be bai. Eta bai giputzok eta bai Baionakoak or bakotzak bereari eusten deutse.

Giputzek ez ete diran nago emen gogorrenak, setatzuenak. Eurak len egiñiko lanari ez dautse ikuturik egin nai. Jokabide au legezkoa ta zentzunezkoa ete da? Nik ezetz uste dot. Ez lengo, ez oraingo itzulpenak ez dira aldatu-eziñak, ez betirakoak. *Ad interim* , *ad experimentum* egiñak dira. Ori diño legeak. Eta lege oni jarraitzen deutse gu baiño geitxoago diran batzuk. Erri-izkuntzak apurka apurka jo bear ei dabe liturji-izkuntza izatera. Apurka apurka alegindu bear dabe orretarako itzik eta esaerarik egokienak billatzen. Au bein da barriro esan jaku. Orregaitik, beste izkuntza batzuk, frantsesak, esaterako, ainbatbider egin deutsez ikutuak eta aldaketak euren itzulpenai. Gero ta gozoagoak, ulerterrazagoak egin gura dabez. Guk bakarrik gelditu bear dogu

* Eskutitz onen fotokopia Aita Linoren paperen artean aurkitu dogu. Titulua geuk jarria da. (1971).

bein baten batzuk egiñikoetan. Baionakoak eta giputzek euren biderei eusten deuten lekuan, guk ez ete daukagu geure biderik artzeko eskubiderik?

Orrez gainera, gure irakurgaietan bada beste ezbardintasun bat, nozik bein, zati bardiñak ez itzultzetik sortua. Sarritan gogoratu deutset kopiatzailleai, versiculoren bat edo beste geiago edo gitxiago sartu dabela irakurgaien baten. Batzuetan zuzendu dabe; beste batzuetan ez. Olan sortu jaku iñoiz zerbait kendu bearra edo utsuneen bat bete bearra. Gogoan daukazu, bear bada, zeuk be, bein izan zan asarrea ta eztabaidea, olangoxe kasu bategatik. Norberak arrazoi guztia euki arren be, ez deutze autortu nai. Bataioko irakurgaietan Ezekieli guztiz okerreko gauzea esan erazo deutse, eta olantxe itxi dabe. Ori be bardin itxi bear ete genduan Bizkaitarrok?

Oraintsuengo irakurgaietan beste ezbardintasun bat agertzen da sarri irakurgai bakotzak gañean daukan laburpenean. Laburpen onen itzulpena kopiatzailleak egiña da, barruko testotik itzez itz artuta. Ez dira konturatu, antza, laburpen ori latiñez be ez deuskuela emon barruko testugaz bardinduta, eta laburpena besterik ez dala geienetan.

Alkar-lanean, guztiok batera egiñiko itzulpenai dagokienez, barriz, zer esan? Danak ez dira alkar-lanean egiñak. Bein baiño sarriago irakurgai batzuk gitxi batzuen artean itzuliak dira, ez dakit nongo mojaetxeen baten bat edo batzuk alkartu diranen baten. Irakurgai orreik non dira gatx izaten jakiten. Kopiatzailleak berak azken baten eskuetarutzen ditu. Olan guri be jazo jaku barrien itzulita olako utsunen bat bete bearra.

Baiña gure batzordearen lanak beste gatx bat daukie. Ez gabiltz Eleizeak ezarri dituen legeetatik zintzo zintzo be. Emen ez dogu betetan, esaterako legeak diñoan au: «Se han de constituir diversas comisiones o grupos de trabajo, compuestos por peritos en las diversas disciplinas interesadas, tales como Sagrada Escritura, teología, liturgia, pastoral, y especialmente en lingüística y literatura. Estos últimos, tanto en la lengua original como de la vernácula...» (*Instructio de interpretationibus popularibus*, n. 78).

Gure artean betetan da ori? Bada, bai, guztien artekoa dalako batzorde bat; baiña Bizkaitik eta Baionatik bat baiño asko geiago ez dabil. Eta zeñek agintzen dau? Geienetan, kasurik bearrezkoenetan, batek ebazten dau auzia, eskriturista batek. Eta bera zelango estua dan edozeñek daki. Bein baiño sarriago ikusi dogu Andiazabal jauna suak artuta, deadar baten esaten: Baiña, zer uste dozue? Frantziako itzulpenak egin dituezanak ez dakiela Eskriturarik, ala? Non da emen eskrituristen ekipoa, euren eretxiak jakiteko? Batena besterik ez da entzuten. Eskrituristen eretxia jakitekoa da; baiña onein esana entzunda, gero izkuntzalarien lana bearrezkoena; oneik ebatzi bear dabe ze itz eta zelango esaerak artu izkuntza bakotxean gauza bera egokien esateko. Olan jokutzen dabe erdal-itzultzailleak. Oraintsu agertu da artikulua bat, erdal-itzulpenetan diarduen euskaldun batek eginda (Mujikak). Ikustekoa da norañoko nekeak artzen dituezan testo baten sasiak garbitzen, zelango ebaiketa eta biurketan egiten deutsezan S. Pauloren esaera luze, oker biurriei, errazago jarri arte. Itzultzailleak, itzultzaille on izateko, egin bearreko lana da ori. Guk ibilli bear dogu emen iñok baiño estuago. Beste izkuntza orreik, latin eta griegoaren alabak izan arren, ez dabiltz euren amaren jantzi-magalai loturik; eta guk ibilli bear orreik baiño lotuago.

Oraintsu entzun deusat emengo liturjista bati (Etxezarreta jaunari) Gaztafiaga jaunaren bideak estuegiak dirala, eta utzi egin bearko dirala. San Paulo Apostoluaren itzulpen batzuk negargarri ei dagoz. Auxe bera entzun ei eutsan itzulpenen kopia-tzailleari (inprentarako kopiatzailleari), napar bati, eta zati batzuk kopiatu beharrak min emoten izan ei eutsan berari. Apaiza izanik, ezin berak ulertuta, esaten ei eban, zer ulertuko dau emen erriak? Kopiatzaille onek iñoz berak zuzenduazo dau esaren bat, erdaldunen itzulpena irakurri ta gero. Giputzek bere ez dabe danak pozik ikusten egin dan lan guztia.

Neuri be bardintsu jazoten izan jat: ezin gauza asko egozan moduan itxi. Eta beste irakurgai askotan, leen egiñikoetan eta, bardintasun andirik ez dan ezkeru, zergaitik emen bere askatasuntxoagaz jokatu.

Nik egin dodan lana ez diñot akats bakoa danik. Obeto egin leitekezala badakit. Eta emen agertzen da gure arteko beste oker bat. Arlo onetan zeñiek dauko aginpide osoa? Gauza jakina da Obispoen eskuetan dagoala dana. Obispoak batzorde guztien gaiñetik dagoz, egon. Ez da batzordearena azken-itza. Eta batzordearena ez bada, gitxiago batzordeko sail batena: giputzena. Obispoak batzorde barriak sortzeko be eskubide osoa daukie: «Si la autoridad (Obispoena) quiere corregir un proyecto, lo pedirá a la Comisión, que elaborará otro; o bien lo encargará a una nueva Comisión, más idónea, y no menos preparada desde el punto de vista científico».

Eta gero, «Comisión Mixta», gurearen antzekoa, aitatuten dauanean, jakingarri da legeak «Comisión» orren ondoan «el Secretariado Coordinador» bat be aitatuten dauala; eta onen eskuetan isten *ad interim* diralako itzulpenen ardurea.

Orra, ba, ainbat gauza gure artean errenka ta erdizka dabiltzenak. Giputzek ez daukie onetan errurik txikiena. Batzordeko giputzak beintzat. Eurak dirala-ta, lengo irakurgaietan ez dago batasunik egiterik, eurenak artu ezik. Eurenai ikuturik egiteko ez dagoz, betirakoak balira lez, gaifiera. Eurenai barriro begiturik be ez. Eginda dago eta kito.

Alkarregaz egin diran irakurgaietan be badakigu geienetan nok ebazten dauan. Len esan dodan lez, ez dagoz danak pozik. Orregaitik edo, baten batzuk ba dabiltz beste batzorde bat sortzeko alegiñak egiten, salmoetarako beintzat oraingoz. Eta gero, bear bada, danerako.

Eta olango zerbait egin bearra ez dagoanik ez dot nik esango. Oraingoa baiño beste oiñarri bat bear dau gure batzordeak. Eleizak emon deuskuzan bideetan sartuta. Eleizaren legeak alik ondoen aituta. Nik esango neuke emen be badala gure buruetan naastetxo bat. Ez dogu aitzu bear norako emon dituen Eleizeak bere arauak arlo onetan. Zabalera andia ta mundu guztian batasuna eginda, nolabaiteko batasuna eginda dauken izkuntzetat egiñak dira, batez be. Alantxe esaten eban Lerkaro kardenalak batasunerako lenengo arauak emoten ari zanean, batez be izkuntza nausi ta zabalduentzat dirala (ingles, español, frantsez, italiano, aleman eta olakoentzat). Eta ez eutsan izkuntzari berari begituten, ekonomiari ta egokitasunari baiño.

Gure kasua ez da izkuntza orreina. Bear bada, ondo etorriko litzakigu katalanak zer jokabide darabillen jakitea. Arein kasua gurearen antzekoagoa da. Eurak iru

batzorde daukiez, lengo baten liturji-aldizkari baten irakurten zan lez: Katalufian, Valencian eta Mallorcan. Eta zelan edo alan batera dabilta.

Izkuntza nausi ta batuenetan be liturji-batasunak bere neurri ta mugak daukoz. Eleizea ez dabil bere legeetan batasun utsaren billa. Gurean gitxiago, nik uste.

Onek ez dau esan nai, batasun-batzordeak bearreakoak ez diranik. Edozeiñek daki, izkuntza bateratu baten barruan be, bakoitzari berea egiten itxi ezker, taldeka lan egin barik, ez-bardintasan andiak sortu leitekezala itzulpenetan. Ain bateratuak ez diran izkuntzetan, askozaz andiakoak. Orregaitik, batasun batzordeak ondo dagoz, alik itzulpen bardiñena egiteko. Ez dot uste Eleizeak guri geiago eskatzen deuskunik. Izkuntzak ain bardindurik ez dagozanean «cuando ha de prepararse un texto común para varias naciones, han de tenerse en cuenta las exigencias y la mentalidad de cada una de ellas». Onek, gure arterako, zer esan nai dau? Gitxienez, Eleizea ez dagoala gure euskalki literarioen aurka.

Eta beti euki bearco dogu gogoan oindifio erri-liturjia, erri-izkuntzen liturjia sortzen dagoala, bidean doala, ez dala azken-mugara eldu. Ez daigun aiztu orainarteko lanak *ad interim* egiñak dirala. Batzuk emen ez-jakiñean dagoz. Beste batzuk, barriz, ain zuzen, orrexek bildurtuta: neke larregi emongo ei leuke atzera ta aurrera ibilteak, len egiñiko lanak zuzentzen. Baiña begiak isteaz be ez dogu ezer aurreratuko. Ain zuzen, orixe gura dau Eleizeak: gauzak astiro ta patxadaz egitea. Epea eskatzen deusku; gaurko lana biar obeto egiteko bideak zabalik nai ditu. Batez be, erdaldunen lanak aurrea artzen deuskuela-ta bildurrak jota gabiltz. Ortik datorrela uste dot, zelanbait, giputzen atzerakuntza be, bein egiñiko ezeri begitu be ez egiteko. Nik dakidala, bein bakarrik zuzendu eben zeozer, txarto egoala autortuta. *Error corrigitur ubi deprehenditur*, esan eban orduan batek.

Gauzak olan dirala, ona nire eretxia ta jokabidea: Batasun osorik ez dogun ezker (batez be len banan egin ziran itzulpenetan, Baionakoak eta giputzek bakotxak bereari eusten deutsela); ez dogula bildur andirik euki bear bizkaitarrok geuk bere geure ezbardintasanak sartzan badoguz. *Magis et minus non mutat speciem*. Pekatu bardintsua daukagu guztiok be. Orrek gogoratuko leuskigu oraindiño batasun-bidean gagozala; oindiño gure itzulpenak ez dirala *ad interim-ekoak*, beinbeñekoak baiño; eta batasunaren bideak, itzulpen obeak egiteko bideak zabalik daukaguzala, ez itxita; batasuna geroagoren baten aurkitu bearco dala. Ez dogu larregi estutu bearrik, oker gabiltzela-ta. Oker bagoaz be, geuk ez daiguzan gauzak okerrago jarri, dana beingoan egin bearrez.

Auxe da nire eritxia, ona edo txarra, okerragoa edo zuzenagoa. Irakur guztien batasunaren antzekorik ezpada, zergaitik estutu beste nonbaiten aruntzago edo onuntzago gabiltzala-ta?

Ez dakit zuk zer eritxiko deutzazun. Zeuok erabagiko dozue naien dozuena edo egokien dana. Zeuon buruen jabe zarie orrenbeste egiteko. Amen.

Agur eta agindu adiskide kar-militar oni.

V

**KONDAIRA ETA BIOGRAFI-ARTIKULU
ETA OARRAK**

PEDRO MADARIAGA*

XVI g. mendeko euskaldun euskalzalea Erdalerrian

Alkar-legean artutako erabagi batek jarten nau gaur zuen aurrean izlari. Gure alkarteko bakotxari itzaldi bat egin bearra ezarri jako, alkartekotzat egoteko eskubide osoa izango badau. Atsegiñez autortzen dot alkateak zuzen eta bidez erabagia niretzat eginbearrekoa eta agindua dala.

Badakit, gaiñera, erabagi orrek indar berezia dauala, ni berariz artzen nauana: lenengo itzaldia nik egin bear ei dot: nik emon bear ei deusat asierea gure arterako emendik aurrera lege izango dan eginbear oni.

Emen nozue, bada, guztien gurari edo erabagiari neure baiezkoaz erantzuten, zuen esanera neure burua jarri eta zuon mendeko egiten.

Gogoak erraz eta neke andi barik emon dau baietza. Itzaldia asita dago eta orain arte dana izan da erreza, bide laua, goitik berakoa. Itzaldia erabagiterakoan, orduan, or izan dot nekea, or asi jat aldatza, goitik berakoa. Zein gai artuko buruari azka egon ondoren, luzaroan ezbai egonda gero, azken baten, antziñako urteetara jo eta gai zar edo aspaldikoa aukeratu dot.

Olan obe baiño ez. Antziñako gaiak eztabaida eta burruka gitxiago sortzeoak ei ditugu. Buruak batzuk otzago artzen ei ditu, eurak aztertu eta jorratzean, griña-giro gitxiago sortzen dabe, bai aztertzallegan, eta bai entzule bai irakurlearen barruan.

Gero, lenera begitatzea askotan inguruan bizi doguzan istilluetatik igezka ibiltea bada bere, beste askotan zentzunezko jokabidea izan daiteke; leena gaurko arazoan eta gerokoen argigarri izatea jazo daiteke. Zergaitik ez, bada, nozik bein atzera

* Berbaldi au argitaratu barik dago. Antzekoa baiña laburragoa eta erderaz argitaratu eban 1966.ean: BRSVAP (ik. L. AKESOLO, *Idazlan guztiak*, 1083-1093. orr.).

begiratua, antziña gizon eta gizaldien barruan gogoia murgildu, argie-eske eta eredu-billa?

Nire itzaldi onek atzerantza begira jarri nai zaitue. Norantza eta noraiño? Amaseigarren eun-urteraiño. Orduko gizaldia euskalzaleentzat oso begikoa da, euskal-literaturearen lenengoko itxarkundearena, Etxepareren oiuz euskereak gizaldiak zearreko ixilla urratu ebenakoa.

Eta Etxepare ez daukagu an bakarrik. Aren inguruan izen-mordoa dago, euskerea lantzen gei-gitxi, zelan edo alan, jardun ebenen izenak ornidua. Batzuen lanak galdutzat dagoz: beste batzuenak zori ohea izan dabe eta bizirik dirae. Elso, Leizarraga, Garibai, Betolaza eta euskal-esaerazko lenengo liburuaren egillea edo moldatzaillea izan dira ospetsuenak eta ezagun bakarrak oraintsurarte; gaur izen-zerrenda orri izen barriak geitu jakoz: Landuchio, Amendux, Joanez Etsegarai, Arnau Legraz, eta Undiano napar olerkaria.

Nik beste bat dakart itzaldi onetan zeuen aurrean aztertzeko. Euskalduna da, Bizkaiko semea, arratiarra, baiña Valenzian jarri da irakasle Erdaldunen artean. Erderaz idatzi dau baiña Bizkaia, Euskalerrria eta Euskerea ez ditu saldu eta ez daukaz saltzeko. Euskalzaletasuna alde guztietatik dario. Euskaldunak euskalzaletu eta auskeraz eztera ekarri gura leukez. Euskal-ortografiazko eta euskal-oguzkerazko lenengo argitasunak emona dogu. Izenez eta abizenez Pedro Madariaga, Dimako semea, Obako auzunean jaioa. Orra nire itzaldi onetako gizona.

Parkatuko la deutzazue arratiar oni, Obako seme oni, bere errikide eta auzokide orregan begiak jarri eta bera gaitzat artu izana, zuen belarriak aren aitamenez eta eder eritzez aspertzeko. Gizon onek itxi euskuzan irakatsiak euskaldunok beti gogoia izatekoak dira eta esango dodana ez al da zuen gogaikarri eta aspergarri izango.

Onenbestez, naiko dot itzaurrerik eta banator arira.

Madariaga, nor?

Pedro Madariaga au Kaligrafoen artean da ezagun eta entzutetsu. Amaseigarren mende atan Bizkaiak kaligrafo andi bi emon zituen: Joanes Iziar durangarra, eta Madariaga, Arratiako semea. Urtez alde andirik eztauke. Madariaga amabost bat urte gazteagoa, eta bestearen, durangarraren eskolan ikasia. Biak autortu dabe euren jatorria; baktxaren izenaren geigarri Vizcaino ezarrita, euren buruak bizkaitar edo, bardintsu dana, euskaldun egin dabez. Orduko aldietan oitura zanez, biak baktxa bere aitapontekoen edo aitabitxi edo osaben besotik datoz. Aitabitxi onein zeregiña ez zan besterik, euren semetzakoen izenak, bertsoz edo itz-lauz, alik goren jasotea, latiñez naiz gaztelako erderaz. Gure kaligrafo bien omenez bertsozara jo dabenak erderazko nai latiñezko bertsoz goraka eta zorionka datoz bai Durangori eta bai Arratiari. Puska bat edo beste zelanbait euskeratuta, ona zelango tuntuna darabillen:

Gaur, Arratia, asi kantari,
ez zaitetz iñon lotsatu,

seme batek gaur zaitualako
 mundu osoan famatu.
 Eskribauetan, Bizkaia, zuri
 gorengo mailla dagotzu
 Iziar eta Madariaga
 izar argi bi dituzu.

Labantxo diardue erdal-idazleok benetan euren bertsoa euskaldunen alde, Madariagaren liburuan batez be. Noz ikusi ete dira erdaldunak olan, ain ao batez, euskaldunak goratzen? Eta eurai, erdal idazleoi, zor deutsegu beste gauza bat jakitea, gure kaligrafoen jaioterriak jakitea: Durango eta Arratia. Iziar-ek eta Madariaga-k bizkaitarrak zirala besterik ez eben autortu.

Autorkuntza onetan biak bardintsu jokatu dabe. Bizkaitarrak biak, baiña Madariaga bizkaitarrago, euskaldunago. Euskaldun, bizkaitar bakarrik ez, euskerearen maitatzaille eta euskalduntasunaren suspertzaille agertuko jaku, eta ortik guretzat maitagarriago eta begikoago.

Ikasle eta ibiltari

Madariagaz (eta bardin jazoten da Iziar durangarragaz), berak bere liburuan ereinda itxitako barriez besterik ia ezer ez dakigu. Zer au ikusten da argi baiña argiago: oso gazterik asi zala eskolarik eskola, atzerririk atzerri ibilten. Lenengo atzerria, bearbada, Zaragoza. Berak esanik dakigu Iziar durangarraren eskolara ibilli zala; beraz, Zaragoza-ra, Iziar irakasle egoan urira jo ebala uste izan geinke. Baiña urriñagoko atzerrietara be jo dau: España guztitik, Frantzia eta Italiaraiño. Zerk eroanda? Jakingureak, ikasinaiak eroanda. Zer ikazteko? Ezagutu ebenak jakintza guztien zale agertu zala diñoskue. Baiña Italia kaligrafo onenen lurra zan ezkerro, ango kaligrafi-eskolen aurrerakuntzen jabe egiteko asmo bereziaz Italiaratu zala esan geinkela badirudi. Genova, Bolonia, Erroma eta Milan, lau uri andiotan egotez egon eta eurretan ezaupideak egin zituen. Noz ibilli da andik? Bein urtea izentau dau, 1559 garren urtea, Milan-en da. Beste bein gitxigoraberaka diño: Orain bost edo sei urte, Genovan nintzala. Eta beste bein, urtearen zenbakarrenik barik, «Bolonian, ango izlari ospe andiko betekin niarduala...». Aita Santua Boloniaratu zan baten be an da bera. Frantzian zein urtetan izan dan ez deusku esan: baiña bai Avignon-en izan dana, ain zuzen, judutarren siñagogetako eskolak ikusten, Erroman egin eban lez.

Ibillaldi guztiok ogeta bost urtez berako adiñean egin ditu eta leku askotako gizon, eskola eta oiturak ezagutzeko erea emon deutse.

Madariagak emon deuskuzan argitasunotan gauzatxo bat gelditzen da illun: ara ta ona guztiok, joan-etorri guztiok noren laguntzaz edo zelan ordainduta egin dituen. Gaurko barri-aztertzaileak ori jakin gurako leukee: non dan idazte guztion eta ostera guztion diruzko oiñarria. Illuntasun au urratzeko argi-printzarik ez deusku itxi. Gudari ibillia eta delakoa aitatu dau bat edo batek. Uste-muste onek ez dau egia izateko

itxura ñondik ñora. Berak ez dau gudari-bizitarik aitatu be egin. Gudari-bizitza eta berak erabili dauan idazte-bizitza alkarregaz nekez batera egitekoak dira. Ume-umetarik eskolara ibillia, geiago ikastera emona izan zala, eta beti argi berrien billa emon zituela gaztaroko urteak, ori bai autortu dau, baiña gudaritzarenik tutik ez. Bera ezagutu ebenak be jakin-gurea eta ikasi-naia bere bizi guztiko geixo edo joneratzat ezagutu eutsen. Alan, Pedro Diaz de Morante-k lez, «gizon asko ikasia, ikasle amorratua» egiten deuskue.

Valencia-n Irakasle (1562)

Orra zelan joan zan Madariaga-ren gaztezaroa, eskolarik eskola, atzerririk atzerri, beti ikasten, 1562 garrenean Valencia-n, ango Eskola Nausian, kaligrafi-eskolea ipiñi eban arte; andik aurrera Valencia-ri lotuta biziko da. Iru urte geroago, an bertan bere liburuan emongo euskun, (*Honra de escribanos*), bere irakatsiak ezauerazo eta zabaltzeko. Arrezkeroko barririk ez jaku gelditu, edo ez deuskue emon gaur arte. Valencia-n ezkondu zalakotzat dago. Valencian praille eta idazle ugaria izan zan Juan Madariaga, beintzat, gure Pedro onen semea dala uste izan dabe batzuk. Ortik aurrera, ez noz il zanik, ez ezer. Berak bere liburuan emondako argitasunetatik urten ezker, illunpean gagoz. Beronen antzi-irudia osotzeko, esanbearra dago oso elleizkoi eta kristau-bizitza jatorreko agertzen dala. Alan, alkar-izketa baten teologo on baten sakontasun eta seastasunez diardu eukaristia dala-ta, eta berak illean gitxienez bein edo birritan Jauna artzeko oiturea eukala autortzen dau. Aldi atan kristiñau gitxik euken oiturea, benetan.

Obako seme

Orraitio, Madariagak bere liburuan argi baiño argiago adierazotako zertxo bati ia ñor ez jako oartu: zein dan jaio zaneke erria. Bizkaiko semea zala, arratiarra zala, ori bein eta berriro guztiak esan dabe. Baiña Arratiako zein lekutan jaioa? Itaun au euren buruai egiteraño be ez dira eldu. Erantzuna, baiña, naiko argi euken Madariaga-ren liburuan. Dimako semea da, obako auzunean jaioa.

Nik ez dakit, ala bere jaiotetxe eta auzunean izena goratzearen, ala urriñeko erdaldu irakurleai adarra jotearren, ala zergaitik idatzi zituen Madariagak urrango lerrook: «Y solas estas vocales, OA, así juntas, significan un principalísimo pueblo de Vizcaya al pie de Axmutil, donde está situado aquel antiquísimo solar de Madariaga, en cuyas almenas tocan los primeros rayos del sol de toda aquella Provincia cada mañana, y a quien mira toda Arratia y Vizcaya hasta la barra de Portugalete».

Ezin ukatu, Madariagak, lerro orreik idaztean, batetik egoak jarein eutsazala bere irudimenari. Eta bestetik, or bere jaiotetxea eta auzoa, eta auzoaren ingurumariak ixentau dituala.

Or da Oba (emeratzigarren gizaldirarte Oa idatzi izan da oraingo mapetako Oba: or da Madariaga. Arratiako zein erritan? Dima'n. Oa edo Oba, Kofradi bitan ba-

nanduriko auzoa, eta gaur be alde bi dituena, goia eta bea, auzokoen agotan Goiendi eta Barrendi, edo Oagoiena eta Oabarrena. Obako auzu orretan, or dago gaur be antziñatik arako etxe ori, Oba sortu zanetik arakoa, gitxienez. Or dago Axmutil, Durango eta Arratia bitarteko ax-tontorrik gorenetakoa, eguzkiaren izpiak goizero Bizkaian lenengo joten daben tontorra, azpian Oba eta Arratia eta Bizkai osoa Portugaleteko barraraiño begipean daukana.

Madariagaren itzetan ez dago guzurrik, ez da dana artobero-usaifia. An, Valencia urriñean, erri-miñak jota, dabilkigu or Obako semea, bere umezaroko eta gaztezaroko gomutak barriztau eta ausnartzen. Ezagun dau bein baiño geiagotan igona dala Obaganeko atxetara, mendigoizale antzean, edo Atxostera Durango aldera bidean. Eta an, gorengo tontorretik, Larreugandik, edo Obara begira dagoan Axmutil-dik, «zabalzabalik begiak», Bizkaiko eta urriñagoko bazterretara begiak zabalik une gozoak izan ditu. Ara igon dauanak ikuspegi zabal zoragarria dau begipean. Bizkai-Gipuzkoako mendigaiñik garaienak (Gorbea, Anboto, Aizkorri, Txindoki, Ernio Izarraitz, Oiz, Sollube, Ganekogorta eta Orduña-aldeko atxak eta urriñagokoak) euren euskerazko izenakin, alkarri agurka eta egun-onka lez agertzen jakoz; Poitugaleteko itxas-urak euren disdisa ekarten deutse begietara.

Ikuspegiok ondo gogoan sartuta gelditu jakoz Madariaga-ri bere bizi guztiko eta berak ikusi ez dauanik ez deusku esaten. Eta nok daki ez ete eutsan azkenengo agurra andixetik, Axmutil-gaiñetik ez ete eutsan azkenengo agurra bere etxeari, bere auzoari eta Bizkaiari eta Euskalerrri osoari, atzerrietan zear jakituri billa ibiltari joateko. Goizalde baten izan zala uste izan geinke. Goizean goizik Durangora bidea artu dau, mendikoa, antxiña Atxostera joateko bide bakarra. Gora eldu danean, an urriñeko osertzean, «eguzkiaren agertze miragarria» da. Andik ikusi dau azkeneko aldiz eguzkia sortzen eta, berak esan deuskunez Bizkaiko mendi-gaiñak, Axmutil eta Larreungane bera, eguzkiaren lenengoko izpiakaz goritzen. Gero bere Oba, bere Arratia, eta Euskalerrria be begietatik galduko ditu, baiña ez gogotik eta biotzetik. Orra or lekuko Bizkaiko semeak Bizkaiari eta Obako semeak Obari eta Madariagari berba labur baiño beroetan egin deuten omenaldia, bearbada neurritz aragokoa, biotzak eragin deutsalako.

Kaligrafo eta idazle onen barri emon dabenak beronen liburuko lerro orreitan auxe ez dabe irakurten jakin. Gure egunetako bat, izkuntzalari eta kritiko ospetsua eta Ameriketean Irakasle andi izana, Amado Alonso, nabarra berau, bide erdian geldi jakun. Oa baserriko semea zalakoa atera eban, baiña Oa ori ez eban iñongo jeografitan aurkitzen. Ez ekian Oa eta Oba auzune bat beraren izenak ziranik.

Bizkaiaren eder-erakusle

Bizkaiko seme onek bere burua bizkaitar egiteari ez deutso naiko eretxi. Bere biotzak geiago eskatu deutso Bizkaitarren omen ona kanpotarraiz ezagutuerazteko eta arein aurrean geitzen alegindu da. Bere liburuaren lenengo eta irugarren saillean egin dau, batez be, ori. Ikusi zelan.

Liburu osoa alkar-izketaz egiña dago. Eta, lenengotarik asita, alkarregaz diarduenen artean, erdaldunik aña euskaldun sartzen dau. Bakotxaren abizenak salatzen dau bakotxaren jatorria: Balzola, Bergara, Alegria, Ibarra, Urkizu, Gebara, Aiala, Ganboa, Ofiez, alde batetik; eta, bestetik, euskaldunon aurrez aur, erdaldun izenmordoa: Manrique, Lara, Sepúlveda, Sagunto, Monteros, Petronia eta abar. Guztiak darabilen gaia, kaligrafiaren, eskuz idazten ondo jakitearen onurak azaldu eta goratzea. Kaligrafi-eskolan, eskribau-lanetan, bizkaitarrak, euskaldunak maixu eta nagusi agertzen dirala ia esan bearrik ez dago. Erdaldunak orretan, Madariagaren alkarizketaldietan, euskaldunen aurrean txapela erantsita aurkeztuten dira, nagusitasun eta maixutza ori guretarrai gogoz autortzen deusela. Valenziar batek, bizkaitarren egoera ohea autortzean, tamalez diño eurak euren errialdeetan ez dabela «zuek Bizkaian dozuen aukera onik». Madariagak alkar-izketadunen agotan bere eritxiak sartzen ditu. Bizkaian ba-ei da kaligrafi-maixu izatetik ontzi askoren jabe aberats egin danik. Erdaldunak ez tizan dagoz euskaldunen agotik kaligrafiaren goragarrizko itzak entzuten: akats mingarritxo bat dauke, euskaldunak euren berba-lagun erdaldunentzat: itzetan urri izatea, berba gitxiko izatea. Berbatsuago balira, erdaldunentzat obe. Iz-tunago eta pozago entzungo leuskioe euskaldunai, luma onaren onura eta gorantzak azaltzen.

Tartean tartean, itzak izpidea ekarrita, edo ari etorri nai etorri ez, Madariagak Bizkaiko oitura eta gizalege batzuen barri be emongo deutse erdaldun irakurleai. Esaterako, bizkaitar bati ez dagoela gorputzeko oiñazerik emoterik, ez Bizkaian, ez Bizkaiko jaunaren iñongo menderritan.

Baiña, Oñez eta Ganboa berba-lagun diran lekuan, Euskalerriko alderdikeri zorigaiztokoan aitamena be berez dator. Ganboak Oñez-i onelan itanduten deutso bein: «Noztik ona Oñez eta Ganboa ondo alkarturik ikusi?» Itauñ ori ez da Ofiez-en gogokoa, erantzun zorrotz onek erakutsiko deuskunez: «Ganboa jauna: Itxi daiguzan Euskalerriko alderdikeriak alde batera; ondoren onik ez dakarre; gu ikasten diardugunak gara, eta nik dakidanez zu be luma onaren alde zagoz, eta onetan ez Oñeztarren ez Ganboatarren konturik aiatu. Euskalerraren izen onarena eta munduaren obekuntzarena baiño, eta zeugaz batean, orretxen alde jokatuko dot nik». «Bai, jarraitzen dau Ganboak gero; idasteko zaletasunak alderdikeri guztiak aitzu erazo egiten ditu, eta aitorren semerik ez da ibilliko arrazoizko danari lepoa ukatuten; ekin-bada, zuk arrazoizkotzat daukazun bide orri».

Bizkaia izentetan da beti Madariagaren liburuan. Baina orduan oitura zanez, badakigu Bizkaia izenpean Euskalerrri osoa artzen zana, eta askotan alan aitu bear da gure kaligrafoaren itzetan. Bein argi ta gargi urtetan dau Bizkaiko mugetatik. Sortubarria zan orduan Oñatiko Ikastetxe Nagusia, Mercado de Zuazola oñatiarraren eragitez. Madariagak Bolonia, Paris, Salamanca eta Valencia-ko Ikastetxe nagusiakaz batera eta onein lerro eta maillan izentau dau Oinatikoa. Eta erriaren izena olantxe aiatu bere: Oñati.

Euskalerrria beti gelditzen da Madariagaren liburuan ondo eta goi. Eta bere erriari ertsan lege onaren agergarritzat atera geinke, bear bada, urrengo au: Liburua Felipe bigarren erregeari eskeñi deutso eta eskeintza orretan, Liburua Valencian idatzia eta

argitaratua dan arren, erregearen izenaren ondoren, Españaiko eta Mundu Barriko Errege eta Bizkaiko Jaun Titulutzat ipini. Atzerrian irakasteari eta jakintza utsari eder-eretzita bizi izan zalako onek ba-ekian biotzari eta odolari berea emoten eta Euskarriaren izen onari begíratzen.

Uste izatekoa da liburuaren abertzaletasun-alderdi au gogoan euki ebla amazortzigarren mendean Euskalerrriaren Adiskideak (Real Sociedad Bascongada de los Amigos del Pais-koak), liburu orren beste argitaraldi bat ordaintzea erabagi ebe-
nean, Palomares-ek prestanta. Jakiña, beste balioa, jakintzazkoa aitzu barik.

Jakintza-alderdia aitatu dot. Eta alderdi oni, gain-gainetik baño ezpada bere, begiratu bat egin bearko jako emen. Ain zuzen, kaligrafia irakasteko jakintza bide bat aurkitzeko asmotan ibilli da Madariaga, eta asmau dualako uste dau. Irakasgai eta jakingairik geienak jakintza-bidezko lege eta araupe batzuetara ekarrita ikusi zituen, oso goiz eta gazterik. Filosofoak Aristoteles dabe euren maixu andi; izlariak, Quintiliano; gramatika-irakasleak, Nebrija; oneitariko bakotzak bere jakintza-arloan oiñarrizko lege ta arauak ipiñi ditu, jakintza-maillako ikasbidea ezarri. Kaligrafi-irakaskintzak ez dau oraindiño olango maillarik jo. Aurreko maisuak egiña ez da gauza utsa; Iziar durangarrak ipiñi deutsa emen aurrekoak egiñari gallurra, baña dana bere ez da Madariagarentzat naikoa. Atzerririk atzerri jakintza orren billa ibilli ondoren, berak uste dau aurkitu dauala billatzen ebana, kaligrafia jakintza maillara jasotzeko giltza. Eta orixe irakasten diardu azkenengo iru urtetan. Eta ondorenik opagarrienakaz, bere ustez.

Ez dot jarraitu nai kaligrafiaren oiñarri-legeak zertan dagozan azaltzen. Marra bi edo iru egiten idaztea ei da or gorabera guztia. Izki bakotxean, letra bakotxean oiñarri legeok zelan beteten diran azaltzen alegindu da bera, liburuaren bigarren zatian zear. Ez ziran berak emondako argibideak guztien gogoko izan. Ez urrik emon bere. Alan bere, ez eutsen gizon jakitun eta kaligrafi-maixu andi-izenik ukatuko; ez orduan ez gero.

Ortografi-saiIIa

Liburuaren irugarren saillean sartzen naiz orain, euskal-ortografiako kapitulutxo batez amaitzen dan saillera. Sail onetan Madariaga bere aritik kanpora dabillala dirudi. Emengoa ez da, beintzat, kaligrafi-arazoa, ortografiarena baiño. Gai au, alan bere, ez dator guztiz aritik kanpo. Kaligrafia, ikastearen osagarri egoki dator, etorri bere, ortografia ikaztea, au da, zelan edozein izkuntzan jator eta egoki idatzi. Orixen azaltzen aleginduko da emen kaligrafi-maixua, Quintiliano zarraren lege au aurrean dauala: idatzi oguzten dan eran egin bear dala, eta idazten dan eran oguzi. Quintilianorena dalako lege oni Madariagak geigarritxo bat ezarten deutso: oguzten dan eran idatzi esan bearrean, oguzi bear litzaken eran idatzi bear esanez. Ez ditu ontzat emongo, esaterako, Valenziarren oguzketa batzuk. *Scienza* esaten ei dabe *ciencia-ren* ordez. Ondo oguzten dabenen bideari jarraitu bear ei jako.

Legeok betetako izkuntza askotan, Gaztelakoan, esaterako, oker auxe aurkitzen dau: izkirik baiño, letrarik baiño soiñurik, ago-otsik geiago izatea. Ortik dator izkuntza

orreitan letra bikotxari, edo letra bat bakarrari ots bat baiño geiago ezartea. Oker au zelan zuzendu? Berak letra barriak asmetara joko leuke, eta asmau bere egin ditu erderarentzat.

Ala nai olan, *choro*, edo *machina* idaztea, latinezko jatorriari jarraituz orduan askok egiten eben lez, iñondik iñora ez dau ontzat emoten.

Erdaldunen oguzkerea bere, aldi atan, batasunik bakoa zan, letra askotan, zeatz erabagi bakoa. Letra batzuk ez ziran alde guztietan bardin oguzten. S, X, eta Z letrak ezbardintasun andiago edo txikiego erakusten eben alde batetik bestera. H-a errialde batzuk arnas-osduna euken, beste batzuk guztiz ixilla. *Dijo* ala, *dixo*, *ejemplo* ala *exemplo*, eta beste itz asko zelan idatzi eta zelan oguzi, gaiñera? Or egoan untzea, or ebillen istillua aldi atan erdaldunen artean. Non zelango oguzkerea erabillen, eta zein oguzkera zan egokiena, olango auziak ebatzi nai zituen Bizkaiko maixu onek, eta, jakiña, ez beti guztien gogora, olako eztabaidetan jazoten danez.

Kritikatzaile bat edo bestek akats itxusitxo ezarten deutse: bere burua agertu eta andi egin gurea. Berak asmautzat, edo lenengoz irakatsitakotzat emoten ei deuskuz, bein baiño geiagotan, bere aurrekoak jarritako lege bat edo beste. Guztien aurrelaritzat agertu gura ei dau, larregitan, bere burua. Lorrintasuna eta illuntasuna bere ezarten deutse nai dituen argibide eta zeatzasunetan. Onelangoetan jazoten danez, baleiteke illuntasun edo lorrintasun ori alde bietatik egotea. Badirudi askotan, beintzat, Madariagak esana kritikatzailleok ondo eta zeatzegi ulertu, edo esan ez dituen gauzak ezarri deutsezala berari.

Nik ez dot eztabaida orretan sartu nai, eta bego or auzi au, baldin emen auzirik bada. Gogoratu besterik ez dot egingo erdaldun kritikatzaille orreik euren izkuntzarako belarri txarrekotzat daukela eta euren maixutza beratzearren, bere izenaren aurretik *El vizcaino* ezarten dabela beti.

Euskalerriko erdal-oguzkerari dagokion argitsuntxo bat dagidan; Araban, bazter batzuetan beintzat, erdal-errietako leku askotan lez oguzten asita ei egozan erderazko itz asko, *o* esan bearrean *u* esanda, onetara: *halladu*, *amadu*, eta olan. Eta bere gogoa Euskalerrirantza zelan etorten jakon erakusteko, ona beste ageri bat: toki-izenak zelan idatzi azaltzen diarduanean, ez ditu euskalerrikoak tintontzian itxiko: Urkizu, Egiraun (azkenengo au Madariagak bere jaiotxetik aurrez aur beratxoago ikusten eban baserriaren izena).

Kapitulu onetako gaiñerako guztia edo geiena erdal-itzai dagokiena dan ezkerro, erdaldunen gauzak erdaldunentzat itxirik, goazen orain euskaldunentzat esan zituen gauzetara.

Lentxoago aitatu dot erdal-kritikatzaile batzuk Madariagari ezarri deuten arrokeria: bere burua erdal-ortografiaren lenengo irakasletzat artzea. Badaki beste batzuk bere azaldu eta jorratu ebela sail ori, baiña gramatikaren barruan eta an bere, ez bear baizen argi eta luze. Berak sakonago eta zeatzago azaldu ei dau. Ez dela egia arrokeri utsa dala? Nai dauanak nai dauana esan begi.

Baña euskal-ortografia lenengoz jorratu dauanik eta arlo onetan lenengoko argitasunak emon nai izan zituanik ez deutso iñork ukatuko. Liburuaren azken-kapi-

tulua, lekuko: «*De los inventores de las letras y de la orthografía en lengua vizcaina y cuán elegante y antiguo es este lenguaje*». Orra izenburua, asko esan-naikoa be-
netan, bear bada, izana izanetik urrun gelditzen bada bere.

Izan bere, gairik lar dago or, kapitulutxo baten astindu eta zeatzeko. Alan bere, ez dogu aitzu bearko aurreko kapituluetan azaldutako arau eta lege asko zelan oguzi, alan idatzi, letra bakotxari bere otsa, ots bakotxari bere letra, bere izkia, eta abar euskerantzat bere balio dabela. Edozein izkuntzatako emondako arauak gurearentzat bere emon ditu. Egia esan, guk geiago nai izango genduan; izenburua irakurrita gure usteak ustel urteten deusku. Egia da, baiña, bestetik, Madariagak or agertu dauan euskalzaletasuna eta gu euskaldunok euskalzaletzeko bota dauskun eztenkadea eta abar, garai atako soñu ekarrénak dira, eta gaur bere ez dabe euren balioa galdu.

Zer biño, baña, kapitulu orretan? Aztertu daiguzan eta ikusi eta or sartu dituan gai urtenenak. Asiera txukun dotorea emon deutse, Platonenak diralako berba batzuekin: Onela dator: «Platonek esana da gure izatearen zati bat, guk dogunaren zati bat adiskideai zor deusegula, eta beste bat aberriari. Orain artean, adiskideai agindua emon dot. Orain neure jaiotzetiko izkuntzaz beren berariz jardutera nator».

Lenengo gaia, idaztea noztikoa dan, gizonak noz asi ziran euren gogoetak zirrriborrotan agertzen, eta nortzuk izan diran idazkerearen lenen-asmazaille gai au, aldi atan zabalen ebiltzan eretxien arabera darabil. Madariagak Kaldearren idazkerea dauka zaar eta antxiñakoentzat, Adanegandik arakotzat. Eta euskera Kaldearren izkuntzaren senide egiten dauan ezker, izkuntza orren antzinatasuna, garbitasuna eta leguntasuna eta beste *tasun* guztiak ezarten deutsoz gureari.

Alan, kaldearren antzeko itz eta oguzkera asko aurkitzen deutsoz euskereari. Esaterako, K izkia amaieran dauken itz asko: *Zeruak, guk, zuek*, eta plural guztiak euskeran amaiera ori ei dauke. Jainkoaren izenari (*Jaikoa* idazten dau berak), Jehoua edo Jeobaren antza aurkitu deutso. Euskereak, ebrearrak legez, S batzuk Z egiten ei ditugu: alan, latíñez Missa dana *meza, mezea* egin ei dogu. *Erre* izkia itzen azkenean erre gogorra ei da. Esaterako, *uger, nadar; eder, hermoso; laster, presto. Ese* batzuk, miñaz aozabaia (aozerua) estu igurtzirik oguzten ei dira, esaterako: *etsea* (casa), *otsoa* (lobo), *atsoa* (vieja). Euskeraz oguzkera ori, euskerazko ortografian, S bi idatzita adierazten ei zan.

Kaldearren izkuntza dauka Madariagak eredurik onentzat beste edozein izkuntzentzako xeetasun askotan, esaterako, itzen aurrean. Aren antzera, euskereak letra bakarreko itz laburrak baditu: *A*, erderazko *aquel* esateko. *I*, erderazko *Tú* esateko. Erre letraren izenak, barriz, bere esan-naia dauko, *cosa quemada*, suak errea. Eta, letrazko salda onetan sartu deusku bera jaio zaneko baserriaren izena, O eta A al-karturik egiña, OA, «pueblo principalísimo de Vizcaya», len esan dodanez.

Euskerea izkuntza leguna ei da, ez ei dauko itzik dotore eta egokia ez danik. Esaerak bere oso labor eta argibide andikoak dituan izkuntza ei da euskaldunena. Adibidetzat, bat aitatzen dau berak: Guztian, adin ona. Zer esan nai dau? Edozertan erdibidea izaten dala onena.

Madariaga izan dogu, azkenez, euskerearen, edo beintzat, euskalki batzuen ots baten, sudur-ots baten barri lenengoz emon euskuna. N- noizik bein sudur-barrutik

lez oguzten ei da: *orazioa*, *ardaóa*, esaterako, eta Nori adierazoteko, marratxo bat, sudur antzeko kako bat ezarten ei jako urrengo *o* orri (*Oraziða*, *ardaóa*. Garibaik, Madariagaren urrengo, bardintsu esan euskun. Sudur-ots orrek N baten utsa, N bat galdudalako esan nai ei dau. *Orazionoa*, *ardanoa*..).

Onango zeetasun batzuk gaur be jakingarriak doguzala argi dago: beste batzuk irribarretxo sortuko deuskue, baña ezin ukatu garai atarako zerbait zirala eta euskalzale jator baten aurrean jarten gaituela. Euskaldunok ez genduan garai atan Madariaga gure gauzen aldarrilari txarra Valencian.

Baiña, batez bere, atzerri atatik emon euskun eztenkadatxoa, ez da, ez, aitzu eta ate-ostera botatekoa. Euskeraratuta emongo dot: «Ni ezin naz egon neure euskaldunakaz (bizkaitarrakaz) asarratu barik, euren eskutitz eta artu-emonetan euskerea erabiltzen ez dabela-ta; olan, askori sartzen deutse buruan euskeraz ezin idatzi leitekkelako ustea; euskeraz liburuak be argitaratuta egon, barriz».

Itz orretan euskaldunen aspaldiko gatx bat, gexo zar bat salatu dau: euskeraz idazteko lotsa, edo nagia, edo iguiña. Antxiñako gatxa, eta oraingoa. Betiko gatxa, eta betiko uste okerra: euskeraz idaztea gauza eziña dala, edo ez asko gitxiago. Etxeparek salatu eban uste okerra bera: «*Beste iendek uste zuten ezin skriba zateyen.. Zeren ezein skripturan erideiten ez paitzen...*». Madariagak uste ori euskaldunen buruetatik kendu nai leuke. Madariaga minduta dago euskeldunen jokabideaz. Bear bada, or zear ibilli danean, euskaldunik asko aurkitu dau, eta alkarregaz euskeraz egin dabe. Baña papera eta lumea eskuetan artu daben orduko, edozein adiskideri edo merkatar-laguneri idatzi bear badeutse, zergaitik erderara jo bear? Euskeraz idazterik ez ete dago? Euskeldunei euskeraz, euskaldunak elkarrekin euskeraz, ez da gaur asmaua. Gure arratiarrak asmaua dala esango neuke nik. Zergaitik ez euskeraz idatzi lagunak lagunari, Euskeraz idatzitako liburuak be badiranean?

Ona emen gure bibliografiako ezkutuki bat, oraindik zeatz aztertu bakoa. Madariagak aitatu dituen euskal-liburuak non dira edo zeintzuk ixan leitekez. Gogoan izan daigun noizko egunetan gagozan: 1565 garren urtean. Ogei urte lenago argitaratu da Etxepareren liburua euskeraz urten daben liburuetatik lenengoa, esan oi danez. Iru urte lenago argitaratua da Elso-rena, euskeraz eta erderazkoa. Bizkai aldetik urrintxo atereak dira, eta nekez elduko ziran Madariagaren eskuetara edo aren ezagutzara. Ez ete zan beste euskal-libururik atera? Madariagari siñistu eskero, baietz esan bearko dogu. Ez dogu edozelan bere ori siñistu eziñik.

Ezagutzen liburu biokaz, Etxeparengaz eta Elso orrenagaz jazoak argibidea emon leike. Etxeparek egiñaren ale bat bakarra ezagutzen da. Elsorerik bat bere ez. Beste liburu batzuk be ez ete dira osoan galdu, lorratzik itxi barik, geroagoko batzuekin jazo dan lez? Gauza eziña ez da.

Madariagak, gañera, Bizkai aldeko liburuen batzuk izentau nai dituala dirudi. Nondik atera dau, bestela, euskaldunak *Otsoa*, *atsoa* esateko, SS ese bi erabilten zituezala? Ots ori olantxe dago idatzita andik ogeitamaika urtera agertu zan Bizkai-kutsuko esaera zarrenako liburuan (*Refranes y Sentencias* izenekoa). Madariagak leenagoko liburuen batzuk izan zituen eskuetan, esan zituanak esateko.

Badakigu, urte batzuk lenago, Loiolako Santua bizi zala, jesuitak lan ederra egiten asiak zirala, ikastetxeak sortuz, Bizkaialdeko errietan, Oñatitik Lekeitioraño, eta kristiñau-ikasbidea eta kanta batzuk euskeraz irakasten zituezala. Orretarako, gitxienez, liburutxoen batzuk bearko zituezan, Elsok Naparroan atera ebanaren antzekoren batzuk. Orretarikoren bat euki zeikean gogoan Madariagak, idatzi ebana idatzi ebanean.

Alan nai olan dala, lotsagarri da eta mingarri berarentzat euskaldunak euren arteko artu-emonetan, edo eskutitzik edo ageririk egin bear dabenean, euskera ez erabiltea, euskeraz ez idaztea. Ganorabakokeri andi egizat dauka ori.

Euskaldunak euskaldunekin euskeraz, ori da Valenciako maisu onek euskaldunai ezarri gura deuten jokabidea, euskereaz itz egin, euskeraz idatzi.

Amaiseigarren menderantza atzeraka begiratzen dogunez, nok ez dau gogoratzen Etxepareren deia: Euskara, jalgi adi plazara, euskera, abil mundu guzira! Etxepareren oiua, Euskalerritik egiña, kanpora begira eginda dago, atzeritarrak txunditurik isteko asmotan egiña dala esango neuke. Madariagarena, atzeritik egifia, Euskalerrria begira egiña da, euskerearen bizia gogotan dala egiña. Madariagak Euskalerrri-barruan eta euskaldunen artean opa deutso bizia eta indarra bere jaiotzetiko izkuntzari.

Erdaldunen aurrerako euskaldunen izena eta izkuntza goratzeko eta ederresteko itzak erabili ditu; baiña euskaldunontzat euskalgogoaren zuzpergarri eta geure zaborbarkeri eta lozorrotik aterateko itzargarri diran itzak bere bai. Alde onetatik begiratuta, ez ete jaku arratiar au, Valenciako irakasle au begiko eta maitagarri eginen?

Orrexek bultzatu nau gizon au gaurko itzaldi onen gaitzat artzera. Atzerrietako aizeak artu bearrean gertatu diran euskaldunak euren erriaren eta izen onaren alde egin daben lana lanik ederrenetakoa da. Guztien aurrelari, Arratia-ko seme argi au, Madariaga. Olako gizonakaz zorretan gagozala-ta nago. Egin daben lana, erderaz egifia izan arren, ez da guretzat kaltegarria izan, bai onuragarria.

Goagozan egunotan, badakit olango gizonak ez dabela euskaldun eta euskalzale askoren artean izen onik, euren euskalduntasuna galdu edo ukatu dabelakoan, atzerria joanez, atzerrian bizi az atzeritarren izkuntzan itz egin eta idatziz, gure galgarri bakarra edo andiena atzerria balitz legez. Bestera esan daikegu ^atzerria izan dala askotan euskalduntasunaren, euskal-gogoaren esnagarri, biztugarri. Erdalerrriak askotan argitu deutso euskaldunari bere nortasuna, erri berezia eta izkuntza bereziduna dalako ezaguera. Olako zerbait jazo jakon Madariagari, detzerriak ikusita gero. Eta gogoa argitu jakonean, euskaldunen nortasun berezia ikusi daunean, euskerearen ederra agertu jakonean, erdaldunen eta euskaldunen gogoak argitzera dator.

Euskalerrriak, Euskal-erriko legeak ez eutsen Euskalerrriko semeai atzerrietara joateko arterik eragozten. Etajoiazan asko, itxasoak austen, mundu barriak arakatzen, Europan zear, Ameriketaz zear, batzuk bizibarrak eraginda, beste batzuk bizimodu barri baten billa, naiz lur barriak ikusi ta ezagutu-naiez. Batzuk itxas-gizon eta arrantzale: beste batzuk merkatari eta lur-barri-aurkitzaille, erri barri-sortzaile, ikasle naiz irakasle naiz mixiolari, kristautasunaren zabaltzaille.

Ortik ez da Euskalerrriarentzat kalterik etorri. Olango gizonak, eta gitxiago Euskalerrria aitzu barik, beronen alde itzez eta egitez al ebana egin dabenak, ez dabe

gure erria ez galdu ez saldu. Gure nortasuna, gure izkuntza galbidera etorri bada, ez da atzerriratuen erruz izan, etxean geldituen zabarkeriz eta euskal-gogorik-ezaz baiño. Galdu dana emen galdu da eta ez atzerrietan.

Arinkeria darion jardunik entzuten da atzerriratu eta erderaz idatzi daben euskaldunak dirala-ta. Madarriaga-ren egunetan idatzi eban Loiolako zaldun izanak bere gogo-jardunetako liburua. Non, Erdalerrian. Zelan? Latinez. Ona, bada, orain dala amabost urte Durangon, Andramariko elexpean, gure bertsolari bati, gaiak alan eskatuta, entzun geuntsan bertsoa:

San Iñazio militarra zan
eta arretaz aditu:
gugaitik eta errian alde
ez eban ezer sufritu.
Bera zala-ta, bera ez zala,
erdera gallen gelditu.
Obe genduan Ejerzioak
euskeraz egin balitu.

Bertsolari batek, barregarrizko etaralditxo bat botatearren esateko, ez dago guztiz txarto. Baiña mamiari begiratu ezkerro, arinkeri utsa besterik ez da. Iñazio deunaren liburua ez da idatzi izan, edozeiñentzat, edozeiñek irakurteko, ejerzio-emoilleentzat baifio, bakotxak bere izkuntzan, emoteko. Eta Euskalerrriak izan dau euskeraz gogo-jardunak nork emon. Eta ori, Iñazioren egunetatik, eta Iñazioren eragitez. Iñaziok berak agindu eta bialduta. Bat, Aita Otxoa, naparra, Erronkariko semea, Bizkaian zear bere ibilli zana, sermoegiñen, gogo-jardunak emoten. Baten batek esan leike: Sermolari argia erronkariar bat, Bizkaian euskeraz egiteko jAita Otxoaren euskera, Oiñatiko iraztontzitik irazia zan, Oñatin urteetan nausi eta irakasle egon zalako.

Orra, esango neuke nik, orra Iñazio deuna, Erromatik urten ezarren, atzerrian zala, eta atzerriko izkuntzaz idazten ebala, Euskalerrrian euskeraz egiten; ejerzizioak euskeraz emoten. II da gero bere, ez ete dau bardin jarraitzen, batez be aita Kardaberaz-ek euskeraz idatzitako lau ejerzizio liburuetatik, eta beste euskal-izlari askoren bitartez, gaurko egunetararte? Ez ete deutso olan euskereari mesede geiago egin bertsolariaren irrizko bertsoxoak baifio?

Madariaga-ren egunetakoa da Garibai. Eta ona Klaberia lapurtarrak zelango eztenkadatxoa jaurti eutsan bein, berari eta Etxabe-ri batera:

Burlatzen naiz Garibaiez,
bai eta Etxabez,
zeñak mintzatu baitira
erderaz euskaldunez.

Etxabek Ameriketara idatzi eban euskaldunen omen eta aintzarako euskaldunen eta euskeraren maitez. Ezingo deusagu eukan borondate ona ukatu, ezta gure esker

ona bere. Garibairen lana goragarria da, edonondik begiratuta. Berari zor deusagu antziña bateko euskal-kanta zar eta esaera zar galdu ez izana. Alan, be, norbaitek idatzi dau, Klaberia orren bertsoak aiatuaz, Loiola eta Garibai-rik geiegi dala Euskalerrian, tamalez. Nik esango neuke tamalgarriago dala Euskerarentzat eta Euskalerrarentzat Klaberia asko izatea, aiatatu diran irrizko bertxo ori besterik ezagutzen ez jakon ezkerero. Loiolakoari eta Garibairi geiago zor deusagu lengo eta oraingo Klaberia guztiai baiño.

Bakotxari berea. Antxiñako euskaldunei, naiz Erroman, naiz Valencian, naiz Mexikon bizi, euren erria aitzu ez ebenai, emon deyoegun euren. Aitortu deyoegun euren borondate ona eta geure zorra. Atzerritik aberriarra etorten jakien biotza, eta euren eskupekotxoia eskiñi deutse euren erriari, eurak emon ala emon gabe.

Emen gelditzen giñanoi itxi euskuen emengo arazoan goraberea; emengo politika-bidea, euskerearen bizitza eta emengo dana. Geure eskuetan itxi euskuen erriaren geroa, eta euskerearen etorkizuna. Emen giro txarrik sortu bada, emengo arazoak okertu badira, gurea da errua, ez areia. Erdereari goiak artzen itxita, euskerea galtzen itxi badagu, ez deioegun arei konturik eskatu, geure zabarkerairi baiño. Areik, bizi ziraneko urriñetatik ez eben gitxi egin, guri geure nortasuna eta geunkazan ondasunak gogoratzeaz. Gure txaloak eurai.

Eta, jakiña, txalo beroagoak jo bearrean gagozala geiago egiteko kemena izan ebenai, aberritik urrin bizi arren, euskal-baratza ain maratz eta ondo landu ebenai. Iraizean bada be, gaiñ-gaiñetik bada be, gogoratu daiguzan. Azken aldiotan makiña bat izan dira.

Euskaldun batek, lurrari ingururik inguru bira egin eutsan batek itxaso zabalean jaurtin eban euskerazko oiua, *Aurrera* ospetsua or gelditu da gizaldien oraigarri: Itxasoaren orro-artean galdu zan oiuri. Baiña gizaldiz gizaldi gogoratzen da, aitzu barik dago. Beste euskaldunok egin daben euskal-lana zenbatez geiago ez ete dogu guk gogoan gorde bear, eta egin daben aldera gure esker ona eta eder-eretzia erakutsi?

Joan dan menderik ona gauza jakiña da arnas-leku barria izan dauala euskerak Ameriketara, ango euskaldunak sortutako ainbat aldizkaritan. Jazoera onek, azken-urteotan zabalera benetan ikusgarria izan dauala eztago ukatzerik. Aldizkariak ugaritu egin izan dira, euskal-liburuak geitu. Asi Chile-tik, Argentinatik eta Venezuelara zear, Mexicoraiño. Guztiak ez dabe atzerrietara jo, diru billa, bizi bear utsez. Euskaldunik non, an agertu izan da Euskalerrira, an euskal-sua, noizik bein aldizkari antzean, edo liburu antzean azalera agertuko dana. Batzuk bakarrean eta ixillean egin dabe euren lana, beste batzuk ageriago eta tuntun-ots andiagoz. Bein azalduko da poema baten jantzian, bein nobela baten itxuraz, bein ipuin baten naiz saio-lan baten antzean. Bein idazleak berak sortutako lana, bein atzerrietako izkuntzen batetik euskeratua. Izenik esan ber ete da? Askorenak ixilduko ez ete dodazan bildurrez bada bere, or doaz batzuk. Chile-tik astearren, Aita Lontzi karmeldarrak bertsozko ipuin-liburu bi argitaratzen ditu eta beste lau geiago argitaratzeko gertu itxi. Aita Agustin Atutxak, karmeldarra au be, *Mugarra Begiraria* izenez poema giartsu gogorra idazten dau, Caracas-en gero argitaratua. Chilen bertan Aita Mokoroa toloserrak egundoko lana egiten diardu euskal-esaera jatorrak bildu eta iztegi antzean atontzen. Arjentina-n,

nork ez daki *Boletin Americano de Estudios Vascos* aldizkitik egindako lana? Eta an bertan, Jakakortaxarena apaizak *Martin Fierro* ain ospetsuari euskerazko bertso trinkotan itz egiñarazo deutso, eta Aita Larrakoetxeak ikaragarritzko lan ederra burutu dau: au da, Shakespeare antzertia gorengo mallakoaren antzerti-lan guztiak euskerara itzuli. An argitaratu dira iru *euskal-renak*, eta *Ekatizpean*, Eizagirretar Josebarena. Eta an sortu dira beste liburu bi J.R. Zubillagak idatziak, *Lardasketan*, eta *Euskaldunak* Arjentinan. Perualdetik ibillia de Aita Salvatoren Mitxelena, Unamuno-ren kritikazko saio-liburua idazten. Venezuelan, Ibiñagabeitiak patxada ederrean jardun dau ainbat idaz-lanetan eta euskera-erderazko aldizkari bati *Feman* izenekoari) bizia emon gurez. Perutik eta Bolivia-tik izan da Orixen andia mistikako gaiak euskeraz argitu-naiez eta ango lurretan ikusiak bertsoan aldatzen. Eta Orixek eta Oiarzabal apaizak, Zaitegi zuzendari, Guatemala aldean «Eusko-Gogoa» aldizkariaren inguruan, lan ezin txalogarriagoa egin dabe atzerriatuta ebiltzanen indar guztiak euskerearen alde batuaz.

China aldetik eta Formosa-aldetik be euskal-oiartzunik entzun izan da: Aita Yurre kaputxinoak eta Etxeberria jesuitak euren mixio-lanen erdian ez dabe euskerea, iñondik iñora, bazterturik euki. Euskalerrian bertan, aldi berean, sortu izan diran aldizkari eta orriak, neurri andi baten, atzerrietan dakabanaturik ibillien idaz-lanez orniduta dagoz. Gizon oneik ia mundu guztia biurtu dabe Euskalerrri.

Ezin txalorik ukatu ainbesteko lan orri. Zoritxarrez, atzerrian olan egindako guztia edo geiena, Euskalerrian bertan ezin egin zanaren utsunea betetako izan dana. Euskalerrian, urte negargarri baten etenda gelditu zan. Emen ezin egiñez, atzerrian egin dabe.

Eta nik emen irakatsi bat ikusten dot, Euskalerrria euskaldunok egin bear dogula, Euskalerrriaren eta euskeraren bizia eta etorkizuna euskaldunon eskuetan dagoela. Euskalerrria eta euskerea bakotzak bere barruan eroan eta inguruan zabaldo bear dauala, gure izkuntza il-biziko egoeran badago, ez deusagula beste botu bear geure buruari baiño.

Ona eta bearrezkoa da eskolaren eta ikastolen laguntza, ona eta bearrezkoa politikaren laguntza, baiña guztiak be ez dau balioko guk barruko suari eusten ez badeutsagu, geu gogo ta biotzez eta agoz eta egitez euskaldun bizi ezipagara, euskaldun irauten ezipadogu.

Erakutsi berbera emoten deuskuela uste dot joan diran gizaldietan erdalerritik erderaz gure euskal-gogoa biztu eta argitu nai izan dabenak be.

Erakutsi berbera jatorku, batez be, orain lareun eta geiago urte bizi izan zan Madariagaren liburutik. Euskeraz egin, euskera ez baztertu geure artu-emonetatik, geure agirietatik. Euskereagaz ez lotsatu.

Eta, gaiñera, alderdikeriak baztertu, eta aitzu. Ganbia-Oñeztarren burrukak eta gorrotoak ez ei utsen Euskalerrriai onik ekarri. Gaurko palitikeriak be ez. Eta batez bere, euskerearen inguruan sortu diran alderdikeriak gitxiago. Zaldiz naiz oñez, Euskalerrriaren eta euskerearen alde eta onerako, alkartasunean jokatu bear geunke Euskerearentzat azkenengo zoritxarra, andiena etorri dala dirudi, euskerea bera burrukabide eta sarre-bide egitea. Mariganizto eta Petrikillo euskerearen kalterako aldar-

tuta. Bien bitertean, Azkuek aspaldian ikusi eban lez, gure inguruan eta gure artean, otso bi, erdera bi, gure euskerearen azken-puskak noz iruntsiko. Bien bitartean begien aurrean daukaguna ikusteko ez daukagu egirik. Euskalerrria murriz badoa, euskerea Zuberon eta Lapurdin edo beste non-nai galduaz badoa, ez dala beste euskalki edo euskera obe bati, batuago bati, ofizialago bati leku emoteko, erdera bati edo besteri leku emoteko baifio. Euskerearen kaltetan baiño. Baiña zetan jarraitu bide onetatik? Oni dagokiola ez dot zeaztasunik geiago emon nai. Eta emen amaitzen dot neure itzaldi au.

Nire azken-itza izan bedi barrero Arratiako seme Pedro Madariagarentzat. Beronek Balencia-tik gudan biztu nai izan eban euskal-gogoa zabaldu dedilla gure artean eta izan dedilla gure erriaren eta gure izkuntzaren onerako.

PIO BAROJA*

Urrun samar gaude 1930. urtetik. Orduan euskaldunen iritzia eskatu zan Barojaz eta Barojaren Euskalerriarenganako atxikitasunaz, eta iñork ez zuen erantzun. Ala da. *Euskal-Esnalea* izeneko elkarteak urtero antolatzen zituen sariketa aietako batean, Gasteizko uriak sari bat jarri zuen, onelako gaiarekin: «Euskalerrria, Maezturen, Barojaren, Unamunoren eta Salaberriaren biotzbegietan». Euskalerrriko lau semeotako bakoitzak nola ikusten eta sentitzen zuten beren erria? Ortaz idatzi bear zan. Baiña, sariketako gai ortara ez zan iñor azaldu. Zergaitik? Erdal-idazle aiei euskalzaleen artean iñork jaramon andirik ez txikirik egiten ez zietelako? Gai ori ongi egosi eta tajuz jorrazteko asti geiago bear zalako? Ala nai ola, gasteiztarren eskaintza iñork ez zuen jaso, eta jaso gabe gelditu zan saria ere.

Berrogei urte geroago, gaur, gauzak ez daude bardin. Ezta orduko ixiltasunik, batez ere Barojari buruz. Donostian jaiotako erdal-idazlea alde guztietatik aztertu bearrez, amaika liburu berri idazten da. Erderaz, beintzat, asko, eta euskaraz ere ez gaude bat ere gabe. Gasteizko seme batek, ain zuzen, ia agorturik utzi du gai bat: Barojaren euskalerriarenganako atxikitasuna. Egunkari eta aldizkariak ez dira egon eta ez daude ixillik. Giro berria da, bai, gaur Barojaren inguruan.

Euskalduntasunik ote dauka Barojak?

Jaio zeneko eungarren urtea ez zaio gaizki etorri Itzeako gizon ospetsu oni. Gora ta bera erabilli dute beronen izena. Goresmenik gabe ez da gelditu. Goresmenak eskubitik, goresmenak ezkerretik. Batzuk, bear bada, illondoko goresmen kutsua eta

* Karmel 1992-2, 91-103. Titulu nagusia eta gañekoak geuk jarriak dira. (c. 1975).

otsa zekarten, dana barkatzen duten itz ederren usaia. Beste batzuk, sakonagoak eta zorrotzagoak izan dira, idazlearen nortasuna eta lana sakon aztertuz. Al zuenak al zuena, edo bakoitzak bere zorroan zeukana ekarri du Barojaren omenaldira. Guztiak saiatu dira bakoitzat barruan zeukan Barojaren irudia erakusten, batzuentzat atsegiñagoa, besteentzat latz eta zakarragoa. Batzuentzat, euskaldun jator, edo beintzat, gure erriari atsikitasun eta maitasun aundia diona. Beste batzuek ez diote onenbeste ain errez autortzen. Auzi au eta beste inguruko batzuk argitzen laguntzeko dator orain, beste askok itz egin ondoren, Labaien euskal-idazlearen lana. Gaia ez dago agorturik eta emango du oraindik argi berririk.

«Gurea ote degu Baroja?». Galdera au ez da orain oraingoa. Ez 1930n, askotxo leenago, 1917an egin zuen galdera berdintsua beste donostiartzat dagoen erdal-idazle batek, eta galderari berak egin zion erantzuna zentzuzkoenetakotzat daukat nik. *Hermes* aldizkariak atara zuen Salaberria idazlearen galdera au: Euskalduntasunik asko ote dauka Barojak? Erantzuna ezezkoa zan.

Odolez, berak aitortzen zuenez, Baroja ez zan euskaldun oso garbia. Batere miñik gabe, atsegiñez gogoratzen du iñoiz zenbat aldetako odol-naasteka zekarren bere zaiñetan. Guztien txertoak emana zan bera gorputzez. Baiña bere gogoan, bere gogaiera eta gaiñontzeko barne-giroan, ez ote zekarren ifiolako edo iñondiko txertorik? Bai, noski. Eta Salaberria ez dabil bat ere oker, gure nobelagille onen gogo-joera berezi batzuen iturri bat aipatu digunean: *Nietzsche*. Onek (eta Darvvinek) girotu zuten, Baroja gaztearen gogoia. Salaberriak ez zuen or ez danik ezer asmatu. Gazterik azaltzen da geroko nobelegillea, Alemaniako filosofo olerkariari osoki atxikia. Onen pentsakerak ildo sakona egin zion barruan, eta bere maisu orren alde sutsu atera zuen burua. Arengandik ikasi zuen buru-filosofi utsen iguina, ekintzaren zaletasuna, bizitzan aurrera egiteko burruka naia, on eta gaitzaren mugaz aruntzago jo bearra. Arengandik dakar politikorik ezin jasana eta gizon burrukalariak eta ekintzale aundiak bere santu eukitzea. Orregaitik sortu zitzaizkion, azkenengo anai-gerratean, bere babespean artu zuten adiskide min batzuk. Ideak idea billatzen. Nietzschearen liburuak aleman gudazalerik piztu omen zuen bezala, Baroja ere aren ideakotzak artu zuten eta emengo guda piztu zutenen artekotzat. Aidetasun pizka bat aurkitu ziotela badirudi beñik bein. Nietzschegandik barru barruan sartua zeukan, batez ere, aulen erlijioaganako gorrotoa, edo ezin ikusia.

Doñu bakar eta mingarria berdintsua daukate Nietzschearen ete Barojaren kristauerlijioaren aurkako erauziek. Labe bateko suak beroturik daude. Eskola berekoak dira. Judu, masoi eta komunisten etsaitzat beren lagun artu nai izan zutenak ez ziran konturatu, edo ixildu egin zuten beintzat, Hitlerrek bezela, Nietzsche bezala, gorroto berdiña ziela Barojak judu eta kristauei, eta Kristo berari. Guztiak ziztriñak, guztiak iguingarri eta arbuigarriak.

Ori ixildu zuen Jimenez Caballero erdaldun Nietzschezaleak. Kristautasunaren aurkako iguin orri non, bestela, oiñarriak aurkitu? Lareki kanonigoarekiko gertaeran? Aurkeria dirudi. Beste olako gertaera batean? Bere ikastaroan elizgizonekin ez zuen bat ere ar-emanik izan Barojak. Elizgizonekiko ez elizarekiko iguinik ez zezakean ortik atera. Elizgizonen edo prailleen pedagogiaz gaizki esanik badu (eta beti dira

ingude berean joten dutenak), ez du berak bere ikastaldietan ikusitik atera, beste inork esanetik baizik. (*Camino de perfección* izeneko nobelan eskolapioez diona, Azorin zanari entzuna omen du). Arritzekoa da gure arteko batek asmatu eta sartu nai izan digun ziria: alegia, ez dakit nolako «apez-kalonjerrak» izan zituela beste batzuen artean, maisu eta irakasle. Bere ziriari indar andiagoa emateko, onela bukatzen du: «Zer nolako pedagogia! (Ikus *Pio Baroja*, 35 orrialdian). Aurpegia bear da ori esateko! Emen dana da arritzekoa: arritzekoa ori idatzi duenaren ez-jakiña, arritzekoa ori esateko kopeta eta jesuiten babespean lotsagabekeri eta gezur ori argitaratzea, arritzekoa idazlearen arrimena... Gure artean edozein lotsakabekeri zaibaldu bear ote zaio bidea? Itzeako jaunak, Donostiar nobelagilleak ez zion lotsa geiegi izan kondairari, baiña orrenbesteko guzurrik ez zuen asmatu. Bitxikeri ori nola aaztu ote zitzaion, bere aurtzaroen Iruñen igarotako urteen berri ematean? Nola ez ote zuen «zer nolako pedagogia ori» bere ozpiñik garratzenaz gaiztetsi?

Xelebre samarra izan bear, benetan, ain errez asmatutako apezkalonjen eta ola-koen pedagogia: Baroja lako apez-jale bat atera duena. Baiña onen maisuak ez daude ez iñoren irudimenean. Ezur eta mamizkoak izan dira. Eta bat, erlijioaganako amorrua sartu diona, ontan aren buru-biotzak moldatu dituen, Nietzsche. Salaberrik ala ikusi zuen, gezurrik asmatu gabe. Erlijoaren iguinean, gureak eta alemanak anai bizkiak dirudite.

Itzez luzeago ekintzetan baiño

Eta orain, Salaberriaren galdera: Barojak bere nobela eta liburuetan mamitu duen gizon ori, gizon ekintzazalearen, ia beti ezeren kezkarik ez loturarik ez duen orren irudia euskaldun jator batena ote da? Ezetz dio Salaberriak. Euskalduna ez da alper egonzale. Ekintzazale da, eta ekintzale baiño geiago egille. Ekintzazale edo ekintzalariren miresle zan Baroja, baiña ez batere ain egille. Itzez luzeago egiñetan baiño. Besteen aruntz-onuntza eta azi-orratzietan murgildua, baiña buruz eta irudimenaz besterik ez. Benetako ekintza-zaleak aurrera geiago begiratzen du atzera baiño. Baroja leenagoko burruketan murgilduago dago egunekoetan baiño. Itxurazko ekintzazaleen joera. Edo ta, etsipenak egin nai ta egin naiko litekenaren uts-betegarri gogoan sortu oi dan jokabidea. Bizi-ibaiari joaten uzten zaio eta irudimenezko burruketan billatzen da ordaiñezko atsegiña, barruko gezurra estaltzearren edo. Olako gizona bakarti biurtzen da, Nietzscheren goi-gizona bezala, eta Itzeako jauna bera bezala, bakarti eta gizarterako usu baztertu, eta leengo gizon ekintzalariren oroitzapenak ausnartzen diardu. Edo, zakurrek trenaren aldamenetik egin oi duten bezala, aurrera dijoan bizitzako trenari zaungaka, illetari eta erremuska.

Baroja ez zan ekintza jator baterako jaioa. Bere kolkoan sartuegi bizi zan orretarako. Zertan ekin, zertarako burrukatu? Elburu jakiñik ez zuen izan, ez politikan, ez gizarteari oiñarri zuzenagoak ezartzeko edo etorkizun ohea ekartzeko alegiñetan. Iñoiz olako asmorik izan bazuen, uko eta porrot egin zuen. Errezago eta atsegiñago du besteen burrukei begira bizi, aien goraberak eralki eta liburuetan eman.

Eta berak asmatutako ipui-gizonen ekintza? Salaberriak emen ere neurri estu samarrak aurkitzen zizkion gure nobelagilleari. Ortatik ote dator, ainbat nobela ederrren sortzaille izan arren, goigoiko maillako nobelarik ez izatea? Erditsuko mailla batean gelditzen dira, izan ere. Zergaitik? Nobela oietako gizakiek, geien batean, be-maillako burruka batean sarturik daudelako, noski, elburu jakiñik gabeko ekintzan. Aien burrukak ez dira gizonaren betekoak, ez dute bizi baten beteko irtenbiderik. Ez du balio iñori etorkizuna argitzeko ez poztutzeko. Burrugarik eta ekintzarik bada or, baiña, geien batean, bere bizia alperrik ematen duenarena, jomuga jakiñik gabekoa, pozgarririk gabekoa, etsipenak garraztutakoa, gizonarentzat eta gizartearentzat etekiñik gabea, eredutzat ezin artzekoa.

Arrotza bere errian

Ortik, Salaberriaren iritziz, Barojaren gizonak ez dira euskaldun jator-jatorrak. Euskalerrriak ekintzalari andiak eman ditu. Baiña oiek ez dute atsegiñik artu noraezeko ekiñaldietan. Gure legegilleak gure erriari aurrerapidea erakutsi ziotenak, itxasoak igarota Ameriketara zear ainbat uri eta erri sortu zutenak ekintzazaleak ziran, baiña berentzat eta besteentzat mesedegarri ziran egitekoetan murgilduak. Ekintzazaleak izan dira gure santuak ere: Iñazio eta Xabier, akademiko egin zutenean Barojak berak aitortzen zuenek. Baiña bere nobelatako eredutzat ez zuen olakorik billatuko. Nietzsche-renean edandako ardo lodiak ez zion uzten olako gizonik aintzat artzen, eta berez berez beste bizi illunagoko batzuegana zeraman. Gizon oiek ez gaitue asetzen, ez zaizkigu begiko egiten. Eta batez ere, ez degu gure irudia guk nai gendukena aiengan aurkitzen.

Zer gertatzen zaie? Idazleak bere illundura edo garraztura edatu eta ixuri du aien gaiñera. Baroja arrotzuta bezala bizi zan bere arriaren erdian, etabere antzeko gizakiak asmatzen zituen bere nobelatarako. Arrotz samar aurkitu zuen bein Zestuako neskatxa batek, erriko gazteen arteko dantza alaiaren artean ere, goibel eta illun. Nietzsche-rene gizonaren, goi-gizonaren amesetan zebillenari ukatu egin zitzaion goi-maillako gizonik sortzea. Iñolako loturarik gabeko gizon alai izatea ames egin zuenari ez zitzaion eman bizia poz beterik aurkitzea.

Gipuzkoako bi erri, biak elkarren ondoan, ongi ezagutzen zituen Donostiako nobelagille onek. Bere ustez, bata alai aurkitzen zuen, alaiak bertako gazteak, alaitasunik gabekoak bestekoak. Nondik zetorren batzuen eta besteen arteko aldia? Prailleen edo elizgizonen menpean bizitzetik, Barojaren ustez. Noren menpean egotetik zetorkion berari barneko tristura ori, alaitasunik ez ori? Ote zekien berak? Olakoxe ezin erantzunen bat ez ete zeukan Euskalerrriaren aurrean ere? Ez ote zuen gure erriaren lur-azala argiago ikusten anima baiño, bera arrotz zalako, euskaldun jator ez zalako?

Eta aurrerago jota, euskalzaletasunari bagagozkio, zer esan bearko genduke? Emen ere ezezko erantzun naiko berebilla aterako zaigu. Nobelagille aundi au aurpegiz aurpegi ezagutu ez genduenok aren liburuak besterik ez degu ari antz artzeko. Nik aren nobela kaxkarrenetik egin nuen leenengoz idazlearen ezagupidea: *El Cura Mon-*

león irakurtzetik. Kritikalariak ao batez aitortzen dute egin duenik aulenetakoa dala nobela ori. Bere asmamen-indarra galtzen asia omen zan ordurako. Idazle luma-ariña bezain buru-ariña iritxi zaiola esan bearrean naiz, eta iñori eta ezeri lotsa gutxi ziona, gaiñera. Gero, urrengo irakurri nituen liburuekin ere ez nuen izan zori onegia:

Las boras solitarias, Momentum catastrophicum, Caverna del humorismo. Lengo eritxia sendoturik gelditu zan nere barruan, Euskaldun batentzat ez nituen atse-gingarri aurkitu. Batez ere, Azkue zanzan esan zituenak irakurtzeak ez zidan eraso gozorik egin. Euskalzale baten amesek ez dute erdal-idazle onen itzetan sustatzaillerik izango. Geroagoko irakurraldi batzuk adiskideago egin ninduten, edo beintzat, ez ain asarre utzi, alderdi on asko dituen idazle onekin. Ortik berau euskalzaleen artean jartzera alde andia dago.

Euskal-kulturari irri

Aita euskal-idazle izan zuen arren, Donostiar onen gaztetatiko erdal-joera eza-guna da. Ezta gauza berria: balaunik belaun, aita euskal-erdaldunak seme erdalduna sortzen du, askotan gertatua da auxe. Ori gertatu da Barojarekin. Alperrik ariko gera gertaera ori eztaikit nongo edo nolako giroren batean sustraiak billatzen. Batzuen aotan, eztaikit nolako pentsamoldeak, baldintza sozioekonomikoak, eztaikit nolako euskalgiroak aipatu ezker, or daukate zernai ulertzeko edo azaltzeko giltza. Barojak ere eztaikit nolako euskal-giroa aurkitu zuela-ta, erderara jo bearra izan edo omen zuen. Gaurko girotan ez zuen bide ori artuko. Ez ete da asmakizun utsa? Barojak ez zuen auturik egin erderaren eta euskararen artean. Ez zuen euskeraz idazteko saiurik egin. Unamuno, bilbotarrak, esaterako, badakigu, zenbait saio eta alegin egin zuela euskeraren bidetik. Donostiarrak bat ere ez. Ez zan gai. Ez zekien euskerarik aski. Zerbait esan nai du Zestuan sendalari zegoela neska batek esan zionak: apaizek pulpitotik bezelako euskera egiten zuela. Kanean pulpitotako euskera bezelakoa? Erdal-itzez erdal-kutsuz betea, nekez eta zail samar egiña.

Gipuzkoan jarraitu balu ere, nekez artu zezakean Barojak euskerako biderik. Erdoituegiak zeuzkan euskal-bideak. Baiña Zestua utzi eta, literaturako alorrera sartu zanean, euskerarenak egin zuen Barojaren bizitzan. Gure kanta zaarretarako zaletasuna gelditu zitzaion nonbait. Aiek ulertzeko aiña euskera jakin zuen, noski, ez beti ongi. Badaezpadako itzulpenik Barojarena bezelako arnas berria gaizki etorri izango. Bein aize berria erdal-alorrrak egurastera joan zan, eta gu ura gabe gelditu. Ez Barojak arbuiau ginduelako, bere bizian beste autabiderik izan ez zuelako, besterik egin ez zezakealako baizik.

Eta gero bein artutako bideari ekin zion beti, gure nolabateko literaturagaitik bat ere kezkatu gabe, eta bein baiño geiagotan gure artekoen ekiñaldiei irri egiñez. Etzuen siñisterik euskeraren bizian. Zertako saiatu il-etsian zegoen baten biziari eusten?

Azkueren aurkako purrustadak

Euskeraren eta euskera lantzen diardutenen alderako artu zuen jokabidea Azkue jaunarentzat jaurtiki zuen purrustadak argituko digu. Askok entzun dute zerbait izan zala, inkimakoen bat izan zala Azkue eta gure nobelagille onen artean. Eta bear bada,

ortaz Barojak esana besterik ez dakite. Asi gaitezen argi egiten, alde bateko eta besteko txostenak eta xeetasunak emanez. Caro Barojari entzun genion bein, artean alkar ezagutzen ez zuten arren, Azkuek eta Barojak elkar ikusi zutela eta adiskide egin zirala. Nolanai ere, orduan gertatukoaren berri zeatzago jakiteak, ez dio iñori kalterik egingo. Alde baterik eta bestetik esanak alkarren ondoan jartzeak merezi du.

Hérmes aldizkaria sortu zaneko urtean zan: 1917. Esan dezagun aldizkari ortako idazle bezala azaltzen dirala biak: Azkue eta Baroja. «Sociedad de artistas va»^{os} zalakoak bazkari bat antolatu du Barojari omenaldi bat egiteko. Juan Etxebarria, antolatzaile. An ziran, beste batzuen artean, Maeztu (margolaria), Mourlane Mitxelena, Arteta eta Jesus Sarria, *Hermes* aldizkariaren zuzendaria. Etxebarriak bezperatik bazkaritan itz egiteko eskatzen dio Barojari. Urrengo egunean Etxebarriari irakurtzen dizkio bazkaritako idatzi dituen lerroak. Eta bazkaritan, irain-erauntsia goitik bera bilbotarrei eta euskaldunei eta ez zirenei! Borondaterik onenaz eskaintzen zioten bazkari-omenaldiari erantzun legun eta gizabide ederrezkoa! Urte batzuk leenago Unamunok egin zuen baiño gutxiago ez zuen, noski, egin nai izan. Ain itzaldi laburra etzan izan, baiña itz gutxitan nekez sartu zitekean iraiñik geiago.

Andik iru illabetera, Bilbon bertan emandako itzaldi batean itzez itz arturik, onelaxe aipatzen zituen Barojaren orduko lau aokaldi:

«1) Se llega a sospechar si las gentes de España, tanto las del norte como las del sur, las de este como las del oeste, somos todos de la misma casta ininteligente e insignificante. 2) No en balde parece que nosotros (los vascos) descendemos de la raza del Cromagnon, pariente próximo del Pithecanthropus. 3) La mayoría de los españoles y la casi totalidad de los vascos son moros que, en vez de llevar el Corán, llevan en el brazo la doctrina del P. Astete. 4) Cuando pienso en el cristianismo me vienen a la imaginación los ghetos, la escrúfula, la sarna y los frailes».

Beste itzik ere aipatu zezakean, esaterako: «En Bilbao, como en todo el País Vasco, echan más chispas las chimeneas que el espíritu del hombre. No inventan ni podrán inventar». Omenaldi batean esker onez esateko txukuntasun eder ez ziran ain egoki ta goxoak.

Azkuek zer dio itz oien aurrean? Leenbeziko irakurraldian, farranaia eman omen zioten, xeibrekeritzat arturik. Ez ote duten Bilbon kale-izen berrien bat asmatuko, uri au xeibrekeriak entzuteko uria dala oroitarazi dezan? Gogora etorri zitzaizkion, noski, beñola, Unamunok an bertan esanak. Baiña, bigarrenez irakurtzean, farra egin naiak joan omen zitzaizkion. Eta gogora datozkio leentxeago itzaldian bertan aipatu dituen Paulo Apostoluaren itzak: *Iritxi bateko eta bestekoak izatea egoki dala*, erriari zor diogun maitasun-kontuan ere. Baiña ortik edozein irain aurpegi-aurpegian artzera alde aundi bai aundia omen dago. «El gran hijo de Tarso habló de disidentes, pero de botarates no dijo una sola palabra». Nortzuk dira «Botarate» oiek? Iraifia artzen dutenak ala eman dutenak? Bear bada, Azkueren itzetan ez dago argiegi. Baiña geienak eta Barojak ere bai, Barojarentzat esandakotzat artu zituzten. Berak jakingo zuen zergaitik. Dana dala, olan zearka esanda dauden bezala, indar apur bat edo ozpin puska bat galtzen dutela esango nuke. Eta gero, Azkuek bere aldiko oitura bat gogoratzen du, bizi diran errian mesede aundiak egin dituzten atzerritarrak bertako

semetzat artzeko oitura. Eta emen, berriz gauzak naiko zearka esatearren, Azkueren galdera: «No creáis, vascos, llegada la hora de que las naciones, por decoro, deban recurrir al correlativo energético procedimiento de repudiar a algunos de sus hijos espúreos».

Barojak itz oiei egin zien ostikoa oso zabal dabil, Azkueren itzak baiño zabalago: «Un curita vascófilo de estos que sirven de moscas carnarias del vascuence... dijo... que yo era un botarate y que me debían expulsar del País Vasco».

Ezta, ain zuzen, ori Azkuek esana, ikusi degunez. Baiña Barojak olako xelebrekeriei ez die asko begirutzen.

Eta gero onela jarraitzen du: «Yo no sé si este señor Azkue es un botarate o no. Es cosa que no me interesa». Ez diola ajola? Eta bera *botarate* izatea edo olan portatzea ere ez? Erderazko iztegiak dionez, «botarate» da «el hombre alborotado y de poco juicio». Ez ote zen ainbestekoa azaldu Baroja bere itzalditxoan? Orain Barojaren ezpatak Azkuengana bakarrik ez, apaiz guztiengana dijoaz: «Lo que siempre es de alabar es este sentimiento de delicadeza, de finura y de cortesía que muestran siempre las gentes de Iglesia. Estos ganapanes eclesiásticos en lo primero en lo que piensan es en expulsar. No harán seguramente como San Francisco de Asís cuando fue a ver al terrible lobo...» Bein aritik atera ezker, non gelditu? Expulsar? Azkuek itz ori aipatu ere ez du egin, eta ez dio emen iñori: «lobo terrible», Barojak bere burua egin nai luken bezala. Bearbada, berak bai, berak igortzen du bere burua Euskalerritik kanpora, bere burua jatorriz euskaldun «descendemos de la raza de Cromagnon» egin duenean, baiña gero, gero beretzat ezpalitz bezala «son moros. No inventan, ni podrán inventar». Ez ote zan, bada europearrik europearrena, Nietzscheren «Übermensch», txikikeri guztien gaiñeko goi-gizona?

Euskal zaleak, eltxarrak besterik ez

Ala ere, Barojaren itzetan gogorrena ez dago or. Gogorrena leenengoko itzetan dago: «Un curita vascófilo de estos que sirven de moscas carnarias del vascuence...» Itz oiei destaiña, erdeiñua, arbuioa besterik ez darie. Erdeiñua euskerarentzat, destaiña apaiz euskalzalearentzat.

Euskera zer da? Gorputz illa edo beintzat aragi illa. Euskarazaleak zer dira? Aragi illa jaten, aragi illari sistaka, autsika dauden euliak. Euskera, aragi illa. Eta Barojari ez dio orrek miñik bat ere ematen. Berak ez du, noski, ikusten illik pizteko biderik. Zertako alperreko lanetan nekatu? Unamunok beiñola baiño kezka gutxiago ematen dio euskeraren zorigaitz orrek. Unamunok beintzat ots egin zuen: «Euskera il-urten daukagu. Jaso ditzagun dituen ondar mondar guztiak. Gantzutu dezagun gorputza, eta illetarik ospetsuena egin dezaiogun».

Barojarentzat eltxarren lana da guztia. Eltxarrak ziran euskeraren idazkera berdintzea nai zutenek. Zertarako or bururik ausi, euskera biziko ezpada? Gorputz illaren gaiñera dijoazten eltxarretakoa Azkue, Euskal-iztegirako eta euskal-folklorerako ainbat ondar mondar, ainbat pitxi bildu zituen. Ba-ote zekien Itzeako jaunak «curita

vascófilo» orrek eginda zeuzkan ainbat lanen berririk? Ezetz dirudi. Ezta ezin siñestuzkoa. Euskaldunen lanen berri itxurazkorik ez zeukan. Beretzat «Ramuntcho» agertu arte, ez omen zan euskal-nobelarik idatzi, eta andik 30 urterarte euskaldunek ez omen zuten ezagutu «a los treinta años se enteraron». Berak euskal-literaturan badirudi ez duela ezagutzen Bilintx eta kanta-libururen bat besterik. Zer egin zezakean Azkue zeritzan «curita vascófilo» orrek, eta zer egin zezaketen beste eltxar «mosca carnaria» guztiak? Erausi iraingarriagorik gutxitan atera da.

Egia esan, Barojak ez zuela aoran esirik, labeak irakiten zionean. Eman dezagun aurreragi joan dela. Ken dezaigun beroena bere esanari. Ala ere, esan bearrean gaude bizi bizian ageri dala or idazle onek euskeraren alderako jokabidea, aintzat ere ez artzea, kanpotik begiratzea.

Esanak esan da, edo idatziak idatzita gero, Nietzschek itz batzuk datozkit gogora. Barojaren liburu batetik aldatzen ditut: «Inoiz nitaz mintzatu nai bazera, egizu zentzu onez (orain arte inork egin eztuena) eta esazu nor ta zer naizen, nire nortasuna nolakoa dan, zer baliotako dan aztertzen nekatu gabe».

Irakurleak esan beza arau au bete dedan ala ez. Nik uste dut beintzat gauzak diran bezala adierazten saiatu naizela. Barojaren jokabidea nondik norakoa dan erakutsi nai izan degu. Ez jokabidea ori ona ala txarra, zuzena ala okerra, mesedegarria ala kaltegarria dan. Ori ere ez legoke bear bada gaizki, eta al duenak egin beza, eta bear bada, ez legoke gaizki Barojaren irakurleentzat. Askok egin dute Barojari beronen oker au, alderdirik auleneetatik begiratu, eta ortik eredutzat artu. Askok apezjalea egiten dute eta kristautasunaren etsaia onartu, eta beste alderdi on batzuk osoki aaztu eta utzi.

Labaienen asterketa

Alderdi asko dauzka Barojak aztertzeko. Ortara dator orain ateratzen dan liburu au, Labaien euskal-idazleak gure alorrean frutu ain umotuak emanak egiña. Nik esango nuke beldur piska bat izan duela oraingo sail ontan sartzen, alde batera edo bestera neurritik kanporago sartzen beldur balitz bezela. Gaiñera, gure artean eta euskeraz inork eztu Itzeako gizona ainbeste aztertu oraiñarte. Goresmen utsezko kritikarik ez du egin nai izan, baiña ez jorratze utsezkorik ere. Ez Barojak berak egiten zituenen antzekorik ere. Jorrazaille gogorra, erruki gabekoa zan bera. Labaien ez da aren ezpal berdiñekoa, eta inñolaz ere atsegiñagoa, maitekorrakoa du bere itza.

Irakurri eta zeuk esan, irakurle.

AKESOLO-TAR LINO, EDESLARIA*

Akesolo-tar Lino, Donostiako Karmeldarren Prior-aita da, ixtori-lan askotako atertzaille ospetsu eta ezaguna, Euskaltzaindikoa, eta gizon argi eta neurriduna gaiñera.

Orain artekoei bezela galdetu diot, ia ba, aurreko elkar-izketetan esandakoaz zer dion.

— *Ni Lekuona jaunaren uste berekoa nauzu —esan zidan— Arantzazun ez bai zan egitazko erabakirik artu; erabaki antzeko bat artu bazan ere, iritzien bitarteko konponketa bat bezela bakarrik artua izan zan.*

— Konponketa? —galdetu nion.

— *Nolabait deitu behar diot. Arantzazun batzorde bakoitzak aurkeztutako lanak banan-banan izketatuak izan ziran; eztabaidatuak ere bail; ala ere ez zan erabakirik artzeko argirik sumatzen; zerbait egin behar zala-ta horrelako abantzu edo aurre-rapen bat bezela eman zan Arantzazuko agiria.*

— H-ri buruzko hori —esan nion.

— *Bai, zerbait bide eman nahi zan h-hortaz hori nahi zutenentzat, noski; baiñan ez erabateko erabakirik; erabaki hoiak ofizialki urrengo batzar batean artu behar ziran-da.*

— Leenengo aldiz antzuten dut hau —esan nion.

— *Baiñan alaxe da. Hori Arantzazuko batzarrak baiño lehenago zabaldutako orri batean dago: Billeren asmoak eta besteak or datoz.*

* Zeruko Argia 31 (1970, 370. zenb.) 12. Martin Ugaldek euskera batuari buruz Aita Linori egiñiko alkarrizketa.

(Euskera **aldizkarian**, **XIII 1968**, **142 orria**, **agertzen da**: «Literatura euskeraren batasunari buruz biltzar nagusiak Arantzazun»: «**Billeren asmoa**», «**Biltzarreko deiak**», «**Biltzarren araudia**», «**Izlari autatuak**», «**Maiburukoak**» eta «**Azken erabakiak**»).

Batzarren araudia da hau; eta ikusten dudanez h-rikan gabe idatzia dago: Euskera-batasunean ez da hau agertu. Ementxe dio: «Agerpen bakoitzak bere ondorean izango duen elkarrizketa aintzat artuko da erabagiak emateko». Eta Aita Lino esan bezela, garrantzi aundiko beste puntu hau: «Maiburuko eta Euskaltzaindiak izentatutako batzorde teknikuko artean artuko dira azken erabakiak. Guztiak bat ez datozenean botoetara joko da; botua, Euskaltzainiak eta batzorde teknikukoak (!) izango dute; erabakirako gutxienez irutik biren diferentzia izan beharko da».

— Orain artekoak dionez —esan nion don Linori— erabakia bertan artu behar zala ematen du.

— *Emen ala dala badirudi ere, araudi hoiene beste zati batean hauxe dio: «Azken erabakiak ofizialki azaroan Oñatiko Unibersidadean Euskaltzaindiaren urre-etzaiak ospatzeko izango diran jai-aldietan emango dira».*

— Eta zergatik ez ziran eman? —galdetu diot.

— *Hori ez dakit; eta ara aurreraxio diona: «bataunerako norma guztiak liburu batean argitaratuak izango dira».*

— Liburu hau ez ahal da Euskaltzaindiaren babesean argitaratua izan dan Euskera-Batasuna liburu bera?

— *Ez dakit, baiña liburu hontan jasotzen diranak ez ziran azken-araudiak izan, Arantzazun egindako itzaldirak baizik.*

— Itzaldi hoiek azken-erabakiak ez baziran —esan nion— nolatan agertu da liburu Euskaltzaindiaren baimenarekin, eta zergatik ez zan Oñatin, araudiak agintzen duan bezela, beste azken erabakirik eman?

Argi billa gabilta Aita Lino eta ni. Biok ikusi dezakegun bezela Arantzazuko batzarrak bukatu eta gero Euskaltzaindiak eman zuan agiriak hauxe dio:

«Arantzazun izan diren eta ez diren euskaltzaleak argi-bide bat izan dezaten, Euskaltzaindiak **geroago eta astirago argitaratuko dituen erabaki eta lanen aurrerapena** agertu nahi du orain... 2) H-ren auzia (h eta guzti idatzia)* izan diren iritziak entzun ondoan, **erdi-bide** (!)* bat aukeratu (!)* da hasteko: alegia, **begi onez ikusiko lukeala** Euskaltzaindiak letra hori bi bokal berdinean naiz ezberdinen artean erabatzen hastea».

Batetik, Euskaltzaindiak Oñatin beste **erabakirik** eman ez bazuan ez ahal da Arantzazuko aurrerapena legezko bezela geratzen? Eta, bestetik, Arantzazuko batzar aurreko agiria h-rik gabe dator, eta batzar-ondokoa h-rekin idatzia; honek ez ahal du esan nahi **h** hau Arantzazun erantsia izan dala?

— *Ez dakit* —esaten dit Aita Lino-k— *gora-behera hoiek esan nahi dutena da, erabaki hau nola-nahi zailla dala; honek bere epea behar duela; gauzak eldu egin behar dute-ta; ementxe dago kokka!*

— Koxka hau zaarra da —esan nion— baditu 50 urte; egoera honetan euskerak ez digu beste 50 iraungo.

— *Ez dugu politikarako gairik, zer nahi duzu.*

— Itz bat, **politika**, ikutu duzu —esan nion— eta ondo datorkio gure auzi honi. Nik uste gure **h** lehen teknika-arazoa bakarrik bazan ere, guk arazo hau politikatu egin dugula; gizonen arteko auziak askotan iristen dira egitazko politika maillara; setaz kanpoko diran erri politika-bideak dira hoiek; behar bada euskaldunon **arazo politiko** bat bezela tratatu behar genduke. Zer derizkiozu?

— *Nola ordea?* —galdetu zidan.

— Ondo aztertua dagoanez, batasunerako euskerak duan teknika-maillik zaillena aditza da; aditza batzeak oztopo zailak jartzen dizkigula aitortu du Euskaltzaindiak, eta aditzaren auzi hau behar bezela aztertzeke epe bat eman da. Ala, teknika-gaiz errezena danarekin asi nahi izan da; horretxegatik aukeratu da (**h** eta guzti) **ortografia**. Orain, ikusi danez, teknika aldetik erreza dan **h** auzi hau oso zaildu zaigu. Zergatik? Auzia teknika arazotik kanpora urten dalako, ikusten dut **h** honek euskera zailduko duala; zuk esan bezela, esaten ez diran letrak gain-bera dijoaz izkuntza guzietan; ala ere, izkuntzak ez dira ezer pertsonaz kanpo, pertsonak itzein edo idatzi edo irakurriz eta komunikazio-bidez ibiliz edo-ta batzuek atera dutelako. Nola nahi, setaz nahastua daukagu gaur auzi hau. Nondik nora gaiztotu zaigun aztertzen ibiltzeak ez gaitu inora eramango; gaur gure aurrean daukagun korapilloa artu behar dugu eskuetan; ez gure eskuetan **uki genezakean** edo **behar gendukeana**, baizik **gaur egitan daukaguna**. Eta zer —esan nion, galdetzen bezela—, auzia politika maillara eldu zaigula eta ezin ahal genezake ikutu? Nere ustez, politika kutsua artu duanari politika jarduna eman behar zaio. Ez ahal duzu hala uste?

— *Baiña nolakoa?* —esan zidan Aita Linok berriz, eta kezkatu, nik uste.

— Ba euskaltzaindikoak berak agirian bigarren puntuan agertu duana bera jarraituaz —esan nion— eta irakurri nion: 2) H-ren auzian, izan diren iritziak entzun ondoan, «**erdi-bide bat aukeratu da hasteko**». **Erdi-bide** hau politikako erabaki bat duzu, ez teknikazkoa. Neri halaxe iruditzen zait. Eta erabaki hau Euskaltzaindiak aukeratutako teknikoak berak: Intza, Irigaray, Irigoyen, Labayen, Lafitte, Mitxelena, San Martin, Satrustegi eta Villasantek (eta Lekuona Lendakariak berak) artua izan zan; hoiek bait dira azken hau izenpetu zutenak. Barka eidazu —esan nion— gehiegi luzatu banaiz, baiñan nere puntua esan nai izan dizut bide honetaz zuk duzun iritzia jaso nezakean.

— *Ikusten dut zure asmoa* —esan zidan Aita Linok— *Baiñan bide hori konponketa bezela artu zan, eta konponketarekin nik ez dut uste batasun osora inoiz iritxiko geranik.*

— Eta beste biderik arkitzen ez bada? —galdetu nion— Rusoek eta ipar-amerikarrek ez dira gai askotan elkar, baiñan guda-gorrian bazterrak kixkaltzeko arrixkoari ies egitearren konpondeta pranko egiña dute azkeneko ogeitabost urte hoietan. Gure arteko gaurko gudu hau euskerarentzat (ez guretako bakoitzarentzat, ezta gure alderditasunarentzat ere, alde edo aurka **h** honi lotzeak alderdiei kalte aundiak ekarriko

bai dizkie!) **ondagarria** da, eta **ondagarriagoa izango dala dirudi**; gu danok erri eta izkuntza berberekoak gera; ez ote gera Euskaltzaindiak erakutsitako politikabide, erdi-bide, honen ongariak ikusteko gai izango?

— *Ez da erraza. Badakizu* —esan zidan Aita Linok— *gure artean bi asmo erabilli izan dirala gai honetaz: 1) bakoitzak gaiñontzekoen euskelki guziak ikasi, eta 2) osorik h-ko bidea artu edo osorik h-gabeko bidea ibili.*

— Polita da —esan nion—; oso; baiña, lastima, eziñezkoa. Ba dago gure mundu berri hontan euskeraren euskelki guziak ikasteko baiño aurreragokorik!; bat ezin, eta danak!; jendea **motibatu** egin behar da; **ez egin behar duala esan**, baizik **orretarako zaletasunez eragin!** Gaurko egunean masa-komunikazio (**mass communication**) eta **public opinion** edo erri-iritziaz idazten eta erakusten ibili geranok badakigu a-b-c hau ondo asko. Bestetik, batabesteei h-guziak edo batezko joera irentsi nahi izatea oso zailla iruditzen zait, setaz ez bait dator inola ere (**arerioa** lurperatzea lortzen ez bada beintzat) buruzko erabakirik; iritzi aldaketak lortzeko pasio eta setak **arrazoiztu**, biotzetik burura jaso, oztu, egin behar dira; arrazoi-mailla otzera igotzen ahalegindu behar dugu auzia, ez bestela; hau da (askok konprenitzen ez badidate ere) nik egin nahi dudana; beste biderik ez bait dut ikusten. Bitarte larri honetan batasunaren ongari izango liraken indar guziak gure izkuntzaren aurka gogor jokatzen jarri ditugu, eta gure aurrean erri bezela ditugun ainbat eta ainbat lan seta honek kutsututa okertzen ari zaizkigu: ikastola, editorial eta nik ez dakit zenbat arazo. Gure erria buru-erailtzako miñak jota ote dago —galdetu diot Aita Linori.

— *Nola nahi, nik arazo bat ikusten dut emen: h artu arren ez dugu batasunik egiten.*

— Zergatik ez?

— *H hau guk ez dugu esaten, eta mugaz aruzkoak bai; batzuetan isilleko letra izango da; begietarako or egongo da, baiñan belarrietarako ez. Aiek esaten dutelako bada, zergatik ez bizkaierako j eta beste horrelako asko kontuan artu? Batasuna egiteko h honen artu beharra ez det ikusten.*

— Puntu ona duzu hor —esan nion—. Halaxe da. Eta nere ustez h honek teknika aldetik ez dio euskerari, izkuntza bezela, erraztasunik emango; ni ez naiz izkuntzalari, eta barruko irabazi-galerik ez det aztertuko, baiñan izkuntza-zabaltzeari dagikionez bai zerbait, eta esatzeko baizik; eta ala, pertsonak letra honi bere **maitasun-beroa** edo **gorrotoa** galtzen ez dioten bitartean gure artekoa izango dugu, illuntasun guzien iturria dan aserrea izango da gure euskera-lanetan; eta kalte hau nola konpondu guk, euskaldunok, erabaki beharrezkoa izango da. Bukatu daigun lehenbaiehen gudu hau, eta gero berez artuko du **h** honek bere bidea.

— *Euskaltzaindiak berak eman behar zuan erabakia, baiño lehenago batzuek aurreratu dira egitazko erabakiak balira bezela zabaltzera, eta honek ekarri du kaltea.*

— Hala dala garbi badago ere, hontan geratu behar ahal dugu? Nere ustez Euskaltzaindiak inora begiratu gabe joka behar du bere egia eta bere legea eta bere zuzentasuna elburu duala Euskaltzaindia errespetatzen dugunok ahaleginduko gera bere araudiak zabaltzen eta zaintzen; eta egia eta legezko eginbidea aterako dira azkenean garaille, batere federik badugu beheintzat.

— *Nere ustez, emen dago kaltea* —esan zidan Aita Linok— *Euskaltzaindiak ez dituala Arantzazuko argi-bideen ondoren bere erabakiak atera. Halare nere ustez ez da konponketa bat egin behar; lehenagoko bideak ere (Bonaparte, Sabin Arana) gorako eta batean biltzeko bideak izan ziran, eta ez amore ematekoak.*

— Hori egin ahal bada konforme nauzu, noski; baiñan ezin badezakegu, **ez ahal duzu uste Euskaltzaindiak berak aurreratu zuai erdibide hau onurakorra danik**, eta beste batzarrrik egin ez eta beste erabakirik artu ez badu, ez ahal duzu uste honentxegatik izan dala, **aurrerapen** harrezkero beste ezer egiterik izan ez dualako?

— *Ez dakit hori* —esan zidan Aita Linok— *Nola nahi, batasuna egiteko elkar egin behar dugu; elkartzea, bata besteari amore ematea da, bata bestearena artzea da lehenengo.*

— Eta teknika-neurrian eziña bada, zergatik politika edo konpromiso neurrian erdi-bide batera iritxi ez, pekatu hau ez ahal da ba elkar jota euskeraren bide-gurutzean geratzea baiño txikiagoa?

— *Baliteke.*

— Esan ahal nezake —bukatzeko— zuk ez duzula erdi-bide bat gaizki ikusten? —galdetu nion.

— *Nik esan nezakeana da* —esan zidan— *ni ez nintzakeala horren aurka jarriko; orain, nik ez nioke horri indar aundirik emango ere. Oraingo gazteek pentsa behar dute urrungo gazteriak ere bere araudiak ezarri nahiko dituztela.*

Aita Lino Akesolok esan bezela jartzen ahalegindu naiz.

LINO AKESOLO: BATUAZ ERDARA INDARTZEN DA*

Datorren apirilaren zazpian, hirurogeita hamasei urte izan dira Lino Antonio Akesolo Olivares Dimako Oba baserrian jaio zenetik, hamaika anai-arrebaren arteko zaharrena izanik. Gerraren garaian frontean kaperaua ibilia zela eta, gartzelan sartu zuten preso. Ondoren, baldintzapeko askatasunez zenbait urte Euskal Herritik kanpoan egindakoan, Berriro itzuli zen euskaldunon artera, finean Bilbo aldeko Santutxuko Karmelo komentua bizitokitizat hartzeko. Itzulpengintzan, euskal liturgi-liburugintzan eta zenbait berezko lanetan ere, asko izan da berak idatzitakoa. Erdaraz aritua bada ere, euskara izan du beti komunikaziotresna gogokoentzat, baina euskalkikako euskara, batua desegokitizat jotzen du eta.

Pasiluan niregana datorrela, ez da ia bere jantzi marroia baino bereizten giroaren isiltasunak oihartzunik duelarik, itzalpean dauden pareta zurietan. Urratsak zabal ematen ditu, aurrerapausu bakoitza oztopo bat iragatea balitz bezala.

Bere txapelak ia ezkutaturik, hondo-hondotik iristen zait erabili duen igongai-luaren argi-islada horiska. Alboratzen zaidanerako, bere begi bizkorrak estaltzen dituzten betaurrekoetatik, argi-dirdir bat iristen zait.

«Sancta Teresa a Jesu Infante» azpidatzirik duen koadro batek egiten digu so bere goitasunetik. Sei aulki urdin mahai arunt baten inguruan daude gertaturik. Aita Lino Akesolo, erdiko batetan jezarrita, komentuko barne-patioaren bista tratatzen diguten gortin zuri-zuriei egiten die lepo.

— Zerk bultzatuta hasi zinen idazten?

* Hemen 1 (1986, 13. zenb.) 23. Xabier G.º Arguello kazetariak Aita Linori egiñiko alkarrizketa.

— *Ba, eskolan, «Humanidades» euskaraz ematen genuen —zurru-zurru mintzatzen zait, ahozkatzea aho barneko zeozkerk oztopatuko balio bezala— eta orduan, nik hamalau-hamabost urte nituela, sariketa bat egin zen, ea nork egiten zuen Cervantes-en «Novelas Ejemplares» liburuaren itzulpenik hoberena. Orduan, nik egin-dakoa aurkeztu eta bigarren saria eman zidaten: ehunpezata... Baina garai hartako ehun pezetarekin gauza asko eros zenezakeen.*

Bere hizkera pausatua da, inoiz presarik izan ez lezakeenarena bezalakoa; pausatu baina tinkoa, adinaren pisua bizkarretan astun izan beharrean pausak segurtatzeko zama bailitzan.

Itzulpen-lan batek bultzatu zuen idaztera eta itzulpengintzaren alor hau da, hain zuen, bere euskalgintzan nagusi dena, bai euskal liturgi-liburugintza beharrezko materialez hornitzeko, bai Euskal Literatura osoa aberasteko, Santa Teresaren «Camino de Perfección» liburuaz burutu zuen itzulpenaz, kasu. Aipatu beharrekoa da, era berean, euskal lehen liburuaren egin zuen edizio kritikoa. «Baita ipuinen bat edo beste idatzi dut, baina ez nire irudimenezkoak, entzunak baino».

Kazetal eginbeharrak ere ez zaizkio erabat arrotz gertatzen:

— *Bai, gerratean nazionalek preso hartu nindutenean, hauexek izan ziren leporatu zizkidaten hobenak: frontean gudarien aldeko kaperaua izatea eta «Karmengo Argia» aldizkariaren zuzendaria izatea. «Sí, sí, porque sabemos que usted es el director de Carmengo Arjía», esaten zidaten. Gero epaiketan fiskalak hamabi urte eskatzen zuen eta hamasei urtetako kondena ezarri zidaten —barre egiten dit begiak zorrotz eta altzoa dardar, klaustroaren isiltasuna urratzearen beldur, agian—. Gero, Bilboko gartzelatik Nanclares-era eraman ninduten eta handik Palencia-ko Dueñas-era, Besteiro burukide sozialista gurekin zegoelarik.*

Hiru urtez geroago, gobernuak jaulkitako lege baten arabera, berrikusi egin zituzten kasu guztiak, penarik gehienak murriztuz. Ondoren, baldintzapeko askatasunez kaleratuta, Santander-era joan nintzen. Handik, nola epaila-aginduan Euskal Herritik kanpoan egon behar nuela esaten zen eta garai hartan Nafarroa Euskal Herria ez zela ematen zen, Iruñera abiatu nintzen.

Euskal Herrira etorri ahal izan nuenean, berriro hasi nintzen idazten: «Karmengo Argia»-n, Ameriketako «Euzko Gogoa»-n, «Zeruko Argia»-n, «Anaitasuna»-n eta beste zenbait lekutan.

Euskaltzaindia batuaren inguruan eztabaida bizian zegoenean, Linok batu horren aurka paratu zirenen artean kokatu zuen bere burua, «nik, Azkuek bezala, zera uste dut: euskara batua norberatzea gogor egiten bada, jendeak erdarara joko duela. Mahainguru baterako, ondo dagoke euskara batua, baina herriari goitik behera ezarritz gero, erdarak hartuko du indarra. Ni, behintzat, horretan nago.

— Beraz, zu ez zara oso «h»-ren aldekoa...

— «H» beste aldekoek erabil dezaten bai. Ez dakit zergatik eutsi behar zaion joera hatzezale horri hizkuntza gehienetan ezabatuz joaten denean. Gainera, «h» hori ez da benetako letra batzutan: askotan, «k» izandakoak ordezkatzeko ditu. Adibidez, Erronkarin guk «hemen» esaten duguna «kemen» esaten zuten. Eta beste

aldean gehiago erabiltzen da zenbait letraren desagerpena dela eta, «r» ozena esaterako (frantsesaren eraginagatik). H-ren inguruan, halaber, asmakeria asko egin da, «haltzari» hitza «h»-z idaztearena, adibidez. Gehienek horrela idazten dute «haltz» zuhaitzaren izenarekin zerikusirik duelakoan, baina ez dira konturatzen «altz» hori «gordetu» esaguraz agertzen dela zenbaitetan: «altxor» hitzan, adibidez; baina, hala ere, «h»-rik gabe jartzen dute. Beraz, ez dirudit «h»-ren erabilera osorik erabakita dagoenik.

— Euskara batua eta «h»-ren arazoak izan ziren zu euskaltzain osoari uzteko arrazoiak?

— *Ez, utzia nion batuaren arazoaren aurretik: 1964. urtearen aldera utzia nion, izandatu nindutenetik seiren bat hilabetetara, Euskaltzaindi barnean, horrelako borroka arraroak ugaltzen hasiak zirela eta. Harrez geroztik, euskaltzain urgazle ibili naiz, zenbait batzordetan laguntzen eta hola.*

Euskararen etorkizunari buruzko galderei ez die zuzenki erantzuten:

— *Ba, egia esan, orain hamar urte herrietan eta oso sendo hasi zen euskararen alde, baina gero utzi egin zaio, apurka-apurka eta orain ez dirudi euskaltzaletasunik edo eusteko gogo berorik dagoenik: politikoek ere, euskararen aldeko amorratuenean artean ere, ez da lehengo irrika sutsuaren zantzu bizirik.*

Lizardiren poema inedito batzu, laster argitara

Orain hogeiren bat egun hitzaldi batetan jakinerazi zuen bezala, laster eman asmo du argitara Lizardiren zenbait olerki ezezagun, «Euzko Deya»-n Zarauzko Sabin eta Samaiko Zulo ezizenez egin zituenak. *«Hogei baino gutxiago direnez, batera argitaratuko ditut «Karmel» aldizkariaren hurrengo alean».*

LINO AKESOLO

Derioko Udako Euskal Ikastaroan omendua alkarrizketa*

Uztailaren 10ean Aita Lino Akesolo, Euskal-zale, jakitun eta kritikoa bere bizi-zako ainbat Euskal-lanagaitik omendua izan zan Derioko Udako Euskal Ikastaroaren barruan: an batu ziran Bizkaiko Kultur-gizon eta Eleiz-gizon nagusiak, Gotzaiña tarteko. Eta an egon ezin izan eben batzuek ere euren telegramak bialdu eutsen Linori, zorionak emonaz. Eta onen artean gure Lendakari dan Jose Antonio Ardanza-k ere telegrama au bialdu eutsan:

«Lino Akesolo Karmeldar zintzo eta euskalzale langileari, esker-rronez.

Aldi berean zure omenaldira nire ezin joanaren berri adierazi nahi dizut. Dena den, zurekin izango nauzula gogoz eta bihotzez azaltzen dizut.

Besarkada haundi bat.

Jose Antonio Ardanza

Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria».

KARMEL.— *Omendua izanez, zelan sentitzen zara, edo ta zer suposatzen dau omenaldi onek?*

L.A.— Ni omenaldi orren ostean, lengo lengua nazala uste dot. Bear bada len baiño lotsatuago ikusten dot neure burua. Nondik niri omenaldi ori? Iñoz entzunda

* Karmel 1987-3, 73-82. Julen Urkizak Aita Linori egiñiko alkarrizketa.

neukan egiteko zirala, baiña ez ain ariñ, eta nire idazlanez osaturiko liburuen bat argitaratzeko zirala be bai. Orain beartuago nago eurai orretan laguntzeko, edo neure lan batzuen zerrendatxoa eurentzat gertatzeko. Nire Labairu Ikastegia-gazko artu-emonak urte mordo bat lenagokoak dira, euren asmoak argitaratu ziranetik onakoak.

Lanak argitaratzeko esku-idazki batzuk be zuzendu deutsiedaz, bat Aita Zabala, Bilboko seme prantziskotarrarena; eta bestea, Bilboko Gabon Kanta zarrena be, eurai opatuta daukat: orregaitik-edo, egin gure izan deuste; eta, bai, nire euskerea ontzat daukenik bada Ikastegi orretan; orrek, egia esan, poza emoten daust. Ori be autortu bearra daukat.

KARMEL.— *Liburu artean jaió zĩñala entzun izan dogu, zelan izan leike ori Oba puntan jaió zĩñanez?*

L.A.— Oba puntan ez uste gero liburuentzako lekurik ez danik. Ango semea zan orain laureun urte Valencia-ko Unibersitatean irakasle izana, Pedro de Madariaga, euskerazko ortografiaren lenengo barri apurrak emon zituena. Eta liburuzale anditizat dago. Erromatarren latin-literatura gitxik lez irakurria eta ezagutzen ebana ei gendun, nik neure lantxoan batzuetan idatzi dodanez.

Geure etxean bagendu Dima'ko parroko izan zan Alejandro Akesoloren liburutegia izana: zati bat beintzat; euskerazkoak be bai. Irakurten ikasi baiño len oitu nintzan liburu areik erabilten, irudidunak, batez be. Irudiak Kalbarioko bidekoak eta meza emoten egoan abadeenak ziran.

Baziran eskuz idatzitako sermoiak be: bat ondo gogoan daukadana, kometa Halley-ren bildurra eleiztarrai kentzeko egiña gerratean galdu zan.

KARMEL.— *Zelako problemak euki zenduzan Karmengo Argiaren zuzendari bezala?*

L.A.— *Karmengo Argia* orren zuzendari 1936-n egin ninduen, eta garillako eta dagonillako zenbaki biak besterik ez neban atera. Urrengo illerako Euskalerrri erdira ezin bialduta gelditu giñan, eta idazleak be an or emen galduta, eta asko, neu tartean nintzala, gudari joan bearrekoa. Aldizkaria ateratea, olan, etenda gelditu bear, aldi egokiak noz etorriko. Gerraldi, edo ixilaldi luzea, benetan. Agintari jarri ziranentzat *Karmengo Argia*, tituluabera ez zan, bada, «separatista»?Euskereabera, etaeuskeraz idaztea, orixe izaten zan areintzat.

KARMEL.— *Zer suposatu eban euskerarentzat azken gerratea?*

L.A.— Aurrekoan ia emonda dago erantzuna. Gerratea bera bakarrik ez; gerraste luzea izan zan euskerearen, idatzizko be, euskerearen itogarri. Amar urte geroago arte ez zan asi burua apur bat jasoten. Jupiter-ek igelen osiñerajaurti eban mukuraren astrapaleak igelakaz egin ebana, orixe egin eban gerrate arek euskerarentzat, danak ixilduta itxi; baiña igelen ixilaldia baño ixilaldi luzeagoa, baiña ez gerrateko astrapaleagaitik, goian zemaika jarraitzen eben Jupiter-en indarrez baiño.

KARMEL.— *Ainbat urtetan irakasle izan zara, baiña ze gai emon izan dozuz?*

L.A.— Urte bat eta erdi latin eta euskera irakasten egin neban Zornotzan, 1936-ko gerratea sortu zan arte. Gero neure erbestealdiak egin, Santander-en eta Iruñan

(gure Iruña ez zan Euskalerrí francotarrentzat), 1948-n Begoñara bialdu ninduen nagusiek, emen irakasle egiteko: Eleizearen Edestia, Patrologia eta Liturgia irakasten, emeretzi urte. Liturgi-irakasle nintzalako, egin ninduen Bilboko eleizbarrutian, Liturgia barriztu zanean. Liturgibatzordeko, eta euskal-liturgiaren arduradun. *Mezako egunerokoa, Prefazioak, Bateoko Sakramentua, Geixoena* eta abar, orduan egiñiko lanak dira. Gero, Bilbo, Donostia, Iruña eta Baionako Eleiz-barruti arteko Batzordea zortu zanean, batzorde orretako egin ninduen.

Begoñako irakasle izateak gaiak zeatz aztertzeiko gaiago egin ninduela uzte dot: mezedegarri izan jatala.

KARMEL.— *Zeure bizitzan zelan sartu zan zeure euskerarekiko maitasuna eta zaletasuna?*

L.A.— Zaletasun ori Larreako Ikastetxean sartu jatan, beste batzuei lez. Zek eraginda? Gauza askok: Bertako irakasleak, Gernikan Eusko-Ikaskuntzak izan eban Batzar andi-tik Larrea-ra etozan otsak. Gerotxoago Norbert Tauer Madrillen zala, gure Ikastetxearen barri izanda, txekoeslobiar orrek egin euskun kartak Eusko-Ikaskuntzak bialduta, Jose Migel Barandiaran jaunak egin euskun ikustaldia eta azterketak. Ordukerik asi giñan Larreatik *Euskal-Esnalea-k* urtero ipinten zituan sariketara lanen bat edo beste bialtzen.

KARMEL.— *Euskerari buruz, zein izan da geien txunditu zaituan jakintsua?*

L.A.— Nik uste dot, Azkue andia izan zala. Orain jakintsu asko dago eta asko dabil gure inguruan. Baiña ak egin zituan lanik oiñarrizkoenak euskeraren arloan. Eta ak itxitako lanetatik eta ak landutako arloetatik dabiltz geroko jakitunak, euskal-arloetan zeozer diranak. Gero, guk geure Larreako ikasturteetan euskal-literaturan orduko iturri garbientara joten ikasi gendun: Txomin Agirre, Azkue, Mañariko, Bustintza, Zamarripa eta olango idazleen liburueta. Geroago begiko egingo jakuzan Lauaxeta, Lizardi, Arrese biak eta abar; baiña lenengo euskal-literatura idatzia aitatu dodazan idazleen liburuetatik edan eta aogozatu gendun.

KARMEL.— *Zu zaitugu, askoren eritxiz, euskal-kulturaren, batez ere euskal-linguistikan eta literaturaren gizonik jakintsuenetariko bat, eta ainbat lan kritikatzeko ere almena daukazuna; gaur egun zelan ikusten dozu kritika-literario edo zientifikoa euskal-lanetan? Ba-al dago kritika seriorik?*

L.A.— Gizonik jakintsuena? Itsuen artean betokerra dana, izatekotan. Gure artean ezjakin asko izan da, bere burua dana dakialakotzat euki dauana. Ez-jakiñik asko, diñot, baiña bekoki gogordunak, edozertaz edo edozeintzaz bere eritxia emoteko azkenengo berbea emoteko. Esaera zarra da: apezak azken-itza bere. Esaera ori gaur apez edo abade ez tiran geiagori jagokie. Eta olango barritsu batzuk ixillik izten ez da gatxegi. Ori bada kritika egitea, nik ori be egin dot. Baiña ez ingudea bein eta barriro jo barik, euren burua, dana dakialakotzat daukena, lengo lepotik eukiko daben arren. Orain kritiko obeak be agertu dira, Unibersitatean ikasitako eskemei lotuegi badabiz be. Baten batek gogor daragoio, bere egiñalean, gure literatura kaskarregitzat ipinten erdaldunentzat.

KARMEL.— *Zeure lanetariko aundienetariko bat «Diccionario de Retana de Autoridades de la Lengua Vasca» da; zelan dago gaur egun «Diccionario» ori; zenbat tomo argitaratuta, eta zenbat argitaratzeko?*

L.A.— Nire lana? Manu Sota, Lafitte eta nire izenean datorrena esan naiko dozu. Manu Sotaren fitxak erabili dodaz: baiña zer garbitu askotxo egoan fitxa areitan. Lafitte-k ez dau or beste eskurik artu edo sartu, noz edo bein berari argitasuntxo bat eskatzea baiño; gaiñerakoa, Azkuena, beste iz-batzaille askorena da. Luis Ortega eta neuk egin dogu lana: Luis sekretario eta irarkolekin bitarteko, eta ni lanaren azken esku-emoille.

Orain zazpi urte dala, bosgarren tomoa aterata gero (bosgarren au ez da salgai ipiñi), eta beste bi inpretetan amaitutzat dagozala, or gelditu da lana etenda inpretakoai zor jakena ordaindu artean. Oraintxe asita, amaitu egin bear dala sarritan esan deuskue: baiña or jarraitzen dau, etenda, geldi.

KARMEL.— *Eleiz Batzorde Liturgian ere parte artu zenduan, baiña zein izan zan zure lana?*

L.A.— Len esan dot. Bizkaiko Batzordean neuk egin neban, alan esateko, lan guztia. Gero Eleiz-barrutien arteko Batzordean beste guztiekaz batera egin neban an erabagi zan lan metodoaz; bakoxtari emoten jakon lana guztien artean aztertu eta zuzendu. Olantxe euskeratuta dagoz *Meza liburu* andia, eta iru urterako *Irakurgaiak* eta aste-egunetakoak. Olantxe atera zan, gero, Testamentu Barri osoa, bere sarrera eta tartean tartako oarrakaz. Zati bat neuri emon eusten egiteko. Orrez gaiñera, Bidasoaz onantzako gotzainen Bilbo, Donostia eta Iruñekoak alkarrekin idatzitako artzai-idazkiak be itzultzen genduzan ta euskeratzea neuri ezarri eusten.

KARMEL.— *Onako baten, Setien gotzaiñak autortu ei eban zeozer?*

L.A.— Nik ez neuntsan entzun; baiña pastoralara azaltzera Bilbora etorri zanean zera esan ei eban:... «Gipuzkoako apaizak esan deustanez, euskerazko textoa askoz obeto ulertzen dabela erderazkoa baiño».

KARMEL.— *Zu eta A. Santi gaztetatik bizi izan zaree aldarrekin, ze euskal lanetan artu dozue parte batera?*

L.A.— Bai, alkarrekin bizi giñan geure ikasturteetan, eta alkarrekin jardun dogu euskal-lan batzuetan. Lenengo ta bein, Santa Teresitaren *Arima baten kondaira* dalakoa, biok alkarrekin euskeratu genduen ogei urteren inguran genbiltzala Gasteizko negualdi otzetan. Nik azken-eskua emonda gelditu zan neure eskuzko kopia baten; baiña galdua da.

Bigarren, Santa Teresaren *Onbidea (Camino de Perfección)*: biok asi lenengo kapituluaz (*Karmengo Argian* aldizkarian), nik jarraitu gerratea etorri zan arte; eta azkenez, 1962.an, bion artean amaitu (ak kapitulu bat, eta nik beste bat) eta argitaratua.

Irugarren, euskerazko Liturgia asi zanean, domeka eta jaietako mezak fitxetan, sarrera, oar eta gutzi. Fitxa oneik gero Kerexetaren Eguneroko Meza liburuan sartu ziran.

KARMEL.— *Gaurko KARMELen eta euskal aldizkarien zoria zelan ikusten dozu?*

L.A.— Naikoa larri. Euskaldunari, euskaldun irakurleari zer irakurri lartxo, geiegitxo eskeintzen jako. Guztien irakurle ezin izana dator ortik, eta guztiei janik

emon ezifia. Ainbat opil eskeintzen diardugu gure euskaldunari, eta bakotxa bere opilari su egiten edo egin gurez, eta guztiak eskeko eginda, kaleari eskua luzatuta, kaleari edo goragokoari, eta ez emoteko, artzeko baiño, guztiak artzeko prest.

Eskeintzen jakon beste opil bear ete dau, bada, euskaldunak?

Eskeintzen jakozan guztiak osasungarriak ete dira euskaldunarentzat eta euskerarentzat berarentzat? Naikoa negargarri dagoela uste dot gure egoera.

KARMEL.— *hkuntza aldetik, Lekuona dala-ta periodikotan agertu da euskerarekiko daukazun eritxia, zer diñozu orretaz?*

L. A.— Bai, or irakurri neban, M. Atxagaren artikulua. Bere idazlanetan zentzun ona agertzen dauan idazlea da Atxaga jauna. Zer esango dot nik orrek egin eustan aitamenaz? Adarra joten entzun ei euskun niri eta Zugasti apaizari, *Zeruko Argiak* euskera kontuan artu eban joera barria kritikatu edo. Nik uste, gure artean dabiltzan joera asko umore onez, adar-jotzaillearen umorez artzea osasungarriago dala negar-garrizat edo pozgarrizat artzea baiño. Atxaga jaunak besterik uste dau, antza. Bere buruari barre egiten edo adarra joten ez dakiana naikoa negargarri da.

Dana dala, Lekuona zana (G.B.) gizon zentzun oneko eta bakezaletzat aurkeztu nai izan dau Atxaga idazle gazetalariak. Nik ez dot besterik uste. Ondo erakutsi ebalu uzte dot Euskaltzainburutza jareiteko zala, bere jokabidea garbitzeko egin eban itzaldian. Atxagak aitzu eta ixildu egin nai izan dauala esango neuke Lekuona jaunak illobira eroan dauan atsekabea.

KARMEL.— *Euskerazaintzako buru zaranez, zeintzuk dira erakunde orren elburuak?*

L. A.— Bai, Euskarazaintzaren buru izendatu ninduen bein, eta gaur arte aintzat nago, ez dakit noz arte. Niri jubilaziño urteak etorri jataz eta besteen bati emon bearko deutso txandea laster. Euskerazaintza euskera biziari eusteko jaioa da. Bere liburuak ateraten diardu. Bere batzartxoak egunkarietan agiri dira Aldizkari bat edo besten eragille eta laguntzaille da. Berak artutako bideetatik eta Euskerazaintzako luma lanez agertzen dira *Saski-Naski* Readers Selections-en antzeko izan nai dauan euskerazko aldizkaria, eta *Goi-z-Argi*. Bada zeezer. Ez ta?

KARMEL.— *Eta zelako artuemonak dituzu Euskaltzaindiarekin?*

L. A.— Euskaltzaindiak Gramatika Batzordean sartuta nauka azkenengo urteetan eta neure aletxoeroaten joaten naz Batzorde onen lan egunetara. Ain zuzen, omenaldi egunean, batzorde orrek lan eguna zeukan eta ez neban poztasun txikia artu, batzordekoen zorion telegrama irakurri zanean Derion. Gai batzutan estuegitxo jokatzen dauala uste dot. Esaterako, nik naiago neuke, bizkaikotzat dagozan adizki batzuk euskalki edo euskera guztientzat ontzat eta jatortzat artuko balira, Gipuzkera geienean bizirik egon diran ezkerok; *dezagun* eta *dagigun* Gipuzkoako idazleetan, biak erabili izan dira, eta Axular eta Gasteluzar-ek bidasoaz andiko aldean erabiliak izan dira noizik bein.

Zergaitik, ez onartu euskera guztian, *dagizu*, *dagigun* adiskiak Euskalerrri guztiko egin aditzarenak izan da?

KARMEL.— *//.* *Euskal Mundu Biltzarra ospatzen dogu; zertan parte artzen dozu, eta zer deritzen jatzu Biltzar ori?*

L.A.— Lenengo maila orretako Euskal-Biltzarra diñozun ori 1948-n egin zan Parisen, euskal-diasporakoen eragitez orain Bigarrenez eratu dabe, munduan zearreko eta Euskalerriko jakitunen laguntzaz. Politiko usaiñeko kritika batzuk artu dituen badakit. Euskeraren biziari betiko eustea lortuko ez dauana be bai. Baiña euskerearen eta Euskalerrriaren geroa zelan alan agertzeko asmotan egiña dirudi, eta ortik egiten dan lana ez da txarto etorriko.

Niri euskera irakasteko Euskalerrrian 1975-ra arte, lengo gizalditik (1800-tik) ona zer egin izan dan aztertu eta erakusketa bat egiteko laguntza eskatu eusten. Eta orretan nabil beste birekin.

KARMEL.— *Zelan ikusten dozu gaurko euskeraren situazioa? sozialki artuta eta euskerari berari buruz?*

L. A.— Ain zuzen, egunotan asi da Munduko Euskal-Biltzarra edo dalakoa. Eta zuk egindako itaun bati erantzuteko egiña dirudi Aita Villasantek Biltzarraren asieran egindako itzaldia.

Euskaltzaindiak egiñiko lan guztia larrosa kolorez ikusi dau, dana ondo egiña, eta guztiak onartua.

Baiña gizarteak emon dauan erantzunari dagokionez, naiko baltz ikusi dau. Eta Euskerearen biziagotzeko, gizarteak erantzun ohea emon bearko leuke.

LINO AKESOLO, CINCO DECADAS DE TRABAJO EN TORNO AL EUSKERA*

Ha sido editado el «Diccionario de Autoridades» dirigido por este fraile carmelita.

El carmelita Lino Akesolo nació en Dima hace 78 años. A lo largo de su existencia se ha especializado en la traducción y comentario de textos antiguos en euskera. Tradujo, entre otras muchas obras, «Camino de Perfección», de Santa Teresa y los salmos bíblicos. En 1930 se le premió por la traducción de la obra cervantina «El celoso extremeño». Ha residido en numerosos conventos, entre ellos el de los carmelitas de Donostia, durante varios años de la década de los setenta. En 1972 fue nombrado coordinador del «Diccionario de Autoridades de la Lengua Vasca», obra de nueve volúmenes que vio la luz el pasado abril.

— *Hace tiempo que tradujo usted «Camino de perfección», de Santa Teresa de Jesús. ¿Le resultó difícil esta tarea?*

— Lo empecé a traducir siendo bastante joven. Para entonces ya había hecho algunas traducciones de clásicos en la literatura, por ejemplo una de las «Novelas ejemplares» de Cervantes. Con aquella traducción me dieron un premio y me vino muy bien para comprar libros: el diccionario de Azkue, la Morfología Vasca de este mismo autor...; y así pude seguir profundizando en el estudio del euskera.

A la obra de Santa Teresa le puse de título «On Bidea». Llegué hasta el octavo capítulo, y en una de esas se le ocurrió al Padre Santi Onaindia que podíamos acabarlo juntos, y así seguimos hasta el final, él traducía un capítulo y yo otro.

* El Diario Vasco 56 (1989, 16.940. zenb.) 83. Felix Ibargutxik L. Akesolori egiñiko alkarrizketa.

No fue tan difícil traducir a Santa Teresa. Y es que usaba un lenguaje llano, similar al de la calle en su época. A veces sí tuvimos problemas para entender aquel lenguaje, porque ciertos términos o expresiones ya se habían perdido.

Pero mi mayor actividad como traductor fue dentro de la Comisión de Liturgia Vasca. Fui el responsable de la comisión de Vizcaya que se encargó de traducir la liturgia al dialecto vizcaíno. Luego nos empezamos a juntar en San Sebastián los traductores de los diferentes territorios vascos para llevar a cabo una versión unificada de los textos litúrgicos. Este trabajo nos ha llevado diez años.

— *Usted nació en Dima, y de pequeño aprendió el dialecto vizcaíno. Posteriormente, ¿cómo aprendió los demás dialectos?*

— En los conventos siempre había libros escritos en otros dialectos. En Amorebieta teníamos libros de sermones escritos en diferentes dialectos. Luego aprendí mucho mediante la gramática de Campión, y para llegar a dominar los dialectos del otro lado leí mucho a Jean Etxepare, aquél que escribió «Buruxkak».

— *Ahora se sabrá usted de memoria el diccionario de Azkue.*

— No, no tanto. Decían que Olabide (escritor alavés fallecido en 1942) sí lo sabía de memoria.

Yo siempre tuve la preocupación por completar el diccionario de Azkue, y por recoger modismos populares.

— *¿También se ha dedicado a recoger modismos?*

— Sí, sí. Y también he conocido la recopilación que ha realizado el Padre Mokoroa, cuando estaba en Chile, un fraile nacido en mi barrio le ayudaba a pasar a máquina los materiales, y un día me envió un lote de 32.000 frases. Yo estaba dispuesto a hacer algo en común con Mokoroa, pero me dijo se basaba en criterios diferentes a los míos y que le dejara tranquilo.

— *¿Y cuál ha sido su criterio a la hora de recoger modismos?*

— Hay que partir de la base que el euskera tiene un espíritu propio, como todas las lenguas al fin y al cabo. Mientras en castellano se dice «Donde menos piensas salta la liebre», en euskera el giro es diferente: «Gutxien uste denean erbia lo» (Cuando menos se encuentra una liebre dormida). Ahora se oyen en euskera muchas frases incorrectas, producto de traducciones literales.

— *Usted ha trabajado tanto en el seno de Euskaltzaindia como en las asociaciones Euskerazaintza y Kardaberaz. ¿significa eso que ha querido ser conciliador en aquella época tan difícil en la que el mundo de la cultura vasca se dividió en dos grupos, el de los partidarios de la unificación lingüística dictada por Euskaltzaindia y quienes se oponían a ella?*

— Ha habido una especie de guerra, sí es cierto. Pero yo nunca he sido partidario de crear conflictos, y además la asociación Kardaberaz tampoco se ha dedicado a promover líos.

— *Uno de sus amigos íntimos ha sido el padre Santi Onaindia.*

— Hicimos toda la carrera juntos...

— *¿Con quién más ha tenido amistad?*

— Amigos... Ya sabe usted que he vivido toda la vida metido en el convento. Otro amigo fue el fraile que me envió los papeles de Mokoroa. Ya murió. Fuera del convento también he tenido amigos, por supuesto: Mikel Zarate, Karmelo Etxenagusia. Cuando estuve en el convento de San Sebastián tuve amistad con el padre Berrondo; el me animó a colaborar en la página de euskera de EL DIARIO VASCO. También conocí a los dos Lekuona, tío y sobrino, y otros dos sacerdotes: Anizeto Zugasti, Nemesio Etxaniz. Asimismo, traté bastante con Mitxelena; me dijo que escribiera para la revista *Egan*.

— *¿En su opinión cuáles son los libros que convendría editar?*

— Hay algunos clásicos que todavía no se han publicado nunca. Por ejemplo, varios de Silvain Pouvreau. Conviene publicar a los mejores autores clásicos en euskera, para conocer lo que fue el pasado de nuestra lengua. Hay también otras obras de Azkue, al margen de la que se ha publicado ahora, «Latsibi». Están escritas en euskera vizcaíno y todavía hay gente que tiene una especie de aprensión hacia este dialecto, lo cual no me parece nada bien. Hay que superar ese sentimiento.

— *¿He leído recientemente que tenía discusiones con Gabriel Aresti.*

— Nunca discutimos, por así decirlo, «frontalmente». Ocurrió que Aresti dijo algunas cosas incorrectas en torno a la edición por parte de Azkue de una obra del dramaturgo Barrutia y yo le contesté.

— *¿Sigue de cerca la narrativa actual?*

— Sí, procuro leer todo lo que sale. ¿Sabe qué libro me gustó mucho? Uno de Pedro Irizar, editado en la editorial Mensajero, titulado «Txingoa». De Atxaga he leído bastantes cosas, y creo que en el cuento de Camilo Lizardi ha demostrado que conoce el idioma y es capaz de narrar con gracia. Se han dicho muchas cosas de «Etiopía», pero a mí en particular no me gustó.

— *¿Cuando llegó la Guerra Civil sirvió como capellán de los gudaris. Pienso que posteriormente sufriría represalias.*

— En aquella época estaba en edad militar y los religiosos también fuimos movilizados como capellanes de la tropa. Al acabar la contienda me llevaron a juicio y al final me cayeron cuatro años más de los pedía el fiscal. Hice seis años en prisión, y después se me prohibió volver a Euskal Herria, estuve un tiempo en Santander y de ahí pasé a Pamplona, porque Navarra no entraba dentro de la diócesis de Vitoria.

— *¿Ustedes los frailes tienen voto de pobreza, pero quizá pueda disfrutar algo del premio que le ha concedido recientemente el Gobierno Vasco, el Premio al Mérito de las Letras Vascas.*

— Sí, creo que podré disponer de parte del dinero del premio para comprar algunos libros.

DIMAKO EGUNA*

Zoriondun barriari egin izan jakon irugarren omenaldia bere jaioterrian, Diman, egin izan jakona da. Erromako ta Algortakoaren ostean irugarrena, azkena da. *Azkena, baiña ez txikiena*. Noz egokiago inglesen esakun ori? Jaialdi ederra Dimakoa, ondo atondu eta ederto ospatua.

Egunak lenagotik, zoli ibili da erria prestamenak egiten: erriko plaza ta inguruak garbitu eta txukundu, autoentzako aparlekuak ipiñi, eleiza nagusirako bidea leun eta garbi itxi, eta abar.

Domeka goizean, parroki-ingurua ta Ugarana alde guztia arpegi barriaz agertu dira: balkoi ta leioak oial zuriz apainduta, ia guztiak erdian Aita Domingoren irudi andi samarra agiri dabela; Errikoetxean, plazara begira, Domingo Zoriondunaren irudi andia, Vaticanoko plazan urriaren 30n ikusi zana bera; plaza goienetik, beste irudi bat, zurezkoa, bertako arotz ezagunak landua, eta bertan Domingo, gure Jauna esku batean erakusten dauala, plaza aldea bedeinkatu gure baleu lez.

Goizeko txistu-soiñuak bazterrak astindu dituaneko, jentea, erreskada anditan, etorri ta etorri dator, San Pedro eleizarantza. Ertzaiñak eta mutil gazteak dabiz datozen guztien joan-etorria zuzentzen. Eleizkizuna amaika ta erdietan dan arren, amarretan eleizea bete egin da, goi ta be. Gauza jakiña zan olantxe beteko zana. Orregaitik, tele-ispillu andiak jarri dira eleixe luze zabal guztian, aurreko pelotaleku zarrean, eta inguruan, kanpo gelditu bearko dabenak be barruko eleizkizuna ikusteko erea izan dagien.

Amaika ta erdietan da Meza Nagusia. Bilboko Gotzaiña, Koldobika Mirena Larrea jaun agurgarria da erdian meza-emoille nagusi. Onen alboan, Markos Zuluaga,

* Orri soltea (1983).

Ameriketean Gotzain dana, Arratiako semea; eta Gotzain bion ondoan, beste 42 mezadun, abade ta fraide lagun irukoiztarrak geien, eta euron artean Aita Iñazio, Zoriondunaren anai gazteena. Arratiako parroki guztiak bialdu dabe euren ordezeko bat eta Dimako seme direan abade guztiak deia artu daben arren, euren parroki-lanak lotuta, ez dabe askok tamalez etorterik izan.

Erriak, eta Yurreko ta Lemoako talde bik artu dabe parte meza-kantuetan, euskeraz eta latinez.

Gaurko mezea, Erromako San Krisogono eleizakoa lez, eskerrak emoteko da. Gotzain jaunak argi adierazo dau bere berbaldian. Eskerrak emon dautsoz Jaungoiko Irukoixari, Domingoren gurasoai, Dimako erriari eta, batez be, fraide irukoiztarrai. Jaungoikoak guztion bitartez landua da orain larogei urte Diman sortu zan santutasunlandara au, Domingo Iturrate, eta guztion eredu jarraigarrri egin deusku. Eskeintzakoan, Arratiako erri guztiak, bakotxak bere oparia dakarre.

Baiña gaurko egin au, gaurko esker-meza au ez da ez Dimako erriarena, ez Arratiako-erriarena bakarrik. Bizkaia osoarena eta zelanbait Euskalerrri Guztiarena be bada. An da Euskaldun guztien izenean Karlos Garaikoetxea Jauna, Lendakaria. Erromara ordezkaria bialdu ebanak, orduko ordezkaria bere Iagun dauala, berak etorri nai izan dau Dimara. Bizkaiak bere Batzarretako Buru dana, Aurre Jauna, bialdu dau bere lagun batzukaz batera. Arratiako alkate jaun guztiak an dira. Eta an díra asko ta asko, inguruko errietatik eta urrinagokoetatik, Algorta, Bilbo, Galdakao, Durango, Gernika, Eibar, Legutiano, eta Gasteiztik eta etorrita. Urriñagoetatik etorriak be badira! Erriko alabak eurok. Jaungoikoaren eta gizonen serbitzari or zear Galizian, Cataluñan, Mallorcan, Madriden, Zaragozan eta Barcelonan dabizen mojatxoak, etorteko baimena euki dabenak.

Bada an Domingoren eskola-lagun izan zanik. Asko dira, batez be, beragaz batera, irurogetamar urte lenago, antxe bertan konfirmaziñoa arturikoak. Ez ziran izan gitxi be: 932. Askoren begiak meza nagusiko altaratik alboko altara batera joan ta etorri dabiz. An dauke orain euren txikitako laguna, antxe bertan altaran mezalaguntzaille ibilli zana, orain bera be santuen lekuan zutunik, beso biak eurakana zabalik, kristiñau bidean gora ta gora, aurrera ta aurrera egiteko adorea emoten. Ia ezin dabe siñistu. Arroturik eta arriturik dagoz. Arriturik geiago arroturik baiño bik (Iruarizagak eta Urkidik) ataratako kantuari ekinez, kantari talde biakaz batera: «Agur, gure Domingo, Dimako lorea...».

Dimako erriak, Dimako parrokiak, ez dau egun andiagorik ikusi, bere beñolako meza-mutilla altaran ikusi dauanean baiño.

Eleizako omenaldiaren ostean, plazako omenaldia dator. Eleizgizonen txandea amaitu danean, erri-gizonen txandea. Eta an doaz guztiak errigizonen berbak entzuten. Plazan, Errikoetxeko balkoitik berba egingo dabe. Dana Bizkaiko ta Arratiako euskera garbian. Lenengo, erriko alkate dan Leon Gorosperen berbak izango dira. Arrotxo dago, Dimako seme batek bere erriaren izena mundu guztian zear zabaldu daualako. Kristiñau-bizitzan, gizontasunean eta alkar-maitasun alaiaren eredu eder agertuaz zabaldu be. Bigarren txandea, txanda nausia, Karlos Garaikoetxearena da. Aita Domingoren bizitzeari begiratzea bake txarrean bizi dan gaurko munduari eta Euskadiri

be ondo jatorkola esan dau, aren kristiñau-leialtasunezko, maitasunezko ta bake onezko ikasbideari jarraitzen ikasteko. Urrengo, bertsolariak agertu dira balkoira: Enbetia aita-semeak bi, eta irugarrena Faustino Etxebarria, Dima bertakoa. Bata bestearen urrengo, luzaro ekin deutse Domingoren bizitza garbi, apal, zintzoa ta baztertuen maitatzaillea goratzen.

Azkenez, dantzari talde batek urten dau plazara, euren artaziak eta atzera egiten, euren Erromarako egunak alaitzeko dimostarrak eroan eben txistulari, Bilboko Boni entzute andikoaren txistusoiñuan.

Dana amaitu eta plazea ustuten asi danean, an jarraitu dabe Domingoren irudi biak, oialezkoak eta zurezkoak, bakotxak bere lekutik, Dimako plazara begira, bere erritarrai meza osteko kantuarena gogoratzen:

«Agur, gure Domingo,
Dimako lorea,
erakusguzu danoi
zeruko bidea,
zeruko bidea».

«ESKERRIK ASKO» BIKOTXA*

Jaun-andreak:

Egia esan, emen ikusten dodana siñistu eziñik nago. Ezin dot neure arrimenetik urten. Nondik nora niri omenaldia dalako au, eta Bizkaiko Aldundiaren izenean edo, bardintsu dana, Bizkai osoaren izenean egiñik?

Ez dot ukatuko neure bizian zerbait egin dodala Bizkaiaren alde, eta EuskalERRI osoaren alde bere bai, bein Bizkaiko euskeraz idatzíta, edo urrengo baten beste nonbaiteko euskera moduan, non aurkitzen nintzan eta angoxe euskera erabillita; bein alde bateko edo besteko euskal-idazleren bat illunpetik atereaz, beste bein edozein erritako idazle gitxi esagutuen bat obeto ezaguerazoaz, bein Bizkaiko edo non-naiko semeen baten jayorria eta goraberak aztertu eta argitara ekarriz.

Euskeraz eta bai erdaraz be, arlo askotan egin izan dot neure lantxoá, erriagazko arloetan eta Eleizeagazko arloetan, esaterako, Liturgia barria euskeraratzén. Bear bada, naikoa eta lar entzune dozue Erkiaga lekeitiarraren agotik.

Dana kontua artuta bere, ez dot nik ikusten gaurko omenaldi au artzeko besteko lanik egin dodanik. Ez, urrik emotekorik. Egin dodan guztiaz, Kristok apostoluai esan eutsen lez esan beariko dot: Egin bear nebana egin dot eta ez besterik. Morroi ezerezak gara. Orrenbeste zor neutsan gure erriari, eta bear bada, geiago egin bear neban. Zeuok ikusten dozue, egin dodan lana eginda gero bere, ez nagoala lanen lanez urtuta, agortuta, neure indar guztiak ekintza orretan galduta.

Ez uste orraitio, diñodana orain zuokaz dodan zorra ukatutearren diñodanik... Zordun nozue. Zordun andi. Eta itz gitxitxoaz bada bere, euskereak daukazan itz labur bigaz autortu eta agertu nai deusuet neure zorra: Eskerrik asko.

* Karmel 1989-2, 17-19. Bizkaiko Foru Aldundiak eskaini eutsen omenaldian (1989-VI-7) L. Akesolok, amaieran, eskerrak emon ebazan, emen jasoten dituen berbok irakurriz.

Eskerrik asko, bai, Aldundiko gizon argiai, batez bere, Kultura Arloko arduradunai. Eskerrik asko Eusko-Jaurlaritzako eta Bilboko Udaletxeko ordezkari zareenoi. Eskerrik asko, omenaldi oni itxura ospetsuagoa eta irudi ederragoa emoteko, ona agertu zareen guztioi. Eskerrik asko biotz-biotzez.

Baiña itzi egidazue omenaldi au beste Bizkaiko seme argi bati eskintzen, eta aregaz erdi bana egiten. Neure errikoa da, neure jaiotzako auzo berekoa. Ez da gure egunetakoa, bai orain laureun urte dala bizi izana. Bizkaiko seme izatea arrotasuntxoaz autortzen eban beti eta edonon.

Kaligrafo ospetsua da: Pedro de Madariaga, izenez. Bere kaligrafiazko liburuan, *Honra de escribanos* izenekoan, kapitulu bat sartu eban euskerazko ortografia eta euskal-fonetikako lege batzuk argitzeko, iñozko lenengoz. Alkar-izketazko liburu orretan, euskaldunen eta erdeldunen artean sartzten dituen alkarren arteko luma-lanetan, eskribau izateko zaletasun eta balioan. Liburu orretan euskaldunek erdeldunen ganetik gelditzen dira beti. Arrotxo agertzen da bera Bizkaiko seme izateaz, gure Foruak Bizkaiko semeen nortasunari deusantz eta begirunea dirala-ta. Bizkaitarrak luma lanetara zaletu gura leukez. Alderdikeriak itxita, Ganboa ta Oñaztarkeriak aitzu eta aldentuta, bake-giroan osoan luma-lanari ekitea opa deutse bere euskaldunai. Min artzen dau, miña ta asarrea erakusten ditu euskaldunka, Bizkaiko semeak euren alkarregazko artu-emonetan, alkarri egin bearreko sal-erosketako kartetan erderara joatea, euskera erabilli bearrean. Ez dagiela gero erdaldunak uste euskereak ez dauala balio libururik idazteko, argitaratutako liburuak bere egonik euskeraz.

Pedro de Madariaga au Obako semea da. Axmutil atxaren azpian dagoan auzokoa. An dau Madariagak bere izeneko etxea, oin-etxea: «Madariaga, antiquísimo solar de Vizcaya». Eta Oba (Oa) ori ez da beretzat edozer, «principalísimo pueblo de Vizcaya» baiño. Orrenbesteraíño daroa bere auzoari deusant maitasuna. Eta gizon ain euskalzale eta ain jakinzale oni, nire ustez, ez deutso ez Arratiak ez Bizkaiak zor jakon autormenik egin.

Ez daustazue esango omenaldi onetara lagun txarra dakardanik. Berak salatu zituen pekatu batzuetan ez jausteko alegin egin dot beñik bein. Euskaldun izateaz lotsatu barik, lumalanetan ekin izan dot, euskerearen onetan, Bizkaiaren eta Euskalerrri osoaren alde. Ez deustazue esango lagun eta kide txarra ekarri izan dodanik gaurko omenaldi au erdi bana egiteko.

Orain dala laureun urte bizi izan zan bera. Eta aren gurariaz bat egiten dot nik neure gaurko guraria: aren mezua geuretu eta ari jarraituz, alderdikeri guztiak atzean itxita, aiztuta, bake-giroan bizirik, emendik beste laureun urtera bere, euskaldun iraunik, alkartasun onean jarraituko al dogu euskaldunok bizitzen, eta munduan zear oraiñarte izan dogun izen ona zabaltzen.

(Obako seme bion izenean), eskerrik asko.

KARMELDARRAK IRUÑAN

Orain Lareun Urte*

Joan dan urtean laureun urte izan dira Iruñan Karmeldegí barri bat sortu zala. Naparroako uri nagusiraiño eldu zan, Avilako Teresa andiaren eragiñez, Joan Kurutzekoak Durueloko Karmeldegítxoan ogei urte lenago asi eban bizimodua. Lau urte lenago, 1583n, aurea artu eutsen Ama Teresaren alabak fraideai, euren ama ilbarritxoan. Oraingoan, 1587n euren txandea jatorke fraideai. Ordurako, gizon eta emakume, napartar mordoá sartua da Ama Teresa eta Joan Kurutzekoaren jarraitzaileen artean, eta, orain, euren errialdera dakarre erritik kanpo artu daben bizimodu ori.

Iruñako karmeldarrak igazko urte guztian zear ospatu dabe ain jazoera gogoangarria. Urtean zear illero izan dabe elizkizunen bat edo ospakizunen bat euren laureungarren urtearen gomutagarri. Eta Iruñako egunkarietan agertu izan da, bai, urteurren andiaren eta bera ospatzeko egin izan diran ospakizunen oiartzunik. Eta guztiari gaillurra ipinteko, aurtengo urtarrillean, bigarren domekan, Telebistan millaka ta millakái eskini izan jake azkenengo ospakizuna ikustea, fraideen eleizan, osperik andianean, Iruñako gotzaina, J.M. Zirarda Jauna meza-emoille nagusi eta izlari zala, emon daben Meza Nagusi ikusgarria.

Laureun urte joan diranean, Karmeldar arein Euskalerrira lenegoz agertze ori gogoangarria dala esan bearrík ez karmeldar guztientzat eta Iruñar askorentzat. Eta karmeldarren euskerazko aldizkari onen orrietan zelanbait gogoratzea dagokigu. Esango ditugunak bati baiño geiagori atsegingarri eta jakingarri egingo jakozalakooan, ekin deiogun lumeari eragiten.

Lenengo ta bein, esan daigun karmeldarrak amaseigarren gizaldia baiño askoz lenago agertu zirala Euskalerrira, Karmel-mendian sortu izan ziran mendean bertan.

* Karmel 1989-1, 56-63.

Baionan agertzen dira lenengo: 1264n. Auñemendiz onantzako Euskalerrian 1277n Sangotzan ditugu, Naparroako erreiñuan. Urrengo gizaldian, Iruñara, erreiñuko uri nagusira datoz. Joan dan mendera arte, XIX garrenerarte iraungo dabe bertan, eta alde egin bear izan eben arren, *El Carmen* kalearen izenean euren aztarrentxoa itxi deuskue. Karmeldar zarrak esan geinkioe.

Karmeldar barriak Iruñan

Amaseigarren gizaldian karmeldar barriak edo barriztuek datoz, Ama Teresaren eta Joan Kurutzekoaren arnasa barria dakarrenak, moja eta fraide, batzuk eta besteak lenengoz Iruñan oiña ipinten dabela, 1583n mojak eta 1587n fraideak.

Mojak Santa Teresaren laguntzaille andi eta Karmeldar guztien Nagusi zanaren eskutik etorri dira. Aita Grazian da Nagusi orren izena, eta fraideen etorrerak be berau izango eban eragille, andik lau urtera, 1587 Iruñan sartuko diranean.

Aita Grazian Iruñan

Ama Teresaren alabak Iruñera eroateko, eurentzat lekua billatu eta atontzeko izan zan Grazianek Iruñera lenengoz egingo eban joakera. Iruñera baiño lentxoago, moja ta fraideen nagusi zanez, Naparroako alaba bi moja sartuta daukaz, Sorian, Santa Teresa bere alabakaz Naparroa aldera geien urreratu zan urian, eta Ama Teresa ilbarritxoan, alabai Iruñera bidea urratzeko alegiñetan dabil, eta ara aldatzeko diran mojak izentauta daukazanean, aurrea artu deutse eta 1582ko abenduan Iruñan da. Sermolari ona dalakoa zabal dabil eta joaten zan leku guzti edo geienetan lez, sermoegintzarako erea eskiñi jako. Iruñarrak pozik itxi ditu, atsegiñez entzun deutsoe.

Olan, Aita onek, mojak Iruñan ezarriaz gaiñera, bere sermoegintza orregaz eta an daukazan adiskide batzuekaz, Aianz eta Kruzat eta beste batzuekaz girorik onena sortu dau fraideai be arako bidea erreztuteko. Batez be, karmeldarretarako irabazi dau Iruñako karmeldegiko lenengo Nagusi izango zana, Naparroako sendi andienetakoa, Martin Kruzat edo Kruzate Grazianek idazten ebanez. Ain zuzen, ordurako, bakar-bizitza, padar bizitza artuta eukan gizona zan Kruzate au, urte areitan Naparroan indar artzen asita egoan ermitau-bizitza egiten ebenetakoa. Aita Grazianek ez eban lan andirik izan Kruzate au eta besteren bat karmeldarren arterako irabazten.

Iruñako euskal-giroa

Aita Grazianek, bere liburu baten (*Peregrinación de Anatasio*) argibide polita itxi euskun orduan Iruñan zan euskal-giroaz, ain zuzen, ango bere sermoegintzea aitatu euskunean. Orain dala berrogetaka urte, neuk ezarri nebazan aren itzak Aingeru Irigarainen eskuetan eta onek Apat-Etxebarne izenpean bere liburu baten argitaratu. (*Una geografía diacrónica del Euskera en Navarra*.) Karmel aldizkari onetan orain-

txe emoten jako lenengoz sarrera Grazianen autorkuntzari. Euskerara itzulita, ona karmeldar orrek idatzi ebana: «Nik baneroiazan egun batzuk an mojak noz etorriko itxaroten, eta bitarte atan sermoegintzan neragoion, ango jenteen onuratan; orraitio, auxe be jazo yatan orduan: euskal utsak ziran andrak, erderarik ez ekienak, etorri jatazala nire itzak ulertzen ebezala esaten».

Egia esan aldi atako beste autorkuntzarik bada, Iruña inguruko eta Naparroa geieneko euskal-giroa ikusteko. Esaterako, Naparroan, mende atan berean asi da euskal-literatura burua jaso eta bere bizia erakusten: Etxepare bera, Elso eta Amendux lekuko. Are gerotxoago, 1609 eta 1611 urteetan, Antonio Benegas Iruñako gotzain jaunak Altarako Sakramentu Santua ospatzeko eratu zituen bertso-sariketan euskerea ez eban bazterturik itxi gura izan («no es razón que le lengua matriz del Reino quede desfavorecida»). Sariketa atarako bialduriko bertso sarituak argitara be emon zituan.

Gaur badaukagu beste argibiderik be: Martin Kruzate Karmeldar egin zanaren lagunarteko izaniko batek, Joan Undiaokok olerki pilloa idatzi eban euskeraz eta erderaz; tamalez galduak dira gaur. Aita Grazianek esanak beste argitasuntxo bat bere emoten deusku, naiko argigarria: bazala orduan Iruñan euskaldun utsa zan emakumerik. Gizonak baiño emakumeak erdalzaleago agertu jakuzan gizaldi onetarako argigarriago da benetan. Gaurko emakumeentzat ez da eredu txarra.

Karmeldarren bizileku bi Iruñan

Karmeldarrak ez eben Iruñan sartzea uribarrura egin lenengotan; mojak bai, baiña fraideak ez. Arrotxapean edo Larrotxapean izan zan euren lenengo bizilekua. An irauñ eben 1638ra arte. An, Madalena eritxon auzoan izan eben euren etxea, bere ortutxo ta guzti. Ortu au oraintsura arte *Huerta de los Descalzos* izenaz ezagutu izan da. Toki arek siñistekoa da baeukala bere izenik, euskerazkoa gaiñera, ingurutako beste toki batzuk gaur arte gorde daben lez: *Barkazio*, *Errotazar* eta abar. Edozelan be, Arrotxapea Iruña barrua baiño euskaldunagoa zala esanez ez dogu alan ez danik esango.

Arrotxapeatik uribarrura aldatzerakoan, fraide apal santu batek izan eban eraginik andiena. Arrotxapeako bizilekua Arga ibaiko urak ezoturiko zelaian egoalako edo, ez ei jaken fraideai osasungarri egin. Gero, an bizitzea eragozpen eta oker andikoa egiten ei jaken, uribarrura mojai ta gaiñerako arimai euren laguntza eskintzen sartu bear ebenetarako. Uri itxia zan Iruña, arresi gogorrek estu inguratuta eukena, bere ate eta sartu-urtenetarako ordu estuak eukezana.

Fraide batzuk, arimazaleak, naiago eben arresi-barrura sartu; beste batzuk bakar-zaleagoak, uritik kanpo naiago. Arrotxapea-zaleago ei zan an bertan fraide-soiñekoa 1618n jantzi eta santutzat egoan mezbako fraide bat, Añorbeko semea, Joan Leoz edo fraide izenez Joan de Jesus San Joakin eritxona. Lege andia artu utsan gogoan osoan betetan eutsan etxe ari. Baiña bein, bere sarritako otoiz-aldi baten, Jainkoaren onako itzak entzun zituela iruditu jakon: «Arimak nai ditut, arimak». Uri barruan bizirik, uriko ateen eragozpenik barik, arimentzat onik geiago egingo ebela ulertu eban berba orreitan.

Geroenean, baiezko erabakia etorri jake goitik, urira aldatu bear dabela, eta, alan, ara-ona eta joan-etorri batzuen ondorik, 1638n urira aldatuko dira, lenengo, San Nikolas ondora, adiskide batzuk eskiñi deuten etxe batera, eta, azkenez, 1640n, erosi barri daben etxe barrira, gaurko karmeldarrak daukenera.

Euskal-izeneko kaleartea

Iruñako zoko au, inguruko kalearteagaz batean, orduko euskaldunena zala dirudi. Bertako kaleen izenak alan difioe. Gaur antxiñako izenetatik bat baifio ez dau gorde: *Santo Andía*, edo *Saindu Andía*, antzifiako paper zarretan iñoz *Santo grande* be esaten jako baiña. Or agiri da euskerazko izenak erderazko egiteko oitura edo joera antziña-antziñakoa dala.

Ona orain an galdu izan diran kale-izen batzuk: *Urradinda*, *Zakudinda*, *Arrias Orantza*, *Urrea* edo (Rúa mayor de Sobranza), *Unainodia* (unainandia be bai). *Arrias Oranza* gaurko San Lorenzo kalearen zati bat zala dirudi. *Urradinda* edo ta*Zakudinda*, barriz, fraideen etxeak, eta eleizeak, leku geiego artu ala, janda itxi zituen, antza. *Urrea*, *Sobranza* eta *Unainandia* kaleak be ez dabe aztarrenik ez ordezkorik itxi.

Baifia kalearte oni euskal-usain garbiena Iruñako nekazarien auzoa izateak emoten eutson. Eurena zan alboko arresiari deusala euken *Geixoetxea* (Hospital de los Labradores edo de la Virgen de la O). Eta kalearte atan euken euren kofradiak euskerazko izen garbia eroian: *Langinobrari* (erderatuta Cofradía de los Trabajadores).

Karmeldarrak 1604an sartu ziranean, eta geroago, luzarotxoan, antza, euskal izenok bizi-bizirik zirauen eta alan gorde izan dira fraideen artxiboan dagozan paper zar eta kaleirudietan.

Beste Iruñako kale baten izenena San Nikolas eleizatik ur da gaur antziñako izen zar au: *Lindatxikia kalean* (*Inda txikia*, erderazko La artikulua aurreti dauala). Gaskoinduta edo, paper zar batzuk *Rua Petita* esaten deutsoe, euskal-izenak erderaturik emoteko oiturari jarraiturik. *Inda* daukagu Artaxonako kale baten izenean be: *Barrendinda* (*Barrendi Inda*) beerengo kalea edo *Barrendiko kalea* esateko. (Bilboko *Barrenkale* kale izenaren antzera).

Joan Anaiaren izena Euskal-folklorean

Joan Beltran Leoz zan fraide onen bataioko izena, Joan de Jesus San Joakin fraidetxean. Len ikusi dogu esku andia izan ebalá Arrotxapeatik uribarrura aldatzeko erabagian. Afiorbeko semea zan, etxe naiko zabaleko semea, Azpilikuetatarren odol-lekoa, Frantzisko Xabierren odolekoa, alde batetik. Euskaldun garbi jatorra. Beronen bizitza idatzi eban idazle erdaldunak urte bi egin bakoa zala igaro eban estualdi baten berak esaniko euskal berba bat gogoratu euskun: «Mamua, mamua». Berba au esanaz joan ei zan ordu atan amaren besoetara.

Ogeta zortzi urte zituela (1590n jaioa da), 1618n artu eban karmeidarren soiñekoa Arrotxapean, eta andik urira aldatu ziran ezker, nagusiak ez eben iñoiz beste iñora aldatu. Baiña andik eskean edo beste zeregin batzuetarako bialduta, Naparroa guztia eta Gipuzkoa aratu zituela eta Araba aldera eta Bilboraiño be eldu zala badakigu.

Leku askotan egin zan oso ezaguna. Nonai egiten eutsoen abegi ona eta nonai santu izena irabazi eban, mirari, zeruko argitasun eta igarketa asko ezarten eutsoezala. Otoitz andiko fraidea, apala, guztien serbitzaria, alaia, berbeta gozokoa, xalo, eta amarrubakoa, jende xeegaz atsegiña bazan andienakaz bardin jarduteko bape bildurrik ez eukana. Ondo ikusi eban, Felipe IV erregeak, 1660n Donostian izan zanean, onen aurrera agertu bearra izan eban, Nagusiaren aginduz. Eta erregeak argi autortu eban ez ebala ikusi alango fraide ain atsegiñik eta bildurbakorik, eta Madrilerakoan beragaz eroan gura izan eban lagun, fraidearen berbeta lau gozoa entzutearren.

Ez da gure asmoa fraide ospetsu baizen apal onen bizitza guztiko barri emotea. Baiña gure folklorean itxi dauan aztarren jakingarri bat ez dogu emen aitatu barik itxi nai. Aita Donostiak emon eban Altsasun entzuniko euskal-kanta baten barri, Naparroako erri orretan jazoriko mirari bat eta gure Frai Joan onen izena aitutzen dituana, ain zuzen.

Erri orretan gure fraidea oso maite eben senar-emazte bik urte biko semetxoa, fraidearen gogoa egitearren Joakin izena ipiñi eutsoena, geixoak gogor artuta, ilteko arrisku andian ei euken. Jakin dabe zorionez fraidea errian dala, eta eurenera deitu deutsoe, edo auzoko batzuk eroan dabe. Eta arako bidean dala il egin ei da umea, edo beintzat iltzat dauke. Fraideak, ara eldu danean, gurasoak illeta utsean aurkitu ditu, Fraideak guraso areik poztu egin gurez badiñotse: «Ez, Ez, ume au ez dago illik». Errian bazan ermitatxo bat Santo Kristorena, Joan anaiak aspalditxoan erriari apaindu eragiñikoa, eta etxeko eta auzokoai agindu deutsoe: «Eroaizue ume au ermitara ango Santo Kristoren aurrera; goazen guztiok bertara». Badoa eta badoaz guztiak ermitara, eta fraideak guztiai otoitz egiteko esanez, umea Kristoren aurrean ipiñi eta belauniko otoitzalditxo egin dau. Alango baten umea besoetan artu, sakeletik sagar bat atera (bidean jateko eroiana, antza), eta ermita barruan txirindolaka jaurti dau, umeari esanez: «Ala, Joakintxo, bizkortu adi, oa arin-arin eta sagar ori ekarridak. Eta orra non iltzat egoan umea, iñoz gatxik izan ezpaleu lez, sagarraren billa arin doan eta fraideari ekarri deusan, eta fraideak umeari emon, jateko esanez. Ikusleak «MIRARIA, MIRARIA» oiu egiten eben bitartean, fraideak apal apalik eta lau-lau diñotse: «Ez neutsuen esan ume au ez egoala illik? Santo Kristo oni deboziño andiagoo izan eta Joakin eta Ana Santuak geiago maitatzen ikasi dagizuen jazo da au».

Orra Aita Donostik argitaraturiko koplak zarrak gogoratzen deuskuen Joan Anaiaren bizitzako jazoera (Ikusi RIEV, 1928, 319-329 orrietan). Sei bertsotako kantua da. Emen bi bakarrik jasoko ditugu:

Juan frai santuak bota izan zuen
sagarra ermita barrena;
Joakin San Roman bizturik
lasterka joan zan argana.

San Joakin eta Santa Ana dira
Birjiñarentzat aita ta ama;
guk ere eduki dezagun
deboziua aingana.

Olangoxe aztarrenak itxi zituen Anai santu onek Naparroako erri askotan, bazterrak olangoxe egitez eta gomutaz beteaz, eta San Joakin eta Santa Anaren alderako oneraspena zabalduz. Ez da arritzekoa, santu izen andia itxi badau ainbat lekutan. Bera il eta amabost urte geroago bere bizitzako gauza arrigarriak liburu batek zabaldu zituen, bera ezagutu eben lekuko asko bizi zirala. Andik artu zituen Aita Donostik Altsasuko kantua argitzeko barriak. Gazte eldua zala Iruñan fraidetu zan onek Iruñako Karmeldegian amaitu zituen bere egunak, 1669garreneko urtean, irurogeta emeretzi urte zituala. Berak egiñiko Joakin eta Ana Santuen alderako zabalkundeak bete dau Naparroa ainbeste Joakin izenez. Eta Karmeldarren Euskalerriko Barrutiak San Joakin izena daroa.

Iruñako Karmeldegiairen Laugarren mendeurrena ospatu danean, euskal-jator eta fraide santu onen gomuta egitea eta len esanez gaiñera gure euskal-kantutegian itxi dauan aztarren politaren barri KARMEL aldizkari onen orrietara ekartea, zuzen eta egoki zalakoan gelditzen gara.

KARMELDARRAK EUSKALERRIAN GIZALDIZ GIZALDI*

Joan Kurutzekoa il zanetik laugarren eun-urtea gogoratzen dogun onetan, berak bizi izan eban karmeldarren bizimodua gure errian noiz sortua dan, zelango sustraiak bota eta zelango goraberak izan dituan gizaldiz gizaldi azaltzea egoki izango dala usterik, orixe egiteko gogoa daukagu artikulu onetan, andi-andika eta labur baiño ezpada bere, XU-XIIIgarren mendetik asita. Karmeldarren bizimodua amabigarren mendean asia da munduan, eta Euskalerrian amairugarren mendetik onakoa dogu. Zazpireun urtetik gora daroaz gure artean.

Karmel mendian

Karmel mendiak emon deutso ordena oni izena, eta antxe dau sorrera. Mende erdi bazan, berrogeta amar bat urte, Europako kristiñauak alkar arturik Leku Santuak mahomatarren menpetik aterateko asmoz joanik, Jerusalem uri santua eta inguruko lurraldearen jaube egin zirala. Kurutzedun batzuk eta euren atzetik joaniko beste askok leku santu areitan otoiz-lekuak autatzen dabez, antziña bateko eremutarren edo padarren bizimodua erodateko. Olango batzuk, 1150-1160 inguruan euren bakarleku eta otoiz-lekutzat Karmel mendia artuko dabe. Bertoldo izeneko bat dabe buru eta Aymerik Malafaida Antiokiako gotzaiñaren laguntzaz eleixatxoia eregiko dabe bertan, eta eleixatxoaren inguruan aterpe edo gelatxoak, bakotxak bere bakarrean otoiz eta lan egiñez biziteko, antxiñako eremutatar ospetsuen antzera. Andra Mariaren izenpean eregi dabe eleizea; Andra Maria dabe euren Ama eta Zaindari, eta Israelgo profeta

* Karmel 1990-3/4, 313-332.

andia, Elias Tesbitarra, ango mendia ain ospetsu egin ebana, euren bizimodurako eredu eta arnas-emoille.

Ain zuzen, andik dabil 1161n ibiltari eta bazter-arakatzaille andi bat, judeua bera baiña Naparroan jaioa, Tudelako Benjamin izenez ezaguna. Ibiltari onek, bere nondik norakoen barri emoteko idatzi eban liburuan diñoanez, an aurkituko ditu fraide barri areik, eta eurok eregiriko eleizatxoak. Bere berbetan igarten jakonez, judeu zintzoa izanik, an ikusiak ez eutson ezelango pozik emon.

An ikusi zituen 1185n karmeldar areik Phokaz, Patmosko eremutarrak, egunero alkarrekin emoten eben meza nagusi baten. Fraide barri areik luzarotxoan ez euken euren bizimodurako lege eta arau jakin eta zeatzik, eta 1208 inguruan Alberto Jerusalemgo Patriarka zanagana joko dabe, eurak eroen bizimodua eta asmoak azalduz, aurrerantzako araudi baten eske.

Alberto onek emoniko araudi orrek (1226n Honorio Erromako Aita santuak ontzat emonak), bultzada barria emongo deutso ango fraideen bizitza ari. Asisko Frantzisko eta Domingo deunen egunak ziran ordu berean. Aldi atan (1214tik 1226ra) Karmel mendiaren azpiko Akren Gotzain zan Jakobe Vitrykoa, eta berak idatziriko *Historia Orientalis* dalakoan Karmel mendiko fraide arein aitamen ederra egingo dau. An ezagutu ditu fraide areik banakako geletan otoitz eta lanean ekiñez, «erleak erlategietan lez, zoli bai zoli; zerutarren antzera ezti gozogintzan».

Leku santuetako bakeak, orraitio, Karmel mendikoentzat ez eban an luzaro iraungo. Etorbizuna larri ikusten dabe. Federik Bizargorri erregeaen badaezpako jokabideak indar artzeko aukerea emon deutse mahomatarren indarra. Arrisku andia etorren Karmel mendian bizi ziran fraideentzat. Ori ikusita, 1238n batzarra euki dabe eta alkarri esan deutse: zergaitik ez dogu Europako geure jatorrizko errietan bizimodu au berau eroateko bidea artuko? Eta laster, 1240 inguruan, txandaka txandaka asiko dira, ain maite eben mendia itxita, ango fraide batzuk Chipren, Italian, Frantzian eta Ingalaterran euren bizimoduan jarraitzeko leku billa. Beste batzuk Karmel mendian iraungo dabe oindio 1291n kurutzedunak Akreko ondamena izan eben arte.

Baiña Karmeldar areik, azkenengo ordurarte an gelditu ziranak, euren leku kutuna itxi bearra etorri jaken arren, ordurako zubi-buru onak eukezan Europan sortuta aurkituko dituezan ainbat karmeldegi barritan, euren aurretik Europaraturiko anaiak eregita. Euskalerrian, bi gitxienez.

Karmeldarrak Europan eta Euskalerrian

Arrigarri eta ia siñestu eziñekoa egiten jaku zelan zabaldu ziran ain arin Europako ainbat lurraldetara, Chipretik asita Ingalaterra eta Portugalera. Eta ez zan izan eragozpenik aurkitu barik. Sortu barri ziran Asisko Frantzisko deunaren ordena eta Domingo deunarena. Ez ete ziran naikoa Europako kristiñautzat? Ondo egoan iges etozenai ostatu emon eta abegi ona egitea; baiña fraidegei geiago artuz ez eutsen aurrera jarraitzen itxi nai, eta eragozpenak ipinten eutsezan erriarentzako mezarik esan eta apostolutzarako. Aita Santuen laguntzaz, euren bizimoduari eusteko errez-

tasunak lortuko dabez, ez bakartade osoan biziteko bakarrik, bai kristiñau erriaren aurrean Jainkoaren itza iragarteko, baita beste apostolu lanetarako bere.

Olan, Europa aldeetara aldatzen asi eta ogei bat urte barru, Euskalerrian bere sartuta daukaguz, Frantzia aldetik etorrita. Gure errian Baionakoa izango dabe lenengo karmeldegia 1265ko urtean. Eta andik luzaro barik, 1277n Naparroan ditugu. Urte orretakoa da Naparroako eta Frantziako errege egiten eban erregearen ordezkariak emon eutsen Sangotzako karmeldegia sortzeko baimena. Gure erriak Karmel menditik ekarri eben soiñekoz jantzita ezagutu zituen, goitik berako zerrenda zuriz eta baltzezko soingafiekoz estalduta. Aldi atako Kronikon batek onako bertsoz egiten eutsen ondo etorria: «De Carmelo veniunt fratres virgulati»: or datozkigu jantzi nabardun fraideak. Jazkera ori Europan leku askotan irriz artzeneben, eta 1287n Montpellier-eko baztarrean soingañeko nabar ori itxi eta kapa zuriz jazteko erabagia artu eben.

Karmeldegiak ugarituaz, laster lekuan lekuko barrutiak sortu bearra etorriko jake, eta amalaugarren mendean amasei barruti edo probintza ezagutzen ditugu: Euskalerritik urrekoenak, Akitaniakoa, Aragoikoa eta Vasconia izenekoa, edo Gaskuñakoa. Euskalerrikoak ez eben izan barruti baten sartzeko zorionik. Baionako etxea bein Akitaniakoan, eta azkenez Vasconiako orretan ikusten dogu; Sangotzakoa, eta mende orretan sortu zan Irufiekoa, Akitaniakoan agertzen dira 1354n; 1375tik 1379ra artean, Naparroako erregeak alan eskaturik, euren buru egiñik geldituko dira, eta aurrerantzean Aragoiko probintzian. Karmeldegi biok eta Baionakoak baiño ez eben iraungo karmeldarren artean amaseigarren gizaldirarte, eta ori gizonezkoen artean.

Gizonezkoak izan ziran Karmel menditik Europaratuak, eta emakumezkoen karmeldegirik ez zan sortu karmeldarren artean 1450 ingururarte, eta Euskalerrian bat bere ez. Amaseigarren gizaldirarte itxaron bearko da orretarako. Alan bere, ez dogu aitatu barik itxiko Joana Tolosako deritxon emakumea zoriondunaren maillan doguna. Emakumezko karmeldegirik izan ezarren, eta olangorik izan baiño lenagotik, izan zan emakumerik, gizonezkoen etxe baten ondoan orma artean bizi oi ziranetakorik. Olakoa zan Joana Tolosako ori, Frantziako Tolosan bizi izan zalako olantxe deritxona. Baiña antzinenetako agirietan garbi esaten da Naparroako erreñuan jaioa zala (in regno Navarrae, edo Vasconiae bere bai). Tolosan eta karmeldarren artean zorionduntzat gurtua da, Tolosarrak euskaldunei ostutako zoriondun au.

Amaseigarren gizaldian bultzada barria

Antziñako karmeldarrak irugarren fraide-etxea sortu eben 1593n; Naparroan au bere, Tudelan. Baifia ordurako aldi barria etorren karmeldarrentzat, bai gizonezko eta andrazkoentzat: Santa Teresak AVILAN eta Joan Kurutzekoak Duruelon asiera emoniko karmeldar barrien bultzadaren ondokoa. Karmeldar zarrak ez eben aurre-rakadarik egin emen; Santa Teresa eta Joan Kurutzekoaren jarraitzealleak, osttra, indar andia artuko eben gure errian, eta ori santu bi arein egunetan asita.

Teresa deuna eta Joan Kurutzekoa euskaldunez inguratuta ikusten ditugu. Eurak ez ziran Euskalerriraiño eldu, emendik urrintxo igaro eben euren bizia; baiña zelanbait

esan geinke Euskalerrria joan zala eurak gana. Teresaren moja etxeetan ainbat mojageik jo eben atea eta ari oso begiko egingo jakoz. Joan Kurutzekok, bere soñnekoz jantzita ainbat euskaldun izan zituen bizi-lagun. Santu bion eragitez sortu ziran karmeldar barriai ainbat euskaldunek emon eutsen oso ondo etorri jaken laguntza, goi-maillako eta beragoko euskaldunak, eleizgizon nai osteangoak emona. Goi-maillakoetatik aitatu geinkez, Idiakez biak, Joan eta Frantzisko, giputzak, erregaren idazkaritzakoak; Beamont, Ayanz eta Kruzate, Naparroako semeak; gotzai izandako eleigizonetatik, Martin Axpe Sierra, bizkaitarra, eta Lorenzo Otadui, giputza; eta errigizon eta merkatarietatik, Gasteizko Zaldibar eta Bergara abizenekoak. Burgosen bizi ziran arren, Ama Teresak «natural de Vizcaya» zala argi esanda itxi eban Catalina de Tolosa Muntzaraz bere senarrarekin. Senar-emazte oneik zazpi seme alaba emongo dabez moja edo fraide izateko, eta azkenez, ama alargunduak berak jarraituko eutsen bere seme-alabai. Ama Teresa eta Joan Kurutzekoren egunetan eta euron inguruan, Naparroatik, Arabatik, Bizkaitik joanda ainbat abizen euskaldun irakurten ditugu fraide karmeldar eginikoen artean: Amatriain, Arbizu, Salazar eta, len aitariko irurak, Beamont, Ayanz eta Kruzate. Ama Teresari Burgosko mojen karmeldegia aurrera ateraten ebillenean lagundu eutsan Pedro de la Purificación zanari, Argantzun jaiotzat dagoan arren, aldi atako karmeldarren agiriak «vizcaino» deitsen deutsoe.

Eta zergaitik ez dogu geuretarren artean sartuko Aita Domingo Bañez zalakoa (Ibañez Artazubiaga), Arrasateko jatorrikoa, Berak bere buruari *Mondragonensis* esaten eutsana? Beronek atera eban Ama Teresa Avilako bere mojatxoan etxetxoa eregi ebanean, bere asmo guztiak azpikoz gora ipinteko arriskutik, uriko agintariak aren aurka batzarra egin ebanean, eta bera izan eban bizi guztian laguntzaillerik on eta leialenetakoa. Lariz, Agirre eta Elexalde dakusguz beste euskaldun batzuen artean.

Esanak gogoan artuta, ez da arritzekoa Ama Teresak Euskaldunak eta Euskalerrria ondo begiz jota izan bazituen, emen bere usategitxoren (palomarcito) batzuk sortzeko. Orduñatik an Karmeldegitxo bat eregiteko deia eta eskeintza izan zituen arren, ezin izan eban baietzik emon, bere biziaren laburtasunak eragotzita. Baietza emonda eukan Iruñetik etorri jakon deiari, baiña ez eban berak ango usategitxoan bere alabak sartuta ikusteko zorionik. Baiña Iruñekoa izango zan Ama Teresaren alabak, karmeldarrak Euskalerrrian sortuko eben lenengo karmeldegia, Ama Teresa il eta andik illabete batzuk geroago, 1583n eregia.

Euskalerrrian aurrera eta aurrera

Karmeldar zarrak lenean gelditu ziran, lengo iru etxeekin, irurak Naparroakoak, Sangotza eta Iruñeko zar biak, eta Tudelakoa,-eregi barria. Karmeldar barriak ere Naparroatik sartu dira gure artean. Iruñen emakumezkoak aurrea artu deutse gizonetzkoai. Andik aurrera alkarren atzean datoz batzuen eta besteen etxe barriak. Ama-seigarren gizaldiak azkena egin orduko, or daukaguz iru fraideenak, Iruñekoa (1587), Korellakoa (1595), Tudelakoa (1597), eta Gasteizkoa (1589), emakumezkoena, azkenengo au 1651raño iraun eta Logroñora aldatu zana. Ez ziran abiada txarrean asi ugaltzen.

Sapjander (1899 -)

*■

* Torrelavega (1961

* Ruiloba (1878 -)

Maliaño (1877 -)'

El Soto (1897j

Hoz de Anero (1905

Sestao - / « * * * * » (1966) >
(1719 < 1835)

(1618- 1835) -fc * * *
(1880-) Meñaka • (1691 -),
(1896 - 1966) * * * * * * J (1890

Bilbao

Balmaseda (1727 1835I

* Durango (1945

(1713-,

1933 -,

1979 -)

L

Zaldibar/0

(1925 -/Eibar

1935 -)

Amorebieta

Urduña 1946ˆ

Murgia (1889 -)

* Betoño (1905 -)

(1890 -f•* (1584- 1651)

(1980-) •* (1952 -)

Gasteiz

Herrera (1897\1905)

(1651 -) *

(1918 -)[L•

*

Logroño

Tricio(1962-)

® Karmeldar zaharrak

• Karmeldarrak

* Lekaime - karmeldarrak

® 1264 - 179T
(1858 -)
Baiona

Hondarrabia (195.

\ Zumaia Zargutz (1906

^(1614"-)"^ - ** (1910-)
(1663 -) (19
Donostia -esaka (1767 - 1986)

* Altzo (1917 -)j
Azkoitia (1899 -) Donamaria (1945 •

Lazkao (1641 /1837)
Lizaso (1986 •
*

-fc Etxabakoiz (1910-)
(1587 -) ● * (1583 -)
(1980 -) ● ® (1314- 1838)
Iruña

®
Zangoza (1277- 1835)

Alesbes - Villafranca (1734 -)

(1598 -)
1603 -)
Kalahorra

(1595 -)
(1722 -) (1592 - 1837r
* Korella (1597- 1837)J
Tutera
Cervera del Río Alhama (1950

Fraideenak, gizonezkoenak, ona zelan jarraitu eben aurrera eta aurrera amazaz-pigarren eta amazortzigarren mendeetan: Bilbao (1618), Lazkano (1641), Markina (1691), Larrea-Zornotza (1713), Sestao (1719), Balmaseda (1732), Villafranca Naparroakoa (1734). Bilbokoak ez eban luzaroan bake osozko bizirik lortu, baiña azken baten ostatu-etxe maillan geldituko da, eta olan iraungo dau, besteak lez, 1834ra arte.

Ama Teresaren alaben etxe bi len aitatu ditugu. Iruñekoa eta Gasteizkoa; lenengo onen Logroñara aldaketa ez zan egin Gasteiztarren asarre eta min andi barik. Urrengo gizaldietan euren karmeldegi barriak aurreara doaz: Zumaia (1614), Donostia (1663), Corella (1722) eta Lesaka (1767), oraintsu Lizasora aldatua. Idiakez batek alegiñak egin zituen arren, amazortzigarren gizaldian, ez eben Bilbon sartzetik lortu; moja-etxerik naikoa ei zan lendik Bilbon. Zumaiakoa da munduan karmeldegirik bakanena, aparta; beste guztiak kanpotik, beste etxeen batetik ekarririko serorez osotuta sortuak dira. Zumaiakoa bertako mojagei utsez sortu eta ornitua da.

Argi dago karmeldar barriak, Ama Teresaren eta Joan Kutzeakoaren jarraitzaileak sustrai sakonak bota ebezala Euskalerrian, eta etxeak eta fraideak ugaritu ala, Naparroa izeneko fraide-barruti edo Probintzia osotzeko ordua izan eben. Artean Gaztela Zarreko barrutian ziran Euskalerriko fraide-etxeak Naparroa izeneko probintzi ori egingo eben, inguruko beste fraide-etxe gitxi batzuekaz batera.

Beste gauza jakingarri bat gogoan izatekoa da: Karmeldar barriak mundu gutzirantza arin zabaldu ziran arren, ez eukela guztiak buru bat, zati bi alkarrenganik bananduta egon zirala luzaroan: alde baten, Españako erregeen mendeko lurralde-takoak, eta bestean, gaiñerako errialdeetakoak. Batzuei Erromatik agintzen jaken; besteai Gaztelatik. Aita Santuak 1599n arturiko erabagia izan zan. Gaztelako erregeen mendeko fraide areik ez ebela Erroman bertan euren etxerik euki bear, an eta Genovan euren arazoetarako fraide mordoa euki arren? Eta Aita Santuak esan ebana: «Fraide bik asiera emon eutsoen ordena oni, eta emen ditugun frande-mordo oneik ezingo dabela emen bertan euren bizimodurik sortu? Neure izenean gelditu bediz Erroman emen ditugonok euren buru dirala». Eta Erromatik zabaldu ziran karmeldar areik Europa gutzira eta sorkaldeko misionetaraiño. Oraintsuko slogana «Spain ist different» antziñako gatxa da, antza danez. Euskaldunen egitez eta eragitez kenduko da joan dan gizaldian, gero esango danez, aginte-banatasun ori.

Euskalerriko seme argi batzuk

Andi-andika emoten ditugun barrien artean, karmeldar euskaldun andi batzuen izenak aitatzea zillegi bekigu. Eta lenengo eta bein, buru nagusi izaniko batzuen. Bat, Erromatik agintzen eben buru nagusietakoa, Elias deunaren Lorentzo izenez. Iruñeko semea da, baiña Erroman karmeldarren soiñekoa artua eta an profesia egiña 1607n; 1647tik aurrera izan zan Europa aldeetako karmeldar guztien buru, 1655n ilteko.

Gaztelako erregeen mendekoen artean beste napar bi daukaguz gorengo nagusitza izandakoak: Aita Esteban Arteta, nagusitzarik luzeenetakoa izan ebana, bein nagusi

eta bein ordezko, 1663tik 1676 bitartean, eta Paulo Sorkundearena 1724-1730 bitartean, Azkoién Peraltako semea, teologi-idazle andia, Felipe Vgarrenak lenengo Sestaoko fraideen bakartegira bialdu eta andik Granadako presondegi-zuloetan sartu eta an bertan illa. Erregearen gorrotoa gobernuaren goraberatan eskatutako eretxia norbaiti emon eutsalako etorri jakon. Gero aitatuko dogu beste Nagusi bat, karmeldarren arteko len esan dan banatasuna kentzeko bideak artu zituena, Aita Domingo Arbizu.

Amazortzigunen mende berean beste Teologo bi daukaguz: Jose Ezpeleta, Untz San Martingo semea eta Antonio Ugalde Santa Teresaren kartak euren txostenez orniduta argitaratu zituena eta Moral liburu baten, egillea, Zornotzarra. Naparra zan Joan Kuratzekoaren lagun izaniko beste Mistika idazle bat, Inozenzio San Andresena izenez.

Eztaiguzan baztertuta itxi euskera landu eben karmeldar bi: Aita Jose Arakistain, Itziarko semea, Itziarko Amaren barriak billatu eta Larramendiren Iztegia aberasteko berak Naparroa aldean jaso zituen ainbat euskal-itz bialdu eutsazana. Bere lekutxo zor jako Joakin Santa Barbarari bere Erle-gobernatzaillarentzako liburuagaitik, eta batez bere, Aita Bartolo Madariagari bere lan ugariagaitik. Gure sermolarien artean izen andia daukala gauza jakiña da. Karmeldar zarren artean bere, Naparroak izen oso ezagunak emon ditu: Raimundo Lumbier, Jose Maria Larumbe eta Migel Hualde, azkenengo au Erronkariarra, eta izarren goraberatan eta osteango batzuetan orduko alditarako naikoa aituá.

Joan dan gizaldian fraide guztientzat zorigaiztoko urtea eldu zan. Fraide-etxe guztiak jo zituen ekatx aretan, gizonezkoen karmeldegi guztien bizia ogetamar urtez etenda geldituko da eta bakotxak bere errietan edo atzerrietan billatu bearko dau errukizko ostatua edo abegia. Baiña etenaldi luze samar orren ondoren, berbizkunde ederra izan eta len baiño indar andiagoa artuko dabe gure artean, eta iñoz baiño lan ohea egingo dabe munduan zear Karmengo Amaren Soinkeoa zabaltzen.

Emengo euskaldunen laguntzaz, Frantziakoak burua jaso

Jainkoak badaki zorigogorrik andienak zoriongarri biurtzen. Beste fraide guztientzat lez, zori gogorra izan zan Karmeldarrentzat 1835tik aurrera Madrilgo gobernuak ezarrita, euren etxeak ustu eta atzerrietara joan bearra; baiña zoritxarra zorion biurtuko da Frantziakoentzat laster. Batzuk euren errietan bananduta, abade-lana egiten jarraitu eben; beste mordo batek Frantziako bidea artuta, Ameriketara joateko asmotan dabiliz. Eta orretan dagozala, Frantzian bertan gelditzeko deia artu dabe. An bere, fraideak emengoak baiño lenagotik euren etxeak ustuta daukez. Ia ezta antziñakoetarik iñor bizi. «Zergaitik, diñotse gureai, zergaitik ez zarie Frantzian gelditzen emen etxe ustuai bizi barria emoteko»? Emengo karmeldar euskaldunak Jainkoak bialduak lez Frantziratu dira aspalditxoan karmeldar serora batzuk erabillen asmoa burutzeko: lengo karmeldegiak berbiztu eta beste belaunaldi barri bati asiera emotea. Eta seroratxo areik zerua zabalik ikusi dabe fraide areitako zazpi bat an gelditu diranean. Aita Domingo Arbizu Munarriz, Garesko semea, militar izanda

gero fraide sartua, orixe da euren buru eta berotzaille. Karlos erregenaiaren inguruko gudari zaintzaille izanikoen kapellau izana da. Kapellautza orretan berak erabilliriko liburuaren jabe Oiñatiko parrokia da gaur. Liburu orretan dator Jose Mari Iparragirrerren izena urte areitan pazkoazkoa egin eben gudari gazteen artean. Andia izan zan Aita Domingok bere lagunekin Frantzian egindako lana. Laster beifiolako Akitania edo Vaskonia izeneko Probintzia berbizturik dago, orain Avignongoaren izenpean. Frantzia bertako fraidegei barriekin eta emendik joiazanekin ornidu dabez lengo etxe ustu batzuk, eta 1859n Aita Domingo guztien buru nagusi, eta 1865n Mundu guztiko karmeldarren buru izendatuko dabe. Bere egunetan Frantzian jarraitzen eben euskaldunakaz batera Euskalerriko karmeldarren Probintzia berbiztuteko bideak artu ditu. Lazkaokoaren jabe egitea lortu ez eta Markiñakoa zabalduko dabe barriri 1868n, eta aurrera doaz, mundu guztiko karmeldarren batasuna egiteraiño, España aldeko separatisten kukurrukuak ixilduta. Aita Santuak 1875n bere oneritxi osoa emongo deutso batasun orri. Andik aurrera guztiak Erromatik gorengo nausitza daroenen mendean geldituko dira.

Orra euskaldunak burututako lan andi bi: Frantzian karmeldarren bizimodua berbiztu eta España aldekoen banatasunari azkena emotea.

Euskalerriko lengo karmeldegia berbizten eta barriak sortzen

Lentxoago esan dogu nondik asi zan gure erriko karmeldegien biztuerea, Markiñakotik. Urrengoa Larrea-Zornotzakoa da (1876). Baiña ez dira gelditu beste Gaztelatik berako lengo etxeen jabe egitera eskuak luzatu barik. Abilakoa lenengo, Larreakoaren urte berean. Olan, 1879n Euskaldunen probintzia, Naparroa izenekoa berbiztuta dago. Gaztelakoak 1889 jasoko dau burua, euskaldun bat buru dauala. Emen eztagokigu guztien barri emotea. Mugatu gaitezaz Euskalerrietarakoetara. Euskaldunak orduan noraiño eldu ziran, zelango bultzadea eta adorea erabillen antz emoteko ortik bera, aitementxo bat egitea naikoa bedi: Aita Joan Bizente, Berrizko semea, gero mixiolari andi egiña, Valenciako fraide-etxeo nagusi zala 1888an, bertan euskerazko liburu bat argitaratu ebanean, eta euskaldunik izan zala Andaluziako eta Gaztelako karmeldarren artean sortu-barritan eta gerogo bere, arein artean gorengo nagusitzara eldu zanik.

Ortik berako etxeak alde batera itxita, goazen Euskalerrri barrukoak, zar eta barriak, zelan joan ziran labor zeazten. Lenengo esan bear doguna zera da: Tudelakoak eta Sestaokoak ez ebela bururik jaso. Bilboko ostatu-etxeak bere ez, baiña aren ordez beste bat eregiko da 1880n, gure Santutxu aldean zutunik dirauana. Balmasedakoa antxiñatxorik aldatu zan Logroñora. Ona orain beste etxeen zerrenda guztia urtez urte, lenengoz eregi edo berbistu ziranena: Markiña (1868), Larrea-Zornotza (1876), Bilbao (1880), Corella (1892), Iruña (1895), Villafranca-Naparroakoa (1899), Barriak dira Gasteizkoa (1890), Donostia (1906), Zornotzan bigarrena (1932), Eibar (1835), Donostian bigarrena Karmeldegi izenekoa (1974) eta Iruñan, Arrotxapean bigarrena (1980). Montekarlon, Monakokoa bere frantzesen eskutik euskaldunen eskuetara etorrita dago aspaldion. Euskaldunak eztabe besteen bearrik izan, eta beste askok artu

dabe euskaldunen laguntza, Kataluñan gizaldi onetan artu izan dabenez, eta gero Portugalen. Emakumezkoen karmeldegiak bere aurrera egin izan dabe. Leengoak bizirik dirae eta eztozuz barriri aitatu. Ez eben gizezkoen etenaldirik be izan. Emakumezko serorategikin ez eben ain gogor jokatu Madrilgo agintariak, eurokaz ez eben gizezkoakaz erabilli eben esku ain gogorrik erabilli... Orregaitik zelan edo alan bizirik iraun eben euren etxeak ustu barik Iruñen, Korellan, Zumaian, Lesakan eta Donostian. Eta ez iraun bakarrik, aurrerakada andiak egin dabez eun urterik ona. Euron zerrenda ona urtez urte: Baiona (1858), Salvatierra-Agurain (1891), Markina (1891), Azkoitia (1899), Betoño-Gasteiz (1905), Begoña (1896), gero Getxora aldatua, Zarauz (1901), Etxebakoitz-Iruña (1910), Murgia (1889), Zaldibar (1925), Durango (1945), Orduña (1946), Ondarrabia (1951), Gasteiz (1952), Donamaria (1960). Aguraingoa eta Zarauzkoak Frantziatik iges etorritakoak sortu eta osotuak dira, gero emengo moxageiez osotuak. Zarauzkoak aurrera jarraitzen dau; Aguraingoak ez, bertako moxak beste karmeldegietan sartuta itxi egin eben euren etxea.

Zerrenda onetan sartzea merezi leuke beste karmeldar emakume batzuk Irugarren ordenatakoak: lan ederra egiten diardue Euskalerra guztian. Euren artean ditugu joan dan gizaldian Catalufian sortuak. Talde bitan bananduta dagoz, eta eskoletan, geixotegietan daroe aurrera euren lana, eta emendik kanpo, mixioetan. Aitamen au egitea naikoa bedi.

Gure Karmeldarrak atzerrietan zear

Gure karmeldarrak ez dira euren errian «bertan goxo» egiten gelditu. Arako Iparragirrerren deia egiazko egiten jakin dabe: «Eman da zabaltzazu munduan frutua». Munduan zear zabaldu dira European, Indian, Afrikan eta Ameriketean, mixiolari egiten, karmeldarren bizimodua zabaltzen, eta kristiñauen artean arimazaintzako ainbat lanetan.

Markiñako fraide-etxea barriri eskuratu barritan, 1878n mordotxo batek Indiarako bidea artuko dau, an karmeldarrak Frantziatik eta Belgikatik joanda, Quilon, Verapoly eta inguruetan amazpirren mendetik asita ekioenai laguntzeko; eta 1908n Aita Santuak Euskalerriko karmeldaren ardurapean ipiñiko dau Verapolyko eleizbarruti osoa. Eurak artu bear izan eben India osoko abadegeiak eskolatzeko Seminario andiena. Gure egunotara arte iraun dabe an, dana bertako eleizgizonen eskuetan itxi arte. Karmengo Amaren ordena indar andia artuta itxi dabe, Verapolin eta gero Vijayapuram izenez sortu zan Eleiz-barrutian.

Indiak asko zor deutse an euren izerdi ta nekeak itxi dabezan iru karmeldarri: Aita Joan Bizente Zengotita Bengoa, Donostiako «La Obra Maxima» mixio-aldizkaria sortu ebanari, Aureliano Basauriko semea, Seminarioko irakasle andi eta Indian ainbeste ekintzen sortzaille izanari, eta Zakarias Salterain, Abadifiotarra eta *Hinduismoz* ainbat azterketa eta liburu idatzi ebanari. Irurok asita dauke eta aurrera doa santutzat artuak izateko auzibidea. Iru euskaldun izan dira gotzain mixio-leku aretan: Bernardo Arginzoniz, Buenabentura Arana eta Ambrosio Abasolo, irurak Bizkaiko

semeak. Eta an jarraitzen dau oraindiño larogeitaka urtekin luzaroan ango Seminarioko irakasle izanda gero Kuwait-eko gotzain izanak, Biktor San Migel lekeitiarrak, atzera lengo mixiora itzulita, bere azkenego izerdiak eta argiak ango kristiñauen alde emoten.

Aita Santuak beste mixio-leku bat ipiñi eban gure mixiolarien ardurapean Amerikan Kolombiako Uraba alderdian 1918n, lenengo Aita Jose Joakin Arteaga Lizarrako semearen ardurapean, eta gero Aita Seberino Agirrebeitia Berriztarrarean; biak Kolombiako Gobernuaren esker ona eta omenak izan dabez Uraban egin eben kristiñau-lan eta gizarte-lanagatik. Ogetalau urte geroago, dana bertako gotzaiñen eskueta itxiko eben. Baiña 1958n beste mixioleku bat dator gure fraideen eskuetara, Colombian bertan, Tumakokoa. Lenengo gotzaiña Luis Irizar, Uraban ainbat eskola eta lantegi ipiñi ebana izango da. Ormaiztegiko semea bera, eta oni Migel Anjel Lekunberri Naparrak jarraitu deutso gure eguntara arte.

Azkenengo ogetalau urteotan, 1966tik aurrera, beste mixioleku bat Afrikan emon deutse karmeldar euskaldunai: Malawi-n: mixiolari mordo batek diardu an, eta gure fraideak zuzendari dituen Seminario bat bere sortu dabe, eta eleizgizonentzut gogartetxea gaiñera.

Mixio-lekuok sortu baiño lenagotik ezagutu ditu Amerikak gure karmeldar euskaldunak. Gogoan artzekoa da gobernuak Markiña, Larrea eta abar berriz artzeko baimena gure fraideai emon eutsenean, batez bere, Itxasoz Andiko lurretan mixiolana egiteko emon eutsela. Lenengo fraide-taldea Cubara joan zan, Puerto Príncipe. Geroago Brasil eta Montevideora zabaldu ziran, eta ia Beko Amerika osora. Baiña azkenez lenengo lekuak beste errialde batzuetako karmeldarrai itxita, euskaldunak Chile, Peru eta Colónbiagaz geldituko dira, eta oraintsuago Panama eta Guatemalara zabalduko. Colombia bere buru egiñik bertakoen eskuetan dago, eta beste leku batzuetan asi dira bertako fraidegeiekaz euren karmeldegia osatzen eta ornitzen.

Gauza bera jazo da Portugalen. Euskaldunak berbiztu dabe an ere Karmengo Amaren semeen ordena ta bizimodua; Euskalerritik joan ziran ara 1927n Karmeldarrak antziña izaniko loraldia barrizteko asmotan. An be beste mirari bat egin dabe, len gorpu eta illik egoana barriro bizira ekarri; Euskaldun mordo batek an jarraitzen dau, baiña euren jabe eginda dagoz, eta mixio-lekuen bat artzeko adorea izan dabe. Euren burua jasota dagoz 1981garren urtea ezkerro, euren Probintzia egiten dabela. Ainbeste lekutara bere indarrak zabaltze onek, alan da guzti bere, eztau Euskalerriko karmeldarren barrutia agortuta itxi. Ainbeste munduan zabaldua gero bere, arrokeri barik esan geinke berau dala mundu guztian andiena, seme-alabarik geien daukana. Bere muga-barrutik arago gaur bere, berak dau seme-alabarik geien zabaldua: Mexikon, Argentinan, Austrian, Kataluñan, eta, batez bere, Erroman edo irakasle edo Aita Santuaren inguruko batzorreetan txosten-egille, eta abar.

Len aitatu dogun Domingo Arbizuz gaiñera, euskaldunak gorengo Nagusi bi emon deutsez Karmel mendiko Amaren Ordenari gizaldi onetan: Aita Ezekiel Bilbao (1906tik 1914ra), eta Aita Migel Anjel Batiz (1966-1973), bata Zornotzako semea eta bestea Markiñarra. Aita Migel Anjel Aita Santuak ipiñita, Sorkaldeko eleizgizonentzako «Istituto S. Giovanni Damasceno» dalakoan dago zuzendari.

Gizaldiz gizaldiko, mendez mendeko ibillaldia karmeldarrekin egin ondoren, amaitzeko, esan daigun atzerrietan frutu zabaltzea au ez dabela egin Euskalerrria eta euskera aitzurik itxita. Joan Bizente mixiolari andia bere gaztetan euskeraz asi zan idazten Valencian euskerazko liburutxo aterata, eta euskerazko sermoi-mordoa itxi euskun. Indiako eta Ameriketako gure mixiolariak bere bai *Karmendo Argia* aldizkari zarrean eta geroko KARMEL-en lurralde areitako ainbat albiste emon eben euskeraz. *Euskal-Esnalea*, *Jaungoiko-zale*, eta *Euzko-Deya* aldizkarietan karmeldarrak izen-petutako ainbat lan agertu ziran. Aita Martin Uriartek, 1930n *Karmengo Argiaren Zazendarri* izango zanak, gizaldiaren asi-asieran egin eban andiena: erdera utsean Burgosko karmeldarrak ateraten eben aldizkari baten euskerazko lan bat edo beste sartzea lortu. Karmeldarren euskerazko itzaldi edo sermoi-mordoak dagoz gordeta karmeldegi batzuetako alasetan.

Euskal-giro orretan sortuak dira euskera utsez argitaratutako *Karmengo Argia*, *Karmel* eta Olerti aldizkariak. Karmel onen irakurleak badakie onen barri, eta aitamen au egitea naikoa bedi.

Orra amairugarren mendetik ona karmeldar euskaldunak egin izan daben bidea, labur adierazoa, karmeldar euskaldunentzat Joan Kurutzekoaren eriotzetiko laureun-garren urtean benetan ezkeronez gogoratzekoa.

GEIGARRIA

Euskal-Karmeldarren Etxeak munduan (gaur)

CHILE:

1. Chillán. 1905-
2. El Melón (Valparaíso). 1941-
3. Rinconada de los Andes. 1988-
4. San Fernando (Colchagua). 1930-
5. Santiago. 1900-
6. Santiago. 1985-
7. Viña del Mar. 1903-

GUATEMALA - PANAMA

8. Amatlan. 1986-
9. Guatemala. El Buen Pastor. 1981-
10. Guatemala. El Carmelo. 1960-
11. Guatemala. San Juan de la Cruz. 1980-
12. Guatemala. Santa Teresa. 1956-
13. Guatemala. Seminario. 1987-
14. Panajachel (Sololá). 1971-
15. Panamá. 1943-

16. Lapaterique. Nobizi-etxe (Honduras-en).

PERU:

17. Arequipa (Lambramani). 1984-
18. Arequipa. 1929-
19. Chocope. 1917-
20. Ica. 1951-
21. Lima (Cercado). 1922-
22. Lima (San Felipe). 1976-
23. Lima (San José). 1943-
24. Lima (Seminario Nagusia). 1984-
25. Trujillo. 1911-

MALAWI:

26. Kasungu (Chiphaso). 1967-
27. Kasungu (Karmel). 1982-
28. Kapiri. 1966-

TUMACO:

Euskal Karmeldarrak beste toki askotan dagoz: Tumaco (Colombia), Erroma, Monte Carlo, Madrid, etabar.

Karmeldarren arteko beste institutoak

A. KARMELDAR MISIOLARI SERORAK

1. Bilbao
2. Iruña
3. Iruña
4. Iruña
5. Donostia
6. Donostia
7. Donostia
8. Donostia
9. Santander
10. Villafranca (Naf.)
11. Villava (Naf.)
12. Gasteiz

B. KARMELDAR MISIOLARI TERESARENAK

1. Bilbao
2. Amorebieta

KONDAIRA ETA BIOGRAFI-ARTIKULU ETA OARRAK

3. Amorebieta
4. Bilbao
5. Irún

C. KARIDADEKO KARMELDAR SERORAK

1. Gasteiz
2. Bermeo
3. Bilbao
4. Bilbao
5. Bilbao
6. Galdakao
7. Gernika
8. Gernika
9. Legazpia
10. Iruña
11. Iruña
12. Donostia
13. Ordizia
14. Gasteiz
15. Gasteiz
16. Gasteiz
17. Gasteiz
18. Gasteiz
19. Gasteiz
20. Zumaia

D. JESUSEN TERESA DEUNAREN LAGUNDIA

1. Kalahorra
2. Cameros
3. Lasarte
4. Iruña
5. Donostia
6. Donostia

E. JOSE DEUNAREN KARMELDAR TERESAK

1. Bilbao

ORAIN EUN URTE TOLEDOKO IIIGARREN KONTZILIOA (589) EUSKERAZ*

Urteurrenik urteurren dabil gaurko mundua. Guzurra dirudian arren, olantxe da. Itxuraz, beti aurrera begira, gero obearen billa dabillan gaurko gizarteak egundo begitu ete dau atzera gaur beste?

Oraintsuko oiturea dalakoan nago, eta alde batetik berezko joerea dala esan geinke. Bear bada, antziñako gauzen eta jazoeren aldiai begitaldixoa egitea, mendian gora tipi tapa oifiez doan mendigoizalea atzean itxi dauan bide-arloari begira gelditu oi dan lez, arnasa artu eta atsedeen-alditxo bat egiteko, edo ta indar barriak aterata, gorengo erpiñera joaten gogozago ekiteko.

Beti aurrera eta etorkizunera begira egotea be ez dago arrisku barik. Ames utsean gelditzeko arriskua dago or, oiña non ipiñi ez dakigula. Gizarteak on dau noizik bein lengo aldiatara begituta, lenagoko jazoerak aztertu eta ausnartuz, lengo okerrak zuzendu eta aurrerantzako bide zuzenagoak aurkitzen alegintzea. Geroak zer ekarriko dauan gatx da igarten, eta gauza jakiña da begiaurreko jazoera eta auziak, borbor irakiten dagozanean, ez dirala argi ikusten, ur eragin eta irakiñetako barrua ondo ikusten ez dan lez. Askotan egia baiño ez da zera: atzeak erakusten deusala aurreari zelan dantzatu.

Or dogu gaiñean, laster etorteko, Ameriketean lurralde luze zabalak aurkitu eta mundu osoak alkar ezagutzeko erea izan ebaneko jazoera andi ain garrantzitsuaren bosteungarren urtea, bosgarren mende-urrena. Oraintxeganik, zer esanik eta zer azterturik emoten dautse idazleai eta leneko gauzen aztertzaillai. Urrago dogu, aurtan

* Karmel 1989-2, 30-36.

asi da Frantziako Iraultza andia jazo zaneko bigarren eun-urtea. Banaka batzuk ekin deutse, Hitler jaio zanerik eungarren urtea dala-ta, gomuta oneko ez den gizon orren jaiotza gogoratu eta aren izena eta gomutea biztu eta goratu guraz.

Eta or etorri jakuz beste batzuk urrunagoko eta antziñagoko urteak gogora ekarten Toleko aldetik. Aurten ei dira milla ta lareun urte, Toledoko Irugarren Kontzilio ospatu zanetik. España menderatuta euken errege gotarrak (bizigodoak), Kontzilio orretan itxi eta ukatu eben Arriotarren alderdia eta katoliken siñismena artu. Orduan sortua ei da Españako fedebatasuna. Lanean ei diardue batzordeak eta ainbat jakitunek aldi atako erlejiño erea aztertu eta argitu, eta olan urteurren ori ospatzeko.

Eta emen gatoz geu be. Orain eun urte Kontzilio orren goraberan agertu zan liburu andi eta txukun baten barri emoten. Liburu orretan Toledoko Kontzilio orren erabagiak eta egiñak euskeraz be agertu ziran, latiñaren urrengo beste bost izkuntzen aurretik.

Godoak España aldetik

Orain amabost amasei mendetako jazokunak dira orduan European jazoa, eta ordukoa lango eraikerarik ez dau munduak iñoz ikusi, edo beintzat ez da gogoratzen. Erromak menderaturik eukan ia orduko mundu ezagun guztia. Baiña erreño ain zabalari aspalditik ebilkiozan Iparraldeko erri gazte eta burrukalari batzuk erromarren mugak ausi eta barrura sartu guraz bultza ta bultza. Geiegi ugaldu ziralako edo, goseak, bizi-bearrak edo lur barriak aurkitu gureak eraginda ebiltzan. Luzaroen irauñ eban Erromak atzerri urruneko arei atzera eragiten, edo eurakaz alkartasunak eta egiuneak egifiz gauzak konpontzen. Baiña Erromak bere indarrak zabalduegi eukazalako eta askotan agintarien edo errege-izan naien artean burrukak sortu ziralako, ez ziran gauza izan gaiñera etorken erasoari eta urioleari eusteko, eta atzerritar bildurgarri areik, jatorri bateko edo bestekoak, dana aurrean eroan eben, su ta gar leku guztietan euren legea eta agintaritza ipinten ebela. Euren arteko zein indartsuen eta aginteko eta gudarako burutsuen, axe artzen eben euren agintari eta erregetzat. Eurretariko bat, Atila, *Jainkoaren Zigorra* eritxona, Erromako ateetaraiño eldu zan. Aita Santuak, Leon Andiak bidera urtenda, bere itzaltasun agurgarriaz beste barik atzera eragin eutson.

España aldean sartu ziranak

Bandalotarrak, suebptarrak eta godoak (bisigodoak) eldu ziran Españako lurraldeetara. Beste guztiak lez, onek be *Barbaroak* ziralakotzat dagoz. Baiño ez deutsagu jaramonik larregi egin bear orri. Erromatarrentzat eta Greziakoentzat euren izkuntzakoak ez ziranak *Barbaroi* ziran. Guk, *erdaldunak* esatea lez. Ez ekarren eskola esatekorik: baiña ez ziran basagizonak be. Bestela ez eutsen besteai euren agintaritza ezarriko. Euron artean godoak kristiñau eginik etozen lenengoz Grezia aldera agertuak ziran, eta andik batzuk, kristiñau egin ondoren, sartalderantza eto-

riiak, eta orixe esan nai *Visigo* izenak, sartaldeko eta mendebaleko godoak. Besteak kristiñautu bakoak zirean. Sueboak, orraitio, bosgarren mendean kristiñautasuna artu eban katolikoan artean sartuta, batez be Martin Dumioiko gotzain hungariarren bitartez.

Sueboak deritxonak Galizia ta Portugal aldetan artu eban euren bizilekua. Bandalotarrak, orduko Betika edo gaurko Andaluzia aldean. Godoak, barriz, Frantziako Tolosa eta Naparra aldetik asita, beste Españako zatirik geiena menderatu eban.

Kanpotik, atzerritik etorritako erriok zelan konpondu ziran menderatu zituezan erri eta katolikoakin? Ez ziran etorri ez bake-giroan, ain zuzen, baña aurkitu zituezan kristiñau katolikoekin? Ez ziran ibilli geienetan arerio gogorren antzean. Noizik bein, izan ezik. Onetan godoak, kristiñau etorri zireanak, ain zuzen, erabilli eban eskurik latz eta gogorrena, batez be, Leovigildo erregearen egunetan (569-586), bera errege zala. Errege onek sortua daia esan daiteke godoen erreñua Españan. Berak menderatu zituen beste erreñuak eta agintaritzta eta errege izena artu. Eta bere erreñua batuago, alkartuago egiteko, mendeko guztiai bere erlijijñoa ezarri gura eutsen, katolikoena ez zana, Nizeako Kredoa, barik, Arriotarrena aurtortzen eban erlejiñoa. Katoliko egin jakon bere anai eban Ermenejildo, Andaluzi aldean agintzen ebana, eta au be menderatu, eta eukan agintaritzta kendu eta espetxean sartuko dau. Azken baten, orraitio batasunerako bide okerra artu ebala ikusirik, ondorengo izango eban Rekaderori katolikoan aldera aldatzea eskatu ei eutson. Alan egingo eban Rekaredok, bera katoliko egin eta bere erritar guztiai euren gotzain eta guzti katoliko egiteko burubidea emon eutsen.

Ori agirian era ospe andiagoz egitearren, Toledon, Kontziliorako deia egin eutsen bai bere gotzain eta andiki guztiai eta katolikoan gotzain guztiai. Toledon egin zan olan Españar guztien erlijijño-batasuna. Non, eta Toledon, noiz eta 589garren urtean, angio Batzar ospetsuan. An izan ziran Euskalerritik gotzain bi: Momio Kalaorrrakoa, eta Liliolo, Iruñekoa.

Orixe da aurtan beste bein ospatu nai dana. Orixe da orain eun urte lenengoz ospatu zana. Españari bake-bide ederra ekarri eutsan jazoera pozgarria.

Orain eun urteko ospakunde arek liburu eder bat itxi eban gomutagarri.

Toledoko Iugarren Kontzilioa euskeraz

Orain eun urteko liburu 376 orrialde dituen liburu ederra da. *El Concilio III de Toledo...* Edición políglota peninsular, daroa titulutzat. Europa mustur onetan bizi diran edo bizi izan diran izkuntzatan dakaz Batzar andiko erabagi ta itzaldiak. Lenengo latiñez, izenpetu izan ziran lez, eta gero euskeratik asi katalanen, galiziarren, portugaldarren izkuntzatan. Euskereari, izkuntzarik zarrenari egokion lekua emon deutxoe. Frantzialdeko gotzain bi bere an izan ezkerro, frantsezak be bere lekua dau, jazoera andi aren laburpen eta argitasuntxo emoteko.

Guztiari sarrera ipinteko itzaurre bi ditu: bata, Granadako Unibertsitateko irakasle batek, F. Javier Simonetek idatzia, eta bestea, Aita Joan Antonio Zugasti Jesuitarena,

guztiz CXII orrialde. Kontzilio arek inguru guztira ekarri zituen ondasunak, gure gizaldietaraiño zabaldu direanak, argitzen alegindu dira; ain zuzen, orduan lortu zan fede-batasuna ausi ta galtzen asi dan gizaldiraiño. Egia esan, bata eta bestea joan dan gizaldiko itzontzikeritan larregitxo sartuta dabiltz. Fede-batasuna betiko ez zala egin aitzuta daragoioe. Andik gizaldi bat igaro orduko, lengo atzerritarrek goitik etorri ziran lez, beste batzuk beko aldetik sartuta batasun ori ausita gelditu zan, eta arerio barriok kanpora botaten joan ziran zortzireun urteak. Toledoko batasuna erdizkatuta, oso larri ipiñi ebela ez al da egia? Eta gero ez euken fede-batasun ori joan den gizaldian arriskuan edo ausirik egoalata, ez euken auzoko frantsezai errua bota bearrik, ez Toledo kontzilioaren urteurrena Frantziako Iraultza andiaren bigarren eun-urtegarrenaren aurrez ipiñi bearrik.

Gaur ez da errez aurkituko jesuitarik Aita Zugastik darabilen berbetea erabiliko dauanik. Orain eun urteko sermolari asko erabilen berbetea erabiltea, antziñako fededunen fede sutsua zalakoaren miñez illetak jotea ez dira iñora garoiazan bide zuzenena. Eta gaurko gatxen errua frantsezai botata be ez goaz iñora.

Liburu au aterateko bultzada Granadatik etorri zala dirudi. Granadako gotzai nausiari eskiñita dator eta Granadakoak dira liburuak dakazen arpidedunen, erosleen izenik geienak. Baiña, bestalde, Jesuiten eragiña be izan zala esan geinke liburu orretan. Batez be Bilbo aldekoa, Bilboko *Mensajero* aldizkarikoa. Urteurren orretan egin ziran ospakizunetan, Bilbon egin zan bat dakar andi eta ospe andienetakotzat. Bilbotik gora, Zabalbidean gora egin zan igoerea, Jesusen Biotzari gora ta goraka, ikusgarria izan ei zan. Eta Begoñako santutegira eldu ziranean eleizan zortzi arku aurkitu ei zituezan, eta arkuetan latinez idatzita, urte aretan ospatzen zan urteurrena gogoratuz, Santiago, Rekaredo erregea, Sevillako San Leandro, Ermenejildo, Bernardo de Hoyos eta abarren izenak.

Tamalez, ez dogu an gure Aita Kardaberazen izenik ikusten. Nork merezi eban geiago, Jesusen Biotzaren sermoia Bilboko San Anton eleizan lenengoz egin eta Aita Hoyosi berari Jesusen Biotzaganako oneraspena erakutsi eutsanak baiño?

Liburu orretan, Kontzilioaren erabagi eta abarren euskerazko itzulpenaz gaiñera, beste euskerazko lan bat, Pilipe eta Iñazioaren arteko alkar-izketazkoa dator. Lenego Aita Jose Iñazio Aranajesuitak euskeratua, gipuzkeraz dago; bestea, alkarrizketazkoa, bizkaieraz. Onak zazpi orrialde betetan ditu. Joan dan mendean ospatu barri izan ziran edo ospatzeko ziran urteurren batzuk gogoratzen ditu, lenengo: Lutero eta Iordano Brunorenak, eta Frantziako Iraultzarena; katolikoen artekoak, urrengo: Santa Teresa, S. Frantzisko, San Agustinenak; eta, Euskalerrian, Mendiburu aitaren, Uxueko Amaren, Larramendiren eta Novia Salzedorenak. Olan asi da, gero alkar-izketaren gaien sartuz, Toledoko III Kontzilioaren oroimena egin eta aren garrantzia azpimarratzeko.

Euskadun ospatssi foatzuk, Liburuaren erosle

Euskereari gaurko bizien artean lenengo lekua emoten eutsan liburu onak ez da bape arritzekoa, gure artean, aurretiaz izena emonda, erosle ospetsu batzuk izan bazituen. Fraileen artean, frantziskotarra eta jesuitak dira geien: Zarautz, Arantzazu eta Foruko frantziskotarrak, eta Durangoko, Orduñako eta Deustuko jesuitak.

Baiña badira fraide ez ziranak, politiko eta abadeen artean, Donostiatik, besteak beste, Agustin Brunet eta Engrazio Aranzadi; Durangotik Jose Joakin Ampuero eta Balbino Garitaonaindia, abade eta euskal-idazlea; Jose Maria Urkijo eta Julio Urkijo, Deustutik; eta Abandotik, Sabino Arana. Azkenengo laurok oso gazte ziran orduan, eta ospetsu egingo ziran laster, politiko eta idazleen sailletan. Antza, euskalzaletasunak eragiñik egin ziran liburuaren arpidedun eta erosle.

Orrexegaitik, ain zuzen, eun urte geroago bizi gareanon aldetik, liburu orretan lan egiten eben guztiai aitamentxo, beintzat zor deutsegulakoan gagoz. Aurtengo ospakizunetan, Toledoko Ilgarren Kontzilioaren amalaugarren urteurreneko ospakizunetan, gure izkuntzak ainbesteko lekurik eta autormenik izan dauanik ez dogu uste.

BILBOKO IRU AGURLEKUAK*

Bilbon, ibaiaren eskoi aldetik Deusturantz goazela, oso ezaguna eta oso entzuna da *La Salve* izeneko baztertxoa. Mariñel eta gaiñerako itxas-gizonak antxe egiten eutsoen euren agurra Begoñako Amari ibaiko urretan bera itxasorantza urtetan ebenean. Eta itxasotik Bilborakoan bardin, antxe egiten eutsoen euren etorrerako lenengo agurra Begoñako Andra Mariari. Leku orretan ikusten eben itxasorakoan azkenengoz eta etxerakoan lenengoz Begoñako Santutegia. Itxasorokoan eta itxasotik etxerakoan andik mariñelen Zaindari eta Amari euren otoitza zuzendu barik ez eben ez joan ez etorri nai.

Oitura au beñ baiño geiagotan jasota aurkitzen da Bilbo aldea ikustera etorritako atzerritar ibiltariak idatziriko liburuetan. Idazlearentzat gure itxas-gizonak fede berodunak ziran, eta ez ekien euren buruak itxasoko arriskueta galdu gordean ipinten, euren bizia fede ta itxaropenen osoaz Jainkoaren eta Andra Mariaren eskueta jarri barik. Idazle areen autorkuntza bat edo beste Andres Mañarikua abadeak aitatu eta ezaguerazo euskuzan bere liburu ain eder eta argigarri baten.

Irakurri daigun 1800ko urtean Marcellac frantzes idazle batek diñoana: «Leku orretan, itxasoko ur andi bildurgarrietan sartu aurretik, mariñelak bere Ama dauan Begoñako Andra Mariagana zuzentzen ditu begiak, eta otoitz labur baña beroaz, Jesusen Ama orri dei egiten deuto, ezbearrik bako itxasoratzea emon deion. Fededun zintzo orrek bere otoitza amaitu dauaneko, etxera biurtu dan batena lango poza ta zoriona nabaritzen ditu. Une berean, itxasoaldia luze nekezkoa eginda ia geiago eziñean datorren ontzi batek atzean itxi dau azkenengo arriskua, azkenengoa dauan arren ez arrisku txikiena, orraitio. Portugaleteko itxas-agoa igaro dau, une larria izan

* Karmel 1989-2, 37-41.

dau benetan, ango ondar eta ango atxetan asarre eta gogor joten daualako itxasoak ia beti. Ontzia aurrera dator ibaian gora, eta mariñelak ia ezin dau kendu bere barrutik igaro dauan arriskuaren larria; eta alango baten, Bilbo estaltzen deutsoen zugatzen ganetik, Begoñako Santutegiko torrea begiztau dau. Itxasaldietako ara ta orrako ibilietan amaika bider deitu izan deutso ango Ama Zaindariari, eta oso ta bizirik etxeratzea Ari zor deutsalata, belaunikatu egin da. Aren esker onaren beroaren beroa!».

Oitura au, Bilboko leku orretan ez ei da izan itxasgizonena bakarrik, bilbotar guztiena baiño. Idazle orrek berorrek, aurreratxoago, ona zer dinoskun: «Ibai-ertz aretatik Olabeagarantza doazenak be, gizon eta andra, guztiak, Begoñako Andra Mari eleizea agerian jarten jaken leku orretan, arantza begira Aitearen egin barik ez dabe aurrera jarraitzen».

Marcillac frantzes orrek baiño urteak lenago, ingles batek izenik ezagutzen ez jakon batek, zeatzago aitatu euskun bilbotarren oitura ori. Ona zelan diñoan: «Andik zear doan edozeiñek, bertan gelditu eta Ama Birjiñeari Salbea esateko geldituko ez balitz, esamesa sortuko leuke, eta ez-jakiñaren egin ez dagian, onako txartela dago bertan idatzita: «Emen Ama Birjiñeari Salbea esaten jako».

Gaur leku atatik Begoñako Santutegia ez da ain agirian gelditzen, lenago lez, baiña arrizko oroitarria dago bertan eregita, mariñelen antziñako oiturearen gomutagarri.

Baiña itxaso-aldetik edo ibai-ertz atatik ebilzanak bakarrik ete euken bada, oitura ori? Ez ete zan Begoñako Ama Bizkaiko seme-alaba guztien Ama? Oitura ori itxasaldekoena bakarrik ete zan? Ez, Bizkai guztikoena be bai. Leorretik Begoñara etozenak ba eukezan, gitxienez, beste leku bi, Andra Mariari lenengo agurra eta etxerakoan azkenengoa egiteko euren Zaindariari. Lekuok Agurleku euken izena. Gaur arte asko aitatu izan ez dan arren, ez dogu guzurrik asmetan. Gure egunotako ikasle batek, Begoñako barri aztartzeko egin dauan tesi-lan baten egia baiño ez dala erakutsi dau. Euskerazko literaturatxoan be itxi dau barri onek aztarrenik. Azkue aitasemeak, biak itxi euskuen olako *Agurlekuren* eta oituraren barri.

Azkue aitak bere *Parnasorako Bidea* liburuan *Agurleku* baten izena eta ango oiturea dakar. Non? *Bermeoko Astodunak* izeneko erdera-euskerazko bertsoetan. Bermeoko astodunak Bilborantza datoz. Mungiatik aurrera, Txorierrin sartuta, Artxanda ganera igiton dabenean, ona zer diñoan bertsoak:

Rezan en Agurleku
leituta musturrak
y arreglan a su modo
geroko guzurrak;
juntas y juntos bajan
Begoñatik bera,
para entrar en la Villa
guztiak bera.

Orra Txorierri aldetik, Artxandatik Begoñarantza etozen bizkaitarren Agurlekua. Artxandara igon eta andik Begoñako Andra Mariaren Santutegia ikusten ebeneko, an gelditu eta an euren otoitzeko agurra bialtzen eutsoen euren Ama Zaindariari Azkue aitaren astodunak egin eben legez.

Azkue Semea aitak esana on egitera dator. Irakurleak berak ikusiko dau, oraintsu atera daben R.M. Azkue onen *Latsibi* bera «gorabera» batzuk garbitzeko asmoz Bilbora. Artxandara eldu da, eta an bean, lenengo, Bilbo dau begien aurrean, berak mutikotan ezagutu ebana baiño andiago azita. Eta Bilbo orri berbaz asi jako: «Ai Bilbo, Bilbo, orren zabal ta etxetsu ta gizatsu zakustan eder ori: ondo medarra ta mirria ezagutu aut nik i, arako kolera urtean, Mungia baino asko andiago ez intzala, izurriak urriturik aren baten nor il ezeukala bizi intzanean. Eskerrak an dagoanari». Au diñoaneko, Begoñako Eleizea dago Latsibiren begipean eta ango Andra Mari dau gogoan. Eta au esanda, nobelaren egilleak onetara daroa bere aria: «Au esanaz txapela erantzita, Begoñako Andra Mariari, inguru aretako baserritarrak Artxandara eldueran oi ebenez, *Salbe* bat isiltxorik zuzendu eutsan Santik» (Latsibik).

Nik orain ia berrogei urtez, irakurria neukan *Latsibi* ori, eskuzko kopia baten eta, egia esan, ez nintzakion oartu Salbeleku orri, edo aitzuta neukan, beintzat Bizkaiko legorrekoeen Artxandara eldukerako otoitz-oitura ori. Ikusten danez, mariñelak bakarrik ez, legorrekook be oitura bardiña euken, Begoñarantza etozanean: ango eleiza ikustean, Begoñako Amari agurra egitea, *Salbea* errezetea. Artxandako leku orrek, Azkue Aitaren bertsoetan, euskerazko izena eukan: *Agurleku*. Semeari aitzu edo egin jakon euskerazko izena aitatzea.

Artxandakoa ez zan bizkaitarrentzat Begoñarako bide bakarra. Ba euken eurak, Ibaizabaletik eta Orduña aldeko errekek ureztatzen dituen ibarretatik Begoñaratzen zireanak euren Agurlekua, Ibaizabal ibaiaren eta Orduña aldeko errekearen aldetik Begoñaratzen zireanak ango Andra Mari eleizea lenengoz ikusten eben lekukoa. Non zan bera? Bolueta aldetik Santutxurantzta igonda, Basarrate inguruan, orain Briñas Eskolak dagozan inguruan. Orixe atera dau len aitatu dogun aztertzaille gazteak. Leku orretan gaur be orixe gogoratzen deuskun izen bat dago. Ez da auzo izena, ez kale izena be *Azurleku*. Ez ete da *Agurleku*, norbaitek oker aituta, oker irakurrita, sortu dauan izena? Nik alan uste dot. *Azurleku* orri ez deusagu aurkitzen ezelango itxurarik. Artxandakook eta Boluetatik gorako leku orrek izen bardiña eukelakoan gagoz *Agurleku*. Eta Boluetatik gora joiazan Andra Marizaleak antxe egiten eutsoen lenengo agurra Begoñako Amari.

Eta emen esan bearra daukagu oitura ori Santutegi askotakoa zala, ez bakarrik Begoñako edo Bilbokoa. Santutegi batera joiazan erromesak nonai eukezan olango lekuak, urriñetik elduta euren Santutegia lenengo aldiz begiztetan ebenean gelditu eta lenengo agurra egitekoa. Gogoratu daiguzan Konpostelara joiazan erromesak. Alkarren leian joaten ei ziran Santiagoko eleizea zeñiek lenago ikusiko. An amaitzen ei jakezan ekarren bideko neke ta lor guztiak. Leku orri, tontor orri *Monte del Gozo* esaten eutsoen. Andik zuzentzen eutsoen Jandone Jakoberi aparteko agurra.

Euskalerrian be bada oitura ori gogoratzen dauan beste itz edo izen bat: *Zeñaleku*. Azkue andiaren iztegian dator, eta Baztanen aurkitu eban itza da. Zer esan

nai dau? Santutegi baterako erromesak Santutegia lenengoz eta azkenegoz ikusten ebeneko lekua. Eta ikusiaz batera *Aitearen* eginda, *zeiñatuta* bertatik bialtzen eutsoen euren agurra Santutegiko Andra Mariari edo santuari.

Begoñako Santutegiak, ikusi dogunez, iru *Agurleku* edo iru *Zeñaleku* zituen: Bilboko ibai ertzekoa, Artxandakoa eta oraingo Santutxu auzoko Basarretekoa. Bat mariñelentzat, ibai ertzekoa, eta legorrekontzat bi.

LOIOLAKO SANTUA

bidez bide eta euskaldun bat*

Euskaldunak atzerrian elkartuago, elkarren anaiago egiten dirala dirudi. Euskaldunek eta atzerritarrek ikusi eta aitortu duten egia da.

Bittor Hugo, frantzes idazle ain ospetsua, gutxienez berritako aldiz Euskalerrian izandako gizona da. Euskeraz apur bat ikastera ere eldu zen. Eta ona bein idatzi zuena: «Euskaldunari itz bat euskeraz egiozu, itz ori entzun orduko, arentzat gizon ez-ezagun ziñen, arrezkero, anai zaitu». Pasai eta Donosti aldetik egun mordo bat egiñez beste gabe ikusi eta ikasi zuen ori. Bera, zalduntxo atzerritar izanik, bidez aurkitzen zituen euskaldun jatorrei euskeraz itz egitean, euskaldunei begikoago egiten zitzairen eta atek eta biotzak zabalago aurkitzen zituela jabetu zen.

Idazle arrotz oni emen gertatu zitzaiona geiagotan gertatu eta gertatzen zaie non-nai or munduan zear ez-ustean alkar ikusten duten euskaldunei. Orduan mundua txikiago edo ta Euskalerria andiago egiten zaiela dirudi. Orduan, euren barnean erdi lotan zeramaten euskalduntasuna esnatu bezala egiten zaie. Zorionekotzat daukate une ori. Bereala adiskide dira. Anai bezala artuko dute alkar, bestea zein politikakoa dan, gorri, zuri ala beltz den galdetu gabe.

Egia ala gezurra, norbaitek asmatua ala gertatua den ez dezaket ziurtatu baiña, ona bein munduan zear ibillitako euskaldun bati entzun niona. Chinan izandako fraide mixiolari bati gertatua omen da, orain berrogei bat urte lurralde zabal artako mixiolariantzat egun txarrak sortu zirenean, komunistek ango nagusi egiten asi ziren egunetan. Fraide euskaldun batzuk estu ta larri darabiltzate. Beren puskatxoak eskuetan, nora eramango zituzten ez zekitelat, elkarrekin ari dira euskeraz: «Oraintxe gureak

egin du, agur gure emengo lana». Ez dakite euskaldun bat daukatela entzule. Aurrean zeukaten gazte armadun bat, emengo gerratearen ondoren, erbestera bidea artzera bearturik, Chinaraiño joandako euskaldun bat. Eibar aldekoa edo. Eta ondora etorririk, lagun egin zaie fraide larrituei, ea nongoak ziren galdezka. Elkarri ezaupide guztiak emanik, txinarra zirudian euskaldun arek erraztu zien fraide aiei bear zuten laguntza osoa andik bake osoan irten eta euren errietarako bidea artzeko. Euskaldun izateak atzerrietan egin oi dituen mirarietako da gure egunotako au. Euskerak atzerrian euskaldunak batago, anaiago egiten ditu.

Eta aspaldiko gizaldietan gertatutakoen artean, nork ez du, esaterako, Katalina Erauso, amaseigarren gizaldian *Monja Alferez* izan zenaren entzuterik? Libururik asko idatzi da emakume euskaldun onek Ameriketara zear, Venezuelatik Chilleraiño ikusi zituen ainbat gorabera, ainbat istillu zoritxarreko asaltzeko. Berak eralki ditu ondoen bere bizitzako gertaerak: Donostiako mojaetxe batetik iges egitea, ontzi-mutil egifik Ameriketara gizonezko soiñekotan joatea, eta an bein merkatari euskaldun batekin edo bestekin diru-kontari, eta azken batean, soldadu, Alferez izateraiño eltzea. Beti jakin zuen, bere mari-mutil arpegia gora bera, bere emakumetasuna estaltzen. Baiña emakume antza zuela ta, ez arengana joan adarra jotzen. Ezpatea dantzatzen edo edozein izkilluri eragiten gizonezko askok baiño obeto zekien. Sarritan gertatu zitzaion epaikarien eskuetatik iges egin bearra, edo lekuak ustua bearra, bizia galdu gabe aterateko laguntzaillerik edo ezta gille onenak? Euskaldunak. Berak aitorturik utzi zuenez, euskaldun agintari edo merkatariak atera zuten oso ta bizirik bere lau edo bost larrialditik, bere euskalduntasuna euren aurrean autortuaz beste gabe. Atzerrian euskaldunak euskaldunari egiten dion abegi onaren agergerri Monja Alferez oni gertatu zitzaiona ere.

Joan den mendean, Duvoisin euskal idazleak utzi digu gai ontaz lekukotasun polit samarra. Soldautza egiterakoan, gure euskaldun iparraldetarrek Pabera agertu bearra omen zeukaten. Lapurditik asita, Benaparra eta Zuberoan zear, Pabera joan bear omen zuten, soldadu-soiñekoak jazteko. Arako bidean, lapurtarrek manextarrekin bat egiten zuten. Elkar ikusi orduko eztabaidaka, ziri ta ixekaz, ez omen zuten bakerik. Baiña Zuberoa orduko batzuk eta besteak omen ziren adiskide, Zuberotarren aurka asteko. Andik aurreraxoagoa, irurak elkar ondo artzen zuten, frantzesen aurka. Bein erdalderrian sartu ezker, lapurtar, benapartar eta zuberotar, guztiak gelditzen ziren adiskide egiñik, anaitasunik ederrenean.

Gure Patroi andiaren bizitzan euskaldunak atzerrian alkartzean erakutsi izan duten jokabide beraren adibide argi ta garbi bat daukagu. Eta izan ere, Iñaziok berak labor baiña naiko zeatz aitortu zuen gertaera da.

Loiolako zalduntxoaren buruko aize eta amesak utzita, santutasun bidean osoan sartuta zebillen leenengo aldietakoa da. Oraindaño ez da sortu bere buruan Jesusen Lagundia sortzeko asmorik. Beinik beñean. Loiolan artutako erabakiak aurrera eraman nai ditu. Aurrerantzean, munduko uskeriak eta keriak guztiak utzita, erro-errotik, barru-barrutik, beste santu batzuk egin zuten bezala, dena Jainkoari emana bizitzea dauka. Goitik beerako aldakuntz osoa gertatu da leengo zalduntxoaren biotzean,

Manresako urtean sendotu baizik egin ez zana, andik aurrera Kristoren jarraitzaile leial eta osozko izateko. Manresan argitasun andiak artu ditu eta indar berriak sortu zaizkio, baiña oraindik ez du bere etorkizuna, zein bide artu, ongi egin. Leenengo ta bein Lur Santuetara joango da, an Kristok bere oin santuekin ibilliz eta bere irakatsiak ots egiñez, santutu zituen lurretara, an Kristoren bizitza ta eriotza eta berpizkundea otoitzean gogoratu eta ausnartuz. Ark munduari ekarritako salbamena eskertu eta Aren antzekoago egiten saiatzeko. Eta bear bada, an bertan Kristoren apostolu biurtzeko. Bien bitartean, bere burua Jainkoaren eskuetan osoan utzirik dabil, eskeko egiñik, txirotasunik osoenean biziz, eguneroko janaria eta biaramona Jainkoaren eskuetan ipiñita.

Arima on batzuk, ondo ezagutzen eta maite zuten batzuk bear duen gutzia emango diote, baiña berak txiroen artean banatzen du dena. Palestinarako itxas-ontzia eta andik etortekoa ordaintzeko eman diotena ere txiroen eskuetara doa dena. Berak lanaren truk edo eskaleen ogia janez egingo du Palestinarako eta andik itzultzeko bidea. Txiroek gizon santutzat daukate, baiña geiagok, limosna egilleek ere, zorotzat.

Iñaziok ez zuen Lur Santuetan gelditzeko erarik aurkitu ez baimenik lortu. Eta andik itzultzerakoan izango du bidean euskaldun bat, abegirik eder eta garbiena egingo ziona.

Palestina utzita, Chipretik zear Veneziara eidurik, bazetorren Barcelonara bide egiteko ustetan erriz erri eta eskale egiñik, oitura zuen bezala bildutako diruak txiroen artean banatuz, Italian barrena, Genovara joteko asmoz, an Barcelonarako ontzia artzeko. Ferraratik aurrera asi zaizkio neke berri batzuk. Egun aietan (1524n), gerratea zen bazter aietan Frantziako erregearen eta Karlos Vren indarren artean, eta gizon ura ez ote zen izpien bat eskale itxuran estalita? Eta bein egun eta gau txarra ikusi bear izan zuen soldadu españar batzuk preso artuta. Billustu eta galdezka estu artu zuten. Bera pozik, olaxe billusik kapitanaren aurrera eraman zutenean, Kristori juduek preso artu zutenean egindakoa gogora zekarrela. Kapitanak, azkenez, izpiarenik ere ezer ateraten ez ziola-ta, gizon erotzat utzi ta bota du. Baiña, «kontuz, ez ezazula frantzesen arterako biderik artu».

Baiña Iñaziorantz bere bidean ez zen frantzesik ez españolik, ez zen etsairik. Eta ez ari nondik jo bear duen agindu. Jainkoak esaten dion bidea artu du eta Jainkoaren eskuetan dauka bere bizia. Eta urrengo egun batez, orra non frantzesen artean sartu den. Auek ere kapitanaren aurrera eraman dute, eta kapitanak galdetu dio nor den, nondik nora zebillen, nontarra zen, eta erromes eskale aren erantzunetik euskalduna dela ikusi du eta bereala artu du erabakia, Iñaziorantz ezin ohea, euskaldunak erbestean elkarren anaiago agertzen direla erakusten duena.

Euskaldun bi auek, Iñazio ta frantzes kapitana, bear bada, urte gutxi batzuk leenago elkarren aurka gudukatu zirenak, orain aurrez aur daude. Baiña orain adiskide antzean. Iñazio, Iruñan zauritua beretarren artera Loiolari eraman zutenak ere ez ote ziren euskaldunak izan? Oraingoan, ez dute bata bestearen aurka ezer, ez dira etsai. Euskaldun izateak biak adiskide egin ditu.

Iñaziok ez du gezurrik esan: Gipuzkoako semea da, euskalduna da. Gaurko askotxo aserretu leitezke, euskaldun batek olako erantzunik emango balu, ea zergaitik

ez zuen erantzun español zela. Txokokeritzat edo joko lukete. Baiña garai artan Iñaziok andikeriak eta Txokokeriak zapalduta, ostikoperatuta zeukan. Eta erantzun ori geroagokoa du, gauzak goragotik ikusteko adiñekoa, bere Lagundiko portuges bati egindako aitormenetakoa. Orain aitormen auek euskeraz ere irakur ditzakegu, *Erromesaren bidea*, Loiolako Iñigoren oroitzak liburuan, Frantzisko Olariaga aitak euskerara itzulita.

Frantzesaren zelako kapitanak Iñazioren aitormenari emondako erantzuna ez da gogotan gutxiago artzekoa. Pozik erantzun diola dirudi: «Ni ere an urbilekoa naiz, Baiona aldekoa», beraz euskalduna. Eta are gogotan artzekoago ta ederragoa bertatik artu duen erabakia, eta bere mendeko soldaduei agindua: «ar esazute, emaiozue aparia eta ongi esan». Bestelako erabaki eta agindua kapitan euskaldun onena, zorotzat eman eta kanpora botatzeko agindu zuen kapitan erdaldunak emanaren aldean. Iparraldekoa bata, egoaldekoa beste, baiña ez dute bien artean mugarik ikusi. Gertaera polita ta eredugarria Iñazio donearen bizitzako au. Baiña atzerrian euskaldunak erakusten duen anaitasun au zergatik ez ote dugu geure errian, geure auzoan elkarrekin izan eta erakutsi bear?

IÑAZIO DEUNA ETA EUSKAL KULTURA*

Oraindio zabal dabil munduan San SALBADOREn, Ameriketan jazoa. Ango Unibersitatean militarren eskuz eta armaz bost jesuitek geiagoko barik ikaragarritzko eriotzea izan dabe. Euren artean bat Bizkaiko semea. Eriotza orrek gatxeretxia eta iguiña sortu dau bazter guztietan. Or ikusi ditu munduak era batera gauza bi: batetik, gure gizaldi ain aurreratua eta ain aurrerakoia dalako onetan norbaitzuk jakintzarentzat eta giza-eskubideentzat erakusten daben gorrotoa edo, beintzat, jaramonik eza, eta, bestetik, jesuitek, euskaldunak tartean dirala, munduan zear daroen lan ederra. Loiolako santu andiaren semeak mundu-erri guztietan diardue Salvadorren dagien antzeko lana egiten eta nonaiko gizonak kultur-mailla goragokora eroaten. Jesusen Lagundia sortu eban Loiolako semeak erakutsi eutsen bideari jarraitu besterik eztabe lan orregaz egiten. Orretara bialdu zituen Iñaziok mundu zabalera; 1540 asi eta 1556n il zan arte, aren semeak orretan jardun eben European, Asian, eta Ameriketan, Erromatik Frantzia, Polonia, Alemania, Irlandaraiño alde baterantza, eta España, Portugal, Abisinia, Japon eta Brasileraiño besterantza. Eta esan bearrik ez, Iñazio beraren Euskalerriraiño, dana Erromatik bera zuzentzaile eta bultzatzaile zala.

Iñazio Euskalerriaz arduratzen

Iñaziok beretarrak itxi ta alde egin eban arren, Euskalerritik urrun bizitera joan zan arren, eztaigun uste izan bere odolekoak aitzuta izan zituenik. Ez zan urrundu eta erbestera bere erriaren eta erritarren ardurarik ez eukiz. Otoitzean Jainkoaren mesedeak gogoratzean besteai norbere sorreraz eta mundura ekarteaz egiñiko mesedeak

* Karmel 1990-3/4, 333-350.

eskertzen irakatsi eutsenak, esker-lege ori ez eukan aitzuta beretzat. Non eta zelango etxean eta zelango gurasoakandik jaioa zan ondo ekian eskertzen. Jainkoaren legeak eztau norbere etxea eta erria aitzuterik eskatzen eta gitxiago agintzen. Euskalerrria gogoan eta biotzean ondo sartuta eroango dau beti. Urriñetako errien ona ondo gogoan eroianari bere erritarren onaz arduratu barik biziten ez eutsan gogoak agintzen iñondik iñora. Loiolan Iruñeko zauria osatzen egon zaneko aldakuntzak eta santuen bidea artzeko erabagiak eztaoe iñorganako maitasunean otzago izatera, eta bere erritarren alderako gitxiago. Ezta orain lengoa, Iruñera gudari joan zanekoa. Orduan bere, ez zan ara joan napartarren aurka ez alde egitera. Gudari guztien alaberrak eroan eban Iruñera. Gudarien legea zan orduan agintarien aginduak bete eta gudako arriskueta burrukalaria adoretu agertzea, agintarien aurrean leial agertuz gerorako etorkizun ohea irabazteko. Orduan ez erabillen Iñaziok beste asmorik ez amesik.

Gero, barriz, gaztetako ames zoro guztiai betiko agur egin deusenean, argi barritan ikusten dau bere bizia eta biziaren elburua. Len, munduan andi izan naiak jota ebillen; bere burua, bere etxea eta Loiolatarren izena alik ospetsuen egitea zan bere amesa. Orain bestelako amesak darabiltz, bestelako gauzetan dauka bere poza. Ezer emotekotan bestelako izena emon gura deutso Loiolari eta berari odola emon eutsan lurralde guztiari. Naiko ondo jaso dau gure antzerkigille batek, Zubikarai Ondarrutarrak, idatzita daukan antzerki baten, Iñazioren bizitzan egin zan goitiberako asmo-aldakuntza au.

Au esanaz, eztoгу geurerik ezer asmatu. Iñaziok berak autortu eutsan bere etxeko bati Erromatik bialdu eutsan karta baten: «orain artean baiño bestelako ospea emon bearra daukagu geure etxeari».

Bere erriari deusan maitasuna

Baiña bere erritarrai 154ln Erromatik bialdu eutsen karta baten argi baiño argiago dago, bere etxeko eta Azpeitiarrai ez ere, bere lurralde guztiari eutsen maitasuna. Maitasan au itzik beroenez autortu deutse, eta Jainkoa bera ipinten dau maitasan orren lekuko: «Jainkoak badaki, diñotse karta orren asieran, Jainkoak badaki zenbat bider eta zeinbateraiñoko gogo andi beroa ipiñi deustan berak, neure alegintxoan al dodan guztia egin dagidan lurralde orretako guztiai, andrazko eta gizonezkoai poz-atsegiña eta arimarako laguntza eroateko».

Bere erriaren alde edozer egiteko zordun ikusten dau bere burua. Zergaitik? «Jainko gure Jaunak lurralde orretan emon eustalako, bere oizko errukiaz, neure lenengo izatea eta jaiotza izateko mesedea, nik merezi bakoa eta berari ezin eskertuko deusadana». Olango autorkuntza irakurrita, ez dau iñok esango Iñazio bere erriarentzat ardura barik bizi zanik. Norentzat egin dau autormen ori baiño argiago eta beroagorik, eta Jainkoaren aurrean egin bere, euskalerrriaren alde baiño? Paristik azkenengo aldikoz Azpeitiara joan zanean zerbait egin ei ebala diño, eta damututa lez dago geiago ez egiña. Eta Euskalerrriari, beste gauza guztien ganetik egiatzko bakea opa deutso karta berean, egiatzko bakea gero, ez noizik bein agintari eta jaun-

txoak alkarregaz egin oi daben bein-beiñeko bakea eta armak istea, itxurazko bakea, eta bai barru-barrutiko eta biotzetikoa.

Iñaziok ondo biotz-barruan daroa, bai, Euskalerrria. Bera ez zan onaño etorri; baiña ordezekoak bialdu barik ez zan gelditu. Eta eurak asi eben gero urrengoak gizaldiz gizaldi aurrera eroango eben lan ederra.

Iñazioren egunetan jesuitak Euskalerrrian

Iñaziok Jesusen Lagundiaren gidaritza, 1540garren urtean artu dauanean, amar lagun dira guztitara; bi euskaldunak, Iñazio bera eta Iñaziok maiteen izan eban Frantzisko Xabier. Andik amalau urtera ba dira 1500 lagun, euron artean euskaldun mordotxoa. Iñazio, antziñako gudari-kapitan izana dabe buru edo jeneral. Aita santuaren esanera diardue eta premiñarik non dagoan ara doaz euren apostolu-lanetan, Aita Iñaziok bialduta. Europarik geienean, Asian Ameriketean Brasilerañño zabaldu dira.

Euskalerrrian bere badiardue. Eztira guzurrezkoak izan Azpeiarrai bialduriko kartan egiñiko autormena eta euskaldunen alde erakutsi ebazan maitasuna eta ardurea. Frantzisko Xabier Indiara bialduta, aren laguntza emen galdu dauan arren, badau beste euskaldunik bere esaneko eta mendeko egin jakonik, eta luzaro barik agertuko dira Gipuzkoan, Bizkaian eta Napparroan euren apostolu-lana eta kultur-lana egiten, eta eurentzako bizilekuak billatu eta artzen.

Aita Antonio Araoz, Bergarako semea eta Loiolatarren senide zana bialdu eban Iñaziok aurretik, eurentzt lekuak prestetan asteko eta lagun barriak Lagundira eroateko. Gero emongo doguz asiera aretan gure artetik Lagundia sartutakoen izen batzuk. Leku askotatik jatorkez eskeak eurentzako leku opaka, baiña Iñaziok ezingo deutse erantzun pozgarririk emon, arik eta bere menpera euskaldunik geitxoago izan arte. Oiñatin eregiko dabe lenengo ikastetxea, 1551garren urtean, eta Oiñatitik Gipuzkoa eta Bizkaiko errietan agertuko dira ango ikastetxean eskolarik ez dauken egun eta aldietan. Oiñatiko etxe onetan ezkutau zan egun areitan Frantzisko Borjakoa, Gandiako Dukea, zati baterako beintzat, jesuiten artean profesa egiña zala ezkutetako.

Oiñatiko ikastetxean erretor izateko napar euskaldun bat jarri dau Iñaziok, erronkariarra bera, aita Migel Otxoa eta ospetsu egingo da Euskalerrri osoan, lenengo ta bein erriz erri, Leketion, Ermuan, Markiñan, Eibarren, Bergaran, Arrasaten emon zituen sermoialdiak gaitik, eta gero mirariak egiteko izan eban karismagaitik, ona etorri aurretik leku askotan erakusti eban lez. Mirarigintza au Migel Otxoaren barri emon daben idazle guztiak autortzen deutso Jesuita erronkariar oni.

Begoñako Andra Mari eleizea artzeko asmotan

Bizkai aldetik joan jakon Iñaziori Euskalerrriagaz artuemon estuagotan sartzeko aukera bat. Begoñako Andra Mariaren santutegia eskini outsoen. Eskintza au pozik eta itxaropentsu artuko ebala esan bearrik ez. Tamalez, ara ta ona asko erabili ta gero, poza pozura joan jakon; itxaropen orrek uts emongo deutso.

Kalahorrako Gotzain izentau barriak, Bernal Lukok, egin eutsan eskintza ori. Gotzain au euskalduna zan jatorriz eta Kalahorrako gotzaintzaren jabe egin aurretik, 1545-tik, arduratsu ebillen Euskalerrietarako langille euskaldun onen batzuen billa. Aita Antonio Araoz eta beste jesuita euskaldun bat jakitun ipiñita eukazan eta Iñaziori berari karta bat bialdu eutsan bere ardurak agertuz. Errietan kristiñau bizitza eta kristiñauen egiak gogo-biotzetan sakon sartu bear andia dagoala deritxo Luko Gotzaiñari, eta euskaldunen artean eleiz-gizon euskaldun ondo ikasi eta arimazaleak bear zirala ikusten dau. Aita Iñaziok bere Lagundiko batzuk bialduko balitu! Bera prest dago eurai aukerarik onenak emoteko. Eta Iñaziori biotz-ikutu andiagoa egiteko, onela diñotso: «Zu, maitasun-legez, zeure lurralde onen aldera beste edonongoen aldera baiño zordunago zagoz, eta onetan eztaukazu utsik egiterik, batez bere bertoko gotzaiñak eskatzen deutsun ezkerok». Lukoren arimazaletasunak eta euskaldunentzat erabillen ardura andi orrek arriturik itxi eban Iñazio. Baiña 1545n gaztegia da Lagundia, eta Iñaziok ez eukan Lukori atsegin emoteko aña euskaldunik bereen artean. Gotzaiñak itxaron egin bearko dau apur baten; 1550ko urtera arte. Urte onetan jakitun ipiñi dau Kalahorrako gotzaiña Lagundiko euskaldun gitxi batzuk Bizkaira bialtzeko eran dagoala. Lukok Bizkaian jesuitei eskintzen eutsen eleizea Begoñako Andra Mariarena zan. Asi dira ara onak. Tartean dabiltz Araoz eta Borjakoa. Kartak dabilz Kalahorra eta Erroma bitartean; kartak Karlos Kintoren ingururairiño. Eztabe izan eragozpenak nondik etorriko jakezan susmorik. Begoñako Andra Mari eleizea patroipekoa zan, eta patroiak ez eban nai iñork bere eskubideei ikututerik. Iñazioren Bizkaian sartzeko asmoak porrot egin eben.

Oiñatiko ikastetxearen inguruan

Iñazio deunak bere Lagundiaren, Jesusen Lagundiaren elburua lenengotarik ez eban osoan asmatu. Kristiñau-erriaren premiñak eta bear-izanak ikusi ala, urte batzuen buruko etorri jakon beretarren elburua eta euren egitekoak alde geiagotara zabaltzeko argia eta aukerea. Lenengotan erriz erri dabiltz nonaiko eleiza eta geixotegetan, geixoak zaintzen, umeai edo aziagoai kristiñauak jakinberrak irakasten, eta olako lanari ekiten. Laster gorago bere joko eben. Maila guztietako ikastetxeak sortuko ditue. Erroman bertan Aita Santuak Aita Iñazioren eta beretarren ardurapean ipiñiko ditu Erromako Ikastetxe Nagusi bi: bata, Erromako Ikastetxea deritxona, eta bestea Garmaniatarrentzako Ikastetxea. Lenengoa, gaurko Gregoriana deritxonaren ama eta aurrelaria izan zan; eta bestea, Luteroren aldera egin eben lurraldeetara bialtzeko maixuak gertetakoa. Eleiza katolikoaren edestian oso ezaguna da, Iñazioren egunetan eta geroago Trentoko Eleiz-batzar Nausian, euren aitak bialduta Jesuita batzuk erakutsi eben jakituria. Euron artean Euskaldun bat da, Doktor Olabe izenez ezagutua, Gasteizko semea, Trenton izlari izana.

Erromako Ikastetxe Nagusi biak baiño txikiagoak nonnai bultzatu eta sortu zitanak asko bai asko dira. Eta bazter guztietan. Arímak argitu eta Jainko-bideetan berotu egiten eben erriz erri ebiltzenak, eta gogoak jakintza guztietan jantzi eta ornitu ikastetxeetan irakasten ebenak; eta noizik bein ikastetxeetan iñarduenak erriz erriz

edo eleizaz eleiza urtengo eben Aita Iñazoren gaiak kristiñaei emoten. Iñaziok biotzeko jakituria bereago dauan arren, biotza eta buruak, biak lantzeko eskolak egin gura ditu bere etxe eta ikastetxeetan.

Oiñatiko ikastetxeetan orixe egingo dau. Len aitatu dogu Iñaziok Gipuzkoako uri orretako ikastetxean nagusi ipiñi ebana, aita Migel Otxoa erronkariarra, irakasle, sermolari eta mirarigillea. Eztabil bakarrik; lagunak eta jarraitzailleak baditu: aita Araoz bera, aita Ernani, sermoegiñan Lekeitio zaia 1552n il zana, aita Zarauz, aita Ubilla eta aita Berasategi, ikusi daitekenez euskaldun garbiak guztiak. Erri zearentzat kristiñau lauk jakin bearreko gaiak irakasten dituez, batez bere; baiña bai eleizgizonak eta abadegaiak ikasi eta jakin berarrekoak bere. Eta baten bat beti eukiten eben erriz erri mixiñoak eta emoten ibilteko, eta eskolabako egunetan eta aldietan guztiak ekingo eutsoen lan orri.

Iñaziok Erroman ez eukan bere Euskalerrria aitzuta, ez. Eta leku askotatik joakozan eskeak Oiñatikoa lako etxeak ipinteko: Gasteiztik, Bilbo, Bermeo, Lekeitio, Bergara, Arrasate, Iruñe eta Tudelatik. Batzuei erantzuteko bideak gertetan ebillela, eriotzeak galerazoko deutso ezer egitea. Bera il ondoren etorriko jaken erri batzuei euren txandea. Baiña euskaldun geiago Lagundian sartu ala, or datoz bata bestearen ondoren Euskalerrrian sorturiko ainbat Jesuiten etxe: Iruñen (1584), Bergaran (1597), Azkotin (1597), Tudelan (1600), Bilbon (1604), Donostian (1627), Lekeitio (1689?), Orduñan (1683).

Euskalerrriko ikastetxe guztietan ardura andia euken txiki eta andiei euskeraz irakasteko. Aldi areitako agiri eta paper guztiak alan diño, tamakez orretarako erabilten eben dotrinarik ezta gelditu baiña. Euskeraz bere idatzita eukezan olako errietako ikastoletarako arauak eta gure egunetaraño eldu jakuz batzuk, esaterako, Lekeitio eta Azkoitikoak.

Guzti au ez ete etorren, bada, Iñaziok ezarri eutsezan arau eta aginduetatik? Ez ete eutsen legetzat ipiñi lekuan lekuko izkuntza erabili egiela alde guztietan?

Ikastetxe areitan, eskol-umeentzeko eskolaz ganera, beste ikasgai asko irakasten jakezan ikasleai. Esaterako, Bilbon, Iruñen, Bergaran, filosofia, teologia, legeak eta eleizgizonak eskolatzeko gai guztiak eukezan ikasgai, eta batzuetan, matematika eta fisika-gaiak bere bai. Aita Kardaberazek Oiñatin moral-gaiak azalduko ditu eta beste euskal-idazle andi batek, Mendiburuk, irakatsi zituen teologi-gaiezko orri mordo galantak itxi zituen idatzita, eta leku askotan aurkitu daitekez. Neuk bere, bein, beronen esku-idatzi batzuk aurkitu nituen Iruñeko liburu zarren denda baten naiko merke salgei eta geure apaizgaitegi bateko biblioterako zuzendu nituen. Olako gaiak ez ziran emoten euskeraz; latiña erabilten, orduko oiturari jarraituz. Jesuiten ikastetxe orreitara Euskalerrri guztitik jotzen eben gazteak jakite billa, euren buruak ainbat jakintza-gaietan ikasiago eta argituago egitera. Erri batzuetan jesuiten eskuetan itxi ebezan lendik ipiñita eukezan erri eskola bat baiño geiago.

San Iñazio eta euskera

Bada euskaldunik Iñaziori pekatutzat ezarri eutsoenik ez euskula itxi ezer euskeraz idatzita. Egia da. Itzen bat edo beste eldu jakuz arenak, aita Araoz-i egiñiko karta baten, erdaldunen batek ulertu ez egiazan, antza: *Kristau berriak*. Esaera au

lenengoz euskeraz Iñazioaren lumatik urtena da. Baiña Erroman bizi zala, nork irakurteko idatzi bear eban euskeraz ezer? «Oba ebala ejerzizioak euskeraz idatzi balitu» bota eban bein bertsolari batek euskaldunen aurrean. Ala-olango ateraldia! Iñazíok ez zituen ejerzizioak idatzi irakurteko, emoteko baiño. Eta euron bitartez mundu guztiagaz diardu itz egiten. Lekuan lekuko izkuntzak erabilteko legea Lagundikoai itxi eutsenak lege ori bere seme euskaldunei bere itxi eutsen. Eta bera Erromatik gure artera agertu ezpazan bere, ona etorri ziran aren semeak euskeraz egingo deutse euskaldunef eta bere semeen bitartez euskeraz egiten eban euskaldunekin, aita Otxoa, Ernani eta abarren agotik, eta euskeraz jarraituko dau gure egunotara arte ainbeste sermolari eta ejerzizio-emoille askoren agotik. Noznai entzun dau euskaldunak euskeraz bere liburuan irakatsi eban guztia.

Gogo beroz eta maitasunez eragoien eta daragoie Euskalerrriaren alde, eta Euskalerrriak antziñetik maite ditu. Maitasun onetan Gipuzkoa joan da besteak baiño gorago, aurki. Loiolako seme andia Eleizeak santuen maillara jaso ebanean, 1622n, Gipuzkoak seme kutuntzat artu zituen jesuita guztiak, eta Gipuzkoak ez eze, Bizkaiaik be bere zaindari eta patroitzat artuta dauko Iñazio deuna.

Iparraldean euskera lantzen

Ez eban ainbesteko eskerrik ez arrerarik izan orain Iparraldea esaten deuteseguneko euskaldunen artean. Ango Euskalerrria jansenistek azpian artuta euken, eta gauza jakiña da jansenistek oso tematsu egozala jesuiten aurka. Ango euskaldunek emon eben seme onik Jesusen Lagundiarentzat, baiña euren errian bertan sartzerik ez eben lortu jansenistek eutsen ezin-ikusia gaitik. Esker txar ori gora bera, jesuita bat baiño geiago agertu zan euskaldunentzat euskeraz lan ederrik egiten, Iparralde aretako amazpigarren mendeko euskal-pizkundean, Axularregaz batera, eta Axular baiño lenagotik bere bai, euskal-literaturaren baratzeria sartuta, gure izkuntza lantzen. Euren errian bizitzerik ez eben izan. Baiona aldean euren etxe bat eregiteko aukera ona agertu jaken; baiña an jansenistak ziran nagusi eta oneik ez eben izan onik, jesuiten aldekoen asmoak bera bota arte. Indarkeriraño jo eben Loiolatarraren semeak, euskaldunak izan arren, andik urrun eukiteko. Alan bere, euskaidun arein biotzetan euskaldunen eta euskeraren alderako maitasuna itoterik ez gitxitzerik ez eben lortu. Eta euskaldun areik atzeritrik jarraitu eben euskaldunentzat lanean. Eta ez edozelako lanean gero!

Izan bere, amazpigarren mendean gure literaturan eztira edozein jesuita lapurtar bi: Joannes Etxeberrri eta Bernard Gasteluzar. Etxeberririk gitxienez euskerazko iru liburu itxi zituen bere aldiko eta geroko euskaldunentzat: *Elizara erabiltzeko liburua*, *Manual debozionezkoa* eta *Noelak*. Biak bertotan idatzi eben ia euren lan guztia. Zergaitik bertotan? Euskalduna bertsozale eta kantazale ikusi ebelako. Mariñelak gogoan ebezala egin eben lanik geiena. Gizaldi atan indar andia artu eban angok portuetako euskaldunen artean itsas urriñetako arrantzak, eta bale-arrantzak iñozko geien. Eta zer eskintzen deuse arrantzaleai idazle biok euren bertsoetan? Iñazio

deunak geien irakasten ebana: otoitz egiten, geien baten. Etxeberrik berarizko zati bat dauko arrantzaleai euren itxasorateetan zelan otoitz egin irakasteko.

Idazle biok aitatu dabe euskaldunen bertsozaletasuna. Etxeberrik asi-asieran onan diño:

Giristino, eman diat eskarazko bersutan
katholiko manuala neure asti orduetan,
ikhsirik nola bainaiz iaiatzez eskalduna
gure nazioa dela koplma maite duena.

Gasteluzarrek, bardin; mariñel euskaldunak izan ditu gogoan; bertsozale eta kantazale ikusi ditu. Badaki «batzuek huntan gusto hartuko dutela, guztiz mariñel debotek... Ezen nola plazer hartzen baitute itsasoan latiñez elizako himnoak kantatzeaz, atsegin gehiago izanen dutela himno beren eskaraz errateaz». Ain zuzen, orrexegaitik bere bertso asko elizako kanten neurrian emoten ditu.

Gasteluzaren itzak gogoan izanik, berau aurrelari agertzen jakula esan geinke eleizako kantuetan lekuan lekuko izkuntza sartzen. Eta esan bearra dago bai Etxeberriren eta bai Gasteluzarren bertso kanta batzuk gure egunotara arte iraun dabela Euskalerriko eleizetan.

Biak izan dira euren aita Iñazioren kantari. *Noelak* liburuan Etxeberrik atsegin dau bera bein Loiolan izana dala gogoratzea eta Loiolan bertan idatzi dau, «Sant Iñazio Loiolakoari», «eskaldun guztien ohorea» danari, bere esker kantua. Mundua guztia ikusten dau kantu orretan Loiolakoari zordun:

Zuri zordun zaitzu Europa
Calviñek nahasia,
zuri Amerika, zuri
bazter zabal Asia.
Zuri oraino zordun zaitzu
giristiño herria,
zuri finean aurkhitu den
berze mundu berria.

Gasteluzarrek birritan aurkeztu deusku Iñazio deuna Jainkoaganik datorkion argiaren argiz zorabiatuak, «ekstasiatua».

Lapurdiko euskal-idazle jesuita biok, Euskalerrian bizitzeko aukera ukatu eutsen arren, atzerrian bizi bearra izan eben arren, Euskalerrria ondo biotzean eroan eben, euren aita Iñaziok lez, eta gizaldi atan zintzo jokatu eben euskal-literaturatxoa aberasten. Orrexegaitik eskergarriago eta txalogarriago dira guretzat.

Mende berean Euskalerrriaren leena argitzen

Barriro diñogu eztala gure asmoa jesuita euskaldunak munduan zear kulturaren alde egin daben guztia oroitu eta aztertzea. Iparragirrerren «eman da zabalzazu munduan frutua» Iparragirrerren egunak baiño lenagotik entzun dau euskaldunak. Iñazioren

semeak bere bai. Eta lan andia egin izan dabe gizaldietan zear. Izen andia irabazi izan dabe jesuita euskaldunak Mixiolaritzan, irakaskuntzan; Lagundia sortu barritik gure erritik kanpo, Mixiolaritzan Franzisko Xabier Asian eta aita Antxieta Brasilen, eta gero ainbat martiri. Irakaskuntzan Teologian eta abarretan Doktor Olabek Iñazioaren egunetan lez, beste askok zabaldu dabe euren jakituria beste leku eta aldi askotan. Guztiak gure erriaren goresgarri dira. Baiña emen Euskalerrian eta euskal-kulturaren saillean egin dabena baiño eztoгу argitu eta azaldu nai.

Eta amazpigarren mende berean ona non datozkigun iru jesuita Henaok, Moret eta Aleson, gure erriaren nondik norakoa eta edestia aztertzen dabela. Irutatik bat ezta euskalduna, baiña bai bere aita Iñazio euskalduna dalako, euskaldunen alderako maitasunak biotz-biotzean joa. Ez ete dau beste bien artean sartzea merezi?

Erderaz idatzi eben, baiña Euskalerrian eta euskal-kulturaren alde. Antziñakoena, bere azter-lanetan lenengo sartu zana, aita Gabriel Henaok, Valladolid-ko semea (1612-1704).

Gabriel Henaok jesuiten Bilboko ikastetxean egin zituen urte batzuk bere gaztetan eta emen asi zan, bere eskola-mutillekin batera, Bizkaiko antziñateaz idazten, *Vizcaia illustranda* latinezko liburutxo bat argitaratuz (1637). Beste liburu bat bere idatzi eban (Defensa histórica de Guipuzcoa) Gipuzkoako foru eta buru-jabetasunaren alde egiñez. Eta irugarren liburuia 1689 argitara emona: «Antiguedades de Cantabria».

Liburu onetan, Henaoren luman, Kantabrian Euskalerrri osoa dago sartuta: Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba, eta zerk artaratu dauan liburuaren atarian diño; Iñazio deunaren omenetan idatzi dau, Iñazio Gipuzkoan jaioa dalako, baiña baita bere zanetan Arabako eta Bizkaiko odola daroalako. Gaztelako seme onen biotzean ezta ageri gaztelarrak euskaldunei izan oi deutesen bekaitzaren aztarrenik, lorratzik.

Jose Moret (1615-1687) Iruñeko semea da eta Franzisko Aleson (1634-1715) Bianakoa. Biak Nafarroako edestiari eldu eutsoen. Atarako eben gaitasuna, ezaguturik, Nafarroako erreinuek bere «kronista» izentau zituen eta diruaz lagundu. Bear bada, lan orretan ez eutsen Nafarroari eutsoen maitasunak gitxi lagundu. Jesuita biok Iruñeko jesuitetxean egin eben euren lana, erreinuko artxiboetako ageri eta paper zaarretan azterketa sakonak egiñez. Biak erakutsi eben, teologia eta filosofia irakutsiaz ganera antziñatearen aztarrenak billatu eta argitara ekarteko gai zirala.

Moret-ek 1654n artu eban arazo ori eta artxiboetan lan eta lan, il zaneke prest eukazan irarkolarako. Eta il zanean Aleson izan eban jarraitzaille, Moretek eskuz idatzirik itxi zituenak argitaratu eta Nafarroako edestia aurrera eroateko. Bien artean, Nafarroako antziñatea luze ta sakonen argiturik itxi eutsen gerokoai. Batez bere Moret-ek edestilari zentzun andikoaren omena dau kritiko askoren artean.

Azkenengo eun urte onetan beste iru edo lau jesuita izan ditu Euskalerrriak lenaren azterketa-saillean lan ederra egin dabena: aita Jose Iñazio Aranak, Gipuzkoako semea, Henaoren lana osatu eta garbituaz; aita Antonio Perez Goienak bere Nafarroako Bibliografiaz; eta gure egunotan, Aita Ignacio Elizalde Nafarroaren aztarrenak munduko literaturan aurkitzen saiatu da.

XVIIIgarren mendean euskal-literaturaren bultzatzaille

Euskal-literaturan, Bidasoaz onantzako idazleen artean, amazortzigarren mendea jesuitena dala esan geinke. Etxeberrik eta Gasteluzarrek Iparraldean baiño lan andiago eta ederragoa egin ebela autortu bearrean gagoz iru jesuitek emen: aita Manuel Larramendik, Agustin Kardaberazek eta Sebastian Mendiburuk. XVIIIgarren mende orretan emengo euskal-literaturaren zuzperraldian zenbateraiño eragiña izan eben gure literaturan bape aitua danak badaki. Larramendik iztegi-lana eta gramatika-lana egin-gau, eta beste biak Iñazio donearen bideari, arimeari dagokionari, elduko deutsoe.

Larramendik (1690) bere gramatikaz eta iztegi-az, maixu-lana egin dau; euskal-dunei euren izkuntzaren korapilloak askatzen irakatsi deutse eta euskera lantzeko bidek urratu. Euskerea aintzat artu eta maitatzera bultzatu ditu, eta erriari bere izkuntzan itz egiteko gaiago egin.

Erraz da gaur Larramendiren lanaren akatsak salatzen, eta nai dauanak nai dauana esango dau, baiña gauza argia da aita Larramendiren lanetan ikasi ebela abade eta fraide askok euskeraz itz egiteari eta idazteari bildurrik ez izaten. Urrengo urte luzeetan aren iztegiari jaramonik egiten ez eutsenak bere, maixu anditzat dauke bera eta ago betean aintzat artzen eta goratzen dabe, eta euskerearentzat zorionekotzat dauke aren lana. Asko erraztu eban euskeraz idazten asteko bidea. Aita Bartolo karmeldarrak eztau aren iztegian datorren itzik erabiliko; baiña Larramendi euskaldunentzat maixu eta bide-urratzaille anditzat eukan. Larramendi euskal-kulturaren alde jardun daben Iñazio Loiolakoaren seme argienetakoa dogu. Beronen lana azpimarratzen ez naz geiago luzatuko.

Eta goazen Kardaberaz aitaren eta Mendibururen lanari begia ezartera.. Iñaziok edozein jakintzaren jabe eta irakasle izateko elburua ezarri eutsen bere semeai; edozein maillako jakintza irakasten da Lagundiaren ikastetxeetan. Baifia Ifiazio berak maiteen ebana arimen onerakoa zala esan bearrik ez. Bere ejerjizio edo gogo-jardunetan orretariko lana egitera eroan nai zituen bere semeak beste ezertara baiño geiago, ezbai barik; kristiñauak Jainkobidean zuzen ipintera, arimen, gizartearren eta Eleizaren onerako.

Gauza bitxi eta argigarria Aita Alesoni jazo jakona: Nafarroako erreñuak Moret aitaren jarraitzaille izentau ebanean, jesuiten gorengo Nagusiak arazo ori artzeko ez eutson emon gura izan baimenik, orduko Aita Santua, Iñozentzio XIgarrena bizi zan bitartean. Zergaitik? Aita Santu orrek ez ebalako nai jesuitak munduko arazoetan sartzerik, errege eta politikoen goraberatan murgiltzerik, antza. Aita Santuori il ondoan etorri jakon bere Nagusiaren baimena, Nafarroako kronista izateko.

Aita Kardaberazek eta Mendiburuk ez eben ezelango eragozpenik izango Lagundiaren aldetik. Batari eta besteari erregeren eta onen politiko baten aldetik etorri jaken eragozpena; ukatu egin jaken euskeraz idazteko eta beintzat ezer euskeraz argitaratzeko baimena.

Aita Kardaberazek (1703-1770) eta Mendiburuk (1708-1782) euren aita Iñazio-aren lanik gogokoena egin eben euren bizian. Batez bere, Aita Kardaberaz izan da San Iñazioaren ejerjizioetako gogo- eta muiña euskaldunen gogo-biotzetara geien

urreratu ebana bere *Aita San Ignazio Loiolakoaren* ejerzizioak liburuan, edo obeto esateko, liburuetan. Inñazioren liburu txikiak Kardaberaz lumatik lau liburu egiñik urten eban; Inñazioren 1548ko ediziñoaren 208 orrialde semeak zortzireundik gora luzatu ditu. Inñaziok ain labur eta trinko esanak luze eta zeatz azaldurik eskintzen deutsez euskaldunei.

Ordurako antxinatik ibilliak ziran jesuita euskaldun asko mixiñoak eta ejerzizioak emoten erriz erri; Kardaberazek berak ainbat urtetan jardun dau Loiolan bertan orixe bera egiten. Baiña berau da liburutuan lenengoz plazaratuko dituana. Berak kenengoz ipiñiko dau euskaldunene eskuetan «zeruko liburu miragarri, mundu guztiaren onerako euskaldun bati zeruak emana, ta gure euskerak noizbait ikusi bear zuena» (lenengo liburuaren asierako itzak). Ez dau nai euskalduna euskaldun uts egiñik ikusi, euskaldun irakurle bere bai. Ez dagiala inñok uste ezin daitekela euskeraz ezer idatzi ez irakurri. Ezin dau onez ikusi gauza bat: «Eskola duten askok ejerzizioak gaztelaniaz egiten dituztela; baiña ezin ukatuko da askok, orien artean, geiena ondo aditzen, barrentzen edo bear bezala penetratzen ez dutela».

Berak batzuei eta besteai, eskoladun eta eskolabakoai, euskeraz irakurteko aukera ta erreztasuna sartu nai deutse. Kardaberazek orixe ikusi dau, euskalduna eztagoala euskeraz irakurten oitua. Orrek, «egia aitortu bear da, diño berak, euskeraz eskribitzeko gogoia kentzen duela». Tamalgarria da, baiña jakin bere badaki, bestetik, «euskaldunak eta are geiago arimen artzaiak, guraso eta eskola-maisuek gogotik ekin ta eragiñez, irakurtzea artzen badute» gauzak aldatuko dirala. Berak bere ezagutu dau eskolako aurrik, «baita sei urte etzituen neskatxa bat, gastelania, latiña ta euskera berdin trebe ta ederki irakurten zituena. Baiña alako maestra zuten, errespeto andikoa ta grazia onekoa».

Alan nai olan, animen onaren zale diranak ez dabe aitzakiarik izango. Bera aspalditxotik asia da euskerazko liburuak ateraten. Kardaberaz bein eta barriro darabil bere maillua ingude berean jotzen. «Gure probetxo on askoren animak salbatzeko, euskarak burua jasotzea Jainkoak nai du» idatzi ebanak eztau salbatze ori zeruan bakarrik ikusi; ori esatean, euskeraren eta euskal-kulturaren bizia bere gogoan dauko. «Asko egieki euskera galdu da; baiña ori ezta euskararen, ezpada euskaldunen desonra, bada oiek polikitu, apaindu ta edertu bearrean, lotsarik gabe berak beren nagitasunez itsustu, larrutu ta desegin izan dute». Salaketa gogorra, lotsari andia, gaur ere kendu eta guztiz ezabatu bakoa, nai ta itxura baten alegin andiak egin!

«Ejerzizioak» atera dituen urte berean plazaratu dau «Euskeraren berri onak» liburua. Abadeai euskera lantzen laguntzeko atera dau, batez bere. Eta bere alegiñakaz zerbait lortu dauala esan geinke. Ejerzizioen urrengo edizio baten irugarren liburuan pozik dakus zerbait pozgarri agertzen dala. Entzun berari: «Bizkaitar asko gogotik asi ta beren modura ta gurera txit erraz ta laster egin dira. Igaz irakurten batere etzekien neskatxa baserriko bizkaitar batek aurten euskerazko iltzeko liburutik bere aitari... iltzen laguntzen apaiz jaunak eta beste askok arriturik ikusi dute... Animo bada kristau maitea: irakurteari gogotik ematen badiozu, egiña dago guztia. Naiz bizkaitarra naiz emengoa zerala, hitz guziak beralakoan ez adituagatik, laster orretara ta ondo aditzera egingo zera... Jaungoikoaren bildur gabe, ikasi dutenai ere gogoia kentzeko milla euskeraren kontra esaten dituzte... Nagi alperrai zuk ez sinistu».

Aita Kardaberaz eztabil emen bere Jesusen Lagundiaren elburuetatik kanpo. Aita Iñaziok ez ete eutsen orixe agindu eta orixe ez ete eben egiten bere anaiak munduan zear, batez bere mixio-errietan? Eta berak erakusmen ederra emon eban euskaldunak euskalerrira bialdu zituanean, eta Kardaberazek ederragoa, euskeraz erriz erri sermolari ibilli ez eze, ainbat liburu euskeraz idatzi eta zabaldu dituanean. Gipuzkoan, Bizkaian, Araban eta Nafarroan ibillia da Jainkoaren itza zabaltzen, eta bere euskera lekuan lekuko erari egokitzen saiatu da. Bizkaierazko liburu bat edo beste bere aterako dau.

Aita Kardaberazek ondo ikusi dau, bai, euskerearen egoera larria, ta egoera ori aldatzeko bideak beste iñor gitxik lez erakutsi ditu. Abadeen artean egin eban bere lanik ederrenetakoa. Bera da Jesusen Biotzaganako deboziñoa zabaltzen asi zana. Lekuan lekuan Jesusen Biotzaren Kofradiak sortu zituen eta euren batzarretan illero itzaldia egiteko eginbearra ezarri abadeai: Markiñan, esaterako, Kardaberazek ezarritako oitura orrek gitxienez eun urte inguru iraun eban, eta parroko artxiboan gorde izan dira gaur arte olako berrogetamar bat itzaldi, illeroko elizkizunetan bertako abadeak egiñak. Jesusen Biotzaren Barri ona zabalduz, beste gauza on bat lortzen ebala esan geinke: gure erritik jansenismo-kutsua, bildurrezko erlijijiñoa kendu eta uxatzen lagundu.

Eta lan bera egiten or dator Sebastian Mendibururen euskalana. Au bere, Jesusen Biotzaren apostolu sutsua, eta era batera, euskal idazle ugari eta ixuri onekoa. Oiartzungo seme argi au Iruñeko jesuiten Ikastetxean izan zan teologi-irakasle, len esan dogunez. Teologia latíñez irakasten dau, baiña orrek ez eutsan eragozpenik ipinten bere Oiartzungo euskera lantzeko, eta opor-egunetan eta bitarte batzuetan erriz erri urtetako, euskaldunei euskeraz bere itza zuzentzen. Euskeraren eta euskal-arimaren onerako Kardaberaz griña berberak jota dabil, Jesusen Biotzaren kofradiak edo anaiarteak sortu eta euskaldunentzat euren elizkizunetan irakurteko liburuak ateraten, euskaldunai kristiñauago eta Jainkoari emonago izaten laguntzeko. Dana, bere Aita Iñaziok bere ezejizioetan urratutako azazetik. Emen esan dogunaz, aita Mendibururen liburu andien bi aitatu doguz: «Jesusen Bihotzaren debozioa» (1747, eta 1751) eta Jesusen amore-nekei dagozten OTOITZ-Gaiak (1759-1760), iru tomo loditan eta amaika tomo txikiagotan argitaratuak ditu. Lehengoak edizio bietan Aita Larramendik Mendibururi zuzenduriko karta bat dakar itzaurre antzean. Liburu onegaz batera, Jesusen Biotzaren Kofradiakoai euskeraz emon deutsez euren bizitzarako daukezan arauak.

Otoitz-gaiak liburuaren asieran liburu onen nondik norakoa adierazo gura izan dau: «Bein baño geiagotan adierazia daduka gure Jaun maitagarriak, Jesusen beraren konpañiakoak asi bear dutela, beste anitzen artean, beraren Bihotz humil mansoaren debozioea lurrekoei agertzen eta arrerazten». Aita Mendiburuk ogei urte ta geiago emon ditu, jesuita bati egokionez, bere alegintxoia egiten, Jesusen biotzaren kofradia batzuetan. Gero eliz-gizon askoak eskatu deutsoe olako batzarretarako «berariazko liburu bat edo bertze». Orra Otoitz-gai liburuaren jatorria.

Lenengo liburuan baiño euskera errazagoa erabilten saiatu da emen. Ondo irakurtzen *dagokana dagokanarekin jakin* ezkeru, euskaldunek ondo ulertuko dabela uste

dau. Eta bein edo bein zerbait galduagatik, laster oituko dirala uste dau «aditzen dituzten itzetara, eta erdarazkoak eta beste behar ez diranak utzirik, artuko dituzte beren hitz kuntzetarako hitz euskaldun garbi-leunak». Mendiburuk Jesusen biotzean ikusi ta ikusitako leuntasuna bere euskeran sartzen saiatu dala dirudi. Eta euskal-idazle lez beste alde gogoangarri bat dauko: Jesuitak emendik kanpora jaurti eta gero, Eleizan ere legez kanpo gelditu ziranean, euskeraz idazteari ez eutsala itxi. Italian idatzi zituan, aurki, oraintsu argitaratuak izan diran *Igandetako* ta *Festegunetako Irakurraldiak*, gure egunotararte illunpean egon ondoren, Aita Patxi Altunak argitaratzeko prestau dituanak.

Aita Mendiburu eta Kardaberazek, Larramendigaz batera, bardin bako lana egin dabe eta eragille bikain izan dira egoaldeko Euskalerrian amazortzigarren mendeko euskal-pizkundean. Eta neu nago ez ete dogun jesuiten arteko egin bear beste mende bereko idazle bat: Joakin Lizarraga, jesuitak atzerrirajaurti ebezanean emen abadetako gelditu zana, eta euskal-idazle ain ugaria. Iñazio deunaren etxeetan jesuitek eskolatua da, beintzat.

Ixillaldi luzearen ondoren kalbario luzeagoa

Or gelditu da Larramendik bizturiko sua eta Mendiburuk eta Kardaberazek eskuak betean ereindako azia. Zoritxarrez ez eben izango jaarrantzaillerik euren artean. Kardaberazek eztau lortuko bere liburu barri bat argitaratzeko baimenik, ain zuzen Iñazio deunaren bizia. Madril aldetik, ango agintariak euren bidebagezko agintekeriaz gogor asi dira joten eta euskerazkorik ezer argitaratzen ez isteko bideak artzen. Jesuitentzat gogorrago jokutzen dabe. Eta jesuitentzat gogorrana, emendik alde egin eta atzerrietara joan bearra ezarri deutse. Eta, azkenez Eleizeak, Aita santuak bere, orduko errege Jesuiten arerioai amore emon bearrez, Jesusen Lagundia kendu eta ezabatu egin dau. Berrogei urteko bitarte orretan galazota dauke lagun barririk artzerik, eta lengoetatik eztira oso gitxi baiño bizirik gelditu. Berrogei urte geroago (1814), barriro lengo eskubideak eskuratu dabezanean, lagun barriak ugaritzen asi diranean, beste oker andi bat jatorke gure arteko errietan: etenaldiak eta oztopoak oztopo izango dituez alan luzaroan. Madrilgo gobernuak aldatu ala, bein euren etxeetan bein kalera botata bizi dira: 1820tik 1823ra lenengo etenaldia; 1835tik 1853rako urrengo; arik laster, 1854tik 1856ra artekoa; eta azkenez, 1868ko kanporaldia. Urte orretan eta urrengo karlistadaren urteetan, atzerrian aurkitu bearko dabe bakea eta jesuitagai barriak artzeko aukerea. Emendik Lagundian sartu nai daben gazteak atzerrira doaz, geien baten Frantziako Puyanne-ra. Emen profesia egiñak dira oraintsu altaretara jasoan izan dan Garate anai doatsua eta gero ospetsu egingo diran beste jesuita euskaldun asko.

Or agiri da gure errian jesuiten alde egoan giro ona. Emen ezin dabenean, atzerriraino doaz gure Patroi andiaren lagundian sartzeko. Gure erriko agintariak jesuiten alde urten eben arren, ez eben eurak emen bakean jarraitzerik lortu. Eta gure erriak, jesuitentzako girorik txarreneko egun areitan ikasi eban, ain zuzen, San Iña-

ziorren martxa dalakoa jo eta kantetan, egunotara arte ain gogatsu kantau ta jo izan dauana.

Eta Egoaldeko jesuitentzako egoera txar onetan, Iparraldean euskal-idazle andi bi agertu ziran egoera latz ori gozaten: J. Duvoisin eta F. Laphitze: Duvoisin-ek Kardaberazen liburu bat itzuli dau Lapurdiko euskarara. Orain nonbait jansenisten beiñolako giroa joanda dago. Liburu ederra ipiñi deutso idazleak titulutzat ta ona zer diñoan: «Ororen artean liburu bat agertzen da ederrenik, eta emen deramagu Lapurdiko eskararat itzulirik... Mende bat egon da hau gutaz ezagutua izan gabe, eta egiazki damu ziaitekeen hemendik goiti guretzat ilhunpe berean lo egin zezan». Autormen ederragorik jesuita aren lanarentzat! Eta Laphitz-ek, Iñazioren euskerazko Bizitzarik gozoena, biziena eta atsegiñez, nobela bat lez, irakurtekoena eskiñi eutsen ango euskaldunei.

Nozbait bear eta, 1880 inguruan amaitu jake jesuitei gure artera etorri eta emen bakean euren betiko lanari jarraitzeko aukerea. Eta andik aurrera gero eta indar andiagoa artu dabe gure artean.

Jesuiten Euskal-kulturaren aldeko ekintza gaur

Orain eun urte asita, Jesuitak Euskalerrian egin dabena lenago ein ebenaren azkarri dala esanez eztoгу alan eztanik esango. Sail andiago eta zabalagoetara edatu eta eroan dabe euren ekintza. Bear bada antziña baiño erri geiagotara zabaldurik eztabiltz. Bear bada, erri gitxiagotan diardue. Baiña len baiño erri-mailla geagotara eltzen da euren kultur-lana; len baiño askoz geiagori eltzen jake lan orren emoia. Arlo geiagotan sartuta, era askotariko eskolak daukez euren esku: Ikastetxe nagusi Unibertsitate maillakoetatik, langille eskoletaraiño; Filosofia eta Teologia ikastekoe-tatik, Legeak, Ekonomia, Merkataritza, eta beste lan eskola askotaraiño. Or dago Deustuko Unibertsitatea, eun urte baiño geiago dituen bere adar guztiekin; Donostiako EUTG; or dagoz Donostia bertako, Gasteiz, Iruña, Durango, Tudelako eskolak. Eta ikastetxe nagusienetan euskerak berea dauan lekua daroa. Au da gaur dakusgun aurrerakadarik andiena. Beti eta beste leku askotan lez, Iñazio deunaren semeak, emen bere, aldi aldiko eta lekuan lekuko premiñai erantzuten ikasi dabe. Jakintzarloan Aita Iñaziok erakutsi eutsen bidea zabalago egiten jakin dabe, eta munduan zear egiten izan daben guztia egiten dabe Euskalerrian. Eta eztaigun aitzu azken urteetan Vaticanoko Batzar Nagusiaren ostean, Jesusen Lagundia aize barrietan sartu eta aurrera eroaten, orain arte iñoz izan ez-ta, euskalduna izan dabela nagusi eta gidari, Aita Arrupe, Aita Iñazioren urrengo lenengo izan dan nagusi euskalduna. Gaur jesuitak munduan zear egiten dabena Euskalerrian ez deutsoe ukatzen. Jesuita euskaldun asko dabil European, Asian, Amerikan euren betiko lanean. Salvadorrekoa ez da bakarra. Eztago esan bearrik.

Jesuiten alderdi oni, kultura utsaren alderdi oni, ezteutsagu geiago ekingo emen. Geure-geurea dogun izkuntzaren arloan egin dabena eta egiten diarduena azpimarratu besterik ez. Joan dan mendearen azken aldean, beraz burua jasoten asibarritan, aita

Jose Aranari aitamen berezia sor jako. Bere egunetan euskera eta euskal-literatura ondoen ezagutzen ebalakokotzat eta euskal-idazle onenetakotzat dago, bai itz lauz eta bai bertsoan. Olerkari saritua. *Euskalerria* aldizkariak sortu zanetik, 1880garreneneko urtetik jesuita onen ainbat orleki eta osteango idazlan ekarten zituan bera il zan arte guztian (1896n). Len aitatu doguz Henao aitaren *Antigüedades de Cantabria* libururi ezarri eutsazan oarrak eta geigarria.

Ogeigarren mende onetan sartu ezkeru, Aita Iñaziori buruzko euskal-lanak al-karren ondoan datoz jesuiten lumetatik. Lenengoak Kardaberaz-en egunetara biurtzen gaitu. Onek idatzita gobernuaren baimen-ukapenez argitara barik gelditu zan Ifiazioen bizitza laburra, baina ez ain laburra bere. Gure mende onen asietan, 1901n agertu zan lenengoz, aita Legarrak prestatuta.

Ogeigarren mende au da San Iñazio euskaldunei euskeraz geien egin deuteseneko mendea, aren ejerzizioetako irakatsiak euskeraz geien entzun dabezanekoa. Lenengo, sermolarien bitartez. Aitatu daiguzan izen batzuk: aita Basabe, aita Laskibar, aita Jorge Agirre, aita Manzisidor, Aita Goikoetxeak bi.

Itzez egindako ereitez gaiñera, liburutan emon dabe euskaldunentzat Aita Ifiazioen liburuko mamia: Egillearen izenik barik, 1907n *Aita San Iñazio Loyolakoaren Ejerzizio santuak* atera zituen F. Mugerzaren moldiztegian, Tolosan. Berau da gero etorriko diran S. Iñazioen liburuko gaiak itzez itz eta ezelango garbikeri barik euskeratu zituena.

Ejerzizioen gaiak euskeraz emon zituezan sermolariak bere badira. Aita Basabek (1867-1928), iru bider atera zituen eta iru bider aterata daukaz bere San Iñazioen *ejetziuetako gogarteak* edo gogo-jardunetako gogarteak, bizkaieraz. Bardin egin dau Gipuzkeraz aita Jorge Agirrek bere neska ta mutillentzako ainbat liburuaz gainera, Iñazio deunaren Gogo-jardunetako Gogorakizunak liburuarekin (1948) eta aita Manzisidorrek (1907-1961)euskal-idazle oso jator lez, izen andia irabazi dau bere *Jesukristoren bizitza*, urte guztiko egunez eguneko *Santu-bizitzak* izeneko iru tomo ederrekin eta *Otoitz-bidea* liburua eta Gure Patroi Andia liburuarekin. Neke barik irakurteko liburu atsegiñak idatzi ditu. Alderdi batzuetatik, norbaitek Baroja nobelagillearen pareko egin dau aita onen euskerazko idazkera.

Beste batzuen lumatik Iñazio deunaren Gogo-jardunetako liburu jatorrak berak euskerara itzez itzulita urten dau; oneik ez deutsoe azalpenik egin; Iñazio deunaren testo utsa emon deuskue. Aita Olabidek, gero Biblia osoa euskeraz emongo euskunak, 1914n emon euskun berea, bere euskaran; aita I. Atutxa arratiarrak 1909 bere *Gogoyardunek* Arratiako euskeraren kutsu apur bat; Luis Egiak bere gipuzkeran 1970ko urtean. Azkenengo au, apaiz Gipuztza. Batez bere, Olabideren euskerari baten batek saio-euskera esan deutso, baiña ez degiogun pekatutzat bota. Gure egunotan idazle askoren luman saio-euskera zabal dabil, idazleak berak asko igarri barik bada bere. Eta erdera naikoa dakianak eztau bear bada ulergatxegi aurkituko. Eta oraindio iñok ba ete daki noiz izango dan azkenengo saio-euskera?. Alan nai olan, ez dagiala iñok uste gure Patroi Andiak euskaldunei euskeraz iñoz egin ez deutesenik bere maixutzako liburu eder zabalduen orregaz. Gaur badaukagu, gaiñera, beste liburu eder bat Iñazioen bizitza erakusten deuskuna, euskaldun batek Telletxea jaunak erderaz eta beste batek, Berraondok euskeraz jarria. Eztira jesuita, baiña Iñaziotar sutuak bai.

Jesuita euskaldunak gure mende onetan beste sail batera bere jo dabe euren Lagundiko lana euskaldunantzat aurrera eroateko. *Jesusen Biotzaren Deya* sortu eben 1917n eta ogei urtez aterako eben, 1937raño, Egoaldeko Euskalerrian urte orretara arte iraun eban bakarra. Bein askatasun apur bat lortu zanean, Franco-ren agintepean, barriro atera eben aldizkari ori, 1960tik 1966ran.

Eta gero, euskeraren saillean beste ekintza zabalago eta indar andiko bati, liburuak eta liburuak argitara emotekoari ekin deutsoe. Aspaldian euren maixutasuna erakutsi izan dabe orretarako. Euskaltzaindia sortu zan ezkeru, lau euskaltzain oso izan dabez gitxienez: Euskaltzaindia sortu zaneko bi, aita Olabide eta aita Lhande, bata egoaldeko Euskalerritik eta bestea Iparraldekotik; eta gure eunotan beste bi, Aita Antonio Zabala, eta aita Patxi Altuna.

Euren ikastetxe nausi eta txikiez gaiñera, argitaletxe baten jabe, buru eta zuzendari dira. Liburumerkatu andia darabilen argitaletxea bera. Sail askotako liburuak ateraten ditu: sortzezko literatura saillekoak, ipuin nobela eta abar; azterketa-lanak, edesti-saillekoak, euskera ikasteko eta irakurteko liburu-sortak.

Idazleen artean bi ikusten ditugu nabarmengarrien: aita Garate biak: Erramon eta Gotzon. Erramonek Lanararen antropologia artu dau aztergai. Gotzonek askotariko gaiak jo ditu. Marxismoa aztertuz zazpi tomo badaukaz. Eta sortzezko lan mordoa, nobelak eta ipuiñak; eta euskal-nobelak aztertuz asi ta aurrera doa. Gure egunotako idazlerik euskera jatorrenetakoa. Ez da alperrik ibilli erriz erri euskal-itzen eta esaeren billa, *Erdarakadak* liburuaz erakutsi dauanez. Eta eztaigun aitzu aita Plazido Mujikak iztegi-saillean itxi dauan lana.

Baiña jesuiten artean aitamen berezia ta apartekoa merezi dauana aita Antonio Zabala dogu. Badaroaz ia ogetamar urte eten barik *Auspoa* sorta ateraten. Erriliteraturak eztau lantzaille andiagorik gure artean. Ezta, ez, txantxetakoa egin dauan eta egiten diarduan lana. Berreundik gora liburu argitaratuta daukaz. Geiena bertsolarien bertso-bilduma da. Frantziako iraultza egunetako bertsoetatik gaur-gaurkoetaraiñokok batu ditu. Eta azkenengo aleetan leku anditxoia emon deutse bertsolarien arteko literatur-idazleai, eta batek baiño geiagok, esaterako, S. Zapirainek, «Atañok», gure edozein idazlek eurentzat gurako leuken maillakoak ditu *Auspoa* sorta orretan, erderakada eta beste lardaskeri bakoak, gaiñera. Eskuerakutsi bikaiña aita Zabalak gure izkuntzarentzat or dakarrena. Eta gure kritikiko edo barriemoilleak lotan edo ixillik. Frantziako iraultza-aldiko bertsozko alea aitatu dot arestitxoan, dana Iparraldeko bertsoz osatua. Bada, atzo etorri zan nire eskuetara bibliografiatzko orri bat, eta arrituta itxi nau. Eztiño gipuzkerazkoa dala ale ori? Alkarren arpegirik bere ezautzen eztakigu.

Lan eskergarria aita Zabalak egin dauan eta egiten dabillana. Ixil ixillean San Iñazioren seme giputz batek gure kultura ezaguerazoteko darabillena. Eztot uste merezi dauan eskerrik onik erakusten jakon. Noz etorriko jako jagokon autormena egiteko ordua!

Olantxe diardue, olantxe daragoie gaurko jesuitak euskal-kulturari aurrera eragiten, Aita Iñaziok abialdia emon eutsan lanari ekiten. Iñazioren semeak etorri ziran amazpigarren mendean Lapurdiko euskal-pizkundeari indar emoten: J. Etxeberrri eta

B. Gasteluzar, etsai batzuk euren errian biziteko ipiñi eutsezan eragozpenak eta oztopoak gora bera. Ama zortzigarren mendean Larramendik, Kardaberazek eta Mendiburruk asi ta bultzatuko dabe Egoaldeko Euskalerrian euskal-literaturarentzat bigarren pizkundera. Gero, ainbat urteko jesuiten katakunba-aldi negargarriaren ondoren, orain eun bat urte dala asita, arrezkero, gaur euren euskalekintzari gaillurra ipinten dabiltz. Gaur XVIgarren aita Iñaziok gure artera bildu zituen jesuitak ereindako azia ainbat orri, adar eta lora emon eta emoten dituen tantai lerdan biurtu da. Euskalerritik kanpo, mundu guztiak daki zelako ekintza darabillen jesuitak kultur-maila guztietan. Ezteutsagu emen jaramonik egin. Euskalerrian egin dabena eta egiten jarraitzen dabena azpimarratu nai izan dogu, ez besterik.

«Ad majorem Dei gloriam», *Jainkoaren aintza andiagogarri* izateko sortu eban Iñaziok bere Jesusen Lagundia. Baiña Jainkoaren aintza eta gizonaren, edo gizadiaren aintza batera doaz, azken baten. Eztabiltz alkarren aurka. Eta antziña-antziñako eleizguraso batek esana da gizonaren aintza Jainkoaren aintza dala. Gizona Jainkoaren irudi eta antzeko egiña dago, eta irudia Jainkoaren antzerakoagoa danean, gizona aintzagarriago eta Jainkoa gizonagan aintzatuago, goretsiago, gelditzen da. Lan biok egiteko urten dabe Iñazioren semeak mundura, gizadia onez beteago eta jakituri gustiez ornituago egitera.

Atzerriko jakitun batek esana da Iñazio Eleizearen alde lanik ederrenetakoa egiña dala, eta beste jakitun batek, Eleizearen bapere aldeko eztan batek autortu dau munduan gizonaren alde eta gizadiaren alde Iñaziok baiño geiago egin dauanik eztauala ezagutzen. Ez ete geinke orregaitik esan Ifaziok bere jesuiten bitartez Jainkoaren aintza andiagogarritzat egin dauana euskaldunen aintza andiagotako egin izan dabela?

SANTU ETA EUSKALDUN: M. GARIKOITS DONEA*

Santu euskaldunen artean Mixel Garikoits-ek euskaldunena dalako sona eta ospea dituela esan genezake. Gaetan Bernoville edazleak orixe esan nai izan zuela dirudi santu onen bizitza-liburuari *Un Saint Basque* izena jarri zionean. Eta ori, ez bakarrik Euskalerriko semea dalako; ez eta ere, euskaldunen artean edo Euskalerritik urbiltxo eman zuelako bere bizia; bai ordea, bere izakeran, bere arpegieran, bere gogoan, euskaldun jator baten eredu agertu zalako, eta bere euskalduntasuna bein baiño geiagotan garbi aitortu zuelako ere.

Garikoits onen bizitzak arako Iparraldeko euskaldunen artean zabal dabillen esaera gogoratzen digu:

Bethi aintziña
xuxen xuxena
dabil eskualduna.

Esaera orren ispillu garbia da Garikoits-en bizitza. Beti aintzina, beti aurrera egin naia eta egin bearra da santuaren bizitzan zear ikusten doguna. Orixen zan bere agotik ateraten zitzaion esaera edo lelorik sarrikoena.

jaiotza eta aurtzaroa

Iparraldeko Euskalerrian, Donaitzi-Ibarreko errian jaio eta azia da Mixel Garikoits. Frantziaren mendeko errietan urte aiek ez ziran izan batere gozoak kristaudentzat. Frantziako iraultzak sortutako triskantzak guttiz amaitu gabe zeuden. Urte beltzak

* Karrael 1989-4, 71-81.

ziran aiek, batez ere, iraultzari men egiteko ez zeuden apaizentzat. Kristau askok ez zuten onartu nai bestelako apaiz koldarren eliz-serbitzurik ere. Mixelen gurasoak, Eñaut Garikoits eta Gaxina Etxeberrik, muga igarota, Naparroara alde egin zuten beren ezkontza bedeinkatzeko. Orbaran edo Orbaizetan ezkondu omen ziran, 1796n. Urte aietan, ainbat apaizi ostatu eta gordelekua emandako etxeetakoak ziran biak.

Mixel izan zuten lenengo semea, baiña apaizik ez eta, sei illabetez eukiko dute bataiatu gabe. Olakoxe giroan, bera asko oartu gabe, joan ziran aurraren leenengo urteak. Ori bai, zirt eta zartekoa izango zalako erakutsiak ematen zituen aurtzarotik bertatik asita. Bataio egunean berean erakutsi omen zuen nolakoa zetorren. Apaizak bataio-urak burutik bera ixuri zizkionean, eskualdi batez aurrak apaizak eskuan zeraman liburuari gogor eldu omen zion eta orrien bat edo beste puskatu ere bai. Amak lanak izan zituen Mixelen biurrikeri batzuk zuzentzeko. Berak iñoiz aitortu zuenez, amaren etxeko eskola izan ezpalu, gaizkile andi aterateko bidea omen zeraman.

Etxeko eta morroi-lanetan

Gurasoak, batez ere amak, lagundu zioten biurrikeriak utzi eta mutiko erne eta langillea irteten: etxeko lanetako ernea eta artzain-mutil zolia atera zitzairen. Ez zuen orretarako iñoren akullu bearrik. Ez ziran Garikoitstarrak batere aberats; soro-puska batzuen eta artaldetxo baten jabe baizik ez. Etxerako irabazitxoia ekarteko, morroi ere bialiko zuten semea Garrutxe aldera, Unhaso Angelura. Ango eskolan egin omen zituen lenengo ikasketak, eta beste eskola mutillen artean, edozer ikasteko buru ona erakutsi omen zuen.

Garai artako jansenismo-kutsuaren erruz, amabost urte zituen lenengoz Jauna artzera eldu zanean. Eta alako baten, apaiz izateko gogoa sortu zaio. Gurasoak ikaratu egin dira: Nola apaiz? Nondik atera bear degu zuk apaiz-eskolak artzeko dirurik?

Baiña, luzaro gabe, bideak argitzen eta garbitzen asi zaizkie. Mitxelen gurasoak bazuten Donapaleun apaiz bat, Borda apezka adiskide andia, erlijoaren aurkako erasoaldietan, ostatuz artu eta gorde zutena. Onek artuko du Mixel bere etxean, apaizari bere zaldia zaitu eta era batera latin eta beste zer ikasi dezan, seminarioan sartu aurretik. Borda apaizak prest utzi zuen Baionako apaiz-ikastetxean sartzeko.

Eta Baionan ere bere etxearentzat zorrik gabe sartuko da. Nola? Gotzaitegian morroi artu dute (diotenez, gotzaiaren txakurrari pasealdiak emateko). An eta Airen egingo ditu Filosofiako urteak eta Teologia asi. Teologia asi berritan, Larresorora aldatu dute apaiz-eskola. Eta Larresoron, ikastetxean bertan eman diote lana; gazteagoen eskola emaille egingo du. Ikusten danez, Garikoits-i berez bezala zabaldu zitzaizkion ateak, bere lanaren ordain, apaiz izatera eltzeko. Apaiz-mailla 1923n lortuko du, 26 urte zituela.

Apaiz-lanetan

Apaiz berria Larresorotik urbilleko Kanbo errira bialdu dute eta an egingo du bere apaiz-lana 22 bat illabetez, erretore edo erretore ezinduaren ordezko. Bere arimazaletasunez, premiadunenei laguntzeko garraz, eta bere itzaldietako irakatsiez,

laster santu izena irabazi du errian eta inguruan. Talde anditan joaten omen ziran erri-inguruetatik ere, aren itza entzutera. Geroago Jesusen Biotzaren apaizen alkartea sortu bear zuenak, Kanboko egunetan sortu zuen erri artan Jesusen Biotzaren «konfraria» eta sarritako Jauna artzea suztatu ere bai, orrela erriko kristau-giroa beroagotuz.

Baiña zer zan Jesusen Biotza Garikoits onentzat? Ez, ain zuzen, Margarita Maria Alácoquek zabaldu zuena eta lekurik geienetan sartuta zegoena. Garikoitsek ez du artzen Jesusek gurutzean saiets zulatutik erakusten zuen iruditik, oso goragotik baizik. Ebreotarrentzako epistolatik artu zuen. Jaungoikoaren Semeak gizonen gorputza artzea erabaki zuenean Aitari esandako itzetatik: «Erreoparirik eta olako pekatuak partatzeko oparirik ez zitzaitezun izan atsegin: Orduan esan nuen nitaz liburuan dagoena: «Ona ni emen, Jainkoa, zure naia egiteko prest» (Ebr. 10,8).

Une orretan asita ikusi du Mitxelek Jesusen Biotza, Jainkoa Aitaren goresgarri eta Gizonen alderako maitasunez, bere burua eta bizi guztia oparitzat eskaintzen. Baiña opari ori ez da or amaitzen. Jesusen bizi guztian irauten du: Belengo seaskatik, asita, Jetsemani eta Kalbarioraiño eta Aldareko Sakramentuan gelditzeraifio. Danean ikusten du leenengo eskintza andiaren oiartzuna eta luzagarria, Jainkoaren Semearen leenengoko *Ona ni* ori beti zerabillan gogoan eta agoan, eta *ona ni* orrekin jainkoaren bidean aurkitzen dituen oztopo guztiak gaintitzen daki. Orixe gogoratzen die gero sortuko dituen apaizen alkartekoai eta iñoiz kristau bizitzarako argitasunik eskatzen zioten serorai.

Eta Jesusen *Ona ni* orrekin batera Andre Mariarena, arako Jainkoaren Ama izango zala Aingeruak iragarri zionekoa: «Ona ni, Jaunaren mirabea».

Jesusen Biotza eta Mariaren Biotza artu zituen Garikoitsek eredu eta indargarritzat, sustagarritzat une guztietan bere biotza eta besteena Jainkoaren naia egitera beartu eta berotzeko. Argitasunok Bossuet ospetsuaren itzaldi batzuetatik atera omen zituen, Jainko Semearen Gizon egitea Elizak ospatzen duen eguneko Bossueten lau itzaldietatik.

Garikoits Betharramen

Kanboko bikario edo erreter izatea ez zitzaion luzaroko gertatu. Baionako gotzaiak 1825n Bethairamera aldatu du Larresoroko apaizgaien Ikastetxera, eta arako izendatu du apaiz gaztea. An teologi-irakasle egin du eta gero bai diruzain eta nagusi ere. Betharrameko etxe orrek Garikoits bezalako baten esku gidaria bear omen zuen, ikastetxe artan otoitz-giro beroagoa eta burubide obe ta zuzenagoa ezartzeko. Gotzaiaren itxaropenak oso osoan bete zituen Garakoitsek Betharramen. Burubide ohea jarri zuen etxe artako bizitza osoan.

Baiña, berriz ere, beste aldaketa bat etorri zaio. Apaizgaien Ikastetxea Baionara aldatu du gotzaiñak, baiño Garikoits bertan utzi du ango Andra Mari Elizako arduradun egiñik, beste eginkizunik gabe. Orduan kezkek sortu dira bere barruan. Jesusen Lagundian sartzeko burutasuna ere sortu zaio. Bertara ekarri du Leblanc aita jesuita, ain zuzen, gogo-jardunak emateko. Jesuita onek argi esan dio, beste lan obe baterako duela Jainkoak izendaturik.

Apaiz Betharramandarren sortzaille

Betharrametik zabaldu da mundura Garikoitsi izenik andiena eman dion Anaiartea, Jesusen Biotz Sakramentuaren izeneko apaiz-elkartea. An bertako Andre Mariaren alderako joera eta jaiera zuzendu eta suztatuko du, eta Kalbario ospetsua eragingo. Izugarrizko lana egin zuen orretan. Baiña apaiz betharramdarren elkartea sortuz mundu guztira edatu da berak an sortutako sua eta eragiña. Garikoitsek Betharramen eskolatutako apaizei zer eginkizun eman zien? Apaiz-bearrik andiena zegoen errietara, beste iñor gutxik joan nai zuten parroketara joan bear zuten. Jesusen biotzak bezala, «ona ni» esan bear zuten; apalik, menpetasun osoaz, eta beren buruaz aazturik egin bear zuten arimen alde.

Ala ere, egoak moztu zizkion Garikoitsi bere gotzaiak. Lacroix gotzai jaunak oztipoak jarri zizkion Garikoitsen asmoari. Onen asmotan Aita Santuaren babespean eta Aita Santuaren onespenez Eliza osoaren serbitzari izateko zan Elkartea Lacroix jaunak bere mendean euki nai izan zuen, bere elizbarrutiko errietan zabaldu eta lan egiteko, ez andik kanpo. Mingarri zitzaion ori Elkartearen sortzailleari; bere bizi guztiko gurutzea izan zuen. Baiña berak oi zuenez, «ona ni» esanez, apalik eta iñolazko miñik erakutsi gabe eraman zuen gurutzea, egun obeen begira...

Zerbait lortu zuen, orraitio, Buenos Airesko eta Montevideoko euskaldunen alde. Eske larria etorri zitzaion bein Ameriketako lurralde aietatik ziran, beren arimak nork zaitu eta kristau legean nork eskolatu ez zutela. Ez zituen bere odolekoak egoera negargarri orretan utzi nai. Orrela zabaldu zan Betharramdarren Elkartea. Amerika aldera, ango euskaldun eta gaskoiñei laguntzeko, gutxienez, 1856 inguruan asita. Buenos Aires eta Montevideo aldean lan ederra egin zuten. Baionako gotzainak ere, euskaldun aiek bere mendekoak izan zituela-eta, ez zion ukorik egin onetan Garikoitsen eskeari.

Garikoitsi il eta amabi urte geroago lortu zuten betharramdarrek, Aita Santuaren babespean, mundu guztiko edozein lekutara zabaltzea. Ain zuzen, Palestinako Belen, Nazaret eta Jerusalem. Zergatik Palestinara leenengoz? Palestinako mojatxo batek Paben bizi zen moja karmeldar eta arabiar gazte batek lortu zielako Lacroix gotzaiñaren ezezkoa auste. Moja onen barri badute *Karmel* aldizkari onen irakurleak. Oraintsu Elizak Zoriondunen maillan jarri izan duen Maria Bouardy mojatxo gaztea da. Mojatxo onek lortu zizkien Betharramadarrari palestinako ateak beste iñon baiño leenago zabaltzea.

Gurutzearen Alabak eskolatzen

Gurutzearen alaben sortzailleak, Joan Elisabeth Bichier eta Andre Hubert Fournetek, gaur santuen maillan ditugunak biak, Garikoitsen eskuetan utzi zuten beren serora sortu berriak arimako gaietan eskolatzea. Igonen, Betharramdik lau bost kilometrorra, eta Ustaritzen zeuzkaten serorageien etxeak. Igon naikoa urbil zeukan, ara joatea ez zitzaion ain zail egiten, luzaroan oiñez joan bazan ere. Zaillago zuen

Ustaritzera urbiltzea; baiña ona ere sarritan joan bearko du, seroragei aiek, Gurutzearen alabagei aiek beren bizibidean argitzen, beti «Ona ni» esan eta aurrera, aintzin egiteko burubideak ematen. Garikoitsek eman zien bultzadaz daude gaurdaño ain zabal serora auek Euskalerrian, batez ere Iparraldean. Gaur, Hazparneko alaba euskalduna daukate mundu guztian buru eta Ama Nagusi.

Garikoits, euskal-idazle

Euskal literaturaren arlo urrian, ainbat izen aurkitzen ditugu gauza asko idatzi ez bazuten ere. Garikoits onen izenik ez degu aurkitzen. Baiña beste askoran ondoan tokitxo bat ematea merezi duela dirudi.

Gure Bibliografiak ez dute aipamenik egin baña, bada an 1825-1931 bitartean argitzea merezi luken euskal-bibliografiako illun unetxo bat. Lafittek aipatu zuen leenengoz, ez dakit nongo iturritan oiñarrituta; liburu bat argitaratu omen zan 1925n: «Jesusen Bihotza sakratuaren debozinezko esku-liburua». Ala zion *Gure Herria* aldizkarian, 1968n, Kanboko euskal-idazleen berri ematerakoan. Liburu ori Jauretxe idazlearena omen da, beste liburuak egillearen izenik gabe ia beti argitaratzen zituen idazle ugariarena.

Gure Santuaren kartak 1959-1975n argitaratu zituen Mieyaak zionez, liburu ori bi idazleena da: Jauretzerena eta gure Garikoitsena. Biak elkarrekin lan egin omen zuten Kanbon, Jauretzeren jaioterrian, Jesusen Biotzaren anaidia sortzerakoan. Garikoitsek askotan deitzen omen zion Jauretzeri garizumako itzaldiak naiz osterontze-koak egiteko. Eta bien artean atera omen zuten aipatutako urtean Baionan Cluzeauren baithan, eta titulua beste bat ematen dio: *Amodiozko deia Jesusen Bihotz sakratuak guiristino leialei*. Liburuak dituen napar-itx eta napar-kutsuagatik, biena bada ere, batez ere Garikoitsena geiago omen da Jauretzerena baiño. Zer esan?

Garikoits Jesuseko Biotzaren alderako debozioaren sustatzaille gartsua izan bazan, eta ortarako noiz edo bein laguntza eskatu bazion Jauretzeri, ez da errez ulertzen bera liburu orretan esku artu gabe geldituko zanik.

Baiña bada emen beste argitu bear bat. Andik sei urtera, 1831n agertu zan Cluzeau beraren baithan gai bera duen liburua, 502 orrialde dituena. Baiña liburu onek, ez bakarrik Jesusen Biotzaren kofradiarentzako eskuliburua dakar. Bigarren zatian Andre Mariaren Bihotz saindua ohoretzekoa ere bai. Biak dauzkate otoitzgai eta gogoeta luze askotxo. Zati bakoitzean dator Ofizioa ere matutina, laudeak, lau orenetako, bezperetako salmo eta otoitzekin, baita ordu bakoitzetako euskerazko kantuekin. Ongi esan du Vinsonek bere Bibliografian liburu onek ez duela ia iñolazko zer ikusirik titulu berdintsupean 1759n argitaratu zen liburuarekin. Eta hau nabarmengarria: liburu onek, 1831koak, titulutzat ez baña, liburuaren sarreratzat Mieyaak eman duen titulua berbera dakar: *Amodiozko deia Jesusen Bihotz sakratuak guiristino leialei*.

Beraz badegu emen 1825n agertu zan liburuaren aztarren bat. Biak izan daitezke idazle biek egiñak, eta 1831koa 1825koaren bigarren edizioa geitua ote da? Or uzten degu galdera ua ia iñork argitaratu nai balu. Liburu biak ere beitzat Garikoitsek gogoz izenpetzekoak dirala ez dago zalantzarik.

Garikoitsen kartetako euskera

Extera bialtzen zituen kartak euskerazkoak izango zituen, noski, batez ere aita zarrari bialitakoetan euskera utsa erabilten zuela osoan siñistekoa da. Serorei ere euskaraz idazten zekienak etxekoekin ez zuen bestera egingo. Baiña ez zaigu guri bat ere eldu. Serorei bialitakoetan puska batzuk baizik ez.

Biotz-biotzetik irtendako kartak dira. «Ez duzu arkituko ene biotzean, idatzi zion lagun bati, ez duzu arkituko Garikoistarren ezaxoltasuna» daiakorik. Garikoits-tarrak, nonbait, ezaxolak ziralako omena zuten, barrua ustutzen ez zekitenetakoak edo. Mixelek ez zeukan oiakorik.

Biotz biotzetik irtendako kartak dira Garikoitstar onenak. Nori idazten dion, aren edozertaz arduratzen da: Osasunaz, senide eta etxekoez, eta barruan duen gogogiroaz.

Onela idazten zion Gurutzearen alaba bati bere etxekoen berri emanez: «Ez dakit aita jinen denez Sabinaren habituaren hartzeko egunian. Beste hautan, uste dut, gostako zako Adelaren uztia. Othoitz gauzak ontsa joan dituen. Adio, haurra, bethi alegera eta kuraios».

Serapia serorari: «Barka eta izan bethi haur ona, kontent eta konstant. Zure ahizpari izkiribatu beharra niz. Ontsa da; Caraman da, adio, othoiz Jainko huna enetzat, nik ez zaitut ahazten... Izan bethi uros».

Urrengo batez: «Sabina ere ontsa duzu diotenez, ez dut ikusi nihaurk bakantzetaz geroz. Aita ere ontsa dela erran daitet. Bagneresen den hura ez dakit nola den; kontent da, uste dut; regretatzen dut ene partetik. Jainkoaren borondatea bada, plazer dut... Adio, haurra. Izan bethi Jainkoaren borondateari oro eroria; bethi umore on, bethi kontent. Zuretzat egun guzietz galdeiten diot gure Aita serukoari, zurentzat benedizione guziak. Zuk ere othoitz guretzat. Biar erran gogo diot zure ahizpari izkiribatu dautzudala; plazer duke. Badakizu zombat maite zítien ahizpa bezala eta anhez gehiago zerora bezala». Baína zerbait gelditu zaio esateko eta posdatan: «Zure letrak anhez plazerekin errebitu ditugula ez duda, nahi bada ez giren bethi fidel errepostu egiteko. Izan ontsa; bedi bethi bizi Jesus gure bihotzean».

Beste karta baten, dana euskerazko zatiz jositakoan Barkotzeko alaba bati: «Bazindeki zer plazer egin dautan zure letrak. Berri on anhez... Kuraje beraz eta bethi aintzina». Baina serorari poz emango dion zerbait esatea aaztu zaio, Buenos Airesera apaiz batzuk bialtzeko poza izan duela, alegia, eta posdatan: «Sei (apez) igorri tut, Kasimir Kotiart bat». (Onen aipamena seroraren erri berekoa semea dalako egin dio). Arras kontent partitu dira».

Beste bein: «Zure ahizpari milla goraintzi ene partez, othoitz dezan enetako, zuk ere bai gauza bera».

Beste bein: «Halabiz. Aintzina beraz eta ez sekula gibelerat beha, etsaminatzeko ere. Ez da dudarik Jinkoak beretako nahi zitueia. Zure ahizpari ere bi hitz izkiribatu behar diot. Ontsa da arras. Izan zu ere ontsa eta uros hura bezala. Adio, haurra, othoitz guretzat. Nik guti izkiribatzen dut, bainan egun guzietz othoizten».

Aitormenik politena serora bati prantzesez idatzitako karta baten egin dio: «Nik Paulo apostoluak bezala esan dezaket (Gurutzearen alabak) guztiok maite zaituztedala, *en particulier* «euskaldunak». Berak aitortu du eta badakigu. Gure santu onek euskaldunai maitasun berezia die. Ongi erakutsi zuen Arjentinako eta Uruguaiako euskaldunez aparteko ardura artu zuenean. Orain serora euskaldun batzuen alde erakutsi eta aitortu du. Ba ote Euskalerriko santurik olako aitormenik egin duenik. Garikoitsi agobetea dagokio santu euskaldunaren izena.

Santu onek beste bein onela adierazi zuen non ipintzen zuen bere bizi guztiko elburua:

«Izan nadin gizon,
izan nadin kristau,
izan nadin apaiz,
izan nadin apaiz betharramdar»
(Jesusen Biotz sakratuarena).

Orain badakigu elburu oiei zer erantsi. Gure santua gizon euskaldun, kristau euskaldun, apaiz euskaldun eta betharramdar euskaldun izan da: santu eta euskaldun, benetan.

SANTIAGO BIDEKO EUSKAL-KANTAK*

Joan dan urtea (1989koa) berarizko urte andia izan da Konpostelako uriarentzat. Antxiñetako urteetan lez, munduko bazter guztietatik elduta, Joan Paulo buru ebala, sekulako gazteria, 500.000 gazte inguru batu ei ziran an Aita Santuak an egin zituen egunetan.

Antziña baten Santiagora bideak betean joan oi ziran erromesen oiñen eta kantuen otsa barriri entzun zan orduan. Oraingo Euskalerriko gazte askok be egin eben bide ori eta euren artean euskal-kantarik entzun zala badakigu. Ganera, Montxoi edo Pozmendi izeneko lekuan Aita Santuak ospatu eban Mezako otoitzetan, euskereak be izan eban bere lekutxoa erri-otoitzean beste izkuntza askoren artean.

Egoki zan euskaldunak euren burua euskaldun agertzea Santiago inguru eta arako bideetan. Santiago-bideak, arlo luze baten, gure errian zear urratuta dagoz. Emendik zear joian biderik ospetsuena, frantsez-bidea eritxona, eta bide nausi orrez ganera beste Konpostelarako bide askok zearkatzen eben Euskalerria.

Bide nausi orrek, Naparroan sartu eta Orregatik, Iruñetik, Garestik, Logroñotik Burgos aldera eroiazan erromesak. Jaka aldetik eta Dantxarineatik etozan beste batzuk eta oneik be Naparroan sartu eta Gares-era jotzen eben, emen bide nausitik etozanakaz bat egin eta aurrera alkarregaz jarraitzeko.

Irundik sartzen ziran beste asko eta batzuk Gipuzkoan zear San Adriandik Arabako bidea artuta, Burgosen alkartzen ziran beste bide nausiko erromesekin; baiña beste batzuk Bizkai aldera egin eta Urkiolatik aurrera besteen bidera jotzen eben.

Baziran Ingalterra aldetik eta itxasoz etozanak be. Eurotariko askok, Bizkaiko portuetan ontziak itxi eta Bizkaiti zear joiazan, Orduñatik, edo Mena-ibarretik gora

* Karmel 1990-1, 52-65.

igonik, Santiagorako bide nausian sartzeko, Burgos edo Palentzia inguruetan. Benetan Santiago bideen sare artean egoan gure erria.

Amargarren mende inguruan asita, ia milla urterik ona, gizaldiz gizaldi, Euskalerriak Santiagotarrak etxeko egiñik ezagutu zituen, eta Santiago bidekoen oiñotsik eta kantarik entzun izan zan emen. Olako erromesen euskal-kanturik entzun ete zan iñoz? Itaun oni erantzun gura leuskio nire artikulu onek.

Santiago-bidea euskal-literaturan

Lenengo ta bein, esan daigun Santiago-bideen aitamenik badala euskal-literaturatxoan. Ez da gauza utsa Etxahun Topet entsutetsuaren bertsoetakoa. Zoritzarrak bein eta barrero jotako gizon orri leku askotan ibilli bearra jazo jakon bere bizian. Ez Santiago bakarrik, Erroma ta Loreto be, erromez joanda, ikusiak zituen.

Etxahunen bertsoetan bi edo iru bider badator Galiziako Santiagoren, bere bertsoetako Saint Jaka edo Jundane Jakaren izena. Berak bein autortu ebanez, zoritxar gogorrenetakoa eldu jakon berari, edo presondegin il, edo amuinan (eskean) bizi bearrekoa. Bizi bearrak eroanda España aldeetan urte bi egin zituen. Bere anaiarentzat diarduala, onela diño bere bertso baten:

Bi urte ditut Españan pelegri gisa,
hireganik deuseren ezin ukhenez biziaren billa.

Bereak ei zituen ondasunak ukatu edo emon ez egiten eutsazalako, artu bear izan dau bide ori, zelan edo alan bizi bear eta. Eta Etxahunen erromes edo eskeko ibilte ori ez da eskale arloteen antzean bizitzea. Entzun daiogun beste bertso baten erruki gitxi erakutsi eutsoen bere erriko abadeentzat esaten:

Izan nuzu Loretan, Jakan eta Erroman;
Praube hura izan da zazpi erresumetzan;
egun oroz meza entzun bi milla elizetan;
Barkoxen bezala apezek ez tratatu izan.

Etxahun onen testigantza, lekukotasuna, Santiagora erromez ibili zalakoa euskaldun baten testigantza argia dogu.

Etxahun zuberotarra da, eta zuberotarren artean ainbeste landua izan dan antzerti edo pastoral baten daukagu beste testigantza bat; ain zuzen, Santiago edo Jaundone Jakoberen izeneko pastoral baten, oindiño argitaratu barik daukagun arren. Pastoral orretan Apostoluaren ara-ona guztiak aurkeztu ondoren, berak egiñiko mirarien artean, Errioxako Santo Domingon Santiagora joian erromes baten alde egiñiko miraria daukagu: erromes ori, zidarrezko ontzi bat ostu ebalata neska batek guzurrez salatu eta urkatu ebenekoa.

Ona zalengo maltzurkerira jo eban neska orrek Santo Domingon bere gurasoakaz joian erromesa lapurtzat salatzeke:

Zilhar gandola behar deret
sakolan ixilik ezarri,
bai eta uhuiñetako
gero atzaman arazi.

Antxiñako Josek Ejiton bere anaiari maitasunez eta gogo onez egiña asmau eban neska orrek, baiña gorrotoz eta asmo txarrez. Onela joan jakon ostatuko jabeari, erromesaren aurka salakuntza egiten:

Ai, Aita, zilhar gandola
estuzu heben ageri;
pelegri fripu haiek
ahal dukezie ebatsi.

Erromes gixajo errubakoa urkamendian eskegi eben. Baiña aren gurasoak, biotzeko miñaren miñari eutsita, Santiagorako osterea eginda etxerakoan Santo Domingora eldu diranean, ara non aurkitzen daberen urkamendian euren seme iltzekoa, oindiño bizirik. Santiagoren miraria! Mirari ori eta epailleak salatzaile guzurtiari gero emoniko eriotz zigorra jaso eta gogoratu ditu euskerazko pastoral onek.

Gure euskal-literaturako beste testigantza bat joan dan gizaldiko Joannategi euskal-idazle ugariena da. Abade izan eta azkenez fraide beneditar egiñik, Lazkaon biziko zanak, 1876n, argitaratu eban «Zenbeit sainduen bizitzea», liburuan Santiagoko egunean onela diño:

«Ara (Santiagora) ziran joiaten multzoka, osteka, gure arbasoak eta gure aitak beren buruen, gorputz eta arima, Jondoni Jakoberen arartekotasun boheretsuaren gerizan ezartzen».

Iparraldeko euskaldunen Santiagorako joera beroa Haristoy eta Daranatz, gure antzinatearen aztartzailleak biak, naikoa argi jarri eta autortu dabe, eta oneik gure arira egokiago datorrena geitu deuskue: bai gaskoinak eta bai euskaldunak, bakotzak bere izkuntzan, Santiago biderako kantak be ba eukezala. Baiña ez ei jaku bat be eldu gure eguntara arte. Baiña egunen baten aurkitu leitekezalako ustea ez eben galdu.

Santiago-ko euskal-kanta batzuk

Zorionez, Daranatzek eta izan eben ustea ez zan izan ustela. Daranatzek bere *Curiosités du Pays Basquen* Santiagoko bideko frantsez kanta batzuk, 18garren mendean argitaratuak jaso eta emon euskuzan; euskerazkorik aurkitzea ez eban lortu. Baiña geroago euskerazko batzuk be agertu izan dira. Aingeru Irigarai izan gendun olako batzuen kopiaren jabe. Eta Haritschelhar jaunak kantu orrean iturria aurkitzeko zoriona izan eban eta Baionako *Musée Basque-r&n* aldizkarian euren kopia argitaratu euskun, orain dala amabost bat urte. An ikusi gendun, orraitio, kanturik luzeena,

benetako erromes-kanta ez zala guztiz ez-ezaguna, Azkue zanak bere euskal-kantutegian emon euskula zati bat, bere doiñu ta guzti.

Haritschelhar Jaunak ezaguerazo euskun kanturik luzeena eta zaarrena benetako erromes-kanta dogula esan dot, Santiagora bidean joian batena, argiago esateko. Frantzes-kantak, geienak beintzat, beste antz bat dauke. Ez dira Santiagora bidean kantetako egiñak, bide orretan erromesak ikusi eben guztiaren barri emotekoak baiño. Euskerazko len aitatu dogun ori ez; erromes bidea artu eta bidean doala, beste lagun batzuekin batera, gero kristau ohea izateko gogo beroaz otoitzean doan kristiñau batena dogu, benetako erromes-kanta. Ona emen zati batzuk:

Jinko Jauna, banuatzu
 pelegriñajin;
 zuk, othoi, lagunt nezazu
 ene bidajin.
 Debozione hartu nizun
 aspaldi handian;
 orai konplitu nahi dizut
 zure graziareki batian...
 Zure laidatzen nahi nuzu
 bizi mundian,
 bai eta ere zerbitzuko
 egin ahalian.
 Ni hil nizanian
 plazer naizun zuk ezarri
 zure gloria saintian...
 Jende hunak, baguatzu
 pelegriñajin,
 Jinkuak hala plazer badu
 debozionin.
 Orthit ukhan gitzazue
 nork zien aldin,
 orok, othoi, Jinko Huna,
 justoki hel gitin.

Badirudi bideko errietan aurkitzen dituen kristiñaueti euren alde otoitz eske da-goze-la. Baiña otoitzen laguntzaz ganera biderako ogiaren bearrean aurkituko dira. Askotan ain bide luzean Jainkoaren izeneko eskaleena egin bearko dabe. Eskale bertsoen urrengo, ona zelan eskartzen daben emoilleen esku zabala:

Esker dereiziet hanitx
 zien huntarzunaz,
 bei eta ene duzien
 berondate hunaz.
 Jinkuak zutie phakaturen

bere grazia saintiaz.
 Bai eta nik presentian
 Pater, Ave Maria, gloriáz...
 Esparantzarekila, Jaun,
 banuazu aitzina;
 justoki helduren nuzu
 Saint Jakesera.
 Orai zure ohoretan
 banuazu erraiten
 Pater eta Ave Maria,
 juntaturik gloria.

Beren beregi azkenerako itxi dot ahapaldi bat, 13garrena, Azkuek bere kantutegian jaso eta emon euskuna:

Pharkamentu galtho nago
 Jinkuari,
 eta gero, jende hunak,
 zier orori.
 Ofensatu bazutiet
 dolu dut segurki:
 Jinkua othoi dezagun
 pharkatzez bat bederari.

Azkuek bere kantutegian dakarrena onela da:

Barkamendu galdez nago Jinkoari,
 eta gero jende onak, zier orori;
 egin baduziet hobenik.
 dolu dut segurki.
 Jinkoak barka dezagula bat bederari.

Agirian dago kanta beraren bi aldaki doguzala emen. Azkuek bere kantutegian kanta bakotxa nori eta non artu eutsan argibide osoak emoten ditula beti. Emen ez deusku esan besterik, Lakharrin (Zuberoan) jaso ebala. Besterik, badakigu ez zituela kantu bakotxaren bertso guztiak argitaratu; beste asko bere artxiboko karpetetan gorde zituela. Artxibo orren jabe diranak argituko al deuskue gai au.

Azkuek beste kanta bat be badau, Santiago bideko erromesak (pelegrinuak), gogoratzen dituena. Ez da erromesak eurak kantetakoa ez kantaurikoa. Alan nai olan, Santiago bidekoa da, gure errien baten, Santiagoko erromesak etozala-ta, arei bidera urten, arrera egin eta agorako zerbait emoteko deia egitekoa edo. Azkoitin entzun eta jaso da:

Anton, jo zak tronpeta;

Txomin, nun dek konketa?
 Edaririk ezpaldin bada,
 ekarrik beteta, Ja, Jai!
 Peregrinuak datoz Santiagotikan, Ja-jai!
 Iriki zak atea,
 ikusteagatikan. Ja-jai!

Kantu au, Barojak be badakar bere Vazconia liburu andian, eta andik artuta, Teodoro Martinez jesuitak be bai, bere *El Camino Jacobeo* liburuan. Aita onek dakarren Santiago bideko euskerazko kantu bakarra da.

Haritschelhar Jaunak bere artikuluan aitaturiko kanten artean bada bat frantsezen antzera egiña, Santiago bidean ikusitakoen barri emoteko. Frantzesetik euskerara baldar samar itzulia dirudi. Ahapaldi bi baifio eztira. Erromesak Santo Domingoko mirari eta oillarrarena goratzen ditu, eta Burgosko Agustindarren eleizako Kristo kurutzekoa ikusten joaten ziranekoa:

Saint Domingora nintzarian,
 elas! Jinko Jauna,
 elizan bama sartu nintzan
 othoitze egitera;
 han ikusi nin mirakuillu
 pelegrier heltia,
 oillarra entzun kantatzen,
 harekin oillo xuria.
 Hantik sarri heltu nintzan Burbusera,
 eta berhala jun nintzan
 Agustitara,
 eliza hartan barne baitzen
 kruzifika saintia;
 ikusi nian izertzen:
 hori gauza segura.

Beste hirugarren kanta, Haritschelhar berak kopiatu eta emona, Konpostelara pelegri joan eta gero kaputxino sartu zan jauntxo batek egintzat dago, baiña au be frantzes bertso batzuen euskerazko itzulpena baiño ez da, baina frantzes testoaren erdia baiño ez dau euskerara itzuli.

Orra, bada, Santiago bideko lau bat kanta. Daranutzen egunetatik zerbait aurreratu dogu gai onetan. Azkue euskal-kanten batzailleari esker, Santiago bideko kantu baten doiñua be badaukagu gaur, bera Santiago bideko kanta zanik konturatu ez bazan ere.

Santiago bidea atzerritarren bidetzat dago, ez euskaldunen bidetzat. Euskalerritik zear joian arren bideko arlo andi bat, Erromesak, Europa guztitik etorrita, emendik zear joaten ziran Konpostelaraño jarraitzeko. Eta euron artean, eurokaz naste, Iparraldeko euskaldun asko joaten zirana, Joanategi euskal-idazleak idatzi eban lez, *multzoka*, *osteka* joan be. Eta euren euskal kantakaz ganera. Zuberotarrak, beintzat, euren aztarnatxoa itxi deuskue; alan zala ikusteko zeozer da. Ez da gauza utsa.

KRISTO'REN JAIOTZA ETA «JAIOTZAK»*

Aspalditxotik ona XXIgarren mendea gure munduak aotan eta lumatan askotan darabil. Bai, gure mende au, ogeigarrena dalako au, badoa eta urrengoa ia atetan da. Badabil asmorik eta amesik bere mundu barri ori itxura ohea, baketsuagoa, aurre-rakoiagoa, erri ta gizon guztien artean anaikorragoa emoteko eta orretarako, ori lortzeko programa billa. Baiña XXIgarren mendea, nondik eta noz asita? Kristau-erriak urtero ospatzen dauan Kristo'ren jaiotzatik asita. Lenago eta orain be bai nonbaiten, urteen kontraerarik bazan, erri bakotxak bera sortu zaneko urtetik edo beste ospe andiko jazoera gomutagarrien batetik asita erabillen. Gaurko mundurik geienak beste kontraerarik ez darabil gizon guztientzat zerutik Barri Ona ekarren eta gizon guztiai bake orokorra opatzen eutsen Kristo'ren jaiotzatik asten dana baiño. Jaiotza ori da gaur munduak darabillen urte kontraeraren ardatza. Laster izango dogu ori jazo zan ezkeroko birmillagarren urtea eta ori ospatzean gure mundu fede andibako onek omenaldirik ederrenetakoa egingo deutso Kristo'ri.

Badakigu norik emon eutsan urte-kontaera oni asierea: Dionisio Txikia deritxon idazle ta eleiz-gizon batek, seigarren mendean. Itxi dagigun alde batera oker ala zuzen atera eben ala ez erromarren kontraerako zein urtetan jaiotzean Kristo erabagiteko kontua. Gaurko aztertzaileek lau-bost urteren okerra aurkitzen deutsoe, au da, Kristo lau-bost urte lenago jaiotze zala. Ala aurren, 1990garren urtean barik, 1995garrenean gendokez. Baiña, Dionisio zarrak oker nai zuzen kontuak atera, Kristo jaiotze zaneko, Kristo agertu zaneko ainbatgarren urtean gabiltz. Belen'go estalpean sortu da benetakoa mundu barria, eta andik datorkigu beti gero ta mundu barriagoa egiteko deia, naiz eta munduak gorrarena egin dei orri modu askotara.

* Sasaki-naski (1990, 48. zenb.) 1-10.

Baiña beste askok ez deutsoe ez gorrarena eta ezikusiarrena bere. Ezta jaiotzarik Kristo'rena baiño gogoratuago eta ospatsuago izan danik. Mateo eta Lukas ebanjelariak euren liburuetan jaiotza orren inguruan esan eta idatzita itxi euskuena mendez mende, gizaldiz gizaldi kristau erriak beti izan dau gogoan, beti biotzean, beti begien aurrean. Itzezko ebanjelioaren ondoan, or dauka irudien bitartez begiak aurrean daukena, eta euki dabena. Gaur errian eta etxe barruetaraiño sartuta dago leku askotan Gabon inguruan Kristo'ren «jaiotzak» ipinteko oiturea, Kristo jaio zanean jazo ziran zer guztien gomutagarri. Baiña oitura onek atze luzea dauko kristautasuna zabaldu zaneko lenengo gizaldietatik aurrera. Ertilari askok jo izan dabe Belen'go jazoera areitara gai billa. Ezta beste jaiotzarik ainbeste edermiña geiago erakarri eta piztu dauanik. Eta ori Katakunbetako eleizatik asita.

Mendez mende

Aurrera baiño len, esan bearra dago margolariak eta gaiñerako irudigiñak emen eurak euretara ezer gitxi asmatu izan dabela. Ia dana Lukas'ek eta Mateo ebanjelariak idatzitakoetan aurkitu dabe: Aingeruak kantari. Umea estalpean aska baten etzanik, artzaiak, Magoak Umearen aurrean opariak eskintzen, dana Ebanjelietatik artuta. Iñoiz emagiñik bere agiri da antxiña antxinakoenetan. Eta ia beti abere bi: idia eta astoa. Abereena errez ulertzekoa da. Jaiotza okullu baten izana bada, abereeren bat izan bear bertan. Eta zergatik bi: dia eta astoa? Antxiña antxiñatik profeten itz batzuk Kristo'ren jaiotzari ezarri eustoezalako. Bata Isaias Igarlearena da: «Idiak ezagutu dau bere jabea eta astoak bere nausia». Eta bestea, Habakuk profetarena, itzulera batzuetan: «Abere biren artean ezagutuko zaitue».

Eta olantxe irudi nausi orrekin aurkeztu izan jaken kristauei Belen'go misterioa antxiña antxiñatik. Zaarren zaarrena bigarren gizaldikotzatdago, Katakunbetako illobi baten agertua: Ama Birjiña estalpeko atarian da, Umea zumitzazko seaska baten etzunik, idia eta astoa alboan ditu eta artzaiñak inguruan, Ama Birjiña eta Jose barik. Milan aldeko Monza urian Kristo'ren irudia idien askan erakusten dabe. Erroma'n, San Sebastian katakunbetan ei dago margoztutako leenengo jaiotza, Umea abere bien artean dauala, Ama Birjiña oian etzunik, eta Jose alboan jarririk, buru-makur. Irudi bat baiño geiagotan Ama Birjiña Jose barik agiri da. Eta ona onen zergatia: Kontaera zar batzuk, Jose emagiñaren billa urtenikotzat emoten ebelako.

Ikusten danez, kristau-erriak askatusunik eta zabaltzeko erarik izan baiño leenagotik euki eban Belen'go misterioa begipean erti-lantzaillen bitartez, eta bein kalera agertzeko bideak zabal ikusi zituanean, Eleizeari egun obeak etorri jakozan bide orretan aurrera egiteko.

Baiña, zoritxarrez, illunaldi baltz eta ustebakoa etorren Europa guztira une be-rean. Iparraldetik edo Asia aldeetatik aspaldian zemaika ebiltzan artean ezezagun ziran jende talde batzuk, barbaro izenez ezagutuak diranak. Su ta gar, dana aurrean ekarren eta Europa guztia zearkatuz Afrikaira'ño elduko dira. Luzaroan ez da izango bake onik ez eder-lanetarako giro andirik Europa'n. Urteak bearko dira gauzak lengo

ibilbidera ekarteko. Giroaren nastegarri, erligiozko irudien aurkako ikonoklasten joera bere sortuko da. Amaikagarren mendera arte iraungo du egoera illun onek. Orduan zabalduko jakoz ateak eder-lanari eta ertilariak askotan joko dabe ebanjelioak eskin-tzen eutsezan ainbat gaietara euren kristautasunari eta eder-miñari asaskaldi emonez, eta, bide batez edonondik jatorkezan eskeai erantzunez. Orduan dator barriro erriaren eta andikiaren gogobiotzak asetzeko eta Kristo'ren jaiotzan jasotakoak begien aurrean ipinteko erea.

Joera barri onen lenengoko agerkun batzuk Euskalerrri'tik urriñegi barik daukaguz. Zaarrenetako bat Leon'go koru liburu baten margoztua ei da: Umea seaskan etzunik, Ama Birjiña jarleku baten bere Semea ikusleai erakusten balego lez, eta beste jarleku baten emagiña, beste iñor barik. Emagiñaren irudia ipinteari kristiñau ertilariak apurka apurka itxi egingo deutsoe, Ama Birjiñak olakoen bearrik izan ez ebala-ta.

España guztian ez ei dago belen'go jaiotzaren marrazki irudirik Oviedo'ko Arka Santan erakusten dabena baiño ederragorik, zillarrezko marratan egia; 1075n marrratua da: Ama Birjiña oe apain eta gora baten dauka, begirada gozoa ikusleai Umea erakusten, au, berriz, seaskaren ondoan; idia eta astoaren buruak agiri ditu, gaiñean izarra, eta eskoi aldean, Jose deuna, ikusleai Umea erakusteko itxuran au bere, eta guztia iru arkuren azpian.

Belen'go misterioa ospatu eta kristauen aurrean iruditzeko joera au zabaltzen, eragiñik andienetakoa izan ei zan Asis'ko Frantzisko deuna bere fraideekin batera. Erdi-aroan misterio au bizi-bizian antzeztuteko oitura zabaldu zan leku askotan.

Erdi-aroan argin-maisu eta zurgin-maisuak eliza askotan itxi eben Kristo'ren jaiotza iruditzeko lanen bat, eurak ondoen eritxoan erara; Jaiotzako irudi batzuetan an izango dira Ume jaioberria, Maria, Jose eta abere biak beste barik; beste batzuetan artzaiak euren makilla ta opariekin. Beste batzuetan, errege edo magoen txanda da. Zenbat errege? Iru edo lau bere bai. Askotan erregeak euren morroi eta aialdekoekin.

Erdi-aro atan eta urrengoan, ertilariak alkarren leian egin eben lan ainbat katedraletan eta eleiza nausietan olako irudiz eleiz ormak apaintzen, eleiz-barruko arku, koru ta erretaulak zirala. Alkarren leian ebiltzan errege, andiki eta eleiz-arduradun asko ertilariarik andienei euren eskuaren eta eder-miñaren lanak eskatzen. Eta onek ba euken nok lagundu eta oparo ordaindu euren nekea. Askok, zarrenak, ez dabe izenik itzi, baiña euren eder-lanez beterik dagoz edo egon dira eleiz asko, Flandes'tik Sevillara'ño, Galizia'tik eta Leon'dik, Euskalerritik, Aragoi eta Kataluñan zear Italia'ra eta goragoko errialdeetaraiño. Euren lanetan, Belen'go gaiak ez dabe lekurik txikiena.

Erdi-aroan azken aldiko eta gerotxoagoko izen ezagun batzuk emotea dagokigu emen: Europa goiengan, Memling, Wan der Widen, Joan Borgoña, Rubens, Bosch edo Bosco deitua; Italia'n, Leonardo, Tiziano, Fran Angelico, Tintoreto, Rizi; España aldean, Ribalta, Murillo, Zurbaran, Velazquez, Theotocopuli eta argin-maisuen artean gure Antxieta ta Berrugete. Guztiok erabilli izan eben Belen'go misterioa. Eta ertilari andi onein lanik asko gaur Museo andietan gordeta aurkitzen dira.

Kristoren jaiotza eleiza txikietan eta etxe barruetara zabaltzen

Orain arteko ertilariak katedral eta eleiza anditxoetarako egin dabe lan, eleizak barrutik eta kanpotik jazteko. Arrizkoak eta zurezkoak eleiz-ormetan jarraituko dabe; oialezko askok Museotan aurkitu dabe gorde-lekua, an dabe erakuslekua bere.

Urrengo mendean bide barriak artuko ditu jaiotza-zaletasunak; eleizetatik urten barik, etxeetaraiño eta kaleraiño sartuko da. Leenengo, andikien etxeetara. Beraz, joera bi izango dira orain: lenengoa, andikien jauregietako jaiotzena eta bigarrena, erriak eskatzen, nai dituen eta zabalduko dituen jaiotzena. Andikiak euren jauregietako aretoen apaingarriztat eskatzen dabez. Orregaitik, askotan lekuz aldatu barik, aretoen apaingarri gelditzeakoak dira; beste batzuk, Garizumako pausuen antzera, gaur ipiñi eta biar kentzeakoak, ekarri eta eroatekoak. Onelakoak eleizetan aurkitzen dabe euren tokia sarrien. Jaiotza barri onen beste bareizgarri bat jantzietan dago. Lekuan lekuko jazkera artzen dabe: Andikienak, andikien antzera; erri xeekoak, lagunabarrerekoak, errialde bakoitzeko andra-gizonen, artzaien eta beste langilleen antzera.

Jaiotza barriok Italia'n agerttu ziran lenengo amazazpigarren mendean. Italia barrenean zabalduko zan geien. Bertan jatsi zan andikien atetik mailla beragokoen artera. Joera biok Italia'n, Napoles aldean indarrik geien. Emen ertilarien lana eta erri-maillakoa alkarregaz nastuta dabiltz. Joera barri au Italiatik zabaldu zan beste alde askotara.

Italia'tik Salcillo (1717-1783) da España aldera zabaldu ebana, Malorca'tik asita, Valencia ta Andalucia'raiño berantza eta Cataluña'raiño gorantza. Andia da jaiotzak, Belen-irudiak moldatzen egin eben lana. Ogei bat urtez ekin eutsan lan oni beste zeregiñik barik ia. Berak moldaturiko irudi-pillo galanta (ia bosteun lagunena eta ia lareun abereenak) Belen'go misterioa apaintzeko egiñak, bere izeneko museo batek daukaz Murcia'n.

Eta Salcillo onen ondoren Cataluña'k emon zituen beste iru-lau Belen-moldatzaille ospetsu: Amadeu (1745-1821), Talarn (1912-1902), eta Vallmitjana anai biak Eurok emon eutsoen erri maillako jaiotzaintzari gero artu dauan tankera eta bultzada, ainbat erritara zabaldu izan dana. Ikaragarrizko lana egin eban orretan Amadeu irudigille andiak. Jauregietarako eta eleizetarako moldatu zituen jaiotzez gaiñera, eundaka irudi polit atsegingarri sortu zituen jaiotzak apaintzeko, gerokoentzat eredu izan diranak. Cataluña'ko eleizetarakoak, batzuk eleizetan gordetzen dabez eta baditu museotan gordeak bere, eta moldatu zituen beste irudien bildumak jabe jakiñien eskuetan dagoz. Talarn eta Vallmitjanatar biak, Amadeu'ri jarraituz, lan bardintsua egin eben gero gure mendera arte.

Italia'tik asita, Belen-irudiak egiteko, gai barriak erabiltera jo eben ertilariak. Zurezko ta arrizkoez gaiñera, beste gai balio eskasagoak; autskorrangoak bere bai; lur errea, labetan erretako buztin margoztuak, oial gogortuak, marregak, kartoiak eta abar. Dana, Belen'ak eta jaiotzak errezago egin al izan ete erri maillargo ekarteko. Guzti oni gallurra ipinteko eta jaiotza-zaletasuna zabaltzeko, belen-zaleen alkarteak sortu ziran eta gaur bere sortzen dakusguz. Ez bakarrik gure artean, bai ta Europa

guztian bere, batez bere azkenengo gerrate nausien ondotik. Azkenengo urteotan nazio arteko olako alkarte edo Bazkun bat bere sortu izan da. Askok uste dau gaur ezin dala Gabon jairik edo Eguberririk ospatu «jaiotza»rik barik.

«Jaiotzak» Euskalerrria'n

Onezkero orain arte esan dana irakurrita, irakurleak onako itauna egin dau, bear bada: Eta Euskalerrria'n zer? Euskalerrria ez dago Belen'go munduan sartu barik. Gure errria atzerrietako ertilarri andien Belen-lanik barik ez da egon, eta ez dago. Emengo eleizetan eta museoetan bada olango lanik. Bilbao'ko museoak, adibidez, baditu sei bat, XV, XVI eta XVIIko mendekoak, Italia'ko, Flandes'ko margolarienak, Kristo'ren jaiotza edo Magoen adoraziñoa dakarrela; bat, Toledo'ko eskolakoa bere bai. Eta eleiza asko dira olako lanen jabe. Gasteiz'en katedral zarra eta San Pedro eleizea eta errietako ainbat eleiza, Araban ainbat Belen-irudiren jabe diran euren altaren eta erretaulen edergarri. Bear bada, dagoen opari-eskeintza iruditzekoak dira geien. Kexa'an, Lopez Salazar'ek eragindako baten jabe izan ei ziran mende onen asiera arte: Ameriketara joan ei zan. Orain diardue arabarrak euren erri guztietako eder-lanen billaketa egiten. Baleiteke geiago agertzea.

Bizkaia'n, Bilbao'ko museokoez gaiñera, Lekeitio'k, Portugalete'k eta Zeanuri'k badauke beren eleizetan zer erakutsi, Begoñako Andra Marik antziña baten izan eben lez. Onaño bere eldu zan Flandes'ko ertilarrien lanik.

Gizpuzkoa'k ainbat eleizetako orma edo **eiTetauletan** erakusten dabe Belen'go misterioa era batera edo bestera taiuturik: Donostia'ko San Bizente eleizan, Itziar'en, Deba'n, Mutriku'n eta Oñati'n, adibidez. Naparroa'n euren eleizetako erti-lan guziak jasotzen diardue, eta ez dagoz Antxieta'k amaseigarren mendean Kaseda'n eta Tudela'n landutakoak bakarrik; beste batzuk bere agertzen dira.

Euskalerrria'k izan dau Beelen'go jazoerak teatroan ikusteko aukerarik bere. Erdiaroan misterio ori leku askotan antzerki biurturik emoten ei jakon kristau-erriari. Gure errian ez da olako antzerkien aztarrenik. Zubero'ko Pastoral ospetsuak bere ez eben olako gairik artu. Badirudi, itzal andiegia eutsoela Kristo'ren eta Maria'ren bizitzari, eurak egin oi eben moduko antzerkietara eroateko. Baiña emen bere ez gagoz ezer barik. Zubero'ko Pastoralik ezean, Barrutia arrasatetarrak amazortzigarren mendean, ondo txukunik eta samurrik emon euskun Belen'en Gabon Gabea jazo bere «Gabon Gaberako ikuskizuna» dalako lantxoan.

Gure literaturatxoan ez dira emen aitatu barik iztekoak idazle andi bi: Joanes Etcheberri ziburutarra, eta Bernard Gasteluzar. Biak dira Belen'go jazoera osoa kantatzeko bertso-liburu biren egille: *Noelak* eta *Egia katolikoak*. Gasteluzar'en bertso batzuetan, ona zelan emoten jakun Birjiñaren aotik Belen'en jazoetako gauza andienen barri:

Erraguzu, Maria,
Haren sorlekua,

ala palazio zen
ala gaztelua?

Establi hautsi bat zen
establi ttipia
surik, atherik gabe
lekhun idekia.

Erraguzu, Maria,
izan zen arzainik
eta mendietara
dabillan gizonik?

Hek bere presentekin
gintuen ikhusi,
hekien bihotz onak
gintuen onhetsi.

Erraguzu, Maria,
bazen erregerik
zure Seme Jainkoa
ikhusi zuenik?

Hirur errege zuhur,
ethorri ziraden
zeiñek bere presentez
ohoratu zuten.

Gasteluzar'en bertsoak ez dabe ez idia ez astoa aitatu. Baiña ona zelan sartzen diran Bizkaiko Gabon-kanta baten:

Astoak arrantzia,
idiak arnasia,
olan berotzen dabe
jaio dan Umia.

Baiña ordu dogu gure erriaren «jaiotzak» zelakoak izan diran eta diran azaltzeko. Teatroa ezean, Euskalerrria'k jakin dau Belen'en jazoak kalera eta etxeetara eroaten. Gernika'ko Marijesiak entzute andia dabe. Noz ezkerozkoak diran ez dakigu. Gabon aurreko egunetako kantaldia da, Belen'en jazoak gogoratu eta kantatuz. Goizean kalean zear egiten dabe. Eta batzuk diñoena: Bizkaia'n beste erri batzuetan bere egin oi dan oitura edo teatro-lanen baten ondakiña izan daitekela. Beste kalean zearreko oitura bat: Olentzero ain ezaguna. Iñon ikusi izan dogu, jaiotzako irudiren bat lagun daroala ospatzen.

Erri-maillan, eleizetako, ikastola eta languntaldeetako jaiotzagintzak indar andia dau gure errian. Leku askotan alkarren leian ibilli oi dira eta ibiltzen dira zeñek jaiotza ikusgarriagoa eta ederragoa moldatuko. Gaurko argigintzako eta ainbat sailletako

aurrerakuntzak asko lagundu izan dautse. Orain edozeri emoten jako antza, itxurea, eta alan ikusten izan dira jaiotzetan ikusleentzat ainbat gauza itxuraz arrigarri: eguna argia eta gau izarratua, egunetik gauerako aldaerak, edurra mara-mara, errekan ura bera doala, nekazaria iraulten eta ola Belen'go inguruari bizi-itxurea emoten. Belen biziak bere ikusi izan ditugu, ordu batzuetarako beintzat, lagun bizi batzuk Maria, Jose eta beste lagun batzuen gizaki biziak egiten ebela. Eta ardi eta artzai, nekazari, auzoko emakume ta gizon langilleena, astoa, idia nai gameluena egiteko, ainbat irudi eskintzen jakez Belenzaleai, nai daben lekuan euren etxeetan jaiotzak ipiñi ta moldatzeko. Estalpetxo moldatzeko, kortxozko molde askoren aukera dago, eta inguruko zelaia jazteko, oroldi ta gaiñerakoak, eta marrogazko edo oial gogortuzko aukera berdintsua, mendialdea itxuratzeko. Egi-antzik edo eder-baliorik asko ez jako askotan jaiotzari emongo, baiña bada Belen'go misterioa ospatzeko gogorik.

Zelan edo alan, Belen'en jazoari antz emotea da gauzea. Eta batez bere, Gabon Gabeko Barri Ona begien aurrean ipinten alegiñak egin oi dira: Jesus jaiobarria bere seaskan edo estalpetxoko zelaian, Maria ta Jose alboan dituala, edo Magoak estalpera bidean edo Umeari euren opariak eskiñiz euren omenaldia egiten. Eta beste irudi guztien gaiñetik, zeruko mandatariak aingeruak, gau atako mezua, Barri Ona, emoten! «Aintza zeruetan Jaungoikoari eta bakea Jaunaren maitasunaz lurrean gizonai», Jaungoiko gizon eginbarria, guztiai bakea eskintzen eta zenbateraiño maite dituen iragarten.

Ikuskizun ori da gure eleizetan nai etxe barru askotan ikusi oi dana. Urtero gabonetan Barri On ori da ikusleak jaiotzetan ikusi ta entzuten dauana, bekokietan, begitarteetan tximur asko uxatuz eta pozaren argi ederrak biztuz. Barri On ori da mundu guztiak urtero eta batez ere mendeurrenetan artzen dauana. Bake biderako ba ete dau munduak ezer oberik Barri On ori onartzea baiño? Baiña geiegitan jazoten jako arako Asis'ko Santuak mindurik esana: «Maitasuna ez da maitatua». Tamalez alan da.

FEDEDUNEN ARBASOA, EUSKAL ANTZERKI ETA OPERA*

Gaurko euskal idazleen artean olerkaririk baldin bada, benetako olerkaririk, Aita Iratzeder beneditarra da, nik uste. Ez deiogun sinistu berak *Biziaren Olerkia* izenpean argitara emoniko olerki-bilduman mardulean esan deuskuna:

Hautan nihork ez dezake
pertsu ederrik bila,
hautan deus ere ez baita
baizik-eta
pindar, auhen, amodio
eta goiko bozkario.

Apaltasunak eragin deutso autormen ori, baiña ez dogu sinistu bearrik. Apaltasuna egiaz ibiltea esan euskun Santa Teresa andiak, baiña Aita Iratzederren autormen ori ez da egiazkoa. Egiazko olerkari dogu bera. Olerkia iturriari ur gardena lez dario berari, olerki argi, bizi, bero eta askotan or autortu dauan *pindarra*, barruan daroan sua eta garra dariona. Olerki bakotxean bere barruko giro baketsu eta garbi maitagarria ikusten deutsogu, baiña bai askotan sugar biurtu eta garretan irakiten jakona bere. Belokeko fraide-etxeko bake-giroan, ango ixiltasunean eta otoitzetan girotutako olerkia da Iratzederrena geien batez... Bere burua salatu deuskula esango neuke onako olerki labur onetan:

Gizonak... ixiltzen balaki

nasaiki baluke naski
 bere bizian olerki.
 Gizonak sinisten balaki
 noiz-nahi lezake unki
 Jauna berekin ibilki.
 Gizonak maitatzen balaki,
 gozoki lezake aurki
 zoin den bizia olerki.

Orra Iratzeder aitaren olerkiaren iturri garbiena. An, Beloken, bere fraide-etxeke bake eta ixil-giro aretan girotuta datoz bere olerkietara otoitzean sinisteak argitu deutsozan Jainkoaren ezagutza jatorrena eta gizonen biotzetara ixuri dituen gora-nai zindoanak eta zeru-lurretan zabaldu dituen ainbat edertasun miragarri... An ikasi dau bere bizia olerki biurtzen.

Baiña gaur ez goaz Aita Iratzederren olerkari-sena osoan aztertzeke asmotan. *Karmel* aldizkari onen irakurleentzat olerkari onek gizonen bizian eta egintzetan ain bizi eta ain gartsu agertzen dan olerkia ikusten jakin eta bere bertsotara ekarteko dauan gaitasuna, bere antzerki-lan baten azpi-marratu gura geunke. Ez dau beronek lirika utsezko olerkia bakarrik landu; gizonen bizian agertzen eta teatro-lanetan era-kusten dana bere bai.

Gaztetan emon euskun olako antzerki-lan bat, Joan Bataiatzailearen bizitik gaia artuta, *Mortuik oibu*, itz-lauz eta bertsoz, eta Aita Lertzundiren musikaz, kantu eta abar 64 orrialdeko antzerkitxo... Gaur emen aurkeztu nai doguna, Abraham antziña-antziña bateko patriarka edo asabaren bizitzatik gaia arturikoa da.

Fededunen Arbasoa

Dana kantuz emoteko antzerki-lan au, 1977n Leopoldo Zugazak argitaratua da. Aita Iratzeder sakon murgildu da emen Abrahamen bizitzan eta fededunen eredutzat eta Jainkoak mundu guztiari bakezko egunak agindu eta iragarteko autuagan. Euren Arbaso eta aita izan eban Israeldarrak; baiña Ebanjelioak izen berbera emoten deutsoe; Hebertarrentzako epistolak fededun guztientzat eredu bardinbakotzat aurkeztu euskun, eta Eleizeak Mezako liturgian «gure aita»tzat aitatuta daukagu. Eta alde orretatik artu dau Iratzederrek bere antzerkirako gaia.

Fedea izan zan Abrahamek bere bizian azkenengo urteetaraiño izan eban arazorik andiena; orrexek ekarri autsan zartzaro andira arteko elorrio gorria: Jainkoak ainbat bider belaunaldi andikoa eta erri askoren aita egingo ebalu egingu eta urteak joan eta urteak etorri berak semetxo bat bere ez. Zelan ulertu Jainkoaren agintzak bere etxean ikusten eban umezurtztasunaz? Azken baten Jainkoak bete eban bere agindua itxura guztien eta siñistuezin guztien aurka, iñok usteko ez eban urteetan, alan bere, baiña artean Abrahamen fedeak zeinbat illunaldi eta ezin siñistu ez zituen ikusi izan bear!

Abrahamen urteak zearreko arazo eta elorrio ori, egoki bai egoki aurkezten jakin dau eta zortzi ekitalditan emon deusku. Antzerkigille andien trebetasunaz emon bere.

Greziako antzerkille andiak egin ebenez, korua edo kantari-taldea bere sartu dau tartean tartean, gaiari bizitasun andiagoa emoteko. Kantaldiok ekitaldi guztietan sartu ditu ekitaldi bakotzeko eta une bakotzeko ariari jarraitu eta languntzen deutsoela... Eta lenengo ekitaldian asita Abrahamen fedea da guztietan nabarmenen agertzen dana.

Fedearen Arbasoa dalako antzerki au oso gitxik ezagutzen dabela esango neuke. Ekitaldi bat, *Godor-Lahomor*, Iratzederrek berak, antzerkia argitara zan urte berean, Lekuona zanari Kardaberaztarrak eta Euskeratzaintzakoak eskiñi eutsoen omenaldi libururako bialdu eban, eta Leopolo Zugaza jaunak sortu eban *Gaiak* aldizkarian ikusi eben zati batzuk argia. Beste aitamen gitxi izan dau gure artean. Alan bere, euskaldun batek baiña gure erritik kanpo, Santiago Aizarnak, idazle eta gazetalariak egin eutson goresmen ederra Madrilgo egunkari baten. Gure artean ez jako merezi leuken aita-menik egin antzerkiari berari eta gitxiago Bilboko musikari batek, Patxi Bengoak, opera biurturik, ezarri eutson «soinu-jauntziari»... Orra zergaitik nai geunken emen bataren eta bestearen aurkezpena egin. Zortzi atal edo ekitaldi dituala esan dogu. Banan banan emongo dogu euretako bakotxaren mami eta aria.

Lenengo ekitaldia: Oihanean

Ekaitz andi zakarrak, galerna batek arrapatu ditu oian baten Abraham eta Eliezer, Abrahamen morroia, eta an inguruan entzuten dabez ortzi jainkotzat dauken apaizen garrazi eta oiuk. Ortziren zigortzat dauke oneik gaiñean daben ekaitz gogor ori; garrazika dei ta dei dagoz Ortziri euren lurraldetik ekaitza aldendu dagiala eske ta eske. Ortzi ori umeen odolzalea ei da eta ume bat dakarre euren jainkotxoa dalakoari oparizat eskeintzeko, ia orrela opari eskeintzen deutsoen umearen odolaz ibitu egiten dan Ortziren asarrea.

Kantuz eta dantzan, amorru bizian diardue Ortziri oiuka. Onelakoa da eurei kalterik ez egiteko eskaria:

Ortzi!!! Ortzi!!!
 Atabal, sistu, orro ta jauzi.
 Ortzi!!! Ortzi!!!
 Hedoeiez hedoi karraskan zoazi,
 mundua nahiz errauts-arazi.
 Ortzi!!!
 Irrintzin zuri, Ortzi, oiuhu eta jauzi,
 egon gain hartan nausi, bainan zoazi, zoazi.
 Ortzi!!! Ortzi!!!

Bein eta barrero jotzen deutsoez oiukok, tartean beste goresmeneko kantuak diralakoak botaten deutsoezala:

Zuk duzu inarosten lurpetik mundua,
 mendez mende gizonez betez ifernua.

Etsaiak jo ditzala zure hasarreak.
 Hek bai hek, bainan ez gu, ez gaiten erreak.
 Usna gure eskaintza, gure deiak adi
 eta zoazi, oi Ortzi, haur odolez hordi...
 Izan gain hartan nausi, bainan zoazi, zoazi.

Abrahamek eta Eliezerrek sinistu eziñik eta iguindurik ikusten dabe ilteko eta Ortziri eskeintzeko daroela umetxo bat, eta umearen aita bere gorrotozko kantua botaten eta bere zorigaitzari negarrez:

Haztio haut hastio, Ortzi jainko beltza.
 Hik dautak hik iretsi haurraren gorputza...
 Zertako hauku eman gizoner bihotza
 heien zauriez ote adin basik goza?...
 Xehaka zadak, otoi, zehaka bihotza,
 ezin jasana baitut ene zorigaitza.
 Nun ote zare ene haur pullita,
 jadanik hain goxoki baitzinion «Aita»...
 Oi, zu gabe enetzat bizitzerik ezta,
 ene bihotz gaizoa zu hilez hil baita...
 Ortziren apez basak, ixil, otoi, ixil;
 Zertako dautzue haur gaixo hura hil?
 Hiri tu, herra, Ortzi jainko beltza:
 Ai, itsas-urak oro har ahal banitza
 hiri tu egiteko, Ortzi jainko beltza.

Izugarrikeriok ikusita, Abrahamek Jainkoari otoitz egiten deutso, bere egiazko Jainkoari, ez inõorentzat zigorrik eskatzeko, baiña bai gizonen itsumenari erruki artzeko eta egiazko Jainko orren ezagutza eta sinistea opa izateko. Bost betsozko otoitza:

Zu ote zare jenderik gabe bakarrik egon beharko?
 Fededun jende bihotz bero bat
 noiz zaitzu noiz piztuko?

Eta Eliezer morroiak berea egiten dau Abraham ugazabaren eskaria.

II. Zarai eta Hagar

Zarai edo Zara Abrahamen emaztea da, eta Hagar, semerik jaioten ez jakola-ta, orduan legezko zan lez, Abrahamek ejitoar bati erositako bigarren maillako emaztetzat artua. Biak alkarregaz berbete luzea dakarre. Zarai bere zorigaitzari negarrez, eta Hagar bere andrearen miña eta atsekabeari mingoztasuna kendu gurarik. Hagarrek andreari tartean abesten deutsona:

Ai, Zarai, ai! Zarai.
 Jauna bai, haurrik ez.
 Ai! Zarai, ai! Zarai,
 Egon bai nigarrez...

Zaraik bere naibageak ustuten diardu:

Ez ote dut atxikiko tikiñorik besotan:
 Haren begian, haren irrian
 begiak argi zaizkitan!...
 Noiz eginen dauku seme batek noiz irri,
 bien bizien, bien bihotzen
 paregabeko lokarri!...
 Noiz behar zait amatuen zoriona etorri?
 Ai! nitan banu amen bizia,
 Abrahantar baten pizgarri!

Alango baten, badatoz Abram eta Eliezer. Basoan ikusitako ekaitzak atzeratu dau bien etxera etorrerea, an ikusitako izugarrikerien, Ortziren apezen orroezko kantuak eta eurak il eben umearen barri emon ondoren, Abramek basoan Jainkoari agertu utsan gurari berbera azaltzen dau:

Zorigaitzez orai
 galerna, izar, abere, harri,
 denak dauzkate jainko...
 Fededun jende bat, fededun gizalde bat behar laite,
 izan dadin munduan
 Jainkoa baitan
 mendez mende sineste.

Eta Zaraik: Eta guk, semerik ez.
 Abramek: Jainkoarentzat ezin-eginik ez.
 Haran gaineko haitzetan
 iragaitean,
 entzun dut gaur Jainkoa,
 entzun haren mintzoa...

Orain Jainkoak Abrami esana kantariak zabaltzen dabe:

Atera / zure herritik / atera, atera,
 eta joan / nik erran / lurraldera.
 Eginen zaitut herri
 handi eta aipagarri.
 Zure izena eginen dut izen handi...
 Munduko eginen dut izen handi...

Munduko herri guzieri
zure izena on-iturri.

Abramek orduan bere erritik alde egitea erabagi dau eta morroiei biotzeko nai-bagez agur esan eta Eliezer bakarrik artuta bere erritik alde egiten dau, kantariiek Jainkoak len esaniko itzak barriro abesten dabezala:

Atera / zure erritik, / ahaiden artetik, / aitaren etxetik.
Atera, atera / eta joan / nik erran / lur aldera.

III. Iturri ondoan

Abram eta Lot illoba euren artaldeak alkarren ondoan dabezala dabiltz, eta bien abere taldeetako morroiak sarritan izaten dabez, batekoak ardia eta bestekoak beorra ostu eta eroan dabela-ta, bake txarreko ordu gogorak. Olako katazka bat bataren eta bestearen artzaiñen artean burrukan asteko arriskuraino eldu eta bizi bizirik dator ekitaldi onetan. Kantariiek emen axa-axaka artzaiñen alkarren aurkako asarreak eta salakuntzak sustatzera egiten dabe: *Jo zak! Jo zak jo! Jo zak jo eta jo!* sei bider kantetan dabela. Abram eta Lot etorten ikusita ixildu eta bakoxta bere artaldeetara biurtu da... Asarre biderik geiago ez izatearren osabeak eta llobak alkarrenganik urrintzea erabagi dabe Abram oso bihotz andiko agertzen da emen:

Bai, gaude bakean bai; anai gare anai.
Ez gaiten egin etsai, berex gaiten orai...
Zu eskuin joan orduko, exker nik hartuko;
Zu esker joan orduko, eskuin nik hartuko...

Eta alkarri bostekoa botata, bakoxtak bere bidea artu dau. Lotek Sodoma aldera jo dau, eta Abramek Kanaan aldera.

Bakarrik gelditu dira Abramem etxean andra bi: Zarai eta Hagar. Eta Kantariiek emoten deutsoe azkena ekitaldi oni, Kanaan aldera begira Jainkoak Abrami esandako berbak eta orduan egiñiko agintza barria abestuz:

Altxa begiak, altxa;
zaren tokitik beha.
Ipar aldetik eta
Hego-alderaino,
argi-aldetik eta mendebaleraino.
Zuri dautzut lur-alde hori
eman gogo,
zuri eta ondokoei
sekulako.
Altxa begiak...

Lur huntako errauts pikorren
parekoak
zureganik sortuko diren
ondokoak. (Altxa begiak...)

IV. Godor-Lahomor

Bazter areitan errege-nai edo erregetxo asko dabiltz euren mendekoak naikoa ez izan eta besteen mendekoak zapaldu eta iruntsi naiez. Godor-Lahomor orreitariko bat da. Beste erregetxo batzuekalk alkaturik triskantzarik eroan dabe Lot, Abramen llobea bizi dan ingurura. Lot bera bere preso artu dabe... Jakin dau, Abramek mandatari batek, mezulari batek jakitun ipiñita, bere lloba orren zoritxarra, eta bere mendepeko zituen gizonak artuta iges eragin deutsoe andik urrin Godor-Lahomor orri bere gudariek. Ekitaldi onetan Abrahamek askatutako gudarimordoa sartzen da: Abrahamen garaitza kantatzen. Batek abestu eta besteak erantzun, euren poz andia erakusten dabe:

Erregen errege Godor-Lahomor,
nausirik munduan ehuen nihor.
Abrahamen ezpata agertu baita,
takata-takata, hau tarrapata!
Bi mila kamelu, berrehun behor...
joan da eskapo Godor-Lahomor,
Airos hintzen Godor-Lahomor,
Sodoma hartu eta bai eta Gomor...
Akabo ginen akabo,
ez balitz Abram etorri
laster baitio harek eginarazi eskapo
Godor-Lahomor arto-bizar horri...
Hiru ehun ta zonbeit gizonekin
zer jokoa duen, haatik, Abramek egin.

Kanta ta kanta, gudarien pozak ez dau azkenik eta Loten poza eta beste Abramek askatuen poza bere euren kantuak eta kantari taldearenak oiuka azaltzen dabe:

Goikoaren gizona / Abram hebrearraj
Jaunak dio emana / zeruko indarra.

An izan Abrahamen eta Melkisedek Salengo errege apezaren alkar aurkitzea eta Abrahamek ari eskiñiriko oparia eta Melkisedek apezak Abrahami opa izaniko be-deinkapena... Eta an Jainkoak Abrahami egiten deutson agintza berria.

Ez beldur izan, Abram, ez beldur izan:

zure indarra naiz behar orduan,
zure saria / zoin handia!

Eta Abramen erantzuna:

Ai Jainkoa!
zer sari eman neri, / zer sari?
Hara ez dautzula semerik igorri,
eta sehi bat dut ene ondoko ezarri.

Baiña Jainkoak itz emoten deutso Abram beraren odolekoentzat dala Jaunak agindua... Eta azkenez, kantariak Abramen fedea goratzen dabe barriro, oihala botata, barrutik, beste zazpi ahapalditan.

V. Hagar ihesi

Hagarrek iges egin dau Abramen etxetik. Baiña zergaitik? Hagar aurdun gelditu da eta Zaraik gogor esaten deutso, zakar diardu Agarregaz, Abramen ondokoa edo oiñordekoa izango dala-ta. Abramek etxeko bakea galduta ikusten dau, eta emazteak Hagarren semea oiñordeko egingo daualako bildurra erakusten dautsoenean, Abram bere siñistean gelditzen da, Jainkoak esana sinisten dau, «ezin sor-araz guztiengatik ere», lengo sinistean dago. Eztabaida orretan dagozala or dator atzera Hagar, Zarairen oiñetan erruki eta parka eske. Zerjazo jako? Hagarrek berak esango dau bere kantuan:

Mortuan ihesi / nindoan
eta Zureko iturri-ondoan
Jaunaren aingerua dut ikusi...
Jaunaren aingeruak daut orduan
neri erran:
Egon harekin
eta haren nahia egin.

Eta Zaraik Jaunaren naia dala ikusi eta osoan amor emon dau, Hagarrek zoraturik Angeruak esaniko urrengo berbak abestu dituenean:

Hagar, amatua zare zu:
seme bat sortuko zaitzu;
izena emozu Izmael
jakin baitu Jaunak «zuri noiz hel».

Izmael bere andi izango da. Ori jakitean besotik helduta Zaraik Hagar etxean sartzeko daroa.

Ekitaldi au amaitzeko, Jainkoak barrero eta len baiño argiago iragarten deutso bere ospe andiko etorkisuna eta biai, berari eta emazteri izen barria emongo deutse: Abram arrezkero Abraham izango da eta Zarai emaztea Zara... Ona bertso batzuk:

Gain gainekoa naiz, zure Jainko Jauna,
 ibil nere aitzinean...
 Huna zurekilako nere batasuna:
 herri ainitzen aita zaitut emana.
 Orai izanen duzu Abraham izena...
 Erregeak bai erregeak zaizkitzu sortuko,
 batasun egiten dut zurekin betiko...
 Zarai zure andrea ez izenda Zarai:
 bere berria Zara baitu orai.
 Haren ganik seme bat emanen dautzut bai
 eta herriak eta erregeak nasai...
 Ehun urteko bati semeak sortuko?
 Zarari nundik nolaz haurrak jinen zaizko?
 Ai, bizi bedi bizi betiko?
 Zarak dautzu bai zuri seme bat emanen:
 emozu semeari zuk Izaak izen,
 Betiko batasun dut harekin eginen,
 harek bai ondokoek Jainkotzat naukaten.

Eta olantxe doa amabi bat ahapalditan jainkoaren itza Abrahamen eta bere ondokoen geroa argitzen.

VI. Abrahamen otoitza

Mambreko arte-ondoan dagoala, Abrahamek iru gizon ikusten ditu bere aurrean. Bidezkoak dirala dirudie, eta Abrahamek ostatua emon nai dautse bere txabolan, eta ez deutse itxi gura an sartu barik bidean aurrera egiten. Bazkari ederra emon deutse irurari... Jainkoaren mandatariak dira. Andik alde egin baiño len, emaztea izentau deutse Abrahami:

Nun ote da Zara, zure emaztea?...
 Etorriko natzaitzu berriz heldu den urtean.
 Ukanen du Zarak orduan semea.

Oraingoan zeatzago jatorko Abrahami Jainkoaren agintza. Epea bere iragarri jako. Zarak ori entzutean, barre egin dau: zelan berak ain zartzaro andian semerik izan? Baiña Jainkoak asarre egin deutso siñistu eziñez barre egin dualako:

Zertako egin du Zarak irri?
 Deus ote da sobera / Jaunarentzat miragarri?

Sasoin berean / heldu den urtean
 behar nitzaitzitu berriz etorri:
 seme baten ama izanen da Zara.

Abrahami agertu jakozan iru gizon ziralakoak Sodoma aldera egin dabe. Jainkoak bere agintza betetea atzeratu ta atzeratu ibilli jako Habrahami; orain argiago itz egin deutso, eta ez deutso gorde gura Sodomari, Lot Abrahamen llobea bizi dan erriari eta Gomorrari bialtzea erabagi dauan zigorra, eta orduan asi jako Jainkoari bere eskaria egiten, arren bai arren uri areik ez suntzitzeko:

Bekatorosekin
 suntzituko duzu gizon zuzena.
 Nork daki Sodomaren ez ote diren
 Berrogei ta hamar gizon zuzen?

Eta Jaunak: Berrogei ta hamar gizon zuzen
 balin baditut kausitzen
 ez dut hiria suntsituren.

Eta olantxe doa Abrahamen eskaria bera ta bera, berrogei ta bost, berrogei, ogei ta amar, ogei, amarreraiño Sodomaren aurkitu eitekezenen kontua gitxitzen. Azkengo eskaria onela egin dau:

Ene Jainkoa, ez, otoi, kexa:
 Naizen hauts eta errautsa
 azken aldiko
 naiz mintzatuko:
 beharba... hamar izanen dire:

Eta Jainkoak: Ez dut suntsitukoren
 balin baditut hamar ere
 kausitzen (aurkitzen).

VII. Har-zak Izaak

Abrahamen semea Jaunak esaniko epean jaio da, eta badirudi zorion betea etorri jakela senar-emazteai... Zorion ori dabe kantagai Zaragaz kantariak emen:

Abrahami nork erranen zion
 amatzeko nindakela ni?
 Ara orai nere haurra gizon:
 xaharrean aitag zer zorion!
 Bihotzaren altxagarri

seme bat zait sortu neri:
 Ikastea berri hori,
 egin dautet irri.
 Zimurtuak nituen eskuak,
 bihotz argiz begiak hustuak.
 Ara orai haurraren musuak
 gaituela aitamak piztuak...
 Abrahamek badu ondokoa!
 Lano gabe zahartzerat doa:
 bai, hitzekoa izan du Jainkoa.

Kantariak eta Abrahamek orain, onek Jainkoaganik izaniko agintzak bete eta egiazko biurtu daitezala opa deutsoe mundu guztiari. Ona kantu batzuk:

Ager ditela begira gauden
 lurreko Jainkosemeak,
 zeruko argiz eta indarrez
 bitez gaindika beteak...
 Uhainez uhain bota bezate
 olarro beltzek pozoina.
 Gizon bihotzek bota ere bai
 beren baitan on ez dena.
 Jaun Goikoaren Izpiritua
 bihotz barnetan sar dadin
 eta guziak ditzen betikotz
 Jaun Goikoaren haur egin.

Eta zorion au ospatzen izadi guztia ipiñi dabenean, beste dei bat jatorko Abrahami Jainkoaren agotik:

Abraham, Abraham, Goikoaren gizona:
 Harzazu
 zure semea, zure bakarra, Izaak,
 eta zoazi Moriah alderat,
 eskainiz hil dezazun han,
 erakutsiko dautzutan
 mendi baten gainean.

Eta Abraham bere semeagaz mendira joateko gertetan dan bitartean kantarien kanta luzea entzuten da, Jainkoak Abrahami egiteko agindu deutson ezin siñistuko izugarrikeri ori egin ez dagian eske ta eske. Ona ahapaldi batzuk:

Zu ere ote, Jauna, Jaun ikaragarri,
 Ortzi bezala zare odolez egarri?...

Ondokoak hitz eman, zergatik, zertako?...
 Seme bakarra hola garrazki kentzeko?...
 Eskain ditela zuri, Jainkoa, munduan diren guziak...
 Agor ditela iturburuak,
 itsaso eta zelaiak...
 Zimel ditela ostoak eta
 eihar ditela loreak.
 Eror ditela lurrean hil-hotz
 egaztin eta abreak.

Eta ahapaldi bakotzat onako au dau bitarteko kantua:

Bai egiguzu nahi bezala
 nahi guzien galdea;
 bainan ez galda, ez, otoi,
 aitari bere semea.

VIII. Moriah mendian

Abrahamentzat ordurik baltzena eldu da. Oparirik ez ustekoena eskatu deutso Jaunak eta guztien ixilik, bere semeari bere ezer esan barik, an doa semea eta morroi bi lagun artuta Moriah mendirantza. Semeak ezer ez daki, aitak ezin dau ezer ulertu. Jainkoak egingo dau argi. Bere fedearen azkenengo erakutsia, sinisgatxena, emongo deutso Jainkoari. Mendira bidean aita-semeak dakarren autua biotz-erdiragarria da:

Semeak: Huna sua eta egurra,
 bainan nun da bildotsa!
 Abrahamek: Utzak, seme, Jainkoaren gain
 eskaintzeko bildotsa!
 Semeak: Ez ote da guhauri, Aita,
 bildotsa bilatzea?
 Jainkoaren emaitzez baita
 gure lurra betea.
 Abrahamek: Bildotzetan nihauk zoin hauta
 nola jakin dezaket?
 Jaunak berak daki zoin duen
 nahi eta zoin laket.
 Semeak: Bildotzetan harzazu, aita,
 ederren eta maitena:
 zor diozu Jainko Jaunari,
 zor diogu den dena.
 Aitak: Ederrena eta maitena
 zu zaitut, Izaak.
 Zutaz ote nau gabetuko
 gure gaurko eskaintzak?

Semeak: Nahi balu Jainkoak hola
 bai erran nezoke nik:
 naizen eta dutan guzia
 baititut harenganik.

Une onetankantariet sartzan diralzaaki bere ilbearra iragarten. Lau ahapaldi dira, laurak «Zu zare Jainkoak nahi bildots hori», azkena dabela eta azkenengoaZara amarentzat:

Zara, zure Izaak norat zaitzu ari?
 Zeinu-danga, hil-oihu, alargun-intziri...
 Zu zare zu Jainkoak nahi bildots hori.

Gero, Abrahamek semea eskeintzako egurraren gainean ipiñi, aiztoa eskuan artu eta Izaak ilteko gertaten dan bitartean, kantariet batek abestu eta besteak agoa itxita erantzun, une lazgarri orren ikaragarria sortzi bertsotan emon nai dabe, belaun bata lurren dabela. Ona lau bertso:

Diren guziek beite bizitzetik geldi:
 hiltzeko irrintzin bat bota mendiz mendi.
 Aitak behar du orai lamna —sabachtani!—
 bere seme bildotsa hil eta eskaini.

Baiña (oraingoan baiña zorionezkoa da) Zerutik azkenengo mintzoa, azkenengo deia:

Abraham, Abraham! Goikoaren gizona;

Abrahamek: Hemen nauzu, Jauna.
 Jainkoak: Etzazula eskua heda
 haurraren gainera.
 Etzazula gaizkirik egin. Aski da.
 Badakit orai Jainkoaren beldurra
 badela zure bihotzean.
 Galdetu dautzut seme bakarra
 eta ez duzu ezetz erran.

Emen kantariet Abrahamen fedea eta arenganik munduak izango duan zoriona ospatuz une larri aren azken zorionsua zabaltzen dabe aizetara. Eta azkenez kantariet eta Jainkoaren arteko beste kantu batek emoten deutse azkenaekitaldi oni eta antzerki osoari:

Jainkoak: Gorputz odolez izanik ere
 elgarretarik denak arrotz,
 zutan gizonak eginen dute
 sinesteaz bat eskulakotz...
 itsas-ondoan bezen bat legar
 zuri semeak sortu behar.
 Beha geroan zenbat gizalde,
 beha zeruan zenbat izar...
 Nere betiko Izpiritua
 ibiliko da jendez jende;
 bat eginen du barnez mundua
 denek doatzi zero alde.

Eta Kantari-taldeak Jainkoaren ahapaldi bakotxari eransten deutso:

Muga, neurriak utzi-eta,
 Abrahamtarrek dugun kanta:
 Jainkoa dugu denek Aita
 munduan dugun elgar maita.

Orra labor azalduta, *Fededunen Arbasoa*, Aita Iratzederren antzerki-lana. Ezin egokiago jaso dau egilleak Abrahamen fedearazo guztia. Ederto jakin dau gaia teatrorako asmatzen eta armatzen eta une bakotxa bere indarrean aurkezten. Maixu-lana da eta alan bere ez dau ia aitamenik merezi izan gure artean. Nik beintzat ez dot ezagutzen Santiago Aizarnak Madrilgo egunkari baten egin eban goresmen beroko aitamena baiño. Aita Iratzederrek eskuetan artzen dauan gaiari dauan indar guztia emoten daki eta Abrahamen fedearen mezua, mundu guztiaren eta ez bakarrik israeldarrentzat, etorkizun obe baten mezu eta barri ona lez eskiñi deusku. Agirian dago Belokeko ixiltasunean maitez ausnartu eta sakondu dauala, guztiontzat eredu eta pozgarri izan daiten.

Fededunen Arbasoa, Opera

Aurreko lerroak irakurri dituenak konturatu da antzerki-lan au kantuz teatroratzekoa dala. Noizik bein osteango zatitxoren bat dauanean bere, beti kantari-taldeak aoa itxita laguntzekoak dira. Baiña non da Opera ori? Musika-lana, *soiñu-jauntzia* nok ezarri deutson Liburuaren azalean autortu dau Iratzederrek: Francisco de Bengoa. Baiña Iratzederren lana gitxi ezagutua bada, askoz ez-ezaguna da Bengoa onen musika-lana. Ni beintzat dakidana esateko nator *Karmel* aldizkari onen orrietara.

Opera onen aitementxo bat Lassalletarrak Irunen ateraten daben *Ihintza* aldizkari ederrean agertu da aspaldi ezatala. Joan dan udan ango lau lassalletar izan dira Beloken. Aita Iratzederregaz berba egin dabe eta berbaz-berbaz beneditar onen idazlanak aiatu dabezanean, eurretarike batek itaun au egin deutso: Ba al daukazu Fededunen Arbasoa-

ren musika? Iratzederrek: Badut. Lassalletarrak berriro: Publikatua? Eta Iratzederrek: A, publikatzaillak behar. Olan idatzi dabe *Ihintza* aldizkari orretan. Au da nik ikusi dodan aitamen bakarra.

Baiña goazen atzerago. Badira amabost-amasei bat urte Patxi Bengoak eta nik Bilbon alkar aurkitu genduela. Alkar agurtu eta berbalditxo egin eta azkenean nik bere neure itauna: Zer lan darabiltzu eskuetan orain? eta berak lotzaz antzean aopean erantzun: «Opera bat ontzen diardut». Nik, Fededunen arbasoa baneukan arren, ez nintzakon oartu Iratzederrek liburuaren azalean idatzirik itxi ebanari, eta Bengoa musikalariak beste argitasunik emon ez eustanez, opera ori zer zanik jakin barik gelditu nintzan. Eta andik urte-mordo baten buruan, orra non artzen dodan eskutitz bat, karta bat Beloketik. Aita Iratzeder Opera orren billa ebillen, eta noren eskuetan izan eitekean esanez, laguntza eskatzen eustan aurkitu eta bere eskuetaratzeko. Egin neban neure alegiña eta bai: Iratzederrek izentauriko gizonak eukan, ez ekian non; etxe-aldatzea egiteko zanez, liburuak kutxaren baten sartuta eukazala-ta, agertuko zala-ta, orduan emongo eustala. Ez zituen beingoan aurkitu. Baiña aurkitu ebaneko, neuri itxi eustan Aita Iratzederrei bialtzeko. Olan arik laster Iratzederren eskuetan zan *Fededunen Arbasoa* Opera. Baiña ez Operaren seme bi, xerokopia bi Bilbon itxi barik: Bat Euskaltzaindiaren bibliotekan ete dan nago.

Eta nor da Bengoa ori? Urte luzez Bilbon San Anton Parrokiko Abestaldearen zuzendari izana. An, 1953n asita, beintzat, Euskal-abesti-sorta pilloa atera eban argitara (*Colección de cantos vacos*) eta abar. Gabonetarako ikuskizun bat edo beste be bai, eta, antza, arnas andiagoko zerbait egiteko gogoa etorri jakon: *Fededunen Arbasoa* dan au, eta Aita Iratzederrek eta biak alkar arturik lan egin ebela dirudi: Aita Iratzederrek antzerkiaren gaia eta itzak asmatu, eta Bengoa jaunak, Iratzederrek idatzi ebanez, «soinu-jauntzia ezarri».

Belokeko abata izango zanak 1971n amaitutzat emon eban idazlana, eta Patxi Bengoak (olan dakar Operak egillearen izana) 1976n bere musika-lana. Bengoa 1977n, maiatzaren 9n il zan eta urte bete lenago emon ei eutson azkena bere musikalanari, beraz 1976n. Au bere Iratzederrek liburuaren azalean idatzirikotik ateraten da.

Lan ikaragarria artu eban Bengoa jaunak Opera au musikatu ebanean. Jakiña, ez eban ain lan andi ori kutxaren baten biblioteka baten lo eukiteko egin. Kantuz emoteko asmau eben lan au bai Iratzederrek eta bai Bengoak, ez nonbaiten gordeta eukiteko, teatroen baten emoteko baiño; batez bere, musikaz jazteko lana Bengoak orretarako egin eban. Baiña nok emongo dau, nongo kantariak emongo dabe, ezagutu ezik? *Fededunen Arbasoa* antzerki-lan eta opera onen inguruko ixiltasuna ausi bearra daukagu, Euskalerrian ezagutua izatea merezi dauala uste dot.

Irungo Lassalletarrak joan dan udan antzerki onen musika argitaraturik ete zan kezkatu edo jakingurarik ziran, eta Iratzederrek argitaratzeko langutzailleak bear zirala iñoan. Baiña ez dago argitaratu bearrik. Argitaratzaillerik ez izatea ez da emen arazoa. Olako musikarik bada argitaratu bakorik. Kopia ateratea naikoa da: Zuzendariarentzat kopia osoa, eta ganerakoentzat, orkesta, kantariarentzat, bakotxarentzat berea... Eta inprentaz baiño eskuz, bear bada, obeto.

Eta opera osoa ezpada bere zatien batzuk abesbatzen batzuen artean zabaltzea ez leiteke gatz izango... Eta beste guztiak baiño, San Antongo Abesbatzak Bilbon eskertuko leuke zatien batzuk bere programetan emoteko aukerea izatea. Edozer, or artxiboen baten gordeta lo eukitea baiño.

Eta, nik uste, euskera eta Euskalerrri osoa, Iparraldekoa eta Egoaldekoa, zorretan gagozala Iparraldeko Aita Iratzederren eta Egoaldeko Bengoa-ren aldera biak aikarlanean artu daben nekeagaitik. Guztion txaloa eta eskerrona zor deutsegu.

SIBERIAN ZIGOR-LEKUETATIK SANTUTASUNERA ERRAPEL KALINOWSKI DEUNA, POLONIARRA*

Munduan bere nortasunari eusteko aspaldietan gogor jokatu bear izan dauan erririk bada, aparteko aitamena egin bearko deutsogu Poloniari. Joan dan mendean iru aginterri andiagok euken menpean artuta, Prusiak, Austriak eta Rusiak. Aginterri zapaltzailleok iru zati eginik euken atziñagoko Polonia bakarra; zatirik andiena Rusiaren azpian. Baiña irurak bere ez dira gauza izan Poloniari bere arimea, bere askatasun-naia eta fedea kentzeko. Iru erri zapaltzaileotan Rusia zala esan geinke miñik andiena emon eutsona; bere askatasunaren, bere izkuntzaren eta fedearen arerio eban era batera.

Rusiako Zar edo errege andien azpitik urtetako, bein baiño geiagotan jaso eban bere burua 1830tik aurrera, diplomaziaren bidez ez bazan, armak artuta bere askatasunaren alde. Poloniak ondo gogoan ditu orduan adoresu jokatuz odola ixuri eben abertzale andiak. Alperreko odol ixurtzea, orraitio. Azkenengoa 1863koa izan eben. Baiña urte onetako abertzale batek, ilteko epaia emon eutsoen arren, epai gogorra parkatu ondoren, Siberiako katigulanetara bialdu izan zanak, gaur ez dau merezi beste il ziranak baiño ospe ta aintza txikiagorik. Eleiza katolikoak santuen maillara jasoten dau aurten eta Poloniak jai andiak egingo bere seme argi au, Errapel Kalinovvski deuntzat ospatzeko: Poloniako abertzale andia, baiña Jainkozale eta lagun urkoaren maitatzaille andi sutsuagoa izana.

Beronen bizitzako unerik eta alderdirik eder eta gogoangarrienak jaso gura geunkez.

* Karmel 1991-3, 43-54.

Kalinowskiren jaiotza eta ikasketak

Vilna-n, Lituania aldean jaioa da; urtea, 1835garrena. Gurasoak Andres Kalinovski eta Josefina Polonska izan zituen. Bateoan Jose ipiñi eutsoen izena. Gurasoen ezkontzako seme bakarra da; jaiobarritan il jakon ama; baiña alargundu ala, aita beste bi alditan ezkondu zanez, Josek beste zortzi anai-arreba izan zituen.

Etxeko eskolez ganera, Vilnan bertan egingo ditu lenengo ikasturteak ango andikien ikastetxean. Rusiako agintariak eregitako eskoleak irakasle poloniarrek ditu. Mutikoak aita dau bertan irakasleetako bat, matematika irakasle. Eskola orren ondoan zan len fraide dominikarren etxea izana, baiña Rusiako agintariak dominikarrak kanpora bota eta poloniar abertzale sutsuentzat espetxe biurtua. Mutikoak an eukan bere aberriaren egoera larriaren jabe egiteko leku ezin egokiagoa.

Amabost urte ditu Vilnako eskola ori itxi eta beste erri batera aldatu danean, Hory-Horki izenekora, emengo Nekazari-eskolan sartzeko 1835ra arte. Eta egada S. Petersburgora egingo dau. Poloniarrentzat ez dago erreztasunik ikastetxe nausietan ikasketak egiteko, Rusiako agintarientzat lan egiteko izan ezik eta Rusiako armagizonen Akademian artu dabe arkitektura ikasi ta Zubi eta Bidegintzako gaiak ikasteko. Emen jarraituko dau ta 1853tik 1858ra arte, eta eskola-agiri ederrak atera ditu, kapitana mailla lortzeraiño, akademian bertan irakasle bere ipiñi dabe, baiña andik laster, Bidegintzetako maisu danez, 1858tik 1860-ra Odessa-Kievv Kursk-erako trenbidearen nondik norakoa aztertzeraz bialduko dabe.

S. Petersburgoko giroan gaztea bere fedean apeltzen eta sakramentueterako zartzen asi zan. Ango giroa ez zan katoliko batentzat onera eragitekoa, eta ezta arritzekoa bere Kalinovski gazteari jazoa. Gaztearen makal-aldi orrek ez eban luze iraun eta laster etorri zan lengo fede berora edo beroagora. Bere kontura asi zan bizitzaren zetarakoa ta elburua aztertzen. Orduko libururik egokienez baliatu zan; asko lagundu eutsoen orretan Agustin deunaren *Autorkizunak*, eta Frantziatik galazota egon arren sartzan ziran liburu batzuk. Bere bizian nora joko, zer izango ausnartuaz, Ebanjelioko irakatsietara etorriko da, Jainkoa maitatu eta lagun urkoaren maitasunean bizitzera. Elburu au ez jakon asmo utsean gelditu. Biziani bere balioa emoteko, barrubarruan sartu jakon, batez bere, besteen onerako bizi bear zala. Eta besteen onetan eta lagun urkoari mesede egiteko ez eban beste bizi-modu oberik abadeena baño.

Arrezkero, kalean laguntza bearrekorik aurkitzen bada, samurtu egingo jako biotza eta al dauntxo egiten saiatuko da. Jainkozaleago egin ala, ikastetxean eta nonnai lagunen lagunago, baketsuago, maitakor eta maitagarriago agertuko da. Guztiak gero ta bere buruaren jabeago ikusten eben. Ezagutzen eben guztien artean, bai katolikoen eta bai ortodoxo eta osteangoen artean, zabaldu zan Kalinowski gaztearen santu-ospea. Guztiñi egiten jaken maitagarri, eta benetako kristau eta santutzat eukan.

Eta onetan, orra 1863ko arma-otsak. Poloniarrek Rusiarren uztarripena gura ez eta armen indarrera jo. Zer egingo dau Kalinowskik? Lotsagarritzat dauko, bere anaiak odola eurrez ixurtzen ikusita, bera Rusiako agintarienpean egotea. Bere aberritarrak erabillezan asko batzuen jakitun zan, baiña gauzak ain laster eta obeto gertau barik etorriko ziranik. Baiña alan etorri diran ezkerero, ez deutso bere aberriari egoera orretan

uko egingo. Eta lenengo ta bein, Rusiak berari ezarri deutson uztarripetik, urten egingo dau; ordurartean Rusiako Zar andiaren arma-gizonen artean izan dituen lo-karrietatik askatu daiela eskatuko dau. Osasunik eza ipiñi dau ziotzat, eta emon egin deutse eskatu dauan askatasun ori, eta gero beretarren alderdira joan da, beretarren zorian kide izatearren. Erabagi adoretua berea! Bere burua arriskurik andianean ipinten dauala badaki eta guda arek azken onik ekarriko ez deusola jakitun da. Baifia alan bere, guda arazoan arduradun ministro egin dabenean, ez dau ez osasunaren atxakirik ez besterik ipiñi; bere bizia aberriaren alde prest dago. Urte bete egin dau kargu orretan, eta geiagorik eziñean eta askok uste eben kanpotarren laguntza izan ez dabenean, txil egin eta betiko azpiratzaillen eskuetan itxi bear euren geroa.

Ez daigun santu martiririk egin

Kalinowskik epai-maikoen aurrean ez dau beste ifioren izenik salatu nai izan, bere burua egin dau guztiaren errundun nausi. Eta urkatua izateko epaia emon eutsoen. Berak, agintari izan zan bitartean, Poloniarrai euren izena ezaintzekorik ez ebela egin bear eta ez eriotzerako epairik emon agindu eurenak, orain urkamendirako epaia artu dau. Orduan agintzen ebana Migel Muraiew zan, bere biotzik bako gogorkeriakaz rusiarrai eurai bere gorrotogarri eginik «urkatzaile» izena emon eutsoena. Baiña Kalinowskik ordurako inguru guztian «santu» izena irabazita eukan. Epai-maikoak bere, aren adorea ta zintzotasuna ikusita, edozeiñen aurrean ez egozala, santu baten aurrean zirala jabetu ziran eta parkatu egin eutsoen eriotzea, «ez deiegun poloniarrai santu martiririk emon» esanda, Siberiako zigor-lekutara bialtzea erabaki eben azkenez.

Siberian amar urtez

Siberiara doa, beraz, Kalinowski. Ez doa bakarrik, beste errikide asko ditu lagun. Zortzi illabete egingo zituen ara eltzen. Bidaldi aspergarria eta ilgarria askotxorentzat. Baikal ingurura doa ango uretatik lurrunduz gatza ateraten. Santutasun-eskola ederra izango dau angoa. Bere zigor-lanez ganera, bere lagunen alderako beste asko egiteko astia aterako dau: zigor-lagunen semeai eskola emoteko, eta andik onez aterako bazan, abade izateko erabagiago eta gogotsuago dagoan ezker, teologia eta eleizearen edes-tia ikasten emongo ditu ainbat egun eta ordu. Askotan eskatuko deutse bere guraso ta etxekoai beretzat eta ango-eskola-umeentzat libururik bearrezkoenak ikasteko eta irakurteko, umeentzako ipui-liburuak bere bai.

Bada an zigor-lanetara bialdutako eleiz-gizonik. Meza entzuteko ta gure Jauna egunero artzeko aukera erreza dau. Eukaristiatik aterako ditu indarrak ez bakarrik ango lanbide latz neketsua onez eroateko, lagun urkoari era askotara laguntzeko eta guztiakaz beti lagungin alai, anaikor eta eroapen onean bizitzeko. Lagunak ez zituen guztiak atsegiñak beti, eurakako artu-emonetan sarri indar egin bearko eutson bere buruari, beti bere buruaren jabe izaten ikasteko.

Etxera bialtzen zituen kartak erakusten deuskue zelan izan jainkoagazko bizitzan gero ta argituago ta aurrerago. An ikusi dau asko jakiteak gizona ez dauala gizonago eta ohea egiten berez. Askok, eskola andi barik, badakiela gizalege obeak biziten eta beste asko ez dirala gaizto benetako gaiztakeriz ez-jakitez baiño, eta onangoak errukiz onartzen daki.

Eskerrak emoten deutsoz Jainkoari lagun urkoaren premiñen aurrena biotza ez gogortzeko grazia emon deutso-lako. Eta maitasun-agiririk asko emoten dau Siberiako laguneren artean. Esaterako an etxekoan laguntza barik premiña andiangoan dagozanai diruaz laguntzen. Bein 600 rublo artu ditu bere aitak bialduta, ainbeste diru eskuan ikusita, eun rublo beretzat gordeta, beste bosteunak lagun premiatsuagoen artean banatu ditu. Beste bein oiñetako pare bi bialdu deutsoez, eta biak emon ditu laguneren artean. Olako mesedeak egiteko aukera izatearren, askotan joten dau bere etxekoak gana, dirutan edo janaritan edo soiñekotan geiago bialdu deioen. Siberian dagozanak artzen daben jana, oso urria da; baiña bein aragia izan daben baten, bai jango ez jango ezbaian jarri dau bere barruak, berea baiño makalago dagoan batentzat emotea ez ete dauan obe izango, eta baraurik gelditu da eta lagunari emon deutso. Etxekoai kartan esaten eutsenez, Jainkoak iñozko pozaldirik saritu ei eban egun orretan.

Siberiako erbeste-lagunen artean, lenago bere ezagunen artean lez, santu izena irabazi eban bete betean. Eta ez bakarrik poloniar katolikoen artean, bai protestante edo ortodoxoen artean bere, eta onako batzuk katolikoen arteko bere irabazi zituen.

Olako autormen benetako egin eutsan Siberiako erbestera bialduta egoan gizon jakitun batek, Benito Dybovski jaunak (1833-1930). Gizon osalaria eta abere-bizitzaren aztertzailea zan. Baikal-uretako foken bizitza aztertzen eragoion. Lan orretan Kalinovskik bere laguntza emon eutson, ango foken marrazkiak egiten eta abar. Kalinovski bere laguntzailea il-barritan, 1908n autormen eder au emon eban bere beiñolako langutzaillearen alde: «Santu izenik iñok merezi badau, lenengo ta bein niretzat Kalinovski gogoangarria. Aingeruen oroimen guztiak izan zituen, gizonen griña txarrik bat bere ez. Aren aingeru-antzeko eroopen ona, aren gizatasuna, aren gozotasuna, iñoren eritxientzako begirunea gaurko gizonen artean ez dogu aurkitzen; olakoxea zan bera».

Barrero bere aberrira abade eta fraide izateko

Aspalditxotik ei ebillen Siberiako zigor-lagunen artean parkamen-egunak etorriko jakezalako zurrumurrua. Kalinovskiri 1874n etorri jakon aberrira biurtzeko baimena, Lituania aldetara izan ezik. Orain abade eta fraide izateko eragozpenik ez dau, eta bere ames non ta zelan beteko eragiten dauan bitartean, Czartoriski Poloniako printtetakoak Augusto umearen irakasle eta onulari izatea eskatu deutso. Augusto onen aitak bere asmoak zituen, bear bada, semea Kalinovskiren eskuetan ipiñi ebanen, poloniarren askatasun amesak biztuko eutsozalakoan edo. Jainkoak beste asmo batzuk erabillazan, antza, Augusto Czartoriskientzat Kalinovskik santutasunerako

eskola ebalu dirudi. Don Boscoren semeen artean sartuta, gazterik il zan, eta gaur, aspalditik, santuen maillara igoteko azter-lanak asita daukaz.

Iru urtez iraun dau Kalinowskik Czartoriskiren maixutza orretan eta 1877n Karmeldarren artean fraide eta abade egiteko artuko dabe.

Jose Kalinowski zana karmeldarren artean Errapel aita biurtu

Karmeldarrak orduan ez euken Polonian fraidegeiak azteko etxerik, eta Austrian, Gratz-en artuko dau Karmengo amaren soiñekoa eta urrengo urtean Hungarian abadetzarako ikasketak asita jarraituko ditu; 1881n Poloniako Czernako komentura bialduko andik laster 1882n bertan abadetza artzeko. Une onetan aita Errapel biurtu da eta goitizentzat Jose Santuarena eroango dau; Errapel aita Jose Santuarena.

Orain bere gogoko bizitzan sartu da; abade eta fraide Eleizearen arimen onetan Jainkoarentzat eta arimentzat bere bizia eskintzeko.

Bere gogoko dau otoitz ordu luzeak egitea bere gelan edo altarako Sakramentuaren aurrean; gogoko dau eleizan autortegian parkamen sakramentuan arimai Jainkoaren parkamena, argia, bakea ta poza emotea, eta Jainkoaren berbea entzuleai azaltzea; ez dau berba uts eta otza biotzetik biotzerakoa baiño. Ezagun dau bere berbak barru barrutik urteten deutsoela, Jainkoaren eta lagun urkoaren maitasuna daroala.

Santutasuna agiri agirian dario. Santutzat dauke fraideak eta laster sartu dabe euren batzar nausietan; iru bider egin dabe nagusi Czernako karmeldegian; beste iru bider Wadowicen etxe onetako fraide-bizitza zuzendu dagian; probintzi osoko batzarretan iru bider, bederatzi urtez euki dabe batzarreko nagusiaren onulari.

Bere egunetan aurrera egin dau karmeldarren bizitzak Polonian. Karmeldar motategiak askotan egin dabe euren animaren zuzendari eta sarritan egiten deutse dei eurai amar eguneko gogo jardunak emoteko.

Bere autortegira mailla guztietako gizon eta emakumeek jatorkoz argi billa, poztazun billa, euren arimaren bakearen billa eta guztiei bardin eroapenez eta maitez erantzuten deutsoe. Bizi dan errian pekaturako biderik bada, ez dau onik izango bere alegiñak egin barik, eta gazte galduak ohera bidean ipinteko.

Eleizearen batasunaz arduratuta dabill. Batez bere Rusiaren azpiko kristiñauen egoerak kezkatzen dau. Kristiñauen banakuntza urragotik ikusten dau an. Berak bat baño geiago ekarri ditu eleiza katolikoaren magalera; baño eztabaidatan sartu barik. Bein etxera bialdutako karta baten idazten eutsen: «Arrazoiketak, eztabaidak, barriketak sarritan gauzea txartoago ipinten dabe. Santa Monikaren jokabidea da onena; gaiñerakoa Jaungoikoak egingo dau». Alan eten barik eskatzen eutsan berak Jañkoari eleizearen, Kristiñau guztien batasuna, guztiak bat etortea. Onetan Poloniari egokiola uste eban berak batasun ori elburura eroatea, bere inguruan beintzat. Olantxe bizi zan bere Jainko-miñak jota, batasun-gureak erreta.

Alderdi au ez da gure fraidearen santutasuna gitxien erakusten ebana. Santu zalako ospe onek lagundu eutsan len eta gero. Baña berari ez egoan lotsarik geiago

emoten eutsanik santu ospe ori baño. Pekatari andientzat eukan bere burua. Alan esaten eutsen autortegian pekatariarik andienari.

Baña esagutzen eben guztiak benetan santutzat euken, eta santu zalako ospetan il zan 1907an. Bere azkenengo 30 urteak karmeldarren bizitzan eroanda, Wadowiceko karmeldegian eta an fraideak euren illerririk ez eukelako Czernan emon eutsen lurra gorpuari.

Erriak bere bizian santutzat eukana gaur eleizeak santuen maillara jasoten dau. Luzea izan da santutasun ori aztertzeke izan oi dan auzia: 1934an Krakovian asi eta beste sortzi eleiz barrutitan jarraitu. Erromako eleizeak 1953tik aurrera artu esan bere kontura eta 1976an amaitu zan, aurkako eta aldeko errazoï ta argi bideak entzunda gero.

Bitarte orretan Krakoviako gotzai zan gaurko Aita Santua Joan Paulo II, eta birritan goratu eban Kalinowski 1963an, eun urte lenago poloniarrek euren askatasunaren eske jagi zirala gogoratzeko jaietan eta 1966an Polonia kristiñau biurtu zaneko millagarren urtean. Azkenengo urte onetan egin eban sermoian onela esan eban: «Emen alkartu gara gaur Czernako karmeldarren eleiza onetan arima andi bategaz bat egiteko, poloniarren bateoko millagarren urte aiztu eziñekoan. Guztiok dakizue arima andi au nor dogun, Aita Errapel Kalinowski, Aita Karmeldarra; emen doguz beronen gopuzkiak zoriondunen maillan jarteko grazia noiz etorriko jakon zain. Ori lortzeko lanak aspaldian asi ziran eta aurrera doaz... Grazi orren eske dago Poloniako Karmeldegì guztia, onen eske dagoz Krakoviako Fededunak, batez ere inguru onetakoak... Askotan eskatzen dogu eta zuok guztiokaz batera gaur ots andiagoz eskatzen dogu Jaungoikoaren serbitzari au, gure abertzale maite au altaretara jasoa izan daitela Jainkoaren erri guztia obeto argitzeko».

Ori esatean orduko Woytila gotzaiari ez eutsan bere buruak emoten bera izango zala, Jainkoaren serbitzari ori il zan errian Wadowicen jaia izango zala, euren abertzale andi ori santuen mallan jarriko eban Aita Santua. Beronek jarri eban zoriondunen mallan orain dala zortzi urte, eta aurten santu osoen mallara daroa. Gaurtik aurrera santu barri bat izango dogu: Errapel Kalinowski deuna, gaurtik aurrera santu oso lez ospatuko dogun santu barri au.

V
LIBURUEN BARRI-EMOTEAK

DICCIONARIO DE AUTORIDADES DEL EUSKERA*

Es un diccionario del euskera al castellano que nació y fue formándose a partir del fichero de voces vascas recogidas por D. Manuel de la Sota.

Y vaya por delante la afirmación de que D. Manuel de la Sota fue todo menos un simple hijo de su padre. A su condición económica desahogada supo unir afanes desrurales por la cultura universal y en particular por la cultura de su pueblo, el pueblo vasco. Su personalidad es notoria. No hace falta enumerar sus creaciones en el mundo del teatro, conocidas algunas en su versión euskérica, ni otras producciones y ensayos en castellano o francés.

En el mundo de la cultura vasca, es destacable su interés por toda la obra literaria euskérica, bien comprobada en su adquisición del mayor fondo posible de fondos de la literatura vasca de todos los tiempos, en una época en que su adquisición suponía el gasto de fuertes sumas de dinero. Y no lo hizo por el simple prurito de adornar su biblioteca, sino para su lectura atenta. En su casa de Etchepherdua, en Biarritz formó así un fondo de libros vascos, de revistas, semanarios vascos, y de manuscritos conteniendo Vocabularios euskéricos de los más famosos lexicógrafos del siglo diez y siete al diez y nueve; Silvain Pouvreau, Joannes Etxeberri, Duvoisin, de Harriet.

De su lectura le nació la idea de entresacar de ese fondo euskérico las voces y expresiones que no le aclaraban los diccionarios al uso, con las que ir haciendo un fichero de voces y expresiones vascas, con miras a completar el Diccionario ya octogenario del gran Azkue y el posterior del jesuita Pierre Lhande.

* «Diccionario de Autoridades» iztegiaren aurkezpenean A. Linok Bilbon erderaz egiñiko berbaldia (1989).

El no se creía competente para juzgar del valor de su fichero y pidió el asesoramiento del juez más competente que tenía más mano: El asesoramiento del académico de la Lengua Vasca, el P. Pierre Lafitte, cuyo juicio sobre la obra de Sota fue de plena aprobación. Pierre Lafitte le ayudó incluso para aclarar el sentido de muchas palabras, cuyo significado no alcanzaba el consultante. Es un servicio que Sota agradeció tanto al canónigo laburdino que quiso hacerle a este coautor de su obra, y que el nombre de Lafitte fuese agregado al suyo como tal.

El siguiente paso dado por Manuel de la Sota fue buscar a quién encomendar el aprovechamiento y posible utilización o publicación, de todo. Y tras varios intentos frustrados encargó de su publicación a la Gran Enciclopedia Vasca fundado pocos años hacía por el Sr. Martín de Retana, en Bilbao.

El proyecto de publicación pasó por dos etapas: una, muy corta de dar a la estampa como suplemento al Diccionario de Azkue; y la segunda, que sería al final el proyecto que prosperó. Ya no sería un complemento al de Azkue, sino un Diccionario nuevo total del Euskera, incluyendo toda la aportación de Azkue, De Lhande y toda otra aportación posible.

Al P. Lino Akesolo le cupo por decisión de Manuel de la Sota, la tarea de recoger el material por él elaborado, revisarlo, de expurgarlo, de subsanar sus posibles errores, en primer lugar; y en segundo lugar, una vez aceptado el segundo proyecto, de completar el trabajo hecho, con la aportación de nuevas fuentes, propias o ajenas, para que el Diccionario resultase el más completo posible.

Entre las nuevas fuentes utilizadas hay que contar varias contribuciones al Diccionario vasco bien conocidas, como las del P. Cándido Izagirre, bien valiosa por cierto, acerca del vocabulario de la zona de Oñate, y otros puntos de la geografía vasca; la de Toribio de Etxebarria, de la zona de Eibar; las dos o más contribuciones del Dr. Justo Gárate; las del P. Dámaso Inza, producto de sus correrías por diversas zonas de Navarra. Otro Capuchino, el P. Iraizoz, puso en nuestras manos su vocabulario de voces estraídas del fecundo escritor navarro, párroco en las proximidades de Pamplona, Joaquín de Lizarraga, del siglo XVII al nuestro, por nuestra parte, aportamos el material extractado de nuestros expurgos en muchas obras y revistas euskéricas, y también de materiales directamente recogidos del pueblo.

Nuestra dedicación a este obra se ha prolongado durante unos 15 años, trabajando en jornadas diarias mañana y tarde.

El Padre contaba con la colaboración del escritor D. José Lasa, hasta que, por los años le abandonó, falleciendo al poco tiempo, y la del joven bilbaino D. Koldo Ortega, práctico y experto en quehaceres de linotipista, sobre quien ha cargado todo el peso de la obra en todo lo relacionado, dejando el material listo para la imprenta, con una entrega tal que le ha llevado a mezclarse con los mismos linotipistas para acelerar y ultimar la impresión, sobre todo los últimos días. Y hay que destacar un detalle increíble para los días que corremos: que todo se ha realizado, como quien dice a palo seco, sin la ayuda de ningún ordenador.

Los tomos fueron saliendo a un ritmo bastante regular. Los dos primeros tomos pudieron ver la luz el año 1976; llevan fecha del año 1977 el tomo tercero y cuarto;

al año siguiente, el año, 1978 está ultimado el tomo quinto, aunque tardó dos años en salir de las prensas; y el tomo sexto estará ya fuera de las prensas el año 1981. Pero tanto el tomo quinto como el sexto quedarán retenidos en las imprentas. Se ha producido un parón en la continuación de la obra, un parón que ha durado seis años. Hasta que el año pasado de 1988 vino la mano salvadora de Ernesto Gutiérrez y su Grupo Editorial Amaia. Inmediatamente se ha reanudado y acelerado el ritmo de edición de la obra completa, con la encuadernación de los tomos quinto y sexto, y se han completado o impreso los tres tomos últimos. Impresores, autor y coordinador han trabajado a marchas forzadas para dar cima a la obra con el resultado que estamos celebrando, felizmente.

Nos estaban llegando demasiadas voces que preguntaban qué pasaba con el Diccionario, por qué se había truncado, y si no se reanudaría su continuación. Hoy podemos darles la respuesta tranquilizadora. Hace un año hubieramos soñado con este término feliz. Ya quedan colmados los deseos de unos y de otros, de los autores y de los que estaban pendientes de ver terminada la obra.

Creemos que la obra merecía la pena. Ese era el sentir de los que conocían los cuatro primeros volúmenes. Para nosotros ha sido una gran satisfacción ver la obra citada y utilizada por filólogos de mayor prestigio, como Luis Mitxelena. Creo que viene a llenar un vacío en la recogida del fondo lexicográfico euskérico. La otra de Azkue pasa ya de octogenaria y la del jesuita Pierre Lhande data de hace cincuenta y tantos años. El euskera no está sobrada de estas incursiones en su fondo léxico. Todavía hay mucho roturar en este terreno, tanto el pueblo que habla y vive el euskera, como en el de la producción literaria más castiza, manuscrita o publicada. La obra que se presenta hoy es rica en voces recogidas en la literatura, casi desconocida hasta ahora, de las revistas y semanarios, que aparecieron en la segunda mitad del siglo pasado y han continuado en el presente. *Euskalzale* e *Ibaizabal*, semanarios fundados por Azkue, *Euskalduna* y *Herria*, de la zona allende los Pirineos, son buena cantera de voces, expresiones limpias y expresivas del euskera que no podemos ignorar. Y los escritores actuales podrían aprender mucho en esas fuentes.

Extraña muchas veces que sigan vivas en el lenguaje del pueblo voces que jamás se leen en nuestros escritores actuales. Y se trata a veces de voces que son comunes a todos los dialectos. Hay un recurso demasiado fácil a palabras extrañas, calcadas en palabras erdéricas, lo mismo se trate del castellano, gascón o francés. Un día pude oír a un escritor de allende el Bidasoa que para entender algunos escritores actuales euskéricos había que conocer mucho castellano. Escritores de otras lenguas se esmeran en estudiar en profundidad el vocabulario propio de su lengua, buscando los matices propios de cada palabra. En nuestra literatura se hecha de menos ese esmero, tal vez por falta de medios para evitar ese defecto.

En el Diccionario que presentamos no es que falten palabras de origen erdérico. Se han incluido bastantes de esas voces extranjeras, cuando han sido autorizadas o utilizadas por escritores de algún prestigio. No se admiten ni como castizas ni autoridades de la lengua, sino como simples testigos más bien de una corriente por la que ha pasado la lengua, como lo hizo y gustaba de decir el filólogo Luis Mitxelena.

Nuestras publicaciones no tienen, como por ejemplo, ningún Lázaro Carreter que denuncie y trabaje por denunciar y poner coto a ciertas alegrías de tanto escritor que llena las páginas de nuestros diarios. Unos y otros tenemos mucho que aprender y de tomar más en serio el estudio de nuestra lengua, de adquirir un vocabulario más rico, más matizado y expresivo, como lo hacen escritores de otras lenguas y no limitarnos a la consulta de diccionarios de instrucción primaria, con los resultados que están a la vista.

En este punto, cuántos lamentan el retraso en la publicación del Diccionario fraseológico que hace años lleva preparado el escolapio tolosarra, el P. Justo Mari Mokoroa.

Mientras esa hora no llega, creemos haber hecho una obra merecedora del esfuerzo realizado en la preparación del Diccionario que hoy se presenta. Y todo ello, gracias a la laboriosidad de don Manuel de la Sota, y a la generosidad con que puso en nuestras manos el fichero por él espigado en sus lecturas, y gracias al espíritu tesorero y emprendedor del Grupo Editorial presidido por el Sr. Ernesto Gutierrez. Y a un aplauso especial es acreedor la colaboración experta e incansable que ha sido en todo tiempo, el joven bilbaino Koldo Ortega.

NOLA SORTUA ETA BURUTUA DEN GURE IZTEGIA*

Gutxi gora beera ala dio guztiok, noski, jaso duzuten deitxartelak. Nere itzak gai orri eldu bearko dio, beraz: iztegi onen nondik norakoa, noiz eta nola sortu zen asmoa eta nola eraman izan den burura, nolako iturrietatik atera dugun emengo itzen bilduma.

Aldez aurretik, bijoa aitormen garbi au: ez dugula guk ezer berririk asmatu, ez bide berririk ez itz berririk. Bide jakiñetatik, leendik urratuetatik ibilli garela. Zeatzago esateko, Azkue zenak bere Iztegi andian erabillitako bide berberetatik ibilli garela iztegi onetan. Iztegi onek, ezer izan nai badu, Azkuek sail onetan egindako lana aurrera eraman nai izan du, Azkueren iztegiaren osagarri dator.

Gure mendeko iztegi gilleen artean bi izen agertzen zaizkigu gailen: Azkue eta Lhande. Biok iztegi gille jatorren iturrietara jo zuten: euskera bizira, alegia, euskaldunen aotan gorderik eta bizirik dirauen euskera jaso eta biltzera, leenik, eta urrenik, gure izkuntzak bere literaturatxoan aozkoan naiz idatzizkoan utzi dituen aztarnak, argitaratuak naiz argitara gabeak, bildu, aztertu eta argitzera. Gure iztegi onetan ez da besterik egin. Eta guk artu dugun bide au ongien urratu zuena Azkue izan dugun ezkerero, gure iztegiak Azkuek egindako lanaren jarraitzaille eta osagarri izan nai du.

Ain zuzen, Iztegi au argitaratzeari ekin zion argital-etxeak, Bilboko *La Gran Enciclopedia Vasca-k*, asi-asieran Azkue zenaren iztegiaren geigarrizat argitara ematea beste asmorik ez zuen erakutsi, Manuel Sota jaunaren euskal-itzezko fitzez baliatuz. Eta nork ote daki gaur, inprentatu ere egin zela tomo bat, olaxe, Azkueren

* «Diccionario de Autoridades» iztegiaren aurkezpenean Donostian L. Akesolok euskeraz egiñiko berbaldia (1989).

iztegiaren geigarri bezala eta Basauriko Udaletxearen sariketara bialia izan eta saria ere eraman zuela?

Baiña gaur ere, asmo berria arturik, gero agertu den *Diccionario de autoridades del Euskera* edo Adibidedun Euskal-iztegia delako onek Manu Sota jaunari zor dio geien. Manu Sota du abiarazle. Jaun onen euskal-fitxetan du jatorria.

Zer eta nor dugu, ordea gizon au, eta zer da emen egin duena? Iztegi onen buruan ikusi dezakezute, Manu Sota dela iztegiaren egilleen artean leenen datorren izena. Asko zaudete jakitun, noski, nor genuen bera: Bilbon politika jakin baten jarraitzaile eta ekintza askoren bultzatzaile izandako Sotatarren artekoa, alegia. Etxe on eta aberatseko semea zen gizon au ez zen aberaskume utsa ifiondik ere. Kultura andiko gizona izan zen, eta euskal-kulturaz ere biziki kezkatua. Eskuarte ere bazuenez, Manu Sotak, bere anaia Ramonek bezala, ez zuen egokierarik galduko munduan zear sakabanaturik zeuden eukal-liburu zaarrik eta bakanik aurkitzen bazuen, erosi eta Euskalerriratzeko. Manuk, orrela, euskal-liburutegi aberatsa bildu zuen beretarren Miarritzeko etxean, euskaldunen eskurago geldi zitezen. Gaur, Baionako Euskal-museoa da, Sotaren eskutik artuz, ezin bide bezala eskertzeko eskuerakutsien jabe zoriotsu, Bilboko Biblioteka andi batek Sota Jaunaren eskeintza ezin zabalagoari muzin egin ziolako.

Eta ifiork ez beza uste, Manu Sotak euskal-literaturazko altxorak bere etxeko bibliotekako apaingarri utzizateko biltzen zituenik. Berak irakurri eta ezagutzeko leenbizi. Banan-banan irakurten zituen, eta luma eskuetan zuela, irakurri ere, ulertzen ez zituen itzak edo ta iztegietan aurkitzen ez zituenak kopiatzeko, argitzailleren baten zain.

Onela, euskal-itzez osatutako fitxak betetzeko oitura au gazte gazte samarrik artu omen zuen Sotak, Berak bein aitortu zigunez. Ogeita amaseiko gerratean fitxamordo ederrak omen zeuzkan pillaturik. Gerrateak eraman eta galdu zizkion. Gerrate ondoan berriz egin zion leengo oiturari, eta zorionez, gero ta biblioteka ugariagoaren jabe egiteko aukeraz baliatuz. Liburu erosi berriak irakurtzea eta euskal itzezko fitxak pillatzea izan ziren Manurentzat bere etxeko orduak betetzeko egotekorik maiteenetakoa, Miarritzeko egunetan.

Eta alako batez, arazo berria sortuko zaio: zer egin fitxategi orrekin. Noren eskuetan utzi? Leen eta bein, euskalari on eta jakintsu baten laguntza billatuko du: Piarres Lafitte apaizarena. Oni eskatu dio dena ikusi, ulergaitz egin zaizkion itzak argitu eta gaizki ulertuak zuzendu ditzala. Lafittek bere zuzenketak egin eta argibideak eman ondoren, osozko on-iritzia eman dio aurkeztu dion lanari. Argitara ematea merezi omen du. Ori eskertzeko, Sotak, bere iztegi-lan orrek argirik ikusi bear balu, bere izenaren ondoren iztegiaren egilletzat Lafitte jaunarena ageri zedilla erabaki eta agindu zuen.

Eta urrengo arazoa: Noren eskuetan utzi fitxategia argitaratzeko naiz azterketa, tresnatzat erabiltzeko? Euskal-erakunderen bati utzi nai lioke. Ara eta orra jo du, oso esku zabalez, iñolako ordaiñik eskatu gabe. Ez du erantzunik jaso ifiondik. Eta gainbegiraturik ere egin gabe, nonbait; iztegi kontuan ganorazko lanik egiteko gaitzat ez zeukatelako edo, ez erantzun egin zioten. Azken batean, Bilbon agertu zaio arrera

obea egiten diona, edo, obeki esateko, arreta osozkoa: J. M. Martin de Retana, berriki *La Gran Enciclopedia Vasca* argialetxea sortu duena. Jaun onek eman zion, 1969n, irteera, ain zuzen, Azkue zenaren Iztegiaren edizio faksimilari, eta esan bearrik ez, pozik eta gogo beroz artu ziola Sotari bere fitxategiaren eskeintza. Nik nolabaiteko parte artzea izan nuenez Azkueren edizio faksimil orretan, bai Sotak eta bai Retanak nere eskue tan utzi zuten zorioneko fitxategi ori. Orrela, nere eskuetara etorri zen inprentarako prestamenak egitea.

Leen esan dut nolako urratsak eman ziren ortan. Leenbizian, dena Azkueren Iztegiaren geigarri bezala ateratzeko saioa egin zen. Baiña, laster, 1974tik aurrera, saio ori bazter utzi zuen argialetxeak, eta Sotaren fitxategiaz gaiñera bildu aleko iturri berri guztiak bildurik, euskal-iztegi berri osoa atera bear genuen.

Eta orra nola izategi berri osoa antolatzeari eman genion asiera, orain dela amabost bat urte. Auxe duzute orain bederatzi tomotan buruturik argitara emana daukagun iztegia, gaur emen aurkezten duguna.

Iru gizon biltzen giñen goiz eta arratsalde, mai baten inguruan: Jose Lasa argialetxearen begirari bezala; nerau, lan osoaren arduradun eta Koldo Ortega, laguntzaille eta lan osoaren inprentarako prestatzaille. Olaxe, iruron artean eraman genuen lana, Lasa Jaunak argialetxea utzi zuen arte, andik geroxeago iltzeko. Koldo Ortega eta ni bakarrik gelditu giñen arrezkero.

Lanak abiada txarra ez zuela eraman egiaz esan genezake: 1976n bi tomo kalean zeuden, eta Donostian giñen ale bat edo beste emengo kultur-gizon batzuen eskuetan uzten, ea norbaitek iztegiaren berririk ematen ote zuen. Guk dakigula, ez zen iñolazko berririk ez txostenik agertu. Miarrizera ere azaldu gifien bi ale Sota Jaunaren eskuetan uzteko, bat Sotarentzat berarentzat eta Lafitte jaunarentzat bestea. Bi urte geroago plazaratu ziren irugarren eta laugarren tomoa. Berriz ere ez zuten oiartzunik izan. Mitxelena jaunak egiten zuen noizik bein aipamen bat edo beste bere azter-lanetan. Beste bi urte geroago, or zen inprentaturik bosgarrena, eta urrengo urtean, 1981koan, seigarrena.

Ordurako, argialetxearen eta inprenten arteko arremanak, ekonomi arremanak ez zebiltzen ongi, eta azkenengo bi tomoak, bosgarrena eta seigarrena inprentetan gelditu ziren nolabaiteko baiturapean eta geldi, joan den urtean, 1988garrenean, esku ongille bat agertu zen arte. Eta esku ongille au Bilboko *Amaia* etxeak eta Madrilgo *Lorer* etxeak buru duten Ernesto Gutierrez jaunak luzatu du. Esan dezadan gizon au, aurkezpen au antolatu ere duen au, gaztelarra dela jaiotzez baiña, Bilboko Santutxu auzunean urtetan zear bizi izana dela eta Bilbon, ain zuzen karmeldarrak duten parrokian bataiatutako alaba bat ere baduela. Ortik gure gauzei dien atxikitasuna.

Ernesto Gutierrez onen esku laguntzailleari esker inprentetan erantzun zeuden zorrak garbitu eta kitotu al izan dira, baita bosgarren eta seigarren tomoak jasaiten zuten baitegitik atera ere. Iztegi onek bukatu gabe gelditzeko bidea zeraman. Beste oker bat ere 'etorri zitzaion gaiñera: zazpigarren eta zortzigarren tomoen zati batzuk inprentaturik zeuden arren, puzka bat baiño geiago galdu ere egin zizkigutela. Sei bat urte joan zaizkigu lana bukatu ikusteko uste guztia galdua genuela. Noizik bein eltzen zitzaigun ala-olako otsik edo zurrumurrurik norbaitezuen eragitez argitara

ateratzeko, argia ikusteko ordua gainean genuela, baiña zurrumurrua besterik ez zen dena. Gauza ziurrik eta garbirik ez genuen jakin joan den abendura arte, edo udagoenera arte. Durangoko euskal-liburuen azoka egunetara arte.

Orduan ezarri genizkion eskuak azkenengo lanari: zazpigarren eta zortzigarren tomoak bukatu eta bederatzigarrena oso osoan inprentara biali eta burutu. Zorionez, joan den urteko abendutik aurtengo aprillera azkenengo iru tomoak eskuetan genituen, amaika nekeren eta lo galduen ondoren, berriz esateko, Ernesto Gutierrez jaunaren laguntzari esker. Ez da batere arritzekoa baldin jaun onek eta bere taldekoek iztegi au beren seme kutuntzat artu badute eta Euskalerrian zear alegiñak alegin egin nai badituzte berau aurkeztu eta ezaguerazteko.

Luzeegi jo ez ote dudan nago lan onek eman dituen neke ta ezbearrak gogoratzen. Ordu dugu orain beronen mamiari begirada bat emateko. Askok egiten digu galdera au: Zer da iztegi au? Zer da ematen diguna? Zertara dator? Labur esateko, orain arteko euskal iztegiak osatzera dator, euskal-itzen bilduma ugaritzera. Orain arteko iztegiak baiño ezaguera zabalagoa eskaintzen dio euskaldunari, euskera sakonago eta zearoago ezagutu nai duenari. Orretarako lan tresna egokia izan nai du.

Iztegigille jakintsu eta trebatuenen bidea artu da emen, eukal-itzak euskal-literatura alik eta osoenean billatu eta jasotzera jo da, batez ere. Eta literatura diogunean, ez ditugu inprentatutako liburutan agertu izan den literatura bakarrik aipatu nai. Gure literaturatxo zarrak baiño geiago eman du, noski, beste literatura batek, erriarekin ar-eman estuago eta urbillagokoak izan dituen astekari eta aldizkaritan joan den mendez ona agertu denak, alegia: Iparraldean, *Eskualduna* astekaria, *Fedearen Edameneko* edo *Propagazioneko Urtekaria*, *Gure Herria*, *Herria*, eta abar; Bizkaialdean, Azkuek sortutako *Euskalzale* eta *Ibaizabal*; Gipuzkoa eta Nafarroa aldean, *Zeruko Argia*, *Argia*, *Euskal-Esnalea*. Olako aldizkarietan euskal-idazlerik asko saiatu izan da euskera bizi, jator, aberats eta gozatsua erabilten. Olako iturrietatik nasaiki edan du iztegi onek.

Gero, joandako mendeetan ere izan da iztegillerik euskaldunen artean beren lana argitara gabe gelditu bada ere: Ala, Sylvain Pouvreau, Etxeberri Sarakoa, Harriet, Duvoisin, Darrikarrere eta abar. Sota jaunaren bitartez etorri zaigu ona olako iturrietako aberastasun ugari. Jaun onek aipatu ditugun iturrietatik eskukadak ekarri ditu berak utzi zizkigun fitxetara. Askok eta askok gaur ikusten dute argia leenbiziko aldiz.

Gero or daukagu geure erri euskaldunari aotik darion iturria, oraindik agortu gabea. Azkue andiaren ondoren, askok egin dituzte murgilaldiak eta billaketak errialdeen batean edo bestean edo ta idazleren baten argitaragabeko orrietan itz berri jasogabeen billa. Guk aztertu eta erabili izan ditugunetan ona aipagarrienetako batzuk; Aita Kandido Izagirre, Arantzazu inguruko itzen biltzaille azkar eta trebea; Torbio Etxeberria, Eibar aldekoa; Polikarpo Iraizoz, Lizarraga Elkanokoaren iztegiaren biltzaillea, aren esku-iskribuetatik (gero *Fontes* aldizkarian agertu zuen iztegia argitaratu aurretik) gure eskuetan utzi zigun: Justo Garate poligrafoa eta Orixe idazle bikaiña, biak ibilli izan diren leku guztietan euskal-itz bilduma asko egindakoak.

Erriko itz-altxorra naikoa aztertu gabe edo jaso gabe daukagu oraindik edo bertan beera utzita. Ainbat itz eder eta bizi entzuten dira euskaldun jatorren aotan, iñoiz ere

idazleen luman ikusten ez ditugunak, batzuk EuskalERRI osokoak izan arren. Inoiz jakintsuren bati gertatu zaio olako itzen bat liburuen baten aurkitu duenean, *hapas legomena* dalakotzat ematea, askoren aotan bizirik dirauana izan arren.

Arlo au, erriaren aotiko itzena, zearo ikertu gabe daukagu, eta emen geure alegintxoia egin nai izan dugu iturri ontaz baliatzen. Iturri bizi au eta are literatura zaarreko iztegia ez dugu zeatz bildu euskaldunok. Badirudi liburu askotxo zeatz azterturik ditugula, baiña gutxien uste denean aurkitzen da oraiñarte oarkabean irakurri dugun itzen bat, edo adiera berrien bat duen bat edo beste.

Emen esanak zer adierazten digu? Euskaldunok badugula iztegi kontuan zerbait ikasi bearra, eta ortan saiatu bearra. Edozein izkuntzatan gertatzen da berdin. Edozein erdalerritan ez da bertako izkuntzaren jabe egiterik nekerik artu gabe. Eta arazo andiena ez da itz berriak eta teknikazkoak zein erderatik eta nongo izkuntzatik artu bear ditugun erabakitzea eta ortaz amaigabeko eztabaidak sortzea. Leen leenik, nork bere izkuntza sakonen ikasi eta menderatzera jo bear du. Ori egiten dute idazle jatorrak edozein izkuntzatan. Arrotasuntxotzat daukate, edo Axularrek esango luken bezala, sendagailla egiten dute, alik eta zeatzen, garbi eta jatorren idaztea. Bestelakoa da geiegitan gure arteko jokera. Zabartasuna edo zabarkeria ez ote den uste dut gure arteko askotxoren legea.

Presaka eta lehiakarrean gabilta orain egunero irakurlearentzat zerbait berri eman bearrez, baiña burua erderez josirik daramagu, erdal giroak menderaturik daukagu, euskera aberatsago baten jabe egiteko ez dugu astirik artzen, eta ala askotan erdal-itzez edo, gaiztoago dena erdal-gaiztoz jositako euskera ateratzen zaigu.

Geure iztegia obeki ezagutu bear andian gaude. Eta ori lortzeko lagundu nai lioke iztegi onek euskal-idazleari. EuskalERRI guztietako itzak aurkituko ditu emen. Inongo itzik arbuaiatu gabe, euskalkiak ere elkar aberastu bearra daukate. Mitxelena jaunari eta Lafitte kalonjeari entzuna naiz euskerak ez duela inoizko ez inongo itz-ondasunik arbuaiatu bear. Eta euskal-itzen utsen jabe egitea ez dugu aski; itzak elkarrekin jostean sortzen diren erabillera eta adiera ezberdiñen jabe egin bearko gara. Ontan luze-eritzirik gaude, ea noiz emango diguten Aita Mokoroaren esaera-iztegi ain aberatsa. Gure idazleen euskera biziago eta aberatsago egiten lagunduko duelakoan gaude. Bidean da Mitxelena Jaunak prestatutako *Orotariko* Hiztegia ere.

Mitxelenaren lana eta Mokoroarena datozkigun bitartean, gure iztegi onek bere mesedea egingo dielakoan gaude bere euskara aberastu nai dutenei. Emen dute non-naiko ta noiz-naiko euskal-literaturaren izpillu bezalakoa, emen gaurkoz euskal literaturan eta euskalki guztietan bildutako euskal-itzen bilduma ugariena.

Diccionario de Autoridades darama titulutzat. Ez du guk ezarritako titulua, leenengo orduko argital-etxeak jarritakoa baizik. Nola nai ere ez du esan nai emen dauzkagun itzak eta emen sartu diren testoak eredutzat artzekoak direnik. Adibidetzat daude, noizbaiteko eta nonbaitako euskaran lekukotzat daude. Norbaitek erabilliak, izan direla, norbait aitorde badutela esaten digute. Gure literaturak eredu osozkotzat artzeko idazlerik gutxi eman omen du. Ain zuzen, orrexegatik, Mitxelenak ere gure idazle zaarrei klasiko izena baiño lekuko izena ematea obetsi zuen.

Guk dagoen dagoenean, bere uts eta akats guztiakin, euskaldunen eskuetan uzten dugu iztegi au. Iñori eskerrik zor bazaio Manu Sota Jaunari, beronen abiarazle izan zela esan genzakeanari, eta sei zazpi urteetan baitegian edo illobian zetzana piztu zuen *Amaia* taldekoei eman bear dizkiogu. Eta nik, ner e aldetik Koldo Ortega nere orduoroko langutzailleari. Eta azkenez, zuok eta euskaldunak egingo diozuten arrera onari.

PRESENTACION*

Nuestro prolífico e incansable escritor D. Jaime de Kerexeta me pide unas palabras de presentación para una edición abreviada que ha preparado de nuestro, así llamado *Diccionario de Autoridades del Euskera*, y no puedo menos de acceder a su petición.

D. Jaime fue uno de los que primero prestó su colaboración a la obra acabada de imprimir hace poco más de un año, en 1989. Fue él quien tan animosamente mecanografió a dos tintas, parte considerable del material en fichas que entregó D. Manuel de la Sota, el escritor que en primer lugar figura entre los autores de la obra.

El fichero del Sr. Sota nos ha sido especialmente útil en lo que respecta a unas fuentes especiales de las que él disponía: manuscritos de Harriet, Duvoisin, y de algún otro lexicógrafo vasco de allende el Bidasoa, así como algunas revistas de difícil consulta, como la «Revista de Misionología» que el escritor y religioso Joanategi dirigió durante 38 años, o el viejo semanario «Euskalduna», precursor del actual «Herria». Hubo que hacer, naturalmente, algún espurgo en el material presentado por Sota, a causa de lecturas no correctas o de errores de interpretación. Y a todo ello, hubimos de añadir los materiales procedentes de nuestra investigación, tanto de la literatura como de la más cercana a nuestros días, y del habla popular.

El diccionario, cuyo primer volumen salió a la luz el año 1976, y el cuarto, en 1978, y el quinto acabado y retenido en 1980, tras una interrupción de varios años, pudo salir íntegro en 9 volúmenes, gracias a la iniciativa y empuje de una nueva Editorial Amaia, que es la que emprende ahora la publicación de esta edición abreviada.

* In: Jaime de KEREXETA, *Diccionario Amaia de la lengua vasca*, Madrid, 1990, 5-6.

^Por qué una edición abreviada? No es que, en los 9 volúmenes salidos, esté todo el diccionario, y no haya que recurrir ya a nuevas exploraciones en el campo de la lexicología euskérica. Ni este diccionario ni el Hiztegi orokorra han dicho la última palabra. Hay mucho campo que explorar todavía, tanto en la vieja literatura como en el habla del pueblo. Donde menos se piensa, saltan nuevas voces o nuevas y más explícitas aceptaciones de voces ya conocidas, que pueden y deben enriquecer el idioma, sin recurrir a tanto préstamo facilón que ya denunciaba un euskerólogo del primer tercio del s. XIX, por cierto ajeno al País, y las tildaba de «Miseras divitias». El préstamo innecesario, no puede enriquecer el euskera. Hay voces castizas que viven en el habla del pueblo, que no aparecen nunca en nuestros escritores que están necesitados de un crecimiento más profundo del lenguaje que quieren hacer suyo. La obra reciente del P. Justo María Mokoroa, está llamada a hacer mucho bien entre nuestros escritores para una utilización más castiza del euskera.

Pero ^cuántos serán los que manejen y consulten esas obras: El Diccionario llamado de Autoridades, o el Hiztegi Orokorra en curso de publicación, o el diccionario fraseológico del Dr. Mokoroa?

Es lo que ha querido solucionar en parte, este Diccionario que ahora sale abreviado. Necesitamos la ayuda de esta otra clase de libros más reducidos, que ponga más a mano lo que se ha presentado en obras de mayor amplitud. Así lo ha pensado D. Jaime de Kerexeta, al preparar esta edición que Editorial Amaia se propone poner en nuestras manos. A la vez, servirá para que se corrijan algunas erratas que no dejaron de deslizarse en la edición mayor. No puedo sino, desearles el mayor éxito y que consigan los fines que se han propuesto.

HITZAURREA

Irakurleari zertxobait*

Norbaitek edo norbaitzuk esana da euskal idazleek ez dutela gramatikaren premiarik, gramatika-legeek idazlea lotu baizik ez dutela egiten; beraz jaramonik egin ez eta kito. Nolabaiteko euskera egitea omen da kontua. Eskuetan duzun liburuaren egileak ez dira iritzi berdiñeko.

Izan ere, euskera jatorra eta aberatsagoa egiteko, badugu zer ikasi eta zertan geure buruak jantziago egin, eta erdal idazleek baino areago, nik uste. Gure egunotan askok ekin dio idazte lanari; baina presaka ibilteagatik edo, esaldi oso traketsez betetzen dute beren lana, edo euskera lotuegia eta erdal kutsuz beteegia barabilte, gramatikarik ez jakiñez. Aurrean duzun liburuaren egileak konturatu dira eta argi apurtxo bat eskeintzen digute guztioi, batez ere euskera jatorrago eta ugariago baten kezka dabilzenei. Badakite dena ez dela gari garbia eta, aukeran, jakitun ipintzen dute irakurlea, bakoitzak onar dezan ongien eta jatorren deritzana. Edonola ere, txalogarria, esker onezko abegia merezi duena eta argigarria euskalzaleei eskuetatzen diguten lana. Eta gure eskoletan zabaltzekoa eta eukal idazle guztiei egoki etorriko zaiena.

AURKEZPEN GISA*

Aita Markos Olabarri euskal-aldizkarietan edo egunkarietan idazten agertu zela urtetxoak dira. Eta beronen izena irakurle batzuentzat ezaguna dela esango nuke. Baina nor dugu edo zer dugu berau? Izena bakarrik ezagutzea ez dugu aski, noski. Ezagutzen ez dutenei orain aurkezten dugun liburuak emango die zenbait berri, nongoa den, nondik nora ibilia den, bere bizitzan nolako ametsak jo ta eraginik bizi izan den, eta ez ametsak bakarrik; nolako lan ederrak burutu izan dituen, eta abar. Aita Markosek ez du bere bizitza ameskerietan galdu. EUSKALDUN BATZUEN ABENTURAK MADAGASKAREN liburuak argi erakutsiko du.

Aita Markos Diman jaio zen, beraz Arratiako semea da, lekaide hirukoiztarra. Trinitarioa, batetik, eta euskaldun eta euskaltzale gartsua, bestetik, bere bizitzako aldirik nagusiena atzerrian joan zaion arren, amaren altzoan ikasitako euskera galtzen utzi ez ezik, idazten eta lantzen ere jakin izan duena, orain aurkezten dugun liburuak argi ta garbi erakutsiko digunez. Beronen eta Euskadin jaiotako euskaldun hirukoiztar batzuen atzerrietan gertaturiko ibilerak eta egintzak dakarzkigu bertan. Urrutiko Madagaskar irlan maitez eta kementsu egin izan dute Malgatxoak gizabidean eta Kristoren bidean eskolatzen. Egileak euskeraz maitez eta bizi-bizi ematen digu egin dituen lanen eta erabili izan dituzten bide askoren berri. Era batera, Madagaskargo lurraldean eta jendeen egoera, ekandu, siniskera ta abarrak ere ezaguerazten dizkigu.

Egileak eta lagun izan dituen beste Euskaldunok, Bizkaiko ta Gipuzkoako semeok, ildo ta lorratz ederra utzi dute Malgatxoen artean. Benetan erarik jatorrene-takoan jakin dute Iparragirrek Gernikako Arbolari eskatu zion fruitua munduan eman eta zabaltzen. Nork esan du atzerrietara joan izan diren mixiolari euskaldunek bazutela

* In: Markos OLABARRI, *Euskaldun batzuen abenturak Madagaskarren*. Liburu au inprimategian aurkitzen da.

Euskaditik aldendu gabe non lan egin eta fruitua zabaldu? Etxerako, Euskadirako ezer garbirik egin ez eta askotan bake txarra ipini ta noragabeko burruka-giroa bazterretan sortzea maiteago dutenen esames eta zirto ganora gutxikoak izaten dira benetan horrelako hitzak. Euskaldunok ba dugu, noski, geure arterako zer eginik eta eginbiderik. Baina ez dezala inork gaizkirik esan, ez irain beltzik jaurtiki mixiolarien aurka. Guri geure etxea geuretzat bakez utzita joan dira. Ez dira aldendu, beste batzuk bezala, diru-goseak eramanik. Duten onena ematera joan dira, ilunpe beltzean zudenak gizonago egiteko; argia ematera joan dira Frantzizko Xabierko semea joan zen bezala; Jainkoaren semeen duintasuna erakustera joan dira; eriak osasun-bidean ipintera: behartsuei beren premietan laguntzera edo bizimodu erosoagoan jartera.

Eta dena egin dute beren euskalduntasuna ukatu gabe. Geure etxeetatik edo etxe-ingurutik irten gabe bizi izan garen askorentzat ez du gutxi esaten aita Markosek eta lagunek kultura oso ez-berdinetako Madagaskartarren artean inoiz egin zutenak, alegia, Malgatxoen alaigarritako euskal-jai ikusgarria antolatu, txistu-soinu ta guzti, neska dantzariak gure arteko neska dantzarien gona zuri-gorri ta abarrez jantzirik zeudela. Aita Markos ez da alferrik bera ere musikalari ta txistulari, beste bere anai bat bezala, eta gauza izan da jai horri bizkortasuna emateko.

Baina ez uste Malgatxoen artean euskal-folklorezko ikuskizun batek edo bestek bakarrik Euskaldunen izena maitagarri egin zuenik. Guretzat askoz aintzagarriagoa da Madagaskar osoak aita Kepa Arriortuari egin zion omenaldia. Arriortua aitak, Dimako semea berau ere, urteak zeramatzan Madagaskaren izugarritzko lana egiten, ez bakarrik kristau-elkarte ta eliza berriak sortzen, baizik eta eritetxeak eraiki, eskolak jarri, bi eskola nagusi ere bai, eta txiroentzat beste laguntza ta sorospideak eskaintzen. Guzti hori zela-ta, omenaldi egunean Errepublikako Agintari zenak berak «Chevalier de l'Ordre National» izeneko Dominea ipini zion mixiolari euskaldunari. Omenaldian partaide malgatxo ta gainerakoek «Aberriren aita eta ama» esaten zioten gora ta goraka. Aita Arriortuak ez zuen bere euskalduntasuna ez euskera inoiz galdu. Neronek entzun nion nere etxe-ondoko elizan bertako jaietan sermoi eder gartsu bat.

Aita Markosen euskaldutasuna are nabarmengarriago dela esango nuke. Fraide ta euskaldun agertu izan da beti. Mutikotan utzi zuen bere etxeko txokoa; Erroman ikasketa nagusiak egin, eta Erromatik Madagaskarera aldatuko zen, bere bizitzako urterik onenak Madagaskaren egiteko; azkenez, adinak erasota, Euskadira itzuli arte. Eta etxean ikasitako ta gero ikasiago egindako euskera beti erabili izan du bai ez-painetan eta bai bere luman. Euskaldunentzat euskeraz bialtzen izan ditu eskutitzak, eta euskaldunek berari zuzendutakoak euskeraz idatzirik egotea eskatzen zuen. Madagaskardik bere anai bati esaten zioena: «Euskaldun guztiek jakin behar lukete hitz egiten eta idazten euskeraz».

Eta gaur, 1949-tik 1990-era arte Madagaskaren nekeak neke iragan eta izerdi isuri ondoren, beretarren artera itzuli denean ongi merezi izan duen atsedena gozatzeko, beste euskal-lan bati ekin dio: beraren eta bere mixio-lagun euskaldun batzuen Madagaskargo lanen berri emanez datorkigu. Eta euskeraz eman ere. Egia esan, ez da orain arte itxaroten egon euskeraz idazteko. Esaterako, oraintsuengoz gure artera oporralditxo baterako Euskadiratu zenean, gure euskal-astekarietan aita Markosek

izenpetutako artikulu batzu agertzen zirela ikusi genuen, euskeraren egoeraz kezaturik batez ere. Baina oraingoan ez idazlantxo bat edo beste; liburu mardul ederra eskaintzen digu. Ez da indiano aberats eginik gure artera itzuli; joan zenean bezain ez-euki etorri da. Baina dirutan ematen ez den opari baliotsuagoa dakar: bere ta Euskaldun batzuen Madagaskargo neke ta izerdien ispilu ederra. Eta, era batera, hirukoiztar mixiolari gisa, arimen maitez berak eta beste Euskaldun batzuk eman duten bizia erakusten digula.

Euskaldun aldetik, Iparragirre kantariaren deiari erantzun jatorrenetakoa eman diola esango nuke. Baina kristau eta lekaide hirukoiztar den aldetik, beste bi deiri erantzun die areago, Kristok bere apostoluei zuzendutako dei eta eginbideari: «Zoazte mundu guztira ta eskola itzazue jende guztiak nere irakatsietan», dei bata, eta hirukoiztarrei beren sortzaileak eman zien dei ta eginbidea, bestea: «Zoazte etsaien menpe katepe gogorretan daudenak askatzera».

Liburuan, atzerrietako jende batzuk dituzten biziera, ekandu, siniskera ta usteak ezagutzeko jakin-mina dutenek, ba dute zer irakurri ta zer ikasi. Baina batez ere, liburu oso egoki ta ona dela uste dut nik, atzerrietan mixiolari askok daramaten bizitza neketsua ezagutzeko, nolako bide luze nekagarrietan dabilten askotan, oinez edo asto gainean edo bestela; bizia galtzeko nolako arriskuak ikusten dituzten, krokodiloen zintzurak irentsiak izateko arrisku ta abarretan; nolako aurrerabidean jarri izan dituzten Malgatxoak bazterretan eskolak sortuz, eta eskola nagusiak ere bai, Madagaskargo kristau-elkarteari bertoko apaiz, lekaide ta lekaimeak emanez, eta nolako anai-giroa ta on-iritzia duten Madagaskaren aintzinagotik sartuak dauden protestanteen aldetik. Horrezaz gainera, nolako esker ona ta maitasuna erakusten dien Malgatxoek, bai kristau berriek eta bai Kristoren ezaguerara oraindikan etorri gabe daudenek, guztien onerako egiten duten lanagatik. Gauza guztion berri asko ematen du gure mixiolariak, apologetika-lanik egin gabe.

Irla Gorrian batetik bestera ibilia dugu aita Markos eta asko ikusi du bere begiz. Baina tartean tartean bestek esan eta idatziez ere baliatzen da, berak dioena sinisgarriago egiteko; legezko ageri-paperak ere erabiltzen ditu, ongi datorkionean. Mixioen bibliografian zuzen onez sartzeko liburu idatzi du aita Markos mixiolariak.

Titulutzat EUSKALDUN BATZUEN ABENTURAK MADAGASKAREN jarri dio. *Abenturak* hitz honek kijotekeriak edo gogoratzen dizkigu, baina abenturak baino zerbaiz serioagoa da liburuaren mamia.

Egia begietatik ere sartzeko, argazkiz orniturik dator dena. Alde guztietatik liburu ederra dakarkiguna. «Ongi etorri» zabala zor zaio gure literaturaren alorrera aita Markosi. Eta irakurle asko opa dizkiogu beronen liburuari.

VI
BERTSO ETA OLERKIAK

Eriotz aurreko azken hilabeteetan (1990-1991) Aita Linok bere jatorrizko bertsoak eta itzulitako olerkiak eskuz idatzitako koadernu-eskuskribu batean batu zituen; aitaketa errazteko *Esk. A.* deituko dogu. Eskuskribu bitxia dogu, benetan; 33 orrialde lodi dituen «antzinako» argazki album batetan kopiatu zituen bere olerki lanak. Sarritan, bertsoek data dakarre, baina, gehienetan, batez bere itzulitako olerkiak ez dauke datarik.

Horregatik, kapitulu honetan, beraren jatorrizko bertsoak eta itzulpenak bereizteaz gainera, *Esk. A.*an agertzen dan ordenari jarraituko deutsogu, datak aparteko oharretan jarritz.

A. BERTSO JATORRAK

Lotsa lotsa naz*

Lotsa lotsa naz zuen artean
kantari emen asteko,
ain bertsolari onen aurrean.
Nor naz ni nor, agertzeko
baina biotzak dinost ixilik
benipein ez egoteko
guzti-guztiori biotz-biotzez
neure eskerrak emoteko.

Eskerrik asko jai au gertatu
dauan talde jatorrari.
Zer izan da au? Merci ederra
bertsolari ta dantzari.

Danau eskini nai dausat gure
Sant Antolin patroiar:
berak deizuela emon nik opa
deutsuedan beste sari.

Baltzolan, San Lontzo egunez, elizan

Auzo bakotxak bere santua
artuta dauka zaindari;

* *Esk. A, 5. (Oba, 90-IX-1).*

** *Esk. A, 12 (c. 1970-1980).*

martiri santu andia jarri
izan deutse Baltzolari.

Nor sendoago Lorentzo baino
gogor eusten fedeari?
Irri ta barre egiteraiño
illinti eta suari,
bere eskuko ondasun danak
bananduz ez-eukiari.

Ori egiten ikasi eutson
Kristo kurutzekoari
kurutzean bein gugaitik ilda
altaran dogun Jaunari.

Jaungoiko Aita, onez begitu
gaur emen dan erriari,
Lorentzok legez, beti eutsirik
kristiñau izateari,
noz bait zeruan aurkitu daiten
zeuri kanta ta kantari.

Erri-Otoitzak **Barzelonako euskaldunen euskal-mezarako**

- | | |
|--|--|
| <p>— Guztiok erri bateko egin,
orra, Aita, zuk nai dezuna
guzion erri au Eliza da,
Kristogan biltzen gaituna.
Anai nagusi Kristo degula,
au gure askatasuna!
Au ez dedilla gezur gertatu
eskatzen dizugu, Jauna.</p> | <p>Gure mundu au miñetan dago,
ezin aurkituz bakea,
ai zeinbat negar, ai zeinbat odol
bein galduz zure bidea!
Zeuk, Aita ona, argi egizu,
arren, erruki zaitea,
alík lasterren egin dazagun
mundu berri ta obea.</p> |
| <p>— Zugana goaz, batzuk mendeko,
beste batzuk agintari.
Buru dogunak artu dezala
zure legea gidari,
anai-bidea aurkitzen lagun
dezaíoten erriari,
agintedunak zeuk, Aita, egin
mendekoen zerbitzari.</p> | <p>Biziak gaitu gu ere ona,
Euskalerritik ekarri,
euskera eta sinismen bera
degu guztion lokarri
zeure aurrean orrela maitez
elkartu gaitezen sarri,
zeuk, Aita, zeure maitasunean
sendo gaitzazu ezarri.</p> |

* *Esk. A.*, 36-37. L. Akesoloren oarra: «Erri-otoitza, Aita Bingen Zubizarretak eskatuta». (1974-1-25).

Erri-Otoitzak
Loiolako apaiz eta lekaideen mezan*

- | | |
|--|---|
| <p>1. Jaunaren itzak zabaldu digu
goiko Aitaren barrua
Orain, anaiok, bijoa argana
gure eskarien oyua.
Euskalerrriak euskeraz erein
dezan zure itz santua,
luza ezazu aren gainera,
maitez, Aita, zeure eskua.</p> | <p>3. Gure mundua minetan dago,
ezin aurkitu bakea.
O zenbat malko, o zenbat odol,
galdurik zure bidea.
Zuk, Aita ona, argi egizu,
arren erruki zaitea,
eman laguntza denok dagigun
mundu au berri obea.</p> |
| <p>2. Zurea bedi gure erria,
mendeko eta agintari,
buru daudenek ar dezatela
zure legea gidari.
Anai-bidean ibillerazi
dezaioten erriari;
agintedunak zeuk egin, Aita
mendekoen zerbitzari.</p> | <p>4. Kristori urbil jarraitu naiak
gaitu biltzera ekarri,
sinismen bera, izkuntza bera
ditugularik lokarri
zuretzat zintzo bizi gaitezen,
praille, serora ta erri,
zuk, Aita, zeure maitasunean
sendo gaitzazu ezarri.</p> |

Zure semea otoitz egille
gure alde dogu emen:
eskeok, Aita, bete itzatu
Kristoren bitartez. Amen.

Erri-Otoitzak**

Jaunaren itzak argitu deusku
Jainko Jaunaren gogoia.
Orain, anaiok, beioa gora
gure eskarien oyua.
Jauna, Eleizak garbi dagian
erein zure itz santua,
luzatu eizu eleizgizonen
gainera zeure eskua.

Zure bedi mundu guztia
mendeko eta agintari;
agintariak artu daiela
zure legea gidari,
anai-bidean ibiliazo
deioen gure erriari,
agintedunak egizuz, Aita,
mendekoen zerbitzari.

* *Esk. A, 37-38. Aita Linok oar au jarri eban: «(Ia otoitz berbera. 31-XII-1975, Ebangelioa: In principio erat Verbum)».*

** *Esk. A, 38-39. Aita Linoren oarra: «Diman, 1989-VII-1. (Ia otoitz berbera)».*

Gure mundua larri dabilku
 lortu ezinik bakea.
 Ai zeinbat odol, ai zeinbat negar
 bein galduz zure bidea,
 argi eiozu zeuk, Aita ona,
 arindu danon nekea,
 lagundu, anai danoi egiten
 mundu barri ta ohea.

Kristinau zintzo izan gureak
 mezara gaitu ekarri,
 sinismen bera, izkuntza bera
 danon dirala lokarri:
 zuretzat leial iraun dagigun,
 eleizgizon eta erri.
 Zeuk, Aita, zeure maitasunean
 sendo gagizuz ezarri.

Zure Semea otoitz egille
 geure alde dogu emen:
 Arren eskaini zuk ez dakizu
 inoz ezetzik esaten:
 zeure erri onen eskeai ez zuk
 gaur ez-entzun egin, arren,
 gure eskariok bete egizuz
 Kristoren bitartez. Amen.

Erdu, Jesus ona Jaun artzeko*

Erdu, Jesus ona, erdu bai gugana,
 izan zaitte danon Jaube ta Jauna,
 zeru eta lurreko Jaubea izanik
 janari agin zara, guk jateagaitik
 Non dogu zu baino Nausi oberik?
 Erdu...

Ostatu baten eske, zatoz zu gugana:
 gure biotz au artu ostatutzat, Jauna.
 Zer nire barruan, au zoriona!
 Erdu...

Ez al zaitut, Jauna, nik sekulan itxiko
 zu baino Jaube oberik ez dot nik eukiko
 zurea izan nai dot, zurea betiko.

* *Esk. A, 41. (Oba, 1953).*

Gau ta egun (Jesus Sakramentuari)

Gau ta egun zaitut
or gorderik
argitxo bat beste
lagun barik
Bakartade ori
arindu nayeán,
auzpez nozu, Jauna,
gaur aurrean.

Deslai ibilli naz (Deslai nabil sarri)
itsuturik,
baina banatortzu
damuturik.
Erdu, Jauna, nire
biotz-barruraino:
ez dot gaur nik pozik
zeugaz baiño.

Zure egarriz daukat
barru dana:
zatoz, bada, zatoz
gaur nigana
zerura bidean
indar ta lagunak
izan zaite beti
nitzat, Jauna.

Belenera**

Belenera!
Goazen kristauak nagi barik
Belenera!
Jesus aurtxoá gurtzera.
Ara aingeruak zeruak beera
kantari datoz Aren aurrera,
Belenera, Belenera.

Aska baten!
Orra zeruko erregea
aska baten.
Asi bildurrak botaten
ara gugaitik zerua itxita,
apal otzanik aurtxo polita
aska baten, aska baten!

Zer eskiñi?
Ume maitagarri oni
zer eskiñi?
Bere eskutan dana ipiñi
bakar-bakarrik gure biotzak
eztitu daikez aren mingotsak
Badakigu zer eskiñi.

Or goietan!
Zeren durundua entzun da
or goietan?
Aingeruak kantu-otsetan:
gora zeruan Jaungoikoari,
bake lurrean gizon onari.
Aingeruak or goietan!

* Esk. A, 42. Aita Linoren oarra: «*Cerca de tí, Señor, abestiaren doiñuaz*» (1970-1990).

** Esk. A, 43. L. Akesoloren oarra: «*Oi Bettehen kantuaeren doiñuan*» (c. 1972).

Jaiki azkar*

Meltxor eta Gaspar,
jaiki azkar azkar.
Baltasar errege
etorri zu ere,
ea Belenera,
Jesus agurtzera.

Izarra so dizdiran,
Jaunak jarri digu
gure gidari,
Aren argitan nagirik gabe
jarri gaitezen bidean
zaldi pizkorren gainean
geure emoitzak aldean
goazen, goazen izar orren atzean.

Gabon jaietan

Gabon-jaietan, Gabon-jaietan
gure Jesus jaio zan egunetan
Goazen aren aurrera
Jose ta Maria lagun,
artzainekin batera
goazen kantari
goazen dantzari
tiriliki tikitanki
burrun-burrun, txiruliruli.

Gabon-jaietan, gabon-jaietan
bake ta poza begoz biotz guztietan
jo daigun bibolina
txistu ta tanbolina.
Alai erakutsi barruan dogun atsegiña
zar eta gazte
guztiok naste
tanparranpa tanpa
firu-firu, txiru iruli!

Au poza***

Au poza! Gaur zerutik
dator barri ona:
mundura jatsi dala
gure zoriona.

Estalpe txatxar baten
izar bat da agertu:
antxe dabiltz dantzari
ainbeste aingeru.

* *Esk. A., 44. L. Akesoloren oarra: «(Jose Domingok argitaratua)» (c. 1972).*

** *Esk. A., 44. J. Akesoloren oarra: «Alemaniako Gabon-Kanta bati ezarritako bertsoak. Markina (1972-XII)».*

*** *Esk. A., 44. L. Akesoloren oarra: «(Begoñan, Madrilgo moja baterentzat, 1962. Doñua: or goian etxian)».*

**Urte barri zorionak
(Ondarrabiko moja kalmeldar bati, 1972)**

Donostiatik Ondarribira
otoitz-zubia da jarri
eta aingeru bi dabiltz otoitzak
eraman eta ekarri.
Bizi gaitezen otoitzez aurten
biok lagunduz elkarri,
nik aizpa Miren Koldobikari
zuk, berriz, Lino aitari.

Gabonetan (1971)**

Belen-gainean izarra
Jainkoaren irriparra!
Bake ta ona opaka dator
aingeruen zarraparra!
Biotz kikilla; ez egiozu
aize orri itxi bularra.

Urte zaar, Urte barri,
bultzaka beti alkarri.
Biar gurpilla izan dedilla
zuretzat zoriongarri.
Lainorik bako egunik asko
Jainkoak beizuz ekarri.

Begoñatik Markinaraiño***

Begoñatik Markinaraiño
otoitz-zubia da jarri.
Zubiak Jesus eta Maria
ditu erdian giltzarri.
Or Markiña ta emen Begoña:
bitarte ortan jarria
dago aurtengoz zure ta nire
arteko otoitz-zubia.
zubi-gañean or ikusi dot
aingeru egal-zuria,
gelditu gabe izango alda
aren joan-etorria.

* *Esk. A, 46.*

** *Esk. A, 46.*

*** *Esk. A, 46 (1976).*

Markinako moja Karmeldarren Amari*
(Izar bat gidari, Maria ta Jose asto ganean dituen irudiagaz batera)

Izar ederra agertu jaken
 bein erregeai zeruan:
 ederragoa daroa orain
 Mariak altzuan.

Berak emongo al deutso grazi
 eta argirik ugari
 gaur eta bere bizi guztian
 Maria Anjela Amari.

Aita Konstantziori**

Igaztik ona urte bete da,
 denpora onen luzea!
 Arik onako gau-egunetan
 mudatu leike gaztea.
 Eta itxuraz mudatuago
 gaztea be eztan mojea.
 Eta Kriskitin Kraskitin
 arrosa krabelin
 gazte be eztan mojea.
 Ez ein barrerik, lengoa nago,
 Andresa ezta mudatu.
 Mudatu dana gure aita da,
 zeu zara urrin aldatu.
 Ta bitartean, Jaunak bilduta
 euzki batek nau argitu.
 Lengo beroa izan nai bozu
 Bilbo-aldera agertu.

Ai, Tarragona, ai Tarragona
 ik ostu don nire ona.
 Bero ta argirik barik itxi non,
 oin, barriz, ik Tarragona.
 Ik egin deustan bear txar ori
 niri eiteko eztona.
 Beti gorroto izan ez didan
 nire partez emoiona
 Konstantziori bere egunean
 artu ala zoriona.

* *Esk. A, 46 (1974).*

** *Esk. A, 47. L. Akesoloren oarra: «Barcelonara (Tarragonara), Andresaren izenean» (1959).*

Gabon zoriona*

Ona egunik pozgarriena,
Jesus jaio zan eguna,
Kristau guztiok alaitasunez
gainezka jartzen gaituna.

Zorion utsez opa dizugu
gabonak igarotea,
ta doakigun urte zarrari
azken ona emotea,
ta berriari bakez ta pozik
asiera bat ohea.

Saldañako ama nausi Grazianari

Graziana naiz, Graziana izan,
izen polita zurea.
Grazia eta gatza ederto
datoz bata nai bestea.
Neurri onean erabillizuz
(orra or dago untzea)
zeure egunean poz eukiteko
mendean dozun jentea.
Donostiatik neuk bere deutzut
opa zorion batea.

Markiñako Karmeldarren Jenaro Nagusiari***

Ez kukurrukurik jo,
Markiñako oillarra,
kukurrukuka astea
nauzientzat txarra.
Lanerako makurturik
euk lenen bizkarra,
olan apalduko dok

* *Esk. A, 48 (c. 1969).*

** *Esk. A, 48 (1969-XIM8).*

*** *Esk. A, 49 (1969-XII).*

bekoen gangarra
 artu eik ondo nire
 sermoitxu txatxarra.
 Baina batez be gaurko
 zorion-didarra.
 Bertsolari ezta, au dok
 bertso ein bearra!

Aita Ipolitori *
(Andresak)

Inarra baten ganean
 odei-buzten atzeti
 egadan dator Lanbreabeko
 sorgina Gorbei-osteti.
 Egun onetan Arratiako
 mojatxo baten parteti,
 zorion-agur biotzekoa
 dakartzu Bilbo aldeti:
 Gora ta gora, Aita Ipolito,
 zorionak gaur da... beti.

Ongi etorri**
(Konstantzio etortean)

Zu ikusiaz pozarren
 mutuak gelditu gara.
 berba bakar au datorkit neuri
 biotzetik ezpanera:
 Ongi etorri, gure Aitatxo
 alaba zarren artera.

Aita Konstantzioari***
(Bere loba Felisak eta Paulitak Saldañarenetik)

Aramotzetik Iurrerantza
 tximista baten moduan
 miru zuri bat egaz joan da
 paper zuria pikuan.
 Gura ebana eztau aurkitu
 berak uste eban lekuan.

Barriro gora egin dau egaz,
 bertso txo oneik itxita:
 Konstantzi Aita, zorion izan
 urte luzetxoz bizi-ta.
 Ta iñoz ez aiztu Saldañan dozun
 Felisa eta Paulita.

* *Esk. A, 49 (c. 1969).*

** *Esk. A, 49 (c. 1969).*

*** *Esk. A, 50 (c. 1970).*

Andresa nioja sukaldariari bere egunean (30-XI)

Gaur zorionka iatortzuz danak,
 Andresa, zeure egunean
 ona ni bere berba bat edo
 beste esan bearrean.
 Urte askotan zaitezela zeu
 bizi zorion betean.
 Gogoan euki Teresarena
 zeure lanaren onean:
 «Jaungoikoa non nai geugaz dabil
 baita lapiko artean».

Aita Konstantziori

Aurtengo aldiz Konstantzi aitak
 nora artu digu igesa?
 Zumai-aldera, Giputz-artera:
 au da emen esamesa.
 Giputz bertso bat ein bear diot,
 zoriondu al baneza.
 Nere zorion zintzo beroa
 egun onetan ar beza.
 Gora Konstantzi! Urte askotan!
 Badaki non dan Andresa.

Ekandu zarra ez galtzearren,
 emen naz gaur be kantari,
 zorion bero bat bialtzeko
 nere urriñeko aitari.
 Jaunak ixuri daizuzala
 bere graziak ugari.
 Laster etorten itxikotzue,
 au da gaur nire amesa.
 Itxi orduko albait ariñen
 artuixu onantz igesa
 Orduantxe bai poztuko dala
 benetan gure Andresa.

Konstantziori bere berrogeigarren urte-egunean (Txartela)

Ona gaur nire bertsoa:
 biotz-biotzetai doa
 Berrogei urte gaur eiten dozuz
 egun zorionekoa!
 Zeruko Jaunak eio deizula
 (au da gaur nire gogoa)
 ainbat pitxizko koroa.

* *Esk. A, 50 (c. 1970).*

** *Esk. A, 51 (c. 1970-1971).*

*** *Esk. A, 52 (c. 1970-72).*

Ongi < torri***(Jesusen Alaben Ama Nagusiari ongi etorri emoteko, Toledo aizparentzat)**

Ongi etorri gure artera
gaur gure ama maitia,
zure etorrera guztiontzako
baldin bada pozgarria,
gezurrik gabe esan ber det
euskera garbiz egia,
neretzat izan da bereziki
oso atsegingarria.

Andoaindarrak, gora burua,
ez inoiz ta inun lotsatu:
erri au bere baratz maitetzat
Jaunak du, noski, autatu.
Jaunarentzako pitxi ederrik
noiz nai da bertan loratu,
Jesusen Alabak badakigu
ezin gentzake ukatu.

Andoaindarra izan zan gure
ama Kandina Maria,
Jaunak guztioi amatzat jarri
zigun euskaldun garbia.
Oraingo ama orrek an bertan
izan zenun jatorria.
Nere biotza nola ez izan
pozez gañezka guztia?

Txoraturikan nago gaur pozez
gauza oiek oroitzean.
Danekin txorta egiñik, Ama,
zuri eskiñi naiean.
Arzazu nere biotzetiko
agurrarekin batean.
Gora Ama ori! Ongi izan emen
zeure alaben artean!

Obi baten**

Zureak gara bizian, Jauna,
zureak gara iltean:
Gorputz ta arima, azkenez biztu
gagizuz zeure aurrean.

Mundurik mundu*****(Iruñan 1968n, liturgisten mezan estribillo kantatzeko)**

Mundurik mundu
erririk erri,
eman dezagun eman
Jainkoaren berri!

Goazen munduz mundu
goazen erriz erri,
eman dezagun eman
Jainkoaren berri.

* *Esk. A, 52 (c. 1970-72).*** *Esk. A, 53 (c. 1968-1970).**** *Esk. A, 53 (1968).*

**Mañarian, Agustin abadearen eta Anastasio Barroeta
medikuaren omenaldi egunean, 71-X-3***

Don Agustin eta Anastasio,
biak emen osalari
ainbat urtetan ekin deustie
bakotxak bere lanari:
batak gorputzen gatxak uxatzen
bestea adi arimari.
Orregaitik gaur bion aurrean
esker onez da Mañari.

Etxe txiki bat**

Etxe txiki bat daukat
atxaren ganean:
etxako urik sartzen, maitea,
aterri danean
Begoña-gane eder polita!
Non da bardinik ikusi?
Bertan, maitia, egin gaitezan
zu andre ta ni nagusi
Ai, Begoñako Amak deizula
nireganako asmoa,
geure etxetxuan laster jateko
zeuk erreko opil gozoa!

Seaska-abestia* * *

Nere maitia, lo ta lo,
biok egingo degu lo,
zuk orain eta nik gero.
Biok egingo degu lo.

Dingilin dangun uamatxuka
dezu amatxo alboan:
aitatxo, berriz, lanean dogu

* *Esk. A, 53 (1971).*

** *Esk. A, 54. L. Akesoloren oarra: «Konponketa bat edo beste kantatzeko (Jose Domingok gitaratuak)» (c. 1971-1975).*

*** *Esk. A, 43. L. Akesoloren oarra: «(Jose Domingok ereskidetua)» (c. 1971-1975).*

zu zaituala gogoan.
 Bion kutuntxo ederren orrek
 egiguzu egin lolo.
 Aundi aundia azi zaitezen
 gure biotzen potxolo.

Ara loak artu du gure txikitxo,
 biotzekotxo.
 Ai aingerutxo onen loaren gozoa!
 Zeruko aingeruak betoz goiak bera
 seaska aldera,
 laguntxo duten onen
 lotxoa zaintzera:
 betoz goitik bera
 aingeru au zaintzera!

Gora Azkoitia!*

Trinidadeko plazatik datoz [Donostiko plaza bat da]
 enetzat berri alaiak
 an, nork geiago, jokatu dute
 trikitixa kantariak.
 Paperak dio: goian jarri du
 bere izena Azkoitiak,
 bikaiñenetan azaldu dira
 bi Epeldetar anaiak.
 Batak soiñua jo ta bestea
 jardun omen da kantatzen;
 bion artean bikote ezin
 ohea dute osatzen;
 oien saioa paperak dute
 oso bikaintzat aipatzen.
 Jarrai mutillak orrela beti
 gure erria ospatzen.

**Urkiolan, Bilboko eliz-barrutian Jaime Kerexetari, Santi Onaindia
 eta niri eginiko omenaldi-egunean, bazkalondoan****

Bertsolaririk bada gaur emen
 eta ez txarrak ganera,

* *Esk. A, 55. L. Akesoloren oarra: «(IX-1971. Aita Eulaliok bere errian kantatzeko eskatuta)».*

** *Esk. A, 55 (1984).*

baña nonbait eztabe gura
 agertu zuen aurrera.
 Ni beintzat orain banatortzue
 danei esker emotera.
 Gaurkoa izan da nitzat benetan
 «un funeral de primera».

Erromara bidekoak*
(Liturgi itzultzaileekin)

Emen dator Zarate [Mikel Zarate]
 kantari ta arro:
 lotsaraziko luke
 zenbait birigarro:
 etzaio oni egiten
 guztiz erraz marro,
 nornai arrapatzeko
 dala olagarro.

Orra kukurrukuka
 berriro Zarate,
 berak nai lukeala
 bertsotan alkate:
 badu, bai, berak mara-
 tilik aiña ate:
 Karmelok eta Larrek
 ixildu bezate.

Genovan goizik kaleratzeko
 sei praille ditut ikusi:
 seirak gazteak, praille-soiñekoz,
 ez ziruditen itxusi.
 Askok uste du moda berria
 dala denean nagusi.
 Baina Genovan nik ikusiak
 iritzi ori du ausi.

Frantzian Clemenceau ta Italian Cavour
 bidean ainbat izen zaiteken irakur.
 Bein erromaratuta, an buruak makur
 San Pedrori diogu auzpez egin agur.

Gaur goizaldean Comero-n nintzan
 Napoliko gorenean
 antxe sartu naiz zer erosiko
 bertako denda batean.
 Ango mutilla pozik jarri da
 fraile bat an ikustean,
 biar zorion izango omen du
 Napolesek futboleant.

Eztakit, Larre, zu ere nola
 galdu zeraden Pompeyan;
 ezta arritzeko. Xarriton Jauna
 galtzea olako tokian
 intelektual izanik, ango
 arri zarrak ikustean.
 Zuri itxaroten egondu gera,
 Larre, denbora luzean.

* *Esk. A, 56-59 (1971).*

Italiako Andalusian
Euskalerriko kotxea
errenka asi da ta ala izan degu
egun erdiko kaltea,
kotxe berrian aurrera goaz,
baina gabaz da bidea.
Inoizko batez onez al degu
joko Asisko aldea.

Ai Italia, ai Italia
ez zaude zu leengoa!
Naiz zoritxar au ez dan zurea,
ta bai mundo guztikoa.
Oztua dezu beingo fedea
eta illik beingo gogoa.
Bide ederrak dituzu baina,
galdua zerurakoa.

Artu ezazu beti gidari
San Pietro Erromakoa.
Izan ezazu beti eredu
Asisko Poverelloa,
batak bezaizu eman Jesusen
bizi betierekoa:
besteak, berriz, eguneroko
laneko anai-giroa.

Noiz beste bat izango?*

Amazortzi bat apaiz etorri
giñen Itali aldera:
irri ta bertso, barre ta birra,
umorez ibilli gera.
Orain bagoaz bardin kantari
baketsu geure etxera.
Noiz izango da beste bein ere
olako baten aukera?

Belokera**

(Iratzeder angu abata egin zutenean)

Zorionean igaro degu
geure bidean frontera.
Orain bagoaz Belokerantza,
angu fraideen etxera.
Nola ez joan biotz-biotzez
zorionak ematera,
angu urretxindor ona baitute
bertan Naguri atera?

Agur, Benito, zu omen zaitu
Europak izan guraso.
Zure semeek landua dute
len zena sasi ta baso.
Zuk, Iratzeder, berdin ezazu
gure erria gaur jaso:
Jaunari auxe galdetzen diot
egia dedilla jazo.

* *Esk. A, 59 (1971).*

** *Esk. A, 59 (1972).*

Monte Carlora bidean*

Ara ta ona ibilli
 gara naiko ero,
 orlesko kaleetan
 galduta luzero:
 baiña poztu gaitezen
 laurok onezkero.
 Emen da Niza eta
 Montecarlo gero.

Estibaliz**

Emen da berriz Liturgiaren
 euskeratzaille taldea.
 Ez ete gera Jaunak onetsi
 nai zuen talde xumea?
 Estibalizko Ama, zeuk ezti
 ezazu gure nekea,
 euskaldunentzat zelaitu dezan
 otoitzerako bidea.

Kantu batzuk*****(Jesus Gonzalez abade zanarentzat euskal testoa)**

1. Zure maitasuna
 betor, Jauna,
 guztiok zeugaz
 eta alkar lotzen,
 gorrotoak erreta
 geu Jainkozko egiten.
 Maite daigun alkar
 zeugan poztu gaitezen,
 zure biotzeko ura
 betor su txarrak iltzen.

* *Esk. A, 60. L. Akcsoloren oarra: «(21-VIII-1972) (Bizkarguenaga zanaren illetetara lau praille Markinatik)».*

** *Esk. A, 60. L. Akcsoloren oarra: «(1973-VIII-IO) (Liturgi-lanetan ango liburuan jarritako bertsozale taldeak neri aginduta)».*

*** *Esk. A, 55. L. Akcsoloren oarra: «(Jesus Gonzalez abade zanarentzat euskal testoa)» (c. 1950-1960).*

Maitasuna da bizi-legea
ta gorrotoa eriotzea.
Au atsegiña!
Beti Zeugan bizi
ta maitatzea.

2. Zeu, Jesus nire bizia,
zeu nire itxaropena.
Zu zaitut nik on guztia.
Jainko maitea
zuretzat nai dot il eta bizi:
zatozkit beti laguntzaille ta argi;
nire samiñen pozgarri.
Maitezko lokarria
dogu atsekabea,
arragorik onena
miñez bizitza.
Bebil nire bizitza
su onen argitan,
zure kurutzea dodala gogotan.
Zuretzat, Jesus nire
bizi ta biotza:
zukan dot nire poza,
kurutzea ta maitasuna,
au ondasuna!

3. Goazen guztiok Belenera
Jainko Umea an agurtzera.
Berak argitzen deusku, bai,
zerura bidea,
maitasun legea gozonai.
Goazen ixilik
itxartu ez daiten;
gure miñak ain goizik
asi da artzen.
Goazen guztiok Belenera
Jainko Umea an agurtzera.
Zerua zabaldurik Jaungoikoa bera
gizon eginik jatsi da lurrera.
Gizonak zeruratzen.
Berak argitzen deusku, bai,
zerura bidea,
maite-legea gizonai.
Au arrigarria! Jainko andia
Belengo Ume onetan, ona estalia.
Ixilik gurtu!
Danok gogoan gaitu,
maitasunaz bakea
opaka dogu.

Agur, ama maite,
ama on maitagarria.
Zu gure poza ta argia.
Gora ama ezta!
Maitasuna ta indarra
zugaz alkartu dira:
irribartxo bat naiez
zuri gagotzuz begira.
Agur ama maite.
Gure erbesteko negarrak
entzun errukiturik;
ez gaizuz, arren, itxi;
grinen sutan galdurik.
Agur, ama maite,
Ama on maitagarria,

zu gure poza ta argia!

Ille alde*

I

Betidaniko Jainkoa,
bizi-iturri bakarra:
entzun ezazu ilkorren
kantuaren deiadarra.

Pekatuaren ordainez
ilbearrekoak gara:
autsetik dugun gorputza,
berriz doa autsetara.

Baina Zuk emana dugu
zeure arnasa bizia,
gugan betiko bizia
erneko duen azia.

Au poz eta itxaropena!
Piztuko gara, piztuko;
Kristo piztu da aurrena,
ark gaitu zeruratuko.

Zeure erreinuan saritu,
Jauna, zugan il diranak [illa dana]
Kristoren fedea eta
Espiritua izanak [izana].

Zuganik eta zugana
lurtar guztion bidea:
azken batean guri
or beti zu gorestea. Amen.

II

Zugan dugu parkamena,
Zugan, Kristo, berpiztea:
zu pizturik, ezta dana
zorigaitz eriotzea.

Zuk ere ikusi duzu
azken-orduko barria;
burua makur diozu
Aitari eman bizia.

Artzai ona, gure gaitzak
gainean dituzu artzen,
erakuts guri bizia
Aitaren eskutan jartzen.

Beso-biotzak zabalik
gurutzeko oiñazetan,
lagun zera gaitzaldiko
naiz iltzerako neketan.

Zeure eriotzaz zerua
zabalik jarri diguzu,
iltzean ara betiko
pozik sartzea iguzu.

Gaur anai genduanaren
alde dizugu eskatzen:
bego beti goian Zuri
eskerkantuak kantatzen. Amen

Ille otoitzerako

I

Beti-betiko Jainkoa,
bizi-iturri bakarra:
entzun egizu ilkorren
kantu miñen deadarra.

II

Zugan dogu parkamena,
Zugan, Kristo, berbiztea;
Zuk pozturik, ezta dana
zorigatx eriotzea.

* Esk. A, 62. Emen 1978.urtean (Karmel 1978-2,35), argitaratutako testoa ere jartzen dot, ezberditasun arko ditulako.

Pekatuaren ordaiñez
il-bearrekoak gara;
autsetik dogun gorputza
barriro doa autsetara.

Baiña Zuk emonik dogu
Zeure arnasa bizia,
betiko bizia gugan
erneko dauan azia.

Au poz eta itxaropena!
Biztuko gara, biztuko!
Kristo biztu zan lenengo,
Berak gaitu goratuko.

Zeure erreñua sari
eman, Jauna, il diranai [danari]
Kristoren siñiste ta
Espiritua izanai [izanari].

Zugandik eta Zugana,
au da guztion bidea:
eiguzu zurean beti
zu goresten bizitzea. Amen.

Zuk bere ikusi zenduan
azken-orduko larria;
burua makur, Aitari
eskiñi zeuntsan bizia.

Artzain ona, gure gatzak
gaiñean dozuz Zuk artzen,
guri irakatsiz bizia
Aitaren eskutan jartzen.

Beso-biotzak zabalik
Kurutzeko oiñazetan,
lagun zaitugu gaixoan
naiz ilterako neketan.

Zeure eriotzaz zera
zabalik itxi deuskuzu;
iltean, orra betiko
pozik sartzea eiguzu.

Orain, geure ildakoen
alde deusugu eskatzen:
Goian bego(z) beti zuri
esker-kantuak kantatzen. Amen.

Artu zuk, Jauna'

Eska dezagun illaren alde,
Kristo bitarteko artuz.
Gure otoitzak asko dezake
Arenarekin alkartuz.

— «Artu Zuk, Jauna, il au zeruan,
betiko bizi-lekuan».

Kristorena zen, Aitak deitua
Arekin bizi ta iltzera;
Aitak eraman dezala orain
Kristorekin berpiztera.

— «Artu Zuk, Jauna, il au zeruan,
betiko bizi-lekuan».

Eskatu daigun illaren alde,
Kristo bitarteko artuz.
Gure etoitzak asko dagike
Arenarekin alkartuz.

— «Artu Zuk, Jauna, il au zeruan,
betiko bizi-lekuan».

Kristorena zan, Aitak deitua
Arekin bizi ta iltzera;
Aitak eroan daiala orain
Kristorekin berpiztera.

— «Artu Zuk, Jauna, il au zeruan,
betiko bizi-lekuan».

Eriotz onek, aide ta lagun,
asko ditu jo ta mindu;
baiña Jaunaren agintzak beza
min ori goza ta arindu.

— «Artu Zuk, Jauna, il au zeruan,
betiko bizi-lekuan».

Lehen joanak ere izan bitza
gure otoitzak gogoan;
guztiak bildu ditzala Jaunak
bere maitezko altzoan.

— «Artu Zuk, Jauna, il au zeruan,
betiko bizi-lekuan».

Eriotz onek, aide ta lagun,
asko ditu jo ta mindu;
baiña Jaunaren agintzak begi
min ori goza ta arindu.

— «Artu Zuk, Jauna, il au zeruan,
betiko bizi-lekuan».

Lehen joanak ere izan begiz
gure otoitzak gogoan;
guztiak batu daizala Jaunak
bere maitezko altzoan.

— «Artu Zuk, Jauna, il au zeruan,
betiko bizi-lekuan».

Ongi etorri*

Ongi etorri gure artera,
gaur gure Ama maitia.
Zure etorrera guztiontzako
baldin bada pozgarriya,
(gezurrik gabe esan bear det
euskera garbiz egiya)
neretzat izan da bereziki
oso atsegingarriya.

Andoaindarrak, gora burua,
ez iñoiz ta iñun lotsatu;
erri au bere baratz maitetzat
nunbait Jaunak du autatu.
Jaunarentzako pitxi ederrik
noiz-nai da bertan loratu:
Jesus'en alabok ba-dakigu,
ezin gentzake ukatu.

Andoaindarra izan zan gure
Ama Kandida Mariya,
Jaunak guztion Amatzat jarri
zigun euskaldun garbiya.
Oraingo Ama orrek ere an
izan zenun jatorriya.
Nere biyotza nola ez izan
pozez gaiñezka guztiya?

Txoraturikan nago gaur pozez
gauza oyek oroitzean,
danokin txorta egiñik, Ama,
zuri eskiñi nayeian.
Arzazu, nere biyotzetiko
agurrarekin batean.
Gora Ama ori! Ongi izan emen
zure alaben artean.

* Bertso oneik A. eskuskribuko orri zar baten agertzen dira, idazkera zarrean (c. 1950-65).

Ortzean zear*

Ortzean zear zabiltzen usoak,
ai nik banitu zuek douezan egoak!

Neure erriraiño nintzake egalari
erbestetuaren maitasun agurraren geznari!

Etsaiak erasota
ara non dan lur jota,
bere seme onenak sakabanatuta!

Erri gaixoa,
gaur ene gogoa,
espetxeko ordu beltzetan,
maitezko egoetan
zuganaiño egadan doa.

Zu zaitut, aberri,
neure zorigaitzaren azkarri:
zeu, aberri!

* Ik. L. AKESOLO, *Idazlan guztiak*, I, XXV.orr. Carmona'ko espetxean egindako olerkia, 1939-1940.

B. ITZULPENAK

I. LITURGI TESTUAK

Stabat Mater dolorosa* (Ama larririk egoan)

1. Ama larririk egoan
kurutzearen alboan,
Semea kurutzean.
2. A, mina ta naigabea
amak Semea ikustea
borreruen mendean!
3. Ama onaren negarra
abean Seme bakarrea
josirik ikustean!
4. Oinazetan dau biotza
eta ezpata zorrotza
barruraino josita!
5. Non eta nor da gizonik
errukitu ez leionik
ama ain larri ikusita?
6. Nori biotza ez ausi
Kristoren ama ikusi
baleu ain samindurik?
7. Bereen oben-zorretan
Semea an dakus neketan
zigorrez odoldurik.
8. An dau, bai, bere Semea,
irain-destaiñez asean,
azken arnas amoten.

9. Zeuk, Ama, maite-iturria,
indazu damu bizia
zeugaz min-lagun naiten.
10. Kristoren maitez daitela
biotz au sutu, orrela
nadin Aren pozgarri.
11. Semeak jasan zituan
zauriak biotz-barruan
egidazuz ezarri.
12. Sartu zeure Semearen,
nigaitik zaurtu ta illaren
alak biotz neurean.
13. Kurutzekoaz bat eiñik
negar-min begit zeugaz nik
bizi nazan artean.
14. Kurutze orren oiñetan,
Zeugaz bat egon naitetan
bizi gurarik nozu.
15. Birjinik bikainduena,
ez ein niri gorrarena:
negar-lagun ein naizu.
16. Kristoren alak jasaten
kurutzea eroaten
bizi nadin egizu.
17. Egin zeure Semearen
kurutz eta odolaren
egarriz ase naiten.
18. Zeu zakidaz bitarteko
izan zeu nire aldeko
epai andian, arren.
19. Eta, Kristo, ni il ondoan
ama bitarte, eroan
naizu zeure ondora.
20. Gorputz au noizbait il arren
arima au jaso zeuk, arren,
zeru goietan gora.

Miserere mei, Deus* (50. salmoa)
(Erruki izan egizu nigaz)

Erruki izan egizu nigaz,
Jaungoiko errukitsua:
zeure erruki orregaz
kendu nire pekatua.

Zeatz garbitu egizu, arren,
dodan gaiztakeri dana,
eta ezeztu egin dodazan
oben guztien orbana.

Nire gaiztakeri au
apal autortzen dot nik:
beti gogoan daukat
aldendu eziñik.

Zure aurka bakarrik
egin dot pekatu.
Zuk txartzat dozuna naz
egiten ausartu.

Alan zuzena zara
zeure eretxietan,
baita garbi-arteza
zeure epaietan.

Ni barriz pekatari
izan naiz sortua:
pekatari bizira
amak bialdua.

* *Esk. A, 8-10.*

Biotz-barruko zintzotasuna
dozu zuk beti atsegin
barru-barruko jakituria
niri, ba, ikasi eragin.

Isopoaz ureztau
naizu ta garbitu
zeuk irukutziz edurra baiño
zuriago ni biurtu.

Berba pozgarri alaiagarria
egidazu entzutea:
ta azur ausiak izango dabe
pozez ikara jartea.

Nire pekatuetatik, arren,
zeure begiak aldendu:
nire txarkeri guztiak, arren,
zeatz egidazuz kendu.

Nire barruan biotz garbia
sortu egidazu, Jauna!
Jarri barriro nire erraietan
gogoko sendotasuna.

Zeuk salbatuaz barrien barri
poztutea izan daidala:
ta sendotzeko emon eidazu
biotz zindo ta zabala.

Pekatariai ekingo deutset
zure bidea irakasten:
eta galduak asiko dira
zure aldera biurtzen.

Jagon nagizu zauriz iltetik
Jaungoiko salbatzaillea!
Ta nire miñak ots egingo dau
zure ain ona izatea.

Nire ezpanok, Jaungoiko orrek,
arren, eidazuz zabaldu,
eta ots baten nire agoak
egingo zaitu goraldtu!

Edozelango opari-gairik
ez dozu zeure gogoko,
erre-opari onenak bere
etzaitue zu beteko.

Nik dakartzudan oparia gaur,
neure biotz urratua:
ez egizu zuk iguiñez bota
biotz ausi lotsatua.

Zeure onaren onaz, Sion-gaz
arren, ona izan zaitez:
Jerusalengo orma-esiak
barriro eregi beitez;

orduan onez artuko dozuz
legezko opari garbiak:
zure altaran izango dozuz
eskinirik arakiak.

Jesusen Biotzari*

Jesusen Biotz, maitasun utsa
artu zeuretzat gure biotza,
zeruak, ez al da arritzekoa?
Gure biotzen eske Jainkoa!
Gure biotzak maitez sutzeko
zerutik jatsi zera eskeko.
Aldaran zaude goizero deiez
biotz-ostatu baten bearrez.

* *Esk. A, 11 (L. Akesoloren olerkia, edo bere itzulpena?).*

Quem terra, pontus, sidera*
(Legor, itsaso ta izarrak)

Legor, itsaso ta izarrak
jabetzat auzpez dutena,
Mariaren sabelean
ostatuz sartu da dena.

Eguzki ta illargiak
txandaz dutena serbitzen,
graziaz amatuaren
sabel garbiak du artzen.

Zorioneko Andrea!,
mundaren Egillea
dana bere esku duena
bere erraietan artzea.

Au amaren zoriona!
au berriaren andia!
Jainkoaren nai ta egitez
Jaunak ama du Maria.

Aintza, Jesus, zuri aintza
Birjinaren Semeari,
Aita ta Espirituaren
aintza bera dezunari.

Salve Mater**
(Agur, Ama)

Agur, Ama, errukiz betea,
Ama samur ta ezin ohea.
Esker danen iturri bizia,
gure poza ta uste on^a guztia.
O Maria!

Aintza zera gizadiarena,
Birjiñetan zu zara andiena,
zu lain ezta goitar talde dena
zeruetan zu zaude gorena^b.
O Maria!

Birjiñ ta Ama zorionekoa!
Aitaren eskumaldekoa,
Zeru lurren Jabe ta Jainkoa
zuga dezun mirariz^c sortua.
O Maria!

Jainko Aitak zaitu izateratu
ta Semeak itzalpean artu,
Gogo Deunak mirariz amatu,
oso Jainkoz egiña zera Zu.
O Maria!

Jaunak egin zaitu arritzeko,
zure lotsa begiko^d izan jako,
ta artu zaitu bere emaztetzako,
iñor eztu egin zu añaiko.
O Maria!

Goyan deunak gora nai zaituzte,
baina denak aski ez dirade,
zure ederrik asko ulertzen dute,
ulertzeko geiago daukate^e.
O Maria!

* *Esk. A*, 11.

** *Esk. A*, 27-28 (1938). P. JOSÉ DOMINGO DE STA. TERESA, *Florilegio Musical Carmelitano*, Vitoria 1947, 13-15 (B); KAEgutegia 1 (1951), 88 bis (C); Aita ONAINDIA, *Milla euskal-olerki eder*, Larrea-Amorebieta 1954, 775 (D).

" en *om. BCD*. ^b zeruetan — gorena C zeruetan zu gorengoena. ^c mirariz C guretzat, D zoru-nez. ^d betiko C eder. ^e Goyan — daukate C Zu goratzen or dira alegintzen/deun guztiak, baina uts gelditzen./Zure ederrik ainbat dute esaten,/baiña urrik ez dizute ematen. ^f gure eztigarri C Zu gure pozgarri. ^g Arren - pozgarri C Izan, arren, zu gure zaindari.

Izan, Ama, gure eztiagarri[†].
 Arren, izan Zu gure pozgarri[†],
 erbeste au daigunean utzi,
 zurekin or alai gaiten bizi.
 O Maria!

Agur, aintza Zuri*
(Himno del 7.º Centenario del Escapulario)

Agur, Aintza Zuri, Ama on kutuna[°]
 agur, zu , Karmelgo edertasuna.
 Zu, Jaunaren Ama Birjiña garbia,
 Karmel-go odeitxoan bein ikusia.

Agur, Ama ona! Guganako maitez
 zuk apaindu gozuz zeure kutunez.
 Jantzi onek gaitu il arte zainduko,
 eta il ezkerro zeuganatu[‡].

Gure zoriona zure babesean,
 danok anai zure maitasunean!
 Ez gu iñoz itzi ta ilezkeroan
 batu gaizuz danok zeure ondoan[‡].

Agur, aintza Zuri**

Agur aintza Zuri, Ama biguna,
 Zu zara Karmelgo edertasuna.
 Zu zara Birjiña orbanik bagea,
 Zu guretzat Ama ezin obea.

Gure Ama ona, gure maitasunez
 Zuk apaindu gozuz zure Kutunez,
 Kutun onek gaitu ilarte zainduko,
 baita ilda gero zeuganatu[‡].

* *Esk. A, 33 (A); KA Egutegia 1 (1951), 88 bis (B).*

° kutuna *B* biguna. † agur, zu *B* Zu zara. ‡ Agur — zeuganatu[‡] *B* Agur, Ama ona! Gure maitasunez/
 apaindu gaituzu zure kutunez, / kutun onek gaitu ilarte zainduko/baita ilda gero zeuganatu[‡]. Ez gu -
 ondoan *B* Zaindu gaizuz beti ta il ezkerroan/batu gaizuz, Ama, zure ondoan.

** NICANOR DE JESÚS - Luis URTEAGA, *Himno oficial a la Virgen del Carmen. [Agur, aintza Zuri]*,
 [Bilbao, 1951].

Gure atsegiña, Kutuna soñean,
 guztiok anaiak, zure izenean!
 Ez gu ñnoz itxi, ta il ezkerokoan,
 batu gaizuz danok zeure ondoan.

Agur, aintza Zuri*

Agur, aintza Zuri, Ama Karmengoa
 zure oinetan dozu Karmel osoa
 besotan Semea, eskuan kutuna,
 Zu zaitugu Ama ezti biguna.

Gora Ama maite,
 zure kutunpean,
 gure atsegiña zure babespean!
 Kutunean dogu emen zure eskua
 eta il ezker, irin zerua,
 itsas-leorretan zu gure argia.
 Zu garbitokiko miñen amaia,
 zeuk semeok nozbait Karmel-mendian gora,
 jaso gaizuz, Ama, zeure ondora.

Karmengo Amari**

Jainkoak bere ta gure amatzat zaitu autatu,
 aingeru guztiak baiño gorago zaitu goratu
 Erregin altsua, guri laguntzarik ez ukatu
 zeure begi samur orreik biurtu arren gugana
 pekatariok gana,
 zeu gidari eldu gaiten zuzen, Ama laztana,
 zure Semeagana,
 Karmengo Ama zerura,
 geure betiko portura.
 Larri dabil ekatxetan gure ontzitxo gaixoa,
 ekatxak gogor joa.
 Zeuk lagundu eldu daiten, Karmengo Ama, zerura
 geure betiko portura.

* *Esk. A, 33* (L. Akesoloren olerkia edo bere itzulpena?).

** *Esk. A, 33*. L. Akesoloren oarra: «Eslavaren kantu baterako» (Markina, 1973).

Rosa Carmeli*
(Karmelgo Lore)

Karmelgo lore
zaitugun Maria,
zatoz beti lagun gugana
O Maria.

- | | |
|--|--|
| <p>1. Zu, Jeseko
aien loratua:
semetzako
ni otsein, gaixua,
artu naizu,
zu arantzan
zatozen lorea,
beti garbi
nire arimea
gorde egizu.</p> | <p>2. Illunpean
zu zaitut nik argi,
samiñetan
zu nire pozgarri
izan zaite.
Gogor dabil joka
arerioa:
babes bekitt
zure soinekoa
ama maite.</p> |
| <p>3. Itsasoko
izar disditsua,
eroaizu
nire ontzitxoa
porturaino.
Zu, zeruko
giltza ta atea:
egidazu
ni orra sartzea,
zukanaino.</p> | |

Agur, Jainkoaren Ama**

- | | |
|---|---|
| <p>1. Agur, Jainkoaren
Ama maite ederra
zeruko atea,
itsasoko izarra.</p> | <p>2. Gabriel-en aoz
«Ave» pozgarria;
geroztik zaitugu
zu «Eva» berria.</p> |
|---|---|

* *Esk. A, 34. Markina, 1973.*

** *In: Orduen liturgia, Iruñe-Baiona-Gasteiz-Bilbo-Donostia 1977, 622.*

